



memoria sozioekonomikoa euskal autonomia erkidegoa

EEGAB



memoria sozioekonomikoa *euskal autonomia erkidegoa*





© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía, 35-1. solairua
48009 Bilbo
Maketazioa eta fotomekanika: Argia Servicios Gráficos, S. L.
Inprenta: Gestingraf, S. A. L.
Lege Gordailua: BI-3453-06
ISSN: 1577-1393

ANTXON LAFONT *Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Lehendakaria*



EEGAB

Hemen aurkezten ari garen 2005eko Txosten Sozioekonomikoaren testua Euskadiko Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako Batzordearen osoko bilkuran 2006ko urriaren 25ean aho batez onetsi dena da.

Batzordekide guztien lanak eta, bereziki, Txosten Sozioekonomikoaren batzordeko kideenak (Mikel Noval (ELA), Antxon Tomasena (CC.OO.), Rafael Izquierdo (LAB), Raúl Arza (UGT), Eduardo Arechaga (CONFEBASK), Jaime Fernández (CONFEBASK), Rafael Aranguren (Aurrezki Kutxak eta Finantza Erakundeak), Miren Garmendia (Arrantzale Erakundeak), Mikel de la Fuente (UPV-EHU), Francisco Javier Sanz (Kooperatibak), Felicísimo Ayastuy (aditua), Antón Borja (aditua), Iñaki Barrenetxea (aditua), M.^a Luz de la Cal (aditua) e Isabel Otxoa (aditua) daude batzorde horretan), ahalbidetu dute argitalpen hau. Gure goraipamena beraientzat, baita EGABko teknikarientzat ere (Arantza Unzurrunzaga, Leire Ozerin, Patxi Sasigain) Batzordearekin jardun baitute.

Atzeratu samar gabiltza argitalpena ateratzen bai, baina EGABz kanpoko Informazio Zentroek ateratzen dituzten datu estatistikoak eskuratzeak luze jo digulako izan da.

Txostena irakurtzean hainbat ohartarazpen, zeharo pertsonalak, etorri zaizkit gogora.

Txostenak diosku ez dela gorabehera handirik egon Demografiaren kontzeptuan 2004tik hona, baina kontuan izan beharko dugu, hurrengo Txostenetan, egongo den langile etorkinen beharraren datua, ez baita erraza ekonomia zelan bilakatuko den eta zer beharko duen igartzeari, batez ere munduko ez-lekutzeen tentaziopeko oraingo giroan.

Enpleguaren kontzeptuak, itxurazko bere balioan aztertuta, ez ditu azterketarako behar diren elementuak azaleratzen. Izan ere, badirudi beharraren beharraz prekariotasunera ohituz doan gizarte modu batera sartzen ari garela, zenbait langileren, batez ere gazteen bizitza pertsonalean enplegua-aisia-enplegua zikloak sortuz. Lanaren nozioa arian-arian aldatuz doa.

Kontzeptu honekin batera, mota guztietako prestakuntzaren egoera hartu beharko da kontuan, gazteena eta ez hain gazteena. Estatuko beste Autonomia Erkidego batzuen aldean, ez ditugu ondorioak behar beste neurtzen. EBra duela gutxi sartu diren herrialdeen aldean, badaukagu zertaz kezkatu, zuzenketa erabakigarriak egiten ez baditugu.

I+G+i eta Etxebizitza bezalako kapituluetan bilakaerarik ia igarri ere ez da egiten. Kontu horiek borondate politikoei erantzun gabe dieten eta benetako garapen iraunkorretara eramango gaituzten etorkizuneko balioekin bateragarriak diren eskuduntzak erabakiko dituzten aurrekontu aukeren inflexioak eskatzen dituzte, benetako edukirik gabeko apelazio kontrolatuekin konformatu barik.

Baikorrak izan gaitzeki, espero dugunez, gure Autonomia Erkidegoak normalean gure nortasuna Bake giroan eta oztoporik gabe garatzera bideratu beharko gintuzkeen bere Historiaren tarte hau igarotzen asmatzen badu. Batzuetan ikasi, eta beste batzuetan areagotu beharko dugu Adostasunaren Kultura.

Antxon Lafont Mendizabal
Lehendakaria

1 aurkibidea

LABURPENA ETA OHARRAK

LABURPENA.....	12
GOGOETAK	30

2

EAEKO JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK

1. EAEKO GIZA BALIABIDEAK.....	46
1.1. Demografia eta immigrazioa.....	46
1.1.1. EAEko bizikidetzak motak. Oinarrizko eraldaketak.....	48
1.1.2. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera.....	52
1.1.3. Proiekzio demografikoak.....	58
1.1.4. Immigrazioa.....	59
1.2. Hezkuntza eta horren sustapena.....	63
1.2.1. Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak.....	63
1.2.2. Unibertsitateko irakaskuntzen bilakaera.....	68
1.2.3. Ikasle atzerriarrak.....	72
1.2.4. Hezkuntza adierazleak.....	75
2. PRODUKZIO EGITURA ETA BERRIKUNTZA EAEN.....	86
2.1. Produktzio egitura.....	86
2.1.1. Enpresa Egitura eta Demografia.....	86
2.1.2. Nekazaritza eta Arrantza Sektorea.....	89
2.1.3. Industria.....	95
2.1.4. Eraikuntza.....	103
2.1.5. Zerbitzuak.....	105
2.2. I+G+B eta IKT jarduerak.....	117
2.2.1. EAEko I+G+B Sistemaren adierazle nagusiak.....	118
2.2.2. EAEko enpresa sektoreko I+G+B jarduerak.....	121
2.2.3. Enpresen eta, hain zuzen ere, ETEen partaidetza I+G-ko Esparru-programetan.....	124
2.2.4. IKT ekipamenduak eta erabilerak EAEko etxeetan eta biztanleen artean.....	126
2.2.5. IKT ekipamenduak eta erabilerak enpresetan.....	129
2.2.6. Merkataritza elektronikoa EAEn. Familiak eta erabiltzaileak.....	135
2.2.7. Teknologia berriak sustatzeko politika.....	136
3. INGURU NATURALAREN EGOERA EAEN.....	138
3.1. EAEko ingurumen estrategiaren jarraipena: Ingurumen adierazleak.....	141
3.1.1. Ingurumen kalitatea eta kutsadura.....	141
3.1.2. Baliabide naturalen kontsumoa.....	153
3.1.3. Materialen kontsumoa: materialen beharizan osoa.....	155
3.1.4. Ekoeraginkortasun orokorra eta sektoriala.....	157
3.2. Industria enpresa eta ingurumena.....	157
3.2.1. Enpresa jarrerak eta estrategiak ingurumenari dagokionez.....	158
3.2.2. Ingurumen legeria.....	159
3.2.3. Enpresaren ingurumen arazoak.....	159
3.2.4. Ingurumen politika: enpresaren ingurumen konpromisoa.....	161
3.3. Industria enpresek ingurumen babesean egindako gastua.....	163
4. PRODUKZIO AZPIEGITURAK.....	164
4.1. Garraio azpiegiturak.....	164
4.2. Telekomunikazioak.....	171
4.3. Energia.....	175

3

EKONOMIA EAEN

1. KANPOKO INGURU EKONOMIKOA.....	182
1.1. Faktore ekonomiko nagusiak.....	183
1.2. Bilakaera ekonomikoa arloka.....	185
1.3. Europar Batasuna.....	188
1.4. Espainiako ekonomia.....	190
1.5. Autonomia erkidegoak.....	194
2. EAEKO ABAGUNE EKONOMIKOA.....	196
2.1. Barruko eskaria.....	196
2.2. Kanpoko sektorea.....	199
2.3. Atzerriko inbertsioa.....	202
3. EAEKO SEKTORE PUBLIKOA.....	206
3.1. Diru-sarrerak.....	207
3.2. Gastuak.....	211
3.3. Sektore publikoaren zorpetzea.....	213
3.4. EAEko, estatuko eta EBko erakundeen arteko transferentziak.....	214
3.5. EAEko enpresa sektore publikoa.....	216
4. EKONOMIA SOZIALA.....	220
4.1. Kooperatiba sozietateak.....	222
4.2. Lan sozietateak.....	223
5. LAN MERKATUA EAEN.....	226
5.1. Jardueraren, enpleguaren eta langabeziaren bilakaera.....	228
5.1.1. Enplegua eta langabezia sexuaren eta adinaren arabera.....	228
5.1.2. Enplegua eta langabezia sektoreen arabera.....	238
5.1.3. Enplegua eta langabezia eremu geografikoen arabera.....	239
5.2. Lan merkatuan sartzeko eta irteteko jarioak.....	241
5.2.1. Kontratazioaren panorama.....	241
5.2.2. Banakako eta taldeko kaleratzeen bilakaera.....	244
5.3. Lan harremanak eta lan osasuna.....	245
5.3.1. Lan osasuna.....	245
5.3.2. Laneko gatazkak.....	249
5.3.3. Negoziazio kolektiboa: soldaten igoera eta lanaldia.....	250
5.4. Enplegu politikak eta zerbitzuak EAEn.....	252
5.4.1. Lan Ministerioak-EEZPK garaturiko politika aktiboak.....	253
5.4.2. Eusko Jaurlaritzak sustaturiko politika aktiboak.....	257
5.4.3. Lanbide heziketa iraunkorra EAEn.....	263
6. PREZIOAK, KOSTUAK, PRODUKTIBITATEA ETA ERRENTAK.....	266
6.1. Kontsumo ondasunen prezioak.....	266
6.2. Industria ondasunen eta lehengaien prezioak.....	270
6.3. Lan kostuak.....	273
6.4. Produktibitatea.....	274
6.5. Lan kostu unitarioak.....	275
6.6. Errenten banaketa faktoriala.....	277

4

BIZI KALITATEA EAEN

1. TALDE ZAURGARRI BATZUEN BIZI BALDINTZAK.....	282
1.1. Gazteria.....	284
1.1.1. Gizarte jarrerak eta balioak.....	285
1.1.2. Lan mundua.....	287

1.1.3. Etxebizitza eta bizikidetzak motak.....	290
1.1.4. Aisialdia eta astialdia.....	292
1.1.5. Bizi baldintzak eta gizarte ekintza.....	294
1.2. Adineko pertsonak.....	296
1.2.1. Adineko pertsonen gizarte eta ekonomia rol berria.....	297
1.2.2. Osasun egoera.....	300
1.2.3. Mendekotasunaren gizarte arazoa. Gizarte baliabideak.....	301
1.2.4. Egoera ekonomikoa.....	304
1.3. Etxerik gabeko pertsonak.....	305
1.3.1. Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Inkestaren emaitza (2005).....	307
2. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA.....	310
2.1. Osasunaren panorama orokorra eta lehentasunezko arazoak.....	310
2.1.1. Bizi itxaropena, hilkortasuna eta erikortasuna.....	310
2.1.2. Lehentasunezko osasun arazo batzuk.....	316
2.2. Osasun sistema eta prestazioak.....	323
2.2.1. Laguntzako osasun egitura, baliabideak eta jardura.....	325
2.2.2. Osasun sistemaren gastua eta finantziakzioa.....	332
3. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA.....	336
3.1. Lurzorua eta eraikuntza kostuak.....	336
3.1.1. Lurzorua EAEn.....	336
3.1.2. Eraikuntza kostuen estatistika.....	339
3.2. EAEko etxebizitza parkea.....	340
3.2.1. Konparazioa Europarekin.....	340
3.2.2. Etxebizitza Hutsen Estatistika (2005).....	342
3.3. Etxebizitza eskaintza EAEn.....	343
3.3.1. Salmentan dauden etxebizitzaren eskaintza.....	343
3.3.2. Eraikuntza jardura.....	346
3.3.3. Alokairu araubidea.....	348
3.4. Etxebizitzaren prezioen bilakaera.....	351
3.5. Etxebizitza eskaria EAEn eta epe laburrerako beharritza.....	355
3.5.1. Beharritza kuantifikazioa.....	355
3.5.2. Beharritza duten pertsonen eta etxeen ezaugarriak eta zioak.....	357
3.5.3. Beharritza duten etxebizitzaren ezaugarriak.....	358
3.5.4. Finantza gaitasuna eta esfortzuak.....	359
3.5.5. Generoko ikuspegia taldearen ezaugarrietan.....	362
3.5.6. Babesteko moduko segmentua, finantza gaitasunaren arabera.....	364
3.6. Etxebizitza politika eta finantziakzioa.....	365
3.6.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika.....	365
3.6.2. Foru Aldundien etxebizitza politika.....	367
3.6.3. Eraturiko hipotekak eta interes-tasen bilakaera.....	368
4. AISIALDIA, KULTURA ETA KONSUMOA.....	372
4.1. Finantziakzioa eta gastu publikoa kulturen.....	372
4.2. EAEko biztanleriaren ohiturak aisialdiaren erabileran.....	374
4.2.1. Komunikabideen sartzak.....	374
4.3. Kirolaren Euskadiko Planaren jarraipena (2003-2007).....	376
4.4. Kultura eta aisialdi jardueren eskaintza EAEn.....	378
4.4.1. Kultura ekipamenduetako bisitariak.....	378
4.4.2. Kongresu eta azoka jardura.....	379
4.5. Argitalpen produkzioa.....	381
4.6. Kontsumoa eta kontsumitzaileen defentsa.....	384
4.6.1. Kontsumoko erreklamazioak.....	384
4.6.2. Erreklamazioen ebazpena. Kontsumoko arbitrajea.....	385
4.6.3. Merkatuaren kontrola.....	387
5. POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKERIA EAEN.....	390
5.1. Pobreziaren eta gizarte desoreken inkestaren emaitzak (2004).....	390
5.1.1. Elikadura arazoak.....	391
5.1.2. Biziraupenari loturiko beste arazo batzuk.....	392
5.1.3. Aisialdiaren erabilerari loturiko arazoak.....	392
5.1.4. Etxebizitzari loturiko arazoak.....	393
5.1.5. Betebeharren estaldura eta zorpetzeko arriskua.....	394
5.2. Bazterkeria eta gizarteratze prozesuak.....	395

5

GIZARTE BABESA EAEN

1. LANGABEZIAREN AURKAKO BABESA: EIN ETA EEZP.....	406
1.1. Prestazioen eta langabeziaren aurkako estalduraren jasotzaileak.....	406
1.2. Langabeziaren aurkako babeseko gastua eta diru-sarrera.....	409
2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK EAEN.....	412
2.1. Gizarte segurantzako kudeaketa erakundeek transferitu gabeko prestazioak.....	413
2.2. Gizarte segurantzako kudeaketa erakundeek transferituriko prestazioak: Kotizazio gabeko prestazioak.....	417
2.2.1. GSKo kotizazio gabeko pentsioak.....	418
2.2.2. Gizarte Ongizateko Fondoaren laguntzako pentsioak.....	420
2.2.3. EGIL prestazioak.....	421
3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO NEURRIAK.....	424
3.1. Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko planak.....	424
3.1.1. Oinarritzeko Errenta.....	424
3.1.2. Gizarte Larrialdiko Laguntzak.....	426
3.1.3. AUZOLAN programa.....	426
4. GIZARTE AURREIKUSPENEN SISTEMA OSAGARRIAK EAEN.....	428
4.1. Magnitude nagusien bilakaera erakunde motaren arabera.....	429
4.1.1. Atxikipenak sistemara.....	430
4.1.2. Ondarea.....	431
4.1.3. Gastua pentsioetan.....	432
4.1.4. Araubide Fiskala.....	434


6

GARAPENERAKO LANKIDETZA EAEN

1. GIZA GARAPENA, ZORRA ETA GARAPENERAKO LAGUNTZA MUNDUAREN TESTINGURUAN.....	440
1.1. Giza garapenaren indizea. 2005eko emaitzak.....	440
1.2. Garapenerako laguntza ofiziala.....	442
1.3. Zorren zama.....	443
1.4. Bidalketen munduko jarria, pobreziaren aurkako armatzat.....	444
2. EAEKO GARAPENERAKO LAGUNTZA.....	446
2.1. Garapenerako lankidetzak eta laguntza fondoa (GLLF). 2005eko datuak.....	446

7

LEGEGINTZA JARDUERA EAEN



laburpena eta oharrak

1



1

Laburpena

1.1. Demografia eta inmigrazioa

Biztanleen Udal Erroldako azken datuen arabera, 2005eko urtarrilean EAEn biztanleen kopuruak 2000. urtean hasitako goranzko joerarekin jarraitzen du. Zehatz-mehatz esanda, 2005. urtean 2.124.846 biztanle zeuden, hau da, 2000. urtean baino 26.250 biztanle gehiago.

Era berean, Biztanleen Mugimendu Naturalei dago-kienez, 2004. urterako behin-behineko datuei erreparatuz (Eustat), hazkuntza begetatiboa —populazioaren aldake-ta, jaiotzak eta heriotzak kontuan hartuta eta migrazio-mugimenduak alde batera utzita— positiboa da. Hori gu-re Erkidegoan ez zen 1986tik gertatzen. Urte hartan 19.594 jaiotza izan ziren —aurreko urtean baino %1,7 gehiago— eta 18.101 heriotza —2003. urtean baino %6,2 gutxiago—. Horren ondorioz, hazkuntza begetatiboa +1.493 izan zen edo, beste hitzetan esanda, milako 0,7. Ordura arte EAEn hazkuntza begetatiboa 14 urtez etenga-be beherantz zihoan eta, dirudienez, gelditu egin da. 60. hamarkadan eta 70. hamarkadaren hasieran izandako sal-do begetatibo garrantzitsuen ondoren, 1990. urtean sal-doa negatiboa izan zen. Hori ez zen 1937az gero gertatzen. Ildo horri jarraiki, gutxienekoa 1996. urtean lortu zen. Ur-te hartan EAEn hazkuntza begetatiboa negatiboa izan zen eta 2.000 pertsona baino gutxiago izan ziren.

2004. urtean jaiotzek eboluzio positiboa izan dute hi-ru Lurralde Historikoetan eta EAE guztira hartuta, jaiotza-tasa milako 9,3koa izan da (2003. urtean 9,2). 1995. urte-

an hasitako jaiotza-tasaren gorakadari erreparatuz, 80. hamarkadaren erdialdean izandako mailara iritsiko gara. 60. hamarkadan zifra horrek milako 20 gainditzen zuen eta Estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen. Hala eta guztiz ere, nahiz eta gorakada izan, EAEk Estatuarekin (milako 10,6) eta EEkoekin (10,5) alderatuz, tasa txikiago-ak ditu.

Jaiotza-tasekin zuzeneko harremana du emakumez-koen jardura-tasak. 70. hamarkadaz gero, etengabe egin du gorantz. Alderdi hori eta belaunaldi gazteenen hez-kuntza-maila handiagoa ezin daitezke bereiz. 80. hama-kan eta 90. hamarkadaren hasieran, langabeziarenga-tik emakumezkoek lan-merkatuan sartzeko aukera gelditu egin zen gure Erkidegoan. Gaur egun emakumezkoen par-taidetza gizonezkoena baino txikiagoa izan arren, dife-rentziak murrizten ari dira.

Bestalde, Udal Erroldako datuei erreparatuz, 2005eko urtarrilaren 1ean EAEn erroldatutako atzerritarrak 72.767 pertsona dira, 2004. urtean baino %23 gehiago. Ildo ho-rri jarraiki, guztira populazioaren %3,4 dira. Eta, gainera, urtez-urteko hazkuntza goranzkoa da. Hala eta guztiz ere, erroldako datuek ez dute inmigrazioari buruz ikuspegi osoa eskaintzen, legez kanpo dauden etorkinak erantsi behar baitira. Horiek ere arin-arin hazten ari dira. Eusta-ten estimazioen arabera, 72.767 etorkin erroldatuei bes-te hainbeste erantsi behar zaie. Azkenekoak legez kanpo-



ko egoeran daude. Beraz, gure Erkidegoan egiaz guztira 140.000 etorkin daude, euskal biztanleen %6,8 alegia.

EAEn erroladatutako atzerritarren nazionalitateari erreparatuz, latinoamerikakoak nagusi dira hiru lurraldeetan. Nolanahi ere, Bizkaian %50 baino gehiago dira (zehatz-mehatz esanda, %53,4). EAEn batez beste %48,2 daude. Horien artean herrialde ordezkatuak Kolonbia (%14) eta Ekuador (%10,5) dira. Bigarren talderik ugariena EE-15etik datorrena da: %16,3. Dena den, datu hori aldakorra da lurraldearen arabera: Gipuzkoan %25etik gorakoa da; Araban, berriz, bigarren talderik ugariena Marokokoak eta Algeriakoak (%22,4) dira.

Era berean, 2005eko otsailetik maiatzera bitartean, Espainiako gobernuak etorkinak legeztatze prozesua abian jarri du. Hala, legezko "ikustezintasuna", baita estatistikoa ere, amaitu da pertsona batzuentzat. Hala eta guztiz ere, etorkin erroldatuen %15 besterik ez da. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren behin-behineko datuak kontuan hartuta, ekimen horri esker "paperik gabeko" ia 600.000 pertsona legeztatu dira Estatuan. Horieta 11.109 EAEn bizi dira (alde ebatzitako espedienteen %1,9). 2005. urtean izandako legeztatze-prozesuak Gizarte Segurantzarekiko afiliazioan izan du isla. Ildo horri jarraiki, EAEn aurtengo abenduaren amaieran 35.747 etorkin afiliatu ziren, aurreko urtean baino 13.388 etorkin gehiago, beraz, %60 gehitu da. Hala, gaur egun, taldea

afiliazio guztiaren %3,9 da. Dena den, Estatuko batez bestekoarekin alderatuz (%9,2), EAEn oraindik ehunekoa oso txikia da.

1.2. Hezkuntza eta hezkuntza-sustapena

Beste urtebetez (2005-2006 ikasturtea), erregimen orokorrean, unibertsitatekoa ez den irakaskuntzan (Helduentzako Hezkuntza Iraunkorra kanpo), matrikulazioa %1,6 gehitu da aurreko ikasturteko datuarekin alderatuz. Matrikulazioak batez ere behe-mailetan (Haur eta Lehen Hezkuntza) gehitu dira. Ildo horri jarraiki, hazkuntza ez da DBHra eta DOBHra (Irakaskuntza Ertainetara) iritsi.

2005-06 ikasturtean irakaskuntza ertainetan diharduen ikasleen %52,7k derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan Batxilergoa hautatzen du; gainerakoak (%47,3k) Lanbide Heziketara jotzen du. Ondorioz, LHren alde Batxilergoa pixka bat (0,2 hamarrek) jaitsi da.

Banaketa sareen arabera aztertuz gero, portaera oso desberdina da Haur eta Lehen Hezkuntzan (3-12 tartean) edo DBHn (12-16). Azken hamarkadan herri-eskoletara (Haur eta Lehen Hezkuntza) joaten den ikasleen kopuruak etengabe eta arinki gorantz egin du eta guztira %3 hazi da. DBHko ikasleei dagokienez, berriz, aldi osoan beherakada bizia izan da. Ildo horri jarraiki, %7 jaitsi da eta gutxienekora iritsi da: %42. Bakarrik azken urte hauetan

arinki errekupe ratzen hasi da. Derrigortasun osteko irakaskuntzen kasuan, portaera DBHkoaren antzekoa da. 2000az gero errekupe ratu da, Lanbide Heziketa indartu baita. Joera hori sare publikoan argiagoa da.

Hizkuntza-ereduei dagokienez, euskalduntze-prozesua gorantz doa. Hala, 2004-05 ikasturtearen eta 2005-06 ikasturtearen bitartean D ereduari matrikulazioa %46,7tik %52,2ra pasa da.

Unibertsitate Koordinazioko Kontseiluaren datuen arabera, EAEn Goi Irakaskuntzan matrikulatutako ikasleen kopurua 2003-04 eta 2004-05 ikasturteen artean %3,5 hazi da. Hazkuntza-ehuneko hori Estatuan izandakoa (%4,4) baino txikiagoa da. EAEn 2.600 pertsona daude maila honetan matrikulatuak: 1.242 gizonezkoak dira eta 1.358 emakumezkoak.

EAEko hezkuntza-adierazleei dagokienez, honakoa ondorioztatu dezakegu:

Eskolatze-tasa aztertuz, 2004-05 ikasturtean 3tik 15 urtera bitarteko guztiak eskolatuak daude; 3tik 16 urtera bitartekoei dagokienez, %90 baino gehiago eta azken adin honetatik 21 urtera arte eskolatze-maila %50etik gora kokatzen da. Ondoren jaitasi egiten da.

2005. ikasturtean *unibertsitatean sartzeko probak* egitearren EHUari guztira 10.666 ikasle matrikulatu ziren. Aurreko urteko datuekin alderatuz, %4,7 gutxiago izan zen. Horietatik %90,1ek gaitditu zuen azterketa, aurreko urteko datuekin alderatuz, ehuneko 2,3 gutxiagok. Estatuan matrikulatutakoen %81,7k gaitditu zuen; aurreko ikasturtean, berriz, %80,2k.

Adin hori duten biztanleen gaitnean ikasturte teoriko egokian matrikulatuta dagoen ikasleen ehunekoak (*egokitasun-tasa*) adinak gorantz egiten duen neurrian, beherantz egiteko joera du eta ehunekoak emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino altuagoa da.

Eskola goiz uzteari dagokionez, Europako herrialdeetan joera beherantzkoa da. 2004. urtean, EEko 15 herrialdeetako batez bestekoa %18 zen, EAEn, berriz, %12,4.

Biztanle aktiboan (lanean eta langabetuak) *hezkuntza-maila* aztertuz gero, lanean diharduen biztanleen kopurua handiagoa da ikasketak goi-mailakoak direnean. Gauza bera gertatzen da langabetuen ehunekoarekin. Langabetuen ehunekoak jaitasi egiten da horiek ikasketak dituztenean (%62,4tik %61,8ra).

Taldeko irakasleen ratioa eta taldeko ikasleen ratioa aztertuz gero, bi kasuetan, joera beherantzkoa da 2002-03 eta 2004-05 ikasturteen bitartean.

Bestalde, arduraldi osoa kontuan hartuta, *irakasleko ikasleen ratioak* balio altuena unibertsitate-irakaskuntzan du. Baina 2002-03 eta 2004-05 ikasturteen bitartean oinarritzko hezkuntza eta bigarren hezkuntza modu garrantzitsuan hazi dira eta irakaskuntza unibertsitarioak beherantz egin du. Hazkuntza batez ere, sare pribatuek izandako hazkuntzan oinarritzen da.

Eusko Jaurilaritzak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari 2.022.057 mila euro bideratu dizkio, hain zuzen ere, 2004. urtean kitatutako aurrekontua baino %6,8 gehiago. BPGri dagokionez, arinki jaitasi da: 2004. ekitaldian %3,8 bazen, 2005. urteko ekitaldian %3,5 izan da. EE-15 eta EE-25en 2003. urtean batez besteko balioak %5,21 eta %5,22 izan ziren, hurrenez hurren.

EAEko BPGren gaitnean unibertsitate-irakaskuntza publikoan gastua (ISCED-97: 5 eta 6; 1., 2. eta 3. zikloetako ikasketak) 2004. urtean %0,4 izan zen. EEko gaiterako herrialdeekin alderatuz, garrantzia oso txikia da. Estatuan batez bestekoa %1 da.

1.3. I+G+B eta IKT izenekoan jarduerak

EAEn I+Gn egindako esfortzua¹ %1,44 da, hau da, Estatukoa baino handiagoa (%1,07) eta EEko (%1,9) eta OCDE izeneko (%2,24) baino txikiagoa. Bakarrik Suediak (%3,74ko esfortzua), Finlandiak (%3,51), Japoniak (%3,15) eta Islandiak (%3,01) gaitditzen dute Lisboako Estrategian finkatutako helburua: 2010. urtea baino lehen %3ra iristea.

Gauzatze-sektoreen arabera, I+Gn egindako gastua aztertuz gero, enpresan gutxi gorabehera %59,8 gauzatzen da. Datu horietatik oso urrun zentro teknologikoak (%19,3), unibertsitatea (%17,7) eta administrazioaren mendeko zenbait herri-erakunde (%3,2) daude. Ildo horri jarraiki, EAEn enpresek egiten duten I+Gri erreparatuz gero, Estatuan eta herrialde dinamiko eta berritzaileenetan egindakoaren erdibidean dago. Estatuan enpresek gastuaren %54,4 bideratu zuten I+G egitera. Azkenekoetan enpresek gastuaren %64 bideratzen dute I+G egitera. Bartzelonako Gailurrean helburutzat jo zen %66ra iristea.

¹ BPGren gaitnean I+Gn gastuaren ehunekoak.

EDP izenekoan I+Gn dauden langileei dagokienez, 2003 eta 2004 urteen bitartean %5 gehitu egin da eta, hala, biztanle okupatuaren %12,8 da; milako hori Estatuan (%9) eta EEn (%10,7) izandakoa baino altuagoa da, baina oraindik urrun dago lurralde berriztatzaileenetan dauden datuetatik: Frantzia (%14,3), Alemania (%13,2), Japonia (%13,5). Emakumezkoaren zeregina jarduera ikertzailean gorantz doa, baina oraindik gizonezkoena baino txikiagoa da.

Eustaten arabera, 2001-2003 denboraldian 9 langileetatik gorako %31,9 establezimendu berriztatzaileak ziren. Dena den, kontuan hartu behar da Eustaten estatistikan hezkuntzaren sektorea barruan sartzen dela.

Eustaten arabera, 2004. urtean berriztapen teknologikorako jardueretan gastu guztia BPGren %3,8 zen, hau da, 2003. urtean baino pixka bat gutxiago: %3,9.

Berriztapen teknologikoaren motaren arabera, aurtan ere nagusiak dira produktuen gaineoetan prozesuaren berriztapenak. CIS3ren datuek² EEren kasuan kontrako emaitzak adierazten dituzte. Ildo horri jarraiki, produktu-berriztapenak dituzten enpresak %10 dira eta prozesu-berriztapenak dituztenak %7.

Enpresa berriztatzaileek herri-finantziazio gutxiago jaso dute 2001-2003 denboralditik 2002-2004 denboraldira, hau da, %36,8tik %29,8ra. Kooperazioaren ikuspegitik, berriztatu duen establezimenduen %3,6k berriztapen-jarduerari eta I+Gri buruzko kooperazio-hitzarmenen bat izenpetu du. Hitzarmen hauetan solaskideak, nagusiki, zentro teknologikoak (%78,9); Unibertsitateak eta beste-lako institutuak (%57,7) eta ekipoen hornitzaileak (%56,0) izan ohi dira.

IKT izenekoari dagokienez, dirudienek, enpresak hiritarrak baino hobe integratzen ari dira Informazioaren Gizarrean. Ildo horri jarraiki,

2005. urtean EAEk hirugarren tokia betetzen zuen Autonomia Erkidegoen rankingean etxebizitzetan dauden telefono finkoei erreparaturik (%92,1). Laugarrena zen etxebizitzan izandako ordenagailuei eta interneti erreparaturik gero (%52,5 eta %37, hurrenez hurren), bosgarrena telefono mugikorrari dagokionez (%81) eta hamalaugarrena etxebizitzetan izandako banda zabalarri erreparaturik (%15,8). EAE eta EEko zenbait herrialdeetan internet duten familien ehunekoa alderatuz, aurtan ere honakoa egiaztatzen da: esfortzua egiten jarraitu behar dela, EAEk

Estatuaren batez bestekoa (%36) gainditzen baitu, baina EE-25en batez bestekotik (%48) eta EE-15en batez bestekotik (%53) eta erreferentzi herrialdeetatik urrun baitago: Suedia (%73), Danimarka (%75), Luxenburgo (%77), Holanda (%78) eta Islandia (%84).

14 urtetik gorako geroz eta pertsona gehiagok du ordenagailua eta internet izateko aukera. Hala eta guztiz ere, 2005eko azkeneko hiru hilabeteetan, ordenagailuaren kasuan %60,1 (EE-25en %61 eta EE-15en %64) zen eta interneten kasuan %45,1 (EE-25en %43 eta EE-15en %46).

15 urtetik gorako pertsonen erreparaturik, %37,6k internet erabiltzen du (EE-25en %51 eta EE-15en %55), hau da, azken hiru hilabeteetan inoiz konektatu da, beraz, etxebizitzan internet duen pertsona-kopuruarekin ez du zerikusirik, bi aldagaik eragiten baitute: konektatzeak eta etxebizitzatik kanpo konektatzeko aukerak.

Merkataritza elektronikoari dagokionez, azken erreferentzi hilabeteetan internet erabilia sarearen bidez erosi duen pertsonen ehunekoa gorantz doa EAE. Hala eta guztiz ere, merkataritza elektronikoak EE-15en eta EE-25en baino hedapen murriztagoa du, azken hiru hilabeteetan internet bidez erabilera pribaturako produktuak eta zerbitzuak erosi dituen pertsonen ehunekoa %20 eta %17 izan baita, hurrenez hurren. EAE, berriz,

- Azken hilabeteetan Internet %10,35ek erosi du zerbait. Ehunekoa Estatuan izandakoa (%9,73) baino handiagoa da.
- Orain dela hilabete bat baino 3 hilabete gutxiago, internet erabilia %11,85ek erosi du zerbait. Ehunekoa Estatukoak (%7,93) baino handiagoa da.

EEko herrialde askotan gertatzen den bezala, ordenagailuak eta internet oso hedatuak daude tamaina handiko enpresa-ehunetan (9 langiletik gorakoetan). Hori ez da gertatzen enpresak 10 enplegutik behera dituen kasuetan.

Hala eta guztiz ere, enpresen lotura-tasa oso altua izan arren, gutxi jotzen da linean egindako jarduererantz. Horiei esker, IKT izenekoak erabil daitezke.

1.4. Natur ingurunea

Joerak txarrerantz egiten du eta hori azaltzeko honako ingurumen-adierazleak ditugu: ur kontinentalen eta estuarioetako uren kalitatea, negutegi-efektua duten ga-

² Third Community Innovation Survey, EEn (EE-15, Islandia eta Norvegia) egindako azkena.

sen igorpenak, lurzorua kalitatea higadurari eta artifizializazioari dagokionez, poluzio akustikoa, hondakinen sorrera (bai hiri-hondakinak, bai hondakin arriskutsuak), herri-hornidurarako ur-bolumen kontrolatua eta banaketa, baita batez besteko prezioa ere.

Ur kontinentalei dagokienez, 2005. urtean laginketa-estazioen %34 poluituta zeuden aurreko urtean izandako %33ren aldean. Estuarioen eremuan, poluziorik duten laginketa-puntuak %66 izan diren 1999. urtean izandako %53ren aldean.

NEGren igorpena 1990 eta 2004 bitartean gehitu egin da eta helburua baino gehiago, gainera: %35 %15en aldean.

Errepideetako zaratari erreparatuz, EAEko gainazalaren %9,3k (%3,6k gaeuz) Osasunari buruzko Munduko Erakundeak gomendatutakoak baino maila handiagoak pairatzen ditu.

1990 eta 2003 bitartean EAEn biztanle bakoitzeko sortutako hiri-hondakinei dagokienez, %22,5 gehitu da. Ildo horri jarraiki, 2003. urtean 545 kg/bizt/urte sortu ziren, hau da, EE-25en batez bestekoaren gainetik (534 kg/pertsona) eta EE-15en azpitik (577 kg/pertsona). Maila berean daude Italia eta Frantzia.

Bestalde, 2003. urtean (eskuragarria dagoen azkenean) guztira 371.821 t hondakin arriskutsu inbentariatu dira, beraz, 2001. urteko datuekin alderatuz gutxi gorabehera %7,4 gehiago. Urteko produkzio-jarduerarekin zerkusia duten hondakinak (lur poluituak, amiantozko hondakinak eta olioak/PCBko aparatuak, hau da zirkuitu inprimatuak) alde batera utziz gero, hazkuntza %3,29 izan da.

EAEn herri-hornidurarako guztira kontrolatu eta banatutako uraren bolumena 2003. urtean 213,8 Hm³ izan zen, hau da, 2002. urteko datuarekin alderatuz %9,2 gehiago.

Biztanleko ur-kontsumoa %1,4 hazi egin da 2002. urteko datuekin alderatuz gero, beraz, 149 litro/egun kontsumitzen dira. Hala eta guztiz ere, Estatuko batez bestekoaren azpian dago; bertan biztanleko kontsumoak berriz ere gora egin du eta 167 litro/egun lortu dira. EAEn 2003. urtean uraren batez besteko prezioa 1,15 euro/m³ (Estatuan 0,86 euro/m³) izan zen, hau da, 2002. urtean ordaindutako prezioa baino %0,9 gehiago.

Bestalde, Prestigeren hondamenditik (2003) bi urte igaro direnean, itsasertzeko uren kalitatea orokorrean hobetu egin da: itsas bainurako 31 zonak 2002. urtean balio gidak betetzen zituen eta 2003. urtean galdu zituen. Ga-

rai hartan horiek bakarrik derrigorrezko balioak betetzen zitzuten. Horietatik guztiak Zarautz erdialdea izan ezik, berreskuratu egin dira. Aldi berean, airearen kalitatea ona da edo gutxienez onargarria aztertutako azpizona guztietan.

Era berean, banaketa-sarean galdutako ura 2003. urtean 2002. urteko datuekiko %53,9 murriztu da. Dena delakoa, oraindik eskuragarriaren %9,5 da. Bestalde, 1990-2003 denboraldian materialen kontsumoan eragin-kortasuna %22 gehitu zen, hau da, produktibitate materiala (BPG/MBG(materialen behar guztia) gehitu egin da.

Ingurumenarekiko euskal enpresen posizioa aztertuta, sektoreen arabera desberdintasun garrantzitsuak daude errentagarritasunari begira ingurumen-inpaktuak balioztatzeke orduan. Ildo horri jarraiki, 1996ko poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko IPPC Arteztaraua bete behar duten enpresek argiago hautematen dute beren laguntza.

Horrez gain, enpresaren eta industriaren eremuan, aldeko joera dago. Hala adierazten dute 2005. urtean Eusko Jaurlaritzako Ekoeraginkortasunari buruzko adierazleek. Zehatz-mehatz esanda, hurrengoa aipatzen dute: 1990. eta 2004. urteen bitartean euskal industriak ingurumen-presio nagusiak murriztu dituela (negutegi-efektuko gasak %26, hondakin arriskutsuak %13) eta produkzioa gehitu duela (balio erantsi gordinaren %68). Hala eta guztiz ere, energia sortzen duen sektorea baztertuta, oraindik negutegi-efektuko gasen %23 igortzen jarraitzen du.

INEren datuen arabera, 2003. urtean BPGrekiko ingurumen-babesean industri enpresek izandako gastua %0,38 izan zen, hau da, 2001. urtean izandakoa baino %5,2 txikiagoa. EAEk hirugarren tokia betetzen du Asturiasen (%0,51) eta Nafarroaren (%0,41) atzetik eta Autonomia Erkidego guztiek Gaztela-Mantxak izan ezik, arloan esfortzua murriztu egin dute 2001. eta 2003. urteen bitartean.

1.5. EAEn egoera ekonomikoa 2005. urtean

EAEko kanpoko testuinguru ekonomikoak 2005. urtean hurrengo gertaera nagusiak izan ditu:

FMIren iritziz, 2005. urtean munduko BPG %4,8 hazi da, hau da, aurreko urtean baino puntu erdia gutxiago. Ildo horri jarraiki, EEBBko BPG zazpi hamarren jaitsi da; EE-25ekoa, berriz, %1,6 hazi da. Horiei honakoa erantsi behar zaie: merkataritza-trukeak gutxiago hazi direla

(munduko merkataritzaren bolumenean hazkuntza motel-tzen ari da 2004ko %10,4tik 2005eko %7,3ra). Nolanahi ere, enpleguaren sorrera tasa baxuetan baino egonkorre-tan mantentzen da (OCDE izenekoaren eremuan %1,3). Horri esker, langabezi tasa arinki murrizten da.

Petrolioaren prezioak arin egin du gora: dolarretan *North Sea brent* petrolio-prezioaren batez besteko hazkuntza %42 (10 puntos porcentuales más que en 2004) izan da eta abuztuan 64\$/b gainditu da. 1985az gero prezio altuenak lortu dira. Prezio energetikoen eta bestelako oinarritzko produktuen hazkuntzak aurrean inflazioa igo du. Dena den, oraindik kontrolpean dago.

Merkatu finantzarioetan, bereziki, Europakoetan, urte ona izan da: Eurostoxx indizea batez beste urtean %17,4 hazi da, aurreko urtean gertatutakoaren antzera, baina urtearen amaieran %23ra iritsi da. Dena den, urtearen amaieran interes-tasak igotzeko mehatxua dago (urtean zehar Erreserba Federalaren interbentzio-tasak zortzi aldiz igo dira eta urtea %4,25ean amaitu dute, hasieran baino bi puntu gorago eta 2001. urtearen erditik gorako-enak. Europako Banku Zentralak, berriz, urtearen amaie-ran bakarrik behin egokitu ditu eta oinarritzko 25 puntu izan dira. Ildo horri jarraiki, %2,25 dira.

Dolarrarekin erkatuz, urtearen amaieran euroak ba-lia galdu du, %11,6 alegia. 2004. urtearen amaieran tru-kea euroko 1,34 dolar izatetik 2005.eko abenduan 1,18 izatera pasa da. Dena den, urteko batez bestekoari erre-paratuz, Europako monetaren trukea Estatu Batuetakoa-ren aldean konstante mantendu da.

EAEren ibilbide ekonomikoa goranzkoa izan da: egiaz-ko BPG urtean batez beste %3,9 hazi da, aurreko urtean baino hiru hamarren gehiago (eta Estatutako batez bes-tekoaren gainera (%3,4)). Ildo horri jarraiki %4,3ko urte-en arteko tasarekin amaitu du urtea. Halaber, enpleguan datuak positiboak dira. Nolanahi ere, gorantz egiten ja-rraitzen du: lanpostuaren kopuruari dagokionez, %2,4 gehiago, 2004. urtean baino bi hamarren gehiago. Hala diote Hiruhilekoen Kontu Ekonomikoek. PRAren arabera 2004. urtean %1,3 hazi da, 2004. urtean baino hiru ha-marren gutxiago. Hazkuntza faktore nagusi hauetan oina-rritu da:

Barne-eskaera 2005. urtean sendo mantendu da; are gehiago, urtean zehar ibilbidea goranzkoa izan da. Ildo horri jarraiki, azpimarratzekoak dira inbertsioaren indar-berritzea (%5,3 hazi da, hau da, 2004. urtean baino lau hamarren gehiago) eta kontsumo pribatua mantendu egin

dela, aurreko urtean moteldu ostean. Gainera, kanpoko sektoreak hazkuntzari ekarpen positiboa egiten dio ha-marren batean (puntu erdia azkeneko hiruhilekoan). Hori 2000az gero ez zen gertatzen.

Eskaintzaren aldetik, eraikuntzaren sektorea gailen-tzen da eta, gainera, %5,3ko tasarekin. Ildo horri jarraiki, ia puntu batean gainditzen du 2004. urteko tasa. Datua berdina da Estatuan sektoreak izandako hazkuntzari erre-paratzen badiogu. Hala, eraikinen azpisektorean izandako hazkuntzak erabakigarriak izan dira. Bestalde, industriak dinamismo handiagoa du, batez ere, 2004. urtearen amaieran asko moteldu ostean. Ildo horri jarraituz, urteak aurrera egin ahala hazkuntza-tasak sendotuz joan dira eta batez beste urtean %4,4 hazi dira. Urtea amaitzean BPGren hazkuntza %5,2 izan da. Zerbitzuak egonkorrak mantentzen dira eta azken urteetako joera bera izan dute BPGren eboluzioari dagokionez. Hala, urtean %3,6 hazi dira. Azkenik, lehen sektoreko BPG 2005. urtean %11,5 jaitsi da.

Aurten beste datu positiboa honakoa da: lanaren itxurazko produktibitateak gorantz egin duela. 2002az ge-ro joera hori izan du eta 2005ean %1,4 hazi da (2004. ur-tean baino bi hamarren gehiago eta Estatutakoaren nahiz EEkoaren gainera). Alde negatiboan, berriz, inflazioa ko-katu behar da. Goranzko joera mantentzen du eta urtean batez beste %3,3 hazi da (2004. urtean baino hiru ha-marren gehiago; abenduan %3,7ra iritsi zen), beraz, urtearen amaieran UEMrekin prezioen diferentziala berriz zabaldu da eta 2002az gero baliorik altuena lortu du (2005eko ur-teko batez bestekoan 1,2 diferentzi puntu eta 1,5 aben-duan).

Azkenik, EAEn atzerriko inbertsioak 2004. urtean %150 egin zuen gorantz, baina 2005. urtean -%44 jaitsi da (urtariletik abendura bitartean Ekonomia eta Ogasun Ministerioi Kanpoko Inbertsioei buruzko Erregistroaren behin-behineko datuen arabera). Ildo horri jarraiki, inber-tsioen bolumen erlatiboari erreparatuz, bosgarren auto-nomia erkidego bihurtu da. Jaitsiera azaltzeko honakoei erreparatu behar diegu: Europako herrialdeetako inber-tsioa asko jaitsi dira. EAEn atzerriko inbertsioen %90 bai-no gehiago izaten da, baina 2005. urtean -%53 izan da. Euskal inbertsioak atzerrian 2004. urtean 3.797 milioi eu-ro izatetik 2005. urtean 1.099 izatera pasa dira. Dena den, erakunde finantzario batez joan den urtean Mexikon egindako eragiketa baztertuta (urte horretako inbertsioa-ren %91 izan zen), 2005. urtean euskal inbertsioa atze-rrian bosturtekoaren batez bestekoan dago eta 2004. ur-

teko inbertsioa baino %136 gehiago da, banku-eragiketa hori alde batera utzita. Izan ere, EAE atzerrian egindako inbertsioarengatik Estatuko hirugarren autonomia erkidegoa da Madrilen eta Kataluniaren atzetik. Estatuan atzerrian egindako inbertsioa -41% izan da. Beraz Estatuko inbertsio guztiaren %4,8 da.

1.6. Euskal sektore publikoa

2005. urtean EAEn herri-sektorearen jarduera aztertu nahi izanez gero, honakoa azpimarratu behar da: diru-sarrerara publikoak asko gehitu direla, hain zuzen ere, %13,2, aurreko urtean baino lau puntu gehiago. Ildo horri jarraiki, zuzeneko zergak asko hazi dira (%16), baita zeharkakoak (%11) ere. Hala, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien presio fiskala pixkana-pixkana gorantz doa: 2003. urtean %20,7, 2004. urtean %21 eta 2005. urtean %21,5. Azpimarratzekoak dira Bizkaiko Foru Aldundiak izandako diru-sarrerak: %14,2 gehiago, zuzeneko nahiz zeharkako zergek hobe eboluzionatu baitute.

Zerga Hitzartuen arabera (guztiaren %90 baino gehiago) izandako diru-bilketa %13,7 hazi da eta 11.265 milioi euro (BPGren %19,6) lortu dira; berezko kudeaketa-koak gehiago hazi dira (%15,8, aurreko urtearekin alderatuz, ia bikoitza); bien bitartean, BEZrengatik eta zerga bereziengatik egindako doikuntzak $-1,5\%$ jaitsi dira (2005. urtearen erdialdetik foru-ogasunek inportazioarekin parekatuta dauden eragiketen BEZa biltzen hasten direla kontuan hartu behar da. Horrek, bereziki, Bizkaian goranzko joera izan du).

Euskal Sektore Publikoan gastua guztira %6,5 hazi da, aurreko urtean baino puntu erdi gehiago. Aurten Aldundien artean (%10,5 hazi da) Eusko Jaurlaritzan (%8,6) baino puntu-pare bat gehiago da. Beraz, magnitude horren BPGren gainean duen ehunekoa hiru hamarren murriztu da aurreko urteko datuekin alderatuz eta %20,1ean kokatzen da. Gastu-kapitulu desberdinetan aldaketa esangarriak aurreko urtekoekin alderatuz ez dira oso desberdinak. Ildo horri jarraiki, hazkuntza gehienak honako kontu-sailetan gertatu dira: funtzionamendu-gastuak (%7), transferentzia arruntak (batez beste %8,5, baina %13,5 Foru Aldundietan), egiazko inbertsioak (%4,4 hazi da, aurreko urtean $-2,2\%$ jaitsi ziren bitartean) eta zor amortizatua (%7,1 hazi da, baina aurreko urtekoarekin alderatuz oso azpian gelditzen da).

Ondorioz, gastuak baino gehiago hazi dira diru-sarrerak, beraz, aurrezpen publikoa gertatu da: %33 aurreztu

da, hau da, 2.187 milioi euro; nolanahi ere, 2004. urtean BPGren %3,09 bazen, 2005. urtean %3,80 izan da. Administrazio guztiak batera hartuta, superabita 872 milioi eurokoa izan da; 2004. urtean BPGren %0,65 gehitu bazen, 2005. urtean %1,52 gehitu zen.

EAEn sektore publikoaren zorpetze garbia, Tokiko Era-kundean kanpo utzita, eta administrazioek izenpetzen dituzten kreditu-lerroak —gauza daitezke ala ez eta, orduan, zorpetzea egiazkoa baino gehiago izango da— kontuan hartuta, 2005. urtean goranzko joera mantendu egiten da. Hala gertatu da azken hiru urteetan, nahiz eta tasak %4,1 baino askoz ere txikiagoak izan, bai Eusko Jaurlaritzan (%3,6, zorpetze guztiaren %61), bai Foru Aldundietan (%4,8, nahiz eta kasu honetan arrazoi nagusia amortizazio txikiagoa izan). Urtearen amaieran Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 3.273 milioi € zor dituzte, hau da, EAEko BPGren %5,69, 2004. urtean baino ehunen gutxiago.

Enpresaren sektore publikoari —EAEko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak parte hartzen dute— buruzko azken datu eskuragarrien arabera, 2004. urtean guztien emaitza batera hartuta positiboa da. Azken urtean 53,3 milioi euro irabazi dira, baina 2003. urtean baino 14,9 euro gutxiago dira. Eusko Jaurlaritzaren partaidetza nagusi den sozietateetan langileen kopurua 2.900 enplegu inguru egonkor mantentzen da. Nolanahi ere, 2004. urtean hazkuntza txikia izan zen, %1,5 alegia. Foru Aldundiek parte hartutako sozietateei erreparaturaz, joera goranzkoa da eta 2004. urtean %5,9 gehitu zen.

1.7. Gizarte-ekonomia

EAEn gizarte- eta produkzio-ekonomiako 3.766 kooperatiba eta lan-sozietate daude. Hala dago jasota Eusko Jaurlaritzako *Gizarte Ekonomiari buruzko Zuzendaritzaren Erregistroan*. 2005. urtean goranzko joera izan dute. Bestalde, 2004. urteko datuekin alderatuz, geroz eta gehiago dira gizarte-ekonomiako enpresak, hain zuzen ere, 94 gehiago: 79 kooperatiba eta 30 lan mugatuko enpresa. Beste aldean, lan-sozietate anonimoak daude. Pixkana murrizten ari dira eta 2005. urtean 15 gutxiago daude. Gizarte Segurantzako datuei erreparaturaz, datu erlatiboetan gizarte-ekonomiako enpresak EAEko enpresen %0,7 dira eta %7 enplegu sortzen dituzte. Enpresa kooperatibo bakoitzeko batez beste 36 langile daude eta 12 lan-sozietate bakoitzeko, EAEko batez bestekoa baino 8 eta 4 aldiz gehiago, hurrenez hurren.

2005. urtean 1.580 kooperatiba daude erregistratuak, aurreko urteko datuekin alderatuz, %5,3 gehiago. Hazkuntza horren arrazoa honakoa da: lan elkartuaren 43 kooperatiba gehiago daudela. Bestalde, sozietate-bolumen handiena (guztia %66) oraindik bertan kontzentratzen da. Bien bitartean, etxebizitzaren sektoreak oraindik mantentzen du bigarren tokia sozietate-kopuruari dagokionez (2005. urtean 19). Izan ere, azken bosturtekoan etxebizitzaren kooperatiba-kopuruan hazkuntza-tasa %117 izan da, hau da, sektoreetatik altuena, EAEko kooperatiben batez bestekoak (%35) kontuan hartuz, askoz handiagoa da. Horien atzetik zerbitzuak (%49) eta lan elkartuetakoak (%28) daude. EAEren kasuan aipatutakoa, lurralde historiko bakoitzari aplikatu dakioke: Gipuzkoan 26 sozietate berri sortu dira; Bizkaian, berriz, 31; bien bitartean, Araban 22 sozietate berri sortu dira. Bertan gertatu da hazkuntza-tasarik handiena.

Gizarte-ekonomiako enpresek bestelako forma juridikoa har dezakete, hau da, lan-sozietateak, anonimoak eta mugatuak, izan daitezke. 2005. urtean EAE guztira 2.186 enpresa erregistratuak zeuden, 2004. urtean baino 15 gehiago. Lehenengo aldiz mugatuak anonimoak baino gehiago izan dira; baina enpleguari dagokionez, oraindik bigarrenek lanpostu gehiago sortzen dituzte. Enplegu elkartuari dagokionez, 70 pertsona gehiago daude, guztira 17.111. Horietatik %90 bazkide langileak dira. Sozietate mugatuak gorantz jarraitzen dute, aurreko urtean baino 30 gehiago dira eta %3,6 bazkide langile gehiago dira; bien bitartean, lan-sozietate anonimoak beherantz doaz: 15 gutxiago daude eta -%0,9 murriztu da enpleguen kopurua. Lan-sozietateen kapital soziala ere murriztu egin da: 2003. urtean -%2,8, 2004. urtean -%2,1 eta 2005. urtean -%2,1, bai sozietate mugatuak (2005. urtean -%3,3), bai anonimoetan (-%2).

1.8. Lan-merkatua

EAE 2005. urtean enpleguaren eboluzioak aurreko bi urteetako joera berdina jarraitzen du: okupazioaren tasak %1,3 egin du gora (2004. urtean baino hiru hamarren gutxiago), Eustaten PRA izenekoaren arabera, eta aurreko urtean baino 12.200 pertsona okupatu gehiago daude. Beraz, urtearen amaieran EAE guztira 951.500 okupatu daude. Enpleguaren hazkuntzan hurrengo ezaugarriak ditu:

Bakarrik zerbitzuen sektoreak eusten du (%4 (23.850 pertsona) hazi da eta jada enpleguaren %64 da); industriak berriz ere beherantz egin du (2001az gero sektore honek 13.850 enplegu galdu ditu, 3.550 azken urte hone-

tan) eta gauza bera gertatzen da eraikuntzan bigarren urtez jarraian (2004. urtean baino 1.500 enplegu gutxiago eta 2005. urtean baino 3.200 gutxiago).

Sexuen arabera, gizonezkoen nahiz emakumezkoen enpleguak gorantz egin du eta, gainera, gorakada orekatua izan da (joera berdina da langabeziaren jaitsierarekin). Aurreko aldietan emakumezkoen enpleguak azkarra egin zuen gorantz. Adinen arabera, helduetan egin du gorantz; bien bitartean, gaztearen artean -%5,3 murriztu da, demografiak beherantz egin baitu.

Ia enplegu guztia (+22.400) goi-mailako ikasketak dituztenentzat sortu da; bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, berriz, enplegua jaitasi egin da (-11.800 pertsona); lanbide-okupazio talde teknikoago eta kualifikatuagoetan gehiago gehitu da.

Eustaten PRA izeneko galdeketa jarraiki, langabezian 21.600 pertsona gutxiago daude; beraz, 2005. urtearen amaieran 49.100 langabetu zeuden. 2004. urtean langabetuen tasa %7,8 bazen, aurreko %5,7 izan da (%4,9 laugarren hiruilekoan). Hala, EAE berriz ere EAEren tasaren azpian dago. Hala eta guztiz ere, erabilitako iturriaren arabera, langabetuen kopurua nabarmenki aldatzen da. Ildo horri jarraiki, INEren arabera, 2005. urtearen amaieran 67.100 langabetu zeuden, PRAk aipatutakoa baino 18.000 langabetu gehiago. Horrek iturrien arteko desberdintasuna azpimarratzen ditu. Izan ere, datu horiek ez dira oso sendoak SPEEko (INEM) bulegoetan erregistratutako langabetuekin; EAE 2005. urtean batez beste guztira 84.808 dira (%58 emakumezkoak). Ildo horri jarraiki, aurreko urtean baino 4.900 langabetu gutxiago izan dira. Hori guztia hurrengo testuinguruan kokatu behar da:

Populazio aktiboa -%0,9 murriztu da lehenengo aldiz azken bost urte hauetan. Are garrantzitsuagoa honakoa litzateke: emakumezkoak eta gizonezkoak maila berdinean murrizten direla eta 35 urtetik beherako adin-kohorte guztietan. EAE jarduera-tasa 0,6 puntu jaitasi da eta neurri berdinean gertatu da emakumezkoetan eta gizonezkoetan.

Sexuen arabera, emakumezkoen eta gizonezkoen artean murrizketak orekatuak izan dira. Dena den, urtearen amaieran emakumezkoen langabezi tasa %5,7 zen (aurreko urtean baino 2,2 puntu gutxiago), bien bitartean, gizonezkoena %4,3 (2004. urtean baino 2 puntu gutxiago), beraz, sexuen artean desberdintasuna 1,3 puntukoa da, gutxieneko historikoa. Halaber, adinen arabera, langabezi tasaren diferentziak nabarmenki murriztu dira, gazte-

riaren artean langabezia asko murriztu baita: urtean batez beste $-42,4\%$. Hala, $13,5\%$ ean dago.

Luzaroko langabeziak murrizten jarraitzen du: azken hiru hilabeteetan 7.400 langabetu daude 6 eta 12 hilabete bitartean; 8.700 1 eta 2 urte bitartean eta 6.500 bi urtetik gora. Iraupen guztietan pertsona kopuruak beherantz egin du -20% eta -30% bitartean.

Kide aktibo guztiak langabetuak dauden familia-kopuruari erreparatu, -30% (12.500) gutxiago da; bestalde, geroz eta familia gehiago daude kide guztiak okupatuak dituztenak: 478.200 familia.

Kontratazioa moteldu egin da, kontratu erregistratuak $2,1\%$ (2004. urtean $6,3\%$) hazi baitira. Hazkuntza kontratu mugagabeei esker gertatu da ($7,4\%$ gehiago izan dira); bien bitartean, kontratu berriak $1,9\%$ besterik ez dira hazi.

2005. urtean kontratazio mugagabea $5,3\%$ hazi da eta guztira 543.400 pertsona dago egoera horretan, hau da, soldatapeko biztanleen $70,6\%$. Bestalde, lanaldi partzialeko kontratazioa 2004. urteko datuekin alderatuz $8,7\%$ gehitu da eta guztira 234.666 kontratu erregistratu dira, guztien $29,1\%$. Lanaldi osoko aldi baterako kontratazioak (kontratuen 63%) $-0,9\%$ egin du beherantz (guztira mota honetako 507.769 kontratu egin ziren) eta prestakuntza-kontratuak $-3,9\%$ jaitsi dira. Ildo horri jarraiki, azkenekoak kontratu guztien $1,1\%$ dira.

Egoera pixka bat hobea izan da emakumezkoen artean, kontratuen erdia talde horri egin baitzaio. Dena den, kontratu egonkorrei dagokienez, presentzia txikiagoa da, ez da 40% iristen. Oso nabarmenak dira, berriz, aldi baterako kontratuak: ia 71% .

PRAren datuen arabera, behin-behinekotasunaren tasa hirugarren urtez murriztu egin da eta orain $25,6\%$ da, aurreko urtean baino $1,5$ puntu gutxiago. Dena den, murrizketa gizonezkoetan (tasa: $23,2\%$) emakumezkoetan ($28,8\%$) baino biziagoa da, beraz, bi sexuen arteko tartea $5,6$ puntutan gehitu da. Nolanahi ere, estatistikek kontuan hartzen duten handiena da. Gainera, kontraturik gabeko egoerak eta bestelakoak (nagusiki, emakumezkoen artean) aurten murriztu egin dira $4,6\%$ tik $3,8\%$ ra. Emakumezkoen kasuan $6,7\%$ da, aurreko urtean baino bi puntu eta erdi gutxiago. Gizonezkoen kasuan, berriz, $1,5\%$ da, 2004. urtean baino $0,5$ puntu gehiago.

Adinaren arabera, gazterien behin-behinekotasuna aurten oso gogor murriztu da ($6,3$ puntu). Bakarrik adin-

tarte horretan gizonezkoen behin-behinekotasuna emakumezkoena baino handiagoa da (nahiz eta tasa 60% izan). Era berean, gazteen artean kontraturik gabeko egoerak gizonezkoetan ($3,7\%$) mantendu egiten dira eta emakumezkoetan murriztu. Dena den, oraindik kasuen $7,1\%$ da.

Lan-errotazioari buruzko datu eskuragarrien arabera, 2005. urtean arinki murriztu dira. Hala eta guztiz ere, 2000-2003 denboraldikoen gainetik daude: 2004. urtean kontratatutako pertsonako batez besteko $2,65$ kontratu ziren, 2005. urtean, berriz, $2,56$. Bai gizonezkoetan (7 ehuneneko), bai emakumezkoetan (10 ehuneneko) murriztu da. Dena den, emakumezkoetan gizonezkoetan baino altuagoa da oraindik.

Osalanek EAEn lanean izandako ezbeharren kopuruak adierazten ditu. Joan den urtera arte lan-istripuak eta gaixotasunak, baita larritasuna ere urte urte beherantz zihoan, baina 2005. urtean gorakada izan du ia kategoria guztietan eta, nagusiki, larrienetan. Aurten izandako lan-istripu guztiei erreparatu, $7,5\%$ hazi dira (2004. urteko -20% en aldean). Larriak $7,4\%$ hazi dira eta heriotzarekin amaitu direnak $12,3\%$ (2004. urtean $-30,5\%$ murriztu ziren). Bajarekin izandako istripuen artean, bai lanaldian, bai bidean, ezbeharren kopurua $9,8\%$ gehitu da, istripuengatik izandako berriz gaixotzeari dagokionez $19,1\%$ eta lan-gaixotasunak bajarekin 2005. urtean laukoiztu egin dira, nahiz eta joan den urtean -77% murriztu. 2005. urtean guztira 82 istripu izan dira heriotzarekin, horietatik 62 lanaldian gertatu dira eta lantokirako ibilbidean 2004. urtean izandako 20 istripuak errepikatu dira.

Lan-gatazkak 2005. urtean asko murriztu dira, joan den urtean gertatutakoaren aldean. Urte hartan biziki gehitu ziren. Beraz, 2005. urtea gatazken ikuspegitik azken hamarkadako lasaia da. 2005. urtean guztira 176 greba egin dira eta 2 ugazaben itxiera, 2004. urtean baino 67 gutxiago. Beraz, gatazkan zeuden langileen kopurua -50% jaitsi da, baita lan egin gabeko lanaldien kopurua ere. Kasu horretan -83% murriztu da. Halaber, ratio desberdinak murriztu dira: gatazkako langileen kopurua 416tik 302ra pasa da aurten, hau da, -27% gutxiago, eta gatazkako lanik egin ez den lanaldien kopurua -76% murriztu da, hau da, batez besteko 603 lanaldi. Ildo horri jarraiki, langile bakoitzeko lanik egin gabeko orduak 2004. urtean 48 izan baziren, 2005. urtean 16 izan dira.

Azkenik, negoziazio kolektiboa 2005. urtean gelditu egin da. Lan Harremanetarako Kontseiluak (LHK) nego-

ziazio kolektiboari buruz eskainitako datuen arabera, aurren 629 hitzarmen kolektibo daude indarrean eta erregistratuta abenduaren 31ra arte (2004. urtean baino 20 gehiago), baina langile gutxiago dago ordezkaturik, hau da, -11% .

Hitzarmenetan EAEn 2005. urterako batez beste ordainsaria $4,38\%$ hazi da.

Hitzartutako lanaldi osoan orduak murrizterantz hartutako joera mantentzen da, baina aurreko urtekoekin erkatuz, moteldua dago. Dena den, oraindik hitzarmen garrantzitsuak daude izenpetzeke. Abendura arte izenpetutako hitzarmenetan (EAEn eragina izanez gero) batez beste urtean 5 ordu murriztuko dira (2004. urtean 6 ordu izan ziren). Bien bitartean, EAEn erregistratutako hitzarmenetan 6,1 ordu (6,9 ordu aurreko urtean) murriztu dira. INEK Lan Kontuari buruzko Hiruhileko Galdeketa egin du eta datu horiei erreparaturik, urtean EAEn lanaldia 1.561 ordukoa da (2004. urtean baino 2 ordu gutxiago); PRAren datuen arabera, batez beste lanaldia 2003az gero murrizten ari da eta 2005. urtean $-0,2\%$ jaitsi da. Astearen batez beste 36,6 ordu egiten dira.

1.9. Zenbait talde ahulen bizi-baldintzak

Herrialde aurreratuaren demografi eta gizarte-fenomeno nagusia honakoa da: azken hamarkadetan biztanleak zahartzen ari direla eta adin-piramidea goiko aldean zabaltzen ari dela. Beraz, gazteek geroz eta garrantzi txikiagoa dute. Orain dela ehun urte, populazioaren erdiak 24 urte (adin ertaina) baino gutxiago zituen, bien bitartean, batez besteko adina 28 urte ziren. Gaur egun, euskal biztanleen batez besteko adina gutxi gorabehera 40 urtekoa da.

Izan ere, Europako Elkarrekin guztian biztanle gazteek garrantzia galdu dute, baina prozesua Estatuan eta EAEn gainerako herrialdeetan baino arinagoa izan da. 1994. eta 2004. urteen bitartean 15etik 29 urtera bitarteko ko-horteen garrantzi erlatiboa $21,7\%$ tik $19,6\%$ pasa zen EE-15ean, $23,3\%$ tik $21,4\%$ Estatuan eta $24,7\%$ tik $19,5\%$ era EAEn. Tasa horri erreparaturik, gaur egun 400.000 pertsona baino pixka bat gehiago da gure Erki-degoan.

Indibiduoaren emantzipatzeko prozesuan, hau da, gaztaroaren azken faseetik heldutasunaren hasierara pasatzeko fasean enplegua eta etxebizitza elementu protagonistak dira. Beraz, bi alderdi horietan EAEn gazteria kezkatu agertzen da. Enpleguari dagokionez —2003. urtean izan-

dako gorakada izan ezik, 1993. urtetik hona etengabe gertatzen ari den bezala—, gazteen langabezi tasa murriztu egin da, baita 2005. urtean ere. 90. hamarkadaren hasieran gazteen langabezi tasa 50% etik gorakoa zen, baina zerikusi gutxi du gaur egungo tasekin. Eustaten datuen arabera, 25 urtetik beherakoen langabezi tasa 2005. urtean $13,5\%$ izan zen aurreko urteko $20,5\%$ en aldean. Hala eta guztiz ere, oraindik gazteen artean ematen da langabezia gehiena. Atzetik berehala bere gainean agertzen den kohortea da, hain zuzen ere, 25etik 34 urtera bitarteko pertsonak. Ikerketa soziologiko askotan, talde hori gaur egun gazteriaren tartean sartuko litzateke, hori zentzu zabalean interpretaturik gero. Era berean, gazteen artean behin-behinekotasunaren tasak —Txosteneko Lan Merkaturari buruzko kapituluaren ikusten den bezala— gainerako biztanleen artean baino askoz altuagoak dira: 2005. urtean soldatapeko gazteen $64,6\%$ dira, biztanle guztien $25,6\%$ en aldean.

Etxebizitzari dagokionez, amortizazio-denboraldiak zabaldu dira eta, neurri txikiagoan, interes-tasak murriztu dira. Horiei esker, EAEn gazteriak etxebizitza eros dezake. Dena den, higiezinaren inflazio-testuinguruan, gazteen emantzipatzeko proiektuek atzeratzeko joera dute. Are gehiago, kasu batzuetan ez dira gertatzen. Batez beste, 30 urterekin desblokeatzen da egoera hori. Adin horrekin, normalean bikote egonkorra izanda edota ezkondua etxebizitzaren erosketari aurre egiteko kaudimena lortzen da. 2004. urtean Eusko Jaurlaritzak Gizarte Desberdintasunei eta Pobreziari buruzko Galdeketa egin zuen eta emaitza horien arabera, 25 urtetik beherako gazteen $22,5\%$ ek (ia 62.000 pertsona) independizatzeko gura zuen, baina diru-sarrerak ez ziren nahikoak. Tasa biztanle helduen $32,9\%$ iristen da, beraz, guztira ia 600.000 pertsona lirateke. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren “*Euska/Gazteria 2004*” ikerketari erreparaturik, 15 eta 29 urte bitartean 89% en iritziak, etxebizitzaren prezioa emantzipatzeko arrazoi nagusia da. Izan ere, pertsona bakarraren aukera bakarrik gutxiengoak hauta dezake eta, horretarako, kaudimen handia behar da. Horregatik, gazteak emantzipatzeko batez besteko adina eta ezkontzeko bat datoz: 31,7 gizonezkoen kasuan eta 29,7 emakumezkoetan. Hala eta guztiz ere, honakoa azpimarratu behar da: Katalunian eta Balearretan etxebizitzaren prezioak garestiak izan arren, gazteen artean emantzipazio-tasak EAEn baino askoz altuagoak direla.

Bestalde, aipatu aldaketa demografikoen ondorioz, 2004. urtean EAEn 65 urtetik gorakoak (emakumezkoak eta gizonezkoak) 385.385 (guztiaren $18,2\%$) ziren; ildo ho-

rri jarraiki, 20 urtetik beherakoen tarte (351.855 pertsona, guztiaren %16,6) baino ugariagoa da. 1981. urtean izandako adin-egiturarekiko aldaketa nabarmena da. Garai hartan gazteen tartean %34,2 zeuden eta adin aurreratuaren tartean guztiaren %9,2 besterik ez.

Osasun-arreta hobetu da, bizitza-itxaropenak gorantz egin du eta bizitza autonomia egiteko geroz eta erraztasun handiagoak daude. Horien guztien ondorioz, geroz eta etxebizitza gehiago betetzen dituzte adinean aurreratuak dauden pertsonak. 1981 eta 1991 bitartean 65 urtetik gorakoez osatutako etxebizitzak 45.000 unitate gehiago (+%43) ziren. Denboran gehiago hurbilduz gero, 1991. eta 2004. urteen bitartean prozesua biziagotu egin da: 91.000 etxebizitza gehiago daude (aldian hautemandako etxebizitzaren hazkuntzatik (174.900) %50 baino gehiago). Gainera, beste 51.952 etxebizitzetan bikoteak 65 urte edo gehiago ditu eta hori EAEko etxebizitza guztien %7 da.

Osasun-egoera orokorra eta, garrantzitsuagoa dena, EAEko zaharrek hautemandako osasuna, oro har, ona da. Taldea kontuan hartuta, pertsona zaharrak osasun-arazo larriekin eta ezintasunekin, zorienez, ez dira asko (zaharren %18,5en esanetan, "osasun txarra" dute, %37,2k osasun normala eta %44,3k osasun ona edo oso ona). Dena den, osasun gabeziaren ondorioz sortutako mugak eta arazoak, bai pertsona zaharrentzat, bai gizartearen zat, gaur egun oso garrantzitsuak dira.

EAEko "Osasunari buruzko Galdeketa" izenekoak agerian utzitako datuen arabera, 2002. urtean bizitza-itxaropena hazi egin da, bai gizonezkoen, bai emakumezkoen kasuan 1997. urteko datuekin alderatuz (hori izan zen aurreko galdeketaaren data). Hazkuntzaren arrazoiak honako hauek dira: batetik, gizonezkoetan urte gutxiago ematen dituzte ezintasunekin eta osasun onarekin bizitza-itxaropenak gora egin du; bestetik, emakumezkoetan bizitza-itxaropenak osasun onarekin gora egin du. Nolanahi ere, azken urte hauetan ezintasuna ia konstante mantendu da. Ondorioz, generoarekin ikuspegia ezinbestekoa da zahartzea aztertzeke orduan. Emakumezkoak mendebaldeko gizarteetan denbora gehiagoz bizi dira, baina ezintasun-tasa gizonezkoetan baino handiagoa da. 2002ko Osasun Galdeketaaren arabera, 70 urtetik gorako emakumezkoen %12,8k bizitzako oinarritzako lan arruntak egiteko laguntza behar du eta %8,4k independente bizi ahal izateko. Gizonezkoetan ehunekoak jaitsi egiten dira %11,7ra arte lehenengo kasuan eta %6,5era arte bigarren.

1.10. Osasuna eta osasun-sistema

Eustaten arabera, EAEn ospitaleetako osasun-gastua (zentro publikoak eta pribatuak barne) 2004. urtean 1.402 milioi eurokoa izan zen. 2003. urteko datuekin alderatuz, hazkuntza %6,4 izan zen. BPG kontuan hartuta, pixka bat jaitsi da: %2,8tik %2,6ra. Bestalde, OCDEk herrialdeka osasun-gastuei buruzko datuak ditu eta BPG kontuan hartzen du. Herrialde horietan tasa %7tik gora izan daiteke Islandian, Alemanian, Norvegian edo Frantzian edo gutxi gorabehera %5 Espainian, Irlandan eta Grezian.

2004. urtean euskal osasun publikoak 354.638 mila euro bideratu zituen ospitalez gaindiko osasun-laguntza eskaintzera (urte horretako BPGren %0,7). Beraz, aurreko urtearekin alderatuz, %5,8 hazi zen. 2005. urtean Osakidetza aurrekontu-datuei erreparaturik, 2004 gastuarekiko %3 hazi da.

Lurraldean osasun-sistemaren egoera eta eboluzioa balioztatzeke, baliabide-adierazle hauek dira arruntki onartuenak: langileak (medikuak, erizainak...), ospitaleen kopurua, ohe-kopurua... Eurostatek eta Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, bai EAEn, bai EE-15en eta EE-25en adituen kopuruak gorantz eta ohe-kopuruak beherantz egin du (biek 100.000 biztanleko).

Medikuen kopurua gehitu denez, 2004. urtean medikuntza orokorrean medikuko biztanleen kopurua murriztu egin da: 1.511tik 1.483ra pasa da. Hala eta guztiz ere, Eurostaten estatistikaren arabera, Europako zenbait herrialde garatutan (hala nola Danimarkan, Finlandian edo Alemanian) baino balio altuagoak dira. Belgikakoak, Txekiar Errepublikakoak edo Lituaniakoak baino balio txikiagoak dira. Dena den, ez da gauza berdina gertatzen pediatriaren arloan. Bertan medikuko biztanleen kopurua hazi egin da 823tik 829ra. Ospitaleetan, berriz, 2002. urtean (alderatuz) daitezkeen datuak agertzen diren azken urtea) gure Erkidegoko 100.000 biztanleko 383 ohe zeuden; EE-15en 611 eta EE-25en 639.

Osakidetza Osasun Laguntza Zuzendaritzak eskuratutako datuen arabera, 2005. urtean Osakidetza sarean batez beste orokorrean okupazioak gorantz egin du 2004. urteko datuekin alderatuz eta %84,6 izan da.

EAEn osasunari buruzko panorama orokorra aztertuz gero eta lehentasunezko osasun-arazoei erreparaturik, honakoa ondorioztatu daiteke: EAEk jaiotzean bizitza-itxaropen handia duela, heriotzak murriztu direla eta nazioarteko joerekin bat, zirkulazio-sistemaren gaixota-

sunak eta neoplasia gaiztoak direla heriotzaren arrazoi nagusiak.

Heriotzak arrazoiaren eta generoaren arabera bereiziz gero, EAEn gizonezko gehienak (guztien %35) neoplasia gaiztoez hiltzen dira eta, ondoren, zirkulazio-aparatu gaixotasunez (%27). Emakumezkoen kasuan kontrakoa gertatzen da: heriotzaren arrazoi nagusia zirkulazio-aparatu gaixotasunak (%34,3) dira eta, ondoren, tumoreak (%21,9).

Haurren artean (urtebetetik beherakoak) heriotza-tasak 2001. urteaz gero gorantz egin du eta 2004. urtean 68 heriotza izan ziren. Eustaten arabera, jaiotzek heriotzak gainditzen dituzte eta diferentzia 1.347 pertsonakoa da. EAEn hazkuntza begetatiboak ikur positiboa du.

Bizitza Galduren Urte Potentzialak (BGUP) osasun publikoan neurri ona dira biztanle gazteenaren heriotza-tasak sortutako inpaktua islatzeko. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak emandako datuei erreparaturaz, motorrezko ibilgailuak erabilia zirkulazio-istripuak eta tumore gaiztoak trakean, bronkieetan eta biriketan dira berriz ere 2004. urtean heriotzen arrazoi nagusiak eta horiek galarazi dituzte bizitzaren urte potentzial gehienak, bai emakumezkoetan, bai gizonezkoetan.

Neoplasia gaiztoei dagokienez, EAEn heriotza-tasaren bigarren arrazoi nagusia izateaz gain, ospitaleratzeko laugarren arrazoi dira, zirkulazio-sistemaren gaixotasunen (%13,1), digestio-aparatu gaixotasunen (%11,7) eta nerbio-sistemaren eta sentimen-organoen gaixotasunen (%10) atzetik.

"*Health at a Glance, OECD indicators, 2005*" izeneko txostenaren arabera, OCDEko herrialdeak batez bestekotan sartzen dituzte zirkulazio-sistemaren gaixotasunak. Hori da ospitaleratzeko arrazoi nagusia (%13). Ondoren, digestio-aparatu legoke (%10) eta gero kanpoko arrazoiak (istripuak, indarkeria eta zehartzea), haurdunaldia eta erditzea, arnas gaixotasunak eta minbizia.

Neoplasia gaiztoaren arabera, 2004. urtean EAEn ospitaleratze gehienak maskuriko neoplasia gaiztoarengatik gertatu dira. Bigarren tokian bularretako neoplasia gaiztoa aurkitzen da. Orain arte bigarrenak lehenengo tokia betetzen zuen.

1997-2004 denboraldian EAEn VIHren 1.411 infekzio diagnostikatu dira. %72,2 gizonezkoak dira eta %27,8 emakumezkoak. Eboluzioaren ikuspegitik, EE-25en EuroHIVren datuek adierazten duten bezala, 1997. eta 2000.

urteen artean VIHren diagnostiko positiboa murriztu ostean, 2000. eta 2003. urteen bitartean berriz hazi da 2004. urtean murrizteko.

INEk emandako datuen arabera, Mendebaldeko Europari dagokionez, ihesak eragin handia du Espainian: Portugalen (milioi pertsonako 79 kasu), Espainian (33 kasu), Suitzan (30 kasu) eta Letonian (25 kasu).

Era berean, iturri guztiei erreparaturaz, VIH sortutako infekzioa jada ez da transmititzen nagusiki xiringen bidez eta sexu-transmisioko gaixotasun bihurtu da. Izan ere, EAEn infektatutako %62,2 sexu-bidetik hartu du VIH (%42,7k harreman heterosexualetan eta %19,5k homosexualetan).

EAEn IHESari dagokionez, EAEn egin dira IHESari buruzko Estatuko Erregistroan %7,1 jakinarazpen, beraz, posizio larrian gaude. Bakarrik Madril, Katalunia, Andaluziak eta Valentziak gainditzen dute ehuneko hori.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Osasun Publikoaren zuzendaritzaren bidez emandako datuen arabera, 2004. urtean EAEn ihesaren 128 kasu berri diagnostikatu ziren, 2003. urtean baino 8 gutxiago. Ihesa dela-eta, aurreko urtean baino 79,11 gutxiago hil ziren.

1.11. Hirigintza eta etxebizitza EAEn

Eusko Jaurlaritzak egina, "*EAEn Etxebizitzaren Eskakera eta Beharrei buruzko Galdeketa*" lanak honako datuak eskaintzen ditu: 2005. urtean gazteak dituzten %12,2 etxebizitzetan gazte horiek lehenengo etxebizitza behar dute. Azken lau urteetan ehunekoa antzekoa izan da, nahiz eta 2004. urteko datuarekin (%11,3) alderatuz arinki gora egin. Dena delakoa, lehenengo etxebizitza behar dutenen unibertsoa 18tik 44 urtera bitarteko pertsonetara hedatzen da eta diru-sarrera propioak ez dituztenak baztertzen dira, beraz, beharren zifra eskaera kaudimenduetara egokitzen dira.

Edozelan ere, dirudienez, behar-mota honetarako joera egonkortzen ari da 90. hamarkadan sendo hazi ostean. Hazkuntza horren arrazoiak faktore demografikoak ziren. Ildo horri jarraiki, zifra absolutuetan, lehenengo etxebizitza izateko beharrean 87.100 gazte daude. Eskaerari erreparaturaz, 58.700 etxebizitza beharko dira lau urtetan eta 20.000 urtebeteko epean. Halaber, joera egonkortzea da. Dena den, eskaeraren presioa epe laburrean aurreko urteetan baino biziagoa da.

Etxebizitzaren beharrak batera hartuta, EAEn etxebizitzaren %6,4k etxebizitzaz aldatu behar du. Ehuneko hori aurreko urteetako baino pixka bat altuagoa da. Zifra absolutuetan, 47.540 euskal etxebizitza aldatzea planteatzen ari da eta horietatik 10.000k epe laburrean egin nahi du. Etxebizitza birgaitzeari dagokionez, etxebizitzaren %14,4k du behar hori edo, beste hitzetan esanda, ia 107.000 etxebizitzak; 2004. urtean baino %4,8 gehiago.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eskuratutako datuen arabera, azken urtean guztira (salmenta gehi alokairua) etxebizitzaren eskaintza %3,7 gehitu da eta 15.500 unitateak gainditu dira. 2001. eta 2003. urteen bitartean eskaintza jaitsi ostean, 2003-2005 biurtekoan kontrakoa gertatu da eta guztira eskaintza gutxi gorabehera 1.500 etxebizitzetan hazi da. Eskaintza-motaren arabera, jabetzan eskainitako etxebizitzak (14.281 unitate) eskaintza guztiaren %92 izan dira eta 340 unitate gehiago (+%2,4) izan dira; bien bitartean, eskaintza alokairuan oraindik marjinala da gure higiezin merkatuan, baina asko hazi da (%21,3 edo 216 unitate) guztira 1.228 etxebizitzatara iritsi arte.

Jabetzan eskainitako etxebizitzaren barruan, libreek eta babestuek eboluzio desberdina izan dute. Lehenik eta behin, jabetzan etxebizitza babestuen eskaintza 2004-2005 biurtekoan negatiboa izan da eta %2,7 murriztu da. Guztira 3.825 etxebizitza izan dira. Ildo horri jarraiki, jabetzaren eskaintzaren barruan garrantzia galdu du: 2004. urtean %28,2 bazen, azkeneko urtean %23 izan da. Etxebizitza libreei dagokionez, jabetzan izandako eskaintzak gora egin du 2005. urtean: 10.456 etxebizitzan izan dira, hau da, aurreko urtean baino %4,5 gehiago. 10.456 etxebizitza libreetatik, %61,5 (6.436 unitate (+336)) etxebizitza erabiliak dira eta gainerako %38,5 (4.020 unitate) berriak. Bi etxebizitza-motek eskaintza gehitu dute azken urtean, nahiz eta modu desberdinean izan: etxebizitza erabilia %5,3 hazi da, berria, berriz, %3,1.

Bestalde, 2005. urtean alokairuan izandako etxebizitzaren eskaintzari buruzko datuak aztertuz gero, batez beste guztira 1.228 etxebizitza eskaini dira, 2004. urtean baino 216 gehiago, bi urtez alokairuan eskainitako etxebizitzaren kopurua gelditu arren. Gainera, eboluzio positiboaren arrazoi alokairuan eskainitako etxebizitza babestuan birlatu behar da. Guztira 717 unitate eskaini dira, 2004. urtean baino %43,4 gehiago. Hala, etxebizitza babestuek alokairuaren eskaintzan maximo historikoa lortu du, azken urtean guztiaren %58,4 izan baita. Etxebizitza librea alokairuan, berriz, %0,2 murriztu da, Eusko Jaurlaritzaren

Galdeketa-datuek argitutakoaren arabera. Guztira 511 etxebizitza eskaini dira.

Guztira, etxebizitza librea batez beste %10,3 garestitu da, 2003-2004 aldian baino ehuneko puntu bat gutxiago. Ildo horri jarraiki, etxebizitza librean metro karratu erabilgarri bakoitzeko batez besteko prezioa 3.245,40 €-koa da eta 3.219,20 €-koa "ereduzko etxebizitza" izenean (2004. urteko datuarekin alderatuz, +%5,2). Bestalde, etxebizitza babestuen batez besteko prezioa 2005. urtean hazi egin da, nahiz eta hazkuntza neurri txikiagoan gertatu. BOEk (berria eta erabilia) batez beste 1.210,80 €/m² (+%7,2) balio ditu eta gizarte-etxebizitzak 723,90 €/m² (+%8).

Etxebizitzaren gainean egindako hipoteken kopurua %11 hazi da, bien bitartean, batez besteko zenbatekoa %10 hazi da. 2005. urtean 41.000 hipoteka baino gehiago egin dira eta guztira 5.835 milioi euro eskatu dira. Batez besteko zenbatekoak nabarmenki gehitu dira hiru lurraldeetan; hala, gure Erkidegoan batez beste 141.229 euro eskatu dira, Estatuko batez bestekoa baino %13 gehiago. Bien bitartean, dirudienez, interes-tasek beheranzko bidea gelditu dute, MIBORrak eta EURIBORrak behintzat.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzari buruzko Plan Gidaria (Etxebide III) egiteari dagokionez, 2005. urtean guztira 4.025 etxebizitza babestu amaitu dira: 3.345 BOE eta 680 gizarte-etxebizitza. 2004. urteko datuekin alderatuz, %10,4 gehitu da. Aipagarria da gizarte-etxebizitzaren hazkuntza: 2004. urteko datuekin erkatuz, %34,1. Era berean, 2005. urtean 3.830 BOE eta 795 gizarte-etxebizitza eraikitzen hasi dira. Gainera, Sailak lurzorua lortzeko ekintzak gehitu ditu: 3.890 etxebizitza berri eraikitzeko lurzorua lortu da, 2004. urtean baino %13,4 gehiago. Bestalde, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko jarduerak modu ikusgarrian murriztu dira: 2004. urtean 23.914 baziren azken urtean 15.471 izan dira (-%35,3).

1.12. Astialdia eta kultura

Kulturako Ministerioaren datuen arabera, 2003. urtean kulturen Euskal Administrazio Autonomikoak 75,1 milioi euro gastatu zituen, 2000. urtean baino 9,5 milioi gehiago, beraz, %14,5 gehitu zen. Gastu hau Estatuko Administrazio Autonomikoen 2003. urtean kitatutako gastuaren %6,2 da eta Eusko Jaurlaritzako gastuaren %1,2 urte hartan. BPGren %0,16 zen, hain zuzen ere, Estatuko batez bestekoa. Adierazle honi erreparatuz, buruan hona-

ko komunitateak daude: Extremadura eta Nafarroa, ezau-garri bereziengatik Ceuta eta Melilla alde batera utzi gero. Biztanleko gastuari dagokionez, EAEn 2003. urtean 35,60 € gastatu ziren, hau da, 2000. urtean baino 4,40 € gehiago. Gainera, Estatuko batez bestekoarekin alderatuz, zenbateko hori %25 gehiago da.

Bestalde, Urtekariari erreparaturik, kulturen gastua "Tokiko Administrazioa" izenekoak katalogatzen da eta 2003. urtean EAEn 272,7 milioi euro gastatu ziren, hau da, Estatuko gastu guztiaren %10,3. EAEn Tokiko Administrazioaren barruan 184,8 milioi euro udalei dagokie eta 94.675 euro Foru Aldundiei. Gastuaren helburua kontuan hartuta, %87 kultura sustatu eta hedatzeko da eta gainerako %13 Arkeologiarako eta Ondarea Babesteko.

Gainera, EAE nazioarteko testuinguruan derrigorrezko bisita-kokagune bihurtzen ari da, indartzen ari den kultur ekipamenduen kantitatearengatik eta aniztasunarengatik. Ekipamendu horiei esker, eskaintza anitza da: ondare etnografikoa, arkeologikoa, bibliografikoa eta dokumentala. Horiez gain, museo, liburutegi eta artxibo ugari eta aberats daude. Museoen jarduera adierazle bezala hartuta eta, zehatz-mehatz esanda, museo nagusietan (Guggenheim museoa eta Arte Ederretako museoa (Bizkaiko lurralde historikoan); Artium museoa eta Arte Ederretako museoa (Arabako); eta Zientziaren Kutxa Espazioa, Chillida Leku museoa, San Telmo museoa eta Donostiako Aquarium (Gipuzkoan)) bisitarien kopurua kontuan hartuta, honakoa ondorioztatu daiteke:

- Bilboko Guggenheim museoa eta Donostiako Aquarium oraindik erakargarrienak dira 965.082 eta 301.828 bisitariarekin, hurrenez hurren, 2005. urtean. Dena den, Aquariumen kasuan bigarren urtez bisitarien kopurua jaitsi egin da, kasu honetan %8,6. Guggenheimera, berriz, bisitarien kopuruak gorantz egiten jarraitzen du. Ildo horri jarraiki, 2004. eta 2005. urteen bitartean %6,2 gehitu zen.
- Aurrekoetatik urrun, bigarren tokian kokatuko lirateke Bilboko Arte Ederretako museoa eta Zientziaren Kutxa Espazioa. Bi ekipamendu horiek 2005. urtean 142.067 eta 135.158 bisitari erakarri dituzte, hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, bi kasuetan bisitarien kopurua murriztu da %8,7 eta %8, hurrenez hurren, 2004. urteko datuekin alderatuz gero.
- Artium museokoak 92.267 bisitari jaso zituen, hau da, aurreko urtean baino %2,8 gehiago eta Arabako Arte Ederretako museokoak bisitari gutxiak (34.473) izan ditu. Dena den, ekipamendu gehienei kontrajarriaz, eboluzio

positiboa izan du, 2005. urtean %14,2 bisitari gehiago izan baitziren (2004. urtean %16,8 murriztu zen).

Era berean, merkataritzako feriak eta erakusketak sustapen-elementu bezala azken urte hauetan goieneko aldia bizitzen ari dira. Ekonomia orokorraren ikuspegitik, jarduera ekonomikoaren sortzailetzat jo dira, produktuen hedapena eta salmenta errazten baitute, aurrerapen teknikoa bultzatu eta azpimarratzen baitute eta nazioko nahiz nazioarteko irudia hobetzeko kooperazio-sinboloak baitira. Enpresaren ikuspegitik, aukera ezin hobea dira, ferian erakusketariak eta bisitariak zuzenean eta bitartekorik gabe adierazten baitute eskaintza eta eskaera edozein merkataritza-sektoretan.

Espainiako Ferien Elkarteak (AFE) eskaintako datuen arabera, Bilbao Exhibition Centre (BEC) 2004. urtean posizio garrantzitsua zuen Estatuko Feria Barrutien rankingean. Horretarako, egindako ferien kopuruari erreparaturik zaio: guztira 18 izan ziren. Madrilen (80), Bartzelonaren (44) eta Valentziaren (37) atzetik kokatzen da eta Alacanten (22), Sevillaren (18) eta Zaragozaren (16) maila berdinean. Argitalpen hau ixtean eskura dauden datuei erreparaturik, 2005. urtean BEC barrutian egindako feriekin 37.143 bisitari profesional bildu ziren (2003. urtean (aurreko urte bakoitian) baino %24,5 gutxiago). Jende orokorrari dagokionez, 891.313 pertsona izan ziren (2003. urtean baino %30 gehiago eta 2004. urtean baino %0,9 gutxiago).

Bestalde, INEren "Ekoizpen Editorialari buruzko Estatistikak" eskaintako datuen arabera, joan den urtean bezala, 2005. urtean EAEk seigarren posizioa betetzen du ekoizpen editorialaren rankingean. Guztira 2.460 titulu argitaratu dira, hau da, Estatuko guztien %3,9. Honakoen atzetik aurkitzen da: Madril (21.763 titulu, guztiaren %34,2), Katalunia (17.899 titulu, guztiaren %28,2), Andaluzia (5.091), Valentziako Komunitatea (3.536) eta Gaztela eta Leon (2.717). 2.460 titulu argitaratueta liburuak eta liburuxkak daude eta 2004. urteko datuekin alderatuz, ekoizpena %1 jaitsi da, beraz, 2000. urtean hasitako beherazko joerarekin jarraitzen da.

2005. urtean 5.6 milioi ale argitaratu dira, hau da, aurreko urtean baino %4,6 gehiago. Ildo horri jarraiki, batez besteko tirada %5,7 (tituluko aleen kopurua) gehitu da, 2.282 aletara iritsi arte. Titulu horietatik 2.039 (%82,9) liburuak dira eta 421 (%17,1) liburuxkak. Liburuaren kasuan tituluen kopurua %0,7 gehitu da; bien bitartean, aleen kopurua %5,4 hazi da. Ondorioz, batez besteko tiradak %4,6 egin du gora eta guztira 2.155 aletara iritsi dira.

Argitalpen-hizkuntzari erreparatur, 2005. urtean titulu %1,4 (909 liburu eta liburuxka) euskaraz argitaratu da, beraz, aurreko datuekin alderatuz, %12,7 murriztu da. Horietatik %36 Literaturaren, Historiaren eta Kritika literarioaren kategorian sartuta daude (guztira hartuta garrantzia galduz doaz, zehatz-mehatz esanda, 2004. urteko datuekin erkatuz ehuneko 2,9 puntu). Garrantziari erreparatur, baino aurrekoetatik urrun daude Filologia, hizkuntzak eta linguistika (%9,7), Natur Zientziak (%8,6) eta Hezkuntza, irakaskuntza, prestakuntza eta dibertimenduak (%8,5). Guztira murriztu arren, oso garrantzitsuak dira hazkuntzak Kudeaketan, administrazioan eta antolamenduan (+%200), lurraldea egokitzean, hirigintzan eta arkitekturan (+%66,7) eta musikan, ikuskizunen arteetan, antzerkian, filmetan eta zineman (+%58,8). Gaiak kategorien arabera aztertuz gero, euskaraz testuliburu gehiago argitaratu da (+%6,4), aurreko urtean izandako murrizketaren aldean (−%11). Haurren liburuak euskaraz, berriaz, gutxiago izan dira (−%41,2), argitalpen ofizialak %16,7 hazi diren bitartean.

Bestalde, geroz eta euskarazko titulu gehiago itzultzen dira bestelako hizkuntzetara. 2005. urtean 66 titulu itzuli dira, 2004. urtean baino %20 gehiago. Gaiak aztertuta, literarioek (Literaturak, Historiak eta Kritikak 14 titulurekin, 2004. urtean baino 8 gutxiago) garrantzi handia dute. Era berean, Zientzia politikoei eta ekonomikoekin zerikusia duten tituluak 2003. eta 2005. urteen bitartean asko jaitsi dira: 11tik 1era pasa da. Arte plastikoetan eta grafikoetan, berriaz, 2004. eta 2005. urteen bitartean 4tik 13ra pasa da.

1.13. **Pobrezia eta gizarte-bazterzea EAEn**

Eusko Jaurlaritzak lau urtez behin “*Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Galdeketa*” (PGDG) egin du. Hori esker, gure gizartean pobrezia eragina ezagut daiteke, baita eragiten duten arrisku-faktoreak eta banaketa geografiko desberdina ere. Zenbaki absolutuetan, 2004. urteko Galdeketa emaitzei erreparatur, 45.000 etxebizitza pobrezia egoeran daude, bai mantenuari dagokionez, bai metatuari dagokionez. Horietan guztietan 100.000 pertsona baino gehiago kontzentratzen dira. Zenbaki erlatiboetan, familien %6,2 lirateke eta pertsonen %5,2, pobrezia buruzko aurreko galdeketa

(2000. urtekoaren) %6,8 familiaren eta %5,4 pertsonen aldean. Gainera, 2004. urtean EAEn egiaz pobrezian 25.000 familia daude eta muturreko pobrezian gutxi gorabehera 4.000. Bestalde, ongizatea ez izateko arriskuan 175.000 etxebizitza eta 400.000 pertsona baino gehiago daude.

Mantenu-pobrezia³ elikadura-arazoak dira nagusi. PGDG izenekoan 2000az gero honakoa aplikatzen da: *Short Form of the 12-month Food Security Scale (FSS)*; metodo estatistiko horren bidez komunitate zehatzean elikadura-arazoak neurtzen dira. Metodoaren helburua populazioaren hiru kategoria handi zehatzean da, bizitasun txikiagotik abiatuta handiagora. Azken hamabi hila-beteetan elikatzeko behararen estalduran segurtasun-maila neurtzen da. 2004. urtean PGDGren datuek esandakoaren arabera, EAEko biztanleen %5,2k elikadurari dagokionez segurtasunik eza du eta FSS eskalan definituak daude. Arazo larrienak aldi horretan %2,7ri eragin zieten, arrazoizko proportzioa EU-SILC adierazlearen mailan (biztanleen %3,4).

Elikaduraren arazo larriak aztertuz gero, azken urtean eragin handia izan du egoera sozio-ekonomiko txarrean dauden taldeen artean. FSS elikadura-arazoaren adierazle orokorra erreferentziatzat hartuta, arazoak izan dituzte pobrezia arriskuan dauden taldeen %30,3k, ongizatea ez izateko arriskua duten %12,1ek eta ongizate-egoeran dauden %2,7k. Egoera antzekoa da arazo larrienei dagokienez. Ildo horri jarraiki, FSS arazo oso larrien adierazleak pobrezia arriskuan dauden pertsonen %16,8n eragiten du, baita ongizatea ez izateko arriskua duten %5,9n eta ongizatea duten %1,4n ere. EU-SILC adierazlearentzat zifra pixka bat altuagoak dira, antzekoak izan arren: %19, %8 eta %1,8.

Bestalde, iraupenaren arazoak ez dira elikadurara mugatzen. Ildo horri jarraiki, bestelako oinarritzko alderdiak badaude, hala nola, jantziak edo zapatak arazorik gabe lortzea ala neguan bero nahikoa izatea. Datu eskurgarrien arabera, arazo horiek nabarmenagoak dira egoera ekonomiko txarrean dauden pertsonen artean. Pobrezia arriskuan dagoen %38,1k bigarren eskuko jantziak behar izan ditu arazo ekonomikoak bultzatuta. Proportzioa %12,9ra jaisten da ongizatea ez izateko arriskua duten pertsonen artean eta %3ra ongizate-egoeran dauden etxebizitzetan bizitzako pertsonen artean.

³ Mantenu-pobrezia bi aldagai nagusi aurrez ikusten ditu: pobrezia arriskuaren egoera (oinarritzko beharrak (batez ere, elikadura, etxebizitza, jantzia eta zapatak) estaltzeko diru-sarrerak nahikoak ez izatea) eta ongizatea ez izateko arriskua (oinarritzko beharrak estali ostean, gizartearen araberak, gutxienezko ongizatea eta erosotasuna mantentzeko gainerako gastuei aurre egitearren nahikoa diru-sarrera ez izatea).

Gainera, pobrezi egoerako etxebizitzetan bizi diren pertsonen %27,7k hotza pasa du azken neguan, berokuntza-sistema egokia ez izateagatik. Ongizatea ez izateko arriskua duten pertsonen artean %7,4k bizi du egoera berdina eta egun ongizatea duten pertsonen artean %4,1ek. Hala eta guztiz ere, inolaz ere hautemandako ga-beziek kaltetutako gehienei ez die eragin, baita talde ahulenen kasuan ere.

Bestalde, mantenu-pobreziaren inplikazioak aztertzean, etxebizitza lortzeko ahaleginak kontuan hartu behar dira. Lotura estua dago etxebizitza lortzeko esfortzu-tasaren eta etxebizitzaren jabetza-erregimenaren artean. Ildo horri jarraiki, jabetzako etxebizitza edo lagatakoa izateko ahalegina txikiagoa da. Hala, kasu hauetan, esfortzu-tasa diru-sarrera guztietatik %5 eta %8 bitartean kokatzen da. Etxebizitza alokairuan edo ordaintzeke etxebizitza jabetzan nahi izanez gero, %22 eta %23 bitartean bideratzen da. Era berean, etxebizitzaren gastuak karga handia dira, are eta gehiago, ongizate-maila murrizten den neurrian. Ildo horri jarraiki, ongizate-etxebizitzentzat batez beste esfortzu-tasa %10,3 bada, %20,6ra igotzen da ongizatea izateko arriskua duten etxebizitzetan eta %32,3ra pobrezi arriskuan daudenetan.

Arazoaren larritasun handiena arrisku-egoeran egonda etxebizitza alokairuan edo ordaintzeke dutenen artean pairatzen da. Ongizatea ez izateko arriskua duten etxebizitzetan, batez beste esfortzu-tasak %30 gaintitzen du (%33,5 alokairuaren egoeraren kasuan eta %35,4 ordaintzeke dagoen jabetzan). Baina horrek %50 gaintitzen du pobrezi arriskuan dauden etxebizitzetan (%50,8 eta %53,5, hurrenez hurren). Egiazta daitekeen bezala, karga arinki handiagoa da jabetza hipotekatua kasuan eta erabat amortizatu gabe ez badago. Alokairuan karga txikiagoa da.

1.14. Gizarte-babesa

2005. urtean EAEn langabeziarengatik 44.500 pertsona izan zen prestazioen onuraduna, hau da, aurreko urtean baino %1,9 gehiago. Bosgarren urtez pertsona hartzaileen kopurua gehitu egiten da, 90. hamarkadan nabarmenki murriztu ostean. Estatuan, berriz, 2005. urtean talde hartzaileen kopurua murriztu egin da lehenengo aldiz 2000az gero. Tasa %1,5 izan da. 44.500 pertsona horietatik %55,3 Bizkaian bizi dira, %31 Gipuzkoan eta %13,7 Araban.

2005eko abenduko datuen arabera, %68,3k ordaindutakoaren arabeko prestazioak jasotzen zituen,

%30ek sorospeneak eta %1,7k Gizarterako Errenta Ak-tiboa. Abenduan 44.343 pertsonak jasotzen zuen prestazioa eta estaldura-tasa (INEMen erregistratutako langabetuak kontuan hartuta) EAEko langabetuen %67,75 zen, Estatuko batez besteko %70,31 estalduraren aldean.

Bestalde, 2005. urtean 461.611 pertsonak nolabaiteko pentsioa jaso zuen Gizarte Segurantzako sistematik. 2004. urteko datuekin alderatuz, %1,7 hazi da. Aurreko bi urteetan, berriz, hazkuntza tasak txikiagoak ziren: %0,6 eta %0,9, hurrenez hurren. Azken urteetan gertatzen den bezala, eboluzioa ordainduaren arabeko pentsioak jasotzeko aukera duten pertsonen eboluzioan (+%1,9) oinarritzen da. Bestelako modalitateetan, intentsitateak desberdinak izan arren, pertsona hartzaileak murrizteko joera dago. Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoek EAEn guztira %21,4 pertsona estaltzen zituzten 2004. urtean eta %21,7 2005. urtean.

Ordaindutakoaren arabeko pentsioei dagokienez, batez besteko zenbatekoa 899,3 € izan zen, aurreko urteko %6,1en aldean, 2005. urtean %5,1 hazi zen. Guztira 4.909 milioi euro gastatu ziren, hau da, 2004. urtean baino %7,2 gehiago. Guztira laguntzako pentsioetan 39,2 milioi euro eman ziren, hau da, %3,8 gehiago. Era berean, batez beste hilabeteen jasotako zenbatekoa %11,1 hazi da, 2004. urteko datuekin alderatuz. Azkenik, Gizarte Ongizateko Funtzen pentsioak batez beste %3,4 hazi dira batez besteko zenbatekoei dagokienez eta zenbateko guztia 2005. urtean %10,6 murriztu da. Hartzaileen kopuruak aurreko urtearen berriz ere behera egin du, baina 2004. urtean baino neurri txikiagoan (–%13,6 2004ko –%4,2ren aldean). LISMI sorospenei dagokienez, egoera berdinean, onuradunen kopurua %15,6ra murrizten dute eta zenbateko guztia %9,7 murrizten da. Pentsioei dagokienez, 2005. urtean gastu guztia behin-behineko lehenengo hurbilketa eginez, 4.953 milioi euro izan zen eta 2004. urteko datuekin alderatuz, hazkuntza %7,1 izan zen. Ildo horri jarraiki, BPGren gainean ehunekoa murriztu egiten da: 2004. urtean %8,61 bazen, 2005. urtean %8,61 izan da (BPGren behin-behineko datuekin).

Era berean, Pobreziaren kontra borrokatzeko plan integralak gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko tresnak egituratu dira eta honako hauek azpimarra daitezke: Oinarrizko Errentaren programa eta Gizarte Larrialdiko Laguntzen programa. 2005. urtean 31.654 etxebizitzak jaso zuen oinarrizko errenta. Aurreko urteko datuarekin alderatuz, %9,6 gehitu da. Izan ere, aurreko urtean 28.889 bizikidetasun-unitateri eskaini zitzaion laguntza. 2005. ur-

tean Oinarrizko Errenta kontzeptupean ordaindutako zenbateko guztia 139,35 milioi euro izan zen (2004. urtean baino %22,1 gehiago); bizikidetasun-unitate bakoitzeko batez besteko zenbatekoa hilabeteen 366,86 € izan zen, hau da, 2005. urterako Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren %84,5 (2004. urtean %78,5).

Bestalde, 2005. urtean larrialditako laguntzak 24.288 pertsonak jaso zuen, aurreko urtean baino %16,9 gehiagok. 2005. urtean Gizarte Larrialdiko Laguntzetara bideratutako zenbatekoa Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurrekontuen kargura 30 milioi euro izan zen, 2003. urtean eta 2004. urtean baino %25

gehiago. Onuraduneko ordaindutako batez besteko zenbatekoa urtean 1.235 euro izan zen, 2004. urtean baino %6,9 gehiago.

Ilido horri jarraiki, bi laguntza-modalitateak batuta, 169,95 milioi euro erabili ziren, hain zuzen ere, 2004. urtean baino %23,15 gehiago. Zenbateko hori gure Erkidegoko BPGren %0,29 da (2004. urtean %0,26). Laguntza guztietatik, %82,3 Oinarrizko Errentari dagozkio eta %17,7 Gizarte Larrialdiko Laguntzei. Lurraldeen arabera, laguntza horietatik guztietatik %71,7 Bizkaira doa (%70,2 2004. urtean), %16,7 Arabara (%12,3 2004. urtean) eta %11,6 gainerakoa Gipuzkoara.

2

Gogoetak

2.1. Demografia eta inmigrazioa

Seme-alabak edukitzeko orduan, emakumezko gazteak erabakia zaila du, umeak edukitzeko adina eta lanean hasi eta gora egiteko uneak bat baitatoz. Amak izan nahi duten gehienek enpleguarekin bateratu nahi dute eta geroz eta etxebizitza gehiagotan 15 urtetik beherako umeak izan arren, bikoteak lanean dihardu. 2003. urtean etxebizitzaren %44etan adin txikiko seme-alabak izan arren, biek lanean ari ziren. Dena den, tasa hori EEko batez bestekoren (%59) oso azpian gelditzen da.

Famili eta lan-bizitza bateratzea bizikidetasun-unitateen arazo bat da. 5.000 etxebizitzak baino gehiagok ez du seme-alabentzat plazarik ez ikastetxeetan, ezta haurtzaindegietan ere eta hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten ia 50.000etik laurdenak baino gehiagok aiton-amonetara jotzen dute seme-alabak zaintzeko; bien bitartean, beste %12,1ek langileak ditu kontratatuak lan horietarako. Gainera, etxebizitzaren %1,8k ezin dezake hautatutako seme-alaben kopurua izan, baliabide ekonomikorik ez baitu. %1,4ri gauza berdina gertatzen zaio, baina kasu honetan arrazoiak lana izan ohi da. Testuinguru honetan, emankortasuna murriztu egin da, nahiz eta gizartearen helburua hori ez izan. Izan ere, gizonezkoek edo emakumezkoek banan-banan aukeratzen dute. Era berean, kapitulu honen 2.10. atalean lantzen den bezala, zaharrek mendekotasunak badituzte eta zaindu behar badira, zaila suerta-

tzen da lan-bizitza eta famili bizitza bateratzea. Beraz, Administrazioak arreta handiagoa jarri beharko luke, baita neurriak hartu ere.

Egoera horiengatik arazo berriak sortu dira bizikidetasun-unitateen barruan, soldatapeko lana eta familiaren zaintza bateratu behar baitira. Ildo horri jarraiki, zenbait aldaketa gertatu behar dira: lehenik eta behin, kulturalak, eta, bigarren, praktikoak, bai erakundeetan, bai enpresetan. Gainera bizikidetasun-unitateak laguntzeko zerbitzu publikoak hobetu behar dira eta gizonezkoek gehiago parte hartu behar dute familiaren bizitzan. Testuinguru horretan, zaintzeko eskubidea egiazko eskubide bihurtu beharko da. Beraz, zerbitzu publiko gehiago eskaintzeaz gain, kultura aldatu beharko da eta aldaketa Administrazioak sustatu beharko du.

Migrazio-mugimenduak XXI. mendeko gizarte-prozesu handi bihurtu dira. Atzerrikako etorkinak herrialde eta Europako eskualde askorentzat jada ez dira anekdota; are gehiago, gure gizartean osagai nagusi bilakatzen ari da. EAE hazten ari da kultur aniztasunari dagokionez, biztanle-talde berriak geroz eta gehiago etortzen ari baitira eta, gainera, fenomeno duela gutxi hasi da. Oraindik beste gizarte hurbilen mailetara ez gara iritsi, baina atzerriko inmigrazioa gure Erkidegoan azken urteetan nabarmenki hazi da eta aniztasun-panorama eratu da, lurraldeen arabera oso bereizita.



Aldaketa horiek garrantzi handia dute EAEn urritasun ekonomikoaren egoerak kontuan hartzeko orduan. Oinarrizko arrazoia honakoa litzateke: Europako Elkartetik kanpo datorren biztanleen kasuan arriskuak handiagoak direla. Ildo horri jarraiki, 2004ko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Galdeketak hurrengoa azpimarratzen du: etxebizitzetan burua komunitatez kanpokoa denean, ongizatea ez izateko arriskua %45,3 da; %19,2 da bertakoen kasuan eta %14,8 burua Europako Elkarteko herrialde batekoa denean. Are azpimarragarriagoak dira desberdintasunak pobreziaren arriskuari aztertzeko orduan: %23 %3,1en aldean etxebizitzan burua bertakoa bada eta %0 Elkarteko herrialde batekoa denean. Zenbakietan inmigrazioaren gizarte-errealitate berriari dagokion inplikazioa nabarmena da. Ongizatea ez izateko arriskua duten pertsona guztietatik %5,7tan burua Europako Elkartetik kanpoko herrialdekoa da eta %16,2tan pobreziaren arriskua aztertuz gero.

Izan ere, EAEko inmigranteek pobrezi egoera handienak pairatzen dituzte. Aipatu galdeketaren emaitzak aztertuz, metaketa-pobreziaren adierazlean %19,9 dira eta mantenu-pobrezian %23. Guztira %41,1ek pobrezi moduren bat pairatzen du gure Erkidegoan. Egiazta daitekeen bezala, metaketa-pobreziaren baztertze-moduek argi eta garbi biztanle-mota honekin zerikusia dute. Lehen pertsona gazteetan eta okupazio egonkorrekin gertatzen zen.

EAEko Administrazioak atzerritartasunaren arloan ez du aginpiderik, hala eta guztiz ere, testuinguru honetan, Euskal CES izenekoak egoera hori nabarmendu behar du. Gainera, migrazio-joerak aztertuta, okerragora joan daiteke.

2.2. Hezkuntza, hezkuntza-sustapena eta kultura

BPG kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari bideratutako aurrekontu-saila murriztuz doa: 2004. ekitaldian %3,8 bazen, 2005. ekitaldian %3,5 izan da. 2003. urtean EE-15en eta EE-25en batez besteko balioak %5,21 eta %5,22 izan ziren, hurrenez hurren. Baliabide gehienak bideratzen dituzten herrialdeak honako hauek dira: Danimarka, Islandia, Norvegia, Txipre, Finlandia eta Belgika; gutxien bideratzen dutenak, berriz, hurrengoak dira: Errumania, Japonia eta Turkia. Egoera horren aurrean, desberdintasunei buruz hausnarketa egin behar da. Halaber, gastuaren eraginkortasuna aztertu beharko litzateke.

2004. urteko datuen arabera, BPGren gainean Unibertsitate Irakaskuntza publikoaren gastua EEko herrialde guztietatik txikiena da.

Aurten ere Erregimen Orokorreko Irakaskuntzetan (Helduentzako Hezkuntza Iraunkorrik gabe) matrikulazio-

ak hazi egin dira, Haur eta Lehen Hezkuntza nahiz maila ertaineko Lanbide Heziketa matrikulazioek gorantz egin baitute.

Pozik gaude, bereziki, emakumezko gehiago matrikulatu baitira LHn, baina kezka gaude oraindik gizonezkoen baina kopuru txikiagoa baita. Il-do horri jarraiki, langabezi tasa altuena duten lanbide-arloetan kontzentratzen jarraitzen du. Hala, matrikulazioa altua da komunitateari emandako zerbitzuen arloan, Osasunean, Ile-apaintaketan eta estetikan eta Ehungintzan, jantzigintzan eta larruazalean (lau arloetan %90 baino gehiago emakumezkoak dira). Emakumezkoak oso gutxi dira Automobilgintzan eta ibilgailuak mantentzeko lanetan, bai maila ertainean, bai goi-mailan.

Sare publikoaren eta pribatuaren artean atzeritarren banaketa azpimarratu nahi dugu. Estatuan gertatzen denaren kontra, EAEn ikastetxe publiko eta pribatuaren artean ikasleen banaketa ez da hain desorekatua. Gainera, ikastetxe pribatuak geroz eta garrantzi handiagoa dute, Batxilergoan izandako matrikulazioen kasuan izan ezik. Il-do horri jarraiki, Estatuan banaketa 81,6-19,4 den bitartean, EAEn 66,5-33,5 da.

Hezkuntza-adierazleei dagokienez, EAEko eboluzio ona eta egungo egoera positiboki balioztatzen dugu honako tasei dagokienez:

- Eskolatzeari (eskolatze osoa 3tik 15 urtera bitartean eta %90 baino gehiago 3tik 16 urtera bitartean).
- Eskola goiztiar uztea. %12,5eraino beherantz egiten joan da eta Lisboako Europako Kontseiluan 2010. urterako helburua %10 zen. Azpimarragarria da emakumezkoetan %8,1 izatea, hau da, gizonezkoetan (%16,5) baino ia bederatzi puntu gutxiago.
- Taldeko irakasleak eta taldeko ikasleak. Bi kasuetan beherantzkoak dira 2002-03 eta 2004-05 ikasturteen artean. OCDEk argitaratutako azken datuen arabera, irakasleko ikasleen kopurua EAEn baino handiagoa da, bai Lehen Hezkuntzan (17,7), bai Bigarren Hezkuntzan (14,3). Proportzio onenak Danimarkan (10,4 eta 12,8, hurrenez hurren), Suedian (12,8 eta 14,1), Grezian (13,4 eta 10,7) eta Italian (11 eta 10,3) gertatzen dira.

Gainera, hurrengo puntuak azpimarratu nahi ditugu:

- Irakasleko ikasleen ratioa, lanaldi osoa kontuan hartuta, 2002-03 eta 2004-05 ikasturteen artean gorantz egin du oinarritzeko irakaskuntzetan eta bigarren mailako irakaskuntzetan; hazkuntza horiek, nagusiki, sare pribatuan izandako hazkuntza oinarritzen dira.

- EHUK unibertsitatean sartzeko probetan ikasleen %90,1ek gaitasuna zuen, aurreko urtean izandako kopurua baino ehuneko 2,3 puntu gutxiagok.
- Biztanle aktiboen (lanean eta langabezian) ikasketamaila aztertuz gero, geroz eta langabetu gehiago dago goi-mailako ikasketekin; bien bitartean, jaitsi egin da langabetuen ehunekoa ikasketen ertainekin (%62,4tik %61,8ra).
- Lehenengo enpleguaren bila dabiltzan pertsona langabetuen artean, geroz eta gutxiago dira goi-mailako ikasketak dituztenak: %46,6tik %34,6ra pasa dira 2004-05 denboraldian. Lehen enpleguaren bila, ikasketen ertainak dituzten langabetuen garrantzia, berriz, gehitu egin da %51,9tik %63,5era.

Azkenik, kirolak kultur eta heziketa-elementu bezala garrantzi handia duenez, Kontseiluak Kirolari buruzko Euskal Plana 2003-2007 azpimarratu behar du. Eusko Jaurlaritzak sustatuta, oinarritzeko jarduerak esparrua sortu nahi du kirolean oinarritzekoak diren eragilearen inplikazioa eta koordinazioa lortzeko, baita berezko kirol-eredua lortzearen banan-banako ekintzak eta ekintza kolektiboak gidatzeko ere.

Planak aurretik ikusten dituen zenbait ekimen abian jarri dira, baina Kultur Sailak berak, azkeneko jarraipen-txostenean, onartzen du Plana ez dela gehiegi aurreratu. Egoera horren aurrean, eta Kirolari buruzko Euskal Sistemaren parte hartzen duten eragileek Planaren inplementazioa dinamizatzeko, ekintzak lehentasunen arabera antolatuko ditu, gainera, garatzeko konpromisoak hartuko ditu, komunikazio-plana garatuko du eta koordinaziorako, jarraipenerako eta ebaluaziorako metodologia diseinatu du.

2.3. I+G+B eta IKT izeneko jarduerak

I+G+iren adierazle nagusiek (esfortzua, enpresa-sarearen dinamismoa gastuari dagokionez, jardueretan diharduten langileak, Programa Esparruan pyme izenekoaren parte-hartzea...) EAE Autonomia Erkidego dinamiko eta berriro sortu diren artean kokatzen dute Estatuan.

Hala eta guztiz ere, oraindik urrun gaude arloan erreferentziatzen diren herrialdeetatik, bereziki, iparraldeko herrialdeetatik, Belgikatik, Luxenburgotik, Japoniatik eta EEBBetatik.

Ondorioz, I+G+i egiteko baliabide publiko gehiago behar dira eta berriz ere aldarrikatuko dugu. Gure iritziz, baliabide horiek bideratu egin beharko lirake enpresa-

ehunean efektu biderkatzailea lortzeko. Ildo horri jarraiki, besteak beste, berriztapen-eskaeratik (enpresetatik, hiritarretatik...) abiatuta eta berarentzat eredu gidatua egin beharko litzateke. Hau da, hurrengo ezaugarriei erantzun behar die:

- Merkatu-aukerak eta gizarteak orokorrean (hiritarrek, enpresek...) planteatzen dituen beharrak aprobetxatzea. Enpresa-beharrek (esplizituek eta ezkutuek) jardueren oinarritzko alderdia izan behar dute.
- "Ezagutzaren Sorrera" behar bezala dimentsionatu behar du. Hori aldagatzen eta garapenaren motorra da eta lurralde osoak aurre egin behar dio gizartean EZA-GUTZA ongizatea hobetu eta garatzeko oinarritzko tresna bezala erabil dezagun. Ildo horri jarraiki, enpresak eta hiritarrak ez dira bakarrik eskatzaileak, baita, azken finean, I+G+b finantzatzen duenak ere.
- Zentro Teknologikoak nazioarteko lehian sartu behar dira, enpresek laguntzak bi lekutara bideratzeko: bate-tik, tokiko ezagutzara eta, bestetik, nazioarteko ezagutzara.

Bestalde, I+Gren eta berriztapenaren Estatistikak egiteko orduan, metodologia estatistikoa berraztertu behar delakoan gaude hurrengo arrazoiengatik:

- Sare Transnazional Atlantikoko (STA) Berriztapen Taldean Euskal CESk parte hartu behar du. Horrekin gureak bakarrik ez diren zenbait hipotesi berrets daitezke, berriztapenaren analisisan talde garrantzitsua inplikatu egoten baita. Enpresa askorentzat berriztapenak bakarrik zientziarekin eta teknologiarekin zerikusia du. Ildo horri jarraiki, asko eta asko berriztatu egiten dute produktuak etengabe hobetzen ari baitira edo produktu berriak garatzen ari baitira, baina ez dira jakitun. Ondorioz, aipatu enpresak ez dira berriztapen-estatistiketan zenbatzen eta berriztapen-zirkuituetatik kanpo gelditzen dira.
- Finantzaioari dagokionez, euskal enpresek I+Gn egin-dako gastua finantzatzen dute ehuneko altuan enpresaren funtsekin. Hala eta guztiz ere, Eustaten hitzetan, zenbait proiektutan, enpresa batek beste batekin lanean diharduenean, finantzaioaren jatorria publikoa da.

Informazioaren eta Komunikazioaren Gizarteari dagokionez, gure iritziz enpresak hiritarrak baino hobe integratzen ari dira bertan.

Ildo horri jarraiki, etxebizitzetan eta 14 urtetik gorako artean IKT geroz eta gehiago erabiltzen dira, baina oraindik ez dira Europako batez bestekoak lortzen. Gauza

berdina gertatzen da Interneten erabilerarekin eta, hede-penez, merkataritza elektronikoarekin 14 urtetik gorako artean.

9 langile baino gehiago enpresetan IKT sartuak daude eta EEko batez besteko mailak lortzen dira. Gainera Estatuko autonomia erkidegoen buruan dago, baita Europako zenbait herrialdeen gainean ere.

Hala eta guztiz ere, enpresek lotura-tasa handia izan arren, gutxi erabiltzen dira IKTko lineako jarduerak; enpresa handien eta txikien artean "prestakuntza elektronikoaren pitzadura" gertatzeaz gain, "zartadura digitala" sortzearen arriskua dago, aplikazio aurreratuenak aztertuz gero.

Ondorioz, aurren ere Informazioaren Gizartea sustatzeko ekintzak egiten direnean, kasu bakoitzean dauden desberdintasunak kontuan hartzea eskatzen dugu, bai hiritarren artean (egoera familiarra, adina, prestakuntza...), bai enpresen artean (tamaina, sektorea, langileen prestakuntza...).

2.4. Natur ingurunea

Ingurumenak geroz eta garrantzi handiagoa du politika publikoetan, etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea hipotekatuz ezin dela ekonomikoki hazi jakitun izanik.

Kontseiluak positiboki balioztatzen ditu egindako esfortzuak eta honako alderdiak:

- Prestigeren hondamenditik (2003) bi urte igaro ostean, itsasertzeko uren kalitatea orokorrean hobetu egin da.
- Airearen kalitatea ona da edo gutxienez onargarria aztertutako azpizona guztietan.
- Banaketa-sarean galdutako ura %53,9 murriztu da 2003. urtean, datu hori 2002. urtekoarekin erkatuz gero.

1990-2003 denboraldian materialen kontsumoan eraginkortasunak %22 egin du gora, hau da, BPG/NTM bezala neurtuta, materialen produktibitatea gehitu egin da.

Hala eta ere, hurrengo gertakariak kezka sortzen digute:

- Ur kontinentaletan eta estuariokoetan tarte askotan ura egoera txarrean dago.
- Negutegi-efektuko gasen igorpenak %35 gehitu dira, Kyoton finkatutako %15aren aldean.
- EAEko azaleraren %9,9 (%3,6 gauez) Osasunari buruzko Munduko Erakundeak gomendatutako mugetatik gorako soinu-mailak pairatzen ditu.

- EAEn biztanleko %7,4 hondakin arriskutsu eta hiri-hondakin gehiago sortzen da 2001-03 denboraldian lehenengo kasuan eta %1,9 2002. eta 2003. urteen artean bigarren kasuan (azken datu eskuragarriak bi aldagaian).
- 2002. eta 2003. urteen bitartean biztanleko uraren kontsumoa %1,4 hazi da.
- Aurreko urteko datuarekin erkatuz, 2005. urtean %62,5 egun gehiago izan dira airearen kalitatea substantzia poluituekin eta, gainera, legezko mugak gaindituta.

Onorioz, EAEko Ingurumen Estrategian planteatutako helburuak lortzearen lanean jarraitu behar dugu. Beste hitzetan esanda, ingurumen-helburuak hobe integratu behar dira sektore-politiketan, erakunde publikoen artean eta erakunde publiko nahiz sektore pribatuaren artean koordinazioak handiagoa izan behar du, tresnetan eta ekintzetan berriztapena sustatu behar da eta ingurumen-alderdiekiko enpresen eta hiritarren sentsibilizazioak handiagoa izan behar du. Azken finean, gure natur inguruenaren egoera nabarmenki hobetu behar da.

2.5. Egoera ekonomikoa 2005. urtean

2005. urtean EAEko une ekonomikoari buruz hausnarketa egiteko orduan, hazkuntza ekonomikoaren eritmoa positiboa dela aipatu behar dugu. Dena den, zenbait alderdik egitura-bide hori zehatz dezakete. Are gehiago, mehatxuak izan daitezke etorkizuneko eboluzioan. Zehatz-mehatz esanda, gure erkidegoan BPGren hazkuntza-tasa zenbaki %3,9 izan zen, Estatukoaren eta EEkoaren gainetik alegia, eta bigarren seihilekoan %4ren gainetik agertu da.

Emaitza horiek oraindik gehiago balioztatu behar dira honakoa kontuan hartuta: aurten eboluzio ekonomikoa arinki moteldu dela garatutako arlo nagusietan. Gainera, datu horri ez dio lagundu petrolioaren prezioaren igoerak eta merkataritza-trukeak murrizteak. Ildo horri jarraiki, 2005. urtean munduan BPG bost hamarren moteldu da (FMIren datuen arabera), EEBBko hazkuntza zazpi hamarren atzeratu da eta EEkoa zortzi; bien bitartean, munduko merkataritza-trukeak ez dira hain dinamikoak izan eta ia hiru puntu murriztu dira.

Zaila da EAEko BPGren hazkuntza azaltzeko faktore azpimarragarria zehaztea, bai eskaerak, bai eskaintzak lagundu baitute, neurri handiagoan edo txikiagoan, emaitza horiek lortzen.

Ildo horri jarraiki, kontsumo pribatuaren eskaerak sendo eta egonkor jarraitzen du (%3tik gorako tasak) eta egoera ekonomiko orokorrari, etxebizitzakoari eta aurrezpenari dagokionez, etxebizitzetan hobekuntza orokortua hautematen da. Inbertsioei erreparaturik, urtearen zati gehienean %5,5 baino gehiago izan dira. Gainera BPGren kanpoko kontribuzioa positiboa izan da eta azken seihilekoan puntu erdira iritsi da, esportazioaren eta inportazioaren hazkuntza-tasak nabarmenki moteldu arren. Hori gainerako herrialde garatueta ere hala gertatu da. Hala eta guztiz ere, ziklo-joerako datuei erreparaturik, bi aldagaian gorakada garrantzitsua izan da.

Eskaintzaren aldetik hazkuntzaren buru eraikuntzak jarraitzen du (%5,3). Hazkuntza joan den urtean lortutakoa (%4,4) baino handiagoa izan da. Hala, sektorea moteltzera zihoala aipatzen zuten aurreikuspenak ezeztatu egin dira. Era berean, berririk onena industrian aurkitu behar dugu, geroz eta dinamismo handiagoa baitu. Ildo horri jarraiki, batez beste urtean %4,4 hazi da, nahiz eta azken hiruhilekoan %5,2ra iritsi. Bestalde, zerbitzuek oraindik hazkuntza eutsiak mantentzen dituzte eta %3tik gorakoak (%3,6 batez beste urtean) dira. Azkenik, lehen sektoreak hazkuntza negatiboa du, hau da, -%11,5. Aurreko urtean, berriz, ia %30 hazi zen.

Gainera, lanaren itxurazko produktibitateak 2002az gero adierazitako berreskurapena finkatzen du eta aurrera egiten du %1,4 lortu arte. Hala, hamarkadako batez bestekoaren gainean kokatu da. Arrazoi nagusia industri sektorearen bultzada izan da: batez beste urtean %3,3 lortu da; urteko laugarren hiruhilekoan ia %6ra iritsi da. EAEko produktibitatearen eboluzioak Estatukoa (2005. urtean negatiboa) eta EE25ekoa gainditzen du puntu erdian (ia puntu batean EEMko produktibitateari dagokionez).

Hala, EAEk biztanleko Estatuko batez bestekoaren %127 BPG lortzen du. Hori altuena da Madrileko Komunitatearen atzetik (INEren datuen arabera %131). Europako Elkarteari dagokionez, erosteko parekotasuna kontuan hartuta EAEko BPG biztanleko 2003. urtean (Eurostatek argitaratutako azkeneko datua) EE25eko %121 da eta 254 herrialdeetatik (2. Mailako Lurralde Unitate Estatistikoak edo "NUTS2") 46. tokia betetzen du. Munduko jarduera ekonomikoa eta kanpoko merkatuak, bereziki, Europakoak, susper daitezkeen neurrian, gure industri jarduerak eta berarekin produkzio-sektoreen hazkuntzak emaitzak finkatuko dituzte. Horregatik, ahalegin handiagoa egin behar dugu hurrengo arloetan: ikerketa

edo berriztapen teknologikoa eta gure ondasunen eta zerbitzuen kalitatea eta balio erantsia hobetzea.

Baina alderdi positibo horien guztien aldean, euskal ekonomiaren argazkia ez da osoa, zenbait puntu kezkatu aipatzen ez baditugu. Ildo horri jarraiki, alde negatiboan inflazioa jarri behar da: goranzko joera du eta urtean batez beste %3,3 hazten da. Abenduan %3,7ra iritsi zen eta aurreko urteko tasa gaititu zuen. Zalantzarik gabe, energi produktuen prezio altuek hazkuntza azaltzen dute neurri handian. Hori gure inguruko herrialdeetan gertaera orokorra izanik, kezkarria suertatzen da urte honen amaieran EEMrekin prezioen diferentziala gehitzea eta euro zonak inflazio handiena duen herrialdea izatea.

Izan ere, energi prezioak zuzenean eragiten dien produktu-multzoez gain, beste zenbait ondasun eta zerbitzu (edari alkoholikoak eta tabakoa, etxebizitza eta ostalaritza) aurkituko ditugu. Horiek aurreko %4tik gorako hazkuntza izan dute. Baina denboraldi zabalagoa hartuta, etengabe zenbait azpimultzoetan prezioa kontsumo-prezioen gainean handiagoa izan da. Ildo horri jarraiki, azken hiru urtekoan elikaduraren prezioak %12,8 hazi dira eta denboraldi horretan inflazioaren laurdena baino gehiago dira. Horren atzetik jatetxeak, tabernak eta kafetegiak daude, ibilgailuekin zerikusia duten ondasun eta zerbitzu nahiz ibilgailuekin batera. Horieta bakoitzak %18 gehitu dio hiru urtekoaren KPIren hazkuntzari. Elikadurarekin batera prezioen igoeraren %60 azaltzen dute. Halaber, beste talde inflazionistak honako hauek dira: etxebizitzarekin zerikusia duten zerbitzuak, tabakoa, aseguruak eta elektrizitatea, gasa eta erregaia. Azpimultzo horiek guztiak batera hartuta, prezioen hazkuntzan %80 dira 2002-2005 hiru urtekoan.

Prezio horiek nazioarteko merkatuetan gure lehiakideak direnen ginetik igo dira eta, beraz, gure produktuen lehiakortasuna murriztu egiten da, zailagoa da esportatzea eta horrekin hazkuntza eta enplegua murrizten dira. 2005. urtean BPGren hazkuntzarako kanpoko sektorearen laguntza positiboa izan arren (lehenengo aldiz 2000az gero), aurreko urteetan atzerriarekin trukeen saldo garbia narriatu egin da eta gure ekonomiaren hazkuntza oztopatu du, bereziki, industriaren sektorean. Horregatik, agintari bakoitzaren erantzukizun-eremuan inflazioaren kontrako politika aplikatzea aldarrikatu behar dugu. Bereziki erreparatu behar zaie prezioen gainean presio handiagoa egiten duten sektoreei.

Halaber, 2005. urtean beste gertaera kezkarria da: euskal ekonomiaren egitura industri bultzada galdu da. Ildo horri jarraiki, Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera, industri sektorea da 2005. urtean Balio Erantsi Gordinaren %28,3ren arduraduna. Datu horri erreparatu, 2004. urtean baino hiru hamarren gutxiago dira eta 2000. urtean baino hiru puntu gutxiago. Enpleguaren ikuspegitik, 2005. urtean guztiaren %26,1 izan zen, 2004. urtean baino zazpi hamarren gutxiago eta 2000. urtean baino 1,7 puntu gutxiago. Industri eboluzio honen ondorioz, Euskal CESK honakoa jakinarazi nahi du: euskal ekonomia beharrez industri garrantzia eta bultzada behar duela hazkuntza- eta garapen-maila mantentzeko.

Azkenik, 2005. urtean beste alderdi azpimarragarria hurrengoa da: EAEn atzerriko inbertsioa⁴ txikiagoa izan dela; berriz ere jaitsi egin da (%-44, Estatuan atzerriko inbertsioa %24 hazi den bitartean), aurreko urtean igo ostean (%+150); beraz, historikoki maila minimoetan dago. Jaitsieraren arrazoiak honako hauek dira: Europako herrialdeetako inbertsioak asko murriztu direla. EAEn batez beste atzerriko inbertsio guztien %90 baino gehiago ziren. Aurreko %53 jaitsi dira (EE25en kasuan 2004ko datuei erreparatu, kanpoko inbertsioak %-40 jaitsi dira). Etorkizunean atzerriko inbertsioen eboluzioa jarraitu behar da 2005. urteko jaitsiera finkatzen den jakiteko. Beste batzuetan aldagai zehatzetan datua puntuala suertatu da eta euskal ekonomiari erreparatu, oso aldakorra da, urte zehatzetan egindako proiektu puntual handiek eragin handia baitute.

2.6. Euskal sektore publikoa

EAEn Euskal Sektore Publikoaren eboluzioa (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak) zehazten duten datuei erreparatu, diru-sarrera publikoak asko gehitu dira: 2005. urtean %10. Zuzenean %16 zerga gehiago bildu da (PFEZ %11,5 eta Sozietateen gaineko Zerga %26,4), baita zeharka %11 gehiago ere (BEZa %14,8 hazi da, doikuntzak barne). Arrazoiak: une honetan euskal ekonomia oso sendoa dela.

Azken bost urteetan diru-sarreraren hazkuntza %45 izan da eta BPG arruntaren hazkuntza (%32,7) eta gastu publikoarena (%37) gaititu du, aurreko bost urtekoak hautemandako eboluzioaren aldean. Garai hartan hiru aldagaiak parekatuta hazi ziren (%44).

⁴ Urtarila-abendua behin-behineko datuen arabera, atzerriar balioak dituzten erakundeak kenduta. Horiek Ekonomia eta Ogasun Ministerioi Kanpoko Inbertsioen Erregistroan daude.

2005. urtean diru-sarrera gehiago izan direnez, EAEn BPGrekiko diru-sarreraren ehunekoa 2000. urtean %20,4 bazen, 2005. urtean %21,5 hazi da; bien bitartean, gastu publikoa bi urte horien bitartean %20an mantendu da.

Gastuekiko diru-sarrerak (oinarrian diru-sarrera arruntak erreferentziatzen hamarkada hartuta) gehitzearen lehenengo ondorioa honakoa da: aurrezpen publikoa hazi dela; 1995. urtean 654 milioi euro ziren eta 2005. urtean 2.187 milioi izan dira (1995eko BPGren %2,27tik 2005eko %3,80ra arte, nahiz eta 2000. urtean %4,4ra iritsi). Gainera, administrazio hauetan superabit publikoa oso handia izan da: 1995. urtean BPGren %0,64 bazen, 2005. urtean %1,52 izan da (halaber, gehieneko balioa 2000. urtean izan zuen: %1,74). Saldoa 872 milioi euro izan dira.

Zalantzarik gabe, superabit publikoaren jomugari buruz galdetu behar da, inbertsioak ez baitira gehitu: 2002. urtean BPGren %3,18 baziren, 2005. urtean %2,51 izan dira (1995-2005 denboraldian ratorik txikiena). Inbertsio horiek beharrezkoak dira, bai azpiegiturretan, bai produkzio-aparatuan, ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko. Halaber, gizarte-aparatuan (osasuna, zahartzarorako gizarte-zerbitzuak, etab.) inbertitu behar da gure erkidegoaren ongizatea gehitzeko eta desberdintasunak murrizteko.

Azkenik, enpresaren sektore publikoan emaitzen jobera nabarmenik aldatu da. Aipatu sektorean EAEko Administrazio Orokorrak edo Erakundekoak parte hartzen du. 2003. urteko azken datu eskuragarrien arabera, 67,6 milioi euroko irabaziak izan dira aurreko urtean -111,6 milioi galdu. Bi arrazoi nagusi daude: batetik, Eusko Jaurlaritzaren mende dagoen EITB taldearen finantziakzioa aldatu da: dirulaguntzak ematetik zenbait urtetarako kontratu-programara pasa da (orain diru-sarrera bezala biltzen dira).

Bestetik, A8 autopista Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei itzuli zaie eta kudeatzeko sortu diren bi foru-enpresa berriek irabazi handiak dituzte, nahikoa erakunde mende dauden enpresa publikoen emaitzak positibo bihurtzeko.

2.7. Enplegua eta prestakuntza

EAEko lan-merkatuari buruzko datuen arabera, 2005. urtean eboluzioa positiboa izan da aurreko urteetako txostenetan larriak ziren zenbait alderditan: jarduera, lan-

gabezia eta langabeziaren iraupena, generoko desberdintasunak eta adina, etab.).

Guztira 951.500 pertsona lanean dihardu, beraz, okupazio-tasa %51,7 da (%65,3 16 eta 65 urte bitarteko pertsonentzat). Urtearen amaieran 49.100 pertsona zeuden langabezian eta horietatik %31 luzaroan. Laugarren hiruilekoan langabezi tasa %4,9 izan da. Jarduera- eta enplegu-tasari dagokionez, genero-desberdintasunak murriztu egin dira eta, batez ere, langabezi tasan nabarmentzen da: urtearen amaieran 1,3 puntuko desberdintasuna. Dena den, oraindik emakumezkoen kontrakoak dira ehuneko 20 puntutan. Gainera, gazteen artean langabezia %13,5 izan da eta tasa 7 puntutan murriztu da.

Batetik, langabezi tasari erreparatu, EAE EEM edo EE11 baino egoera hobean dago, 2005. urteko batez besteko datuak azpian kokatzen baikaituzte (0,9 puntu gizonezkoen kasuan eta 0,4 puntu emakumezkoen kasuan). Bien bitartean, gizonezkoen okupazio-tasa gainean dago: %74,8 EEMko %71,8ren aldean. Era berean, emakumezkoen jarduera- eta okupazio-tasei dagokionez, desberdintasunak gutxienean dira: %61,5 eta %55,2 EE11n eta %59,6 eta %53,9 EAEn, hurrenez hurren.

Hobekuntza nabarmen honi esker, hiru helburutan jarri behar dugu arreta, Europako batez bestekotik oraindik urrun baikaude eta gure irtiz aurrera egin behar da:

- Behin-behinekotasun altua.
- Gazteria lan-merkatuan sartzea.
- Lan-merkatuan zenbait genero-diferentzia deuseztatzea.

Lehenik eta behin, behin-behinekotasunaren tasa azpimarratu behar dugu. Adierazle horretan erregistroak txarrak dira: 2005. urtean EAEn batez beste tasa %25,6 zen EE-11ko %15,9ren aldean. Sexuen arabera, desberdintasunek 8 puntuak gainditzen dituzte gizonezkoen artean (gure Erkidegoan batez beste %23,3 EE-11ko %15,2ren aldean) eta 12 emakumezkoen artean (EAEko %28,8 EE-11ko %16ren aldean). Nahiz eta murrizteko joera izan, ratio horiek %60 gainditzen dituzte gazteen artean. Gainera, PRAK "kontraturik gabekoak edo bestelakoak" ditu eta %3,8 lirateke (%6,7 emakumezkoen kasuan eta %1,5 gizonezkoen kasuan).

Era berean, EAEn langabetuen 10.000 pertsonak 25 urtetik behera ditu, pertsona langabetuen %18 ia eta kasu honetan emakumezkoen eta gizonezkoen artean banaketa berdina da. Nahiz eta egun gazteen artean langabezi tasa handiena ez gertatu, 2005. urtean batez beste

langabezi tasa talde horertan %13,5 zen (gainerako adinetakoa bikoizten du); behin-behinekotasunaren tasa, berriz, %65 da (gainerako adinetakoaren hirukoitza). Aipatu tasak azken urteetan murrizten ari dira. Halaber, "kontraturik gabeko" gazteriaren ehunekoa 2005. urtean batez beste %5,2 zen.

EE15ean 2005. urtean 25 urtetik beherakoen langabezi tasa gainerako adin-multzoetan baino 10 puntu handiagoa da (%17,1 %7,7ren aldean) eta behin-behinekotasunaren tasa gutxi gorabehera %40 (gainerako adinetan %10). Datu horiek aipatutakoaren arabera, euskal gazte-riak langabezi tasa txikiagoa du, baina behin-behinekotasuna handiagoa da, 25 puntutan alegia; dena den, gure erkidegoan eta EEko gainerako herrialdeetan, oro har, lan-merkatuan aldi baterako kontratuen bidez sartzen da.

Horregatik, enplegu-motan eta -sorreran eragiten duten tresnei buruz hausnarketa egitea komenigarria delakoan gaude. Ildo horri jarraiki, eragile ekonomikoen eta gizarte-eragileen eta lan-agintarien artean hitzarmenak izenpetu behar dira talde guztien eta, bereziki, gazteen behin-behinekotasun altua murrizteko. Lehenengo fasean Europako ingurunearen antzeko mailetan kokatu behar dugu.

Euskal CESk arazo hau jakinarazi du. Halaber, gazteen ikasketa-mailen eta ikasketa-moten garrantzia azpimarratu du lehenengo enplegu azkar bilatzeko orduan. Horregatik, organismo honek lan-merkatuak eskaintzen dituen aukerei buruz gazteak informatzeko beharra aurkitu du. Halaber, ogibide-orientazio egokietarako politikak egitearen beharra dago eta, bide horretatik, hezkuntza eta lan-merkatua lotu behar dira. Helburua enplegua eskaintzen dutenen eta lehenengo enplegua bilatzen duten gazteen artean egokitzapena hobe izatea da, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki. Lan-merkaturako iragaiteak arrakastatsua izan behar du.

Azkenik, lan-merkatuan generoko desberdintasunak murrizten jarraitu behar ditugu. Alderdi batzuetan EAEn sexuen arteko desberdintasunak murriztu egin dira, hala eta guztiz ere, oraindik Europan dauden batez bestekoak baino handiagoak dira eta oraindik gehiegizkotzat jo ditzakegu. Helburua erabat desagertzea da. Ildo horri jarraiki, jarduera-tasan eta enplegu-tasan 20 puntutik gorako desberdintasunak daude emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Aipatu diferentziak adin-multzo helduetan oinarritzen dira, hain zuzen ere, 35etik 34 urtera bitartekoetan eta laurdenera murrizten dira gazteenen artean. Langabezi tasari dagokionez, hiru puntuko desber-

dintasuna dago. Kasu honetan 24 urtetik beherako emakumezkoetan tasa txikiagoa da. Behin-behinekotasunari erreparatuz, diferentzia bost puntu baino gehiagokoa da eta 5,2 puntu gehiago kontraturik gabeko emakumezkoen kasuan. Gainera, tradizioz gizonezkoek betetako sektoreetan emakumezkoak sartzea bultzatu behar da. Orain arte emakumezkoen enplegua zerbitzuetan kontzentratzen da: %85ek sektore horretan dihardu, %12k industrian eta %1,6k eraikuntzan.

2.8. Lan-osasuna

Lanean izandako ezbeharren kopurua 2001az gero beherantz zihoan, baina aurten EAEn gehitu egin da, justifikatzeko edo azaltzeko arrazoirik izan gabe; batetik, kontratazioa ez da gehiegi gehitu eta, bestetik, jarduera ez da arindu.

Ildo horri jarraiki, 2005. urtean baja izan duten lan-istripuak %10 hazi dira (larriak %7,4 gehitu dira, heriotzarekin amaitu direnak %12,3 eta lanerako bidean izandako istripuak %16). Bien bitartean, gaixotasun profesionalak laukoiztu egin dira. Izan ere, lanaldian bajarekin izandako istripuei erreparatuz, hazkuntza handiena larrienetan gertatu da: istripu arinak %9,2 hazi dira, larriak, berriz, %11,8 eta heriotzan amaitu direnak %17. Gainera, oro har, hazkuntzak sektore guztietan gertatu dira: %6,5 eraikuntzak eta %11 zerbitzuetan. Tarte horietan daude gainerako guztiak. 2005ean heriotzan amaitu diren 82 istripuak (2004. urtean baino 8 gehiago) aztertuta, 62 lanaldian gertatu dira (aurreko urtean bezala lanerako bidean 20 istripu izan dira) eta 2004. urteko datuekin erkatuz bakarrik lehenengo sektorean (bi hildako arrantzaren sektorean, 2004. urtean izandakoaren erdia) eta zerbitzuen sektorean (22 hildako, aurreko urtean baino 7 gutxiago) murriztu dira. Industrian, berriz, 15 pertsona hil dira (2004. urtean baino 4 gehiago) eta 23 eraikuntzan (2004. urtean 9 izan ziren).

Hala, sektore bakoitzean lanean diharduen pertsonen kopuruko lanean izandako ezbeharren tasa aurten hazi egin da: 2004. urtean bajarekin lanaldian 47,2% istripu izan baziren, 2005. urtean lanean diharduen 1.000 pertsonako 50,9 izan da. Ildo horri jarraiki, lehenengo sektorean hazkuntza %57 izan da (enplegu gutxiago baitago), zerbitzuen sektorean %6,6 eta eraikuntzaren eta industriaren sektoreetan %10.

Gainera, 2005. urtean EAEko datuak Estatukoak baino 2 puntu altuagoak dira (Estatuan %3,9 hazi dira eta, izan ere, hirugarren erkidegoa da hazkuntza kontuan har-

tu izanez gero). EE-15en barruan Espainia da ezbeharren kopuruari dagokionez eragin⁵ handiena duen herrialdea. Are gehiago, Europako batez bestekoa bikoizten du (%65,2 EE-15eko %33,3rekin aldean 2003. urtean istripu larriei dagokionez eta heriotzarekin izandako EE-15eko hirugarren herrialdea Portugalen eta Austriaren atzetik).

Nolanahi ere, gertaera honi buruz hausnarketa egiteko 2004. urteko zenbait datu esangarri aztertu behar ditugu:

- Eraikuntzaren sektorean gertatzen dira heriotzan amaitutako istripuen %20tik %40ra lanaldian, EAEn lanean diharduten langileen %10 baino gutxiago direnean. Ildo horri jarraiki, sektore honetan gorabeherak handiagoak dira: lanean diharduen mila pertsonako 109,2 gainerako sektoreetako %45,3ren aldean; heriotzan amaitutako istripuak %0,28 dira gainerako sektoreetako %0,045en aldean.
- EAEn bajarekin izandako lan-istripuen erdia lanpostuan bi hilabete baino gutxiago daramatzaten pertsonen gertatzen zaie (2004ko datuekin Estatuan izandakoaren bikoitza).
- Lan-istripuak ia %50 banatzen dira aldi baterako kontratua eta kontratu mugagabea duten pertsonen artean, kontratu mugagabea duten pertsonen kopurua aldi baterako kontratua duten pertsonen bikoitza denean, hau da, ezbeharren kopurua bikoitza da aldi baterako kontratua duten pertsonen artean.
- Enpresa txikietan (10etik 50 langile bitartera) enpresa ertainetan eta handietan baino ezbehar gehiago gertatzen dira. Era berean, enpresa txikietan mikroenpresetan (10 langiletik beherakoetan) baino ezbehar gehiago daude.
- Enpresaren prebentzio-erakundearen arabera, ia ezbeharren %60 prebentzio-sistemaren arduraduna langile izendatua den enpresetan gertatzen da. Guztira izandako ezbeharren %60 arrisku-ebaluazioa duten enpresetan gertatzen da. %40 arrisku-ebaluazioa ez dutenetan gertatzen da.

Behin betiko ondorioak ateratzeko, lan-istripuak sektoreka, adinka, antzintasunaren arabera, enpresa-moten arabera, kontratua eta okupaziokoa ezagutu beharko genuke. Beraz, erakunde eta organismoek ikerketa-mota horiek egin behar dituzte, bai teknikak, bai datuak, bai teknikak aurki ezagunak baitira. Nolanahi ere, nahiz eta

datu horiek nahikoak ez izan, ezbeharrek murriztu behar dira eta prebentzio-neurriak hartzeko enpresen eta Administrazioaren arteko lankidetzak behar da.

Aurten izandako datu negatiboetan oinarrituta, oraindik lan handia dago egiteko prebentzio kulturaren sentibilizazioan eta sustapenean. Gainera, arloan trebatu egin behar da, bai enpresaburuei, bai langileei. Azkenik, istripuak eta lan-arriskuak prebenitzeko politiketara aurreratu behar dira. Lan-segurtasunean ere inbertsioak gehitu behar dira.

2.9. Talde ahul zehatzen bizi-baldintzak

Aldaketa demografikoek gizarte berria moldatzen ari dira eta, dirudienek, 2020az gero arindu egingo da. Europako Batzordearen esanetan, gazteen belaunaldietan eta adinean aurreratuak diren hiritarretan oinarrituta, hazkuntza-potentzialari balioa emateko bide berriak bilatu behar dira.

Lehenik eta behin, umeek eta gazteek errelebu hartuko diete berak baino ugariagoak ziren belaunaldiei. Egia da, bai, prestakuntza-maila handiagoa dela, beraz, produktibitatea eta egokitzapen-ahalmena handiagoak izango dira. Dena den, gazteria baliabide urri bihurtu daiteke eta baliteke gehiegi ez balioztatzea eta integrazteko zailtasunak izatea.

Talde honen integrazio-elementu nagusia lan-merkatua da. Ildo horri jarraiki, gazteen enplegu-datuak azken urte hauetan hobetu arren, oraindik gaur egun gazteek lan-merkatuarekin harreman konplexuak eta arazoekin izan ohi dituzte: lehenengo enplegua lortzeko borroka, kontratuaren behin-behinekotasunarengatik lan bat edo batzuk bilatzea, ikasketak eta lana partekatzearen arteko erabakia, etab.

Kontseilu honen iritziz, hobekuntzak izan arren, eragile ekonomikoek eta gizarte-eragileek lanean jarraitu behar dute ildo horretatik. Izan ere, Berezko Ekimenari buruzko Ikerketak, "EAEn enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten taldeak" titulupean Euskal CESk 2005ean onartutakoak, honakoa ondorioztatzen du: lehenengo enplegua arrazoizko epean lortzeko orduan, gazteentzat oso garrantzitsua dela ikasketak eta ikasketak. Gazteek erabaki garrantzitsuari aurre egin behar

⁵ Eurostaten datuak lanean izandako istripuak aipatzen dituzte eta baja hiru egunetik gorakoa izaten denean (istripu larriak) eta heriotzan amaitutako istripuak (biktima hil egiten da istripua izan eta urtebete geroagora arte).

diote, ikasketak aukeratzen dituztenean. Ikerketaren emaitzei erreparatuz, hezkuntza-sistema berritu egin beharko litzateke gazteen artean “enpleabilitatearen” berri informazioa hedatzeko.

Euskal gazte gehienek zailtasunen aurrean babesteko famili eta harreman-ingurunea dute eta nahiz eta mailak oraindik desiragarriak ez izan, langabezi tasak murrizten ari dira. Hala ere, eta Kontseilu honek datu ofizialik ez dagoela alde aurretik aipatu arren, gazteen azpimultzo bereziari erreparatu behar zaio. Langabezian egoteaz gain, drogak hartzeagatik edo ezintasuna izateagatik, eragozpenak, zailtasunak edota gatazkak dituzten gazteek ari gara. Horiek baztertu egingo dira edo, behintzat, arrisku hori izango dute.

Bestalde, bizitza-itxaropenak etengabe gorantz egin du eta horri esker gure gizarteak geroz eta pertsona zahar gehiago ditu (tradizioz muga 65 urte dira). Oso zaharrek kopurua ere (80 urtetik gorakoak) igo egin da. Aurreikuspenei erreparatuz, bakarrik bizi diren zaharren proportzioak gora egingo du, batez ere, emakumezkoen artean. Nolanahi ere, emakumezkoen bizitza luzeagoa denez, emakumezko alargun gehiago dago. Horrekin batera, orain arte gizonezkoek baino erretiro-pentsio txikiagoak izan dituzte.

Dena den, ondo zahartzeak garrantzi handia du, antzinako estereotipo negatiboak baztertu ostean. Ildo horri jarraiki, optimismo berria hedatzen da eta orain pertsona zaharrak aprobetxatu gabeko gaitasunak eta potentzialtasunak izan ditzakete. Orain arte pertsona zaharrak hartzaileak besterik ez ziren: zaintzak, laguntza materiala, laguntza ekonomikoa. Gaur egun, berriz, beren familiei laguntza eskaintzen diete —gogora dezagun EAEn 50.000 etxebizitzak aitona-amonetara jotzen duela adin txikiak zaintzeko— eta geroz eta gizarte-jarduera altruista gehiago egiten dituzte borondatezko elkarrekin barruan.

Hala eta guztiz ere, pertsona zahar mendekoei eta beren familiei laguntza eskaini behar zaie eta gizarte-arazo nagusi bihurtzen ari da, baita batzuetan ekonomiko ere. Oro har, honakoa ondoriozta daiteke:

- Mendekotasuna adinarekin gehitzen da eta talde arriskutsua hurrengoak da: emakumezkoa, alarguna eta diru-sarrerak gutxirekin.
- Zaharren %12k laguntza behar du eguneroko jarduerak egiteko (neurritxo mendekotasuna edo mendekotasun larria) eta %26k mendekotasun arina kontuan hartuz gero.

- 75 urtetik aurrera ia biztanleen erdiak arazoan ditu eguneroko jardueraren batean (oinarritxoak eta instrumentalak) eta bostetik baten kasuan larriak dira. Mendekotasuna eta laguntzaren beharra batez beste 72 urterekin hasten da.
- Gizarte-aldaketei erreparatuz, etorkizunean zerbitzu formal gehiago eskatuko dira; hori izan ezean, laguntza informalak hurrengo urteetan laguntza-eredu nagusia izan beharko du mendekotasunak dituzten pertsonentzat.

Egoera horien aurrean, laguntza informala “gizarte-babes ikusezina” da. Babesa, doakoa eta masiboa, pertsona zaharrei arreta eskaintzeko zerbitzu-sistemaren barruan oso garrantzitsua da. Pertsona zaindaria informaren profila honakoa da: emakumezkoa (%83,6), oro har, etxeko andrea (%50), batez beste 52,9 urterekin. Zaharrek zaintzen dituzten emakumezko gehienak etxeko lanak egiten dituzte, hau da, lan-merkatutik kanpo daude; hala ere, askok lan horiek eta soldapeko lanak bateratzen dituzte. Ohiz zaintzen ari diren pertsonen emazteak edo alabak dira. Gainera, gehienek egiten dituzten lanetarako ez dute prestakuntza berezirik, %75ek zerbitzua etengabe eskaintzen du eta %47k sei urte baino gehiago daramatza halako pertsona zaintzen.

Familiek berez ezin dute konpondu pertsona hauen arreta; berdin dio mendekoak edo autonomoak izatea, beraz, orain baino laguntza gehiago izan beharko dute eta funtzio hori gizarte-zerbitzuek eta elkartasunerako eta zaintzarako sare publikoek onartu beharko dute.

Ildo hori jarraiki, IMSERSOren arabera, mendekotasunak dituzten pertsona zaharrei arreta eskaintzeko eskaintzan EAE Estatutako batez bestekotik hurbil dago. Teleslaguntza-zerbitzuak (65 urtetik gorako zaharren %2,3), eguneko zentroak (milako 6) eta egoitza-zerbitzuak (%3,9) batez bestekoaren gainean daude; bien bitartean, etxean laguntzeko zerbitzua (%1,8) Estatutako batez bestekotik (%3,1) urrun dago. Laburbilduz, zerbitzu nagusien estaldura EAEn pertsona zaharren %8,5era iristen da, Estatutoko pertsona zaharren %9aren aldean. Azken urte hauetan eskaera geroz eta handiagoa da eta, ondorioz, negozio-aukerak bilatzen enpresa-sektorea pixkana sisteman sartzen ari da eta, horrela, egoitzetan plaza-kopuruak gora egin du; hala ere, Administrazioak mendekotasunak dituztenen arretarako gizarte-zerbitzuen eskaintza egokitzten jarraitu behar du. Halaber, laguntza-mekanismo eraginkorrak ezarri behar ditu, zaharra, zati batean edo oso-osorik, etxean zaintzea erabakiz gero.

2.10. Osasuna eta osasun-sistema

Aurten ere Osasun Sailari dagokion gastuaren kontu-saila gehitu egin da, bai ospitaleetako osasun gastuari dagokiona (zentro publikoak eta pribatuak barne), bai ospitalez kanpoko jarduera publikoaren gastuari dagokiona. Migrazio-fenomenoak eta zahartze demografikoak bul-tzatuta, laguntzaren presioa handiagoa da.

Dena den, BPGren gainean ospitaleetako osasun-gastuak beherantz egin du, 2003. eta 2004. urteen arteko BPG kontuan hartuta: %2,8 izatetik %2,6 izatera pasa da. Ospitalez kanpoko jarduera publikoaren gastua konstan-tea mantendu da, hau da, BPGren %0,7.

Beste urtebetez atsegin handiz ikusten dugu EAE he-rrialde garatuen buruan dagoela jaiotzean izandako bizi-tza-itxaropenari dagokionez. Gainera, heriotzen kopurua murriztu egin da eta, beraz, Eustatek eta Ekurostateg ar-gitaratutako datuen arabera, EAEn, EE-15en eta EE-25en gertatzen den bezala, adituen kopurua eta 100.000 biz-tanleko oheen kopurua gehitu egin da.

Hala eta guztiz ere, zenbait alderdi azpimarragarri edota kezkatu nabarmendu nahi ditugu. Besteak beste, honako hauek aipa daitezke:

- Haurren heriotza-tasa gehitzea.
- VIHren eta neoplasia gaiztoen eragin handia.
- Jasotzen dituen zergetatik Osasunera Euskal Adminis-trazio Publikoak bideratzen dituen baliabide finantza-rioei buruz euskal hiritarrek egiten duten balioztapena. EAEn elkarriketatutako pertsonen %44,7 gutxi dela-koan dago eta %34,9 neurrizkoa delakoan.

Aurreko urteko Txostenean adierazi genuen bezala, erretzeari uzteak zirkulazio-gaixotasunen gainean onurak baditu, jokabide-aldaketa eta prebentzioa (VIHren probak sustatzera bideratutako esku-hartzeak indartzea, ahol-kua, gaixotasunen detekzio goiztiarra...) oinarritzakoak di-ra bai neoplasiaren, bai VIH-IHESaren eboluzioa geldia-razteko.

2.11. Hirigintza eta etxebizitza EAEn

Etxebizitzaren beharra estaltzeko zailtasun handienak dituzten segmentuak aztertuz gero, 2005eko Eusko Jaur-laritzaren Galdeketa emaitzak honako hauek izan dira: etxebizitza behar duten pertsonetatik (16.726 etxebizitza) %19k 96.000 €-tik behera ordain dezake. Aldaketen ka-suan proportzioa %6,5 da (3.000 etxebizitza). Etxebizitza-

ren beharra izanda, 2.616 pertsonak 42.000 €-tik behera ordain dezake eta 8.102k 72.000 € (horiei 876 kasu gehiago batu behar zaizkie, hain zuzen ere, aldaketa egin behar dutenak). Eboluzioaren ikuspegitik, azken urteetan behar dutenen artean etxebizitza finantzatzeko orduan, hobekuntzak nabaritzen ari dira, baina baliogabetu egiten dira prezioek gora egin baitute.

Dena den, babestu beharreko segmentua gorantz doa, etxebizitza libreen merkatuan ordaindu beharreko gutxieneko prezioaren muga 150.000 € baita. Hala, etxe-bizitza behar duten pertsonen %55,2k eta aldatu behar duten %16,5ek prezio horretan ezin dezake etxebizitza eros, 2005. urteko hirugarren hiruhilekoan batez beste etxebizitza librearen prezioa 285.100 € dela kontuan hartuta. Bestalde, une horretan aztertu da EAEn etxebi-zitzaren beharra. Ondorioz, hautemandako behar guztien %40,5ek etxebizitza librea erosteko zailtasun handiak di-tu. Bestalde, biztanle askok esfortzu handia egin behar dute etxebizitza erosteko. Gazteen artean diru-sarreraren %33,1 bideratzen dute etxebizitza ordaintzera. Tasa hori %27,5 da etxebizitza aldatu behar dutenen kasuan. Gai-nera, eskatutako maileguei dagokienez, 1995. urtean epea batez beste 16,6 urte izaten ziren eta 2004. eta 2005. urteetan epe hori 23,6 urtera igo da, beraz, luzaro-an egin behar da esfortzu finantzarioa. INEren Hipotekei buruzko Estatistikaren datuen arabera, 2005. urtean EA-En etxebizitza erosteko guztira 5.835 milioi euro presta-tu ziren, hau da, aurtengo gure Erkidegoko BPGren %10,1.

Bestalde, 2005. urtean aldaketa behar zuten pertso-nen %9,1k (%7,1 2004. urtean) eta lehenengo etxebizitza behar zutenen %4,8k (%4,3 2004. urtean) nahiago du alo-kairua jabetza baino. Ildo hori jarraiki, Etxebizitza Saila-ren datuen arabera, honakoa kontuan hartu behar dugu: alokairuan etxebizitza behar duten pertsonen hilabeteko errenta onargarria batez beste 256 € dela eta, gainera, talde horren %31k hilabetea 180 € baino gehiago ordaintzea ez duela onartzen. Datu horien aldean, 2005. ur-teko hirugarren hiruhilekoan alokairuaren batez besteko errenta 793,4 € zen.

Egoera horien kontra, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Etxebizitza Programak 2005. urtean 157,4 milioi euro gastatu ditu. Zenbateko hori azken urteetan nabarmenki igo da. Hala eta guztiz ere, EAEko BPGrekiko proportzioa ez da aldatu (%0,27). "Ohiko etxebizitza" kontzeptupean PFEZren aitortpenean aplikatutako kenketek aurki gaintzen dute.

Azkeneko datu eskuragarriak 2003. urtekoak dira: Foru Aldundiek PFEZrengatik kitapenak egin ostean, ohiko etxebizitzarengatik (alokairuan, inbertsioa, etxebizitzaren alokairua) lortutako kenketen zenbatekoak urte hartan guztira 356,9 milioi euro izan ziren (urte hartako BPGren %0,7), 2002. urtean baino %9,1 gehiago. Hori Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Programak urte hartan aurrez ikusitako aurrekontu-gastuaren %270,6 zen. Kenketa horiek garrantzi handiagoa dute errenta ertainetan, hau da, kita daitekeen oinarriaren 10.818,22 eta 30.050,61 € bitartean. Horietan kenketak %53,3 izan daitezke. Gero, errentak gora egiten duen heinean, murriztu egiten da. Kita daitekeen oinarriaren 6.010,03 eta 25.242,51 € bitarteko tarteak kenketen %65,5 metatzen du.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak bi urtez behin Etxebizitza Hutsei buruzko galdeketa egiten du. EAEn 2005. urtean 54.445 etxebizitza (%7) hutsak daude, hau da, bigarren etxebizitza (edo aldi baterako etxebizitza) bezala erabiltzen da ala ez da inor bizi. Zehatz-mehatz esanda, herena baino gehiago (20.198 etxebizitza) bigarren etxebizitza edo aldi baterako etxebizitza da eta gainerakoetan (34.247) ez da inor bizi. Informazio hori EAEko etxebizitza guztiekin alderatuz, %2,5 aldi baterako edo bigarren etxebizitzarako litzateke eta %4,3n ez da inor bizi. Dena den, 2001eko Biztanle eta Etxebizitzaren Erroldari erreparatur, 83.604 etxebizitza daude hutsak eta 41.219 gehiago lirateke bigarren etxebizitzak.

Etxebizitza Hutsei buruzko Bi Urtez Behingo Galdeketa eutsiz, etxebizitza hutsetatik bakarrik %8 (gutxi gora-behera 4.200 etxebizitza) eskaintzen dira merkatuan, bai alokairuan, bai salmentan. Eskaintza salmentan %5 da, 2003. urteko ehunekoaren antzekoa; bien bitartean, etxebizitza hutsen %2 alokairuan eskaintzen da. Beraz, ez dira etxebizitza huts asko merkatuan jartzen, egoera behin-behinekoa baita (bigarren etxebizitza bezala erabiltzen dira), etorkizunean erabiltzeko gordetzen baita edo alokairuan jartzeko beldurra baitago. Ondorioz, arlo honetan Administrazioak lanean jarraitu behar du.

2.12. **Pobrezia eta gizarte-baztertzea EAEn**

Baztertzea gizarte-fenomenoa da eta pertsonen gizartean integratzeko zailtasunak dituztenean sortzen da. Zehatz-mehatz esanda, honakoa aipa dezakegu: Eusko Jaurlaritzak Pobrezia eta Gizarte Baztertzeari buruzko egindako Galdeketa erreparatur, 2004. urtean 175.000

etxebizitza edo 400.000 pertsona baino gehiago gizarte-ongizatearen arriskuan dagoela. Horietatik ez dira zergatik pobrezia egoera larriak sortu behar, baina baztertzeari edo baztertzearriskuarekin zerikusia dute. Era berean, 2005. urtean EAEn 31.000 etxebizitzak Oinarritzko Errenta jasotzen zuen eta 24.000 pertsonak Gizarte Larrialdiko Laguntzak.

Baztertzea hala defini daiteke: gizarte-lotura puskatzea, hau da, pertsona eta eguneroko bizitza harremanetan jartzen dituzten kultur, ekonomi eta gizarte-loturak haustea, horiek ziurtatzen baitute gizartearen kohesioa eta unitatea. Pertsona baztertuak atomizatuak, isolatuak daude, gizartean ez daude oinarritzko talde baten barruan, hala nola familian, auzoan eta abarrean. Distantzia jarri ostean, ez dute inolako loturarik eta pixkana-pixkana gizarte erreferentziak galtzen dituzte. Gainera, gizarte-lotura galduz gero, irudiak balioa galtzen du eta autoestimua murriztu egiten da.

EAEko Txosten Sozioekonomikoak azken hiru edizioetan SARTU ren *"Gizarteak baztertzeko eta gizarteratzeko prozesuen behatokia"* izeneko lanari jarraipena egin dio. SARTUK Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, BBKren eta Europako Gizarte Funtsearen laguntzaz lanean dihardu eta EAEn gizarteratzeko programetan dabilen partaideen lagin baten eboluzioa aztertu du. Ekimen honen 400 pertsonako panel motako laginarekin lanean dihardu. Horiek baztertuak daude edo gizarteak baztertzeko arriskua dute eta gizarteratzeko programetan parte hartzen ari dira edo parte hartu dute. Hala, programak bost urte irautea ditu eta denbora horretan gizarteratzeko prozesua jarraitu ahal izango da. 2005eko txostenaren arabera, ikerketaren hasieratik laginaren eboluzioa laburtu da eremu desberdinetan: enplegua, egoera ekonomikoa, etxebizitza, hezkuntza, osasuna, gizarteratzea eta famili integrazioa eta gizarte-harremanak.

Laburbilduz, ikerketako pertsonen "gizarte-posizioa" kasu gehienetan (%45) hobetu egin da; bien bitartean, %33 dira antzeko egoera mantendu dutenak; gainerako %22etan egoerak okerrera egin du. Beraz, okerrera jotzearen gaineratik, hobekuntza eta mantentzea daude. Lagina kontuan hartuta alderdi hori oso garrantzitsua da, SARTU zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak baitira; beraz, gehienek hainbat jardura egin dute baztertzeko-egoera edo arrisku larria aldatzeko.

Bestalde, gizarte-arazo garrantzitsua da hirugarrenen aurrean betebeharrak edo ohizko beharrak estaltzeko ga-bezia ekonomikoak izatea. Pobrezia arriskua duten etxebi-

zitzetan 69,4k arazoren bat izan du azkeneko urtean. Gauza bera gertatu zaio ongizatea ez izateko arriskuan dagoen %28,2ri eta ongizatea duen %8ri. Hala dio 2004. Eusko Jaurlaritzak Pobreziari buruzko egindako Galdeketak. Galdeketa arabera, mantenu-pobreziaren tasa 2000. urtean %3,6 bazen, 2004. urtean %3,5 izan da eta %2,6tik %2,2ra pasa da metaketa-pobreziaren kasuan.

Pobrezi arriskuan dauden pertsonen artean, arazo nagusia honakoa da: gabezia ekonomikoa dutela eta gastuak murriztu behar dituztela. Egoera horretan %63,5 pertsona daude. Gastuak murrizteko orduan, astialdikoak eta aisialdikoak (%57,3) murrizten dira, baita jantziaren, elikaduraren eta etxebizitzaren oinarritzko gastuak (%63,2) ere. Halaber, garrantzia du hirugarrenei laguntza ekonomikoa eskatzen zaiela: pobrezi arriskuan dauden pertsonen %50,2. %36,2k erakunde publikoei edo pribatuei eskatu die laguntza eta %37,9k lagunei, bizilagunei edo senitartekoei.

Kredituari edo aurrezkiei pobrezi arriskuan dagoen pertsonen %25,2k jo du (%22,2k aurrezkiei eta %6,3k maileguak eskatzeari). Azkenik, pobrezi arriskuan dagoen pertsonen %24k alokairuak edo kredituak ez ditu ordaindu edo ordainketetan atzeratu egin da, argia, ura edo telefonoa moztu diote edo ondasunak besterendu dizkiote. Gai horiek oso kezagarriak dira eta arazo-mota desberdinak dituzten pertsonen Administrazioak emandako laguntzen eraginkortasunari buruz hausnarketa egin behar da.

2.13. Gizarte-babesa

EAEn Gizarte Babesean erakunde desberdinek erantzukizuna dute. Horiek guztiek batera egindako gastuen azken datu ofizialei (2003. urtekoak) erreparaturik, urte hartan gizarte-babesean 9.505 milioi euro gastatu ziren, hau da, gure Erkidegoko BPGren %19,2. Pixkana-pixkana esfortzu hori murriztuz joan da: 1995. urtean %22,3, 1997. urtean %21,4, 1999. urtean %20,1.

Gizarte-babesari emandako gastu guztitik, gizarte-prestazioak %98 izan dira, hau da, 9.296 milioi euro 2003. urtean. 2002. urteko ekitaldiarekin alderatuz, %8,3 gehitu da eta 1995etik 2003. urtera arte urteko hazkuntza metatuari dagokionez %6,5 izan da.

Emaitza horiek Estatukoekin erkatzen baditugu, desberdintasunak esangarriak dira. Denboraldi guztian EA-En biztanleko gizarte-prestazioetan gastua handiagoa da eta, gainera, desberdintasuna areagotuz doa. Ildo horri jarraiki, 1995. urtean EAEn biztanleko gastua %10 gehiago zen, 2003. urtean, berriz, %24 gehiago. Hala eta guztiz ere, gure Erkidegoak biztanleko BPG handiagoa du eta, itxuraz, horrengatik BPGrekiko gizarte-babesean gastua betiere EAEn Estatuan baino txikiagoa izan da. Dena den, diferentzia murriztuz joan da, nagusiki 2000az gero.

Alderaketa EE-15ekin eginez gero, biztanleko gastuari dagokionez, pixkana-pixkana Europako mailetara hurbiltzen ari gara; adierazle honi erreparaturik, 1995. urtean EAE Elkarteko batez bestekoaren %65 baino pixka bat gehiago zen, hau da, biztanleko 2.856 euro; 2003. urtean, berriz, indize berdinak %75 gainditzen zuen, hau da, biztanleko 4.536 euro. Dena den, EErekiko distantzia geroz eta handiagoa da, gizarte-babesean egindako gastua BPGren gainean ehunekoa neurtuz gero: 2003. urtean EAEk EE-15en egindako gastuaren %68 ordezkatzen du; bien bitartean 1995. urtean %79 zen.

Bestalde, gizarte-prestazioetako gastuak zortzi funtziotan banatzen dira eta, besteak beste, honako hauek azpimarratzen dira: zahartzaroen eta gaixotasun/osasun-laguntza. Zahartzaroen pentsioez gain, beste prestazio batzuk aurrez ikusten dira, hala nola etxebizitzan arreta edo pertsona zaharren ostaturia. 2003. urtean 4.265 milioi euro gastatu ziren, hau da, 65 urtetik gorako pertsonako 11.145 euro. Zenbateko hori Europako Elkarteko batez bestekoaren %88 da eta Estatuko batez bestekoaren (%68) gainetik dago. Dena delakoa, zenbatekoa ez da inolaz ere nahikoa, hautemandako beharren eta joera demografikoen arabera.

Langabezian egindako gastuaren eboluzioari dagokionez, pertsona langabetuentzako baliabideak zenbaki absolutuetan murriztu egin dira, baina are gehiago murriztu da langabezia, beraz, langabeziarengatik emandako prestazioen egiazko balioak gorantz egin du urtean %4,1. Azkenik, 1995-2003 denboraldian urtean hazkuntza metatu gehiena gizarte-baztertzak (%12,6), familia/semelabek (%11,9) eta etxebizitzak (%10) izan dute.





1


EAEko giza baliabideak

1.1. Demografia eta immigrazioa

Azken mende erdian, Europar Batasuneko biztanleria¹ 376 milioi biztanlekoa izatetik oraingo ia 462 milioi izatera igaro da (461,5 milioi, 2006ko urtarrilaren 1eko datuen aurrerapenaren arabera). Hazkunde erritmoa moteldu egin da azken bi hamarkadotan, aurreko hamarka-

dei dagokienez, eta, kalkulaturiko bi milioi inguruko hazkundearekin (aurreko urtean 2,5), 2005ean joera horri eutsiko zaio, %0,44ko hazkunde tasarekin, aurreko urteari dagokionez. Hazkunde hori, batik bat, migrazio saldo positiboaren eraginezkoa da, eta horren barruan jarioaren

EAEko, ESTATUKO ETA EUROPAR BATASUNeko BIZTANLERIAREN BILAKAERA. OINARRI URTEA 1960=100



Iturria: Geuk landuta Eurostaten eta Eustaten oinarrituz.

¹ Besterik esan ezean, EB-25ari buruz ari gara.


EAEko BIZTANLERIAREN ORAINTSUKO BILAKAERA. 2000-2005

	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Araba	286.497	288.793	291.860	294.360	295.905	299.957
Bizkaia	1.132.729	1.132.616	1.133.444	1.133.428	1.132.861	1.136.181
Gipuzkoa	679.370	680.069	682.977	684.416	686.513	688.708
EAE GUZTIRA	2.098.596	2.101.478	2.108.281	2.112.204	2.115.279	2.124.846

Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda.

erdia baino gehiago (milioi 1) Italiari eta Espainiari dagokie (azken horrek Batasuneko migrazio saldokir handiena). Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar da bi herri horietako zifrak handituta egon daitezkeela, immigranteak erregularizatzeko prozesuen ondorioz, eta horren barruan 2005a baino lehenago iritsitako immigranteak sartuko lirateke.

Biztanleen Udal Erroldak emandako behin betiko azken datuen arabera² (2005eko urtarrilari buruzko datuak), EAEko biztanle kopurua 2000n hasitako goranzko joeran mantentzen da. Hain zuzen ere, 2005ean biztanleria zifra 2.124.846 pertsonakoa da, hau da, 26.250 biztanle gehiago 2000n baino.

Lurralde Historikoei buruzko datuek adierazten duteenez, biztanleriak hazkunde nabaria izan du Araban (13.460 pertsona gehiago 2000tik 2005era), eta apur bat moderatuagoa Gipuzkoan (+9.338 pertsona). Bizkaian, berriz, biztanleen zifra aldaketa barik mantendu da aldi honetan (+3.452). Azterketan udalerririk handienak sartzean ikusten denez, 2000-05 aldian Arabako biztanleriak gora egin du bai Gasteizen (+9.132 biztanle) eta bai Lurraldeko gainerako lekuetan (+4.328). Bestalde, Gipuzkoan hiriburu-ko biztanle kopuruak gora egin du (Donostia +2.653 biztanle), baina Errenterian behera egin du (-1.327). Hala-ber, Lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleriak ere gora egin du (+5.019).

² Biztanleen Udal Erroldako zifrak ez dira Biztanleria eta Etxebizitza Zentsukoekin konparatzeko modukoak, bertan beste metodologia bat erabili baita. Udal Errolda administrazio erregistroa da, eta horren eraketa, mantenamendua eta kudeaketa, Espainiako estatuko 8.000 udaletariko (hortik gora dira) bakoitzari dagokio. Bertako datuek agerian jartzen dute norbait udalerrian bizi dela, eta helbidea ere adierazten dute; hango ziurtagiriak agiri publikoak eta fede-emaileak dira administrazio ondore gutzietarako. Bestalde, Biztanleria Zentsua estatistika da eta Estatistikako Institutu Nazionalak egiten du. Hor jasotzen diren datuak estatistika-sekretuak babesten ditu, eta Erroldako datuekin ez da halakorik gertatzen; izan ere, bertan pertsonak identifikatzea ezinbestekoa da.

EAEko BIZTANLERIAREN BILAKAERA UDALERRIRIK HANDIENETAN

	2000	2004	2005	Aldaketaren %	
				2000-2005	2004-2005
Vitoria-Gasteiz	217.358	223.702	226.490	4,2	1,2
Arabako gainerakoa	69.139	72.203	73.467	6,3	1,8
Bilbo	354.271	352.317	353.173	-0,3	0,2
Basauri	47.036	44.627	44.052	-6,3	-1,3
Santurtzi	47.999	47.037	47.155	-1,8	0,3
Portugalete	52.681	50.357	49.788	-5,5	-1,1
Getxo	83.789	83.004	82.687	-1,3	-0,4
Barakaldo	97.281	94.967	95.260	-2,1	0,3
Bizkaiko gainerakoa	449.672	460.552	464.066	3,2	0,8
Donostia	180.277	182.644	182.930	1,5	0,2
Irun	56.515	58.899	59.508	5,3	1,0
Errearteria	39.200	38.141	37.873	-3,4	-0,7
Gipuzkoako gainerakoa	403.378	406.829	408.397	1,2	0,4

Iturria: EIN. Udal Erroldak.

Bizkaiaren kasuan agerian dago udalerrri handi guztietan biztanle kopuruak behera egin duela: hiriburua den Bilbo (-1.098 biztanle 2000tik 2005era, baina azken urtea 856 biztanleko hazkundea), Basauri (-2.984), Santurtzi (-844), Portugalete (-2.893), Getxo (-1.102) eta Barakaldo (-2021, baina hemen, Bilbon bezala, azken urtean aldatu egin da joera). Aldiz, udalerrri txikiagoetan biztanle kopuruak gora egin du (+14.394 biztanle).


Nolanahi ere, Araban izandako hazkundeak ez da gauza berria, 80ko hamarkadatik 90ekora behin eta berriro gertatu baita. Horrela, oraintsuko bilakaeraren alderdirik aipagarrienak Gipuzkoako biztanleriak izandako hazkundeak eta Bizkaiko biztanle kopurua egonkortzea izan dira, lurralde historiko horietako biztanleriak beherakada eten-gabea izan baitu 80ko hamarkadaren erditik hona.

1.1.1. EAEko bizikidetzak motak. Oraintsuko eraldaketak

Ekonomian parte hartzen duten eragile nagusiak enpresak, sektore publikoa eta familiak dira, eta euren arteko lotura gogorrekin jarduten dute. Sarritan, pentsatzen da familietan hartzen diren erabakiak eremu pribatu soilekoak direla eta gizartearen eraginik ez dutela, batez ere arlo ekonomikoan ez dutela eraginik. Hala eta guztiz ere, hori ez da inondik inora ere horrela, familien erabakiek baldintzatu egiten baitute arlo ekonomikoa eta soziala; aldi berean, horren eraginpean daude.

Mendebaldeko gizarteak aldaketa handia izan du azken urteotan, eta familia aldaketa hori baloratzeko azter-

ETXE BAKOITZEKO PERTSONA KOPURUA. EB-15 ETA EAE. 2003



* 2000-2001eko datua. ** 2004ko kalkulua.
Iturria: Eusko Jaurlaritza, European Housing Statistics 2005 deritzon oinarrituz.

³ "Los cambios en la institución familiar", Inés Alberdi, 2005. Panorama Social aldizkaria, 1. zenb. Funcas.

⁴ EINen Biztanleria Aktiboaren Inkesta eta Eustaten Biztanleria Jardueraren Arabera: bion ustez, pertsona bat okupatutzat hartzeko, beharrezkoa da gutxienez ordubete lan egitean, galdeketa betetzeko erreferentziako astean.

EAko FAMILIA MOTAREN BILAKAERA (%)

	1981	1991	1996	2001
Pertsona bakarrekia	7,7	11,7	15,4	20,3
Konposatua	3,4	2,8	2,9	3,4
Seme-alaba gabeko nuklearra	15,0	14,3	15,5	17,0
Seme-alabadun nuklearra	62,9	51,1	46,8	40,4
Guraso bakarrekia	7,0	8,1	9,5	10,1
Anditua	—	8,8	7,3	7,1
Polinuklearra	3,9	3,3	2,7	1,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eustat. Biztanleria Zentsuak eta Erroldak.

BIZTANLE GUZTIEN ETA EMAKUMEEN LANGABEZIA TASEN BILAKAERA EBN ETA EAEn.

	1995		1997		1999		2001		2003		2005	
	Guzt.	Emak.	Guzt.	Emak.	Guzt.	Emak.	Guzt.	Emak.	Guzt.	Emak.	Guzt.	Emak.
EB-25					9,1	10,8	8,4	9,8	9	10,2	8,7	9,8
EB-15	10,1	12	9,9	11,8	8,6	10,4	7,3	8,7	8	9,3	7,9	8,9
Belgika	9,7	12,7	9,2	11,9	8,5	10,3	6,6	7,5	8,2	8,9	8,4	9,5
Txekiar Errep.					8,6	10,3	8	9,7	7,8	9,9	7,9	9,8
Danimarka	6,7	8,1	5,2	6,2	5,2	5,8	4,5	5	5,4	6,1	4,8	5,3
Alemania	8	10,9	9,1	11,6	7,9	9,9	7,4	8,9	9	10,1	9,5	10,3
Estonia			9,6	8,9	11,3	10,1	12,4	12,2	10	9,9	7,9	7,1
Grezia	9,2	14,1	9,8	15,2	12	18,1	10,8	16,2	9,7	15	9,8	15,3
Espainia	18,4	24,6	16,7	22,6	12,5	18	10,3	14,8	11,1	15,3	9,2	12,2
Frantzia	11,1	13,1	11,5	13,3	10,5	12,2	8,4	10	9,5	10,5	9,5	10,5
Irlanda	12,3	12,5	9,9	9,9	5,7	5,6	4	3,8	4,7	4,3	4,3	4
Italia	11,2	15,4	11,3	15,3	10,9	14,8	9,1	12,2	8,4	11,3	7,7	10,1
Zipre							3,9	5,5	4,1	4,7	5,3	6,5
Letonia					14	13,6	12,9	11,5	10,5	10,4	9	8,9
Lituania					13,7	12,3	16,5	14,3	12,4	12,2	8,3	8,3
Luxenburgoko	2,9	4,3	2,7	3,9	2,4	3,3	2,1	2,7	3,7	4,7	4,5	5,9
Hungaria			9	8,1	7	6,3	5,7	5	5,9	5,6	7,2	7,4
Malta							7,6	9,3	7,6	9,1	7,3	9,1
Herbehereak	6,6	8,1	4,9	6,6	3,2	4,4	2,2	2,8	3,7	3,9	4,8	5,1
Austria	3,9	5	4,4	5,4	3,9	4,7	3,6	4,2	4,3	4,7	5,2	5,5
Polonia			10,9	13	13,4	15,3	18,2	19,8	19,6	20,4	17,7	19,2
Portugal	7,3	8,2	6,8	7,6	4,5	5,2	4	5	6,3	7,2	7,6	8,6
Eslovenia			6,9	7,1	7,3	7,6	6,2	6,8	6,7	7,1	6,3	6,9
Eslovakia					16,4	16,4	19,3	18,7	17,6	17,7	16,4	17,3
Finlandia	15,4	15,1	12,7	13	10,2	10,7	9,1	9,7	9	8,9	8,4	8,6
Suedia	8,8	7,8	9,9	9,5	6,7	6,8	4,9	4,5	5,6	5,2	7,8	7,7
Erres. Batua	8,5	6,8	6,8	5,8	5,9	5,1	5	4,4	4,9	4,3	4,7	4,3
EAE	23,8	33,0	21,1	30,3	15,5	22,7	11,1	16,5	8,6	11,5	5,7	7,0

Iturriak: Eurostat eta Eustat.

tu behar den ardatz nagusienetarikoa da³. Familian aldaketa ideologikoa egon da, bertako balio nagusietan; aldaketa ekonomikoa egon da, kideen funtzioetan eta lanetan; eta aldaketa geografikoa egon da, familia beste neurri eta egitura bateko unitateetan eta formetan antolatzen baita.

Lehenengo eta behin, emakume aktiboen kopurua gero eta handiagoa da 70eko hamarkadatik; horrek agerian jarri du emakumeek gero eta interes handiagoa dutela lan merkatuan sartzeko, eta alderdi hori estu lotuta dago belaunaldirik gazteenen hezkuntza maila handiagoarekin. 80ko hamarkadan eta 90eko hamarkada hasieran, Erkide-

goan langabeziak geldiarazi egin zuen emakumeek lan merkatuan sartzeko zuten joera. Gaur egun, emakumeen lan partaidetza oraindik ere gizonena baino txikiagoa izan arren, aldeak laburtzen ari dira. Horrela, gizonen okupazio tasa, azken hamar urteotan, %40,2tik %61,5era igaro da (+%53), eta emakumeen kasuan %27,6tik %41,2ra igaro da (+%49)⁴. Gainera, 2005ean emakumeen langabezia tasa %7koa izan da EAEn, eta biztanleria osoaren tasa %5,7koa izan da. Enplegu mailek hobari nabaria izan du te EAEn bi sexuentzat, eta horrela, emakumeen langabezia (pentsa daitekeenaren aurka ez da, koadroan ikusten denez, herri askotako batez bestekotik gorakoa, Batasu-

EUROPAR BATASUNEN JAIOTZEN ESTATISTIKA

	Bizirik jaiotakoak 1.000 biztanleko 2005	Ezkontzatik kanpo jaiotakoak (%)			Amaren adina 1. seme- alabarekin 2004
		1980	2003	2004	
EB-25	10,5	8,8	30,6	31,6	27,9
EB-15	10,6	8,1	28,7	29,7	28,5
Belgika	11,4	4,1	31		26,4
Txekiar Errep.	10	5,6	28,5	30,6	25,3
Danimarka	11,8	33,2	44,9	45,4	27,8
Alemania	8,4	11,9	27	28	28,4
Estonia	10,6	18,3	57,8		24,2
Grezia	9,4	1,5	4,8	4,9	27,3
Espainia	10,9	3,9	23,2	25,1	29,1
Frantzia	12,6	11,4	45,2		28
Irlanda	15,3	5	31,4		28
Italia	9,9	4,3	13,6	14,9	28
Zipre	10,9	0,6	3,5	3,3	26,4
Letonia	9,3	12,5	44,2	45,3	24,6
Lituania	8,9	6,3	29,5	28,7	24,2
Luxenburgo	11,5	6	25,0	26,1	28,3
Hungaria	9,6	7,1	32,3	34	25,3
Malta	9,9	1,1	16,8	19,1	
Herbehereak	11,6	4,1	30,7	32,5	28,6
Austria	9,4	17,8	35,3	35,9	26,5
Polonia	9,4	4,7	15,8	17,2	24,8
Portugal	10,5	9,2	26,9	29,1	26,6
Eslovenia	8,8	13,1	42,5	43,5	26,7
Eslovakia	10	5,7	23,3	24,8	24,3
Finlandia	11	13,1	40	40,8	27,5
Suedia	10,4	39,7	56	55,4	28,2
Erres. Batua	11,9	11,5	41,5	42,3	29,1
EAE	9,3 (2004)	3,1	19,9	22,0	30,8

Iturria: Eurostat eta Eustat.

neko batez bestekoa baino handiagoa izan arren) Estatu-ko eta EBko batez bestekoa baino txikiagoa da orain.

Bestalde, ugaltzeko eta laneratzeko adinak bat etortzean, emakume gazteak egoera oso zailean daude, seme-alabak edukitzeko erabakiari dagokionez. Amatasuna nahi duten gehienek enpleguarekin bateratu nahi dute hori, eta 15 urtetik beherako seme-alabak dituzten familia gero eta gehiagotan bikoteko bi kideak lanean ari dira. 2003an familia guztien %44an, adin txikiko seme-alabak egon arren, bikoteko bi kideak aktiboak ziren, baina tasa hori oraindik ere EBko batez bestekotik beherakoa da, bertan %59koa baita.

Horren guztiaren eraginez, bizikidetzaren unitateen barruan arazo berriak sortu dira, soldatapeko lana eta familiaren zaintza bateratu behar izateari dagokionez. Horrenbestez, gauzak aldatu beharra dago, lehenengo eta behin, kulturean; gero, beste zenbait aldaketa praktikotik egin behar dira erakundeetan eta enpresetan; halaber, familiei laguntzeko zerbitzu publikoak hobetu egin behar

dira, eta gizonen inplikazio handiagoa eduki behar dute familiako bizitzan. Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzak 2004an egindako "Familiari buruzko Inkesta" deritzon agerian geldituenez, EAEko familien arazo nagusienetarikoa bat lana eta familia adiskidetzeta da, eta horrela, 5.000 familiak baino gehiagok ez dute seme-alabentzako haurtzaindegirik, eta hiru urtetik beherako haurrak dituzten 50.000 familien laurdenak baino gehiagok aitona-amonak erabiltzen dituzte haurrak zaintzeko; beste %12,1ek langileak dituzte kontraturik (zerbitzu hau, batez beste, 4,6 ordutan ematen da eta berorren hileroko kostua 400 €-koa baino apur bat gehiagokoa da). Gainera, familien %1,8k diote ezin dutela nahi beste seme-alaba eduki, baliabide ekonomikorik ez dutelako, eta beste %1,4k diote ezin dutela eduki lanarengatik.

Egoera hauek arintzeko, Eusko Jaurlaritzak "Seme-alabadun familiei laguntzeko erakunde arteko I. plana" jarri zuen martxan 2002an, familiaren gizarte babeseko sistema integralerako lehenengo pausotzat, familiei seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea ekiditen die-

ten oztopoak (ekonomia, gizarte eta lan arlokoak) gainditzeko. Planaren indarraldiaren balantze osoa egiteko, 2005eko datuak behar ditugu; hala eta guztiz ere, Familiaren Inkestak agerian jarri duenez, 2002tik 2004ra 12 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiek laneko eszedentziako ekintzen hobariak jaso dituzte, eta %58,9k laguntza fiskalak jaso dituzte. Azkenik, familien %7,3k haurtzaindegirako laguntza jasotzen dute, udal bekak ere barne.

Laneko eta familiako bizitzak adiskidetzeko arazo nagusia, guztiarekin ere, etxean eta bertatik kanpo egindako lanorduen kopuru handia duten emakume okupatuena da. Familiari buruzko Inkestak emandako datuen arabera, emakume okupatuena %10,8k bi lanak konbinatzen ditu asteen 70 ordutan baino gehiagotan, eta proportzio hori handiagoa da 60 ordutik gora sartzen dituzten emakumeak ere aintzat hartuz gero.

Testuinguru honetan, ugalkortasunaren murriztapena gizartearen bilatzen ez den estrategietariko bat da, baina

gizonek eta emakumeek erabakitzen dute; izan ere, lan merkatuan sartzeko nahia ez ezik, hobeto bizitzeko gogoia ere badago, familien zama mugatuz eta etxe barruko bizimaila handituz. Jaiotza-tasaren murriztapenak, EAE eta Espainiako estatuan, Europan orain arte erregistraturiko joerak izan ditu, baina prozesua berantiarra da, azkarragoa eta trinkoagoa izan da; horrela, gaur egun, EAEko 1,03ko batez bestekoa (seme-alaba kopuruari dagokionez) oso urrun dago 1975eko 2,7kotik eta belaualdia ordeztzeko behar den 2,1ekotik (2001eko datua).

Seme-alaba kopuruak behera egitearen ondorioz, familien tamaina ere murriztu egin da. 2004an EAEko familiek, batez beste, 2,66 pertsona zituzten. Ratio hori 2001ekoa (2,76) baino apur bat txikiagoa da, eta 1991ko 3,32koa baino nahiko txikiagoa. Nolanahi ere, datu horiek EBko herririk gehienetakoak baino handiagoak dira, batez ere Europa Iparraldeko herriei dagokienez. Horrela, 2003an, Suediako familien batez besteko tamaina 1,9 pertsonakoa zen, Alemanian 2,1ekoa eta Frantzia 2,4koa. Izan ere, herri gutxitan gainditzen da EAEko familien batez

EUROPAKO BIZTANLERIAREN MUGIMENDUA 2005EAN. LEHENENGO KALKULUA.

	Biztanleria 05.1.1ean (milak)	Tasa gordinak 1.000 biztanleko			Kalkulatorikoa biztanleria 06.1.1ean (milak)
		Jaiotza-tasa	Hilkortasuna	Migrazioa	
EB-25	459.488,4	10,5	9,7	3,7	461.507,1
EB-15	385.383,4	10,6	9,6	4,2	387.421,4
Belgika	10.445,9	11,4	10	3,2	10.494,1
Txekiar Errep.	10.220,6	10	10,5	3,5	10.250,5
Danimarka	5.411,4	11,8	10,3	1,4	5.427,6
Alemania	82.500,8	8,4	10,1	1,2	82.455,7
Estonia	1.347,0	10,6	13,1	-0,3	1.343,2
Grezia	11.075,7	9,4	9,2	3,1	11.112,2
Espainia	43.038,0	10,9	8,8	15	43.781,0
Frantzia	60.561,2	12,6	8,8	1,7	60.891,7
Irlanda	4.109,2	15,3	6,5	11,4	4.193,0
Italia	58.462,4	9,9	10,4	5,8	58.772,2
Zipre	749,2	10,9	6,7	27,2	773,0
Letonia	2.306,4	9,3	14,2	-0,5	2.294,1
Lituania	3.425,3	8,9	12,9	-3	3.401,3
Luxenburgo	455,0	11,5	7,6	3,4	458,3
Hungaria	10.097,5	9,6	13,5	1,8	10.076,0
Malta	402,7	9,9	7,2	5	405,8
Herbehereak	16.305,5	11,6	8,4	-1,2	16.337,6
Austria	8.206,5	9,4	9	7,4	8.270,4
Polonia	38.173,8	9,4	9,7	-0,3	38.148,0
Portugal	10.529,3	10,5	9,7	3,9	10.578,7
Eslovenia	1.997,6	8,8	9,2	3,6	2.003,9
Eslovakia	5.384,8	10	9,8	0,8	5.389,9
Finlandia	5.236,6	11	9,2	1,7	5.254,8
Suedia	9.011,4	10,4	9,9	2,7	9.040,3
Erres. Batua	60.034,5	11,9	9,9	3,3	60.353,7
EAE 2004	2.115,3	9,3	8,6	9,2	2.124,8

Iturria: Geuk landuta Eurostaten, EINen eta Eustaten oinarrituz.

besteko tamaina. Hain zuzen ere, Espainiako estatua ez ezik, EAEko familiena baino tamaina handiagoa duten herriak Irlanda, Portugal eta Grezia baino ez dira.

Gainera, familia unitatearen tamainaren murriztapena estu lotuta dago EAEko familien tipologiak izandako aldaketarekin. Izan ere, 2001eko zentsuko datuek berretsi egin dute azken urteotan ikusitako joera, eta agerian jarri dute pertsona bakarreko familia kopuruak gorakada handia izan duela, eta seme-alabadun familia nuklearren kopuruak beherakada nabaria izan duela. Hain zuzen ere, 1981etik 2001era, pertsona bakarreko familia kopurua 44.700etik 151.850era igaro da (familia guztien %7,7tik %20,3ra). Gainera, "ezohiko" familiak sortzeko joera ikusten da, adibidez, seme-alabarik gabeko familia nuklearrak (oraintsuko senar-emazteak/bikoteak edo emantzipaturiko seme-alabak dituzten familiak) edo guraso bakarreko familiak (seme-alaba ezkongabeak dituen aita edo ama); azken fenomeno hori dibortzio eta banaketa kopuruarekin lotu daiteke, baina kopuru hori oraindik ere ez da EBko mailetara heldu (dibortzioen batez besteko tasa gordina 1.000 biztanleko 2,1ekoa zen 2004an, Eurostaten arabera, EB osorako, eta EAEkoa milako 0,8koa baino ez —milako 2,0koa, dibortzioei legezko banaketak gehituz gero—).

Bestalde, seme-alabadun familia nuklearren kopurua 1981eko 363.550etatik 2001eko 302.550etara igaro da, eta horrela, halakotan 61.000 familiako beherakada egon da, eta, garrantzitsuagoa dena, familia mota horrek ordezkari maila handia galdu du EAEko gizartean; izan ere, hogeitertan %62,9tik %40,4ra igaro dira. Are gehiago, halakoen artean ere, familiarik gehienek 1-2 seme-alaba edukitzea erabakitzen dute eta horrek eragina dauka jaiotza tasan.

Halaber, 2004ko Memoria Sozioekonomikoan adierazitakoaren arabera, 2001eko Biztanleriaren Zentsuaren

emaitzek berretsi egin dute izatezko bikotearen finkapena, bizikidetza motatzat, batez ere belaunaldirik gazteen artean. Izan ere, EAEn ezkondu gabeko 60.000 pertsonak bizikidetza dute, eta ezkontzarik gabeko elkar-tzeak 31.158 dira (bikote guztien %6,8).

Joera hori beste erkidego batzuekin konparatuta ikusten denez, EAE Estatuko batez bestekotik gora dago (%5,9), baina beste erkidego batzuk baino nahiko behe-rako; esate baterako, Balearrak (Estatuko lehenengo pos-tuan, %12,1ekin), Kanariak (%11,8) edo Katalunia (%9,3). Gainera, proportzio horiek Europako zenbait herritakoak baino askoz ere txikiagoak dira; adibidez, Finlandia edo Norvegia (%23tik gorako ehunekoak). Beste muturrean, Poloniaren ratioa %4,6koa da.

1.1.2. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera

(a) Biztanleriaren berezko mugimenduak

2004rako behin-behineko datuek adierazitakoaren arabera, hazkunde begetatiboa (biztanleriak jaiotzen eta heriotzen arteko aldearen eraginez duen aldaketa, migra-zio mugimenduak aintzat hartu barik) positiboa da, eta hori EAEn ez da 1986tik gertatu: urte horretan 19.594 jaiotza egon ziren, aurreko urtean baino %1,7 gehiago, eta 18.101 heriotza, 2003an baino %6,2 gutxiago. Horren ondorioz, +1.493ko hazkunde begetatiboa egon da, hau da, milako 0,7koa. EAEko hazkunde begetatiboak 14 urte-ko beherakada iraunkorra izan du, eta, behin betiko datu-rik ez badago ere, esan daiteke 2003an joera hori gelditu egin dela.


60ko hamarkadan eta 70eko hamarkadaren hasieran gertaturiko saldo begetatibo gogorren ostean, 1990ean saldo negatiboa egon zen lehenengoz 1937tik, eta gu-txienekoa 1996an egon zen; izan ere, urte horretan EAEk

BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA EAEN

	Bizirik jaiotakoak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Hazk. begetatiboa	Tasa
1975	39.646	19,1	14.699	7,1	24.947	12,1
1981	27.255	12,7	14.628	6,8	12.627	5,9
1986	20.094	9,4	15.094	7,1	5.000	2,4
1991	16.228	7,7	16.766	8,0	-538	-0,3
1996	15.987	7,6	18.031	8,6	-2.044	-1,0
2001	17.647	8,5	18.087	8,7	-440	-0,2
2002	18.133	8,7	18.619	8,9	-486	-0,1
2003*	19.267	9,2	19.305	9,4	-38	-0,2
2004*	19.594	9,3	18.101	8,6	1.493	0,7

(*) Behin-behineko datuak. Mila biztanleko tasak.

Iturria: Eustat "Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika" eta geuk landuta.

EAEko JAIOTZEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA


(a) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat "Jaiotzen estatistika".

2.000 biztanletik gorako hazkunde begetatibo negatiboa izan zuen.

Aurreko urteetan bezala, 2004ko jokabidea desberdina da lurralde batetik bestera: Erkidegoko saldo begetatiboa berriro ere Bizkaian egon da, lurralde horrek kontzeptu horretan 61 biztanle galdu baititu, baina zifra hori aurreko urtekoa (477) baino askoz ere txikiagoa da. Aldiz, Gipuzkoak 922 biztanle irabazi ditu 2004an (aurreko urtean 736), eta Arabaren saldo positiboa 632koa izan da (2003an baino 200 gehiago).

2004an jaiotzek bilakaera positiboak izan dituzte hiru lurraldeetan; aipagarria da Araba 2.809 haurrekin (+%4,3), gero Bizkaia 9.996 jaiotzekin (+%1,9ko hazkundera, 2003ari dagokionez) eta ondoren Gipuzkoa 6.789 jaiotzekin (+%0,3). Emaita horien arabera, EAE osoko jaiotza-tasa milako 9,3koa izan da (2003an -9,2); horrela, 1995ean hasitako jaiotza-tasaren gorakadarekin, 80ko hamarkadaren erdialdeko mailetara itzuli gara. 60ko hamarkadan zifra hori milako 20tik gorakoa zen eta Estatuko batez bestekoa gainditzen zuen. Gaur egun, gorakada egon arren, EAEk Estatuko batez bestekotik beherako tasak ditu (milako 10,6), baita EBko batez bestekotik beherakoa ere (10,5).


Aipagarria da, gainera, Memoriaren aurreko edizioan esandakoaren arabera, ama ezkongabeetan gertaturiko

jaiotzen ehunekoa gero eta handiagoa dela. 2004ko datuen arabera, EAEko jaiotzen diren haurren %22 guraso ezkongabeenak dira; ratio hori Estatuko (%25) eta EBko batez bestekoa (%31,6) baino txikiagoa da. Ehunekoa, Europan, Suediako (%55,4) nahiz Danimarkako (%45,4) eta Zipreko (%3,3) zein Greziako (bizirik jaiotakoen %4,9) mailen artekoak dira.


Bestalde, 2005eko behin-behineko datuen arabera, EBn 4,82 milioi jaiotza egon dira guztira, 2002an baino %2,8 gehiago, gutxi gorabehera; izan ere, azken urte horretan mailarik baxuena egon zen, Bigarren Mundu Gerratik. 60ko hamarkadan, bizirik jaiotakoen urteroko zifra 2 milioitik gorakoa zen, 1965etik 1995era egon den ugalkortasun-tasaren beherakada handia hasi baino lehen. Jaiotza-tasarik altuena Irlandan dago (milako 15,3) eta txikiena, aurten ere, Alemanian (milako 8,4).

Jaiotza-tasak azken urteotan izandako beherakadaren eragileetariko bat, izan ere, amatasunaren berandutze gero eta handiagoa da. 2004an joerari eutsi eta EAEko amen adina aurreko urtekoa baino apur bat handiagoa da. 2004an seme-alabak izan zituzten emakumeen %75,6 hogeita hamar (30) urtetik gorakoak ziren. Talderik ugariena 30-34 urte bitarteko emakumeena da (%45,5), eta zifra hori 2003koa baino apur bat txikiagoa da; 35 urtetik gorako amen taldeak, bestalde, gora egin du (jaiotza guz-

EAEko HERIOTZEN PIRAMIDEA. 2003



JAIOTZA- ETA HERIOTZA-TASEN BILAKAERA (1981-2004)



tien %30,2). Hamarkada honetan, 30 urtetik beherako ama-talde guztiek garrantzia galdu dute. Horrela, 25 urtetik beherako amen ehunekoa erdira murriztu da. 25-29 urte bitarteko taldean, murriztapena oraindik ere handiagoa da (13 puntu), eta 2004an ama guztien %18,8 izan ziren. Aldiz, 35 urteko eta hortik gorako amen taldea ia bikoiztu egin da. Ama guztien batez besteko adina 32,2

urtekoa da, eta lehenengo seme-alaba edukitzeko batez besteko adina 31 urtekoa da. Horrela, EAEn bizi diren ama berriek adinez nagusienak dira EB osoan; gero Espainiako estatukoak (29,3), Alemaniakoak nahiz Holandakoak (bietan 28,8 urte) eta Luxenburgokoak (28,7) datoz. Beste muturrean, ama berriak gazteenak Lituania (24,5), Letonian (24,6) eta Polonian (25,3) daude.

Bestalde, heriotzei dagokienez, 2004an 18.101 heriotza egon ziren, 9.430 gizon eta 8.671 emakume. Behin betiko daturik egon ez arren, 2003an baino 1.204 heriotza gutxiago egon ziren. 2004ko heriotza guztien %30,5 (5.525 heriotza) zirkulazio sistemako gaixotasunen eraginezkoak izan ziren. Ondoren, tumoreen eraginezkoak datoz, %29,5, eta hirugarrenez, eta ehuneko nahiko txikiagoarekin, arnasketa-gaixotasunen eraginezkoak (%9,6)⁵.

Halaber, EAEko 2003ko Heriotzen Estatistikaren behin betiko datuek agerian jarri dutenez, Erkidegoan urte horretan hildakoen batez besteko adina 76,2 urtekoa da (2002an 75,6koa), gizonen kasuan 72,2 eta emakumeen kasuan 80,5 (azken horiek bizi luzeagoa). 82 urtera arte, ia adin talde guztietan gizonen heriotza kopurua emakumeena baino handiagoa da. Baina 83 urtetik aurrera, joera hori irauli eta emakumeen heriotza kopurua gizonena baino bi aldiz handiagoa da (inflexio puntu hori urte-

⁵ Memoria sozioekonomiko honetan osasunari buruz dagoen kapituluan, EAEko biztanleriaren heriotzaren zergatiak aztertzen dira.

betean aurreratu da, 2002ko datuei dagokienez). Emakumeen bizi luzeagoaren ondorioz, hildako gizonen %63 ez-konduta zeuden, eta emakume ezkonduen ehunekoa, berriaz, %23,2koa zen. Ezkontideetariko baten heriotzaren ondorioz desagindako ezkontza kopurua 8.483koa izan zen 2002an (aurreko urtean baino 165 gehiago).

Europar Batasuneko datuei dagokienez, 2003an mailarik altuena lortu zen: 4,6 milioi heriotza, hau da, milako 9,7ko tasa gordina (EAEkoa 9,4koa urte horretan). Itxuraz beheranzkoa den joera horren barruan, EB-25eko heriotzen zifrek urte batetik besterako gorabehera handiak dituzte, eta beraz, urte batzuk itxaron beharko dira joera hori berresteko. 2005eko behin betiko datuek 4,5 milioi hildakoren zifra eman dute.

(b) Migrazio mugimenduak


Eustaten Migrazio Mugimenduen Estatistikak (2004) 9.024 pertsonako hazkundera kalkulatu zuen urte horretan (aurreko urtean baino %44 gehiago), eta beraz, migrazio saldoa positiboa izan zen (bosgarren urtez jarraian). Lurraldeka, zifra absolutuetan Bizkaiak izan du (5.099 pertsona gehiagorekin) migrazio saldorik handiena eta %27ko hazkundera izan du 2003ari dagokionez. Bestalde, Arabak 3.299 pertsonako hazkundera izan du (+%47), eta Gipuzkoak 626 pertsonakoa (–%22,3).

Europar Batasuneko joerei dagokienez, Eurostatek 2005erako emandako datuek agerian jarri dutenez, behar-kada nahiko handiko aldi baten ostean (90eko hamarkadan), EBn nazioarteko migrazio jarrioen saldo positiboa ia bi milioi pertsonako hazkundera izan du 2003an, dagoeneko finkaturik dauden datuen arabera. 2005ean, bestalde, migrazio saldoa murriztu egin da apur bat, eta 1,69 milioi pertsonakoa da, migrazioaren tasa gordina milako 3,7koa da EB-15erako eta 4,2koa EB-25erako. Jarioen %76 inguru Espainian, Italian, Erresuma Batuan eta Alemanian daude. Bestalde, migrazio saldoan tasa gordinik handiena duen herria Zipre da. Gainera, EBko estatu kiderik gehien migrazio tasa gordinak moteldu egin dira apur bat 2005ean.

Bestalde, 2004an 180.357 pertsonak (EAEko biztanleriaren %8,5) etxebizitza aldatetaren bat egin zuten; mugikortasuna, kasu guztien %48,5ean, udalerrir beraren barrukoa izan da, eta %22,9an EAEko udalerrir batetik besterakoa. Gainerakoari dagokionez, 30.328 kasutan kanpoko immigrazioak izan dira (Erkidego kanpotik EAEra) eta 21.304 kanpoko emigrazioak (EAE barrutik kanpora).


EAEren eta gainerako erkidegoen arteko mugimenduak bakarrik hartuz gero aintzat, 2004an EAEra 23.777 pertsona heldu ziren, 2003an baino 380 gutxiago (–%1,6), eta horrela, Erkidegoaren eta Estatuaren arteko migrazio saldoa oraindik ere negatiboa da, 2.640 pertso-

EAEko MIGRAZIO MUGIMENDUEN BILAKAERA



Iturria: Eustat "Migrazio Mugimenduen Estatistika".

MIGRAZIO SALDOAREN BILAKAERA (IMMIGRANTEAK KEN EMIGRANTEAK), LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturri: Eustat "Migrazio Mugimenduen Estatistika".

EAE-RAKO MIGRAZIO MUGIMENDUEN BILAKAERA

	Estatutik EAEra	EAEtik Estatura	Kanpoko Migrazio Saldoa*			
			EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
1990	10.930	15.771	-4.841	128	-3.648	-1.321
1995	11.316	16.130	-4.814	108	-3.637	-1.285
1999	16.103	17.291	-1.188	279	-1.624	158
2000	20.022	17.462	2.560	1.463	804	293
2001	22.914	24.252	7.079	2.316	3.184	1.579
2002	22.121	25.774	6.237	2.710	3.425	103
2003	24.157	27.188	6.251	1.828	3.617	806
2004	23.777	26.417	9.024	3.299	5.099	626

(*) Migrazio saldo osoa, bai Estatuarekin eta bai atzerriko herriekin.
Iturria: Eustat "Migrazio Mugimenduen Estatistika".



nako galerarekin. Bestalde, atzerriko herrietatik iritsitako pertsonen saldoa positiboa da, 11.664 pertsona gehiago iritsi baitira, eta horrela, %20ko hazkundera egon da aurreko urteari dagokionez.

Kanpoko edo Erkidegotik kanpoko mugikortasunari dagokionez, horrek 2004an EAEko milako 24,4 biztanlerengan izan du eragina (Arabaren milako 32,7; Bizkaian milako 26, eta Gipuzkoan milako 18,2); tasa horiek nahiko txikiak dira, gainerako autonomia erkidegokoekin konparatuta, bertako batez bestekoa milako 40koa baita.

EAEko emigrazio tasa milako 10,1ekoa izan zen 2000n (aurreko urtean 10,5ekoa), atzerriko emigrazioen datuak albo batera utzita, eta milako 9,2koa da

2004an (2003an 9,7koa), Estatuko batez bestekoa baino lau puntu gutxiago ia. Madrileko, Errioxako, Balearretako eta Ceuta-Melillako tasak batez bestekotik gorakoak dira, hain zuzen ere, milako 17-38 bitartekoak. EAEri biztanleria ematen dioten erkidegoak (bertatik jasotakoa baino biztanle kopuru handiagoa) honako hauek dira: Kanariak, Madril, Murtzia, Gaztela-Mantxa, Katalunia eta Balearrak. Atzerriarekiko ere saldo positiboa egon da 2004an, hain zuzen ere, 11.664 pertsonakoa. Gainera, EAEko emigranteak erakartzen dituzten erkidegoak honako hauek dira (jasotzailerik handienetik txikienera antolatuta): Kantabria, Gaztela eta Leon, Madril eta Nafarroa. Lau horien artean Erkidegoa uzten duten bi pertsonatik bat hartzen dute.

EAEko BIZTANLERIA PIRAMIDEAREN PROIEKZIOA



Iturria. Eustat "Biztanleriaren Proiekzioak 2015". Geuk landuta.

Atzerriko pertsonen immigrazioak 13.563 pertsonakoa izan dira 2004an (aurreko urtean baino 175 pertsona gutxiago); hain zuzen ere, Erkidegoko sarrera guztien %45. 1988tik hona, atzerriko immigranteen sarrera-bolumenak hazkunde handia izan du EAEn. Balio absolutuetan, 500 sarrera ingurutik 2004ko 13.000tik gorako sarretara igaro gara; hau da, hamabost urtean 27 aldiz

sarrera gehiago. Kontuan hartu behar da, gainera, atzerriko immigrante horietariko batzuk beste autonomia erkidego batzuetatik datozela (4.682 pertsona, 2003an baino 584 gehiago).

Azkenik, titulazioari dagokionez, heziketa mailarik baxuenak %51,3an immigrazioetan eta %50,5ean emigrazioetan daude; gorengo mailak, berriz, %16,6an emigra-

zioetan eta %18an inmigrazioetan daude. Gainera, imigranteen eta emigranteen batez besteko adina ia berbera da (36,4 eta 36,7 urte, hurrenez hurren).

1.1.3. Proiekzio demografikoak

EUSTATEk egindako kalkuluen arabera⁶, EAEko biztanleriak 80.000 pertsonako hazkundera izango du 2005etik 2015era, eta beraz, urtero 8.000 pertsonako hazkundera egongo da, gutxi gorabehera (urtean %0,37). Horren ondorioz, 2015ean EAEko biztanleria osoaren zifra 2,2 milioi pertsonatik hurbilekoa izango da (2.194,9 mila biztanle; horietatik 1.070,6 mila gizonak eta 1.124,3 emakumeak). Proiekzio hori aintzat hartuta, biztanleriaren

hazkunde erritmoa maila moderatueta eta iraunkorretan mantenduko da aldi osoan, baina hamarkadako bigarren erdian handitu egingo da apur bat. Horrela, 2006-2010 aldian 36.200 biztanleko hazkundera dago aurreikusita, eta 2011-2015 aldian 43.900 biztanlekoa.

Lurraldearen ikuspegitik, aipagarria da biztanleriaren hazkundera oso handia izango dela Araban. Horrela, lurralde horretan biztanle kopuruak %11,8ko hazkundera izango du 2015ean, eta 2005eko 297.500 biztanleetatik 2015eko 332.500 biztanleetara igaroko da. Bestalde, Gipuzkoan eta Bizkaian biztanleriaren hazkundera moderatua izango da, %3,2ko eta %2ko hazkundearekin, hurrenez hurren.


Aurreikuspenen arabera, imigrante kopuruak emigranteen zifra gaindituko du 2005-2015 aldi osoan, eta, horren eraginez, EAEk 6.000 pertsona irabaziko ditu urtean. Lurralde Historikoen arabera banaketak agerian jartzen du migrazio saldoak balio positiboak izango dituela lurralde guztietan. Biztanle kopuruan hazkunderik handiena Arabak izango du, 2006-2015 aldian 27.700 pertsona. Bestalde, Gipuzkoak eta Bizkaiak 17.000 eta 15.000 pertsona inguruko hazkundera izango dute, hurrenez hurren.

EAEko BIZTANLERIA AURREIKUSITAKO BILAKAERA (2005-2015) (BIZTANLEAK MILATAN)

	2005	2010	2015
Araba	297,5	313,0	332,5
Bizkaia	1.138,9	1.150,6	1.162,0
Gipuzkoa	678,4	687,4	700,4
EAE	2.114,8	2.151,0	2.194,9

Iturria: Eustat. Biztanleriaren Proiekzioak 2015.

EAEko BIZTANLERIA OIRINTSUKO BILAKAERA ETA 2006-2015 ALDIRAKO PROIEKZIOAK



Iturria: Eustaten oinarrituz landuta. "Biztanleriaren 2015eko proiektzioak".

⁶ EUSTATEk landutako proiektzioek ez dute zerikusirik EINEk landutakoekin; bertan ezarritakoaren arabera, 2015ean EAEn 2.096.000-2.110.000 biztanle egongo dira (planteaturiko bi eszenatokiaren), eta balio horiek oso antzekoak dira 2005eko biztanleria zifrarekin.

Bestalde, EUSTATEk egindako kalkuluaren arabera, EAEko jaiotza kopuruak aldaketa txikiak izango ditu hurrengo urteotan. Horrela, 2006-2015 aldirako jaiotzen zifra osoa 218.400koa izango da, hau da, urtean 22.000 jaiotza inguru. Jaiotza-tasak hazkuntetxoak izango du aldiaren lehenengo zatian, eta 2010ean 23.000 jaiotzako gehienekora iritsiko da; ondoren, beheranzko joera hasi eta hori 2015eko 20.000 jaiotzatik gorako (apur bat gehiago) zifrarekin amaituko da. Gogoratu behar da azken datu erabilgarriaren arabera 2004ko jaiotza kopurua 19.500 pertsonakoa dela, eta beraz, lehengo zifra horiek hazkunde oso txikia adierazten dute.

Gainera, bizi itxaropenak gora egingo du aurrerantzean ere; gizonen kasuan 80,2 urtekoa eta emakumeen kasuan 86,9 urtekoa izango da. Hala eta guztiz ere, biztanleria zahartzearen ondorioz, heriotzen zifrak hazkunde moderatua baina iraunkorra izango du, eta 2006ko 19.000 heriotzetatik 2015eko 20.500etara igaroko da. Guztiarekin ere, aldi osoan, biztanleriaren berezko saldoak (jaiotzen eta heriotzen arteko kendura) 20.300 pertsonako emaitza positiboa ematen du (gutxi gorabehera, urtean +2000, oraingo saldo ia deusezari dagokionez).

1.1.4. Immigrazioa


Giza geografiaren mugikortasuna XXI. mendeko gizarte prozesu nagusienetarikoa da. Atzerriko immigrazioaren etorrera dagoeneko ez da anekdota hutsa Europako

herri eta eskualde askorentzat; izan ere, immigrazioa geure gizartea eratzen duten elementu garrantzitsuenetarikoa da. EAEk gero eta kultura aniztasun handiagoa dauka, biztanleria talde berrien oraintsuko sartze gero eta handiagoaren ondorioz. Hurbileko beste gizarte batzuetako mailetara iritsi ez arren, esan daiteke EAEko atzerriko immigrazioak hazkunde handia izan duela azken urteotan, eta lurraldeen arabera banaketa jakina duen dibertsitate handiko panorama egituratu du.


(a) Bilakaera demografikoa

Udal Erroldan 2005eko urtarrilaren 1ean jasotako datuen arabera, EAEen erroldaturiko atzerriarren kopurua 72.767 pertsonakoa da, 2004an baino %23 gehiago, eta biztanleriaren %3,4 dira orain. Horrela, immigranteek Erkidegoan biztanleria osoari dagokionez duten garrantzia oraindik txikia da, beste erkidego batzuetan dutenaren aldean, baina urte batetik besterako hazkunde erritmoa gero eta handiagoa da. Talde horren barruan, %53,4 gizonak dira eta %46,6 emakumeak, eta gizon kopuruak puntu erdiko hazkundeak izan du, 2004ari dagokionez. Hori Gipuzkoan eta Araban gertatzen da; izan ere, Bizkaian emakume immigranteen kopurua gizonena baino handiagoa da zenbaki absolutuetan (18.238 emakume eta 17.966 gizon), eta gainera, horien presentziak gora egin du azken urtean. Guztira, immigranteen erdia (%49,8) Bizkaian bizi da, %29,6 Gi-

EAEko ATZERITAR BIZTANLERIAREN BILAKAERA. 1986-2005



ATZERRITAR BIZTANLERIAREN PRESENTZIA PROBINTZIAKA. 2005



Iturria: EIN "Biztanleriaren Udal Errolda".
Geuk landuta.


puzkoan eta %20,6 Araban. Hala eta guztiz ere, errol-dako datuek immigrazioari buruz eskaintzen duten ikuspegia ez da osoa; izan ere, egoera irregularrean dauden immigranteak ez dira aintzat hartzen, eta hori ere azkar hazten ari da. EAEn errolaturiko atzerritarren naziotasunari dagokionez, gehienak Amerika Latinokoak dira hiru lurraldeetan, eta Bizkaian %50etik gora dira (hain zuzen ere, %53,4).

Erkidegoaren batez bestekoa %48,2koa da, eta ordezkapenik handieneko herriak Kolonbia (%14) eta Ekuador (%10,5) dira. Bigarren talde nagusia EB-15eko herrietatik iritsitakoena da (%16,3), baina datu hori aldagarria da lurralde batetik bestera: Gipuzkoan %25etik gora dira eta Araban bigarren talde nagusia Marokoko nahiz Aljeriako pertsonak osaturikoa da (%22,4).

Bestalde, EAEn bizi eta egoitza txartela edo baime-na duten immigranteek dagokienez, Herrizaingo Sailaren datuek diote 2005eko abenduaren 31n EAEn 57.395 pertsona zirela, aurreko urtean baino 20.245 gehiago, eta horrek %54,5eko hazkundera adierazten du (aurreko urtean hazkundera %37,4koa izan zen). Horietatik, %68 araubide orokorrean daude (EBtik kanpoko herrietarako), eta gainerako %32, berriz, araubide komunitarioan sartzen dira; lehengo taldearen garrantzia gero eta handiagoa da, bigarrenari dagokionez. Lurraldeka, aipagarria da Gipuzkoan izandako hazkundera, izan ere, bertan txartela duten immigranteen kopuruak %80,2ko hazkundera izan du 2005ean.

Halaber, 2005eko otsailetik maiatzera bitartean, Estatuko gobernuak immigranteak erregularizatzeko pro-


ATZERRITAR BIZTANLERIA NAZIOTASUN TALDEEN ARABERA. 2005



Iturria: EIN.

zesua garatu du, pertsona horietariko askoren "ikusezintasun" legalari eta estatistikoari amaiera emateko; izan ere, Estatuan aspalditik lanean egon arren, lan egoera irregularra zuten. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak emandako behin-behineko datuen arabera, ekimen horren bidez, Estatuan "paperik gabeko" ia 600.000 immigrante erregularizatu dira; horietatik 11.109 EAEn bizi dira (aldeko ebazpena lortu duten espedienteen %1,9). Gainera, Erkidegoan erregularizaturiko pertsona horien %97,7k alta hartu dute Gizarte Segurantzari, horretarako ezarritako epean, euren egoera erregularizatu ondoren; horrenbestez, pentsa daiteke ia guztiak lanean ari zirela prozesua baino lehenagotik.

Guztiarekin ere, lehen esan dugunez, Eustaten biztanleria proiektioek aditzera ematen dute migrazio saldoa positiboa izango dela 2005-2015 aldi osoan; prozesu horren ondorioz, EAEk 60.100 biztanle irabaziko ditu hurrengo hamarkadan. Biztanleriak migrazioaren eraginez izango duen hazkundera handiagoa izango da aldi horretako bigarren erdian; izan ere, 2006-2010 aldian 22.200 pertsonako migrazio saldo positiboa egongo da, eta 2011-2015 aldian, berriz, 37.900 pertsonako saldo positiboa. Hala eta guztiz ere, lehenengo bosturtekoan bigarrenaren baino immigrante kopuru apur bat handiagoa iritsiko dela pentsatzen da (157.600 pertsona eta 145.200 pertsona, hurrenez hurren). Horri dagokionez, emigrante kopuruak behera egitearen ondorioz egin du gora adin honetako azken urteotako migrazio saldoak. Dena den, aurreikuspen horiek ez dute aldaketa handirik sartzen, azken ekitaldietako emaitzekin konparatuz. Horrela, azken

MIGRAZIO MUGIMENDUEN BILAKAERA EAEn ETA 2005-2015EKO PROIEKZIOAK


Iturria. Eustaten oinarrituz landuta.

urteotan migrazio saldoak urteroko 6.000 pertsona inguruko balantze positiboa izan du.

(b) Lan merkatua

Euskadiko Enplegu Zerbitzuan lana eskatzeko inskribatu diren immigranteei buruzko azken datuak 2004ari buruzkoak dira, eta memoria sozioekonomiko honetako urte horretako edizioan adierazi genituen⁷ (jo bertara informazio gehiago nahi izanez gero). Oro har, 2004aren amaieran, zerbitzu horretan atzerriko 5.756 pertsona zeuden inskribaturik, lana eskatzeko. Bertako erregistroetatik ondorioztatzen denez, lehenengo eta behin, EAEko enplegu eskatzaile immigranteak honako ezaugarri hauek ditu: gizona (%56,2), gaztea (bostetik hiru 35 urtetik beherakoak), oinarrituko ikasketekin eta Amerika Latinokoa edo Ipar Afrikakoa, eta eraikuntzan ari da lan bila. Inskribaturiko atzerriko pertsonen erdiak lau herrietatik iritsitakoa dira: Kolonia, Ekuador, Maroko eta Aljeria. Kolonbiako eta Ekuadorreko hiru eskatzailetik ia bi emakumeak dira, eta gizon eskatzaileen artean, berri, ugariagoak dira Marokokoak eta Aljeriakoak. Gainera, eskatzailerik gazteenak Afrikakoak dira eta Europa Ekialdetik iritsitakoen artean aipagarria da 44 urtetik gorakoen proportzio handia.


Bestalde, immigranteak erregularizatzeko prozesu horrek (2005ekoa) eragina izan du Gizarte Segurantzako afiliazioetan; izan ere, EAEko afiliatu kopurua 35.747koa zen urte horretako abenduan, aurreko urtean baino 13.388 gehiago, eta horrek %60ko hazkundera adierazten du. Horrela, gaur egun, taldea afiliazio osoaren %3,9a iristen da. Hala eta guztiz ere, EAEko maila Estatuko batez bestekoa (%9,2) baino askoz ere txikiagoa da; izan ere, bertan %57ko hazkundera izan du aldi horretan eta 1,7 milioi pertsonakoa da (kotizatzen duten pertsonak).

13.388 kotizatzaile berririk gehienak EBtik kanpoko herrietakoak dira, eta horien herena (4.664) etxeko langilea da. 2005eko hazkunde handiak irauli egin du EAEko mapa, eta bertan, talderik ugariena kolonbiarrena da orain (5.140 kide). EBtik iritsitako langileen kopurua %82ko hazkundera izan du (lehen 8.786 eta orain 26.961).

Jardueraren sektoreen arabera, oro har, araubide orokorrean afiliaturiko (22.993) immigranterik gehienek eraikuntzan egiten dute lan, eta sektore horretan guztizkoaren herena biltzen da (6.051), eta beraz, %62ko hazkundera egon da aurreko urteari dagokionez. Ondoren ostalaritza dator (3.855 afiliatu, 2004an baino %72

⁷ EAEko 2004ko Memoria Sozioekonomikoa erabiltzen duen iturria Egailan "Immigrazioa eta lan merkatua 2004" da.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATURIK DAUDEN PERTSONEN BANAKETA EAEn, JATORRIZKO HERRIAREN ARABERA. 2005EKO ABENDUA



Iturria: Gizarte Segurantzaren oinarrituz landuta.


gehiago), eta gero manufaktura industria (3.365 langile eta %28ko hazkundea). Halaber, merkataritzan eta motorreko ibilgailuen konponketan 2.717 langile immigrante daude, eta "higiezinaren eta enpresetarako zerbitzuen jardueretan" 2.633 pertsona immigrante dabil. Azkenik, hezkuntza arloak 1.000 immigrante ditu eta zerbitzu pertsonalek beste 1.000.

Immigranteak apurka-apurka lan merkatuan sartzearen ondorioz (bai merkatu formalean eta bai informalean, ezkutuko ekonomiaren bidez), jatorrizko herrietarako diru-bidalketa jario handia sortzen da; izan ere, munduko ekonomiaren barruan horrek garrantzi handia hartzen du, baina geure gizartean ere garrantzi nahiko handia dauka. EAeri buruzko daturik eduki ez arren, aipagarria da Estatu osoan immigranteek 2005ean 3.844 milioi euro bidaltzea euren herrietara, 2004an baino %10,4 gehiago, Banco de España-k emandako datuen arabera⁸. Goranzko bilakaera egon arren, Estatutik irteten diren diru-bidalketak emigrante espainolek Estatutara egindakoak baino txikiagoak dira, baina azken urteotako joerak ikusita pentsa daiteke urte gutxi barru joera hori alderantzizkoa izango dela. Immigranteek, batez beste, hilerio 300 € bidaltzen dituzte euren jatorrizko herrietara, bidalketa horiek egiteko ardura duten konpainiek diotenez, eta zerbitzu horiek gehien erabiltzen dituztenak Amerika Latinokoak dira.

(c) Osasuna eta gizarte ekintza

Migrazio prozesuetan ikusitako aldaketak (azken urteotan EBtik kanpoko biztanleen presentzia handia) garrantzi handikoak dira EAEko XXI. mende hasierako kokatasun ekonomikoari loturiko egoerak aztertzeke orduan. Izan ere, Europar Batasunetik kanpoko biztanleen kasuan arrisku maila askoz ere handiagoak ikusten dira. Horri dagokionez, Pobreziaren eta Gizarte Desoreken Inkestak (2004) emandako datuen azterketatik ateratzen denez, EBtik kanpoko familiako burua duten etxeetako pertsonen %45,3ko arriskua dute ongizaterik

POBREZIA ARRISKUKO EGOEREN PRESENTZIA EAEn, ETXeko PERTSONA NAGUSIAREN NAZIOTASUNAREN ARABERA. FAMILIEN ETXEBIZITZETAKO BIZTANLERIA. DATUAK EHUNEKOTAN. 2004



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. PGDI-2004.

POBREZIA ARRISKUKO ETA ONGIZATE GABEZIAKO EGOEREN ERAGINA, ETXeko PERTSONA NAGUSIAREN NAZIOTASUNAREN ARABERA. FAMILIA ETXEBIZITZETAKO BIZTANLERIA. DATUAK EHUNEKOTAN. 2004.

Naziotasuna	Pobrezia	Ongizate gabezia	Ongizate egoeran
Estatua	3,1	19,2	80,8
EBren gainerakoa	0,0	14,8	85,2
Beste herri batzuk	23,0	45,3	54,7
GUZTIRA	3,5	19,8	80,2

Oharra: Ongizate gabeziaren adierazlearen pobreen taldea sartzen da. Iturria: Eusko Jaurlaritzak. PGDI. 2004.

⁸ Nazioarteko Moneta Fondoak egindako kalkuluaren arabera, herri aberatsen eta garapen bideko herrien bidalketen mundu-jarioa (2005ean 197.000 milioi eurotik gora) Garapenerako Laguntza Ofiziala baino arma eraginkorragoa da pobreziaren aurka, eta herri batzuetan bertako BPGren ehuneko oso garrantzitsura iristen da. Gai hauek zehatzago aztertzen dira memoria sozioekonomiko honetako Garapenerako Lankidetzari buruzko kapituluaren.

ez edukitzeko, EAEko biztanleen artean ehunekoa %19,2koa da, eta Europar Batasuneko familiako burua duten etxeetako pertsonen kasuan %14,8koa. Aldeak oraindik ere nabarmenak dira pobrezia arriskuaren eragina aintzat hartzen denean: %23koa (autoktonoen artean %3,1koa eta Europar Batasuneko beste herri batzuetako etxeetan %0koa). Maila kuantitatiboan, immigrazioaren gizarte errealitate berriaren inplikazioa ageri-agerikoa da. Batasunetik kanpoko familiako burua duten etxeetan bizi diren pertsonen ehunekoa, bestalde, ongizate gabeziako arriskuan dauden pertsona guztien %5,7koa da, horien ehunekoa 2004ko biztanleria osoaren %1,7koa baino ez bada ere.

Izan ere, memoria sozioekonomiko honen 2004ko edizioan ikusitakoaren arabera, EAEko immigranteen taldea pobrezia egoerarik gehien jasaten duenatarikoa da. Eginginean ere, inkesta horren datuek agerian jarri dutenez, pertsona horiek %19,9ra heltzen dira, pilaketako pobrezia adierazlean, eta %23ra mantenamenduko pobrezia adierazlean. Oro har, pertsona horien %41,1ek pobrezia motaren baten eraginpean daude Erkidegoan. Ikusten denez, pilaketa-pobrezia fenomeno (lehen okupazio egonkorreko gazteen artean ikusitakoa) biztanleria mota horri ere lotuta dago⁹.

Gainera, Europatik kanpoko hiritarrek Estatuko edo EBko beste estatu batzuetako familiako burua duten etxeetan bizi diren pertsonen baino ongizate maila askoz ere hobea dute. Oro har, bertokoen %4,3 bi pobrezia mota horietarikoren baten eraginpean dago, eta kopuru hori, izan ere, EBtik kanpoko herrietako familiako burua duen etxeetako pertsonena baino hamar aldiz txikiagoa da.

1.2. Hezkuntza eta horren sustapena

Gaurko munduaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: aldaketa azkarak, mundializazio gero eta handiagoa, eta harreman ekonomiko eta soziokultural gero eta konplexuagoak. Aldaketen azkartasunaren eraginez (bilakaera demografikoa, ikasle atzerritarren presentzia gero eta handiagoa, eleaniztasuna, bizi osoan zeharreko hezkuntza nahiz heziketa beharritzen handiagoak, IKTen hedapena, ...), beharrezkoa da etorkizuneko helburuei buruzko hausnarketa egitea, hau da, hezkuntza eta heziketa sistemen erronkei buruzko hausnarketa egitea.

Alderdi horietariko batzuk kapitulu honexetan aztertuko ditugu, eta, azterketaren ostean ondorioztatzen denez, EAEko Hezkuntza Sistemak ere erronka horiek edo antzekoak ditu. Hain zuzen ere, suspertze demografikoa oraindik ez da 12 urtetik gorako mailetara heldu, ikasle atzerritarren presentzia gero eta handiagoa dago; elebitasuna orokortu egin da, modu homogeneoan ez bada ere, ez baitago sare publikoaren eta sare pribatu kontzertatuaren arteko banaketa orekaturik; eta hezkuntza adierazle batzuek arreta berezia merezi dute.

1.2.1. Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak

Maiatzaren 28ko 1318/2004 Errege Dekretuaren bidez, aldatu egin zen Hezkuntza Kalitatearen Lege Organikoa (LOCE) aplikatzeko egutegia, eta lege horrek onetsitako hezkuntza sistemaren ezarkuntza geroratu egin zen.

Hilabete batzuk geroago, eta hezkuntzaren arloko beharrezko erreformei buruzko eztabaida zabala egin ondoren, Estatuko gobernuak, 2005eko uztailaren 22an egindako Ministro Kontseiluan, Hezkuntzaren Lege Organikoren Proiektua onetsi zuen, LOCE ordeztu zuena.

1.2.1.1. Ikasleen bilakaera, hezkuntza mailen arabera

Eustaten behin-behineko datuen arabera, 2005-2006 ikasturtean 310.624 ikasle daude EAEn, unibertsitatekoak

IKASLEAK TITULUAREN ETA MAILAREN ARABERA⁽¹⁾. EAE

	2004-05	2005-06 ⁽²⁾	% ald.
Ikastetxe guztiak	305.708	310.624	1,6
Haur Hezkuntza	76.255	80.485	5,5
Lehen Hezkuntza	98.502	100.418	1,9
Hezkuntza Berezia			
(Haur eta Lehen Hezkuntza)	382	386	1,0
DBH	70.191	69.644	-0,8
Hezkuntza Berezia (DBH)	186	195	4,8
Batzilergoa, LOGSE	31.667	31.163	-1,6
LH, LOGSE, erdiko maila	11.050	11.223	1,6
LH, LOGSE, goiko maila	17.098	16.730	-2,2
Lanen ikaskuntza	377	380	0,8

(1) Ez da sartu Helduen Hezkuntza Iraunkorra, ezta araubide bereziko irakaskuntzak ere (arteak eta lanbideak, hizkuntzak eta musika).

(2) Behin-behineko datuak.

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzak eta Eustat.

⁹ EBtik kanpoko pilaketa-pobrezia duten hiritarren etxeen %19,9tik %18,1ek pobrezia mota hori baino ez dute.

ez den araubide orokorreko irakaskuntzan matrikulatuta (Helduen Hezkuntza Iraunkorra aintzat hartu barik), eta beraz, %1,6ko hazkundea egon da aurreko urteari dagokionez (305.708 ikasle).

Matrikulazioan izandako hazkunde horren eragilea beheko mailetan izandako hazkunde da (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH); izan ere, hezkuntza berezia albo batera utzita, 2005-2006 ikasturtean, bertan 250.547 ikasle zeuden matrikulaturik, eta horrek %2,3ko hazkunde adierazten du aurreko urteari dagokionez. Ha-

la eta guztiz ere, goranzko joera hori ez da azpiko hiru mailetan ikusten. Izan ere, matrikulek, 2004-2005 eta 2005-2006 ikasturteen artean, %5,5eko hazkunde izan dute Haur Hezkuntzan eta %1,9ko hazkunde Lehen Hezkuntzan; hala ere, hazkunde hori ez da DBHra heldu, bertan oraindik ere %0,8ko beherakada baitago matrikulazioan.

DOBHko edo Irakaskuntza Ertainetako matrikulazioan ere ez da hazkunderik izan; egin-eginean ere, horietan matrikulazioek %1,2ko beherakada izan dute 2004-2005

EAeko IKASLE KOPURUAK BEHEKO MAILETAN IZANDAKO BILAKAERA⁽¹⁾

Ikasturtea	Haur H.	Lehen H.	DBH	Guztira
00-01	58.657	97.787	81.421	237.865
2001/02	60.996	96.827	77.634	235.457
2002/03	63.980	97.139	74.147	235.266
2003/04	68.754	97.802	72.220	238.776
2004/05	76.255	98.502	70.191	244.948
2005/06 (aurrerapena)	80.485	100.418	69.644	250.547
2004/5 eta 2005/6 aldaketa (%)	5,5	1,9	-0,8	2,3

(1) Ez dira Hezkuntza Bereziko ikasleak sartzen.

Iturria: Hezkuntza Saila (Eusko Jaurlaritzak) eta Eustat.

UNIBERTSITATEKOA EZ DEN IKASLE KOPURUAK IZANDAKO BILAKAERA EAEn

Ikasturtea	Guztira HH + LH + DBH	Guztira ertainak	Hezkuntza berezia	Unibertsitat. ez Direnak guz. ^(*)
2000-01	237.865	69.346	1.057	308.268
2001/02	235.457	66.218	988	302.663
2002/03	235.266	64.297	961	300.524
2003/04	238.776	61.734	987	301.497
2004/05	244.948	59.815	945	305.708
2005/06 (aurrerapena)	250.547	59.116	961	310.624
2004/5 eta 2005/6 aldaketa (%)	2,3	-1,2	1,7	1,6

(*) Ez dira sartu Helduen Hezkuntza Iraunkorra eta Araubide Bereziko Hezkuntza.

Iturria: Hezkuntza Saila (Eusko Jaurlaritzak) eta Eustat.

IRAKASKUNTZA ERTAINEKO IKASLE KOPURUAREN BILAKAERA EAEn

Ikasturtea	Batxilergoa	LH		Ertainak guz.
		Erdiko maila	Goiko maila	
2001/02	36.699	11.023	18.496	66.218
2002/03	34.469	11.203	18.626	64.298
2003/04	32.631	10.999	18.104	61.734
2004/05	31.667	11.050	17.098	59.815
2005/06	31.163	11.223	16.730	59.116
2002-03 eta 2003-04 aldaketa	-5,3	-1,8	-2,8	-4,0
2003-04 eta 2004-05 aldaketa	-3,0	0,5	-5,6	-3,1
2004-05 eta 2005-06 aldaketa	-1,6	1,6	-2,2	-1,2
Ehuneko horizontalak				
2003-2004	52,9	17,8	29,3	100,0
2004-2005	52,9	18,5	28,6	100,0
2005-2006	52,7	19,0	28,3	100,0

Ez da sartu Irakaskuntza Berezia.

Iturria: Hezkuntza Saila (Eusko Jaurlaritzak) eta Eustat.

LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

Familia		2003-04 Ikasturtea		2004-05 Ikasturtea	
		Erdiko maila	Goiko maila	Erdiko maila	Goiko maila
Jarduera fisikoak eta kirolekoak	Guztira Emakum. %	131 36,6	386 36,3	118 24,6	401 35,7
Administrazioa	Guztira Emakum. %	1.308 80,0	2.166 76,2	1073 81,6	2.075 76,1
Merkataritza eta marketinga	Guztira Emakum. %	535 84,1	971 61,8	447 78,5	892 58,3
Elikadura industriak	Guztira Emakum. %	27 29,6	24 20,0	31 35,5	15 80,0
Informatika	Guztira Emakum. %	0	2.935 30,8	341 24,0	2.274 27,0
Produktzioarako zerbitzuak eta mantenamendua	Guztira Emakum. %	734 2,0	898 7,7	758 3,7	966 13,1
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	Guztira Emakum. %	22 100	39 84,6	25 92,0	47 93,6
Nekazaritza/nekazaritza jarduerak	Guztira Emakum. %	164 24,4	150 26,7	176 22,2	149 28,9
Arte grafikoak	Guztira Emakum. %	250 46,0	322 58,7	231 48,5	336 55,7
Ibilgailu autopropultsatuen mantenamendua/automozioa	Guztira Emakum. %	930 1,9	345 3,8	943 2,8	393 2,5
Eraikuntza eta obrak/eraikuntza eta obra zibila	Guztira Emakum. %	148 6,1	619 29,4	145 5,5	640 30,3
Elektrizitatea eta elektronika	Guztira Emakum. %	1.409 1,3	2.340 10,3	1.325 2,0	2.201 10,1
Ostalaritza eta turismoa	Guztira Emakum. %	667 48,4	689 69,5	640 45,2	695 67,9
Irudia eta soinua/komunikazioa, irudia eta soinua	Guztira Emakum. %	92 57,6	326 47,5	78 56,4	321 43,3
Zura/zura eta altzariak	Guztira Emakum. %	228 8,3	79 20,3	229 5,7	62 21,0
Itsas arrantza/itsas arrantzako jarduerak	Guztira Emakum. %	72 1,4	58 3,4	58 1,7	98 8,2
Metala/fabrikazio mekanikoa	Guztira Emakum. %	2.248 3,8	2.391 11,2	2.104 3,7	2.145 11,9
Ile-apainketa eta estetika/irudi pertsonala	Guztira Emakum. %	737 99,1	210 99,5	830 98,4	204 100,0
Kimika	Guztira Emakum. %	146 70,5	828 59,7	110 66,4	745 58,0
Sanitarioa/osasuna	Guztira Emakum. %	1.151 92,3	1.183 83,0	1.264 93,2	1.152 83,2
Komunitaterako zerbitzuak/ komunitaterako zerb. soziokult.	Guztira Emakum. %	0	1.145 92,7	124 94,4	1.287 92,5
Guztira	Guztira Emakum. %	10.999 37,9	18.104 42,8	11.050 38,2	17.098 43,1

Iturria: Hezkuntza Saila (Eusko Jaurlaritza).

eta 2005-2006 ikasturteen artean. Hala ere, Batxilergoa, erdiko mailako LH eta goiko mailako LH bereiziz gero, matrikuletan joera desberdinak daude; hain zuzen ere, Ba-

txilergoko ikasleen artean (-%1,6) eta goiko mailako LHko ikasleen artean (-%2,2) beheranzko joera dago oraindik, eta erdiko mailako LHko ikasleen artean hazkundea

egon da (+%1,6). Hau da, suspertze demografikoa oraindik ez da 12 urtetik gorako adinetara heldu.

2005-06 ikasturtean irakaskuntza ertainak ikasten dituzten 59.116 ikasleetatik 31.163k (%52,7) Batxilergoa aukeratzen dute derrigorrezko hezkuntza amaitu ondoren; gainerako 27.963k (%47,3) Lanbide Heziketa aukeratzen dute. Horrenbestez, Batxilergoan 0,2 hamarreneko behe-rakadaxoa egon da LHren alde.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren behin-behineko datuen arabera, erdiko mailako lanbide titulazioen artean eskaririk handiena dutenak honako hauek dira berriro ere: Metala eta Fabrikazio mekanikoa (ikasleen %19), Osasuna (%11,4) eta Administrazioa (%9,7). Bigarren taldean honako hauek daude: Automobilgintza eta Ibilgailuen mantenamendua (%8,5), Ile-apainketa eta estetika (%7,5), Mantenamendua eta Produktzioarako zerbitzuak (%6,9) eta Ostalaritza eta turismoa (%5,8). Bakoitzaren eskarrietan aldaketak ikusi dira 2003-04 eta 2004-05 ikasturteetan, murriztu egin baita honako espezialitate hauek guztizkoari dagokionez duten garrantzia: Metala eta Metalezko fabrikazioa, Elektrizitatea eta Elektronika, Ostalaritza eta Turismoa, eta Administrazioa.

Goi mailako lanbide titulazioen artean, aipagarriak dira Informatika ikasleen %13,3rekin (garrantzi erlatiboan berriro ere beherakada, 2003-04 ikasturtean ikasleen %16,2 baitzebiltzan), Elektrizitatea eta Elektronika %12,9rekin (garrantzi erlatiboan aurreko ikasturtean bezala mantenduta), Metala eta Fabrikazio mekanikoa %12,6arekin (garrantzi erlatiboan beherakada, 2003-04 ikasturtean ikasleen %13,2 baitzebiltzan bertan), eta Administrazioa %12,1ekin (garrantzia hamarren batean handitu).

Emakumeek gizonek baino presentzia txikiagoa dute lanbide ikasketetan, baina gero eta presentzia handiagoa dute. 2003-04 ikasturtean ikasleen %37,9 baino ez ziren emakumeak erdiko mailako LHn eta %42,8 goiko mailako LHn, eta 2004-05 ikasturtean %42,8 eta %43,1 dira, hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, emakumeak, gehien-

bat, Komunitaterako zerbitzuetan, Osasunean, Ile-apainketan eta estetikan, eta Ehungintzan, jantzigintzan eta larrugintzan biltzen dira (lau adarrotan %90 baino gehiago emakumeak). Bigarren taldea honako adarrek osatzen dute: Administrazioa, Elikadura industriak, Kimika eta Merkataritza eta marketinga.

Aldiz, emakumeen presentzia oso urria da Automobilgintzan eta ibilgailuen mantenamenduan, bai erdiko mailan eta bai goiko mailan.

Beste adar batzuetan emakumeen presentzia txikia da erdiko mailako LHn, baina goiko mailan handiagoa da. Horrela, ehunekoak honako hauek dira. Mantenamendua eta produktzioarako zerbitzuak %3,7 eta %13,1; Eraikuntza eta obra zibila %5,5 eta %30,3; Elektrizitatea eta elektronika %2 eta %10; Zura eta altzariak %5,7 eta %21; eta Metalean eta metalezko fabrikazioan %3,7 eta %11,9.

1.2.1.2. *Ikasle kopuruaren bilakaera sareen eta hizkuntza ereduen arabera*

1993ko Eskola Itunak akordio batzuk ezarri zituen, ikasleak bi hezkuntza sareen artean (publikoa eta pribatua) banatzeari buruz. Euskadiko Eskola Kontseiluaren arabera, esan da (txarto esanda) itundutako oreka formulak %50eko berdintasunezko banaketa zekarrela. Akordioaren testuak, aldiz, une hartako banaketa kuotak mantentzea planteatzen du, horiek bi adin talderi aplikatuta: 3 urtetik derrigorrezko eskolatzea amaitu arte (3-16 urte), eta hortik derrigorrezkoaren osteko hezkuntza amaitu arte.

1994ko eskola planifikazioaren eraginez (Hezkuntza-aren Erreforma abiatzeko egindako planifikazioa), kuantifikatu egin ziren eskola sare bakoitzaren ezarkuntza ehunekoak 3-16 eta 16-19 tarteetan, 1991-92 ikasturtean, eta, horren ondorioz, sare bakoitzari esleituriko ehunekoak ezarri ziren (mantendu beharreko ehunekoak). Kuota horiek, sare publikoaren kasuan, honako hauek izan ziren: %48,8ko kuota 3-16 tarterako (H. Hezk. 2. zikloa, L. Hez-

EAEko IKASTETXE PUBLIKOETAN MATRIKULATURIKO IKASLE KOPURUA. 1991-92 IKASTURTETIK HONAKO BILAKAERA

	1991-92	1994-95	1998-99	2001-02	2004-05
3-16 tarteak	48,8	47,2	45,9	45,1	46,5
3-12 azpitarteak		45,8	45,9	46,9	48,5
12-16 azpitarteak		49,1	43,2	41,6	42,3
16-19 tarteak	58,9	56,6	52	52	53,4

Iturria: Euskadiko Eskola Kontseilua. 2005eko txostena.

UNIB. EZ DEN ARAUB. OROKORREKO IKASLE KOPURUAREN BILAKAERA, IKASTETXEEN EREDUAREN ETA TITULARTASUNAREN ARABERA

	2003-04			2004-05			2005-06		
	Guztira		Ikastetxe publikoetan matrikula. % guzt. horiz. dagokionez	Guztira		Ikastetxe publikoetan matrikula. % guzt. horiz. dagokionez	Guztira		Ikastetxe publikoetan matrikula. % guzt. horiz. dagokionez
	Absolutua	%guzt. bertik.		Absolutua	%guzt. bertik.		Absolutua	%total vertical	
Guztira	323.330	100	50,7	329.947	100	52,1	310.624		48,6
A eredu	107.698	33,3	50,6	103.979	31,5	53,0	74.811	24,1	39,7
B eredu	67.967	21,0	30,2	69.941	21,2	29,2	71.792	23,1	27,5
D eredu	145.783	45,1	61,1	154.164	46,7	62,4	162.205	52,2	62,5

Irakaskuntza Berezia eta HHI barne.
Iturria: Eustat.

IKASLE KOPURUAK MAILAKA IZANDAKO BANAKETAREN BILAKAERA, HIZKUNTZA EREDUAREN ARABERA

	Guztira	A eredu	B eredu	D eredu	B eta D ereduak
	Kop.	Ehunekoa			
Araubide orokorreko irakaskuntzak					
2001-02	319.206	34,5	21,1	43,9	64,9
2002-03	318.897	33,3	21,0	45,1	66,1
2003-04	323.330	26,3	22,8	50,3	73,1
2005-06	306.391	24,1	23,1	52,2	75,3
Haur hezkuntza					
2001-02	60.996	9,3	28,7	61,5	90,1
2002-03	63.980	8,3	28,7	62,4	91,1
2003-04	68.754	6,8	28,7	63,9	92,6
2005-06	75.544	6,5	28,0	65,0	93,0
Lehen hezkuntza					
2001-02	96.827	17,4	29,8	51,9	81,7
2002-03	97.139	15,2	30,1	53,9	83,9
2003-04	97.802	13,4	30,6	55,2	85,8
2005-06	98.462	12,0	30,9	56,3	87,2
DBH					
2001-02	77.634	32,3	24,5	42,5	67,0
2002-03	74.147	30,5	24,2	44,5	68,7
2003-04	72.220	28,8	23,7	46,7	70,4
2005-06	70.503	26,3	24,2	48,7	72,9
Batzilergoa, LOGSE					
2001-02	36.699	55,8	2,0	41,9	43,8
2002-03	34.469	55,2	1,8	42,6	44,4
2003-04	32.631	53,8	1,7	44,2	45,8
2005-06	32.178	52,3	1,5	45,8	47,4
Erdiko mailako LH, LOGSE					
2001-02	11.023	81,7	3,7	14,6	18,3
2002-03	11.203	83,0	2,2	14,8	17,0
2003-04	10.999	81,9	2,6	15,6	18,1
2005-06	11.241	79,1	2,8	18,0	20,9
Goiko mailako LH, LOGSE					
2001-02	18.496	83,9	3,3	12,9	16,1
2002-03	18.626	84,4	2,5	13,2	15,6
2003-04	18.104	83,2	2,5	14,3	16,8
2005-06	17.476	79,7	2,8	17,5	20,3

Irakaskuntza Berezia eta HHI izan ezik.
Iturria: Eustat.

kuntza eta DBH) eta %58,9koa derrigorrezkoaren osteko irakaskuntzarako.

Laster ikusi zenez, Eskola Mapa diseinatzeko moduak sare publikoko ikasleen galera zekarren, 12 urtetik aurrera. Horrela, 2001-02 ikasturtera arte, ehuneko 4 puntu inguru galdu ziren 3-16 tartean, eta zazpi puntu 16-19 tartean.

Lehenengo kasuan, 3-16 tartean jokabidea oso desberdina da Haur Hezkuntzatik eta L. Hezkuntzatik (3-12 azpitartea) DBHra (12-16). Izan ere, eskola publikoetara doan ikasle kopurua apurka-apurka baina modu iraunkorrean handitu da azken hamarkadan (oro har, %3ko hazkundera), baina DBHkoak %7ko beherakada handia izan du lehenengo aldi osoan, harik eta %42ko gutxienekora iritsi arte, eta azken urteetara arte ez da apurka-apurka hazi. Derrigorrezkoen osteko irakaskuntzen kasuan, jokabidea DBHkoaren antzekoa da; hain zuzen ere, 2000ra arte beherakada handia eta hortik aurrera gorakadaxoa, Lanbide Heziketak indarra hartzearen ondorioz, eta hori argiago ikusten da sare publikoan.

Bilakaera horren zergatitzat, ikastetxe pribatuen kontzertazioaren hazkundera, faktore soziologikoak (adibidez, idearioa), ikasketa eskaintza handiagoa edo eskolatik kanpoko jarduerak aipatu dira.

Hizkuntza ereduak dagokienez, euskalduntze prozesuak gorantz jarraitzen du. Horrela, 2004-05 eta 2005-06 ikasturteetan, D ereduak %46,7ko matrikulazioa egotetik %52,2koa egotera igaro gara; A ereduak, aldiz, matrikulazioa %31,5etik %24,1era jaitsi da. Bestalde, B ereduak berriro ere gora egin du, %21,2tik %23,1era igarota.

D ereduak dabilten bost ikasletik hiru zentro publikoan dabilta (%62,5), eta horretan goranzko joera dago. Aldiz, B ereduak matrikulatzen diren zazpi ikasletik 2 baino ez dabilta ikastetxe publikoetan.

Bestalde, Euskadiko Eskola Kontseiluaren azken txostenean esaten denez, eredu bakoitzaren bilakaeran

jarraitasuna dago, hasi 3 urtetik (sarrerako maila) eta derrigorrezko eskolatzeara amaitu arte. Izan ere, 16 baino lehen, desbideratsetxo bakarra L. Hezkuntzatik DBHra igarotzean dago, eta bertan, B ereduak ikasleen %2 A eredura igarotzen dira.

DBH gainditu ondoren, joeraren jarraitasunik eza B ereduak ezabatzearen eraginezkoa da. DBHtik Batxilergo igarotzean, D ereduak mantendu egiten du DBHn izandako ikasle kopurua eta gainera B ereduak ikasle gutxi batzuk hartzen ditu, azken eredu hori desagertu egiten baita. DBHtik LHko zikloetara doazen ikasleei dagokienez, DBHko B ereduak ikasleak A ereduak sartzen dira, DOBHra igarotzean.

1.2.2. Unibertsitateko irakaskuntzen bilakaera

1.2.2.1. Unibertsitateko lehenengo eta bigarren zikloa

EINEk emandako datuen arabera, 2004-2005 ikasturtean 1.449.136 ikasle matrikulatu dira Estatuko unibertsitateetan, eta horrek %1,7ko beherakada adierazten du aurreko ikasturteari dagokionez, Murritzapen horrek berretsi egiten du 2000-2001 ikasturtean hasitako beheranzko joera, unibertsitateko ikasle kopuruari dagokionez.

EAE, unibertsitate-egitura, funtsean, lau unibertsitateak osatzen dute: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Arrasateko Unibertsitatea eta UNED bertako Zentro Elkartuen bidez. Bestalde, Nafa-

UNIBERTSITATEKO IKASLE KOPURUAREN BILAKAERA HISTORIKOA

Ikasturtea	EAE (1)	Estatua (2)	% EAE/Estatua
2001-2002	70.905	1.526.907	4,6
2002-2003	69.386	1.507.147	4,6
2003-2004	66.649	1.488.574	4,5
2004-2005 aurrer.	64.178	1.449.136	4,4

Iturria: EIN.

MATRIKULAZIOEN BILAKAERA, IKASTETXEEN TITULARTASUNAREN ARABERA

	2000-01		2001-02		2002-03		2003-04		2004-05	
	Guztira	Emakum. %	Guztira	Emakum. %	Guztira	Emakum. %	Guztira	Emakum. %	Guztira	Emakum. %
Guztira	80.336	54,7	76.129	54,7	74.197	54,8	71.960	55,1	69.696	54,5
Publikoa	59.968	54,9	57.109	55,2	55.958	55,5	54.943	56,2	54.180	55,6
Pribatua	20.368	54,0	19.020	53,3	18.239	52,4	17.017	51,4	15.516	50,5

Iturria: Eustat, datu-basea.

MATRIKULATURIKO IKASLE KOPURUA, UNIBERTSIATEKO IKASKETA MAILAREN ARABERA

	EAE			Estatua		
	03-04	04-05 aurrerapena	Aldaket. %	03-04	04-05 aurrerapena	Aldaket. %
Guztira	66.649	64.178	-3,7	1.488.574	1.449.136	-2,6
Lizentziatura	29.584	27.687	-6,4	742.431	713.030	-4,0
Arkitektura edo injinerutza	10.376	9.838	-5,2	166.441	158.448	-4,8
Diplomatura	14.612	14.536	-0,5	342.059	342.465	0,1
Arkitektura tekniko						
edo injinerutza tekniko	12.077	12.117	0,3	229.118	223.832	-2,3
Titulu bikoitzak	—	—	—	8.525	11.361	33,3

Iturria: EIN.

roako Unibertsitateak ordezkartza dauka EAEn, Donostiako campusaren bitartez, eta bertan, aipagarria da Industria Injineruen Goi Eskola, irakaskuntzak 1961etik ematen dituen, aldi berean, EHUK titulartasun publikoko zentroak ditu atxikita.

Estatuko goiko mailako irakaskuntzaren estatistika-
ren aurrerapen-datuek agerian jartzen dute EAEn ere matrikulazioek behera egiten dutela eta, gainera, EAEko unibertsitateetako ikasle kopuruaren garrantzi erlatiboa, Estatuko unibertsitate sistemari dagokionez, behe-

EMAKUMEEN MATRIKULAZIOAREN EHUNEKOAREN BILAKAERA, MATRIKULAZIO GUZTIEI DAGOKIENEZ, URTEAREN ETA ESPEZIALITATEAREN ARABERA

	2000-01	2001-02	2002-03	2003-04	2004-05
Guztira	54,7	54,7	54,8	55,1	54,5
Arkitektura	51,8	52,3	53,5	54,0	53,8
Telekomunikazio injin.	33,7	34,7	36,3	35,5	34,2
Industria injin.	23,6	24,7	25,5	25,8	26,3
Informatika injin.	26,9	25,7	25,4	25,9	24,5
Autom. eta Industria Elek. injin.	17,1	18,2	17,9	19,3	19,7
Elektronika injin.	39,2	37,1	32,6	24,1	22,1
Industria Antolaketako injin.	24,3	24,2	25,3	26,2	30,5
Kimika injin.	53,3	52,7	55,1	56,1	58,7
Materialen injin.	31,3	15,9	27,4	32,3	31,5
Medikuntza eta Kirurgia liz.	77,1	78,8	78,6	78,5	77,6
Farmazia liz.	82,1	83,1	84,0	82,8	82,7
Kimika liz.	63,5	64,9	66,1	67,2	66,8
ka liz.	46,8	32,5	31,9	36,3	37,9
Matematika liz.	46,7	64,6	62,5	64,5	56,3
Biologia liz.	67,3	67,9	68,8	69,1	69,1
Geologia liz.	55,2	57,4	58,3	56,3	54,5
Its. Zibileko liz.	22,3	29,4	26,5	25,4	28,4
Odontologia liz.	80,1	79,8	79,2	82,0	80,2
Biokimika liz.	63,9	61,8	61,2	61,9	61,3
Arkitekto tekniko			48,7	47,3	45,5
Meatzte ustiapeneko inj. tek.	24,5	18,8	18,9	24,4	22,1
Topografia inj. tek.	38,3	37,0	39,3	38,1	39,2
Mekanika inj. tek.	15,5	15,6	16,9	16,9	17,4
Industria Elektr. inj. tek.	20,6	20,2	20,7	19,6	19,3
Industr. Dis. inj. tek.	40,5	43,8	46,8	49,0	53,8
Kudeaketa Informatikako inj. tek.	28,3	31,1	32,0	34,0	33,6
Erreg. eta leherg. instalazioko inj. tek.		39,1	33,3		
Sistemen Informatikako inj. tek.		20,0	18,0	26,4	19,2
Telekomunikazioko inj. tek.			31,0	30,8	32,5
Industria inj. tek.	22,0	36,2			
Industr. Kimikako inj. tek.	57,5	58,3	59,4	60,3	59,5
Elektrizitateko inj. tek.	10,5	11,6	12,8	13,0	13,9
Instalazio elektro. eta leherg. inj. tek.	18,8	18,2	21,9	18,2	14,3
Energ. baliabide erregaiei inj. tek.	28,6	28,5	27,2	27,2	29,6
Mineralurgia eta Metalurgia inj. tek.	11,9	13,0	16,7	20,5	20,2
Herri Lanen inj. tek.			29,4	32,7	37,0

Iturria: Eustat, datu-basea.

2004-05EAN GEHIEN ESKATZEN DIREN 15 TITULAZIOETAKO IKASLE KOPURUAREN

	1999/2000	2000/2001	2001/2002	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2003/04 eta 2004/05 aldaketa
Bi ziklo: Enpr. Adm. eta Zuz. Lizentz	7.387	7.182	6.959	6.601	6.249	5.861	-6,2
Ziklo bat: Enp. Zientz. Lizentz.	5.521	4.955	4.545	4.484	4.258	4.110	-3,5
Bi ziklo: Zuz. Lizentz.	8.410	7.178	6.023	5.127	4.203	3.658	-13,0
Bi ziklo: Industr. Injin.	4.776	4.578	3.962	3.748	3.584	3.356	-6,4
Bi ziklo: Injin. Tek. Mek.	2.384	2.627	3.076	3.030	3.121	3.175	1,7
Bi ziklo: Psikol. Lizentz.	3.341	3.049	2.903	2.862	2.822	2.792	-1,1
Bi ziklo: Industr. Injin. Tek. Elek.	2.514	2.720	2.875	2.747	2.676	2.528	-5,5
Bi ziklo: Kud. Infor. Inj. Tek.	1.699	1.878	2.018	2.107	2.155	1.969	-8,6
Ziklo bat: Haur Hezk. Irak.	1.636	1.616	1.732	1.839	1.872	1.883	0,6
Bi ziklo: Inform. Injin.	2.385	2.245	1.973	1.960	1.871	1.790	-4,3
Ziklo bat: Lehen Hez. Irak.	1.506	1.447	1.251	1.330	1.518	1.587	4,5
Bi ziklo: Arte Eder. Lizentz.	1.542	1.540	1.487	1.552	1.515	1.539	1,6
Ziklo bat: Gizarte Hezk. Diplom.	1.578	1.479	1.409	1.440	1.451	1.480	2,0
Bi ziklo: Arkitektura	1.401	1.379	1.370	1.352	1.318	1.320	0,2
Bi ziklo: Ekonom. Lizentz.	2.346	2.213	2.035	1.782	1.549	1.297	-16,3

Iturria: Eustat. Datu-basea.

ranzko joera duela, 2001-02 ikasturteko %4,6tik 2005-06ko %4,4ra igaro baita.

Eustatek eskainitako azken datuen arabera:

- Matrikula kopuruak behera egin du, 2003-04tik 2004-05era %3,2 (aurreko ikasturtean izandakoa baino 2 hamarren gehiago).
- Titulartasun publikoko eta pribatuko zentroak be-reizita, EAEn matrikulazioen %77,7 sare publikoan egiten dira eta %22,3 pribatuan. Estatuan, EINen datuen arabera, ikasleen %86,4 titulartasun publi-koko zentroetan matrikulatu dira eta %13,6 titular-tasun pribatuko zentroetan.
- Matrikulazioaren beherakada sare pribatuan eta publikoan gertatu da, baina handiagoa izan da pri-batuan (-%8,8) publikoan baino (-%1,4).
- Generoaren ikuspegitik, emakumeen matrikulazioa gizonena baino handiagoa da, nahiz eta lau urteko hazkundearen ostean 2003-04 eta 2004-05 ikastur-teetan behera egin, bai sare publikoan eta bai pri-batuan, emakumeak Zientzia eta Teknika Irakas-kuntzetan duen ordezkapena aztertzea ere joera horixe ikusten da.

Bestalde, azken ikasturtearen aldaketa tasa (EINen datuak 2004-05rako), aurreko urteari dagokionez, han-diagoa da Lizentziaturetan eta Arkitekturan edo Injine-rutzan, %6,4ko eta %5,2ko beherakadarekin (hurrenez hurren), Diplomaturetan baino (%0,5eko beherakada baino ez). Beheranzko joera hori nahiko handiagoa da EAEn Estatuan baino, eta bertan, gainera, beherakada

handiagoa da Arkitekturan edo Injinerutzan Lizentziatu-retan baino.

Bestalde, aipagarria da Arkitekturak eta Injinerutza Teknikoak EAEn izandako jokabide ona; izan ere, bi aldi horietan %0,2ko gorakada egon da, aurreko bi ikastur-teetan %5 ingurukoa izan arren; Estatuan, berriz, -%2,3ko aldaketa tasa negatiboa egon da.

Eustaten datuen arabera, eskaririk handiena duten 15 titulazioak (2.000 matrikulazio baino gehiagorekin) honako hauek dira: enpresa administrazio eta zuzenda-ritzako lizentziatura (5.861 ikasle 2004-05 ikasturtean eta %6,2ko beherakada aurreko urteari dagokionez), en-presa zientzietako diplomatura (4.110 ikasle eta %3,5eko beherakada), zuzenbideko lizentziatura (3.658 matrikulazio eta %6,4ko beherakada), industria injine-rutza (3.356 ikasle eta %6,4ko beherakada), injinerutza tekniko mekanikoa (3.175 ikasle eta %1,7ko gorakada, aurreko ikasturteari dagokionez), psikologiako lizentzia-tura (2.792 ikasle eta %1,1eko beherakada), industria injinerutza tekniko elektronikoa (2.528 ikasle eta %5,5eko beherakada).

1.500 matrikulazio baino gehiagorekin eta 2.000 baino gutxiagorekin honako hauek daude: kudeaketa in-formatikako injinerutza tekniko (1.969), haur hezkun-tzako irakaslea (1.883), informatika injinerutza (1.790), lehen hezkuntzako irakaslea (1.587). Hortik behera gi-zarte hezkuntzako diplomatua, arkitektura eta ekono-miako lizentziatua daude.

2003-04 eta 2004-05 ikasturteen arteko aldaketak agerian jartzen duenez, gehienek ikasleak galdu dituzte;

horren salbuespenak honako hauek dira: injinerutza tekniko mekanikoa (%1,7ko gorakada), haur hezkuntzako irakaslea (%0,6ko gorakada), lehen hezkuntzako irakaslea (%4,5eko gorakada), arte ederretako lizentziatua (%1,6), gizarte hezkuntzako diplomatua (%2) eta arkitectura (%0,2).

1.2.2.2. Unibertsitateko hirugarren zikloa

Eustaten datuen arabera, unibertsitateko hirugarren zikloko matrikulazioak 2001-02 ikasturtean hasitako goranzko joera mantendu du. 2004-05 ikasturtean 2.698 ikasle zeuden hirugarren zikloan, aurreko ikasturtean baino 101 gehiago, eta horrek %3,9ko hazkunde tasa adierazten du (aurreko urteko %8,6tik beherakoa). Ema-

kume kopurua gizonena baino apur bat handiagoa da (1.394 eta 1.304).

EAEn matrikulaturiko ikasle kopuruak ere, Unibertsitate Koordinazioko Kontseiluak emandako datuek diotenez, gora egin du 2003-04 ikasturtetik 2004-05 ikasturtera; hain zuzen ere, %3,5eko hazkundea izan du eta hori Estatuan izandako %4,4koa baino txikiagoa da. Matrikulazio kopurua 2.600 pertsonakoa da EAEn; horietatik 1.242 gizonak dira eta 1.358 emakumeak.


Beste modu batera esateko, emakume kopurua gizon kopurua baino handiagoa da, eta Estatuan ere gauza bera gertatzen da (36.948 eta 35.781). EAEn emakumeen matrikulazioen hazkunde tasa estatukoa baino handiagoa da (%5,5 eta %4,8). Aldiz, gizonen matriku-

HIRUGARREN ZIKLOAN MATRIKULATURIKO IKASLE KOPURUAREN BILAKAERA

	Guztira			Gizonak			Emakumeak		
	2003-04	2004-05	Aldaketa	2003-04	2004-05	Aldaketa	2003-04	2004-05	Aldaketa
ESTATUA	69.673	72.729	4,4	34.422	35.781	3,9	35.251	36.948	4,8
Unibertsitate Publikoak	66.291	69.516	4,9	32.621	34.054	4,4	33.670	35.462	5,3
Unibertsitate Pribatuak	3.382	3.213	-5,0	1.801	1.727	-4,1	1.581	1.486	-6,0
EAE	2.511	2.600	3,5	1.224	1.242	1,5	1.287	1.358	5,5
Unibertsitate Publikoak ⁽¹⁾	2.154	2.276	5,7	1.042	1.070	2,7	1.112	1.206	8,5
Unibertsitate Pribatuak ⁽²⁾	357	324	-9,2	182	172	-5,5	175	152	-13,1

(1) Euskal Herriko Unibertsitatea bakarrik (2) Deustuko Unibertsitatea eta Arrasateko Unibertsitatea barne.
Iturria: Unibertsitate Koordinazioko Kontseilua. Hezkuntza eta Zientzi Ministerioa eta geuk landuta.

HIRUGARREN ZIKLOKO IKASLEAK GENEROAREN ARABERA



Iturria: Eustat, datu-basea.

IKERTZAILEEN HEZIKETARAKO EMAN DIREN BEKAK

	2003/04		2004/05	
	Guztira	Zuzkidura€/hileko	Guztira	Zuzkidura€/hileko
AE	309	1.022,00	310	1.022,00
AK	41	1.201,00 - 1.579,00	37	1.201,00 - 1.579,00
B	23	1.022,00	2	1.022,00
DE	43	1.270,00	24	1.270,00
DK	48	1.499,00 - 2.074,00	43	1.499,00 - 2.074,00
E	30	1.573,00	20	1.573,00
GUZTIRA	494		436	

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzak.

lazioa handiagoa da Estatuan EAEn baino (%3,9 eta %1,5).

Zentroen titulartasunari dagokionez, EAEn eta Estatuan unibertsitate publikoek goranzko matrikulazio tasak dituzte. Aldiz, sare pribatuko matrikulazioak behera egin du.

Bestalde, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak badaki partaidetza aktiboa izan behar duela, unibertsitate eta industria komunitateari ikertzaileen heziketa errazteko programak sustatu behar dituela, eta beraz, urte batzuetatik hona doktorego aurreko eta osteko ikertzaileen heziketa programa garatzen ari da, emaitza oso onekin.

Hain zuzen ere, lau beka programa daude:

- A) Doktorego aurreko beka programa.
- AE) Espainiako Aplikazio Zentroetarako modalitatea.
- AK) Atzerriko Aplikazio Zentroetarako modalitatea.
- B) Proiektuetarako doktorego aurreko beka programa.
- D) Atzerriko ikertzaileen hobekuntzarako doktorego osteko beka programa (DK).

DE) Espainian kokaturiko Aplikazio Zentroetarako modalitatea.

DK) Atzerrian kokaturiko Aplikazio Zentroetarako modalitatea.

E) Doktoreak EAEn sartzeko doktorego osteko beka.

Sailaren datuek agerian jartzen dutenez, 2003/04 eta 2004/05 ikasturteetan beka aktiboen kopuru osoak behera egin du eta 494tik 436ra igaro da; gainera, beka modalitate bakoitzeko zuzkidura ekonomikoa ez da aldatu bi aldiotan.

1.2.3. Ikasle atzeritarrak


1.2.3.1. Unibertsitatekoa ez den irakaskuntza

Europar Batasuna osatzen duten herrietako hezkuntza sistemak, sortu ere, oraingoak baino gizarte askoz ere homogeneoagoen eta itxiagoen beharrezanez erantzuna emateko diseinatu eta sortu ziren. Beraz, eritmo desberdinetan, eta bakoitzean ezaugarri desberdinak dituzten migrazio mugimenduei erantzunez, hezkuntza sistema guztiek (azken hamarkadotan) erreforma prozesuak izan


H. HEZKUNTZAN, L. HEZKUNTZAN, DBHn, BATXILERGOAN ETA LHko ZIKLOETAN MATRIKULATURIKO IKASLE ATZERITARREN KOPURUAK IZANDAKO BILAKAERA 2003-04AN ETA 2004-05EAN (AURRERAPENA)

	2003-04			2004-05					
	EAE			EAE			Estadua		
	K	%		K	%		K	%	
		Publik.	Pribatuak		Publik.	Pribatuak		Publik.	Pribatuak
Guztira	7.835	68,3	31,7	9.817	66,5	33,5	457245	81,6	18,4
Haur h.	1.601	73,6	26,4	2.026	71,2	28,8	85.353	79,9	20,1
Lehen H.	3.150	67,3	32,7	3.997	67,3	32,7	199.418	82,0	18,0
DBH	2.110	67,2	32,8	2.590	62,7	37,3	124.620	79,5	20,5
Batxilergoa	306	71,6	28,4	452	75,9	24,1	19.222	85,0	15,0
LH	521	53,7	46,3	665	54,7	45,3	15.455	77,8	22,2

(1) Haur Hezkuntzan ez dira 0-2 urteko ikasle atzeritarrak sartu, ez baitugu horri buruzko informaziorik.
Iturria: Unibertsitatekoa ez den irakaskuntzaren Estatistika. HZM.

IKASLE ATZERRITARAK AAEE BATZUETAN


Iturria: Unibertsitatekoa ez den Irakaskuntzaren Estatistika, HZM aurrerapen datuak (2004-05)

ATZERRITAR IKASLEEN BANAKETA EAEn, HEZKUNTZA MAILEN ARABERA


dituzte eta horien helburu nagusietariko bat eskolak kultura anitzeko gizarte berrien dibertsitatera, aberastasunera eta konplexutasunera irekitzea izan da.

Gaur egun, kultura arteko hiritartasun berriaren erakuntzarako eragiletzat balio duen kalitateko hezkuntza sistema eraikitzea etorkizuneko erronka garrantzitsua da.

EAEn, atzerriko ikasleen presentziak¹⁰ ez dauka beste estatu (adibidez, Frantzia eta Alemania) eta AAEE batzuetan (esaterako, Madril, Katalunia, Valentzia edo Andaluzia) dituen dimentsioak; hala ere, horien kopurua gero eta handiagoa da eta, 2003-04 ikasturtetik 2004-05 ikasturtera %14ko hazkundera izan zuen (9.817 matrikulazio), Hezkuntza eta Zientzi Ministerioak emandako datuen arabera, eta beraz, %468,4ko hazkundera izan du 1995-96 ikasturteari dagokionez.

2004-05 ikasturtean matrikulaturiko 9.817 ikasle horietatik %40,7 oinarriko ikasketak egiten dabilta, %26,4 DBHn, %20,6 Haur Hezkuntzan, %6,8 LHko heziketa zikloetan eta %4,6 Batxilergoan.

Ikasle atzerritarrik gehienak (%66,5) ikastetxe publikoetan dabilta, eta alderdi hori aintzat hartu beharrekoa da, eztabaida sortu baita horren inguruan, izan ere:

- Batzuek diotenez, horrek ez dio mesederik egiten gizarte kohesioari.
- Beste zenbaiten ustez, ikastetxe kontzertatuek diskriminazio politika dute, honako faktoreen arabera puntuazioa ematen baitute: familien errenta, familiako kidea antzinako ikaslea izatea, ikastetxetik etxerako hurbiltasuna, ikastetxean neba-arrebak edukitzea,...

¹⁰ Ikasle atzerritarrek espainiar naziotasunik ez dutenak dira. Beraz, talde horren barruan emigraziotik iritsitako talde osoa sartzen da. Naziotasun bikoitzeko egoeran dauden ikasleak espainoltzat hartzen dira.

Estatuan ez bezala, EAEn ikasleen banaketa ez da hain neurrigabea ikastetxe publikoen eta pribatuen artean, eta gainera, ikastetxe pribatuek gero eta garrantzi handiagoa dute, Batxilergoko matrikulazioaren kasuan izan ezik. Horrela, Estatuan banaketa 81,6-19,4 da eta EAEn 66,5-33,5.

1.2.3.2. Unibertsitateko irakaskuntza

Hezkuntza Ministerioaren txostenetan emandako datuen arabera ("Espainiako hezkuntzaren zifrak", 2004, 2005 eta 2006), ikasle atzerritarren kopurua handiagoa da urterik urtera. Estatuan 2001-2002 ikasturteko 23.566

matrikulazioetatik 2003-04ko 35.409 matrikulazioetara igaro da. EAEn¹¹, matrikulazio kopuruaren hazkundea 654tik 988ra igaro da aldi horretan.

Azken datuek agerian jarri dutenez, Estatuan ikasle horietako gehienek (%91,3) ikastetxe publikoetan ikasten dute, eta, batez ere, Madrileko eta Kataluniako autonomia erkidegoetan biltzen dira.

Azterketaren adierazletzat matrikulaturiko 1000 ikasleko ikasle atzerritarren kopurua erabilia, 30 ikasle atzerritar edo gehiago dituzten unibertsitate publikoen artean honako hauek nabarmentzen dira: Salamancako Unibertsitatea (53), Madrileko Politeknikoa (49), Pompeu Fabra

IKASLE ATZERRITARREK UNIBERTSITATEAREN ARABERA DUTEN BANAKETA. UNIBERTSITATEKO HEZKUNTZA⁽¹⁾. 2003-04 IKASTURTEA

	Ikasle atzerritarren kopurua						Ikasle atzerritarren kopurua, matrikulaturiko 1.000 biztanleko		
	Guztira		1. eta 2. zikloak		Doktoregoa		Guztira	1. eta 2. zikloak	Doktoregoa
	Guztira	EB	Guztira	EB	Guztira	EB			
GUZTIRA	35.409	7.945	21.983	5.387	13.426	2.558	23	15	193
PUBLIKOAK	32.319	7.057	19.558	4.645	12.761	2.412	23	14	192
Salamanca	1.603	430	608	182	995	248	53	22	454
Madrileko politeknikoa	2.138	171	1.644	109	494	62	49	40	218
Pompeu Fabra	433	135	133	51	300	84	48	16	404
Madrileko autonomia	1.407	307	640	231	767	76	41	21	203
Madrileko Carlos III	707	134	331	47	376	87	41	20	412
Madrileko Konplutentsea	3.244	510	2.028	362	1.216	148	35	23	190
Granada	1.945	246	1.435	170	510	76	33	26	188
Kataluniako politeknikoa	1.173	147	83	5	1.090	142	33	2	511
Bartzelonako autonomia	1.321	202	564	119	757	83	32	15	199
Bartzelona	1.817	482	1.007	328	810	154	31	18	253
A. de Henares	645	66	289	35	356	31	30	15	155
Illes Balears	348	154	339	148	9	6	28	28	21
Elxeko Miguel Hernández	315	148	284	143	31	5	28	27	66
Alacant	751	182	526	156	225	26	27	20	202
Valentziako politeknikoa	996	115	425	62	571	53	27	12	313
...									
31. EAE	840	429	589	398	251	31	16	12	117
...									
49. Oviedo	224	37	124	23	100	14	6	4	83
PRIBATUAK	3.090	888	2.425	742	665	146	23	18	197
Kataluniako nazioartekoa	282	87	209	61	73	26	120	95	0
Antonio de Nerbrija	91	25	30	15	61	10	47	17	462
Comillaseko pontifikoa	359	48	310	42	49	6	44	40	161
Ramón Llull	383	146	315	88	68	58	31	26	286
Nafarroa	255	62	133	50	122	12	24	14	497
Kataluniako Oberta	762	216	698	209	64	7	23	21	—
Madrileko europarra	98	31	53	21	45	10	13	8	114
Deustua	141	18	38	13	103	5	13	4	0
18. Arrasate	7	0	3	0	4	0	2	1	80
20. Miguel de Cervantes europarra	0	0	0	0	0	0	0	0	—

(1) Ez dira kontuan hartu Sokrates-Erasmus Programatik datozen Atzerriko Unibertsitateetako ikasleak. Iturria. Espainiako Hezkuntzako zifrak. 2006ko edizioa.

¹¹ EHU, Deustua eta Arrasate aintzat hartuta.

(48), Madrileko Autonomia eta Madrileko Carlos III (bakoitzak 41), Madrileko Konplutentsea (35), Granadako eta Kataluniako Politeknika (bakoitzak 33), Bartzelonako Autonomia (32), Bartzelonako (31) eta Alcala de Henareskoa (39).

Pribatuen artean, aipagarriak dira Kataluniako Nazioartekoa (120), Antonio de Nebrija (47), Comillasko Pontifizioa (44) eta Ramón Llull (31).

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) 31. postuan dago, unibertsitate publikoen artean, ikasle atzerritarren kopuruari dagokionez, eta Estatu osoan 49 unibertsitate publiko daude. Bestalde, EAEko unibertsitate pribatuetan (Deustukoa eta Arrasatekoa), estatuko joerei jarraituz, 1.000 matrikulazioko matrikulaturiko ikasle atzerritarren kopurua askoz ere txikiagoa da, hurrenez hurren, 13 eta 2.

Aipagarria da erabiltzen ari garen adierazlea nahiko altuagoa dela hirugarren zikloko ikasketetan (doktoregoa), lehenengo eta bigarren ziklokoetan baino, eta hori unibertsitate guztietan gertatzen da.

1.2.4. Hezkuntza adierazleak

1.2.4.1. Eskolatzearen adierazleak

(a) Eskolatzeta tasa garbia

Eskolatzeta tasa irakaskuntza maila bakoitzean eskolatuturik dauden eskola adineko pertsonen ehunekoa da

(Haur Hezkuntza: 0-6 urte, Lehen Hezkuntza: 6-12 urte, DBH: 13-16 urte, DOBH: 17-18 urte, eta Unibertsitateko Hezkuntza 18/19 urtetik aurrera), adin talde horretako biztanle kopuru osoari dagokionez.

Eustaten datuen arabera, 2004-05 ikasturtean, EAEko eskolatzearen ezaugarri nagusiak honako hauek dira: 3-15 urte bitarteko erabateko eskolatzeta; 3-16 urte bitartean %90etik gorako eskolatzeta; azken adin horretatik 21 urtera bitartean, eskolatzeta maila %50etik gorakoa, eta hortik aurrera beheranzko joera.


Hezkuntza Ministerioaren "Espainiako Hezkuntzaren zifrak" txosteneko datuek diotenez (2006ko edizioa), 1998-99 eta 2002-04 ikasturteetan:

- Irakaskuntza maila bakoitzeko eskolatzeta tasa garbiaren bilakaera goranzkoa eta Estatu bategi bategi goranzkoa da 17 urtera arte. Horrela, 3 urteko adinean tasa %80,3tik %95,9ra igaro da 1998-99 eta 2003-04 ikasturteetan; 15 urteko adinean, %93,9tik %98,9ra; eta 16 urteko adinean %83,7tik %87,8ra.

- Aztertuturiko adin talde guztietan, tasa gainerako AAEetako tasen gainetik edo horien parean dago.

Bestalde, 2003-04 ikasturtean, 16 urtera arteko eskolatzeta tasa garbiak ia berdina dira bi sexuentzat. Adin horretatik aurrera, emakumeen tasak txikiagoak dira gizonenak baino.

EAEko Eskolatzeta Tasa Garbiak 2004-05 Ikasturtean, Adinen Arabera



Iturria: Eustat.

ESKOLATZE TASA GARBIA ADIN ESANGURATSUETAN⁽¹⁾

	2000-01				2001-02				2002-03				2003-04			
	1998-99		2003-4		1998-99		2003-4		1998-99		2003-4		1998-99		2003-4	
	Guztira	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira	Guztira	Gizona	Emak.
GUZTIRA	80,3	95,9	95,6	96,2	93,9	98,9	98,1	99,7	83,7	87,8	84,8	91	75,9	74,9	69,2	81
Andaluzia	48,8	92,2	91,6	92,8	91,3	99,7	97,5	100	77,1	85,8	82,3	89,4	71,9	70,4	62,3	78,9
Aragoi	92,5	100	99,6	100	95,1	100	99,7	100	88,8	90,5	87,5	93,6	82,4	80,9	75	87
Asturias	90,4	96,4	96	96,9	99,4	98,5	98,6	98,5	94,1	95,6	93,7	97,7	88,8	88,9	86,5	91,4
Balearrak	85,9	93,2	92,4	93,9	94,1	93,1	93,3	92,9	77,2	82,7	79	86,5	63,5	63,4	57,2	69,9
Kanariak	83,7	89,7	89,7	89,6	96,4	99,1	99,2	98,9	86,6	86,5	84,4	88,6	77,3	71,1	66,8	75,6
Kantabria	89,2	95,7	96,1	95,3	97,2	99,1	96,8	100	90,6	93,2	90,1	96,5	83	81,6	77,4	86
Gaztela eta Leon	96,1	99,7	100	98,9	98	100	100	98,8	95,1	94,8	92,2	97,6	87,3	86,2	81,9	90,6
Gaztela-Mantxa	88,1	100	100	100	92	98,2	98,1	98,3	80	85,6	80,4	91	69,5	72	63,8	80,7
Katalunia	98,8	99,5	99,8	99,2	93,6	100	100	100	80,2	84	81,8	86,3	70,2	69,5	65	74,2
Valentziako Erkid.	76,3	94,5	92,2	97	91	97,6	94,5	100	78,1	82,9	77	89,1	71,6	68,6	60,2	77,6
Extremadura	88	95,9	96,3	95,5	93,1	99	98,8	99,1	82,7	85,7	81,1	90,5	70,2	71,9	64,5	79,9
Galizia	85,6	96,2	95,5	96,9	96,9	99,6	99,3	100	86,1	95,7	92,9	98,5	78,9	81,1	74,9	87,6
Madril	87,3	93,6	93,2	94,1	95	97,2	97,2	97,1	90,2	91	89	93,1	82,6	80,5	76,6	84,7
Murtzia	80,8	99,8	100	98,7	90,1	96,4	95,8	97	78,1	87,3	84,4	90,4	66,6	72,2	66,9	77,9
Nafarroa	96,8	100	100	99,9	92,5	100	100	100	89,1	88,5	87,1	90	81,6	83,8	84,1	83,4
EAE	100	100	100	100	99,3	100	99,7	100	97,3	96,3	96,7	95,9	91,5	94,5	94,4	94,5
Errioxa	94,7	99,1	100	96,8	97,2	99,9	98,3	100	88,9	87,3	86,1	88,6	77,8	74,6	70,6	78,8
Ceuta	61,2	91,8	89,6	93,9	85,1	94,3	96,2	92,2	75,7	83,7	85	82,4	57,8	68,9	67,9	70
Melilla	60,6	96	95,4	96,6	85,7	90,6	97,1	83,9	72,1	77	79,3	74,5	62,5	70	63,7	77

(1) Aintzat harturiko irakaskuntzak: Araubide Orokorrekoak, Arte Plastikoetakoak nahiz Diseinukoak eta gainerako Arte Irakaskuntzak. Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2006ko edizioa.

OCDEren azken datuen arabera, eskolatzeko ia osoa (%90etik gorako tasa) 5-6 urterekin hasten da. Hala eta guztiz ere, Belgikan, Danimarkan, Alemanian, Luxenburgon, Suedian, Frantzian, Erresuma Batuan, Japonian eta Espainian haurren %70 baino gehiago 3-4 urterekin eskolaturik daude, eskolaurrean edo lehen hezkuntza.

Zifren arabera, EHUn sartzeko proba egiteko matrikulatu diren EAEko ikasleen kopuru osoa 10.666koa izan da 2005ean, aurreko urtean baino %4,7 txikiagoa. Horietatik %90,1ek gainditu zuten proba (aurreko urteko zifra baino 2,3 puntu gutxiago). Estatuan, berriz, matrikulaturikoen %81,7k gainditu zuten proba, eta aurreko urtean ehuneko %80,2koa izan zen.

(b) Unibertsitatean sartzeko proba gainditu duten ikasleak

Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitatean sartzeko proben emaitzei buruzko zifra batzuk emango ditugu; horiek, gero, Estatukoekin konparatuko ditugu, EINEk Estatuko Unibertsitate Publikoen multzoari buruz eskainitako datuetan oinarrituz.

1.2.4.2. Hezkuntza emaitzen adierazleak

(a) Derrigorrezko hezkuntzaren adineko egokitasun tasak

Egokitasun tasak, hau da, bere adinerako egokia den ikasturte batean matrikulaturiko ikasle kopuruak (adin

2004AN ETA 2005EAN MATRIKULATU ETA GAINDITU DUTEN IKASLEAK

	2004		2005		Aldaketaren tasa	
	Estatua	EAE-EHU	Estatua	EAE-EHU	Estatua	EAE-EHU
Matrikulatuta						
Guztira	227.210	11.195	222.594	10.666	-2,0	-4,7
Ekaina eta iraila	206.258	10.496	202.741	10.044	-1,7	-4,3
25 urtetik gorakoak	20.952	699	19.853	622	-5,3	-11,0
Gainditu						
Guztira	182.325	10.342	181.830	9.607	-0,3	-7,1
Ekaina eta iraila	171.524	9.814	170.865	9.330	-0,4	-4,9
25 urtetik gorakoak	10.801	528	10.965	277	1,5	-47,5

Iturria: EIN.

horretako guztiei dagokienez), beheranzko joera dauka adinak gora egin ahala.

Generoaren ikuspegitik, Eustatek emandako datuak aintzat hartuta, esan daiteke emakumeek gizonak baino egokitasun tasa hobeak dituztela, adinik txikienetan izan ezik. Hala eta guztiz ere, azken urteotan jokabide positibo hori adinik txikienetan ere ikusi da, eta gainera, tasak gero eta altuagoak dira adinak gora egin ahala.

2003-04 eta 2004-05 ikasturteetako datuak konparatuta ikusten denez, bilakaera negatiboa da, hau da, txarrera egiten dute, 7-16ra bitarteko adinean izan ezik, bertan aldaketa tasak positiboak baitira. Gizonak eta emakumeak bereiziz, ikusten da emakumeen tasa batzuk (11, 12 eta 14 urtekoak) gizonenak baino gehiago jaisten ari direla. Aipagarria da 13 urteko emakumeen eta gizonen tasak izandako beherakada.

Hezkuntza Sistemaren Ebaluazio eta Kalitate Institutu Nazionalak emandako azken datuen arabera, 2001-02 ikasturtean Estatuko ehunekotik gaineko egokitasun tasa duten autonomia erkidegoak Asturias, Katalunia, Nafarroa, Aragoi eta EAE dira.

(b) Ikasketa amaieraren tasa

Ikasketa amaieraren tasak, hau da, ikasketak amaitu dituzten ikasleek eta ikasketa horien amaiera teorikoaren adinean dauden biztanleen arteko erlazioak, behera egiten du adinarekin, Lehen Hezkuntzatik Batxilergora. Horrela, Lehen Hezkuntzan %79,9koa da, DBHn (14 urte) %67,3koa, DBHn (16 urte) %63,9koa eta Batxilergoan (18 urte) %63,6koa. LHn eta unibertsitateko ikasketetan altuagoa da bi zikloko ikasketetan (LH2n %31,1 eta 2. zikloko unibertsitateko ikasketetan %23,6), ziklo bakarreko

ADIN GARRANTZITSUETAKO EGOKITASUN TASAK⁽¹⁾, SEXUAREN ARABERA (%).

	2003-04			2004-05			Bi aldien arteko aldaketa		
	Guztira	Emak.	E-G	Guztira	Emak.	E-G	Guzt.	Gizona	Emak.
7 urte (2)	99,4	97,7	-3,4	100,4	100,7	0,6	1,0	-1,0	3,0
9 urte (3)	102,0	101,1	-1,8	96,5	96,8	0,6	-5,5	-6,7	-4,3
11 urte (4)	95,5	96,9	2,7	92,7	93,3	1,1	-2,8	-2,0	-3,6
12 urte (5)	90,7	93,6	5,6	88,6	90,2	3,2	-2,1	-1,0	-3,4
13 urte (6)	92,2	93,4	2,3	82,1	86,4	8,3	-10,1	-13,0	-7,0
14 urte (7)	83,1	89,4	12,3	77,6	82,7	10,0	-5,5	-4,4	-6,7
15 urte (8)	72,1	77,4	10,4	69,1	75,6	12,8	-3,0	-4,2	-1,8
16 urte (9)	62,5	70,0	14,7	63,5	70,2	13,3	1,0	1,6	0,2
17 urte (10)	56,3	64,7	16,3	56,1	64,0	15,3	-0,2	0,3	-0,7

(1) Adinerako teorikoki egokia den ikasturtean matrikulaturikoen eta adin horretako biztanleriaren arteko erlazioa.

Ikasturteak teorikoki: 7 urte -L. Hezkuntzako 2. maila.

9 urte -L. Hezkuntzako 4. maila.

11 urte -L. Hezkuntzako 6. maila.

12 urte -DBHko 1. maila.

13 urte -DBHko 2. maila.

14 urte -DBHko 3. maila, BBBko 1. maila, LH1.

15 urte -DBHko 4. maila, BBBko 2. maila, LH2.

16 urte -BBBko 3. maila, LH2ko 1. maila, LOGSE Batxilergoko 1. maila.

17 urte -UBI, LH2, LOGSE Batxilergoa.

Iturria: Eustat, datu-basea.

IKASKETAK AMAITZEKO TASAK, MAILAREN, ALDIAREN ETA SEXUAREN ARABERA.

	2003/2004			2004/2005			Aldaketa		
	Guztira	Emak.	E-G	Guztira	Emak.	E-G	Guztira	Gizona	Emak.
Oinarrizko Hezkuntza									
Lehen Hezkuntza	81,4	85,8	8,7	79,9	84,2	8,4	-1,5	-1,3	-1,6
DBH (14 urte)	62,1	69,7	14,9	67,3	74,8	14,6	5,2	5,4	5,1
DBH (16 urte)	59,5	66	12,6	63,9	71,1	14,1	4,4	3,6	5,1
LOGSE Batxilergoa (18 urte)	65,7	73,7	15,7	63,6	73,1	18,3	-2,1	-3,2	-0,6
LH I (18 urte)	18,7	15,4	-6,5	18,9	16,3	-5	0,2	-0,6	0,9
LH II (20 urte)	31,1	28,5	-5,1	31,5	29,3	-4,3	0,4	0	0,8
Uniberts. ikask.									
2. zikoa (23 urte)	23,6	28,8	10,2	22,4	28	11	-1,2	-1,6	-0,8
Uniberts. ikask.									
1. zikoa (21 urte)	20	25,5	10,8	19,7	24,6	9,6	-0,3	0,3	-0,9

Iturria: Eustat. Datu-basea.

ikasketetan baino (LH1en %18,7 eta 1. zikloko unibertsitateko ikasketetan %20).

Bilakaeraren ikuspegitik, 2003-04 eta 2004-05 ikasurteetan artean aldaketa tasa positiboa izan du DBHn eta LHn (hurrenez hurren, DBH-14 urtean %5,2 eta DBH-16 urtean %3,6; eta LH-len %0,2 eta LH-IIIn %0,4); eta negatiboa Lehen Hezkuntzan, Batxilergoan eta Unibertsitateko Ikasketetan (hurrenez hurren, Lehen Hezkuntzan %1,5, Batxilergoan %3,2 eta 1. zikloko nahiz 2. zikloko Unibertsitateko Ikasketetan %1,2 eta %0,3).

Emakumeen tasa gizonena baino handiagoa da ikasketen guztietan, LHn izan ezik (LH-len emakumeek %16,3 eta gizonen %21,3, eta LH-IIIn emakumeek %29,3 eta gizonen %33,6); hala ere, aztertutako aldietan egoerak hobera egin du. Horrela, emakumeen tasa %15,4tik %16,3ra igaro da LH-len, eta %28,5etik %29,3ra LH-IIIn, 2003-04 ikasturteetik 2004-05era.

(c) Eskola goizegi uztea

Gaur egun, gero eta garrantzizkoagoa da gizarte garatuetako gazteek derrigorrezko eskolatzearen etapetatik aurrera ere ikasten jarraitzea. Izan ere, eskola uzte goiztiarra esaten zaio 18-24 urteko gazteak hezkuntza siste-

man ez gelditzeari, derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitu ondoren.

Lisboako Europako Kontseiluak 2000ko martxoan ataratako ondorioetan, eskola uzteari buruzko helburu jakina finkatu zen: 2010erako erdira murriztea (helburua: %10) gehieneko ikasketen mailatzat bigarren hezkuntza duten eta gero ikasketak uzten dituzten 18-24 urteko ikasleek kopurua (CINE 2). Azken batean, adin tarte horretako gazteek ikasten jarraitzea sustatu nahi da: arauzko ikasketak (derrigorrezkoaren ostekoa) edo ez (Hezkuntza Sistematik kanpoko beste heziketa motaren bat). Horrela, saihestu egin nahi da biztanle kopuru jakina ezagupenaren gizar-tetik kanpo gelditzea.

Europako herrietan adierazle horren bilakaerak behe-ranzko joera dauka, baina aintzat hartu behar da proposaturiko helburua asmo oso handikoa da, estatu kide bartzuk oso urrun baitaude 2010ean lortu nahi den %10etik.

ISEI-IVEIren datuen arabera (Hezkuntza Ebaluazioko eta Ikerketako Euskal Institutua), 2004an EB-15eko estatuen batez bestekoa %18koa zen, baina sartutako beste 10 estatuekin %15,9ra jaitsi da. Izan ere, estatu horiek duten eskola uzteko tasa nahiko baxuagoa da, EBko gainerako estatu kideek baino.

ESKOLA UZTEAREN EHUNEKOA 18-24 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN ARTEAN, 2001-2004 ALDIAN.

	2001	2002	2003	2004
Eslovenia	7,5	4,8	4,3	4,2
Norvegia	9,2	14	6,6	4,5
Polonia	7,9	7,6	6,3	5,7
Txekiar Errep.	—	5,5	6	6,1
Eslovak. Err.	—	5,6	4,9	7,1
Danimarka	8,8	8,4	10	8,1
Suedia	10,5	10,4	9	8,6
Finlandia	10,3	9,9	8,3	8,7
Austria	10,2	9,5	9,2	9,2
Lituania	13,7	14,3	11,8	9,5
Belgika	13,6	12,4	12,8	11,9
EAE	15,1	12,6	14,5	12,4
Hungaria	12,9	12,2	11,8	12,6
Alemania	12,5	12,6	12,8	12,8
Irlanda	—	14,7	12,1	12,9
Estonia	14,1	12,6	11,8	13,7
Frantzia	13,5	13,4	13,7	14,2
Letonia	—	19,5	18,1	15,6
EB-25	16,9	16,5	15,9	15,9
Erresuma Bat.	17,6	17,7	16,7	16,7
EB-15	18,8	18,5	18,1	18
Zipre	14,8	14	15,1	18,4
Bulgaria	20,3	21	22,4	21,4
Italia	26,4	24,3	23,5	23,5
Errumania	21,3	23,2	23,2	23,6
Espainia	28,6	29	29,8	30,4
Portugal	44	45,1	40,4	39,4
Malta	54,4	53,2	48,2	45

Iturria: ISEI-IVEI, 2005.

EAEri dagokionez, 1992-2004 aldian adierazle horrek bilakaera positiboa izan du; izan ere, eskola uztearen tasan 1992ko %25,4tik 2004ko %12,4ra igaro gara. Sexuen arabera banaketak ere zifra argigarriak eskaintzen ditu. Urte horretan, emakumeen artean, eskola uztearen tasa %8,1ekoa zen, gizonena (%16,5) baino ia 9 puntu baxuagoa, eta 2010erako proposaturiko helburutik beherakoa. Horrek guztiak aditzera eman du EAE posizio onean dagoela 2010erako finkaturiko helburua lortzeko.

(d) Euskarako hizkuntza gaitasunaren ebaluazioa (B2)

ISEI-IVEIk euskarako B2¹² mailaren ebaluazioa egin zuen 2005ean, eskolatzearen derrigorrezko aldia (DBHko 4. maila) amaitu duten ikasleen artean. Probaren barruan honako atalak sartu ziren: irakurmena, ulermena, idazmena, ahozko adierazpena eta hizkuntzaren ezagupena.

Ahozko adierazlearen ebaluazioak baldintza bereziak behar zituen. Hortaz, lagina ebaluazio osotik hartu beharrean, azpi-lagina aukeratu eta, bertan, 16 talde aukeratu ziren, bakoitza 16 ikaslerekin. Hautapen hori ausazkoa izan zen. Guztira, ahozko adierazpenaren proba 243 ikaslek egin zuten, B ereduko 123k eta D ereduko 120k.

Ahozko adierazpenik gabeko probaren emaitzak

Proba 563 ikaslek gainditu zuten (%47,3). Kontuan hartu behar da probaren maila altua izan zela; egin-eginean ere, gainditzeko beharrezkoa zen bertako jardueren %60ri erantzun egokia ematea.


Etxean gurasoekin euskaraz egiten duten ikasleen %72,6k gainditu zuten proba. Hala eta guztiz ere, etxean euskara erabiltzen ez duten ikasleen artean, %38,6k soilik gainditu zuten proba.

Hizkuntza ereduak dagokienez, D ereduko ikasleen %57k eta B ereduko ikasleen %27,5ek gainditu zuten.

Sexuaren arabera, nesken %52,9k eta mutilen %41,7k gainditu zuten.

Hezkuntza sareen arabera, sare publikoan matrikulaturiko ikasleen %51,7k eta sare kontzertatuan matrikulaturiko %43,6k gainditu zuten.

AHOZKO ADIERAZPENIK GABEKO B2 FROGAREN EMAITZAK (GAINDITU DUTENEN %)



Iturria: ISEI-IVEI, 2005.

Familiaren ikasketa mailari dagokionez, hori zenbat eta handiagoa izan, proba gainditu dutenen kopurua ere hainbat eta handiagoa da. Horrela, unibertsitate ikasketadun gurasoak dituzten ikasleen %57,8k gainditu zuten proba; oinarrizko ikasketadun gurasoak dituztenen artean ehunekoa %38,7koa izan zen, eta oinarrizko hezkuntzarik gabeko gurasodun ikasleen artean %22koa.

Ahozko adierazpeneko probaren emaitzak

Ikasleen %53,7k gainditu egin zuen ahozko adierazpeneko proba. Ahozko adierazpeneko proba egin zuten B ereduko ikasleen artean kopurua %32,6koa izan zen, eta D eredukoaren artean %68koa.

(e) Biztanleria aktiboaren hezkuntza maila (langabetuak eta landunak)

EIN-BAIren datuen arabera, Estatuan biztanleria aktiboaren zatirik handienak hezkuntza maila ertaina dauka (2004an %50,5ek erdiko mailako ikasketak eta %30,1ek goiko mailako ikasketak zituzten). Bigarren Hezkuntza


¹² Ikaslea testuetako ideia nagusiak ulertzeko gauza da, gai zehatzei eta abstraktuei buruz, bere espezialitateko eztabaida teknikoak ere barne. Elkarriketetan erraz eta arazo barik parte hartzeko gauza da; horrela, euskaldunekin tentsiorik sortu gabe hitz egin dezake. Testu argiak eta zehatzak sortzen ditu, gai askori buruz, eta gai jakinaren inguruko ikuspegia azaltzen daki, gainerako ikuspegiaren alde onak eta txarrak azalduz.

DAGOKIONEZ, BIZTANLERIA AKTIBOAREN (LANGABET. ETA LANDUNAK) HEZIKETA MAILA AINTZAT HARTUTA

	Guztira		Lehen hezkuntza		Bigarren hezkuntza		Goi hezkuntza	
	2003 TIV	2004 TIV	2003 TIV	2004 TIV	2003 TIV	2004 TIV	2003 TIV	2004 TIV
Landunak	17.559,7	18.288,1	3.495,1	3.404,4	8.718,4	9.140,9	5.268,7	5.644,5
Langabetuak	2.252,1	2.159,4	497,0	448,2	1.211,1	1.187,6	518,0	493,4
Enplegu bila dabilen langabetuak	367,9	310,8	68,8	43,3	168,2	146,4	126,7	112,4
Biztanleria aktibo osoa	20.179,7	20.758,3	4.060,9	3.895,9	10.097,7	10.474,9	5.913,4	6.250,3

Iturria: EIN-BAI.

BIZTANLERIA AKTIBOAREN HEZKUNTZA MAILAREN BILAKAERA ESTATUAN



Iturria: EIN-BAI.

ehunekoa %29,3tik %30,1era igaro da, eta ikasketa ertainak dituzten biztanleen kopuruak ere gora egin du, baina neurri txikiagoan (%50,04tik %50,5era).

Langabetuak zein landunak eta ikasketa ertainak nahiz goi ikasketak bereizita, datuek hauxe adierazten dute:

- ikasketa ertainak eta goi ikasketak dituzten landunen kopuruak gora egin du (hurrenez hurren, %49,7tik %50era eta %30etik %30,9ra igaro dira);
- goi ikasketak dituzten langabetuen kopuruak behera egin du (%23etik %22,8ra), eta Bigarren Hezkuntza dutenen kopuruak gora (%53,8tik %55,8ra). Hala ere, lehenengo lanaren bila ari diren langabetuen artean aurkakoa gertatzen da, hau da, langabetu kopurua prestakuntza mailarik handiena baino handiagoa da.

EAEn, Eustaten BJAk emandako datuen arabera, biztanleria aktiboaren zatirik handienak erdiko mailako ikasketak ditu. Horrela, 2005ean, biztanleria aktiboaren %55,1ek baino gutxiagok zituzten erdi mailako ikasketak, %29,7k goi ikasketak zituzten eta %34,7k oinarrizko ikasketak.

16 URTEKO EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA (MILATAN), JARDUERARI DAGOKIONEZ, BIZTANLERIA AKTIBOAREN (LANGABETUA ETA LANDUNA) HEZIKETA MAILAREN ARABERA. EAE

	2003				2004				2005			
	Guztira	Oinarrizko L.	Erd. L.	Goi L.	Guztira	Oinarrizko L.	Erd. L.	Goi L.	Guztira	Oinarrizko L.	Erd. L.	Goi L.
	kop.	Horizontalen %			kop.	Horizontalen %			kop.	Horizontalen %		
Guztira	1.816,1	35,7	44,6	19,8	1.819,8	35,2	44,5	20,4	1.821,7	34,7	43,5	21,8
Aktiboak	1.000,5	16,2	57,4	26,5	1.007,7	15,1	57,3	27,6	998,2	15,2	55,1	29,7
Landunak	914,5	16,9	56,9	26,3	929,1	15,6	56,7	27,8	941,2	15,6	54,7	29,8
Langabetuak	86,1	8,7	62,4	28,9	78,6	9,4	64,5	26,1	57	9,1	61,8	29,1
Lan egin duten langabetuak	73	10,0	64,1	25,8	93,4	10,9	65,5	23,6	51,8	9,7	61,6	28,8
L. enpleguaren bila dabilen langabetuak	13,1	0,8	51,9	46,6	79,4		57,7	42,3	5,2	1,9	63,5	34,6
Ez-aktiboak	815,6	59,6	29,0	11,5	812,1	60,1	28,6	11,3	823,4	58,3	29,5	12,2

Iturria Eustat-BJA.

Era berean, goi ikasketak dituzten biztanleen ehunekoak gora egin du azken urteotan; hain zuzen ere, 2003ko %26,5etik 2005eko %29,7ra igaro da; erdiko edo oinarritzko ikasketak dituztenen ehunekoak behera egin du. Lehenengo kasuan %57,4tik %55,1era, eta bigarren kasuan %16,2tik %15,2ra.

Langabetuak eta landunak bereizita, goi ikasketak dituzten landunen ehunekoak gora egin du. 2003an, landunen %26,3k goi ikasketak zituzten, eta 2005ean ehunekoak %29,8koa da. Halaber, urte horretan, landunen %54,7k maila ertaineko ikasketak zituzten eta %15,6k oinarritzko ikasketak.

Hala eta guztiz ere, goi ikasketak dituen langabetu kopuruak ere gora egin du (2003an %28,9 eta 2005ean %29,1); maila ertaineko ikasketak dituzten langabetuen ehunekoak, berriz, behera egin du (%62,4tik %61,8ra).

Lan egin duten langabetuak eta lehenengo lanaren bila ari direnak bereizita ikusten denez, goi ikasketak eduki eta lehenengo lanaren bila ari diren langabetuen eta lehenengo lanaren bila ari diren guztien arteko erlazioak behera egin du (%46,6tik %34,6ra). Aldiz, maila ertaineko ikasketak eduki eta lehenengo lanaren bila ari diren langabetuen eta lehenengo lanaren bila ari diren langabetu guztien arteko erlazioa hazi egin da aintzat hartutako bi aldietan (%51,9tik %63,5era).

1.2.4.3. Giza baliabideen adierazleak

(f) Irakasleak/taldea, ikasleak/irakaslea eta ikasleak/taldea ratioak

EAEn, talde bakoitzeko irakasleen ratioa handiagoa da bigarren hezkuntzan oinarritzko hezkuntzan baino (1,8 eta 1,3 EAEn¹³); gainera, bi kasuetan ere, beheranzko joeratzat izan du 2002-03 eta 2003-04 ikasturteetan. Ikastetxeen titulartasuna aztertuta ikusten denez, ratioak handiagoak dira ikastetxe publikoetan eta txikiagoak ikastetxe pribatuetan.

Talde bakoitzeko ikasleen ratioa ere handiagoa da bigarren hezkuntzan oinarritzkoan baino (19,8 eta 18,2), eta 2002-03 eta 2003-04 ikasturteetan behera egin du. Ikastetxeen titulartasunaren arabera, bi irakaskuntza mota horiei dagokienez, ratioak handiagoak dira ikastetxe pribatuetan publikoetan baino, eta gainera, hurrenez hurren, EAEko batez bestetikotik gorakoak eta beherakoak dira.

OCDEren arabera, lehen hezkuntzan ikasgelako batez besteko ikasle kopurua 22 ikaslekoa da. Kopuru hori handiagoa da lehen hezkuntzatik bigarrenera igarotzean (hazkundearen batez bestekoa ia bi ikaslekoa da ikasgela bakoitzean). OCDEk argitaraturiko azken datuetan agertzen denez (2004an argitaraturiko 2002ko datuak), ikasle kopuruak ikasgela bakoitzeko dituen batez beste-

IRAKASLEAK/TALDEA, IKASLEAK/TALDEA ETA IKASLEAK/TALDEA RATIOAK

	2002-03			2004-05		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
Oinarritzko hezkuntza⁽¹⁾						
Irakasleak/taldea	1,5	1,6	1,4	1,5	1,6	1,3
Irakasleak (EA) ⁽²⁾ /taldea	1,4	1,6	1,3	1,3	1,5	1,1
Ikasleak/irakaslea	12,3	10,3	15,0	12,1	10,1	15,0
Ikasleak/irakaslea (EA)	12,8	10,4	16,3	14,0	11,0	19,1
Ikasleak/taldea	18,3	16,3	20,6	18,2	16,4	20,3
Bigarren hezkuntza⁽³⁾						
Irakasleak/taldea	2,2	2,5	1,9	2,3	2,6	2,0
Irakasleak (EA)/taldea	2,1	2,5	1,7	1,8	2,4	1,3
Ikasleak/irakaslea	9,1	7,3	11,8	8,7	7,1	10,8
Ikasleak/irakaslea (EA)	9,6	7,3	13,0	10,7	7,7	16,4
Ikasleak/taldea	20,5	18,4	22,7	19,8	18,3	21,4
Unibertsitateko ikasketak						
Ikasleak/irakaslea	15,0	14,7	16,0	14,1	14,1	14,1
Ikasleak/irakaslea (EA)	17,7	16,7	21,6	16,4	15,8	19,0

(1) Oinarritzko Hezkuntza: Haur eta Lehen Hezkuntza.

(2) EA: erabateko arduraldia. Erabateko arduraldia duten irakasleak gehi arduraldi partziala duten irakasleen 1/2.

(3) Bigarren Hezkuntza: DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzaren Estatistika.

¹³ Erabateko arduraldia duten irakasleak gehi arduraldi partziala duten irakasleen €.

ko ratioak EAEkoak baino handiagoak dira, bai Lehen Hezkuntzan (21,8) eta bai Bigarren Hezkuntzan (lehenengo zikloa: 23,7).

EAEko irakasle bakoitzeko ikasleen ratioaren azterketak agerian jarri duenez, baliorik handiena unibertsitateko hezkuntzan dago, baina 2002-03 eta 2004-05 ikasturteetan hazkunde nahiko handia egon da oinarritzko hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan, eta beherakada egon da unibertsitateko hezkuntzan. Handitze horiek sare pribatuan (batez ere) izandako hazkundearen eraginezkoak dira. EAEn neurturiko ratioak 16,4koa (unibertsitate ikasketak), 10,7 (bigarren hezkuntza) eta 14 (oinarritzko hezkuntza) dira.

OCDEk argitaraturiko azken datuetan adierazitakoaren arabera, irakasle bakoitzeko ikasleen batez besteko ratioak EAEkoak baino handiagoak dira, bai Lehen Hezkuntzan (17,7) eta bai Bigarren Hezkuntzan (14,3). Proporziorik honenak honako estatu hauetan daude: Danimarka (hurrenez hurren, 10,4 eta 12,8), Suedia (12,8 eta 14,1), Grezia (13,4 eta 10,7) eta Italia (11 eta 10,3).

1.2.4.4. Finantza baliabideen adierazleak: irakaskuntzaren gastua eta finantziazioa

Eusko Jaurlaritzak (finantziazio iturri nagusia) gastuetarako duen 2005eko aurrekontuaren behin betiko likidazioan ikusten denez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailerako partidak 2.022.057 mila euroko zenbatekoa dauka (2004an likidaturiko aurrekontuan baino %6,8 gehiago), eta partaiderik garrantzitsuenak da, Osasunekoaren atzetik. Hezkuntza Sailari Eusko Jaurlaritzaren gastu osoaren barruan esleituriko ehunekoa %27,7koada, eta horrela, aurreko urteko beheranzko joerari eutsi zaio. Izan ere, 0,4 hamarreneko beherakada egon da, aurreko urteari dagokionez.

BPGri dagokionez ikusten denez, beherakadatxoa egon da, 2004ko %3,8tik 2005eko %3,5era igarota. EB-15en eta EB-25en batez besteko balioa, 2003an, %5,21koa eta %5,22koa izan da, hurrenez hurren. Baliabiderik gehien bideratzen duten estatuak honako hauek dira: Danimarka, Islandia, Norvegia, Zipre, Finlandia eta Belgika; eta gutxien bideratzen dutenak Errumania, Japonia eta Turkia.

Hezkuntza Sailak ikasle bakoitzeko duen gastuaren ratioak gora egin du, ikasle kopuruak behera egitearen ondorioz.

Aurrekontuaren zatirik handiena hartzen duten programak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH dira, eta hiruren artean Sailaren gastu osoaren %74,3ra iristen dira. Aipagarria da, aurreko urteetako joerari jarraituz, araubide bereziko Irakaskuntza Programan eta Helduen Hezkuntza Iraunkorrean egon den hazkundea (%23,4).

Hain zuzen ere, aipagarriak dira honako hauetan izandako hazkundeak: Informazioaren Gizartearen Euskadi Plana (%53,7), Araubide bereziko irakaskuntza eta Helduen Hezkuntza Iraunkorra (%23,4), Unibertsitate Irakaskuntza (%13,9) eta Hezkuntza sustapena (%13). Beste aldean, aipagarria da Kirol Ikasketek izandako murriztapena (-%46,2).

Unibertsitateko Irakaskuntza publikoan egindako gastua (ISCED-97: 5 eta 8, 1., 2. eta 3. zikloetako ikasketak)

FINANTZA ADIERAZLEAK, 2003

	Gastu publikoa hezkuntzan/BPG (%)	Gastu publikoa hirugarren hezkuntzan/ BPG (%) (ISCED 5-6, hau da, 1., 2. eta 3. zikloko unibertsit.)
EAE (Uniberts. 04)	3,8	0,4
Japonia	3,71	0,62
Errumania	3,44	0,68
Letonia	5,32	0,74
Italia	4,74	0,78
Bulgaria	4,24	0,84
Malta	4,84	0,84
Eslovakia	4,38	0,86
Kroazia	4,66	0,86
Txekiar Errep.	4,55	0,94
Espainia	4,29	1
Lituania	5,18	1
Portugal	5,61	1,01
Polonia	5,62	1,03
Erresuma Batua	5,38	1,06
Irlanda	4,4	1,09
Estonia	5,67	1,09
EB-25	5,22	1,15
EB-15	5,21	1,16
Alemania	4,71	1,19
Frantzia	5,91	1,2
Turkia	3,74	1,21
Hungaria	5,94	1,23
Austria	5,48	1,29
Belgika	6,06	1,31
Holanda	5,07	1,33
Eslovenia	6,02	1,34
Islandia	7,99	1,38
AEB	5,43	1,5
Grezia	4,24	1,51
Zipre	7,36	1,56
Suitza	6,04	1,64
Finlandia	6,51	2,08
Suedia	7,47	2,16
Norvegia	7,62	2,32
Danimarka	8,28	2,48
Luxenburgo	4,06	

Iturria: Eustat eta Eurostat.

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILEKO GASTU LIKIDATUA

Urteak	€ arruntak milatan	EJko Gastu Lik. Osoaren %	BPGren %	2001=100 oinarria	Ikasleak		Ikasleko gastua	
					Araubide orokorra	Guztira (araubide orokorra eta berezia)	Araubide orokorra	Guztira (araubide orokorra eta berezia)
2001	1.589.487	27,5	3,8	100,0	404.413	431.902	3.930	3.680
2002	1.700.753	28,2	4	107,0	397.540	427.061	4.278	3.982
2003	1.819.806	28,5	3,8	114,5	395.486	426.530	4.601	4.267
2004	1.892.843	28,1	3,8	119,1	430.202	462.517	4.400	4.092
2005	2.022.057	27,7	3,5	127,2	402.341	435.579	5.026	4.642

Araubide berezietako ikasleen artean Arte eta Lanbidetakoak, Hizkuntzetakoak, Musikakoak, Dantzakoak eta Kirol Irakaskuntzetakoak sartzen dira.

Iturria: Geuk landuta Eustaten eta EAEko Kontu Orokorretan oinarrituz.

HEZKUNTZAN PROGRAMAKA LIKIDATURIKO GASTUA

	2002	2003	2004	2005	Banak.	02-03 %	03-04 %	04-05 %
Egitura eta laguntza	41.568	36.254	38.888,6	38.193,7	1,9	-12,8	7,3	-1,8
Haur eta Lehen Hezkuntza	555.067	616.141	648.955,5	698.872,4	34,6	11,0	5,3	7,7
Bigarren Hezkuntza, Konpents., LH	718.083	751.587	769.752,9	802.801,4	39,7	4,7	2,4	4,3
Unibertsitateko irakaskuntza	203.952	214.254	221.543,9	252.237,4	12,5	5,1	3,4	13,9
Araub. Ber. Irak. eta Held. Hez. Iraunk.	41.603	49.808	63.144,1	77.930,4	3,9	19,7	26,8	23,4
Sailaren aurrekontua			55.926,1	70.743,0	2,8			26,5
Ekonomia eta Gizarte Inbertsioen Plan Bereziaren kontura			7.218,0	7.187,5	0,4			-0,4
Irakasl. Hezkuntz. Berr. eta Hez. Iraunk.	23.023	24.764	25.927,1	24.720,6	1,2	7,6	4,7	-4,7
Hezkuntza sustapena	65.132	71.571	71.556,2	80.866,2	4,0	9,9	0,0	13,0
Kirol irakaskuntzak (Kulturaren kontura)	—	2.738	2.738,3	1.472,3	0,1	—	0,0	-46,2
Hezkuntza sistemaren euskalduntzea	37.509	35.283	33.138,3	33.727,0	1,7	-5,9	-6,1	1,8
Ikerketa	9.860	10.788	11.671,0	11.235,3	0,6	9,4	8,2	-3,7
Euskadi Informazioaren Gizarte Plan			5.527,3	8.495,2	0,4			53,7
GUZTIRA	1.700.753*	1.819.806**	1.892.843,2	2.022.056,7	100,0	7,0	4,0	6,8

* Euskadi Informazioaren Gizarte Planeko 5.520 mila euroak barne.

** Euskadi Informazioaren Gizarte Planeko 4.956 mila euroak barne.

*** Euskadi Informazioaren Gizarte Planeko 6.618 mila euroak barne
Iturria: EAEko Kontu Orokorrak.

EAEn %0,4koa izan da 2004an, BPGri dagokionez. EBko estatu guztien arteko txikiena. Estatuko batez beste-koa %1ekoa da.

Amaitzeko, eta Eusko Jaurlaritzak bekatarako eta ikasteko laguntzetarako (unibertsitatekoak ez diren mailetan) duen aurrekontuari dagokionez, esan behar da horiek hazi egin direla kopuruan eta kantitatean. Hala eta guztiz ere, laguntza bakoitzeko zenbatekoak behera egin du.

Horrela, eskolatzeko laguntzak¹⁴, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako datuen arabera, 129.730 eurokoak izan dira 2004/2005 ikasturtean (aurreko urtean baino 12.027 gehiago), eta horien zenbateko osoa 26.662,6 mila eurokoa izan da.

Hau da, laguntza bakoitzeko zenbatekoa 205,8 eurotik 205,5 eurora jaitsi da. Laguntzarik gehienak material didaktikorako eta jantokirako izan dira (hurrenez hurren, laguntza guztien %66,4 eta %29,3). Zenbatekoari dagokionez, laguntza horiek hartzen dute ia aurrekontu osoa (jantokia %55 eta material didaktikoa %33). Gainera, aurreko urteari dagokionez hazi egin diren laguntza baka-rrak dira.

Beka eta laguntza berezien barruan, bestalde, Haur Hezkuntzako nahiz Hezkuntza Bereziko ikasleei eta ustia-
pen akademiko bereziko ikasleei emandakoak dira, baita frantsesa, alemana eta ingelesa atzerria ikasi nahi duten ikasleei emandakoak ere (DOBHko eta DBHko 2. zikloko ikasleak).

¹⁴ Barruan sartzen dena: irakaskuntzarako laguntzak (ikaslerako irakaskuntza kuotaren gastuetan laguntzeko, hori bidezkoa denean), joan-eto-
rrietarako edo egoitzarako laguntzak, material didaktikoa eskuratzeko laguntzak, jantokirako laguntzak nahiz konpentsazioak (familiek seme-ala-
bak ikastearen ondorioz dituzten galera ekonomikoetatik konpentsatzeko laguntzak, baina Batxilergoko ikasketak eta goiko nahiz erdiko mailetak
heziketa zikloak egiten dituzten ikasleentzat bakarrik).

UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN MAILETAKO IKASLEAK ESKOLATZEKO LAGUNTZAK (ZENBATEKOEN ZUTABEAN EUROAK MILATAN)

	M. Didaktikoa		Irakaskuntza		J-etorria eta egoitza		Jantokia		Konpentsaz.		Guztira		Laguntz. zenbat. (euroak)
	Lag. kop.	Zenbat.	Lag. kop.	Zenbat.	Lag. kop.	Zenbat.	Lag. kop.	Zenbat.	Lag. kop.	Zenbat.	Lag. kop.	Zenbat.	
2002/03	62.606	6.362,6	2.745	998,6	2.124	587,3	31.043	10.904,9	1.391	1.788	99.909	20.641,3	206,6
2003/04	76.562	7.982,2	2.819	1.056,6	2.055	615,4	35.066	12.959,7	1.201	1.610,4	117.703	24.224,3	205,8
2004/05	86.083	8.879,1	2.582	1.036,7	2.017	618,3	37.976	14.664,3	1.072	1.464,0	129.730	26.662,6	205,5
Aldaketa	12,4	11,2	-8,4	-1,9	-1,8	0,5	8,3	13,2	-10,7	-9,1	10,2	10,1	

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

ATZERRIKO HIZKUNTZEN IKASTAROA EGITEKO PLAZA DEIALDIA, BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAT

	Kanada	AEB	Ingalater.	Irlanda	Frantzia	Alemania	Guztira		Plazako zenb. (€-ak)
	Plaza kop.	Plaza kop.	Plaza kop.	Plaza kop.	Plaza kop.	Plaza kop.	Plaza kop.	Zenbat.	
2002/2003	80	40	150	140	30	30	470	899.900	1.914,7
2003/2004	75	40	150	145	30	30	470	899.250	1.913,3
2004/2005			233	210	51	51	545	966.000	1.772,5
Aldaketa			55,3	44,8	70,0	70,0	16,0	7,4	

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Azken horiei dagokienez, plaza kopuru osoak gora egin du, 470etik 545era, eta zenbatekoa 899.250tik 966.000ra igaro da. Hala eta guztiz ere, plaza bakoitzeko

zenbatekoak behera egin du, eta 1.913,3 eurotik 1.772,5 eurora igaro da. Gehien eskatzen diren helmugak Ingalaterra eta Irlanda dira.

2

Produkzio egitura eta berrikuntza EAEn


2.1. Produkzio egitura

2.1.1. Enpresa Egitura eta Demografia

Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren datu gaurkotiek adierazitakoaren arabera, EAeko enpresa establezimenduen kopuruak (lantegiak, dendak, bulegoak,...)

%3,5eko hazkundea izan du 2005ean, aurreko urtean baino puntu eta erdiko hazkunde handiagoa, eta enpleguak %4,1eko hazkundea izan du, 2004an baino ia bi puntu eta erdi gehiago; horrela, batez besteko tamaina handitu eta hamarkada osoko zifrarik altuenera iritsi da.


ENPRESA KOPURUAREN BILAKAERA SEKTOREAREN ARABERA



Iturria: Eustat, "Jarduera Ekonomikoen Direktorioa".

Guztira 181.533 establezimendu daude, EAEko 164.086 enpresa aktibori dagozkionak (lehen sektorekoak kenduta), hau da, 2004an baino 6.121 establezimendu eta 5.377 enpresa gehiago. Egoitza EAEn mantendu duten enpresen ehunekoa 2004ko %89,4tik 2005eko %88,8ra jaitsi da, egoitza soziala Estatuko gainerako eskualdeetan dutenen hazkunde handiagoaren ondorioz (%9,7ko hazkundea).

EAEko ESTABLEZIMENDUETAKO ENPLEGUAREN BILAKAERA, TAMAINAREN ARABERA



Lurralde historikoen arabera, enpresa kopuruan hazkunderik handiena Araban egon da (%4,5eko hazkundea, eta Gipuzkoan %2,5ekoa eta Bizkaian %3,3koa), baina enpleguak gainerako lurraldeetan baino hazkunde txikiagoa izan du lurralde horretan (Arabian %2,5 eta Bizkaian nahiz Gipuzkoan %3,7).

Sektoreka, enpresa hazkunderik handienak enpresei emandako Zerbitzuetan (%8,4), Eraikuntzan (%4,7) eta Merkataritzan eta konponketan (%4,3) egon dira. Aldiz, industria sektoreko eta Ostalaritzako enpresek -%0,8ko beherakada izan dute, eta Zerbitzuen beste jarduerak batzuen barrukoek -%0,5eko beherakada; dena den, enpleguak gora egin du sektore guztietan, industrian izan ezik, bertan 2004ko mailak mantendu baitira; gainera, enpresei emandako Zerbitzuen adarrean hazkunde oso handia izan da (%12,8).

Establezimendu kopuruaren hazkundea, izan ere, 20.374 establezimenduren jarduerak hastearren ondoriozkoa da (aurreko urtean baino ia %40 gehiago), eta bertan 49.814 pertsonari eman zaie enplegua (%43ko hazkundea, 2004ko establezimenduei dagokienez); baina 14.253 establezimendu itxtearen ondoriozkoa ere (aurreko urtean baino %28 gehiago), eta horietan, 36.956 pertsonak galdu dute enplegua (2004an baino %30 gehiago). Horrela, sartzen eta irteten diren establezimenduen arteko enplegu saldo garbia 12.858 pertsonakoa da; 2005ean jardue-

ENPRESA KOPURUAREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA EAEN

	Enpresa kopurua					Enplegua (milatan)					Batez besteko enplegua				
	2003	2004	2005	03-04	04-05	2003	2004	2005	03-04	04-05	2003	2004	2005	03-04	04-05
Guztira	155.653	158.709	164.086	2,0	3,4	806,2	820,0	853,8	1,7	4,1	5,2	5,2	5,2	-0,2	0,7
Industria eta energia	14.658	14.579	14.461	-0,5	-0,8	226,1	225,1	225,1	-0,4	0,0	15,4	15,4	15,6	0,1	0,8
Eraikuntza	22.598	23.452	24.547	3,8	4,7	77,1	79,6	83,3	3,2	4,7	3,4	3,4	3,4	-0,5	0,0
Merkataritza eta konponketa	39.972	40.055	41.775	0,2	4,3	123,9	126,4	132,6	2,0	5,0	3,1	3,2	3,2	1,8	0,6
Ostalaritza	13.981	14.003	13.884	0,2	-0,8	41,6	42,3	44,5	1,6	5,4	3,0	3,0	3,2	1,5	6,3
Garraioa eta komunikazioak	13.855	13.791	13.909	-0,5	0,9	46,3	46,9	48,1	1,5	2,4	3,3	3,4	3,5	2,0	1,5
Finantza bitartekaritza	2.373	2.402	2.433	1,2	1,3	21,9	21,7	21,8	-0,8	0,3	9,2	9,1	9,0	-2,0	-1,0
Zerbitzuak enpresei	27.055	28.777	31.182	6,4	8,4	93,9	99,6	112,3	6,0	12,8	3,5	3,5	3,6	-0,3	4,1
Adm., Hezk., Osasuna eta G. Seg.	9.806	10.006	10.305	2,0	3,0	143,0	144,2	148,7	0,9	3,1	14,6	14,4	14,4	-1,1	0,1
Zerbitzuen beste jardura batzuk	11.355	11.644	11.590	2,5	-0,5	32,5	34,3	37,4	5,4	9,1	2,9	2,9	3,2	2,8	9,6
Pertsona fisikoa	96.931	97.585	99.435	0,7	1,9	134,4	136,0	138,2	1,2	1,6	1,4	1,4	1,4	0,5	-0,3
Sozietate anonimoa	9.620	9.395	9.380	-2,3	-0,2	271,2	269,3	278,1	-0,7	3,3	28,2	28,7	29,6	1,7	3,4
Sozietate mugatua	32.015	34.194	36.966	6,8	8,1	190,8	203,3	220,0	6,5	8,2	6,0	5,9	6,0	-0,2	0,1
Beste sozietate bat*	6.887	7.259	7.866	5,4	8,4	38,5	39,0	41,8	1,4	7,0	5,6	5,4	5,3	-3,8	-1,2
Ondasun komunitatea	7.810	7.837	7.978	0,3	1,8	19,4	19,3	19,2	-0,4	-0,3	2,5	2,5	2,4	-0,7	-2,0
Kooperatiba sozietatea	1.048	1.084	1.100	3,4	1,5	42,0	42,7	43,9	1,7	2,9	40,0	39,4	39,9	-1,7	1,4
Toki korporazioa	375	383	389	2,1	1,6	21,9	22,3	23,6	1,7	5,7	58,4	58,2	60,6	-0,4	4,1
Erak. Autonomoa, antzekoa, Erak. erlij.	910	914	913	0,4	-0,1	24,1	24,2	24,5	0,2	1,3	26,5	26,4	26,8	-0,2	1,4
Administrazio organoa	57	58	59	1,8	1,7	64,0	64,0	64,6	0,1	0,9	1122,4	1103,7	1094,8	-1,7	-0,8

(*)Erregular kolektiboa, Komandataria, Elkarte, Sozietate zibila eta zehaztu gabeko beste mota batzuk.
Iturria: Eustat, "Jardura Ekonomikoen Direktoria"

ENPLEGU HAZKUNDERAKO LAGUNTZA 2005EAN, SEKTOREAREN ETA ENPLEGU GERUZAREN ARABERA

	Hazk osoa	Ald. %	Enpl. hazkundera:			Contribución		
			sarrerak	daudenak	irteerak	sarrerak	daudenak	irteerak
Guztira	33.792	4,1	49.814	20.934	36.956	6,1	2,6	-4,5
Industria eta energia	-15	0,0	4.433	890	5.338	2,0	0,4	-2,4
Eraikuntza	3.749	4,7	8.765	1.611	6.627	11,0	2,0	-8,3
Merkataritza	6.267	5,0	9.998	1.378	5.109	7,9	1,1	-4,0
Ostalaritza eta garraioa	3.392	3,8	5.329	3.028	4.965	6,0	3,4	-5,6
Bankuak, aseguruak eta zerbitz.enpr.	12.787	10,5	11.877	9.515	8.605	9,8	7,8	-7,1
Zerbitzuetako beste jardura batzuk	7.612	4,3	9.412	4.512	6.312	5,3	2,5	-3,5
Enplegu geruza								
1-5	3.313	2,1	17.148	-794	13.041	11,0	-0,5	-8,4
6-9	2.306	2,6	6.561	231	4.486	7,3	0,3	-5,0
10-14	3.246	5,5	3.786	2.084	2.624	6,4	3,5	-4,5
15-19	-1.128	-2,3	3.088	-1.818	2.398	6,2	-3,7	-4,8
20-49	893	2,4	2.210	433	1.750	5,9	1,2	-4,7
50-99	8.403	7,1	6.435	6.087	4.119	5,4	5,1	-3,5
100-249	2.137	2,4	3.744	1.585	3.192	4,2	1,8	-3,6
250-499	6.382	6,6	4.509	4.954	3.081	4,7	5,1	-3,2
≥ 500	2.604	4,9	279	3.434	1.109	0,5	6,4	-2,1

Iturria: Eustat "DIRAE"

ra mantendu duten establezimenduetan enpleguak 20.934 landunetan egin du gora; hortaz, 33.792 lanpostu sortu dira. Establezimendu berrien batez besteko tamaina lehengoena baino txikiagoa da (2,44 eta 4,70 hurrenez hurren), eta irten direnena baino txikiagoa ere bai (establezimendu bakoitzeko 2,59 pertsona).

Establezimenduen errotaziorik handiena Bankuak, aseguruak eta enpresa zerbitzuak, Merkataritza eta konponketa eta Eraikuntza adarretan gertatu da; horiek guz-

tiek establezimenduen alta nahiz baxa guztien %68 eta enpleguaren %57 biltzen dituzte. Bestalde, industriako establezimenduen beherazko joerari eutsi diote (aurreko urtean baino -%0,8 handiagoa), baina enplegua mantendu eta batez besteko tamaina handitu egin da.

Jakina, formula juridikoari dagokionez, pertsona fisikoek sorturikoak errotazioaren %60ra iristen dira, eta, establezimendu kopuruari dagokionez, errotaziorik handienak tamainarik txikienekoak dituzte: alta eta baxa guztien

ENPRESAK SOLDATAPEKO KOPURUAREN ARABERA EAEn (2005)

	Enpresa kopurua				Banak. %	Estatuaren %	Aldaketaren %		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE			2003	2004	2005
Guztira	19.838	57.193	80.508	157.539	100,0	5,1	1,6	0,6	1,2
Soldatapeko barik	8.257	29.410	39.825	77.492	49,2	4,9	-2,3	-3,2	0,0
1-2 soldatapeko	6.585	17.210	24.695	48.490	30,8	5,7	6,8	6,0	3,5
3-5	2.255	4.824	7.280	14.359	9,1	4,6	4,3	3,0	1,0
6-9	1.072	2.353	3.589	7.014	4,5	4,8	5,6	3,7	-3,2
10-19	875	1.799	2.664	5.338	3,4	5,3	6,0	0,1	3,2
20-49	522	1.047	1.621	3.190	2,0	5,7	7,7	5,8	3,2
50-99	152	320	430	902	0,6	6,3	10,5	2,4	4,9
100-199	71	136	213	420	0,3	6,0	4,9	0,2	2,9
200-499	36	73	133	242	0,2	6,3	4,0	0,0	3,0
500-999	10	13	29	52	0,0	5,4	7,7	3,6	-10,3
1000-4999	3	8	26	37	0,0	5,9	18,5	15,6	0,0
4999 baino gehiago	0	0	3	3	0,0	3,6	-66,7	100,0	50,0

Iturria: EIN, "Enpresen Direktorio Nagusia".

ENPRESA KOPURUA SEKTORE EKONOMIKOAREN ARABERA, EAEn

	2003	2004	2005		Ald. % 03-04	Ald. % 04-05		
	Guztira	Guztira	Guztira	Soldatap. barik		Guztira	Soldatap. barik	Soldatap. ekin
GUZTIRA	154.703	155.666	157.539	77.492	80.047	0,6	1,2	0,0
Industria eta energia	15.336	15.077	14.747	3.406	11.341	-1,7	-2,2	-3,8
Eraikuntza	22.318	22.675	23.251	13.061	10.190	1,6	2,5	1,6
Merkataritza eta konponk.	40.285	39.629	39.525	18.469	21.056	-1,6	-0,3	-2,1
Ostalaritza	14.600	14.279	14.072	5.279	8.793	-2,2	-1,4	-4,5
Garraioa eta komunikazioak	13.881	13.601	13.413	9.296	4.117	-2,0	-1,4	-2,9
Bankuak, aseguruak eta zerbitzuak enpresei	28.255	29.721	31.314	18.115	13.199	5,2	5,4	4,0
Zerbitzuetako beste jardura batzuk	20.028	20.684	21.217	9.866	11.351	3,3	2,6	1,3

Iturria: EIN, "Enpresen Direktorio Nagusia".

%85, egon ere, 2 enplegu edo gutxiagoko establezimenduetan egon dira. Hala ere, aipagarria da 20-50 enplegu geruzak (enpleguak %6,6ko hazkunde), 100-250 enplegu geruzak (%6,2ko hazkunde) eta 500 enplegutik gorako geruzak (%7,6ko hazkunde) enplegua sortze-ari dagokionez urte honetan izandako dinamika, batez ere enpleguak mantendu egin diren establezimenduetan izandako hazkundearen eraginez, horrela urte honetan ikusitako batez besteko tamaina handiagoa baita.

Azkenik, enpresen batez besteko tamaina 5,2 pertsonakoa da (%0,7ko hazkunde); hala ere, tamainarik txikieneko enpresen kasuak kenduta (titularra pertsona fisiko eta enpresa bakoitzeko 1,4 pertsona), batez besteko tamaina 11,1 pertsonakoa da; bertan, Sozietate Anonimoen batez besteko langileria 29,6 langilekoa da

(%3,4ko hazkunde) eta Kooperatibena 39,9 pertsonakoa (%1,4ko hazkunde).


2.1.2. Nekazaritza eta Arrantza sektorea

EAEko lehen sektorean, gaur egun, BPGren %1 eta enpleguaren %3 baino ez dira biltzen; sektore horrek beharrezko joera nabaria dauka. Horrela, *Hiruhileko Kontu Ekonomikoetan*, merkatuko prezio BPGk (lehen sektorekoa) %11,5eko beherakada izan du 2004tik 2005era (kateaturiko bolumena¹); eta enpleguak %3,5eko beherakada izan du. Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuek (urte amaierakoak) %0,2ko hazkunde adierazten dute, eta bilakaera desberdina egon da nekazaritzako azpisektorearen (%1,3ko hazkunde) eta Itsasoko Araubide Beziaren artean (azken horretan %2,4ko beherakada).

¹ Indize kateatua indize konplexua da; bertan, 0 alditik 1 aldirako igarotzea zatikatzen da, hazkunde partzialak aintzat hartuta, eta horrela, erabilitako haztapenak aldagaien garrantzia adierazten dute, baina t-1 aldiko garrantzia eta ez 0 oinarri-urteko garrantzia; horrenbestez, kalkulua askoz ere zehatzagoa eta gaurkotuagoa da.

Bolumen kateatua indize kateatuen moneta-adierazpena da.

AMAIERAKO PRODUKZIOAREN ETA NEKAZARITZA ERRENTAREN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

(a) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Baso Ustiapena

Nekazaritzako azken produkzioaren balioak (504,2 milioi euro) %1,7ko hazkundera izan du 2005ean, prezioek nekazaritza azpisektorean izandako %5,9ko hazkunderaren eraginez (2004an %24,2); hala ere, aurreko urtean horren eragile nagusia produkzioaren hazkundera izan zen (orokorrean, labore guztietan, zerealetan izan ezik), baina prezioen beherakadekin, eta urte honetan, oster, eragile nagusia aldagai horien aurkako bilakaera izan da, eta gainera, laboreen arteko alde handiak egon dira.

Aldiz, abeltzaintza eta baso sektoreek aurten ere murriztapenak izan dituzte azken produkzioaren balioan (lehenengoak $-1,9$ eta bigarrenak $-5,5$), aurreko urteko arrazoi berberengatik; lehenengoaren kasuan, prezioen gorakadatxo egon da, baina produkzioaren beherakadarekin, eta bigarrenaren kasuan, produkzioak %7,7ko hazkundera izan du, baina prezioek beherakada handia izan dute ($-12,2$).

Nekazaritza produkzioen artean (orokorrean, 266,6 milioi euro, aurreko urtean baino 15 gehiago), aipagarria da mahastietan izandako hazkunde handia (balioak %27ko hazkundera, eta hortik 13 puntu prezioen hazkundeari dagokio —2004an %25eko beherakada izan ondoren—), eta produkzioa azpisektoreko %43koa da. Gainera, zerealetan, erremolatxan eta barazkietan hazkunde handiak egon dira, baina prezioen gorakadaren eraginez. Aldiz, pa-

tataren kasuan (aurreko urtean hazkunde handiak, produkzioan eta prezioetan), 2005ean beherakadak egon dira.

2005eko mahats-uztaren lehenengo kalkuluek diotenez, apur bat murriztu egin dira aurreko urteko emaitza bikainak, landaketa berriak produkzioan sartzearen ondorioz, etekinak urte erdiko lehortearen eraginez murriztu baitira, eta kalitatea hobetu egin da. 2005eko mahats-bilketan 87 milioi kilogramo mahats gorri bildu dira Arabako Errioxan, eta aurreko urtean baino ardo gehiago (%10,4 gehiago) merkaturatu da, 2004ko mahats-uzta handiaren ondorioz. Txakolinaren kanpaina ere bikaina izan da, batez ere produkzioan Bizkaian izandako hazkundearen eraginez, eta prezioek %4 inguruko hazkundera izan dute.

Abeltzaintza azpisektoreko azken produkzioaren balioak berriro ere behera egin du, $-1,9$ (2004an $-3,2$), eta 164,6 milioi eurokoa izan da, behi-esnearen produkzioak izandako beherakadaren eraginez (produktu hori sektoreko %42koa da), kuota txikiagoa egon baita, MAPA Uzteko Planaren eta arrautzen prezioen ondorioz, horiek gaintu egin baitituzte behi-okelatan egon diren hazkundeak (behien zentsuak -4 ko eta okela produkzioak -3 ko beherakada izan arren); azpisektoreko hiru produkzio nagusiak dira.

Gauza bera esan daiteke baso azpisektoreari buruz ere; bertan, produkzioaren balioak $-5,5$ eko beherakada

NEKAZARITZA MAGNITUDEAK (EUROAK MILIOITAN)

	2004	2005*	Aldak. % 2004-2005		
	Balioa	Balioa	Balioa	Produkzioa	Prezioak
NEKAZARITZAKO AZKEN PROD.	493,9	502,4	1,7	0,1	1,6
Nekazaritzako Azken Produkzioa	251,8	266,6	5,9	0,8	5,0
Zerealak	24,2	27,2	12,5	18,1	-4,8
Lekadunak	3,2	2,4	-25,7	-37,8	19,5
Patata	26,3	11,9	-54,6	-25,1	-39,4
Erremolatxa	10,6	12,2	16,0	14,8	1,1
Industriako beste batzuk	0,9	0,4	-50,7	-51,3	1,3
Barazkiak	59,5	63,5	6,7	-5,4	12,8
Frutak	14,9	12,7	-14,5	-19,8	6,6
Mahatsa	89,6	113,7	26,8	12,0	13,2
Beste batzuk	22,7	22,5	-0,8	-7,0	6,7
Abeltzaintzako Azken Produkzioa	167,8	164,6	-1,9	-3,5	1,6
Abereak/Behi-okela	37,8	38,4	1,5	-4,7	6,5
Ab./Ardiaren eta ahuntzaren okela	7,8	7,5	-4,5	-1,5	-3,1
Abereak/Txerri-okela	4,3	3,9	-9,3	-11,1	2,0
Behi-esnea	73,7	69,9	-5,1	-6,0	1,0
Arrautzak	23,6	22,5	-4,8	3,6	-8,1
Beste batzuk	20,5	22,3	8,8	1,4	7,2
Basoko Azken Produkzioa	61,4	58,0	-5,5	7,7	-12,2
Intsinis Pinuaren Zura	46,8	46,3	-1,1	14,6	-13,7
Beste batzuk	14,6	11,8	-19,4	-14,2	-6,0
Beste produkzio batzuk	12,9	13,2	2,4	0,0	2,4
BITARTEKO KONTSUMOAK	172,2	171,4	-0,4	-2,1	1,7
Dirulaguntzak - amortizazioak	26,8	26,9	1,2	-0,4	1,6
BEGmp	321,8	331,0	2,9	1,3	1,5
Nekazaritza Errenta (BEGA)	348,6	357,9	2,7	1,0	1,6

(*) Aurrerapena.

Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

MAHASTIZAINZA ETA ARDOGINTZA KANPAINA

	Mahats-produkzioa (T)			Ardo-produkzioa (HI)*		
	2004	2005	Ald. %	2004*	2005**	Ald. %
Araba	94.239	87.312	-7,4	618.468	683.046	10,4
Bizkaia	1.200	1.440	20,0	7.151	8.649	20,9
Gipuzkoa	2.000	2.000	0,0	11.000	14.500	31,8
EAE	97.439	90.752	-6,9	636.619	706.195	10,9

(*) Urtebeteko mahats-produkzioa merkaturaturiko ardo bihurtzen da hurrengo urtean.

Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

PESNE PRODUKZIOA EAEn (LITROAK MILATAN)

	Behia			Ardia			Ahuntza		
	2004	2005	Ald. %	2004	2005	Ald. %	2004	2005	Ald. %
Kontsumitua/eraldatua									
ustiapenean	9.685	9.027	-6,8	4.640	4.625	-0,3	280	311	11,2
Merkaturatua	229.226	215.551	-6,0	4.874	4.814	-1,2	45	45	0,0
Produkturiko esnea guztira	238.911	224.578	-6,0	9.515	9.439	-0,8	325	356	9,7

Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

izan du (2005ean 58 milioi euroko balioa), prezioen behe-rakada iraunkorraren ondorioz (2004an -%9 eta 2005ean -%12,2, Asiako eta Txileko zura sartzearen eraginez), eta mozketen bolumenak %7,7ko hazkundera izan du. Zazpi urteko beherakada iraunkorraren ostean, azpisektore ho-

netako balio korrontea 1998ko balioaren erdia baino txi-kiagoa da 2005ean.

Azkenik, EAEko nekazaritza errentak %2,7ko hazkun-de izenduna izan du (2004an %13,3), batik bat prezioen

MOZTEKO BAIMENAK. 2005*

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzk.	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzk.
GUZTIRA	857.134	72.842	424.099	360.193	1,4	9,3	-4,7	7,8
Koniferoak	738.747	70.284	313.534	354.929	4,9	9,7	-0,5	9,1
Intsinis pinua (basokoa)	948	913	0	35	-43,6	68,5		-93,3
Larizio pinua	14.320	189	6.855	7.276	-18,9	-79,1	8,1	-30,0
Intsinis pinua (pinus radiata)	687.634	68.290	285.547	333.797	9,4	9,8	0,7	18,0
Beste batzuk	35.845	892	21.132	13.821	-36,3	137,2	-13,4	-56,1
Hostozabalak	118.387	2.558	110.565	5.264	-16,2	-1,4	-14,8	-40,1
Makala	1.945	1.802	114	29	24,1	25,5	25,3	-27,5
Kerzineoak	1.921	596	501	824	-17,2	-35,6	36,5	-19,8
Eukalitua	110.079	0	108.840	1.239	-15,3		-15,4	-2,7
Beste batzuk	4.442	160	1.110	3.172	-40,0	-31,3	54,4	-50,8

(*) Arabako mendi publikoen baimenak falta dira, baita Bizkaiko 4. hiruilekokoak eta Arabako nahiz Bizkaiko mendi pribatuak ere (4. lauhilekoa).

Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nek. eta Arrantza Saila.

NEKAZARITZA ERRENTA ERRALAREN BILAKAERA

	2004			2005		
	EAE	ESTATUA	EB-25	EAE	ESTATUA	EB-25
Nekazar. azken produk.	8,0	1,5	2,0	-1,5	-8,6	-8,4
Nekazaritzako azken prod.	20,1	1,5	3,1	1,5	-12,0	-12,2
Abeltzaintzako azken prod.	-7,3	1,5	0,7	-6,0	-1,6	-2,6
Bitarteko kontsumoak	-1,1	3,5	2,5	-4,5	-3,3	-1,6
Dirulaguntzak	-2,3	-0,6	3,4	-3,1	-6,8	87,3
NEKAZARITZA ERRENTA (erreala)	14,2	-0,1	1,8	0,2	-12,7	-8,7

Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Eurostat.

hazkunderen ondorioz (%1,6); produkzioak %1eko hazkundera izan du eta 357,9 milioikoa izan da, 2000tik honako zifrarik handiena. Nekazaritzako azken produkzioaren hazkundera ez ezik, errentaren hazkunderako langarriak izan dira bai bitarteko kontsumoak ez haztea (gas-olioak %31tik gorako hazkundera izan arren) eta bai ustiapenerako guztizko dirulaguntzek %1eko hazkundera izatea (esnearen prima bikoiztu egin da). Europako dirulaguntzak nekazaritza errentaren %17koak dira EAEn, eta Estatuan %26,1ekoak, MAPAren datuen arabera.

Nekazaritza errentak azken bi urteotan izandako bilakaera positibo hori, bestalde, Estatuarekiko eta EB-15arekiko konparazio erreala egitean (inflazioa kenduta) ere ikusten da. Horrela, EAEko 2005eko Nekazaritza Errentak (baso sektorea aintzat hartu barik) %0,2ko hazkundera izan du, eta Estatuan eta EB-15ean -%12,7ko eta -%8,7ko beherakadak, hurrenez hurren (2004an -%10 eta -%0,9).


(b) Arrantza

Arrantza sektoreak %12ko hazkunde erreala izan zuen 2004an, eta, neurri batean, suspertu egin zen aurre-


ko urteetan izandako beherakadetatik; urte honetan bultzada hori apur bat mantendu eta %6ko hazkundera izan du, baina prezioek %7tik gorako beherakada izan dute (baxurako porturatzeetan -%21); beraz, urte honetan errenta galdu da. EAEko portuetan baxurako arrantzak porturaturiko harrapaketek %6,2ko hazkundera izan dute (2004ko %28,6 baino txikiagoa), baina balioa -%16an erori da (2004an %35,4ko hazkundera).

Arrantza sektorea EAEko balio erantsiaren %0,3koa izan da 2005ean (172,5 milioi euro, behin behineko datuen arabera), hau da, 1995ekoaren erdia eta 1980koaren bostena. EAEko arrantza sektoreak urte honetan izandako bilakaeraren ezaugarri nagusia prezioek izandako -%21eko beherakada izan da (baxurako porturatzeetan), 2001-2004 aldian %52ko hazkundera izan ondoren. Horrela, harrapaketen bolumenak %6,2ko hazkundera izan arren, porturaturiko arrantzaren balioak -%16ko beherakada izan du, aurreko urtean %35eko hazkundera izan ondoren.

EAEko arrantza sektorearen produkzio egiturak azken hamarkadako ibilbideari eutsi dio, itsasontzi kopuruaren (319) -%9,4ko beherakadarekin (iazko beherakadaren ia bikoitza, eta 33 itsasontzi gutxiago dira (baxurako 27 eta

EAEko ARRANTZA-ONTZIEN BILAKAERA


Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

EAEko ARRANTZA-ONTZIEN TRIPULATZAILE KOPURUAREN BILAKAERA



Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

alturako 6); tripulatzailen kopuruak ere $-8,2\%$ ko beherakada izan du, 274 langile gutxiago (214 baxuran eta 60 alturan), eta guztira 3.077 pertsona dira.

Baxurako flota Erregistro Gordinean 150 tona baino gutxiago duten ontziek osatzen dute; arrantzan kostalde-


tik hurbil egiten duten ontziak dira, kazeako ontziak (gehienbat berdela eta atunak harrapatzen dituztenak), baita inguraketa erabiltzen duten ontziak ere, eta horiek, batez ere, antxoak eta atunak hartzen dituzte (beita biziarekin). Flota horrek oraindik ere ontzi kopuru (243) eta tripulatzailen kopuru (1.728) handiena dauka (azken kasu ho-

PORTURATURIKO ARRANTZAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

PORTURATURIKO BAXURAKO HARRAPAKETA KANTITATEA ETA BALIOA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

rretan, 2004an baino -11% gutxiago). Alturako sektorean, beherakadek freskoko sektorean dute eragina (6 ontzi eta 58 tripulatzaille gutxiago), eta atun-ontzi izozkailuen kasuan aurreko urteko parametroak mantendu dira (23 ontzi eta 581 tripulatzaille), baita bakailao-ontzien kasuan ere (8 ontzi eta 204 tripulatzaille).

Baxurako arrantzan EAEko portuetan lorturiko harrapaketa guztien bolumena (Eusko Jaurlaritzako Nekazari-

tza eta Arrantza Sailak emandako datu bakarrak) 51.430 tonakoa eta 80,3 milioi eurokoa da.

Baxurako arrantza horretan prezioek $\%20$ ko hazkundea izan zuten 2003an, Prestigen hondamenaren ondorioz arrantza oso gutxi porturatu baitzen, eta 2004an $\%5,3$ ko hazkundea izan zuten batez beste; 2005ean $\%21$ eko beherakada izan zuten, batik bat hegaluzeak eta hegalaburrak izandako beherakaden ondorioz (-21% eta $-2,4\%$ hurrenez hurren). Hiru espezie horiek porturaturiko arrantzaren balioaren $\%56$ biltzen dute. Izan ere, urte honetan legatzaren eta antxoaren prezioek soilik egin dute gora ($\%4,2$ eta $\%44$, hurrenez hurren).

Kontuan hartu behar da sektoreko diru-sarrera iturri nagusienetariko bat (antxoaren harrapaketa: urtearen arabera, $\%20-30$) aurten itxi egin duela Europar Batasunak, jardueraren lehenengo asteetan ia harrapaketarik ez egotearen eta zientzialariek stockaren egoera txarra egiaztatzearen ondorioz. Hori dela eta, urte horretan ia ez da espezie horren harrapaketarik egon. "Hegaluzearen kanpainari" dagokionez, 2005ean 10.553 tona harrapatu ziren ($\%27,8$ ko hazkundea), baina prezioek beherakadatxoa izan dute (kiloa 2,8 €); izan, espezie horren eraginezko diru-sarrerek $\%24,7$ ko hazkundea izan dute eta, horrela, apur bat geldiarazi egin dute Sektoreko diru-sarrerek izandako beherakada. Azkenik, "berdelaren kanpaina" ere ona izan da; harrapaketek $\%47,2$ ko haz-

BAXURAKO ARRANTZA-ONTZIEK EAEN PORTURATURIKO ARRANTZA

	2003			2004			2005				Aldak. %, 2004-2005		
	K	B	P	K	B	P	K	B	%	P	K	B	P
Antxoa	2.781	13,1	4,7	6.620	26,2	4,0	165	0,9	1,2	5,7	-97,5	-96,4	44,7
Hegaburra	467	2,7	5,7	1.471	5,7	3,9	2.860	8,7	10,8	3,0	94,4	53,1	-21,2
Hegaluzea	6.558	19,2	2,9	8.261	23,7	2,9	10.553	29,6	36,8	2,8	27,8	24,7	-2,4
Txitxarroa	10.126	5,8	0,6	4.728	3,6	0,8	4.545	3,3	4,2	0,7	-3,9	-7,2	-3,5
Berdela	4.974	2,5	0,5	13.186	5,0	0,4	19.407	6,8	8,5	0,4	47,2	35,0	-8,3
Legatza*	3.257	13,5	4,2	3.661	14,9	4,1	3.413	14,5	18,1	4,2	-6,8	-2,9	4,2
Bisigua	2	0,0	13,9	5	0,1	22,4	4	0,1	0,1	19,2	-26,8	-37,3	-14,3
Gainerako espez.	9.462	13,9	1,5	10.475	16,4	1,6	10.483	16,4	20,4	1,6	0,1	0,0	-0,1
Guztira	37.627	70,7	1,9	48.407	95,7	2,0	51.430	80,3	100,0	1,6	6,2	-16,1	-21,0

K: kantitatea tonatan; B: balioa, €-ak milioitan; P: prezioa €-tan

(*) tarteko legatza eta merlenka barne.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

ARRANTZA KUOTAK, EUROPAKO BATZORDEAK ESPAINIARI ESLEITUTAKOAK (TONAK)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2000-04	2004-05	2005-06
Atlantikoko bakailaoa, I, II *	8.840	8.952	8.952	8.951	11.025	10.683	10.364	24,7	-3,1	-3,0
Bakailaoa	1.640	1.640	903	729	1.045	899	835	-36,3	-14,0	-7,1
Fletan beltza (NAFO)	9.593	10.964	10.964	11.512	5.482	5.218	5.080	-42,9	-4,8	-2,6
Galineta	3.183	2.068	3.713	2.240	2.259	3.326	3.133	-29,0	47,2	-5,8
Liba. VIII	2.800	2.240	2.240	2.240	1.800	1.440	1.440	-35,7	-20,0	0,0
Legatza VI,VII,XII,XIV	6.960	4.100	4.456	4.959	6.463	7.042	7.257	-7,1	9,0	3,1
Legatza VIIa,b,d,e	4.840	2.179	3.103	3.452	4.499	4.902	5.052	-7,0	9,0	3,1
Legatza VIIc,IX,X,COPACE	5.440	5.690	5.119	4.480	3.807	3.819	4.263	-30,0	0,3	11,6
Mihi-arraina	770	770	762	611	580	467	467	-24,7	-19,5	0,0
Zapoa	7.820	6.950	5.610	4.578	3.690	3.662	3.917	-52,8	-0,8	7,0
Oilarra VIIa,b,d,e	1.150	1.000	858	921	1.163	1.238	1.176	1,1	6,4	-5,0
Oilarra VIIc,IX,X,COPACE	4.620	4.620	3.692	2.215	1.233	1.233	1.171	-73,3	0,0	-5,0
Oilarra gainerakoa	5.930	5.000	4.500	4.796	5.839	6.106	5.817	-1,5	4,6	-4,7
Platuxa leun europarra	120	95	93	75	75	75	75	-37,5	0,0	0,0
Zigala	2.695	2.395	1.828	1.593	1.582	1.676	1.830	-41,3	5,9	9,2
Antxoa VIII	14.400	29.700	29.700	29.700	29.700	27.000	4.500	106,3	-9,1	-83,3
Antxoa IX,X,COPACE	4.780	4.780	3.826	3.826	3.826	3.826	3.826	-20,0	0,0	0,0
Atun gorria (Atl. E.-Mediterr.)	6.365	6.365	6.365	6.384	6.317	6.277	6.266	-0,8	-0,6	-0,2
Ezpata-arraina	10.046	10.046	10.046	11.229	11.171	13.137	10.988	11,2	17,6	-16,4
Bakalada	74.000	79.910	44.166	44.166	86.203	195.030	91.328	16,5	126,2	-53,2
Sardinazarra	120	80	80	41	82	89	70	-31,7	8,5	-21,3
Txitxarroa	61.660	61.660	47.095	44.062	44.249	44.382	44.263	-28,2	0,3	-0,3
Berdela	32.330	33.140	33.894	28.866	26.645	20.520	21.594	-17,6	-23,0	5,2
GUZTIRA	270.102	284.344	231.965	221.626	258.735	362.047	234.712	-4,2	39,9	-35,2

Iturria: Europako Batzordea.

kundea izan dute (19.407), eta horrela, diru-sarrerak %35ean hazi dira.

Azkenik, Europar Batasuneko Arrantza ministroek 2006rako arrantza kuota berriak finkatu zituzten, herri guztien aldeko botoarekin eta Suediaren abstentzioarekin onetsita. Harrapaketa onargarrien guztizkoak (HOG), urte horretarakoak eta Estatu osorakoak, -%35ean murriztu ziren; hala ere, aintzat hartu behar da, lehenengo eta behin, 2005ean %40ko hazkundea izan zutela, eta bigarrenez, murriztapen horren ia %100 bakaladan eta antxoan (-%53 eta -%73, hurrenez hurren) izandako beherakaden eraginezkoak direla; berdelean, aldiz, %5,2ko

hazkundea egon da (baina 2005ean %23ko beherakada egon da eta gutxiengo historikoetan gaude), eta legatzeko %5,1eko hazkundea. Bizkaiko Golkoko antxoaren kasuan, lorturiko konpromisoaren barruan, martxoaren 1etik aurrera antxoaren debekualdia altxatzea sartzen da, Frantziak eskaturikoaren arabera, 5.000 tonako guztizko onargarriarekin (4.500 Espainiarako eta 500 Frantziarako), eta 2005ean 30.000 tona izan ziren.

2.1.3. Industria

Industria sektoreak 2005ean izandako bilakaeran, urtean zeharreko suspertze argia ikusten da, batik bat

2004ko amaieran izandako moteltze gogorraren ostean; horrela, hazkunde tasak indartzen joan dira urteak aurre-
ra egin ahala.

Hiruhileko Kontu Ekonomikoen industria BPGk %4,4ko hazkundea izan du 2005ean, aurreko urtean baino 1,5 puntu gehiago, eta 15.028 milioi eurokoa izan da.


Hala eta guztiz ere, sektoreko enpleguaren zifrek $-0,9\%$ ko beherakada adierazten dute urteko batez beste-
koan (2.191 lanpostu gutxiago); 2004an $0,3\%$ ko hazkun-
dea izan zuten, eta horrela, urte honetan aplikaturiko kon-
tabilitate metodo berarekin, industria enpleguak azken
hamarkadan izandako lehenengo beherakada da. Gaine-
ra, beherakada tasa horiek handiagoak dira hiruhilekotik
hiruhilekora, eta urtea -1% arekin amaitu da (urterik ur-
terako tasa). *Biztanleria jardueraren arabera* (BJA) deri-
tzen inkestan ere industria enpleguaren galera ikusi da,
aurreko iturrian jasotakoa baino handiagoa; hain zuzen
ere, urteko batez besteko galera 3.550 pertsonakoa izan
da (%85 emakumeak) eta horrek $-1,4\%$ ko tasa adieraz-
ten du (2004an $-0,9\%$).

Beraz, sektoreko produktibitateak urteko $5,8\%$ ko ba-
tez besteko hazkundea izan du, bosturteko osoko hazkun-
derik handiena, eta azken hiruhilekoaren amaierako tasa
 $6,6\%$ koa izan da, hamarkada osoko tasarik altuena.

Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) urteko batez bes-
teko 4% ko hazkundea izan du EAE osoan, 2004an baino
puntu bat gehiago. Datuek hobekuntza oso handia adieraz-
ten dute Bizkaian, bertako IPIk $4,4\%$ ko hazkundea izan bai-
tu (2004an baino 1,6 puntu gehiago); Gipuzkoan ere haz-
kunde handia adierazten dute, bertako indizeak $3,9\%$ ko
hazkundea izan baitu ((aurreko urtean baino 0,8 puntu
gehiago), eta Araban hazkunde txikiagoa izan da, batez
besteko $3,6\%$ koa, baina aintzat hartu behar da 2004an haz-
kunde tasa oso altuak egon zirela bertan (batez beste
 $5,5\%$). EAEn indize horren hazkunde handiagoa da Esta-
tuan eta EBn baino. Industria Produkzioaren Indizea $0,1$
hazi da Estatuan eta $0,9$ EAEn, EINen datuen arabera; EB-
25ean, berriz, urteko batez besteko hazkundea $0,6\%$ koa
izan da (EB-15ean $0,2\%$), eta bertan ere goranzko joera
ikusten da, Eurostatek emandako datuen arabera.

Urte honetan, hobekuntza ekipo ondasunek sustatu
dute, horien hazkunde tasa bikoiztu egin baita (2004ko
 $4,6\%$ tik 2005eko $6,2\%$ ra). Energiaren tasak oraindik
handiagoak dira ($6,5\%$), baina hori 2004ko tasaren erdia
da. Bestalde, bitarte ondasunak hazkunde nahiko mode-
ratuetan mantendu dira ($0,4\%$: 1,7 puntu gutxiago aurre-
ko urtean baino). Azkenik, kontsumo ondasunek, aurreko
urtean $-0,5\%$ ko beherakada izan ondoren, urte honetan
tasa hobea lortu dute ($-0,2\%$). Datuek aldeak adierazten
dituzte kontsumo iraunkorreko eta ez-iraunkorreko onda-

BEGREN BILAKAERA INDUSTRIA ADAR NAGUSIETAN



Iturria: Eustat, "Industria Kontuak".

sunen artean; lehenengoek %1,5eko beherakada izan dute eta bigarrenek %0,4ko hazkundea.

IPI gordinaren datu sektorialek nolabaiteko bizkortzea adierazten dute, 2004ari dagokionez, EAEko hiru industria sektore nagusietan: metalurgia, makineria eta garraioko materiala. Metalurgia sektorearen indizeak %1,5eko hazkundea izan du, 2004an baino sei hamarren gutxiago. Makineria sektoreak %3,2ko hazkundea izan du 2005ean, aurreko urtekoaren ia erdia, eta garraioko materialaren sektoreak urteko batez besteko %3,8ko hazkundea izan du, 2004an baino 1,4 puntu gutxiago.

Gainerako sektoreetan aipagarriak dira energia elektrikoaren, gasaren nahiz uraren sektoreak eta material elek-

trikoaren sektoreak izandako tasa handiak (%11 eta %10,3 hurrenez hurren). Gainerako sektoreetan, indizean beherakadak egon dira. Horrela, petrolioaren fintzearen sektorean 2003ko %22tik 2004ko %7ra eta 2005eko -%5,9ko tasa negatiboetara igaro da. Halaber, ehungintzan nahiz jantzigintzan (-%10,2) eta larrugintzan nahiz zapatagintzan (-%14,5) ere emaitza negatiboak ikusten dira, baita metalzkoak diren nahiz ez diren mineralen, elikaduraren, zura- ren, metalzkoak ez den industriaren eta beste manufaktura batzuen sektoreetan ere (tasa txikiagoak).


Industria ondasunen prezioei dagokionez, 2004an %4,3ko hazkundea izan zuten eta 2005ean batez besteko %5,3ko hazkundea (Eustaten Industria Prezioen Indizeko

IPIK LURRALDEAREN ETA ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERA IZANDAKO BILAKAERA (URTE BATETIK BESTERAKO ALDAKETAREN TASA)

	Tasak urteen arabera				Tasak datu gordinekin						
	EAE*	Araba*	Gipuzkoa*	Bizkaia*	EAE	Energia	Bitarteko ond.	Ekipoko ond.	Kontsumoko ond.		
									Guztira	Iraunkorra	Ez iraunk.
2002	-1,2	1,3	-2,5	-1,1	-1,0	-2,9	0,2	-4,4	2,8	3,5	2,4
2003	2,0	2,8	2,2	1,5	2,1	14,2	1,0	1,4	-0,6	-4,5	1,4
2004	3,0	5,5	2,0	2,6	3,7	16,6	2,1	4,6	-0,5	-2,9	0,6
2005**	4,0	3,6	3,9	4,4	2,6	6,5	0,4	6,2	-0,2	-1,5	0,4

(*) Tasa urteen arabera. (**) behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat "IPI".

IPIREN BILAKAERA SEKTOREKA



Iturria: Geuk landuta Eustaten ("IPI") datuetan oinarrituz.

IPI JARDUERA SEKTOREEN ARABERA
(URTE B. BESTERAKO HAZKUNDEA)

	2003	2004	2005*
4. Met. diren eta ez diren mineralak	6,0	-11,8	-3,5
5. Elikadura industria	5,7	-0,6	-0,2
6. Ehungintza eta jantzigintza	-1,3	-3,0	-10,2
7. Larrugintza eta zapatagintza	-22,6	-14,0	-14,5
8. Zurgintza	1,1	0,1	-3,7
9. Papera, edizioa eta grafikoak	-3,5	1,9	5,8
10. Petrolioaren fintzea	22,2	7,0	-5,9
11. Industria kimikoa	3,0	-0,5	0,5
12. Kautxua eta plastikoa	6,0	5,2	-0,0
13. Metalarena ez den industria	-2,1	-10,4	-2,9
14. Metalurgia eta metalezko gaiak	1,2	2,1	1,5
15. Makineria	0,5	6,2	3,2
16. Material elektrikoa	-2,1	5,2	10,3
17. Garraioko materiala	0,0	5,2	3,8
18. Beste manufaktura batzuk	-3,6	-6,8	-0,3
19. Energia elektrikoa, gasa eta ura	11,2	20,7	11,1

(*) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat "IPI".

datuak), batez ere energia osagarriaren eraginez (2004an %5,5eko hazkundea eta 2005ean %17koa); hala ere, erritmoa moteltzeko ibilbidea ikusten da, eta abenduan urterik urterako tasa %4,3koa izan da (osagai guztietan —energia izan ezik— %2tik beherakakoa). Bitarteko ondasunen prezioaren batez besteko hazkunde tasa %5,2koa izan da; kontsumoko ondasunek %1,7ko hazkundea izan dute, eta ekipoko ondasunen prezioek %1,8ko gorakada izan dute.

Hiruhileko Kontu Ekonomikoen sektoreko egiturazko datuek adierazten dutenez, industria sektoreak EAEko 2005eko balio erantsi gordinaren %28,3ko ekarpena egin du, 2004an baino hiru hamarren gutxiago eta 2000n baino hiru puntu gutxiago. Enpleguaren %26,1 da (2004an baino zazpi hamarren gutxiago eta 2000n baino 1,7 puntu gutxiago); gainera, EAEko ondasunen eta zerbitzuen esportazioen %85 egin ditu, gutxi gorabehera, eta ehunekoa %93koa da munduko gainerako eskualdeetara egindakoak ere aintzat hartuz gero (batez beste, industriak bere produkzioaren %58 esportatzen du, eta makinerian, garraioko materialean, industria kimikoan, kautxuan nahiz plastikoen edo ehungintzan eta jantzigintzan ehunekoa %70 ingurukoa da).

2004ko azken Industria Kontuek (informaziodun azken urtea) adierazitakoaren arabera, urte horretako sektorerik aktiboenak, balio erantsiaren hazkundea aintzat hartuta, honako hauek izan dira: Petrolioaren fintzea (%105,8ko hazkundea), Energia elektrikoa, gasa eta ura (%22,2), Elikadura (%18,6) eta Metalurgia (%12,2). Ondoren adierazitakoek ere hazkunde positiboak izan dituzte: Ehungintza eta jantzigintza (%7,3), Kautxua eta plastikoa (%6,6), Material elektrikoa (%5,6), Makineria (%4,2), Garraioko materiala (%3,3) eta Paperaren edizioa (%1,2). Hala eta guztiz ere, sektore batzuek beherakadak izan dituzte balio erantsi korrontean; esate baterako: Metalezkoa ez den

INDUSTRIA SEKTOREAREN MAGNITUDEAK SEKTOREKA

	2004ko banaketa (Industria = 100)							Urteroko aldak. %					
	BEG	Enpl.	Inberts.	BEG / enpl.	Emaizta / enpl.*	Inberts. / enpl.	Emaizta / salmen.*	BEG		Enplegua		Inbertsioa	
	02-03	03-04	02-03	03-04	02-03	03-04	02-03	02-03	03-04	02-03	03-04	02-03	03-04
INDUSTRIA GUZT.	100	100	100	100	100	100	100	2,8	9,1	1,2	0,9	-15,4	-7,4
4. Met. diren eta ez diren miner.	0,9	0,4	0,8	248	628	212	404	-12,7	-1,0	2,7	3,9	138,5	12,1
5. Elikadura industria	6,0	6,5	9,8	93	135	152	118	5,9	18,6	1,4	1,0	-10,3	76,5
6. Ehungintza eta jantzigintza	0,7	1,4	0,5	47	55	32	134	-16,7	7,3	-3,5	-1,8	65,0	-15,7
7. Larrugintza eta zapatagintza	0,1	0,2	0,0	50	30	6	54	-15,6	-2,8	-2,7	-10,7	-34,1	-70,4
8. Zurgintza	1,6	2,6	1,7	61	43	67	75	-6,3	-2,9	-1,5	-1,4	-54,1	49,6
9. Papera, edizioa eta grafikoak	5,1	5,8	7,1	88	102	122	138	-1,6	1,2	4,4	-1,0	-57,8	64,7
10. Petrolioaren fintzea	2,5	0,3	1,6	717	1.886	473	84	36,1	105,8	0,8	9,8	-16,2	167,2
11. Industria kimikoa	3,6	2,4	4,0	150	238	166	140	5,6	-1,3	-2,7	-2,6	-27,4	18,2
12. Kautxua eta plastikoa	6,9	7,3	5,6	94	85	76	108	3,2	6,6	2,1	1,7	-4,0	12,8
13. Metalezkoa ez den industria	3,6	3,1	3,6	114	153	114	168	8,0	-5,4	-2,6	1,1	23,0	-8,3
14. Metalurgia eta metalezko artikulua	30,9	34,5	26,9	90	74	78	83	0,4	12,2	1,6	1,7	-10,0	-1,7
15. Makineria	11,6	13,2	7,8	88	59	59	70	0,7	4,2	0,4	0,4	-27,4	-0,9
16. Material elektrikoa	6,3	7,4	3,3	86	90	44	128	3,3	5,6	-1,5	0,4	-36,1	3,1
17. Garraioko materiala	8,8	8,6	8,7	103	64	102	58	8,8	3,3	4,7	0,6	-13,8	-35,1
18. Beste manufak. indust. batz.	3,2	4,8	1,6	68	59	33	101	2,0	-1,7	2,3	0,8	-39,1	28,3
19. Energia elektrikoa, gasa, ura	8,3	1,5	17,0	537	608	1.108	166	9,0	22,2	-5,7	5,8	-2,4	-42,8

(*) Zergen ostean.
Iturria: Eustat, "Kontu Ekonomikoak" eta "Industria Kontuak".

INDUSTRIA BILAKAERA, EDUKI TEKNOLOGIKOAREN ARABERA (2002-2003)

	Langileria		Faktoreen kostuaren BEG		Salmenta garbiak		Itxurazko produktibitatea	
	2002-03	2003%	2002-03	2003%	2002-03	2003%	2002-03	2003%
Guztira	1,2	100,0	2,8	100,0	3,2	100,0	1,6	100,0
Maila teknolog. altua eta ertaina altua	0,9	30,7	3,6	31,1	2,4	30,2	2,6	101,3
Maila teknologiko altua	-2,3	4,5	1,2	4,3	-0,4	3,5	3,5	96,0
Maila teknologiko ertaina altua	1,5	26,2	4,0	26,7	2,7	26,7	2,5	102,2
Maila teknolog. baxua eta ertaina altua	1,4	67,5	2,0	60,6	3,5	63,8	0,5	89,7
Maila teknologiko ertaina baxua	1,3	46,1	2,8	43,4	4,8	46,7	1,4	94,3
Maila teknologiko baxua	1,7	21,4	0,1	17,1	0,1	17,0	-1,5	80,0

Iturria: Eustat. "Industria Estatistika".

INDUSTRIA BILAKAERA, EDUKI TEKNOLOGIKOAREN ARABERA (1995-2002)

	Langileria	Faktoreen kost. BEG	Salmenta garbiak	Ageriko produktibitatea
	1995-2002	1995-2002	1995-2002	1995-2002
INDUSTRIA GUZTIRA	26,9	54,7	65,1	22,0
Maila tekn. altua eta ertain altua	31,1	67,2	83,7	27,5
Altua	71,4	115,2	189,7	25,5
Ertaina altua	28,2	63,8	78,0	27,8
Maila tekn. baxua eta ertain baxua	25,9	51,0	57,6	19,9
Ertain baxua	25,3	49,3	56,9	19,1
Baxua	27,3	55,8	59,6	22,4

Iturria: Eustat.

EAEko SEKTORE SIDEROMETALURGIKOAREN MAGNITUDEAK

	Enpresak (2005)	Enplegua (2004)	indust. %	BEG (€ milio.-04)	indust. %	Esportaz. (€ m.-05)	Esport. guzt. %	Inportazio. (€ m.-05)	Inport. guzt. %
Metalurgia eta metalezko gaiak	4.556	86.678	34,5	4.507	30,9	3.720	26,2	3.461	23,9
Metalurgia	283	23.474	9,3	1.714	11,7	2.530	17,8	2.858	19,7
Siderurgia	106	12.589	5,0	1.166	8,0	2.101	14,8	2.114	14,6
Burdinarena ez den metalurgia	27	2.226	0,9	155	1,1	428	3,0	744	5,1
Galdaketak	150	8.659	3,4	392	2,7				
Metalezko gaiak	4.273	63.204	25,2	2.794	19,2	1.191	8,4	603	4,2
Metalezko eraikuntza	1.121	15.299	6,1	643	4,4	178	1,2	114	0,8
Forja eta estanpazioa	318	8.859	3,5	429	2,9				
Injinerutza mekanikoa	1.969	18.039	7,2	744	5,1				
Metalezko gaiak	865	21.007	8,4	979	6,7	1.013	7,1	489	3,4

Iturria: Eustat, "Industria Kontuak", "DIRAE", "Kanpoko Merkataritza".

industria (-%1), Larrugintza eta zapatagintza (-%2,8 BEGen, baina -%10,7 enpleguan), Zuraren industria (-%2,9), Industria kimikoa (-%1,3 BEGen eta -%2,6 enpleguan) eta Beste manufaktura batzuk (-%1,7). Horrela, metalurgiaren bilakaera bikainari eta makineriaren nahiz garraioko materialaren bilakaera egokiari esker (bi adar horiek, elkarren artean, industria BEGen %50 eta enpleguaren %56), sektoreko balio erantsi osoaren hazkunde izendunaren tasa %9,1ekoa izan da 2004an.

Hala eta guztiz ere, inbertsioaren bilakaera -%7,4ko tasa negatiboetan mantendu da 2004an (aurreko urteko

beherakadaren erdia), aldagai horrek lehen aipaturiko hiru sektoreetan izandako beherakaden ondorioz (batez ere, garraioko materialean, -%35,1ekin, eta energia elektrikoan, -%42,8rekin). Lurraldeka, 2004an industria BEGen hazkunderik handiena Araban egon da (%15,2), eta Bizkaia (%8,2) eta Gipuzkoa (%6,8) sektoreko batez bestekotik behera ibili dira.

Eduki teknologikoari dagokionez, 2003an beherakada erlatiboa egon da eduki altuko eta ertain altuko sektoreetan (enpleguaren eta BEGen %30), eduki baxukoei eta ertain baxukoei dagokienez, bai langilerian eta bai balio

erantsian nahiz salmentetan. Izan ere, lanak eduki teknologikorik handieneko sektoreetan izandako ageriko produktibitatearen hazkundera txikieneko sektoreetan izandakoaren erdia da, eta maila, berriz, azken horien batez bestekoa baino %8 handiagoa da soilik.

(a) Metalurgia eta metalezko gaiak

Metalurgia EAEko industria adarrik garrantzitsuenak da, sorturiko enpleguari eta balio erantsiari dagokionez (2004an 4.507 milioi euroko balio erantsi gordina, sektoreko %30 baino gehiago, eta ia 87.000 enplegu); gainera, gure esportazioen balioaren laurdena baino gehiago bertan sortzen da. Adar horren barruan era askotako jarduerak sartzen dira: siderurgia eta galdaketa, metalezko erakuntza, forjaketa, injinerutza mekanikoa, etab.

Siderurgian altzairua egiten da, burdinaren mineralean oinarrituz; presentzia oso handia dauka EAEn (Estatu osoko produkzioaren %50), batez ere produktu luzeak, altzairu herdoilgaitza eta altzairu bereziak, txatarrean oinarrituz lortzen direnak (batik bat Alemaniatik eta Frantziatik inportaturiko txatarra; sortzen den altzairua birziklatua da %75ean, eta erabili ostean altzairuaren %90 birziklatu egiten da).

Azken urteotan inbertsio handiak egin dira instalazioetan eta handitzeetan, eta gauza berriak eskuratu dira nazioarteko merkatuetan lehiakortasuna handitzeko. Horrela, aipagarriak dira Acería Compacta de Bizkaia (ACB), Aceralia sozietate siderurgikoaren filiala, altzairu berezien sektorean; Sidenor eta GSB enpresak (Grupo Siderúrgico Vasco, Acerías y Forjas de Azcoitia —Afora— enpresaren jabetzakoa, eta horrek bat egin du Egaña korporazioarekin,

Estatuko automobilgintza sektore laguntzaileko laugarren sozietatea sortzeko, CIE Automotive); altzairu herdoilgaitzen merkatuan Olarra enpresa (munduko lehenengo hamar fabrikatzaileen artean eta Europako lehenengo bosten artean); hodietan Tubacex enpresa (soldadurarik gabeko altzairu herdoilgaitzeko hodian munduko bigarren fabrikatzaile nagusia) eta Tubos Reunidos enpresa. Aipagarria da Europako Arcelor sozietatea: 2002an sortua, Aeralia, Frantziako Usinor eta Luxenburgoko Arbed enpresak bat eginda, eta hori garai hartan munduko enpresarik handiena zen sektorean (gero, Mittal Steel enpresak lehenengo postua lortu zuen, eskuratzeen bitartez).

Espainiako altzairu produkzioak, 2005ean, 17,8 milioi tonako gehieneko historikoa lortu du, 2004an baino %1,1 gehiago (azken urte horretan %7,8ko hazkundera). 1996an amaitutzat jo zen siderurgiaren birmoldaketa, eta urte horretatik hona produkzioa ia %50ean hazi da. Kontuan hartu behar da altzairuaren mundu-produkzioak ere errekorrak hautsi dituela urte horretan (1.500 milioi tona baino gehiago); gainera, Txinako produkzioak %20tik gorako hazkunde erritmoa dauka 2000tik (2005ean %25, 350 milioi tonarekin), eta mundu osoaren herena da orain. Aldiz, produktu siderurgikoaren ageriko kontsumoak %1eko beherakada izan du eta 20,9 milioi tonakoa da.

Gainera, metalurgiaren kanpoko merkataritzak nekez berdintzeko moduko hazkunde tasak ditu azken bi urte hauetan: esportazioak %26ko hazkundera izan du 2004an eta %15ekoa 2005ean, eta inportazioaren tasak %37,5ekoa eta %5,3koa dira, hurrenez hurren; horrela, azken urte honetako merkataritza defizita 329 milioi eu-

EAEko SEKTORE SIDEROMETALURGIKOKO ENPRESA NAGUSIAK

Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
ACERIALIA (ARCELOR) ACERIA COMPACTA DE BIZKAIA ACEROS INOXIDABLES OLARRA NERVACERO SIDENOR -Basauri	GSB ACERO ACERIALIA REDONDO ZUMARRAGA ACERIALIA PERFILES DE BERGARA ACERIALIA REDONDOS AZPEITIA CIE AUTOMOTIVE AZKOITIA	TUBACEX TUBOS INOXIDABLES TUBOS REUNIDOS SIDENOR -Vitoria (ARCELOR)

ALTZAIRUAREN ITXURAZKO PRODUKZIOA ETA KONTSUMOA ESPAINIAN (TONAK MILATAN)

	Produkzioa	Kontsumoa	Inportazioa	Esportazioa	Saldoa
2001	16.504	18.931	9.975	5.865	-4.110
2002	16.408	19.690	10.402	6.244	-4.158
2003	16.407	20.624	12.090	6.358	-5.731
2004	17.621	21.118	11.993	6.436	-5.558
2005	17.826	20.908	11.302	6.573	-4.729

Iturria: Unesid.

**MAKINERIA SEKTOREKO ENPRESA
NAGUSIAK EAEN**

MAKINA-ERREMINTA	
ONA ELECTRO EROSION S.A.	BIZKAIA
ZAYER S.A.	ARABA
DANOBAT S.COOP.LTDA.	GIPUZKOA
ETXE-TAR S.A.	GIPUZKOA
FAGOR ARRASATE S.COOP.LTDA.	GIPUZKOA
INDUSTRIAS ANAYAK S.A.	GIPUZKOA
SORALUCE S.COOP.LTDA.	GIPUZKOA
URBANO CONDE S.A. (KONDIA)	GIPUZKOA
ATERA	GIPUZKOA
DOIMAK	GIPUZKOA
GORATU	GIPUZKOA
IBARMIA	GIPUZKOA
FAGOR AUTOMATION	GIPUZKOA
JUARISTI	GIPUZKOA
ETXE-TRESNA ELEKTRIKOAK	
DAEWOO	ARABA
UFESA (BOSCH-SIEMENS)	ARABA
EDESA SOCIEDAD COOPERATIVA	BIZKAIA
FAGOR ELECTRODOMESTICOS	GIPUZKOA
JOSE ORMAECHEA S.A.-SOLAC	GIPUZKOA
MAYC S.A. (CANDY)	GIPUZKOA
MOULINEX ESPAÑA S.A.	GIPUZKOA

rokoa da. Hazkunde horiek, izan ere, produktu metalurgikoaren prezioen suspertze orokorraren eraginezkoak dira, bai eskari handiagoa egon delako eta bai lehengaien prezioak gora egin duelako. Esportaziorik gehienak EBko estatuetara egin dira (lehenengo bost estatuek esportazioaren %60 bildu dute, eta aipagarriak dira Frantzia eta Portugal), baina baita Turkiara, Amerikako Estatu Batuetara eta Marokora ere.

Bestalde, Euskadiko metalen galdaketak Espainiako estatuko produkzioaren %50 baino gehiago biltzen du (150 enpresa), baina adarreko BEGen %9 eta enpleguaren %10 baino ez du biltzen; produkzioa, batez ere, automobilgintzara nahiz industria ibilgailuetara eta makina-erremintara bideratzen da.

(b) Makineria

Makineriaren adarrean EAEko industria sektoreko industria BEGen ia %12 eta enpleguaren %13 (33.000 enplegu) biltzen dira, baita esportazio guztien %17 ere; bertako hiru azpisektoreek (*Makina-erreminta*, *Etxeko tresnak* eta *Beste makineria bat* —motorrak, turbinak, transmisioak edo igogailuak, baita moldeak edo arma arinak ere—) tradizio eta presentzia handia dute nazioarteko merkatuetan.

Izan ere, makina-erremintan Estatuko produkzioaren %78 edo esportazioaren %82 EAEkoa da; bertan, gainera, Estatuak hirugarren postua dauka Europar Batasuneko estatuen artean, makina-erremintaren produkzioan eta esportazioan, eta gainera, munduko bederatzigarren postuan dago; produkzio osoaren %58 esportatzen du 120 estatura (batez ere, Alemania, Frantzia, Mexiko, Italia, Portugal eta Amerikako Estatu Batuak).

Estatuaren barruan, makina-erremintaren produkzioak %10eko hazkundera izan du 2005ean, eta 904,4 milioi euroa iritsi da (Makina-Erremintako Fabrikatzaileen Elkarteak —MFE— enpresen produkzioa sektoreko produkzio osoaren %92koa da); emaitza ona da, aintzat hartuta 2004ko

GARRAIKO MATERIALAREN SEKTOREKO MAGNITUDEAK EAEN

	Enpresak (2005)	Enplegua (2004)	indust. %	BEG (€ milio.-04)	indust. %	Esportaz. (€ m.-05)	Esport. guzt. %	Inportazio. (€ m.-05)	Inport. guzt. %
Garraioko materiala	340	21.483	8,6	1.281	8,8	3.649	25,7	1.338	9,2
Automobilak eta piezak	167	12.936	5,2	872	6,0	2.956	20,8	1.091	7,5
Garraioko beste mat. batzuk	173	8.547	3,4	408	2,8	694	4,9	248	1,7
Itsas eraikuntza	123	2.696	1,1	64	0,4	23	0,2	6	0,0
Garraioko beste mat. batzuk	50	5.851	2,3	344	2,4	670	4,7	242	1,7

Iturria: Eustat, "Industria Kontuak", "DIRAE", "Kanpoko Merkataritza".

MAKINA ERREMINTAREN PRODUKZIOA ETA KONTSUMOA ESKAPINIAN (€-AK MILIOITAN)

	Produkzioa	Kontsumoa	Inportazioa	Esportazioa	Saldoa
2001	990	984	526	532	6
2002	915	842	472	545	73
2003	820	782	422	461	39
2004	822	832	428	418	-10
2005	904	861	456	499	43

Iturria: AFM.

EAEko MAKINERIA SEKTOREAREN MAGNITUDEAK

	Enpresak (2005)	Enplegua (2004)	indust. %	BEG (€ milio.-04)	indust. %	Esportaz. (€ m.-05)	Esport. guzt. %	Inportazio. (€ m.-05)	Inport. guzt. %
Makineria	1.217	33.167	13,2	1.693	11,6	2.357	16,6	1.334	9,2
Makina-erreminta	194	4.895	1,9	229	1,6	441	3,1	198	1,4
Ettxeko tresnak	56	6.652	2,6	303	2,1	364	2,6	221	1,5
Beste makina batzuk	967	21.620	8,6	1.161	8,0	1.552	10,9	916	6,3

Iturria: Eustat, "Industria Kontuak", "DIRAE", "Kanpoko Merkataritza".

EUSKADIKO ETXE-TRESNA ELEKTRIKOEN KLUSTERRAREN MAGNITUDEAK (2003, €AK MILIOITAN)

	Produktu amaitua	Osagaiak	ACEDE
Langileria	6.449	2.828	9.277
Salmentak	1.009	416	1.425
Esportazioa	414	234	648

Iturria: ACEDE.

hazkundera %0,1ekoa baino ez zela izan; Estatuko ageriko kontsumoaren hazkundera, bestalde, %3,6koa izan da (861 milioi €). Esportazioak %19,4ko hazkundera izan du (498,7 milioi €) eta produkzioak %55eko hazkundera. Inportazioek %6,6ko hazkundera izan zuten (batez ere, Italiatik, Alemaniatik, Suitzatik, Japoniatik eta Frantziatik), eta makina-erreminten salmentek (barruko merkatuan) %0,4ko hazkundera baino ez dute izan (403 milioi €).

EAEko etxetresna elektrikoaren sektorean Estatu osoko ia %40 biltzen da. Lehenengo postuan Fagor taldea dago, "linea zuriko" etxetresna elektrikoaren merkatu osoaren (Estatuko merkatua) %25ekin; gainera, atzerrian produkzio ezar-kuntzen prozesuari ekin dio, 9 produkzio plantekin (Txekiar Errepublikak, Mexiko, AEB, Italia, Maroko, Argentina eta Polonia); horrela, sektoreko bolumen osoaren %20 inguru EA-En dago. Mayc-ek, berriz, merkatuko kuota osoaren %3,5-4 dauka. Etxetresna txikiari dagokionez, EAEko enpresek ga-rantzi handia dute Estatuan: Moulinex España, Solac eta Ufesa enpresak Estatuko lehenengo sei produktore nagusien artean daude (merkatuko %80ko kuota).

ANFELEk (Linea Zuriko Etxetresna Elektrikoaren Fabrika-tzaileen eta Inportatzaileen Nazio Elkarteak) emandako az-ken datuen arabera, sektoreko enpresen fakturazioak %5,7ko hazkundera izan du 2005ean (2004an %10,3).

(c) Garraioko materiala

Garraioko materialaren adarra EAEko BEGen eta en-pleguaren %9ra iristen da (1.281 milioi euro eta 21.500

enplegu); horren %60 Automobilekin eta osagaiekin lotu-ta dago, %13 Itsas eraikuntzarekin nahiz konponketare-kin eta %27 Garraioko beste material batekin (trenbide materiala, aeroespaziala, motozikletak, bizikletak, etab.). Gainera, EAEk munduko gainerako eskualdeetara eginda-ko esportazioen laurdena biltzen du.

EAEko automobilgintza sektorea 167 enpresek osatzen dute, Eustaten jarduera ekonomikoaren direktorioan adierazi-takoaren arabera, eta gehienak enpresa txikiak eta ertainak dira, hala ere, ibilgailuak fabrikatzeko eta muntatzeko bi planta handi daude: Daimler Chrysler España (lehen Mer-cedes-Benz, 4.700 pertsonako langileriarekin, 2004an 92.995 ibilgailuko produkzioarekin eta 2003an 4.005 milioi euroko fakturazioarekin) eta Irizar (plantak EAEn, Brasilen, Txinan, Indian, Mexikon eta Marokon). Kontuan hartu behar da estatuan automobilgintza BPGren %6ra eta esportazio-en %25era iristen dela, baina 2004an produkzioak behera egin du lehenengoz, matrikulazioak %10etik gorako haz-kundera izan arren. Hala eta guztiz ere, urte horretan Daim-ler Chrysler España plantako industria ibilgailuen fabrika-zioak %19ko hazkundera izan du, 2003koari dagokionez, eta esportazioak %20ko hazkundera izan du (65.600 furgoneta esportatu, fabrikaturiko 72.800etatik).

ACICAEko (Euskadiko Automobilgintza Osagaien In-dustria Kluster Elkarteak) kideak diren automobilgintzako 284 enpresa hornitzaileek (iturri horren arabera, EAEko BPGren %16) 8.401 milioi € fakturatu zituzten 2005ean, aurreko urtean baino %4 gehiago (Estatuko %28 eta, gu-txi gorabehera, Europako %2,5), eta 43.700 enplegatu izan zituzten (sektoreak Estatuan duen enpleguaren %17). Esportazio ildo nabaria duen sektore horretan, fak-turazioaren %75 Europara bideratzen da, %11,82 mundu-ko gainerako eskualdeetara eta %12,95 Euskadira.

Industria laguntzaileari eta automobilaren osagaien fa-brikatzaileei dagokienez, 2004an Estatu osoko barne-sal-mentak 24.528 milioi €-koak izan ziren eta %4,1eko haz-kundera izan zuten aurreko urtekoei zegokienez; gainera,

AUTOMOZIOKO OSAGAIEN SEKTOREKO MAGNITUDEAK*
(€-AK MILIOITAN)

	Sektore guztietako fakturazioa	Automobil. fakturazioa	Enplegua*
2001	4.169	3.367	29.900
2002	4.290	3.466	29.883
2003	4.572	3.660	30.246
2004	5.221	4.139	31.855
2005 (k)	5.403	5.037	30.445

(*) Klusterrera lotutako eta lotu gabeko enpresak, Michelin eta Bridgestone Firestone izan ezik. (k) kalkulatuak.
Iturria: ACICAE.

EAEko MAKINA SEKTOREKO ENPRESA NAGUSIAK**AUTOMOBILGINTZA ETA OSAGIAK**

DAIMLER CHRYSLER ESPAÑA BRIDGESTONE HISPANIA, S.A. TENNECO AUTOMOTIVE IBERICA IRIZAR FAGOR EDERLAN, S. COOP. GKN DRIVE LINE ESPAÑA, S.A. GRUPO CIE AUTOMOTIVE	ARABA BIZKAIA BIZKAIA GIPUZKOA GIPUZKOA GIPUZKOA GIPUZKOA
GARRAIOKO BESTE MAT. BATZUK	
AMURRIO FERROCAR Y EQUIPOS ELEC NOR BOMBARDIER CONST. Y AUXILIAR DE FER (CAF)	ARABA BIZKAIA BIZKAIA GIPUZKOA


esportazioak 14.808 milioi eurokoak izan ziren (2003an baino %8,2 gehiago).

Azkenik, Garraioko beste material baten adarreko enpresen artean, CAF aipatu behar da (Trenbide Eraikuntzak eta Laguntzailea); nazioarteko enpresa nagusienetarikoa da trenbide sistematarako ekipoen eta osagaien diseinuan, fabrikazioan, mantenamenduan eta horniduran; 2005ean 681 milioi euroko negozio-zifra izan zuen, aurreko urtean baino %18 gehiago, eta 3.800 enplegatu baino gehiago izan zituen.

2.1.4. Eraikuntza

Eraikuntza sektorea, 2005ean, lehenengo postuan egon da sektore guztien artean, BPGn izandako hazkundeari dagokionez, eta urte horretan, gainera, nolabaiteko gorakada izan du, aurreko hiru urteei dagokionez. Izan ere, BPGren bilakaeraren hiruhileko profila goranzkoa da.

2005ean, sektoreko BPGk, kateaturiko bolumenari dagokionez, %5,3ko urteko batez besteko hazkundera izan du (2004an baino bederatzi hamarren gehiago), eta, behin-behineko datuen arabera, 4.573 milioi eurokoa da; bestalde, sektoreko prezio handien erritmoa moteldu egin da (eraikuntzako BPGren deflaktatzaileak batez besteko %4,9-6,1eko hazkundera izan du, 2004an baino ha-

ERAIKUNTZA SEKTOREKO PRODUKZIOAREN BALIOA (URTEKO ALDAKETAREN TASA)


Iturria: Eustat, "Eraikuntzako Abagunearen Indizea".

ERAIKUNTZA SEKTOREAREN BILAKAERA

	Eraikuntzako Abagunearen Indizea*				Hiruhileko Kontu Ekonomikoak**			
	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Enplegua	BPG korrantea	BPG bolumena	BPG deflakt.	Lanpost.
1997-2002	11,3	9,9	14,6	3,8	11,3	6,5	4,5	8,7
2003	6,0	6,5	5,0	0,7	16,7	4,7	11,4	6,3
2004	7,4	7,8	6,6	1,3	9,8	4,4	5,0	5,0
2005	7,7	8,8	5,5	0,9	10,5	5,3	4,9	4,0

(*) Datuak prezio korranteetan (**) zikloa-joera.
Iturria: Eustat

ENPLEGUAREN BILAKAERA ERAIKUNTZA SEKTOREAN



(*) zikloa-joera. (**) desestazionalizatua.
Iturria: Eustat.

marren bat gutxiago). Horrela, etxebizitza berriaren eta askearen metro koadroaren prezioak hazkunde handia izan du. Izan ere, 2004an %15,7ko hazkundea izan zuen eta 2005ean %10,8ko hazkundea izan du.

Gainera, eraikuntzako BPGren hazkundeak (EAEn) gairitu egiten du Estatu osokoa (%5,5), eta arlo horretan, 2005ean aurreko bi urteetan baino jardura handiagoa ikusi da.

Sektoreko enpleguari dagokionez, lehenengo eta behin, Hiruhileko Kontu Ekonomikoek nolabaiteko egonkortzea adierazten dute, lanpostu kopuruaren hazkunde tasetan (%4 inguru; 94.361 lanpostu, 2004an baino 3.587 gehiago), tasa hori altua da, baina aurreko urteetako baino baxuagoa. Biztanleria jardueraren arabera deritzon inkestak, aldiz, beheranzko joera adierazten du, eta gai-

nera, urte horretan enplegu gutxiago dagoela adierazi du: 3.200 landun gutxiago, 2004ko kopuruaren bikoitza, eta horrek -%3,7ko beherakada jartzen du agerian, sektoreko enpleguan. Azkenik, "Eraikuntzaren Abagune Indizeak" adierazitako lanaren hazkunde tasa %0,9koa da, aurreko urtekoa baino 4 hamarren txikiagoa.

"Eraikuntzaren Abagune Indize" berriak agerian jarri duenez, 2005ean eraikuntzako produkzioaren balio korranteak %7,7ko hazkundea izan du, 2004an baino hiru hamarren gehiago, batez ere eraikuntzaren azpisektorean izandako %8,8ko hazkundearen eraginez (aurreko urtean baino puntu bat gehiago).

Hala eta guztiz ere, obra zibilaren balio korranteak hazkunde tasak murrizteko joera mantendu du; 2005ean %5,5koa izan da, 2004an baino 1,1 gutxiago.

EAEko LIZITAZIO OFIZIALA ERAKUNDEEN ARABERA

	2005 (€-ak milioitan)				2003-2004ko aldak. %				Estatuko %	
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	2004	2005
Eraikuntza	411,8	35,2	229,7	138,3	26,8	-41,0	78,4	1,5	3,5	3,3
Obra Zibila	1.409,4	232,0	624,7	495,3	12,1	-0,4	-5,1	35,3	5,6	5,3
Adm. Nagusia	158,7	48,1	59,3	50,2	27,3	864,1	-42,1	193,4	1,2	1,3
Adm. Autonomikoa	324,5	47,7	126,4	85,9	0,7	-57,0	-17,5	47,9	3,0	2,7
Toki Adm.	1.337,9	171,5	668,7	497,5	17,8	-3,0	25,9	16,4	10,9	8,8
GUZTIRA	1.821,1	267,3	854,4	633,6	15,1	-8,7	8,6	26,1	5,0	4,6

Iturria: SEOPAN.


Bestalde, urte honetan 2004an baino etxebizitza kopuru handiagoa egiten hasi dira (2003an gehienekoa lortu zen, hasitako etxebizitza kopuruan, 20.251 etxebizitza-ekin), eta aurreko bi urteetan baino kopuru handiagoa amaitu da. 2005ean hasitako etxebizitza kopuruak %2,4ko hazkundera izan du; hain zuzen ere, etxebizitza askeak eta babes sozialeko etxebizitzak %4,5eko hazkundera izan dute; halaber, amaituriko etxebizitza kopuruak %9,2ko hazkundera izan du (15.547 etxebizitza).

Sektoreko beste adierazle batek, ageriko kontsumoak, goranzko joera izan du azken bi urteetan. Izan ere, 2004an -%2,7ko beherakada izan du eta 2005ean -%5,5ekoa.

EAEko lizitazio ofizialak gorantz jarraitu du 2005ean, aurreko urteko bideari jarraituz. 2004an %53,4ko hazkundera izan zuen, eta 2005ean %15,1ekoa, 1.821 milioi euroko zifrara helduta. Aurreko urtean bezala, hazkunde hau obra zibilaren eraginezkoa da batik bat, horrek %12ko hazkundera izan baitu (2004an %93koa), baina 2005ean, gainera, eraikuntzaren ekarpena ere egon da, %27ko hazkundearekin (aurreko urtean -%15eko beherakada), horren bolumena txikiagoa izan arren. Nolanahi ere, Estatuan %24ko hazkundera izan duela aintzat hartuta (eraikuntzak %37 eta herri lanak %19), berriro ere murriztu egin da, lau hamarrenetan, EAEko lizitazio publikoaren proportzioa, Estatukoari dagokionez, eta 2005ean %4,6koa da (eraikuntzan oso baxua, %3,3koa).

Lizitazio publikoaren gorakadarik handiena Gipuzkoan egon da, %26ko hazkundearekin; gero Bizkaian, %8,6ko hazkundearekin (2004an ere %64tik gora bi lurralde horietan), eta Araban -%8,7ko beherakada izan du (2003an %87koa eta 2004an %37koa).

Lizitazioak Administrazio Nagusian soilik egin du gora, hain zuzen ere, %27 (batez ere, Araban eta Gipuzko-

LIZITAZIO PUBLIKOA ADMINISTRAZIO ETA OBRA MOTAREN ARABERA

Iturria: Seopan.

an), baita Toki Administrazioan ere; azken horren barruan udalak eta foru aldundiak sartzen dira eta bolumenik handienekoa da (guztizkoaren %73), eta bertako hazkundera %18koa izan da (baina Araban beherakada); administrazio autonomikoan, ostera, lizitazioa aurreko urteko mailatan mantendu da, Gipuzkoak soilik egin baitu gora, gainerako lurraldeetan behera eginez.

2.1.5. Zerbitzuak²

Hiruhileko Kontu Ekonomikoen datu berriek agerian jarri dutenez, zerbitzu sektoreak EAEko balio erantsiaren eta enpleguaren %61 sortzen du orain (2005ean 584.337 enplegu, batez beste); bertan, merkatuko zerbitzuak sektore honetako %80ra iristen dira. Guztira, behin-behineko datuen arabera, bertako produkzioa 31.216 milioi eurokoa izan zen (prezio korranteetan) 2005ean. Urte

² Edizio honetan ez da Etxeko Produkzioari buruzko atala sartu, ez baitago 2004ko Memoria Sozioekonomikoaren barruko informazioa gaurkotzeko datu berriak; beraz, irakurleak memoria hori irakurri beharko du sektoreak EAEn izandako datu nagusiak jakiteko.


horretan, sektoreak mantendu egin du azken urteetako egonkortasuna, BEGen eta prezioen bilakaerari dagokionez (grafikoan ikusten denez, hazkunde tasak %3-3,5 bitartekoak dira, baina enpleguaren hazkunde tasak aurreko urteetakoak baino handiagoak dira).

Zerbitzu sektoreko balio erantsi errealak edo bolumenak %3,6ko hazkundea izan du 2005ean, 2004an baino lau hamarren gehiago eta BEGek EAEn izandako batez besteko hazkundea baino bi hamarren gutxiago. Merkatuko zerbitzuek %3,6ko hazkundea izan dute eta merkatukoak ez direnek %3,4ko hazkunde; bi kasuetan ere aurreko urtean

baino hazkunde handiagoak (%3,4 eta %2, hurrenez hurren). Sektoreko enpleguak, iturri horren arabera, %3ko hazkundea izan du (EAEko batez bestekoa baino puntu bat gehiago). Gainera, zerbitzu sektoreko balio erantsiaren deflaktatzaileak, aurreko urtean bezala, %3,3ko hazkundea izan du. Zerbitzu sektoreko KPIk %3,9ko hazkunde (urteko batez bestekoa) izan du (etxebizitzaren alokairua ere barne), aurreko urtean bezala, eta indize orokorrak %3,3ko hazkunde izan du.

Merkatuko zerbitzuen barruan, aipagarriak dira honako adar hauen hazkunde handiagoa: Ostalaritza (turismo urte

ZERBITZU SEKTOREAREN HIRUHILEKO EBALUAZIOA (BEG, DEFLAKTATZAILEA ETA ENPLEGUA)



Iturria: Eustat, "Hiruhileko Kontuak".

ZERBITZU SEKTOREAK EAEN DUEN EGITURA ETA BILAKAERA

	Egitura										Urteko aldak. %		
	BEG korrontea					Enplegua					BEG *	Prezioak	Enpl.
	1980	1990	1995	2000	2004	1980	1990	1995	2000	2003	1995-04	1995-04	1995-03
Merkataritza eta konponketa	11,2	13,8	11,7	10,7	10,9	14,1	15,4	15,3	14,0	13,6	2,5	2,8	1,6
Ostalaritza	4,0	3,6	3,8	3,7	3,6	3,8	4,9	5,3	5,3	5,2	1,0	4,8	2,7
Garraioa eta komunikazioak	6,5	6,5	6,6	7,2	7,2	4,9	5,5	5,9	5,6	5,4	4,6	2,4	2,0
Bankuak eta aseguruak	4,5	4,9	7,0	7,4	7,3	2,8	2,4	2,8	2,4	2,2	3,8	2,8	-0,1
Zerbitzuak enpresei	10,2	11,7	13,5	15,2	16,2	3,8	5,0	7,1	10,6	10,9	4,4	3,6	7,8
Herri Administrazioa	5,0	5,5	5,8	5,1	5,0	2,5	6,5	6,8	5,8	5,7	1,5	3,1	0,8
Hezkuntza	2,3	3,8	4,3	4,0	4,0	4,5	6,8	6,8	6,4	6,3	2,2	3,2	2,0
Osasuna eta gizarte zerbitz.	2,7	4,6	4,8	4,3	4,3	3,1	3,9	5,6	5,0	4,8	1,7	3,1	1,2
Zerbitzu pertsonalak	2,5	2,4	2,6	2,5	2,4	2,0	4,9	3,8	3,8	3,7	2,3	3,1	2,6
Etxeko zerbitzua	0,4	0,5	0,5	0,5	0,4	2,7	2,5	2,5	2,5	2,5	2,4	2,8	2,8
ZERBITZUAK GUZTIRA	49,2	57,4	60,6	60,6	61,4	44,1	57,9	61,9	61,4	60,3	3,1	3,2	2,6
EAE GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	3,4	2,7	2,9

(*) Balio Erantsi Gordin erreala (bolumenaren indizea).

Iturria: Eustat, "Kontu Ekonomikoak" eta Input-Output Taulak.

bikaina), Finantza Zerbitzuak, Enpresei emandako zerbitzuak eta Zerbitzu pertsonalak (zenbait jarduera, adibidez, Saneamendu Publikoa, Asoziazio Jarduerak, Jolasekoak eta Kulturakoak). Merkataritzak, Garraioek eta Komunikazioek, Herri Administrazioak, Hezkuntzak eta Osasunak eta Gizarte Zerbitzuek eta Etxeko Zerbitzuak, berriz, EAEkoaren araberako hazkundeak izan dute BEGen.

Merkataritza

Merkataritza eta konponketa sektorea EAEko balio erantsiaren %11ra eta enpleguaren %14ra iritsi da; 2005ean nolabaiteko hazkunderik eza izan du salmentetan, kontsumo pribatua %40ko tasan mantendu eta prezioak murriztu arren. Horrela, prezio iraunkorreko *Barruko Merkataritzaren Indize Orokorra* %0,3ko hazkundeak izan du (aurreko urtean %3koa), eta 2005ean prezioek %3,8ko hazkundeak izan zuten, 2004an %5eko hazkundeak izan ondoren.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian %2ko tasa positiboa egon da, baina hori 2004koa baino 2,5 puntu txikiagoa da; Gipuzkoan, berriz, -%0,6ra jaitsi da (aurreko urtean baino 3,5 puntu gutxiago), eta Araban urte honetan ere beherakadak egon dira (-%1,3 eta aurreko urtean -%2,3).

Hala eta guztiz ere, *Barruko Merkataritzako Indizearen* okupazio datuek diotenez, sektoreko enpleguak gora egin

du. 2005ean %2,2ko hazkundeak izan du, aurreko urtean baino zortzi hamarren gehiago, batik bat Bizkaian eta Gipuzkoan; bertan, bi merkataritza motek, handizkakoak eta txikizkakoak, antzeko hazkundeak izan dituzte enplegu indizean.

Merkataritzako salmenta errealean bilakaeran desberdintasunak ikusten dira, bertako dimentsio desberdinen artean³. Txikizkako merkataritzako salmentek, 2004an hazkunde handia izan ondoren (%4,1), 2005ean %1,6ko hazkundeak izan dute. Sektore espezializatuaren bilakaera, bestalde, espezializatu gabeko sektorearena baino apur bat hobe da. Merkataritza espezializatuko salmentak aurreko urteko erdia baino %2,1 gutxiago hazi dira; bertan, berriro ere aipagarria da Beste kontsumo ondasun batzuk deritzon azpisektorea, %5,6ko hazkundearekin (2004an baino zazpi hamarren gutxiago); pertsonaren ekipamenduen azpisektoreak %4,3ko hazkundeak izan du, eta beste bi azpisektoreen datuetan beherakadak ikusi dira. Elikadurak -%2,3ko beherakada izan du (hamarkada osoan, 2002an soilik egon da tasa positiboa azpisektore honetan), eta etxeko ekipamenduak ere -%3,6ko murriztapena izan du (lehenengoz azken hamar urteotan). Bestalde, azalera ertainen eta handien espezializaziorik gabeko merkataritzak hazkunde tasa txikiagoak izan du, 2005ean %0,4 baino ez, janarien merkataritzari esker (%0,7ko hazkundeak); beste produktu batzuen merkataritzak, oster, -%1,1eko beherakada izan du.

BARRUKO MERKATARITZAKO SALMENTA INDIZEAREN BILAKERA

	Indize Orokorra	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Handizkaria	Txikizk	Prezioa	Kontsumo pribatua
2003	1,9	4,6	0,6	2,0	1,5	2,8	2,4	3,7
2004	3,0	-2,3	2,9	4,5	2,3	4,1	5,0	4,4
2005	0,3	-1,3	-0,6	2,0	-0,4	1,6	3,8	4,1

(*) Prezio iraunkorrak.

Iturria: Eustat, "Barruko Merkataritzaren Indizea" eta "Kontu Ekonomikoak".

MERKATARITZAKO LANGILEEN INDIZEA

	Guztira	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Handizkaria	Txikizkaria
2003	1,8	1,3	2,1	1,8	1,3	2,2
2004	1,6	1,3	0,6	2,3	1,1	1,9
2005	2,2	0,2	1,7	2,9	2,2	2,1

(*) Behin-behinekoa.

Iturria: Eustat, "Barruko Merkataritzaren Indizea".

³ Establezimenduen tamainaren araberako banaketa:

- 120 eta 400 m² bitarteko azalera duten establezimendu txikiak.
- 400 eta 2.500 m² bitarteko azalera duten supermerkatu ertainak eta handiak (EAE 262 inguru; batez besteko azalera 757 m² eta azalera osoa 198.349 m²).
- 2.500 m²-tik gorako salmenta azalera duten hipermerkatuak (EAE 32 establezimendu, hiriguneetakoak barne, 4 Araban, 12 Gipuzkoan eta 14 Bizkaian).

HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEAK SEKTOREKA IZANDAKO BILAKAERA *

	Handizkako merkataritza				Txikizkako merkataritza							
	Nek. eta elikadura produk.	Elik. ez diren beste kontsumo gai batzuk	Prod. erdi landuak; txatarra	Makineria eta ekipoa	Espezializ.	Elikad.	Pertsonaren ekipamend.	Etxeko tratamend.	Kontsum. beste ond. batzuk	Ez espezial.	Elikadur. nagusit.	Gainerako prod. nag.
2003	1,1	9,3	-0,7	-0,5	3,0	-3,2	5,7	2,5	2,9	2,3	2,3	2,6
2004	3,4	4,4	-0,6	6,0	5,7	-1,6	9,7	2,6	6,3	1,6	2,2	-1,6
2005	0,2	-3,6	-1,0	4,5	2,1	-2,3	4,3	-3,6	5,6	0,4	0,7	-1,1

(*Indizearen aldaketa tasa prezio iraunkorretan.
Iturria: Eustat, "Barruko Merkataritzaren Indizea".

EAEn ESKAINITAKO OSTATU PLAZAK

	2005 (milak)	%	Urteko aldak. %		
			1998-2003	03-04	04-05
EAE	7.263	100	4,2	4,7	3,5
Barrualdea	2.121	29	7,2	3,7	7,6
Itsasertza	873	12	1,3	9,0	6,3
Bilbo	2.038	28	3,8	9,3	3,6
Donostia	1.427	20	2,5	0,4	-2,5
Gasteiz	803	11	4,7	0,2	0,8

Iturria: Eustat "EETR".

Handizkako merkataritzaren kasuan, hazkunde tasa beharakada handia izan dute aurreko urteari dagokionez. Hain zuzen ere, tasak %0,4an jaitsi dira. Bilakaera, bestalde, hobeia izan da makinerian eta ekipoko ondasunetan, horiek %4,5eko tasa handiekin jarraitu baitute 2005ean, eta nekazaritzako eta elikadurako produktuetan ere bai, horiek oraindik ere %0,2ko tasa positiboia izan baitute. Aldiz, produktu erdi landuak nahiz txatarrak eta elikadurakoak ez diren kontsumoko beste gai batzuek hazkunde tasa negatiboak izan dituzte.

Aurreko adierazlearen kasuan ez bezala, *Azalera Handietako Merkataritza Indizeak* (AHMI)⁴, 2005ean, prezio iraunkorreko salmenten %9,6ko hazkundea izan du azalera handietan, 2004an baino hiru aldiz handiagoa, elikadurakoak ez diren produktuen salmentek izandako gorakadaren ondorioz, elikadurako produktuek moteltze handia izan baitute. Izan ere, azalera handi horien erabilerak %11,7ko hazkundea izan du, 2004an baino bi aldiz handiagoa, batik bat Bizkaian (%18).

Turismoa eta Ostalaritza

Zeharreko jardueratzat hartuta, eta eragin nagusia ostalaritzan, sukaldaritzan, garraioan, merkataritzan eta aisialdiari nahiz kulturari loturiko zerbitzuetan edukita, turismoak 2.786 milioi euroko zifra lortu zuen 2004an, eta beraz, EAEko BPGn %5,2ko ekarpena egin zuen; gainera, jardura horri loturiko langileria dagokionez, 47.000 enplegu izan ziren (enplegu osoaren %5,0), Eustatek Satelite Kontuan emandako datuen arabera. Turismoko gastuaren %55,6 EAetik kanpoko bisitariek sortzen dute (Estatua eta atzerria), eta gastuaren gainerako %44,4, berriz, Erkidegoko turistek eta ibiltariek sortu dute. Hala ere, turismo igorleak hartzaileak baino garrantzi handiagoa dauka EAEn, eta horrek 2.324 milioi euroko defizita sortu du 2004an, BPGren %4,4, eta ehuneko horrek gora egin du 2000-2004 aldian.

Sektore horrek, 2005ean, mantendu egin du 2004an ikusitako sustapenaren zati bat, azken urte hori bikaina izan baitzen sektorerako, baina oraingoan moderatuagoa


⁴ Abagune mailako adierazlea, azalera handietako merkataritza sektoreko salmenten eta lanaren merkataritza bilakaerari buruz (2.500 metro koadroko edo hortik gorako azalera duten merkataritza establezimenduak: Hipermerkatuak, Supermerkatuak, Biltegi Handiak eta txikizkako merkataritzako espezializaziorik gabeko beste establezimendu batzuk, adibidez, kontsumoko kooperatibak).

da, bidaiariaren sarrerari eta igarotako gauai dagokienez; hala ere, batez besteko egonaldia eta hoteletako okupazio maila gero eta handiagoak dira. Horrela, parametro horietan guztietan Estatuan baino jokabide hobea ikusi da, ondoko erkidegoetako antzekoa.

EINen datuek ondoko erkidegoekiko konparazioa ahalbidetzen dute (Asturias, Kantabria, Nafarroa eta Errioxa), baita Estatuarekiko konparazioa ere; datuok agerian jarri dutenez, EAEko bidaiari-sarrera aurreko urtekoa baino %9,8 handiagoa da; hain zuzen ere, Bizkaian %24,5koa izan da, Estatuan %5,8koa eta kantabriar isurialdeko erkidegoetan %9koa. Gainera, EAEn

atzerriko bidaiariaren sarrerak Estatuko sarrerak baino hazkunde handiagoa izan du. Igarotako gauetan ere emaitza berberak lortu dira, oraindik ere tasa handiagoein, eta beraz, EAEn eta ondoko erkidegoetan batez besteko egonaldiak gora egin du, EAEn batik bat atzerriarrei esker, kasu honetan Bizkaikoak behera egin arren. Gainera, okupazio mailan ere hazkunde handia egon da, puntu batekoa, eta horrek finkatu egiten ditu 2004an irabazitako bi puntuak; hoteletako prezioek Estatuko urteko batez bestekoaren gaineko hazkundea izan dute, eta 2005ean behetik mantendu eta %0,7ko hazkundea izan dute (Estatuan %1,4 eta kantabriar isurialdeko komunitateetan %1,6).

BIDAIARIEN SARRERA EAEN



* EAEkoak izan ezik.
Iturria: Eustat.

EAEKO ETA ESTATUKO TURISMOAREN KONPARAZIO ADIERAZLEAK

	Bidaiariak (04-05eko aldak. %)			Igarotako gauak (04-05eko aldak. %)			B. besteko egonaldia (2005-2004ko dif.)			Okupazio maila plazaka		B. besteko prezioa	
	Guztira	Espainia	Atzer.	Guztira	Espainia	Atzer.	Guztira	Espainia	Atzer.	2005	04ko dif.	05eko al.%	Est.=100
ESTATUA	5,8	6,2	5,2	4,5	6,5	3,1	-0,04	0,01	-0,10	54,34	0,75	1,4	100,0
Antzekoak(+)	9,0	9,1	8,8	10,8	11,2	7,7	0,04	0,04	-0,02	39,24	2,40	1,6	102,2
EAE	9,8	9,3	10,9	10,6	9,7	12,8	0,01	0,01	0,03	48,19	0,97	0,7	99,9
Araba	-0,4	-1,1	2,3	3,7	1,5	12,6	0,08	0,05	0,18	47,16	2,92		
Gipuzkoa	1,7	0,9	3,5	3,3	2,1	6,3	0,03	0,02	0,05	52,43	2,36		
Bizkaia	24,5	25,2	22,9	23,2	24,6	20,3	-0,02	-0,01	-0,04	44,72	-0,66		

(*) Hileko datuen b. besteko aritmetikoa.
(+) Asturias, Kantabria, Nafarroa, Errioxa.
Iturria: ein "Hotel Okupazioaren Inkesta".

Eustaten Turismo establezimendu hartzaileen inkestako datuetan ikusten denez (hoteletako eta ostatuetako bidaiariak, EAEra etorritako turista guztien %20 inguru), EAEra eta, batez ere, Bizkaia etorritako bidaiari kopuruak ere goranzko joera dauka. EAEko hotel sarean ostatua hartu duen bidaiari kopurua 1,8 milioikoa izan da 2005ean, aurreko urtean baino %4,3 gehiago; hain zuzen ere, atzerriko turista kopuruak %3,6ko hazkundea izan du, EAEkoak %3,3ko hazkundea eta Estatukoak %4,9koa; turista kopuruak 2004koa gainditu du urteko ia hilabete guztietan, baina batez ere udako hilabete nagusietan.

Estatutik iritsitako turisten artean, alde batetik, aipagarria da Madriletik etorritakoen kopuruak (jatorri nagusia izanik, kuota gero eta gutxiago dauka, eta aurten turista guztien %28,9ra iritsi da) %0,1eko hazkundea izan duela, eta Kataluniako kopuruak ere (guztizkoaren %23,6) %4,7ko hazkundea izan du. Bestalde, Murtziatik (%30eko hazkundea), Kanarietatik (%27,5), Extremaduratik (%27,3), Balearretatik (%23,8), Gaztela-Mantxatik (%13,1) eta Kantabriatik (%10,9) iritsitakoen kopuruak ere hazkunde handia izan du.

Atzerriko turisten kasuan, gehienetan turista kopururik handiena dakarten estatuen artean, Frantziak (atzerriko turista guztien %23) %9,5eko hazkundea eta Alemaniak (atzerriko guztien %10,6) %10,5eko hazkundea izan dute, baina Erresuma Batuko kopuruak (atzerriko turista guztien %14) %13,2ko murriztapena izan du. Halaber, Austriako turismoak (%18,2), Danimarkakoak (%30,4),

Greziakoak (%16) edo Irlandakoak (%32) hazkunde handia izan dute, eta Europako beste herri batzuetako turismoak ere %30,2ko hazkundea izan du, baita Amerika Latinokoak ere (%16,8), baina AEBetakoak eta Kanadakoak %5eko beherakada izan du.


Igarotako gau kopuruak bidaiari kopuruaren gaineko hazkundea izan du, %5,2 (batez ere, Bizkaia eta Araba), eta beraz, batez besteko egonaldia ia puntu bat handiagoa da, 2004koari dagokionez, batez ere atzerriko turista kopuruaren hazkundearen ondorioz (Arabak %10,4ko hazkundea), Estatuko kopuruak behera egin baitu (Bizkaian txikiagoa izatearen ondorioz). Nolanahi ere, EAEko batez besteko egonaldiak ez du 2001eko datua gainditzen eta ez da bi egunera iristen, ez Estatuko eta ez atzerriko turisten kasuan. Azken hiru urtekotan gorantz jarraitu duen beste turismo aldagai bat, izan ere, hoteletako okupazio mailarena izan da, hain zuzen ere, 2004ko %46,9tik (urteko batez bestekoa) 2005eko %47,6ra igaro da; ehuneko hori %73,9koa da abuztuan (2004an baino 4,6 puntu gehiago), eta Gipuzkoan handiagoa da eta gehiago hazi da (1,2 puntuko hazkundea dauka eta %51,2koa da 2005ean).

Gainera, gero eta handiagoa da EAEn hotel jardueran diharduten establezimenduen, plazen eta langileen kopurua. Hotel kopuruak (hotelak eta bi izarrerako ostalutxoak) 15eko hazkundea izan du (horietariko 11 Bizkaian), eta urteko plaza erabilgarrien kopuruak %3,5eko hazkundea izan du; gainera, sektorean lan egiten duten soldata-

BIDAIARI ETA GAU KOPURUAREN BILAKAERA

	2005 (milatan)				04-05eko aldak. %			
	Guztira	Estatua	EAE	Atzer.	Guztira	Estatua	EAE	Atzer.
BIDAIARIAK								
EAE	1.825	1.306	293	519	4,3	4,9	3,3	3,6
Araba	289	229	62	60	0,1	2,6	-3,8	-2,2
Gipuzkoa	728	511	102	216	0,8	0,4	-1,4	2,6
Bizkaia	808	566	128	242	9,2	10,4	11,5	6,0
HOTELEKO GAUAK								
EAE	3.460	2.455	506	1.005	5,2	5,2	3,7	5,9
Araba	521	419	112	102	5,7	7,8	-1,4	8,0
Gipuzkoa	1.439	1.028	194	412	2,5	2,5	-0,5	4,0
Bizkaia	1.499	1.008	200	492	7,7	7,2	11,3	7,0
B. BESTEKO EGONALDIA (egunak)								
EAE	1,9	1,9	1,7	1,9	0,9	-2,0	0,4	2,2
Araba	1,8	1,8	1,8	1,7	5,6	4,4	2,5	10,4
Gipuzkoa	2,0	2,0	1,9	1,9	1,7	0,6	1,0	1,3
Bizkaia	1,9	1,8	1,6	2,0	-1,4	-6,4	-0,2	1,0

Iturria: Eustat, "Turismo establezimendu hartzaileen inkesta".

**BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO MAILA
PLAZA BAKOITZEKO**


Iturria: Eustat.

peko langileen kopuruak %4ko hazkundea izan du, eta urteko batez besteko enplegua 3.380 pertsonakoa da (%75ean langile finkoak).

Bestalde, EAEn 280 landetxe daude, 2004an baino 5 gehiago, eta horiek 954.207 plaza eskaintzen dituzte, aurreko urtean baino %6,2 gehiago; urte honetako batez besteko okupazioa %28koa izan da, 2004an baino puntu bat gutxiago. Landetxe horietan, 2005ean, 96.192 pertsona egon ziren, aurreko urtean baino %9,2 gehiago (%43 EAEkoak bertakoak), baina igarotako gau kopuruak %2,2ko hazkundea baino ez du izan, eta beraz, batez besteko egonaldia 2,8 egunera jaitsi da.

Azkenik, Ostalaritza EAEko balio erantsiaren ia %4koa eta enpleguaren %5ekoa da, eta langile kopurua 48.000 pertsonatik gorakoa da; hala eta guztiz ere, azken urteotan nolabaiteko moteltzea eta atzerakada ere izan du BEGen; hori, berriz, prezioek sektorean izandako hazkunde handiagoei esker eutsi da, horiek azken hamarkadan urte batez bestekoaren %5,5 gainditu baitute.

Ostalaritza sektoreko 2004ko inkestaren azken datuek adierazitakoaren arabera (hotelak, jatetxeak, tabernak, kafetegiak, etab.), bertako BEG 1.810 milioi €-koa izan da (ekonomiaren guztizkoaren %3,8), eta okupazioa 47.656 pertsonakoa, EAEko landun guztien %5,1. Sektorearen barruko hiru azpisektoreen artean, bolumena aintzat hartuta, aipagarria da Edarien establezimenduen sektorea (kafetegiak, tabernak, etab.), hain zuzen ere, 11.000 establezimendu eta sektoreko enplegu guztien %41. Bigarren jardura nagusia Sukaldaritza da, establezimendu guztien %24,5arekin eta enpleguen %37,5arekin; Hotelen azpisektorean, berriz, sektoreko langile guztien %9,3 dabilta, 528 establezimendutan banatuta, baina produktibitatea handiagoa da. Sektoreko langileen %51k Bizkaian egiten dute lan, %34,7k Gipuzkoan eta gainerako %14,3k Araban.

Finantza sektorea

Finantza sektoreko jardueraren testuinguruan, 2005ean, interes-tasen gorakadaxoa nabaritu da urtearen azken zatian. Amerikako Estatu Batuetako Erreserba Federalesko esku-hartze tasak urte hasieratik hasi ziren nabarmentzen, eta horrela, 2005aren amaieran 2004ko amaierakoak baino bi puntu handiagoak ziren; hala ere, Europako Bankukoak egonkor gelditu dira %2an, hari eta urteko azken hilabeteen 0,25 puntu igo arte. Urtebeterako euriborrak ia puntu erdi egin du gora, 2005eko hamabi hilabeteetan, eta %2,30etik %2,79ra igaro da, baina epe luzekoek hazkunde txikiagoa izan dute (puntu laurden inguru, epeen arabera). Hipoteka merkatuko erreferentziakoei dagokienez, urte 1erako euriborrak izandako hazkundearekin batera, aipagarria da CECA erreferentzia-tasak 0,125 puntuko hazkundea izan duela eta etxebizitza askerako 3 urtetik gorako hipoteken tasek 0,121 puntuko hazkundea izan dutela.

Kreditu erakundeek EAEn emandako kreditu osoak berriro ere hazkunde handia izan du 2005ean, eta 61.836

OSTALARITZA SEKTOREKO MAKROMAGNITUDEAK. 2004

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Hotelak	Jatetxeak	Edariak
Establezimend. (kop.)	15.964	2.209	8.762	4.993	528	3.908	10.978
Langileak (kop.)	47.656	6.808	24.290	16.558	4.416	17.859	19.625
Autonomoak (%)	31,8	31,5	33,4	29,5	9,8	16,5	57,5
Soldatapekoak (%)	68,2	68,5	66,6	70,5	90,2	83,5	42,5
BEG (€-ak milatan)	1.810,9	255,9	904,6	650,4	249,3	643,4	711,2
BEG /Langileak (€)	37.999	37.593	37.241	39.279	56.462	36.026	36.238

Iturria: Eustat. Ostalaritza Sektoreko Inkesta Ekonomikoa.


milioi eurora iritsi da; horren arabera, urteko tasa %17,5koa da aurreko urteko %12,4koa baino handiagoa. Hazkunde hori beste egoitza sektore batzuei emandako kredituan oinarritzen da oso-osorik (+17,9), herri administrazioei emandako kredituaren saldoa %0,9an murriztu baita.

Beste sektore batzuen hazkunde tasak aztertuta ikusten denez (finantza erakunde mota desberdinen arabera), bankuek emandako kredituaren saldoak %13,7ko hazkunde izan du 2005ean, eta aurrezki kutxek emandakoak, berriz, %21,6ko hazkunde izan du urteko tasan, Aurrezki kutxek, horrela, beste sektore batzuei emandako kredituaren salto osoaren %44,61 biltzen dute euren balantzeetan, 2005aren amaieran; bankuek, berriz, %41,75 biltzen dute eta kreditu kooperatibek gainerako %13,64.

Beste sektore batzuei emandako kredituaren saldoen hazkundean, etxebizitza lortzeko hipoteka bermeko kredituak garrantzi handia izan du, magnitude horrek Estatu osoan izandako hazkunde handiari jarraituz (ez dago Autonomia Erkidegoen daturik); izan ere, Banco de España-k emandako datuen arabera, horrek %34ko hazkunde izan du 2005ean (2004an %21,3), kreditu osoak baino ia 7 puntu gehiago.

Horri dagokionez, *Espainiako Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaile Elkarteak (EINen Hipoteka Estatistikako gertaera publikoak)* emandako datuen arabera, EAEko hipoteka kopuruak %6,2ko hazkunde izan du, aurreko urteko %5,8 baino handiagoa. Hala-ber, hipotekaturiko etxebizitza kopuruak %11,04ko hazkunde izan du 2005ean, eta 2004ko 37.208tik

KREDITUEK ETA GORDAILUEK EAEN IZANDAKO BILAKAERA (ABENDUAREN 31)



Iturria: Banco de España.

LANDA ETA HIRI FINKEN HIPOTEKAK EAEN

	2004 (b. betikoa)			2005 (behin-behinekoa)			Aldak. %		
	Kopurua	Zenb. (€-ak milio.)	B. best. zenb. (€)	Kopurua	Zenb. (€-ak milio.)	B. best. zenb. (€)	Zenbat	Zenbat	B. best. zenbat.
HIPOTEK. GUZTIRA	54.509	8.557	156.982	57.891	9.592	165.691	6,2	12,1	5,5
Fincas rústicas	1.427	308	215.695	1.550	424	273.234	8,6	37,6	26,7
Fincas urbanas	53.082	8.249	155.404	56.341	9.169	162.732	6,1	11,1	4,7
Viviendas	37.208	4.776	128.362	41.316	5.835	141.225	11,0	22,2	10,0
Solares	1.557	1.528	981.114	1.597	1.379	863.619	2,6	-9,7	-12,0
Otros	14.317	1.945	135.886	13.428	1.954	145.551	-6,2	0,5	7,1


Iturria: EIN, "Hipoteken Estatistika" (Espainiako Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaile Elkarte).

2005eko 41.316ra igaro da. Hipotekaturiko finkarako maileguan utzitako batez besteko zenbatekoak %5,6ko hazkundera izan du 2005ean, eta 157,0 mila eurotik 41.316 mila eurora igaro da. Bestalde, hipotekaturiko etxebizitzarako maileguan emandako batez besteko zenbatekoak

%10,0ko hazkundera izan du 2005ean, eta 141,2 mila eurora iritsi da (2004an 128,4 mila euro).


Finantza erakundeetako gordailuei dagokienez, titulartzat Herri Administrazioak dituzten gordailuak 3.753

KREDITUEN MERKATUKO KUOTAK, FINANTZA ERAKUNDE MOTAREN ARABERA (EAE ETA ESTATUA)



Iturria: Banco de España.

BILBOKO BURTSAKO KONTRATAZIO INDIZEAREN BILAKAERA



Iturria: Bilboko Burtsa.

KREDITU ERAKUNDEEK SEKTORE PUBLIKOARI ETA PRIVATUARI EMANDAKO KREDITUA (XII-31ko SALDOAK)

	Euroak milioitan			Banak.	Estatuko guzt. %	Aldaketaren %		
	2003	2004	2005			02-03	03-04	04-05
Guztira	46.844	52.647	61.836	100,0	5,2	11,7	12,4	17,5
Herri Administr.	1.242	1.331	1.319	2,1	3,6	22,9	7,2	-0,9
Sektore Pribatua	45.602	51.316	60.517	97,9	5,3	11,4	12,5	17,9
Banketxeak	20.893	22.716	25.710	41,6	4,7	7,1	8,7	13,2
Herri Administr.	449	491	444	0,7	1,9	-8,9	9,2	-9,5
Sektore Pribatua	20.444	22.226	25.266	40,9	4,8	7,5	8,7	13,7
Aurrezki Kutxak	19.959	23.024	27.837	45,0	4,9	15,7	15,4	20,9
Herri Administr.	771	814	839	1,4	6,2	57,2	5,7	3,0
Sektore Pribatua	19.188	22.209	26.998	43,7	4,9	14,5	15,7	21,6
Kreditu Kooperat.	5.992	6.907	8.289	13,4	12,8	15,6	15,3	20,0
Herri Administr.	22	26	36	0,1	6,6	-20,0	18,9	38,9
Sektore Pribatua	5.970	6.881	8.253	13,3	12,8	15,7	15,3	19,9

Iturria: Banco de España. Estadística Buletina.

BILBOKO BURTSAREN KONTRATAZIO BOLUMENA (*)

	2003	2004	2005	% 02-03	% 03-04	% 04-05
BURTSA GUZTIRA	43.145	51.243	49.766	17,4	18,8	-2,9
ERR. ALDAGARRIA	36.386	45.094	43.770	11,9	23,9	-2,9
Merkatu tradizion.	151	217	246	-49,6	43,8	13,6
Merkatu iraunkorra	36.236	44.877	43.524	12,4	23,8	-3,0
ERRENTA FINKOA	6.759	6.149	5.996	60,3	-9,0	-2,5
Merkatu tradizionala	8	8.365		-30,6	9,6	
Merkatu iraunkorra	11	16.799		-48,9	49,4	
BAZ	6.740	6.124		61,1	-99,9	

(*)Euroak milioietan eta hileko neurrien guztizkoa.

Iturria: Bilboko Bertsak eta Banco de España.

milioi eurokoak izan dira EAEn 2005aren amaieran, eta zifra horrek %23,3ko urteroko hazkunde tasa adierazten du. Beste sektore batzuetako gordailuak 45.117 milioi eurokoak izan dira, eta zifra horrek urteko %0,22ko hazkunde tasa adierazten du.

Beste sektore batzuen datuak euren modalitateen arabera aztertuta ikusten denez (agerikoa, aurrezkiak eta epea), ageriko gordailuen zifra 10.437 milioi eurokoa da, 2005ean %16,8ko hazkundearen ondoren, aurrezkiko gordailuen saldoa 11.918 milioi eurokoa da, %12,1eko hazkundearekin. Eperako gordailuen saldoa, berriz, 22.763 milioi eurokoa da, 2005ean %10,6ko murriztapena izan ondoren.

Azkenik, Bilboko Bertsak 2005ean izandako kontratazio bolumenak -%2,9ko beherakada izan du (49.766 milioi euro), eta beherakadak izan ditu errenta aldagarrian eta finkoak, baina aintzat hartu behar dira aurreko bi urteetako hazkunde tasa handiak, 2002an izandako beherakada gogorren ostean. Izan ere, Espainiako Burtsetako eta Merkaturako Sistema Elektronikoko (SIBE) negoziaturiko kontratazio bolumena %30eko tasetan hazi da eta

848.000 milioi eurokoa da. Bilboko Bertsak 2000ko indizeak %18ko hazkundearen ondoren, aurreko urtekoaren eta Europako gainerako burtsek dutenaren antzeko tasa da. Indizearen urteroko batez besteko errebolorizazioa %21ekoa da.

Enpresa zerbitzuak

Lanbide eta enpresa zerbitzuen sektoreak, azken urteotan, hazkunde handia izan du EAEn, industria nahiz zerbitzu enpresek egindako zerbitzu espezializatuen eskari gero eta handiagoaren ondorioz, eta BEGen %10,5era (5.043 milioi euro) eta enpleguaren %12,1era (112.525 enplegu, esku artean ditugun 2004ko azken datuen arabera) iritsi da, EAeko 29.608 establezimenduetan (establezimendu bakoitzeko 3,8 pertsona batez besteko enplegua). Langileen %58,8 Bizkaian daude, %27,2 Gipuzkoan eta %13,5 Araban.

Adar honen barruan era askotako jarduerak sartzen dira; esate baterako, zerbitzu teknologikorik nahiz informatikorik sofistikatuenak eta garbiketako zein zaintza pertsonaleko jarduerak, eta euren artean desber-

SEKTORE PRIVATUAK ETA HERRI ADMINISTRAZIOEK GORDAILU ERAKUNDEETAN DITUZTEN GORDAILUAK (XII-31KO SALDOAK)

	Euroak milioietan			Banak.	Estatuaren guzt. %	Aldaketaren %	
	2003	2004	2005			03-04	04-05
PRIB. ETA PUBLIKOA GUZTIRA	44.855	48.060	48.870		5,1	7,1	1,7
Sektore Pribatua GUZTIRA	41.882	45.017	45.117	100,0	5,0	7,5	0,2
Ageriko gordailuak	8.463	8.937	10.437	23,1	4,6	5,6	16,8
Aurrezkiko gordailuak	9.883	10.633	11.918	26,4	6,9	7,6	12,1
Eperako gordailuak	23.535	25.447	22.763	50,5	4,5	8,1	-10,5
BANKETXEAK	12.451	12.269	13.000	28,8	3,6	-1,5	6,0
Ageriko gordailuak	4.061	4.237	4.918	10,9	4,4	4,3	16,1
Aurrezkiko gordailuak	2.501	2.644	3.331	7,4	6,2	5,7	26,0
Eperako gordailuak	5.889	5.388	4.752	10,5	2,4	-8,5	-11,8
AURREZKI KUTXAK	22.667	24.434	24.693	54,7	5,1	7,8	1,1
Ageriko gordailuak	3.145	3.345	4.027	8,9	3,9	6,3	20,4
Aurrezkiko gordailuak	5.624	6.088	6.561	14,5	6,4	8,3	7,8
Eperako gordailuak	13.898	15.001	14.106	31,3	5,1	7,9	-6,0
KREDITU KOOPERATIBAK	6.764	8.314	7.424	16,5	11,9	22,9	-10,7
Ageriko gordailuak	1.257	1.355	1.493	3,3	13,6	7,8	10,2
Aurrezkiko gordailuak	1.759	1.902	2.026	4,5	11,6	8,1	6,5
Eperako gordailuak	3.748	5.057	3.905	8,7	11,5	34,9	-22,8
Sektore Publikoa GUZTIRA	2.973	3.043	3.753	100,0	6,8	2,4	23,3
Banketxeak	794	971	1.173	31,3	4,1	22,3	20,8
Aurrezki Kutxak	1.895	1.778	2.224	59,3	9,1	-6,2	25,1
Kreditu Kooperatibak	284	294	355	9,5	17,1	3,6	20,7

Iturria: Banco de España. Estadística Buletina.

LANBIDE ETA ENPRESA ZERBITZUEN SEKTOREKO MAGNITUDE NAGUSIAK JARDUERAREN ARABERA (2004)

	Establezi- mendu kop.	Langileak	%	Langileak /Establ.	Salmentak (€-ak mili.)	BEG (€-ak mili.)	%	BEG / Langileria (€)
Guztira	29.608	112.525	100,0	3,8	10.868	5.043	100,0	44.815
Higiezinaren jarduerak	4.703	7.632	6,8	1,6	3.336	1.149	22,8	150.559
Makineriaren alokairua	1.071	3.068	2,7	2,9	320	167	3,3	54.472
Jarduera informatikoak	1.415	11.370	10,1	8,0	1.145	518	10,3	45.582
Ikerketa eta garapena	319	3.305	2,9	10,4	187	168	3,3	50.925
Jarduera juridikoak	4.737	7.229	6,4	1,5	575	407	8,1	56.283
Jarduera ekonomikoak	3.526	12.773	11,4	3,6	999	559	11,1	43.796
Arkitektura	2.869	3.951	3,5	1,4	420	186	3,7	47.171
Injinerutzak	1.514	7.631	6,8	5,0	820	358	7,1	46.867
Beste zerbitzu tekniko batzuk	888	1.906	1,7	2,1	185	70	1,4	36.911
Saiakuntza eta analisi teknikoak	210	1.678	1,5	8,0	122	84	1,7	49.815
Publizitatea	914	3.318	2,9	3,6	443	107	2,1	32.372
Langileriaren hornidura	263	11.966	10,6	45,5	264	244	4,8	20.358
Segurtasun zerbitzuak	181	7.644	6,8	42,2	278	232	4,6	30.310
Industria garbiketa	1.368	18.959	16,8	13,9	424	343	6,8	18.091
Argazkigintza	479	916	0,8	1,9	83	39	0,8	42.213
Idazkaritza. Publizitateari lotuta	1.069	2.377	2,1	2,2	107	64	1,3	27.021
Beste enpresa jarduerak batzuk	4.082	6.802	6,0	1,7	1.161	347	6,9	51.047

Iturria: Eustat. Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen sektoreari buruzko inkesta.

dintasun handiak daude. Horrela, aipagarria da garbiketa zerbitzuetako langileriaren bolumena (sektoreko %16,8), langileen hornidurarena (%10,6), baina bi kasutan ere BEGen proportzioa nahiko txikiagoa da. Langilerian eta BEGen %10etik gorako proportzioa dutenei dagokienez, aipagarriak dira jarduerak informatikoak eta ekonomikoak. Aldiz, higiezinaren jarduerak (langileriaren %6,8 baino ez) sektoreko balio erantsiaren %22,8 sortzen dute.

Pertsona bakoitzeko salmentak, sektore osoan, 96.585 €-koak izan ziren, eta pertsona bakoitzeko balio erantsia 44.815 €-koa, bertan, aipaturiko jarduerak higiezinak hirukoiztu egiten dute batez besteko hori, eta makineriaren alokairua, jarduerak informatikoak nahiz juridikoak, I+G-ak zein saiakuntza teknikoak, arkitektura nahiz injinerutzak eta beste enpresa jarduerak batzuk batez bestekoaren gainetik daude. Sektoreko enpresa emaitzak 2.245 milioi €-koak dira eta Cash-Flow deri-

tzona 2.765 milioi eurokoa; bertan, aipagarriak dira Jarduera ekonomikoak eta merkatuko ikerketak azpisektorea, 663 milioi €-rekin, eta Jarduera higiezinak, 604 milioi €-rekin.

Gizarte Zerbitzuak

EUSTATen "Gizarte Zerbitzuen Inkestak" emandako datuen arabera, 2004ko Gizarte Zerbitzuen gastua 1.196

milioi eurokoa izan da, EAEko BPGren %2,2 (2003ko tasa bera) eta aurreko urtekoa baino %11,5 handiagoa. Biztanle bakoitzeko batez besteko gastua 562 eurokoa da, 2003koa baino %10 handiagoa.


Lurraldeen arabera, 2004an gastuak %13ko hazkundea izan du Bizkaian, %8 Araban eta %11 Gipuzkoan. Biztanle kopuruari dagokionez, Arabak gainerako lurraldeek baino gastu handiagoa dauka; izan ere, bertan, biztanle

EAEko GIZARTE ZERBITZUEN MAGNITUDE NAGUSIAK


	2002	2003	2004	02-03 %	03-04 %
Gastua (€-ak milatan)	915.747	1.073.054	1.196.320	17,2	11,5
gastu korranteak	671.719	786.287	876.216	17,1	11,4
transferentziak familiei	202.511	232.086	270.046	14,6	16,4
kapital gastuak	41.517	54.681	50.057	31,7	-8,5
Gastua/biztanleko (€)	444,5	506,1	562,0	13,9	11,0
Gastua/BPG (%)	2,0	2,2	2,2	10,0	0,0
Finantziakzioa					
publikoa	642.289	741.894	837.714	15,5	12,9
pribatua	273.458	331.160	258.606	21,1	8,3
Giza baliabideak					
Langileria guztira	30.621	32.657	36.221	6,6	10,9
bertakoak	16.797	18.855	20.613	12,3	9,3
boluntarioak	13.824	13.802	15.608	-0,2	13,1
Recursos materiales					
erakunde kopurua	1.224	1.266	1.304	3,4	3,0
zentro kopurua	2.305	2.388	2.512	3,6	5,2
egoitza kopurua	633	666	715	5,2	7,4
egoiliarren plazak	17.188	18.750	19.596	9,1	4,5

Iturria: Eustat, "Gizarte Zerbitzuen Estatistika".

EAEko GIZARTE ZERBITZUETAKO LANGILERIAREN (BERTAKOA ETA BORONDATEZKOA) BILAKAERA



Iturria: Eustat "Gizarte Zerbitzuen Estatistika".

EAEko GIZARTE ZERBITZUETAN DAGOEN GASTUAREN BILAKAERA

Iturria: Eustat "Gizarte Zerbitzuen Estatistikak".

bakoitzeko gastua 686 eurokoa da, Gipuzkoan 547 eurokoa eta Bizkaian 482 eurokoa.

Herri administrazioek egindako esfortzua 838 milioi eurokoa izan da, gastu osoaren %70 eta aurreko urtean baino %12,9 gehiago. Gainerako %30 sektore pribatuak eman zuen, eta, horren barruan, aipagarriak dira erabilitzaileek jasotako zerbitzuen truke emandako 169 milioi euroak (gastu korrontearen %14).

Guztira, sektorean 20.600 pertsonak egin zuten lan 2004an, urte horretan EAEn lanean ibilitako guztien %2,2 (2003an %2,1), eta horietatik %68 emakumeak izan dira. Kontuan hartuta zuzeneko laguntzako langileak daudela azpikontrataturik, eta guztira erabateko arduraldiko 4.400 enplegu direla, gizarte zerbitzuen enplegu kopuru osoak %21eko hazkundea izan du. Azpikontrataturiko langileen erdia etxeko laguntza zerbitzuan dabil lanean (oraintsu finkaturiko zerbitzua).

Gizarte zerbitzuek, halaber, 15.608 boluntario izan zituzten (langile guztien %43,1), eta horiek irabazi asmorik gabe egin zuten lan sektorean (2003an baino %13,1 gehiago). Grafikoan ikusten denez, azken 16 urteotan gizarte zerbitzuetan enplegaturiko pertsona kopuruak %200etik gorako hazkundea izan du. Aldi horretan, boluntarioen kopurua 1989ko %42,4tik 1995eko %50,7ra igaro da (orain arteko gehieneko historikoa).

Gizarte zerbitzuen jasotzaile diren biztanleria taldeak kontuan hartuta, biztanle guztiei eta adineko pertsonen eskaintako laguntzetara bideratzen dira baliabiderik gehienak, bien artean gastuaren %68ra iristen baitira. Biztanle guztiei bideraturiko baliabideak gastu osoaren %38koak izan ziren, eta garrantzitsua izan zen, zenbatekoa eta hazkundea aintzat hartuta, "transferentziak familiari" kapituluaren hazkundea; bertan, Oinarrizko Errentaren programak daude, 125 milioi euroekin (+%16), baita beste transferentzia batzuk ere, 62 milioi euroekin (+%67), seme-alabentzako zuzeneko laguntzetarako.

2.2. I+G+B eta IKT jarduerak

Azken hamarkadotako esparru orokorrak (nazioarteko merkataritzaren hedapena, kapital jarioak, teknologia, eragile ekonomikoen lurraldez gaudituko prozesuak, produkzio teknologikoari loturiko eraldaketak, enpresa txikien eta ertainen garrantzia agerian jartzen dutenak) lehiakortasunerako planteatzen dituen joko arau berriak eta jardueren garapenerako erabakigarria den toki eremua aintzat hartuta, lehiakortasunerako faktoreen ulermen berria sortu da, faktore horiek gero eta estuago lotuta baitaude ezagupenaren sorrerara, berrikuntza gaitasunera eta teknologia berrien nahiz aurreratuaren erabilerara.

ZIENTZIARI ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO ADIERALEAK, 2004 (*).

	Frantzia	Alem.	Italia	Japonia	Portug.	Espainia	Erres. Batua	AEB	EB	OCDE	EAE 2003	EAE 2004
I+G-ko gastuak												
EAP guztira (milioiak)	33.294,2	50.333,4	14.936,3	98.107,1	1.302,0	9.404,6	28.631,7	247.744,7	185.442,8	679.782,8	793,8	854,9
BPGri dagokionez (%)	2,16	2,49	1,14	3,15	0,78	1,07	1,88	2,59	1,90	2,24	1,41	1,44
Per capita	555,8	609,9	258,0	768,7	124,3	222,1	479,6	851,1	405,9	588,7	374,4	405,7
Langileria (EAB)												
Guztira	346.078	469.100	161.828	882.414	25.529	161.933	—	—	2.047.531	—	11.353	11.925
Biztanleria landunari dagokionez (‰)	14,3	13,2	7,3	13,5	5,3	9,0	—	—	10,7	—	12,4	12,8
Ikertzaileak (EAB)												
Guztira	192.790	269.500	70.332	675.330	20.242	100.994	158.586	1.261.227	1.207.409	3.380.903	7.142	7.414
Biztanleria landunari dagokionez (‰)	7,9	7,6	3,2	10,4	4,2	5,6	5,8	9,0	6,3	6,6	7,8	8,0
Gastuaren finantziazioa (%)												
Enpresak	52,1	66,1	44,3	74,5	31,5	48,0	43,9	63,1	54,3	61,6	66,1	66,0
Enpresek bakarrik											55,6	57,2
LLTEk											10,5	8,8
Administrazioak	38,4	31,2	49,6	17,7	61,0	41,0	31,3	31,2	34,9	30,5	29,9	29,7
Beste iturri batzuek	1,5	0,4	0,0	7,5	2,7	4,8	5,4	5,7	2,3	4,9	0,2	0,1
Atzerriak	8,0	2,3	6,1	0,3	4,8	6,2	19,4	0,0	8,5	3,0	3,8	4,2
Gastuaren betearazp. (%)												
Enpresak	62,3	69,8	48,3	75,0	31,8	54,4	65,7	68,9	64,3	67,3	79,1	79,1
Enpresek bakarrik											58,2	
59,8LLTEk											20,9	19,3
Administrazioak	17,1	13,4	17,6	9,3	20,7	16,0	9,6	9,0	12,8	10,9	3,1	3,2
Unibertsitateak	19,3	16,8	32,8	13,7	36,7	29,5	21,4	16,8	21,9	18,7	17,8	17,7
IAGEPak	1,3	0,0	1,3	2,0	10,8	0,1	3,3	5,3	1,1	3,1	0,0	0,0

(*) 2004ko edo azken urte erabilgarriko datuak.

EAP= Erosteko Ahalaren Paritatea.

EAB= Erabateko arduraldiaren baliokidetasuna.

Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoari eta garapen teknologikoari loturiko jardueren estatistika, OCDE. Main indicators on science and technology. 2004.

2.2.1. EAEko I+G+b sistemaren adierazle nagusiak

I+G-n egindako gastua: EUSTATEk emandako datuen arabera, 2004an EAEn 769 milioi euroko inbertsioa egin zen Zientzia Ikerketari eta Garapen Teknologikoari loturiko jardueretan (I+G), aurreko urtean baino %9,8 gehiago. Gastu horri dagokionez, Bizkaiak 358 milioi gastatu zituen (%46,6), Gipuzkoak 288 milioi (%37,5) eta Arabak 122 milioi (%15,9).

I+G-n egindako esfortzua⁵: 2004an 3 hamarreneko hazkundera izan du, 2003koari dagokionez, eta %1,44koa da, Estatukoa (%1,07) baino handiagoa, baina EBko (%1,9) nahiz OCDEko (%2,24) batez bestekoa baino txikia-

goa. Eurostatek emandako datuen arabera, Lisboako Estrategian finkaturiko helburua (2010 baino lehen %3ra iristea) Suediak (%3,74), Finlandiak (%3,51), Japoniak (%3,15) eta Islandiak (%3,01) soilik gainditu dute 2004an.

I+G-ko gastua sektoreen arabera: Gastu honen zatirik handiena (%79,1) enpresa sektoreak egiten du, baina enpresak⁶ eta zentro teknologikoak bereizita ikusten direnez, enpresen ekarpena %59,8 ingurukoa da. Hortik nahiko urrun, zentro teknologikoak (%19,3), unibertsitateak (%17,7) eta Administrazioaren menpeko erakunde publikoak (%3,2) daude.

EAEko I+G-ko enpresek egindako gastua, izan ere, Espainiako estatukoaren (enpresek I+G-ko gastuaren

⁵ I+G-ko gastuaren ehunekoa, BPGri dagokionez.

⁶ Kontuan hartu behar da Eustatek I+G-ri buruzko estatistikak egiteko erabiltzen duen metodologian (OCDEren Frascatiren Eskuliburuan oinarrituriko estatistikak), enpresa sektorearen eta, hain zuzen ere, I+G jardueren adarraren barruan, jardura nagusitzat I+G duten erakundeak sartzen direla; horien artean zentro teknologikoak, injinerutzak eta abar daude. Hala eta guztiz ere, kontuz ibili behar da, zaila baita Europako beste eskualde batzuetan EAEkoaren moduko zentro teknologikoen beste sare bat aurkitzea. EITEak zentro pribatuak dira; Espainiako CSICak Administrazioaren menpeko zentro publikoak dira, eta Alemaniako Fraunhofer-ak "non-profit" motakoak dira.

BARRUKO GASTUAK, DIZIPLINA ZIENTIFIKOAREN ETA BETEARAZPEN SEKTOREAREN ARABERA, FONDOEN JATORRIA AINTZAT HARTUTA (EUROAK MILATAN)

	2003		2004						Aldaketaren % 2003-2004					
	Guztira	%	Guztira	Admin.	Enpr.	CC.TT.	IPSFL	Atzerria	Guztira	Admin.	Enpr.	CC.TT	IPSFL	Atzerria
Batearazp. Guztira	699.960	100	768.884	228.478	440.104	67.430	942	31.930	9,8	9,0	13,1	-8,2	-10,1	19,7
Injinerutza	540.563	77,2	591.397	108.616	391.519	63.480	372	27.410	9,4	2,7	14,7	-9,7	-34,4	21,6
Medikuntza	38.188	5,5	51.684	34.599	14.617	1.347	153	968	35,3	48,1	8,2	125,3	131,8	48,7
Natur zient. eta zeh.	56.643	8,1	73.618	51.326	19.295	1.733	114	1.150	30,0	25,8	30,4		14,0	23,0
Nekazaritza zientziak	29.355	4,2	18.309	13.796	2.454	677	145	1.237	-37,6	-25,3	-63,2	-70,0	-43,8	-27,1
Gizarte zientziak	35.211	5,0	33.876	20.141	12.218	194	157	1.166	-3,8	-5,0	-4,4	-43,1	175,4	39,1
Administrazioa	21.616	3,1	24.734	22.107	1.662		219	747	14,4	12,2	87,8		-18,9	-1,1
Goi irakaskuntza	124.815	17,8	135.749	97.013	36.319		355	2.061	8,8	11,7	3,5		63,6	-21,8
Enpresak	407.471	58,2	460.365	48.927	402.123		261	9.484	13,0	1,6	13,9		-16,1	61,9
Zentro teknologikoak	146.057	20,9	148.036	60.430	67.430		107	19.639	1,4	10,0	-8,2		-57,0	12,8

Iturria: Eustat. "I+G jardueren buruzko estatistika".

BETEARAZPEN SEKTORE BAKOITZEKO LANGILERIA, OKUPAZIOAREN ARABERA

	Guztira		Emakumeak		Ikertzaileak		Teknikariak		Laguntzaileak	
	2003	2004	2003	2004	2004					
	Guztizko bertik. %	Guztizko bertik. %	Guztizko bertik. %	Guztizko bertik. %	kop.	Guztizko horiz. %	kop.	Guztizko horiz. %	kop.	Guztizko horiz. %
Guztira	17.407	18.337	5.447	5.749	11.858	64,7	4.346	23,7	2.133	11,6
Enpresak	62,6	62,6	51	52,0	5.793	50,4	3.991	34,7	1.704	14,8
Enpresak bakarrik	46,4	49,3	29	35,1	4.014	44,4	3.633	40,2	1.401	15,5
Teknologia zentroek	16,2	13,3	22	16,9	1.779	72,9	358	14,7	303	12,4
Herri Administrazioak	4,6	4,5	6,1	6,1	688	82,5	67	8,0	79	9,5
Goi irakaskuntzak	32,9	32,8	43	42,0	5.377	89,4	288	4,8	350	5,8

Iturria: Eustat, I+G jardueren buruzko estatistika.

EABko LANGILERIA, DIZIPLINA ZIENTIFIKO BAKOITZEAN, OKUPAZIOAREN ARABERA

	2003		2004						Aldaketaren %. 2003-2004				
	Guztira	Emak. % (a)	Guztira		Emak. % (b)	Iker.	Teknik.	Laguntz.	Guztira	Emak. % (b-a)	Iker.	Teknik.	Laguntz.
			Kop.	%									
Guztira	11.352,6	30,5	11.925,1	100	30,7	7.414,2	3.221,6	1.289,3	5,0	0,2	3,8	8,5	3,9
Natur zientz. eta zehatzak	1.060,0	42,3	1.408,0	11,8	42,1	1.150,8	181,9	75,3	32,8	-26,1	24,5	2,9	2,9
Injinerutza/teknol.	8.289,8	24,8	8.518,2	71,4	25,1	4.663,5	2.800,9	1.053,8	2,8	33,6	1,5	4,6	1,9
Medikuntza	676,9	46,2	906,4	7,6	48,0	756,3	86,6	63,5	33,9	-34,3	33,2	0,9	1,0
Nekazaritza zientziak	399,5	47,8	271,9	2,3	44,2	148,8	70,7	52,4	-31,9	-44,5	-34,9	-0,5	-2,7
Gizarte zientziak	926,4	48,3	820,6	6,9	45,0	694,9	81,4	44,3	-11,4	-38,2	-16,0	0,6	0,7

Iturria: Eustat, I+G jardueren buruzko estatistika.

%54,4) eta estaturik dinamikoenetan nahiz berritzaileenetan dagoenaren artekoa da; azken estatu horietan, enpresen gastu osoa guztizkoaren %64koa da.

I+G-ko gastuaren finantziakzioa sektoreka: I+G-ko gastuaren zifra osoaren bi heren (%66) enpresek finantzatzatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, enpresak eta zentro teknologikoak bereizita ikusten direnez, enpresen finantziakzioa guztizkoaren %59,8koa da, Estatuko (%54,4) baino handiagoa, baina Bartzelonako Gailurrean ezarritako helburua (%66) baino txikiagoa.

I+G-n egindako gastua, zientzia diziplinaren arabera: Berriro ere injinerutza eta teknologia nagusitzen da (gastu osoaren %76,9), eta bertatik oso urrun zientzia zehatzak (%9,6), medikuntzakoak (%6,7), gizarte zientziak (%44) eta nekazaritzakoak (%2,4) daude. Horrela, 2003tik 2004ra hazkunde handia ikusi da medikuntzan (+%35,3) eta zientzia zehatzetan nahiz natur zientzietan (+%30), eta beherakada handia nekazaritza zientzietan (-%37,6).

I+G-ko gastua zientzia diziplina bakoitzean, fondoaren jatorriaren arabera: Aurten ere, zientzia edo

gizarte diziplinetan gastua gehienbat Administrazioak finantzatu du. Horrela, 2004an, Administrazioak nekazaritza zientzien %75,4 finantzatu zituen, zientzia zehatzaren nahiz natur zientzien %69,7, medikuntzako zientzien %66,9 eta gizarte zientzien %59,5. Aldiz, injinerutza eta teknologia adarrean, enpresa sektoreak finantzatu du gastuaren %66 baino gehiago. Hala eta guztiz ere, datu hori kontuz erabili behar da; izan ere, Eustatek dioenez, enpresa batek beste batekin proiektua garatzen duenean, azken enpresa horrek I+G proiektu finantzatu batetik lor ditzake fondoak, eta beraz, fondeo jatorrien halako zehaztapen mailara iristea batzuetan ezinezkoa da.

I+Gko langileria EABen: 2003tik 2004ra %5eko hazkundea izan du, hain zuzen ere, 11.925 pertsona eta landun guztien %12,8 (Estatuan %9 eta EBn %10,7), baina oraindik ere nahiko urrun dago lurralderik berritzailetako balioetatik. Frantzia (%14,3), Alemania (%13,2) eta Japonia (%13,5).

I+G-ko langileria, sektorearen arabera: 2003tik 2004ra %5,3ko hazkundea izan du eta 18.337 pertsona dira. Langilerik gehienak enpresa sektorean dabilta. Horrela, I+G-ko jarduerak egiten dituzten langile guztien %49,3 enpresan enplegatutik daude, %32,8 goi hezkuntzako erakundeetan, %13,3 zentro teknologikoetan eta %4,5 Herri Administrazioetan.

Generoaren ikuspegitik egindako azterketak agerian jartzen duenez, emakume kopurua batez bestekotik gorakoa da unibertsitatean, zentro teknologikoetan eta administrazioan, baina enpresan aurkakoa gertatzen da.

Bestalde, aurtan ere, ikertzailea-laguntzako langileria (teknikariak eta laguntzaileak) erlazioa 82-19 da Administrazioan, 90-10 Goi Hezkuntzan, 50-50 enpresa sektorean

eta 73-27 zentro teknologikoetan. Eurostatek emandako datuen arabera, enpresa sektorean, EABko⁷ ikertzaile proportziorik handienak Japonian (%79), Finlandian (%72) eta Norvegian (%71) daude.

I+Gko langileria EABn, zientzia diziplinaren arabera: I+G jardueretan erabateko arduraldia duen langile kopuruak %5eko hazkundea izan du 2003tik 2004ra, eta 2004an 11.925,1 pertsona izan dira. Horietatik %62,2 (7.414 pertsona) ikertzaileak dira.

Halaber, %71,4k injinerutzarekin eta teknologiarekin loturiko jardueretan egiten dute lan (gero eta gutxiago izan arren), eta gainerakoak, berriz, honako diziplina hauetan dabilta: zientzia zehatzetan eta natur zientzie-

I+G INTENTSITATE HANDIKO SEKTOREEN ESTATUKO ZERRENDIA, EINEN ARABERA, OCDEK ERABAKITAKO METODOLOGIAN OINARRITUZ

TEKNOLOGIA ALTUKO MANUFATURA SEKTOREAK

- Industria farmazeutikoa
- Bulegoko makineria eta material informatikoa
- Osagai elektronikoak
- Irrati, TB eta komunikazio aparatuak
- Medikuntza, zehaztapen, optika eta erlojugintzako tresnak
- Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala

TEKNOLOGIA ERTAIN-ALTUKO MANUFATURA SEKTOREAK

- Industria kimikoa, industria farmazeutikoa izan ezik
- Makineria eta ekipak
- Makineria eta aparatu elektrikoak
- Automobilgintza
- Garraioko beste material batzuk

TEKNOLOGIA ALTUA EDO MUTURREKOA DUTEN ZERBITZUAK

- Posta eta telekomunikazioak
- Informatika jarduerak
- Ikerketa eta garapena

EABko EMAKUME LANGILEAK, DIZIPLINA ZIENTIFIKO BAKOITZEAN, OKUPAZIOAREN ARABERA

	Ikertzaileak		Teknikariak		Laguntzaileak		2003-04ko aldaketa		
	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Guztira	Emak. %	Ikertzaileak	Teknikaria	Laguntz.
Guztira	7.414,2	33,1	3.221,6	21,5	1.289,3	39,4	4,1	3,8	16,9
Zientz. zehatzak	1.150,8	42,0	181,9	36,0	75,3	58,2	23,9	91,5	83,3
Injinerutza	4.663,5	27,0	2.800,9	18,4	1.053,8	34,6	3,1	-1,7	15,7
Medikuntza	756,3	45,4	86,6	50,6	63,5	75,7	40,9	53,1	19,7
Nekaz. zientziak	148,8	46,2	70,7	47,9	52,4	34,0	-39,5	-32,5	-34,3
Gizarte zientziak	694,9	43,3	81,4	42,5	44,3	77,2	-22,6	12,7	19,6

Iturria: EUSTAT, I+G jardueren buruzko estatistika.

⁷ Erabateko arduraldiko baliokidetasuna.

tan (%11,8 eta gorantz), gizarte zientzietan (%6,9 eta beherantz), medikuntzan (%7,6 eta gorantz) eta nekazaritzan (%2,3 eta beherantz).

Emakumeak ikerketa arloan duen eginkizuna gero eta handiagoa da (2003an baino bi hamarren gehiago), baina oraindik ere gizonarena baino txikiagoa da (%30,7 eta %69,3). Estatuan, Eustatek dioenez, %37,4koa da. EAEn, emakumearen presentzia handia dago medikuntzan (langile guztien %48 emakumeak) eta gizarte zientzietan (%45).

Okupazioa aintzat hartuta (ikertzaileak, langile teknikoak edo laguntzaileak), emakume ikertzaileen kopurua (langile guztiei dagokienez) handia da nekazaritza zientzietan (%46,2), medikuntza zientzietan (%45,4) eta gizarte zientzietan (%43,3). Emakume ikertzaileen eta teknikarien kopuruak izandako hazkunde oso handia izan da medikuntzan eta zientzia zehatzetan.

2.2.2. EAEko enpresa sektoreko I+G+b jarduerak

Enpresa sektore osoko I+G adierazleak, zentro teknologikoak izan ezik

Eustaten datuen arabera, I+Gko jarduerak egiten dituzten enpresen kopurua (zentro teknologikoak aintzat

hartu barik) 923koa da; horietatik 585 industria sektorekoak dira eta 338 zerbitzu sektorekoak.

Gastua honako sektore hauetan biltzen da: "garraio-ko materiala" (gastuaren %15,9), "I+G jarduerak" (gastuaren %14), "beste makina batzuk" (%8,8), "metalezko gaiak" (%5,9) eta "jarduera informatikoak" (%5,4).

Horrenbestez, I+G-ko enpresa gastuaren zati handia, EInek emandako informazioaren arabera, I+G intentsitateko ertain-altuko sektoreetan egiten ari dira; hala ere, intentsitate ertain-baxuko sektoreetan egindako gastuak ere garrantzitsuak dira (adibidez, metalezko gaiak eta garraio-ko materiala).

I+G jardueretan langilerik gehien duten sektoreak honako hauek dira: I+G jarduerak (sektoreko enplegu osoaren %26), material elektronikoa (%7,78), zehaztapeneko materiala (%7,61), makina-erreminta (%6,2) eta jarduera informatikoak (%4,83).

Finantziarioari dagokionez, EAEko enpresek, ehuneko handi batean, enpresaren beraren fondoekin finantzatzen dituzte I+G-ko gastuak. Hala eta guztiz ere, datu horiek kontuz aztertu behar dira, ezinezkoa baita proiektu askoren finantziarioaren benetako jatorria jakitea. Eustatek

I+G ADIERAZLEAK ENPRESA SEKTOREAN, JARDUERA ADARRAREN ARABERA. 2004

	Enpresa kopurua	EABko langileak (a)	Barruko gastuaren banaketa		Bertako fondoen %	Kanpoko fondoen %	EAEko enplegu guztia (b)	I+G-ko langile guztiak EAEn a/b (%)
			2003	2004				
Guztira	923	6.403,3	407.471 €	460.366 €	80,1	19,9	821.206	0,78
Industria eta eraikuntza	585	4.013,3	68,3	66,8	86,8	13,2	302.394	1,33
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza, erauzketak eta energia	12	72,8	2,0	2,0	93,7	6,3	4.398	1,66
Kimikoa eta petrolioaren finntzea	42	276,9	4,4	3,8	92,3	7,7	6.585	4,21
Kautxua eta plastikoa	33	134,0	1,7	1,7	89,7	10,3	16.908	0,79
Metalezkoa ez den industria	19	67,8	0,8	1,5	86,4	13,6	6.646	1,02
Metallurgia	48	221,3	3,6	4,7	82,4	17,6	22.766	0,97
Metalezko gaiak	98	505,3	6,9	5,9	92,1	7,9	53.206	0,95
Makina-erreminta	30	286,8	3,5	4,0	86,8	13,2	4.656	6,16
Etxe-tresna elektrikoak	6	254,0	4,2	4,4	85,9	14,1	6.495	3,91
Beste makina batzuk	81	370,4	5,9	8,8	96,1	3,9	19.118	1,94
Material elektrikoa	42	323,4	4,2	4,0	88,6	11,4	9.335	3,46
Material elektronikoa	13	240,5	2,5	2,8	92,3	7,7	3.090	7,78
Zehaztapeneko materiala	31	351,0	6,6	4,4	90,1	9,9	4.611	7,61
Garraio-ko materiala	36	714,1	18,9	15,9	77,0	23,0	21.077	3,39
Beste manufaktura batzuk	75	165,8	2,6	2,3	83,8	16,2	43.684	0,38
Eraikuntza	19	29,2	0,3	0,4	72,7	27,3	79.819	0,04
Zerbitzuak	338	2.390,0	31,7	33,2	66,8	33,2	518.812	0,46
Jarduera informatikoak	78	513,5	5,7	5,4	73,8	26,2	10.629	4,83
I+G jarduerak	39	785,0	12,1	14,0	71,5	28,5	3.020	25,99
Beste enpresa jarduerak batzuk	127	640,7	8,3	8,8	52,6	47,4	77.497	0,83
Beste zerbitzu batzuk	94	450,8	22.517	23.132	71,1	28,9	427.666	0,11

Iturria: Eustat, I+G jarduerari buruzko Estatistika.

ESTABLEZIMENDU BERRITZAILEEN %, LURRALDE HISTORIKOAREN, JARDUERA ADARRAREN ETA BERRIKUNTZA MOTAREN ARABERA (P). 2002-2004

	Establezimenduak guztira						9 langiletik gorako establezimenduak					
	Berrikuntza teknologiko mota					Establez. berritzaileak	Berrikuntza teknologiko mota					Establez. berritzaileak
	Guztira	Produk.	Prozes.	Garat.	Hutsa		Guztira	Produk.	Prozes.	Garat.	Hutsa	
Guztira	17,4	5,4	14,9	2,1	0,9	16,8	34,7	13,0	26,6	11,2	3,0	31,9
Lurralde												
Araba	14,2	3,0	11,7	1,5	0,6	13,6	35,9	14,2	26,9	13,2	3,4	31,9
Bizkaia	17,9	4,9	15,6	2,5	0,8	17,5	32,3	13,2	24,7	10,0	2,8	30,1
Gipuzkoa	17,9	7,0	15,1	1,7	1,2	17,0	37,6	12,2	29,3	12,1	3,2	34,6
Jarduera adarra												
Industria	24,2	8,1	19,4	6,8	1,7	22,3	41,1	12,2	29,3	12,1	3,2	36,0
Eraikuntza	8,1	3,3	8,0	3,4	0,0	8,0	11,1	2,4	9,6	4,3	0,5	9,6
Zerbitzuak	18,2	5,4	15,6	1,3	1,0	17,7	36,0	11,0	30,4	7,9	2,1	34,2
Hezikuntza	34,6	2,9	34,1	2,8	1,1	34,3	72,3	10,0	70,6	9,9	3,7	71,3

(p) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta-BTI.

dioenez, enpresen arteko lankidetzaren proiektu batzuetan, finantziarioa publikoa izan daiteke.

Enpresa egituraren berrikuntza teknologikoa

Metodologiaren aldetik, honako hau hartu behar da aintzat:

- Enpresa berritzaileak (merkatuan produktu edo prozesu berriak nahiz berriak sartzen dituztenak) eta jardueren berritzaileak dituzten enpresak desberdinak dira.

Berrikuntzarako jarduerak, izan ere, teknologikoki berriak edo hobetuak diren produktuak edo prozesuak egiteko helburua duten lanak dira (zientziakoak, teknologikoak, antolaketakoak, finantzakoak eta merkataritza-erakundeak, ezagupen berrietan egindako inbertsioa ere barne).

Horien artean, zazpi hauek hartzen dira kontuan: barruko I+G; I+G-ren lorpena (edo kanpoko I+G); makineriaren eta ekipamenduaren lorpena; kanpoko beste ezagupen batzuen lorpena (lizentzien, patenteen eta copyright deritzenen bidez); heziketa; merkaturaren berrikuntzak sartzea; eta diseinua, produktorako edota banaketarako beste prestakuntza batzuk.

- Berrikuntza aipatzen denean, honako bereizketa hau egiten da: produktua, prozesua, bideratua eta huts egindakoa. Hala eta guztiz ere, enpresa berritzaileak aipatzen direnean, produktuko edo prozesuko berrikuntzak dituztenak adierazi nahi ditugu, eta ez bideko edo huts egindako berrikuntzak dituztenak.

EAEko CESei Nazioz gaidiko Sare Atlantikoko (NSA) Berrikuntza Taldean duen partaidetza uste batzuk berresteko aukera ematen digu; uste horiek ez dira geureak soilik, berrikuntzaren azterketan inplikaturiko enpresa talde garrantzitsuenak ere badirelako. Enpresa asko zientziarekin eta teknologiarekin erlazionaturiko kontzeptutzat baino ez dute hartzen berrikuntza. Horrela, horietariko asko, berrikuntza egin arren (produktuaren etengabe-hobekuntza prozesuan edo produktu berriak garatzeko prozesuak ari baitira), ez dira horretaz jabetzen. Horren ondorioz, enpresa horiek ez dira aintzat hartzen berrikuntza estatistiketan, eta berrikuntza zirkuituetatik kanpo gelditzen dira, barruan egoteko aukera eduki arren.

Eustatek dioenez⁸, 2001-2003 aldian, establezimenduen %16,8 berritzaileak izan dira. Ehunekoa %31,9koa da 9 enplegatutik gorako enpresak aintzat hartuta. Horrela, enpresa berritzaileen ehunekoa EAEn 2,2 puntu handiagoa da Estatuan baino, baina kontuan hartu behar da EAEn hez-

⁸ Berrikuntza teknologikoari buruzko inkesta, edozein tamaina eta jardueren sektore duten EAEko enpresei zuzenduta, lehen sektoreko, herri administrazioari eta etxeko zerbitzuak izan ezik (EINen ez bezala hezikuntza ere jasota dago). Hau da, biztanleriaren eremua honako hau da: edozein tamaina duten establezimenduak, honako jardueren sektore hauetakoak, JESN-93 deritzonaren arabera: C, D, E, F, G, H, I, J, K, M, N eta O. Beraz, honako hauek ez dira barruan sartzen: lehen sektorea (A eta B), herri administrazioa (L) eta etxeko zerbitzuak (P).

kuntza sektorea ere barruan sartzen dela. Horri dagokionez, sartze hori eginez, distorsiorako elementua sartzen da, El-Nen estatistikarekiko konparazioa egiteko orduan; izan ere, berrikuntza teknologikoak egiten omen dituzten hezkuntza establezimenduen kopurua oso handia da (9 enplegatutik gorakoen %71,3 eta guztizkoaren %34,3). Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren, establezimendu guztien %17,5ek eta %17k diote berrikuntza teknologikoak egin dituztela, eta horiek dira lurralderik berritzaileenak.

Aurreko aldian ez bezala (industria sektoreak nagusitasun argia batzuen berrikuntzan), 2002-2004an, industria jarduera sektorerik berritzaileena izan arren (establezimendu guztien %22,3 eta 9 enplegutik gorako establezimenduen %36 berritzaileak), zerbitzu sektorearekiko lehentasuna ez da hain argia (establezimendu guztien %17,7 eta 9 enplegatutik gorako establezimenduen %34,2 berritzaileak).

Jarduerako azpisektoreen arabera, industrian aipagarriak dira: Papera, edizioa eta grafikoak (establezimenduen %47,5) eta Industria kimikoa (%43,3). Zerbitzuetan: Hezkuntza (%34,3) eta Enpresei emandako zerbitzuak (%30,8).

Berrikuntza teknologiko motaren arabera, berriro ere nagusitu egiten dira prozesuko berrikuntzak, produktuko berrikuntzei dagokionez, bai 9 enplegatutik gorako esta-

blezimenduetan eta bai 9 enplegatutik beherakoetan. Hain zuzen ere, establezimendu guztiei dagokionez, prozesuko berrikuntzak egin dituztenak %14,9 dira, eta produktuko berrikuntzak egin dituztenak %5,4 baino ez dira. 9 enplegatutik gorako establezimenduetan ehuneko horiek handiagoak dira, baina mantendu egiten da prozesuko berrikuntzaren nagusitasuna, produktuko berrikuntzari dagokionez.

EINek dioenez⁹, Espainiako enpresen %29,7 produktuko edo prozesuko berritzaileak izan dira 2002-2004 aldian (2001-2003 aldian %19,4), eta berrikuntza teknologikorako jarduerak egiten dituztenak %21,14 dira.

CIS3 deritzonak (Third Community Innovation Survey) emandako datuen arabera, EBn (EB-15, Islandia eta Norvegia) aurkako emaitzak egon dira. Horrela, produktuko berrikuntzak egin dituzten enpresen ehunekoa %10ekoa izan da, eta prozesuko berrikuntzak egin dituztenen ehunekoa %7koa.

2004an berrikuntza teknologikorako jardueren gastu osoa, Eustaten arabera, 2.010 milioi eurokoa izan da, hau da, BPGren %3,8koa, eta ehuneko hori 2003koa (%3,9) baino apur bat txikiagoa da.

Gastu horren zatirik handiena berriro ere barruko I+G-n (%38,3) eta makineriaren erosketan (%39,6) egiten da,

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO JARDUERETAN EGINDAKO GASTUA, JARDUERA ADARRAREN, TAMAINAREN ETA JARDUERA MOTAREN ARABERA (P) (GASTUAREN %)

	Guztira (€-ak milatan)		Barruko I+G		Kanpoko I+G		Makineria		Beste ezag. batzuk		Heziketa		Merkatur.		Diseinua eta prestatkun.	
	2003	2004	2003	2004	2003	2004	2003	2004	2003	2004	2003	2004	2003	2004	2003	2004
Guztira	1.836.042	2.010.243	38,6	38,3	12,2	11,4	35,8	39,6	2,3	2,8	2,1	2,1	7,3	4,6	1,6	1,2
Gast. BPGri dagokionez (%)	3,9	3,8	1,5	1,4	0,5	0,4	1,4	1,5	0,1	0,1	0,1	0,1	0,3	0,2	0,1	0,0
Jarduera adarra																
Industria	917.317	964.631	29,5	28,5	13,9	11,9	49,4	53,6	1,7	1,1	1,1	1,1	2,2	2,6	2,3	1,2
Eraikuntza	14.852	15.840	2,3	2,0	7,4	9,3	79,8	72,3	2,2	8,2	8,2	7,0	—	1,2	0,1	—
Zerbitzuak	903.872	1.029.772	48,5	48,0	10,6	11,0	21,2	26,0	3,0	4,2	3,1	2,9	12,7	6,6	0,9	1,2
Enplegu geruzak																
0-2	66.069	153.055	—	0,9	0,6	0,1	86,4	91,3	2,3	3,0	1,5	1,6	9,0	2,8	0,2	0,4
3-9	297.372	393.607	29,9	41,0	10,0	10,6	21,0	26,0	2,9	4,9	2,7	2,8	33,1	14,4	0,4	0,2
10-19	154.948	157.962	38,8	31,9	6,1	20,7	39,3	32,5	5,6	6,9	1,7	2,9	5,6	2,9	3,0	2,2
20-49	278.631	204.095	50,0	28,8	8,0	12,0	33,5	47,3	2,8	2,8	2,1	3,5	2,5	4,1	1,0	1,4
50-99	152.964	153.839	39,5	47,6	13,2	15,3	37,1	24,3	2,9	4,8	3,5	3,1	2,8	3,6	1,1	1,3
100 eta gehiago	886.057	947.685	40,7	44,8	16,0	11,3	36,8	38,9	1,3	0,8	1,9	1,3	1,2	1,4	2,1	1,5

(p) Behin-behineko datuak

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta-BTI.

⁹ EINen Berrikuntza Teknologikoaren Inkestaren biztanleria eremua 10 soldatapeko edo gehiago dituzten enpresak dira, industria, eraikuntza eta zerbitzu sektoreen barrukoak. Beste modu batera esateko, salbuetsita daude 10 enplegatutik beherako enpresak, baita lehen sektore osoa, herri-administrazioa, hezkuntza eta etxeko zerbitzua ere.

hurrenez hurren, BPGren %1,4 eta %1,5. Gastuaren bolumen handienak dituztenak berriro ere industria eta zerbitzu sektorea dira, hurrenez hurren, 964 eta 1.029 milioi euro. Aldiz, eraikuntza ez da 16 milioira iristen.


Gastuak gora egiten du, enpresen tamaina zenbat eta handiagoa izan; hala ere, 3-9 enplegatu bitarteko enpresak oso aktiboak dira (segururik, enpresei zerbitzuak emateko enpresak izango dira, horiek oso berritzaileak izaten baitira), eta 50-99 enplegatu bitarteko enpresak ez dira hain berritzaileak izaten.

Finantziario publikoa izan duten enpresa berritzaileen ehunekoak behera egin du 2001-2003tik 2002-2004ra, eta %36,8tik %29,8ra igaro da. Laguntzen ehuneko aintzat hartuta, establezimendurik gehien laguntzen duen administrazioa Eusko Jaurlaritza da, baina horren garrantzia murriztu egin da beste iturri batzuen alde (esate baterako, Estatuko Administrazioa, EB eta Foru Aldundiak).

Lankidetzari dagokionez, Eustatek emandako datuen arabera, berrikuntza egin duten establezimenduen %3,6k lankidetzak akordioaren bat sinatu dute berrikuntzako edo I+G-ko jarduerari buruz. Akordio horien solaskide nagusiak, izan ere, Zentro teknologikoak (%78,9), Unibertsitateak eta beste institutu batzuk (%57,7) eta Ekipoen hornitzaileak (%56,0) dira.

Tamaina aintzat hartuta, berrikuntza egin duten 10 enplegatu edo gehiagoko establezimenduen artean, %15,7k finantziario akordioaren bat sinatu dute; halaber, aipagarriak dira Zentro teknologikoak (%68,2), Enpresako beste establezimendu batzuk (%39,2) eta Unibertsitateak eta beste institutu batzuk (%37,8).

FINANTZIAZIO PUBLIKOA JASOTZEN DUTEN ENPRESEN %, HORREN JATORRIAREN ARABERA



Iturria: Eustat.

Bestalde, enpresen erdiaren ustez (%51,7), faktore batzuk oztopatu egiten dute berrikuntza teknologikoa. Faktore horien artean, enpresek faktore ekonomikoak nabarmen dituzte, hain zuzen ere, berrikuntzaren kostu handiak (enpresen %43k aipatutakoa) eta gehiegizko arrisku ekonomikoak (enpresen %34,4k aipatutakoa).

10 langileko edo gehiagoko enpresen artean, ehunekoak handiagoak dira, hurrenez hurren, %49,4koa eta %39,7koa.

Barruko faktoreen artean, desberdintasunak daude 9 enplegatu baino gutxiagoko eta gehiagoko enpresen artean. 9 enplegatu baino gehiagoko enpresen kasuan, gehien aipatzen dena pertsonal gaiturik ez egotea da.

EAEn BERRIKUNTZA OZTOPATZEN DUTEN FAKTOREAK, 2002-2004 (ENPRESEN EHUNEKOA)

	Guztiak	10 langile edo geh.
Berrikuntza oztopatzen duten fakt. daude	51,7	64,7
Faktore ekonomikoak	47,8	55,0
Gehiegizko arrisku ekonomikoak	34,4	39,7
Berrikuntza kostu handiak	43,3	49,4
Berrikuntza iturriarik eza	32,3	36,4
Barruko faktoreak	30,5	45,4
Antolaketa zurrunezia	12,6	22,4
Trebatutako langilerik eza	17,2	26,2
Teknologiari buruzko informaziorik eza	19,1	24,1
Merkatuari buruzko informaziorik eza	20,1	22,8
Beste faktore batzuk	25,9	36,0
Arauen malgutasun nahikorik eza	18,7	24,2
Bezeroen sentsibilitaterik eza	19,6	25,7

Iturria: Eustat. Berrikuntza Teknologikoaren Inkesta-BTI.

2.2.3. Enpresen eta, hain zuzen ere, ETEen partaidetza I+G-ko Esparru-programetan


Europar Batasunak emandako datuen arabera, Esparru-programetako azken deialdietan enpresa egituraren partaidetzak beherazko joera izan du. Enpresak dirulaguntzen %40 hartzetik %34 hartzera igaro dira, V. Esparru-programatik VI.era (6 puntuko galera). Aldiz, unibertsitatearen eta ikerketa zentroyen garrantziak gora egin du. Bilakaera hori azaltzen duten faktoreak, izan ere, mundu akademikoko ebaluatzaile kopurua handiagoa izatea eta onetsitako proiektuek orientazio zientifikoa nahiz teknologikoa izatea dira (NSA, Berrikuntza Taldea).

IGTZk Estatutako eta EAerako emandako datuek berretsi egiten dute joera hori, Estatuko garrantzi galera EB-

ESTATUKO ETA EAEKO ITZULKETEN KONPARAZIOA (DIRULAGUNTZAK), AZKEN BI ESPARRU-PROGRAMETAN

	V. EP (1999-2002)				VI. EP (2003-2005)			
	Estatua		EAE		Estatua		EAE	
	€-ak milioitan	Bertik. %	€-ak milioitan	Bertik. %	€-ak milioitan	Bertik. %	€-ak milioitan	Bertik. %
Guztira	625,6		92,9		673,8		83,4	
Enpresak	231,8	37,1	40,2	43,3	221,9	32,9	31,1	37,3
ETEak	70,3	11,2	9,1	9,8	120,3	17,9	17,8	21,3
ETEn dirulaguntza/ enpresen dirul. (%)	30,3%		22,6%		54,2%		57,2%	

Iturria: IGTZ.

ESPARRU-PROGRAMEN DIRULAGUNTZA OSOAREN BANAKETA (EB OSOA), BETEARAZPEN SEKTOREEN ARABERA

Iturria: RTA "Berrikuntza taldea" eta Europar Batasuna.

koa baino txikiagoa izan arren. Horrela, Estatuko enpresek Esparru-programan izandako partaidetza %37,1etik %32,9ra murriztu da V. Esparru-programatik VI.era (4,2 puntu). EAEren kasuan, %43,3tik %37,3ra murriztu da (6 puntuko galera, EBren kasuan bezala). Hala eta guztiz ere, EAEko enpresen garrantzia %37,3koa da, Estatuko eta EBkoa baino handiagoa.

Hala ere, ETEen partaidetzak hazkunde handia izan du, batik bat EAEen; izan ere, bertan, finantziazioaren %9,8tik %21,3ra igaro da, eta EAEko enpresek jasotako dirulaguntza soaren %57,2ra iristen da. Beste modu batera esateko, enpresen partaidetzak behera egin arren, ETEek gero eta presentzia handiagoa dute.

Gaikako lehentasunak aintzat hartuta, EAEk (sektore guztien multzoa) honako programa hauetan hartzen du dirulaguntza bolumenik handiena (Estatuko guztizkoari dago-

ITZULKETAK GAIKAKO LEHENTASUNEN ARABERA, EAEn (2003-2005)

Programak	Dirulaguntza	
	€-ak mil.	Estatuko %
Jardueren koordinaziorako laguntza	1,6	9,1
Aeronautika eta espazioa	8,8	16,3
Ikerketa azpiegiturarako laguntza	0,4	2,0
Elikadura segurtasuna	1,1	3,0
Aldaketa globala eta ekosistemak	0,4	1,41
Hiritarrak eta gobernantza	0,6	10,2
Bizitzaren zientziak, osasunerako genomika	2,0	3,0
Zientzia eta gizartea	0,5	
Energia sistema iraunkorrak	11,9	22,9
Nazioarteko lankidetzak	0,6	6,51
Ikerketa eta berrikuntza	4,8	24,6
Informazioaren gizarterako teknologiak	15,8	9,0
Nanozientziak eta materialak	22,8	27,5
Nest	0	—
EBren politikarako laguntza	2,1	13,0
ETEetarako neurri bereziak	8,2	23,1
Giza baliabideak eta mugikortasuna	0,4	1,6
Azalera iraunkorreko garraioa	1,3	7,4
GUZTIRA	83,4	12,4


Iturria: IGTZ.

kionez): Nanozientziak eta Materialak (%27,5), Ikerketa eta Berrikuntza (%24,6), ETEetarako neurri bereziak (Estatuko itzulketaren %23,1), Energia Sistema Iraunkorrak (%22,9ko itzulketa) eta Aeronautika eta Espazioa (%16,3).

Zientzian eta Gizartean izandako itzulketa handia salbuespenezkoa da. IGTZk emandako informazioaren arabera, 2003-2005ean EAEn Zientzia eta Gizarteari dagozkion itzulketen %75,6 lortu dira, onetsitako jarduerak guztien %30ean.

Itzulketarik baxuenak honako programa hauetan egon dira: Giza Baliabideak eta Mugikortasuna (Estatuko guztizkoaren %1,6), Ikerketa Azpiegiturarako Laguntza (Estatuko guztizkoaren %2), Elikadura Segurtasuna (%3) eta Bizitzaren Zientziak, osasunerako genomika (%3).

INTERNET DUTEN FAMILIEN PROPORTZIOA (2005)



2.2.4. IKT ekipamenduak eta erabilerak EAEko etxeetan eta biztanleen artean

Familiak

Familiak IKT ekipamenduen maila: Eustaten arabera, goranzko joera dauka bideoaren eta antena parabolikoaren kasuan, ordezko batzuen eraginez, esaterako, DVDa eta laster iritsiko den TDTa¹⁰. Horrela, honako hauen presentziak gora egin du: ordenagailua (%48,4tik %50,1era), internet (%34,2tik %36,9ra), telebista (%72,8tik %79,1era), ordaindutako telebista (%7,5etik %8,2ra) eta sakelako telefonoa (%79,5etik %81,2ra).


EINEk emandako datuen arabera, 2005ean EAE hirugarren postuan dago autonomia erkidegoen rankingean, telefono finkoa duten etxebizitzien ehunekoari dagokionez (%92,1); laugarren postuan, ordenagailua eta interneteko konexioa duten etxebizitzien ehunekoari dagokionez (%52,5 eta %37, hurrenez hurren); bosgarren postuan, sakelako telefonoari dagokionez (%81), eta hamalagarren postuan, banda zabaleko konexioa duten etxebizitzien dagokionez (%15,8).

EAE eta EBko estatuaren interneteko konexioa duten familien ehunekoak konparatuta (Eustaten datuak), berriro ikusten da esfortzuak egin behar direla; izan ere, EAEko Estatuko batez bestekoa gainditzen du (%36), baina urrun dago EB-25eko (%48) eta EB-15eko (%53) batez bestekoetatik. Erreferentziak herriak honako hauek dira: Suedia (%73), Danimarka (%75), Luxenburgoko (%77), Islandia (%78) eta Islandia (%84).

IKT ekipamenduen maila, familia motaren arabera: Ordenagailuaren, interneten eta sakelako telefonoaren presentzia gero eta handiagoa da seme-alabak dituzten eta ez dituzten familietan; hala eta guztiz ere, ekipamendu mailarik handiena seme-alabadun familiak dute. Horrela, 2005eko laugarren hiruhilekoan, seme-alabadun familien %96,1ek sakelako telefonoa zuten, %71,7k ordenagailua eta %53,5ek internet. Seme-alabarik gabeko bikoteak bigarren postuan daude, baina besteetatik urrun, kasu kasuko ekipamenduetan, baita sakelako telefonoan ere (%73,3, %25,8 eta %19, hurrenez hurren). Bestalde, pertsona bakarreko etxeak hirugarren postuan daude eta behearazko presentzia dute kasu batzuetan (adibidez, ordenagailua eta internet).

¹⁰ Lurreko Telebista Digitala.

FAMILIAK ETXKO IKT EKIPAMENDUEN ARABERA



Iturria: Eustat, IGIF.

15 urteko edo hortik gorako biztanleak. Ordenagailuak eta interneteko konexioa nahiz erabilera

Etxean ordenagailua edo interneteko konexioa duten 14 urtetik gorako ehunekoa gero eta handiagoa da. Hain zuzen ere, 2004ko eta 2005eko azken hiruhilekoan, ordenagailuaren kasuan 3,9 puntuko hazkundera egon da eta ehunekoa %60,1ekoa da. Etxean interneteko konexioa duten 15 urteko edo hortik gorako biztanleei dagokionez, ehunekoa %39,7tik %45,1era igaro da.

Eurostaten datuen arabera, 2005ean, azken urtean ordenagailua erabili duen biztanleriaren ehunekoa %61ekoa da EB-25ean eta %64koa EB-15ean. Internet erabili dutenen ehunekoa %43koa da EB-25ean eta %46 EB-15ean. Horrenbestez, EAE Europako batez bestekoa dago, baina oraindik ez ditu lortu honako herri hauen ba-

liao: Finlandia (%62), Luxenburgo (%63), Danimarka (%73), Holanda (%74) edo Islandia (%81).

Interneten erabiltzaile kopurua (azken hiru hilabeteetan egunen batean konektatu direnak, hau da, ez da gauza bera etxean konexioa duen pertsona kopurua, horren barruan bi aldagai sartzen baitira: etxetik konektatzea eta etxeak ez diren beste leku batzuetatik konektatu ahal izatea) 691,2 milakoa da (15 urteko edo gehiagoko biztanleriaren %37,6), eta zifra horrek ia bi puntuko hazkundera adierazten du, aurreko urteari dagokionez (%35,7).

EINen datuen arabera, EAE bosgarren postuan dago erabileraren rankingean¹¹ (%44,7), Estatuko batez bestekoa gainera (%41,2), baina Madrilan (%51,2) Melillaren (%48), Kataluniaren (%47,8) eta Balearren (%45,7) azpitik.

Eurostatek emandako datuetan ikustenenez, 2005ean internet azken hiruhilabeteetan erabili zuzenen ehunekoa %51koa da EB-25ean eta %55ekoa EB-15ean.

Generoaren, adinaren, heziketa mailaren eta lan egoeraren arabera azterketan agerian jarri duenez, aldea mantendu egiten da bai konexioan eta bai erabileran, eta horrela, taldeen arteko lubaki digitala dago oraindik; horrek baldintzatu egin dezake gizarte talde desberdinen ongizatea.

Presentzia generoaren arabera: 2004an ez bezala (ordenagailuaren eta interneten antzeko presentzia, 15 urteko edo hortik gorako gizonen eta emakumeen artean —ordenagailuaren kasuan %56 inguru eta interneten kasuan %39 inguru—), 2005ean lehengo egoerara itzuli da eta gizonen artean tasa handiagoak daude emakumeen artean baino (hain zuzen ere, %63 eta %57,3 ordenagailuaren kasuan —5,7 puntuko aldea— eta %47 eta %43,2 interneteko konexioaren kasuan —3,8 puntuko aldea—).


INTERNETEN GUTXIEZ ASTEAN BEHIN KONEKTATZEN DIREN PERTSONEN EHUNEKOA, 2005

	EB25	EB15	BE	CZ	DK	DE	EE	EL	ES	IT	CY	LV	LT	LU	HU	NL	AT	PL	PT	SI	SK	FI	SE	UK	IS
Guztira	43	46	53	26	73	54	54	18	35	28	26	36	30	63	34	74	49	29	28	40	43	62	76	54	81
Gizonak	49	52	58	29	75	62	57	22	40	34	28	37	30	76	34	79	54	31	31	42	47	64	80	61	82
Emakumeak	38	41	48	23	71	47	51	15	30	23	24	36	29	51	33	68	43	28	25	39	39	60	72	47	79
Ikasleak	79	81	88	63	95	88	95	48	77	66	64	81	85	87	71	97	91	74	88	—	79	79	95	86	98
Enplegatuak	55	59	65	33	81	64	63	28	46	39	30	46	38	73	44	85	61	38	34	54	49	76	84	64	85
Autoenplegua	47	51	69	—	74	73	—	20	39	38	22	22	16	66	49	83	59	24	23	—	63	67	79	61	80
Langabetuak	32	38	39	12	68	45	—	14	27	23	29	15	7	45	22	87	39	12	15	—	26	37	80	—	66

Iturria: Eurostat

¹¹ Kasu honetan, Internet azken 3 hilabeteetan erabili duten pertsonen gutzitza da.

ETXEAN ORDENAGAILUA, INTERNET ETA SAKELEKO TELEFONOA DUTEN FAMILIEN %, FAMILIA MOTAREN ARABERA



Interneten erabilera generoaren arabera: Aldea gero eta handiagoa da, aurreko urteari dagokionez, gizonen alde (2004an 6,1 puntukoa eta 2005ean 7,8 puntukoa). 2005eko azken hiruhilekoan, erabileraren tasa %41,6koa izan da gizonen kasuan, eta %33,8koa emakumeen kasuan.

EBn, Eurostaten datuen arabera, gizonen eta emakumeen arteko aldea, interneten erabilerari dagokionez, handiagoa da: 11 puntu gizonen alde, bai EB-15ean (%52 eta %41) eta bai EB-25ean (%49 eta %38).

Presentzia adinaren arabera: Urte honetan ere, ordenagailua eta interneteko konexioa duten biztanleen ehunekoa jaitsi egin dira adinarekin, tasak urterik urtera hobeak izan arren. Horrela, 15-24 adinean oso altuak dira, eta 5,2 eta 7,9 puntuko hazkundea izan dute 2004an eta 2005ean (%87 eta %69,5 hurrenez hurren); aldiz, 45 urtekoen edo hortik gorakoaren artean txikiak dira (%46,4 eta %35,1 hurrenez hurren). 25 eta 44 urte bitarteko taldea bitarteko posizioan dago, eta bertan,aldaketa tasak goranzkoak dira.

Interneten erabilera adinaren arabera: 2005ean, EAEko 15-24 urte bitarteko biztanleen %78,5ek erabiltzen dute, eta 45 urtetik gorakoaren artean ehunekoa %17koa da; hala ere, aldeak apur bat murriztu egin dira aurreko urteko aldi berari dagokionez (62,3 puntutik 61,5 puntura).

Presentzia heziketa mailaren arabera: Datuek agerian jarri dutenez, heziketa maila zenbat eta handiagoa izan, ordenagailuak eta interneteko konexioak hainbat eta presentzia handiagoa dute. Horrela, goi mailako ikasketak dituzten 15 urtetik gorako biztanleen %84,1ek ordenagailua dute, eta ehuneko hori %69,4ra murrizten da bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleen artean, eta %32,7ra oinarritzko ikasketak dituztenen artean. Interneteko konexioari dagokionez, dinamika anitzekoa da, baina ehunekoak txikiagoak dira: %70,6 goi mailako ikasketak dituen taldearen kasuan; %49,7 bigarren mailako ikasketak dituen taldearen kasuan, eta %22,9 oinarritzko ikasketak dituen taldearen kasuan.

Interneten erabilera heziketa mailaren arabera: Goi mailako ikasketak dituzten biztanleen %77,5 erabiltzaileak dira, eta oinarritzko ikasketak dituztenen artean ehunekoak %4,1ekoa da.

Presentzia lan egoeraren arabera: Ikasten edota lanean dauden biztanle taldeek dute interneterako konexiorik eta ordenagailurik gehien, eta tasa horiek nabarmen murrizten dira pertsona ez-aktiboen edota langabetuen artean.

Interneten erabilera lan egoeraren arabera: Ikasten ari diren pertsonen %87,5 interneten erabiltzaileak dira, eta langabetuen edo ez-aktiboen %10,7k baino ez dute erabiltzen; azken talde horretan egoera txarragoa da, 2004ko azken hiruhilekoari dagokionez.

EBn, Eustatek emandako datuen arabera, okupazioa aintzat hartuta, internet gehien erabiltzen dutenak ikasleak dira (EB-25ean %79 eta EB-15ean %81), eta gutxien erabiltzen dutenak langabetuak dira.

Aurreko urteetan bezala, gizarte talde desberdinen aldeak handiagoak dira erabileran; hala eta guztiz ere, hain baztertuak ez diren talde batzuen kasuan (ez-aktiboak eta langabetuak), badirudi erabilera gero eta gehiago hedatzen ari dela, eta talderik baztertuenen artean nola baiteko asetze mailara iritsi da. Beste modu batera esateko, "sartzeko lubakiari" "erabiltzeko lubaki" konplexuagoa gehitzen zaio.

Horrenbestez, lan gehiago egin behar da informazioaren eta komunikazioen teknologia berrien alde; hain zuzen ere, horien inguruko sentsibilizazio eta hurbiltze kanpainak egin behar dira, halako teknologiak lortzeko eta erabiltzeko joerarik gutxien duten taldeen artean, batez ere seme-alabarik ez duten familien edo bakarrik bizi diren pertsonen artean, adin nagusienekoen artean eta tre-

ORDENAGAILUA ETA INTERNETEN KONEXIOA NAHIZ ERABILERA, EAEko 14 URTETIK GORAKO BIZTANLEEI DAGOKIENEZ, EZAUGARRIEN ARABERA (%)

		Ordenagailua etxean			Internet					
					Interneteko konexioa etxean			Erabilera		
		IV 2004	IV 2005	Urt. aldea	IV 2004	IV 2005	Urt. aldea	IV 2004	IV 2005	Urt. aldea
15 urt. edo geh. biztanleak		56,2	60,1	3,9	39,7	45,1	5,4	35,7	37,6	1,9
Sexua	Gizona	56,2	63,0	6,8	40,0	47,0	7,0	38,9	41,6	2,7
	Emakumea	56,2	57,3	1,1	39,4	43,2	3,8	32,8	33,8	1
Adina	15-24	81,8	87,0	5,2	61,6	69,5	7,9	75,6	78,5	2,9
	25-34	63,3	72,9	9,6	42,4	52,7	10,3	58,5	59,7	1,2
	35-44	64,2	68,4	4,2	47,2	49,8	2,6	45,2	47,2	2
	45 eta geh.	44,5	46,4	1,9	30,6	35,1	4,5	14,3	17	2,7
Heziketa maila	L. Hezkuntza	32,3	32,7	0,4	20,0	22,9	2,9	3,3	4,1	0,8
	B. Hezkuntza	63,0	69,4	6,4	43,3	49,7	6,4	41,5	43,9	2,4
	Goi Hezkuntza	82,7	84,1	1,4	65,5	70,6	5,1	79,2	77,5	-1,7
Jarduer lotura	Ikaslea	88,7	93,0	4,3	70,5	76,3	5,8	88,1	87,5	-0,6
	Landuna	65,7	72,4	6,7	46,4	54,5	8,1	46,6	49,6	3
	Ez-akt./lang.	37,8	36,6	-1,2	24,9	25,8	0,9	11,2	10,7	-0,5

Iturria: Eustat "ESIF".

bakuntzarik urrieneko nahiz lan egonkortasunik txikieneko taldeen artean.

Testuinguru honetan, OCDEren Information Technology Outlook 2004 txostenean (argitaratu den azkena) esaten denez, konexio, eduki eta banaketa aukerak ondo konbinatzen dituen politika publikoa lagungarria izan daiteke IKTen hobiarik maximizatzeko. Horrenbestez, beharrezkoa da politikak honako honetan oinarritzea: azpiegituren arloko eskumenean, edukien hornidurari eta eskariari erantzuteko zabalkundean, eta hezkuntza, praktika nahiz heziketa handiagoan, IKTen lorpen hutsean ez gelditzeko.

2.2.5. IKT ekipamenduak eta erabilerak enpresetan

Oinarritzko IKTen zuzkidura (PC, posta elektronikoa, internet eta sakelako telefonoa) enpresetan


Enpresako Informazio Gizarteari buruzko Inkestaren (IGI-enpresak) azken edizioan (Eustatek 2005eko lehenengo hiru hilabetearen egindakoa)¹² ikusitakoaren arabera, EAEko enpresetan berriro ere IKT ekipamenduen hazkunde handiak egon dira 2005aren hasieran, aurreko urtea askoz ere moderatuagoa izan ondoren.

Hedapenik handieneko ekipamendua berriro ere sakelako telefonoa da, gero ordenagailu pertsonala, interneteko konexioa eta posta elektronikoa. Horrela, establezimenduen arabera, enplegatuen esku sakeleko telefonoa jartzen dutenen ehunekoak berriro ere gora egin du eta %71,7koa da (aurreko urtean, ostera, murriztapena egon zen sakelako telefonoaren presentzian). Ordenagailu pertsonala dutenen ehunekoak %64,5koa da eta 4,6 puntuko hazkundea izan du 2004ari dagokionez. Posta elektronikoa dutenen ehunekoak 6,7 puntuko hazkundea izan du eta ehunekoak %48koa da; azkenik, internet dutenen hazkundea 6 puntuko izan da eta ehunekoak ia %52koa da. Jardueraren sektoreen arabera, industria gainerako sektoreei nagusitzen zaie, sakelako telefonoak eraikuntzan duen presentziaren kasuan izan ezik.

Bestalde, halako teknologia erabiltzen dituzten enplegatuen ehunekoak ere hazi egin da, eta kasu guztietan (PC, posta elektronikoa eta internet) %49tik gorakoa da. Jardueraren sektoreen arabera, aurreko kasuan ez bezala, zerbitzuen sektorea nagusitzen da, langilerik gehienak bulegoan baitaude: ekipamenduak bulegoan erabiltzen dira gehien. Gainera, aintzat hartu behar da zerbitzuen sektorean ekipamendu maila oso handiko jarduerak daudela (industria sektorekoak baino handiagoak). Jarduera horien artean, aipagarriak dira teknologia berriei, finantza bitartekaritzari eta enpresetarako zerbitzuei lotutakoak.

¹² Biztanleria eremua edozein tamainatako eta jarduera sektoretako establezimenduak dira, jarduera EAEn garatzen dutenak, lehen sektorekoak eta etxeko zerbitzukoak izan ezik.

IKT EKIPAMENDUEK EAEko ESTABLEZIMENDUETAN IZANDAKO BILAKAERA, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA (ESTABLEZIMENDUEN %)



INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAREN ENPRESA EKIPAMENDUA (IKTAK DITUZTEN ENPLEGATUEN %)

	Ordenagailu perts.			Posta elektronikoa			Internet		
	2004	2005	ald.	2004	2005	ald.	2004	2005	ald.
Guztira (enpleguaren %)	53,1	55,8	2,7	38,6	43,0	4,4	38,6	42,9	4,3
Industria	40,9	41,7	0,8	29,6	31,9	2,3	26,8	28,2	1,4
Eraikuntza	34,9	38,8	3,9	22,7	27,4	4,7	23,9	31,2	7,3
Zerbitzuak	61,3	64,4	3,1	45,0	50,1	5,1	46,1	51,1	5,0

Iturria: Eustat ESI -enpresak.

Enplegu geruzen arabera azterketan ikusten denez, alde handiak daude establezimenduen artean. Horrela, IKTen ezarkuntza (PC, posta elektronikoa eta internet) askoz ere handiagoa da 10 enpleguiko edo gehiagoko establezimenduen artean, txikiagoen artean baino; gainera, 19tik gorakoen artean %90etik gorakoa da. Aldiz, 3 enplegatutik beherako establezimenduetan, ordenagailu pertsonalaren kasuan soilik gainditzen da %50 (hain zuzen ere, %55,3), aldaketa tasa positiboak egon arren.

Hala eta guztiz ere, teknologia horiek erabiltzen dituzten enplegatuen ehunekoa, enpresen tamainaren ara-

bera, ez du enplegu geruzen arabera alde handirik erakusten; izan ere, enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, erabilera ez da beti handiagoa.

Eurostaten datuen arabera¹³, Europako estaturik gehienetan, interneten presentzia asetze mailara iritsi da, bai enpresa handien eta bai ETEen artean. Tamaina desberdineko enpresek duten interneten erabilera konparatzen denean ikusten denez, enpresa handien eta txikien arteko alderik txikiak dituzten estatuak Danimarka, Finlandia, Suedia eta Eslovenia dira.

¹³ "Use of the Internet among individuals and enterprises", Eurostat 12/2006.

ENPRESEN IKT EKIPAMENDUA, TAMAINAREN ARABERA (IKTAK DITUZTEN ESTABLEZIMENDUEN EDO ENPLEGATUEN %)

	Ordenagailu pertsonala				Posta elektronikoa				Internet			
	Establ. %		Enpl. %		Establ. %		Enpl. %		Establ. %		Enpl. %	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005
0-2	49,9	55,3	45,8	49,6	33,0	38,3	28,9	33,2	36,4	42,7	32,5	37,5
3-9	80,0	82,4	54,1	57,2	58,6	63,9	37,1	41,3	62,3	67,8	39,0	44,1
10-19	95,3	96,4	51,8	55,4	82,2	88,0	37,0	41,3	83,9	86,8	39,7	43,4
20-49	95,8	96,9	53,7	54,9	91,4	93,7	38,0	41,7	89,6	92,9	40,6	45,3
50-99	99,6	99,6	56,7	57,4	98,6	98,9	45,3	49,5	96,7	99,4	46,2	51,5
≥ 100	99,2	99,3	55,6	58,3	97,6	99,2	43,8	48,4	97,9	98,5	37,4	39,9

Iturria: Eustat ESI -enpresak.

INTERNETKO KONEXIOA DUTEN ENPRESEN PROPORTZIOA, TAMAINAREN ARABERA, 2005

	EB25	EB15	BE	CZ	DK	DE	EE	EL	ES	IE	IT	CY	LV	LT	LU	HU	NL	AT	PL	SI	SK	FI	SE
Enpresa guztiak	91	92	95	92	97	94	90	92	90	92	92	85	75	86	92	78	91	95	87	96	92	98	96
Handiak	99	99	98	100	100	99	95	100	98	100	99	100	98	100	100	99	97	100	99	100	98	100	100
Ertainak	98	98	99	98	100	99	96	98	96	98	98	99	93	98	98	100	96	99	98	98	98	99	100
Txikiak	90	91	94	91	97	93	88	90	89	90	91	82	71	83	91	74	89	94	84	95	91	98	95

Iturria: "Úse of the Internet among individuals and enterprises", Eurostat 12/2006.

IKT espezializatuagoen zuzkidura

IKT espezializaturik gehienek¹⁴ oraindik ere presentzia maila txikiak dituzten arren, guztien erabilera hazkundeak ikusi dira, sare pribatu birtualaren edo balio erantsiko sarearen kasuan izan ezik. Erabilienak honako hauek dira: fondoen transferentzia elektronikoa (establezimendu guztien %30,6), tokiko sarea edo hedatua (establezimenduen %27,6) eta intranet (establezimenduen %13,6). Bestalde, haririk gabeko sarearen hedapena (wireless) edo extranet oraintsu sartutakoak dira (hurrenez hurren, establezimenduen %4,8 eta %5,5).

Aurreko urteetan gertaturikoaren ildoari jarraituz, teknologia horiek eraikuntzan duten hedapenik urriena, eta industriak eta zerbitzuek antzeko jokabidea dute, teknologiararen arabera aldaketa txikiekin.

Establezimenduaren tamaina berriro ere funtsezko aldagaitza da, halako teknologien ezarkuntza azaltzeko orduan. Izan ere, euren ezaugarrien eraginez, teknologikoki tamaina nahiko handiko establezimenduetara lotuta daude. Horrela, fondoen transferentzia elektronikoa 99 en-

plegutik gorako establezimenduen %67,6k erabiltzen dute, eta 3 enplegatutik beherako establezimenduen kasuan ehunekoa %23,4koa baino ez da. 99 enplegatutik gorako enpresetan, toki sarearen presentzia %97,8koa da, eta 3 enplegatutik beherakoetan, berriz, %15,4koa baino ez da.

IKTen erabilera enpresan: interneten erabilera

Eustaten datuen arabera, enpresak batez ere honako honetarako konektatzen dira internetera: dokumentazioa bilatzeko (2005ean establezimenduen %91,7), banku edo finantza informazioa lortzeko (%61,5), Herri Administrazioarekin tramiteak egiteko (%39,5) eta produktu digitalak jasotzeko edo jaisteko (%33,4). Azken lau kasu horietan, horretarako konektatu den establezimendu kopuruak gora egin du 2004tik 2005era; aldiz, agiriak bilatzeko konektatzen direnen kasuan, badirodi asetze mailara iritsi dela.

Halaber, neurri txikiagoan izan arren, internet hornitzaileen eta bezeroen datu-baseak lortzeko ere erabiltzen

¹⁴ Toki sareak (LAN: Local area network) edo sare hedatuak (WAN: Wide area network), intranet (barne komunikazioen sarea, Interneten protokolo berean oinarrituz sortua; barne komunikazioak ahalbidetzen ditu), extranet (intranet baten luzapen babestua, kanpoko erabiltzaileek bertako elementu batzuk eskuratu ahal izateko), fondoen transferentzia elektronikoa, terminal baten, telefono baten, ordenagailu baten edo zerrenda magnetiko baten laguntzarekin; datu informatizatuen trukea (EDI: e-merkataritza errazten duten aplikazioen lehenengo belaunaldia, enpresen eta hornitzaileen arteko datu truke automatikoa ahalbidetzen baitu, baina beharrezko azpiegituraren kostuak aintzat hartuta enpresa handietara mugatuta gelditu da).

ESTABLEZIMENDUEN %, SAREKO EKIPAMENDUAREN ETA TRUKE INFORMATIKOAREN NAHIZ ELEKTRONIKOAREN ARABERA

	Toki sarea edo hedatua		Hari gabeko sarea (wireless)		Sare pribatu birt. edo balio erantsikoa		Intranet		Extranet		Fondoen transferentzia elektronikoa		Datuen truke elektronikoa (EDI)	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005
Guztira	24,8	27,6	1,9	4,8	6,4	6,4	11,9	13,6	4,4	5,5	27,4	30,6	6,5	7,7
Industr.	35,0	38,3	3,1	5,7	9,3	9,3	14,6	17,4	5,1	5,6	27,0	31,4	8,9	9,0
Eraikuntza	13,6	17,0	0,6	2,3	5,1	1,5	4,3	4,8	1,9	2,4	12,1	14,8	4,2	3,7
Zerbitzuak	25,5	28,1	2,0	5,1	6,3	7,0	13,0	14,6	4,8	6,0	30,1	33,2	6,6	8,2
Enplegu geruzak														
0-2	14,0	15,4	1,1	2,7	3,3	3,3	5,7	5,9	2,1	2,4	20,7	23,4	3,0	4,1
3-9	42,5	48,4	2,9	7,3	10,9	9,7	20,9	24,9	7,3	9,5	41,5	45,3	11,7	12,6
10-19	65,9	70,2	5,4	10,8	20,8	17,2	35,9	43,0	12,5	16,9	47,3	52,8	17,5	19,8
20-49	80,3	84,8	7,1	19,7	24,0	31,1	47,5	52,3	20,8	23,6	50,3	51,6	26,3	28,5
50-99	89,5	94,8	7,2	26,4	21,5	38,2	60,4	73,3	25,0	30,2	52,9	56,8	31,5	36,0
≥ 100	96,4	97,8	17,5	32,9	38,1	51,3	81,3	84,4	40,4	47,4	62,0	67,6	55,1	55,9

Iturria: Eustat IGI -enpresak.

INTERNETEKO KONEKXIOA DUTEN ESTABLEZIMENDUEN %, ERABILERA MOTAREN ETA JARDUERA ADARRAREN ARABERA, EAEN

	Establ. %		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005
Agiriak bilatzea	91,7	91,7	92,3	90,9	90,6	92,0	91,8	91,8
Banku edo finantza informazioa lortzea	59,7	61,5	74,6	75,5	63,1	54,9	57,1	60,5
Banku/finantza transakzioak egitea	48,4	55,4	65,3	70,9	50,9	48,6	45,6	54,2
Herri Administrazioarekiko tramiteak egitea	35,0	39,5	41,0	46,2	38,4	31,7	33,7	39,7
Hornitzaileen eta bezeroen datu-baseetan sartzea	27,5	33,9	29,6	37,0	31,8	30,2	26,6	34,1
Produktu digitalak jasotzea edo jaistea	25,6	33,4	28,7	36,5	21,4	24,0	25,7	34,3
Heziketa: heziketa materialak lortzea	11,8	21,1	8,0	15,5	10,3	16,5	12,6	22,5
Lehiakideak aztertzea	14,9	19,2	23,4	27,2	7,1	12,3	14,8	19,1
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	9,4	13,1	7,8	12,5	7,1	7,8	9,9	13,9
Saldu osteko zerbitzuak lortzea	6,8	10,5	10,2	11,8	2,8	5,3	6,8	11,1
Langileak erreklutatzea	4,7	8,0	5,6	7,9	3,8	5,4	4,7	8,3
Ondasunak eta zerbitzuak saltzea	3,1	3,2	4,7	5,6	0,0	0,2	3,3	3,3

Iturria: Eustat, IGI-enpresak.

da, baita honako honetarako ere: produktu digitalak jasotzeko edo jaisteko, heziketa materialak eskuratzeko, lehiakideak aztertzeko, ondasunak nahiz zerbitzuak erosteko eta saltzeko, saldu osteko zerbitzuak lortzeko eta langileak erreklutatzeko. Horretarako konexio kopuruak gora egin du 2004tik 2005era.

Jardueraren sektoreen arabera konparazioa egitetik ondorioztatzen denez, industria nagusitu egiten zaie gainerako sektore guztiei, erabilera guztietan, honako hauetan izan ezik: dokumentazioaren bilaketa (zerbitzuak eta eraikuntza nagusitzen dira), heziketa materialen lorpena (zerbitzuak eta eraikuntza nagusitzen dira), ondasunen eta zerbitzuen erosketak (zerbitzuak nagusitzen dira) eta langileen erreklutatzea (zerbitzuak nagusitzen dira).

Enpresek teknologia berrien erabilerari dagokionez duten posizioa aztertzeke orduan, beste adierazle garrantzitsu bat interneten presentzia da, bai bertako zerbitzari-ko web orria edukita edo bai kanpoko zerbitzari batean sarturiko web orria edukita. Eustaten azken datuetan ikusten denez, 2004tik 2005era 3,4 puntuko hazkundera egon da. Horrela, interneteko konexioa duten establezimenduen %19,8k web orria dute. Horietatik %8,1ek kanpoko zerbitzarian sartuta dute.

Ehuneko horiek handitu egiten dira establezimenduen tamainarekin (0-3 enplegatuko establezimenduen %10,7tik 100 enplegutik gorako establezimenduen %87,2ra —%54,7k bertako hosting deritzona—), eta aldagarriak dira jardueraren sektoreen arabera; horri dagokionez, aipagarria da industrian web orriek erabilgarritasuna

ESTABLEZIMENDUAK WEB ORRIA EDUKITZEAREN ETA INSTALAZIO URTEAREN ARABERA

	Web orria (establezimenduen %)						Instalazio urtea (web orria duten establ. %)				
	Guztira		Bertakoa		Sartua		2001 eta leh.	2002	2003	2004	2005eko 1. hiruh.
	2004	2005	2004	2005	2004	2005					
Guztira	16,4	19,8	10,9	11,7	5,5	8,1	54,6	13,3	15,8	13,4	2,9
Jarduera adarra											
Industria	21,6	26,4	12,7	13,0	8,9	13,4	51,5	14,6	14,4	15,2	4,4
Eraikuntza	7,2	9,5	4,4	5,7	2,8	3,8	35,3	13,1	40,5	10,5	0,6
Zerbitzuak	17,4	20,8	11,8	12,5	5,6	8,3	56,5	13,2	14,2	13,4	2,9
Enplegu geruzak											
0-2	8,8	10,7	5,7	5,9	3,1	4,8	50,0	12,2	16,8	17,2	3,8
3-9	27,7	33,7	18,9	21,3	8,8	12,4	55,3	14,9	15,9	11,4	2,6
10-19	47,7	55,2	32,7	31,8	15,0	23,4	56,2	15,2	14,8	11,5	2,3
20-49	57,4	64,9	36,1	36,4	21,3	28,5	58,8	10,9	16,5	12,0	1,7
50-99	70,1	80,7	43,0	46,0	27,1	34,7	68,2	12,2	10,4	7,8	1,4
100 eta gehiago	84,5	87,2	58,9	54,9	25,6	32,3	73,9	7,0	10,9	7,7	0,4

Iturria: Eustat. ESI Enpresak.

WEB ORRIA DUTEN ENPRESEN PROPORTZIOA, 2005

	EB25	EB15	EAE	CZ	DK	DE	EE	EL	ES	BE	IE	IT	CY	LV	LT	LU	HU	NL	AT	PL	SI	SK	FI	SE	UK	NO
Guztira	62	64	50	67	82	72	53	56	43	65	60	54	44	29	41	59	40	72	70	49	59	61	76	85	74	67
Manufakturak	63	66		66	u	72	53	55	47	69	67	59	35	26	40	54	40	76	73	52	62	59	86	86	78	76
Eraikuntza	46	47	47	62	66	58	39	42	24	54	40	34	30	20	39	50	33	62	57	39	37	38	53	69	67	61

EAEko datua: 2004ko amaiera.

Iturria: Eurostat eta EIN.

sun handiagoa dagoela eta eraikuntzan orriok presentzia urria dutela.

EINen datuen arabera, 2004an, EAEn web orria zuten enpresen ehunekoa %50ekoa izan zen (2000n %45,1ekoa), Estatuko batez bestekoa baino 7 puntu gehiago, baina Europako batez bestekoetatik behera. Izan ere, Europako estatuetan euren web orria duten enpresen ehunekoaren konparazio ikerketak agerian jarritakoaren arabera (Eurostaten eta EINen datuetan oinarrituz —enpresak, eta ez establezimenduak—), EAEk (enpresa guztien %50) nolabaiteko atzerapena dauka EB-15ari (%64) eta EB-25ari (%62) dagokienez.

Establezimenduen webek eskaintako prestazioei dagokienez, Eustaten datuek adierazitakoaren arabera, gehienek (%98) enpresari buruzko informazio orokorra eskaintzen dute, baita enpresari buruzko zerrenda edo katalogoko orokorra ere (%86-89). Bigarren, establezimenduen weben %17-30ek eskaintako prestazioen beste talde bat dago: saldu osteko zerbitzuak, enplegu eskaintzei buruzko informazioa, babesturiko transakzioak eta informazioaren pribatutasunaren

adierazpena. Hirugarrenez, establezimenduen web orrien %5-9an agertzen diren zerbitzuak eta edukiak daude, adibidez, produktuen zuzeneko banaketa, produktuen/zerbitzuen zuzeneko ordainketa eta eskarien jarraipena.

Ikusten denez, zerbitzuen sektoreko establezimenduek zerbitzuen ezarkuntza eta aniztasun handiagoa eskaintzen dute, industria sektoreko establezimenduek baino. Aldiz, eraikuntza sektorekoek edukien lehenengo taldea baino ez dute eskaintzen, eta gainera, batez bestekotik beherako ezarkuntzarekin.

EAEko egoera (EINen datuetan oinarrituz —enpresak eta ez establezimenduak—) EBkoarekin konparatuta, joera bera ikusten da. Hau da, web orria duten enpresarik gehienek euren produktuak merkaturatzeko erabiltzen dute orri hori, hala ere, EBN zerbitzu hori eskaintzen duten enpresen ehunekoa (web orria duten enpresa guztiei dagokienez) handiagoa da (%87tik gorakoa) EAEn baino (%81). Gehien eskaintzen den bigarren prestazioa, izan ere, prezioen zerrenden eta katalogoen eskaintza da; hirugarrena, berriz, gunea pertsonaliza-

**WEB ORRIA DUTEN EAEKO ESTABLEZIMENDUAK, ESKAINITAKO PRESTAZIOEN ARABERA
(WEB ORRIA DUTEN ESTABLEZIMENDUEN %)**

Eskaintako prestazioa	2004		2005				2005			
	Guztiak	+9 enplegu	Establezimendu guztiak				+ 9 enpleguko establezimenduak			
			Guzt.	Industria	Eraik.	Zerbitz.	Guzt.	Industria	Eraik.	Zerbitz.
Enpresari buruzko informazio orokorra	98,4	98,9	97,3	98,3	95,5	97,3	98,7	98,2	100,0	98,8
Ondasunen eta zerbitzuen zerrenda edo katalogoa	86,3	89,1	85,2	85,1	65,3	86,8	88,7	87,2	72,8	90,8
Informazioaren pribatasunaren adierazpena	29,0	33,5	9,0	5,0	0,1	10,3	8,2	2,6	0,5	11,2
Babesturiko transakzioak	24,2	24,5	11,2	8,7	10,7	11,6	11,2	8,3	7,3	12,7
Saldu osteko zerbitzua	18,8	17,7	19,7	13,5	9,9	21,3	19,0	13,7	13,7	21,7
Enplegu eskaintzei buruzko informazioa	18,0	23,8	7,3	4,2	5,2	7,9	7,7	4,4	3,2	9,4
Produktuen/zerbitzuen zuzeneko ordainketa	8,8	7,3	22,8	13,3	11,3	25,0	25,7	13,3	10,4	32,1
Eskarien jarraipena	8,6	9,8	35,7	23,5	10,0	39,4	39,1	21,4	14,7	48,4
Produktu digitalen zuzeneko banaketa	5,0	5,6	19,4	5,5	13,1	21,8	26,6	6,7	8,4	36,3

Iturria: EUSTAT-ESI enpresak.

ENPRESEN WEB ORRIEK ESKAINITAKO ZERBITZUAK, 2005

	EB25	EB15	EAE	BE	CZ	DK	DE	EE	EL	ES	IE	IT	CY	LV	LT	LU	NL	AT	PL	SI	SK	FI	SE	NO
Enpresako produktuak merkaturatzeko web orria eta interneteko konexioa duten enpresak																								
Guztira	87	88	80,6	94	96	94	89	88	96	87	83	95	97	91	79	56	68	83	89	98	42	89	93	98
Manufakturak	89	91	83,9	96	97	—	92	91	98	83	84	96	96	92	79	56	74	83	92	98	45	92	94	98
Eraikuntza	83	85	83,9	93	96	87	88	79	94	91	71	94	100	93	77	57	42	82	85	99	36	87	91	97
Katalogoak eta prezioen zerrendak errazago lortzeko web orria eta interneteko konexioa duten enpresak																								
Guztira	46	44	52,9	35	49	44	40	49	41	53	40	42	43	52	55	38	70	36	58	50	48	37	42	44
Manufakturak	50	48	54,6	38	50	—	45	50	38	61	42	44	40	58	52	42	76	35	67	u	54	35	44	47
Eraikuntza	24	22	54,6	11	23	14	19	30	26	31	16	14	46	37	49	25	45	18	34	31	38	u	16	17
Ohiko bezeroentzako gunea pertsonalizatzeko web orria eta interneteko konexioa duten enpresak																								
Guztira	24	26	16,3	15	26	31	43	14	11	10	18	12	13	7	5	16	15	10	7	22	15	24	24	25
Manufakturak	16	18	18,2	12	19	u	30	9	7	7	17	10	3	6	4	14	15	9	4	14	7	—	20	26
Eraikuntza	18	20	18,2	6	17	19	39	5	8	5	3	6	11	5	7	15	5	2	2	7	9	—	13	10
Saldu osteko zerbitzuak hornitzeko web orria eta interneteko konexioa duten enpresak																								
Guztira	18	18	6,2	18	13	22	16	13	10	19	12	24	15	21	44	19	14	20	21	20	37	9	19	16
Manufakturak	16	16	5,3	14	11	u	13	11	10	16	11	22	9	18	40	20	10	16	20	17	26	—	17	11
Eraikuntza	10	9	5,3	7	14	20	4	4	1	11	7	18	5	17	43	19	4	17	13	5	39	—	5	6

EAEko datua: 2004aren amaiera.

Iturria: Eurostat eta EIN.

tzeko aukera, ohiko bezeroentzat; eta laugarrena, azkenik, saldu osteko zerbitzuen hornidura. Interneteko konexioa eta prezioen zerrendak nahiz katalogoak eskuratzeko erraztasuna ematen duen web orria duten EAEko enpresa kopurua EBkoa baino handiagoa da (%52,9 eta %44, hurrenez hurren —EB-15en %44 eta EB-25en %46—). Aldiz, azken bi zerbitzu elektroniko horien hedapena (gunea pertsonalizatzeko aukera, ohiko bezeroentzat, eta saldu osteko zerbitzuen hornidura) ez da EB-15eko eta EB-25eko batez bestekoetara iristen.

Amaitzeko, EBko estatu kide askotan bezala, ordenagailuak eta internet oso hedatuta daude 9 enplegatutik gorako enpresa handietan; hala eta guztiz ere, enpresen konexio tasa altua izan arren, merkataritza digital integraleko prozesuak eta lineako jarduerak (IKTek ahalbidetzen dituztenak) gutxi erabiltzen dira. Izan ere, eskari elektronikoaren sistemen barne integrazioa, baita beste funtzio batzuk edo hornitzaileen nahiz bezeroen integrazioa ere, oraindik ez dira ohikoak, eta 9 enplegatutik gorako enpresetan baino ez dira erabiltzen.

Horrenbestez, enpresa handien eta txikien arteko "prestakuntza elektronikoaren lubakia" ez ezik, "lubaki digitala" sortzeko arriskua ere badago, aplikaziorik aurre-ratuenei dagokienez.

2.2.6. Merkataritza elektronikoa¹⁵ EAEn. Familiak eta erabiltzaileak

EiNen datuen arabera, internet erabili eta erreferen-tziako azken hiru hilabeteetan erosketak sarearen bidez egin dituzten pertsonen ehunekoa gero eta handiagoa da EAEn.


Argitaraturiko azken datuek diotenez, 2004aren amaieran:

- Internet erabili eta erosketak sarearen bidez egin dituztenen ehunekoa %10,35ekoa da, Estatukoa baino handiagoa (%9,73).
- Internet erabili eta azken hilabeteetik 3 hilabetera erosketak sarearen bidez egin dituztenen ehunekoa %11,85ekoa da, Estatukoa baino handiagoa (%7,93).

Interneten bidezko erosketek izandako hazkunde hori, besteak beste, lotuta egon daiteke interneten bidezko ordainketan nabaritzen den segurtasunera; izan ere, lau internautatik hiruk segurtasun handia edo nahikoa baitzuen ordainketak internetez egiteko orduan, eta %4,8 baino ez ziren erosketak internetez egitean inolako segurtasunik ez zutenak.

Hala eta guztiz ere, merkataritza elektronikoa EB-15ean eta EB-25ean baino hedapen txikiagoa dauka; izan ere, horien kasuan, erabilera pribaturako produktuak interneten bidez erosi dituztenen ehunekoak, hurrenez hurren, %20koa eta %17koa dira.

MERKATARITZA ELEKTRONIKOA ERABILTZEN DUTEN 15 URTEKO EDO GEHIAGOKO BIZTANLEAK, SAREKO SEGURTASUNARI BURUZKO IRITZIAREN ARABERA. URTEKO BATEZ BESTEKOAK



Iturria: Eustat.

2005ean gehien erosi diren produktuak, EiNek eman-dako datuen arabera, honako hauek izan dira: bidaiak edo oporretarako ostatuak (erositako produktu guztien %55,1), ikuskizunetarako sarrerak (%35,7), liburuak, al-dizkariak edo ikaskuntza elektronikoko materiala (%18,4), material informatikoa (%13,3), ordenagailuko softwarea (%12,3) eta ekipamendu informatikoa (%11,1). Produktu horiek guztiek ez dute aurreko urtean baino ehuneko han-diagorik lortu. Izan ere, material informatikoan eta ekipa-mendu informatikoan beherakadak egon dira.

Datu horiek Espainiako estatuan urte horrexetan lor-tutakoekin konparatuta, aldaketatxoak ikusten dira eros-keten rankingean. Estatuan gehien erosi diren produk-tuak honako hauek dira: bidaiak edo oporretarako ostatuak (ehuneko apur bat txikiagoa, %41,1), ikuskizu-

MERKATARITZA ELEKTRONIKOAREN ADIERAZLEAK

	EB		ESTAT.	EAE
	EB-15	EB-25		
Azken hilean (a) Internet erabili eta erosketak egin dituzten pertsonen %, 2004	—	—	9,73	10,35
Orain dela hilabete baino lehenago (gehienez hiru hilabete) (b) Internet erabili eta erosketak egin dituzten pertsonen %, 2004	—	—	7,93	11,85
Azken hiru hilabeteetan internetez erabilera pribaturako produktuak eta zerbitzuak erosi dituzten pertsonen %, 2005	20	17	8	—

Iturria: Eurostat, EIN

¹⁵ Epigrafe honetan, interneten bidezko merkataritza elektronikoa baino ez da aztertu.

netarako sarrerak (%26,5), liburuak, aldizkariak edo ikaskuntza elektronikoko materiala (%15,7), bideoak edo musika (%12,6) eta ekipamendu elektronikoa (%10,5). EBn, gehien erosi diren bostak bidaiak, liburuak eta aldizkariak, arropa, musika eta filmak eta sarrerak dira.

2.2.7. Teknologia berriak sustatzeko politika

"Euskadi Informazioaren Gizartean" plana Gobernu Kontseiluak onetsi zuen, 2002ko otsailaren 19an.

Horren helburua hau da: "guztionezko Informazioaren Gizartea eraikitzeke proiektuan aurrerapausoak ematea, beharrezko kultura aldaketa, Internetarako konexioa, merkataritza elektronikoen bultzada eta Ekonomia Berriko enpresen indartzea sustatuz, eta Administrazioak dituen on line zerbitzuen eskaintza hobetuz".


Gure helburua hiritarrek eta enpresek erlazioen turiko helburuen jarraipena egitea da.

MERKATARITZA ELEKTRONIKOA: ERABILERA PRIBATURAKO EDO ETXERAKO PRODUKTUEN/ZERBITZUEN EROSKETAK, EROSITAKO PRODUKTU MOTAREN ARABERA (%)

	2004		2005		2005-2004ko aldea	
	Estatua guztira	EAE	Estatua guztira	EAE	Estatua guztira	EAE
Bidaiak edo oporretako ostatuak	43,2	43,3	41,1	55,1	-2,1	11,8
Ikusizunetarako sarrerak	30,9	24,4	26,5	35,7	-4,4	11,3
Liburu, aldizk. edo ikaskuntz. material elektron.	24,7	16,0	15,7	18,4	-9,0	2,4
Material informatikoa	14,0	18,2	9,9	13,3	-4,1	-4,9
Ordenagailurako softwarea	12,6	2,7	10,4	12,3	-2,2	9,6
Ekipamendu elektronikoa	13,5	13,7	10,5	11,1	-3,0	-2,5
Kiroleko arropa edo materiala	9,3	7,9	9,3	8,8	0,0	0,9
Beste produktu edo zerbitzu batzuk	9,3	6,4	6,2	8,5	-3,1	2,1
Bideoak edo musika	17,6	17,6	12,6	8,4	-5,0	-9,1
Ettxerako gauzak	14,2	10,4	8,6	7,8	-5,6	-2,5
Akzioak edo balioak, aseguruak edo beste finantza zerbitzu batzuk	7,0	3,5	4,9	3,2	-2,1	-0,3
Loteriak edo apustuak	1,9	1,6	0,9	0	-1,0	-1,6
ED/EE	0	0	0	0	0	0

Iturria: EIN.

BIZTANLEEK INTERNETEN BIDEZ GEHIEN EROSITAKO ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK, 2005 (%)



Iturria: Eurostat.

EUSKADI INFORMAZIOAREN GIZARTEAN PLANAREN HELBURUEN BILAKAERA.
LEHENENGO ZATIA (HIRITARREN %)

	Hasierako egoera (2001ean)	2005eko helbur.	2005eko emaitzak (IV. hiruhil.)	Lorturik. %
Ekipamendua				
Etxean ordenagailu pertsonala duten familiak	43,5	65	50,1	77,1
Etxean sakelako telefonoa duten familiak	69,2	80	81,2	101,5
Etxean interneteko konexioa duten familiak	24,1	60	36,9	61,5
Erabilera				
Interneten erabiltzaileak	29,2	65	37,6	57,8
Posta elektronikoa erabiltzen duten interneten erabiltzaileak	49	60	81,8	136,3
Merkataritza elektronikoren erabiltz.	16,9	35	22,2	63,4

Iturria: Euskadi Informazioaren Gizartean Plana. Eustat eta EIN.

Hiritarrak

Ekipamenduei eta erabilerari buruzko emaitzen azterketak (2005) agerian jarri du aurrerapauso handiak eman direla 2001eko egoerari dagokionez, baina oraindik ez dira lortu kasu guztietan 2005erako ezarritako helburuak.

Horrela, adierazle batzuen emaitzak itxaropentsuak dira; esate baterako, posta elektronikoa erabiltzen duten interneten erabiltzaile kopurua eta etxean sakelako telefonoa duten familien kopurua (hurrenez hurren, helburuaren %101,5 eta %136,6 lortu da).

Hala eta guztiz ere, merkataritza elektronikoko erabiltzaileen ehunekoari, interneteko erabiltzaileei, etxean interneteko konexioa duten familiei eta etxean ordenagailua duten familien ehunekoari buruzko adierazleek agerian jarri dute oraindik ere bide luzea dagoela egiteko. Aipagarria da interneteko erabiltzaileen ehunekoa; izan ere, arlo horretan helburuaren %57 baino ez da lortu.

Enpresak

Enpresen kasuan, kuantifikatzeko moduko helburuen betetze-mailaren jarraipenak agerian jarri du enpresak hiritarrak baino hobeto integratzen ari direla, Informazioaren Gizartean. Hala eta guztiz ere, jokabide hori ez da homogenea, enpresen tamainaren arabera.

Horrela, 2005ean, 10 enplegatutik beherako enpresek aurrerapauso nabaria eman dute, 2001eko egoerari dagokionez, eta, kasu guztietan helburua %100ean lortu ez arren, bertatik hurbil daude. Aipagarria da web orria duten enpresen kasuan helburuaren %203,7 bete dela.

9 enplegatutik gorako enpresei dagokionez, esan daiteke bete egin dela helburua, interneteko konexioa duten enpresa-establezimenduen ehunekoari dagokionez (helburuaren %99 lortu da). Hala ere, oraindik ere 9 puntu falta dira web orria duten enpresen arloan (helburuaren %92), eta posta elektronikoa erabiltzen duten enpresen arloan emaitza ez da ona izan (helburuaren %52,7 baino ez).

EUSKADI INFORMAZIOAREN GIZARTEAN PLANAREN HELBURUEN BILAKAERA.
BIGARRREN ZATIA(ESTABLEZIMENDUEN %)

	Hasierako egoera (2001ean)	2005eko helbur.	2005eko emaitza	Lorturik. %
Enpresak (10 langile edo gehiago)				
Interneteko konexioa duten enpresak	76,6	92	91,1	99,0
Posta elektronikoa erabiltzen duten enpresak	74,3	91	48,0	52,7
Web orria duten enpresak	29,1	70	63,7	91,0
Mikroenpresak (< 10 langile)				
Interneteko konexioa duten enpresak	23,1	50	48,8	97,6
Posta elektronikoa erabiltzen duten enpresak	20,1	45	44,5	99,0
Web orria duten enpresak	2,6	8	16,3	203,7

Iturria. Euskadi Informazioaren Gizartean Plana, Eustat eta APD jardunaldia. Eusko Jaurlaritzako Administrazio eta Planifikazio Sailburuordetza

3

Inguru naturalaren egoera EAEn


Txarrerako joera duten ingurumen adierazleen artean honako hauek aipa daitezke: ur kontinentalen eta estuarioko uren kalitatea; Negutegi Efektuko Gasen isurpenak, NEG (helburutik gorako hazkundera, hurrenez hurren, %15 eta %35); lurzorua kalitatea, higadurari eta artifizialtasunari dagokionez; kutsadura akustikoa; hondakinen sorrera (hiri hondakinak eta hondakin arriskutsuak); eta hornidura publikorako kontrolaturiko eta banaturiko uraren bolumena eta horren batez besteko prezioa.

Bestalde, Prestigeren hondamenetik (2003) bi urte igaro ondoren, itsasertzeko uren kalitateak hobekuntza ia orokorra dauka; airearen kalitatea ona da, edo, behintzat onargarria, aztertutako azpizona guztietan (airearen kalitate txarreko edo oso txarreko egun kopurua gero eta handiagoa izan arren, eta, bilakaera negatibo hori bada ere, airearen kalitatea ona edo, behintzat, onargarria

da); eta banaketa sarean galdutako ur bolumena %53,9an murriztu da 2003an, 2002ari dagokionez, baina oraindik ere 30,1 Hm³-koa da.

Azkenik, eta EAEn enpresek ingurumenarekiko duten jarrerari dagokionez, Erkidegoa hirugarren postuan dago BPGren gaineko ingurumen gastuan (%0,38), Asturiasen (%0,51) eta Nafarroaren (%0,41) atzetik; gainera, Gaztela-Mantxak izan ezik, gainerako erkidego guztiek murriztu egin dute arlo honetako esfortzua 2001etik 2003ra, euren BPGk gora egin arren.

Ondoko koadroan, Eusko Jaurlaritzaren "Euskadiko 2002-2020ko Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategiako" adierazleen bilakaera dago laburtuta, baita Ingurumen Sailak Estrategiako aldagai bakoitzaren bilakaerari buruz egindako balorazioa ere.


INGURUMEN ADIERAZLEEN LABURPENA, EAEko INGURUMENARI BURUZKO TXOSTENAREN ARABERA. INGURUMEN ADIERAZLEAK, 2005*

Adierazlea	Helburua edo joera	Urteko egoera	Helburua betetzeko aukera
1. Uren kalitate indizea	2012rako, gainazaleko ur-masek egoera ekologiko eta kimiko ona edo oso ona edukitzea. (Helburua: %80)	%38 (2004)	■
2. Karga kutsagarriak ur kontinentaletan eta itsaertzeetan: Elikagaiak: P guztira PO ₄ P N guztira Nitratoak Amonioa Metal astunak: Kobrea Merkurioa Kadmioa Zinka Beruna	2006rako EAEko ubide publikoetara edo itsas lehorreko zonara isuritako karga kutsagarriak %50ean murriztea, 2001ari dagokionez (Helburua: %50)	(2004) - %81 + %58 - %53 + %59 + %43 - %46 + %10 - %70 + %447	■
3. Airearen kalitatea	Europar Batasunak airearen kalitateari dagokionez ezarritako helburuak betetzea. Helburua: airearen kalitate txarreko egun kopurua murriztea)	96 (2004)	■ jarraitzen du ►

INGURUMEN ADIERAZLEEN LABURPENA, EAEko INGURUMENARI BURUZKO TXOSTENAREN ARABERA. INGURUMEN ADIERAZLEAK, 2005*

Adierazlea	Helburua edo joera	Urteko egoera	Helburua betetzeko aukera
4. Kutsagarri atmosferikoen isurpenak a. SO ₂ b. NO _x c. COV	2010erako helburuak - %66 - %31 - %7	(2003) - %39 + %8 - %43	
5. Kutsaturiko lurzoruak. Kutsaturiko lurzoru publikoak suspertzea (termino absolutuetan)	2006rako EAEko lurzoru publiko kutsatuen %20 suspertzea, 2001ari dagokionez (helburua: 34 lurzoru)	32 (2004)	
7. Negutegi efektuko gasen isurpenak	2012rako negutegi efektuko gasen isurpenak murrizteko helburua betetzen laguntzea; Kyoton hitzarturiko helburua. (Espainia + %15, 2008-2012 bitartean, 1990ari dagokionez)	+ %35 (2004)	
8. Hondakinen sorrera a. Hiri hondakinak b. Hondakin arriskutsuak	2012rako hiri hondakinen sorrera (per capita) egonkortzea, 2001eko mailan. (Helburua: 527 kg.) 2006rako hondakin arriskutsuen sorrera egonkortzea, 2000ko mailan. (Helburua: 321.415 tona)	559kg. (2004) 346.491 tona (2003)	 
9. Hondakinen kudeaketa a. Hondakindegirako hiri hondakinen tasa (%) b. Hondakin arriskutsuen balioztatzeko tasa (%)	2006rako hondakindegirako hiri hondakinen kantitatea murriztea, sorturiko kantitate osoaren %75eraino. (Helburua: < %75) 2006rako hondakin arriskutsuen balioztatzeko tasa %51eraino handitzea.	%65 (2004) %51 (2004)	Lortuta Lortuta
10. Zarata	Zarata maila altuen eraginpeko biztanle kopurua murriztea.	%18 (2003)	
13. Ur kontsumoa	Biztanle bakoitzeko ur kontsumoaren goranzko joera aldatzea.	130 (2001)	
14. Energia kontsumoa a. Energia kontsumoa b. Eraginkortasun energetikoa	Murriztapena Aumento	+ %38 (1990-2004) + %14 (1990-2004)	 
15. Materialen kontsumoa a. Materialen Beharrian Osoa b. Eraginkortasun materiala	2006an MBO per capita 1998ko mailetan mantentzea. (Helburua: 81 tona) Hazkundera	97 tona(2003) + %14 (1990-2002)	 
16. Lurzoruaren artifizializazioaren intentsitatea (lurzoru kontsumoa)	Hazkunderik ez	+ %25 (1994-2005)	
18. Nekazaritza arloko jarduketak	2006rako, nekazaritza ekologikorako azalera 300 ha.tan handitzea, 2012rako 600 ha.tan eta 2020rako 2.000 ha.tan. (Helburua: 300 ha.)	909 (2004)	Lortuta
19. EAEko udalerrietan 21. Toki Agendak	2006rako 5.000 biztanletik gorako udalerrri guztiek diseinatuta edukiko dute 21. Toki Agendaren programa (Helburua: 64)	64 (2005)	Lortuta
20. Ingurumen Kudeaketako Sistemak enpresetan (balio absolutuetan)	2006rako Ingurumen Kudeaketako Sistemen 600 ziurtagiri edukitzea (EMAS edo ISO 14001)	7007 (2004)	Lortuta
22. Ekoeraginkortasuna	Erabateko desegokitzapena	Desegokitzapen erlatiboa (2004)	

■ Oraingo politikekin lortzeko moduko helburuak

■ Hain erraz lortuko ez diren edo zalantzaak diren helburuak

■ Oraingo politikekin nekez lortzeko moduko helburuak

* Kapitulu honetan, kasu batzuetan, datu gaurkotuagoak agertzen dira eta horiek ez dira hemen sartu, bestela azken zutabearen egiten den balorazioa subjektiboa izango litzatekeelako.

1. oharra: Finkaturiko helburua duten ingurumen adierazleen bilakaera dago jasota, helburu horretarako erreferentziako urtean oinarrituz (EAEko 2002-2020 Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategiak edo Europako politikek nahiz zuzentaruek ezarritako helburuak).

2. oharra: Taulan jasotako balio guztiak EAEko Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategiatik atera dira, 4. eta 7. adierazleei dagozkienak izan ezik, eta horien helburuak EBk finkatu ditu Espainiako estatuturako.

3. oharra: Ez dira jaso 6., 10., 11., 12., 17. eta 21. adierazleak, horiei buruzko datu edo helburu kuantitatiborik ez dagoelako. 19. adierazlea 2005ekoa da.

2005 Iturria: EAEko Ingurumena. Ingurumen Adierazleak.

3.1. EAEko ingurumen estrategiaren jarraipena: ingurumen adierazleak

3.1.1. Ingurumen kalitatea eta kutsadura

(a) Uren kalitatea

Ur kontinentalen eta itsasoko uren egoera. Makroornogabe bentonikoak¹

Garapen Iraunkorreko Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta lehenengo Ingurumen Esparru Programa (2002-2006), planteatu ere, 2012an gainazaleko ur-masen %80k "egoera" ekologiko eta kimiko ona edo oso ona edukitzea konpromisotzat planteatu ziren.

"Egoera" kontzeptu hori, 2000/60/EE zuzentarauaren arabera (Uren Politikaren arloan jarduketa esparru komunitarioa ezarri duen zuzentara), uretako ekosistemen funtzionamendua modu integratuan islatzen duten faktore guztiak aintzat hartu ondoren zehaztu da. Horrela, hiru adierazle mota erabili dira: Biologikoak, Fisiko-Kimikoak eta Hidromorfikoak.

Zuzentara horren arabera, egoera biologikoaren balorazioa adierazle biologiko bakoitzaren baloraziorik txarrenari dagokio. Beste bi adierazleek, egoera biologikoa-

ren emaitzarekin batera, egoera ekologikoa jakiteko aukera ematen dute.

Aurreko urteetan bezala, egoera biologikorako hurbilketa egin nahi da, makroornogabe bentonikoen emaitzetan (Zuzentaraak adierazitako adierazle biologikoetariko bat) oinarrituriko azterketa partzialaren bidez.


Bai ibaietan eta bai trantsizioko nahiz kostaldeko uretan, laginketa, banaketa, identifikazio eta kalifikazio metodologia ondo ezarrita dagoela eta zaintza sareak bildutako emaitza kopuru handia dagoelako aukeratu da adierazle hau, beste adierazleen kasuan ez baita halakorik gertatzen.

Ur kontinentalen egoera: ibaiak

EAEko ibaien egoera ekologikoaren jarraipen Sareak aztertutako adierazle biologikoen artean, makroornogabe bentonikoak dira erabilgarrienak, ibaietako uren egoera baloratzeko; eta, horiei dagokionez, aztertutako den adierazle biologikoa IBMWP¹ indize biotikoa da (Iberian Biological Monitoring Working Party).

IBMWP indizeak ibaietako makroornogabe bentonikoen komunitateen egoera neurtzen du, eta uretako or-

IBMWP INDIZEAREN BILAKERA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Ekintza Saila.

¹ Halako organismoak ibaien nahiz erreken lurzoruan eta haitzetan zein hostoetan bizi dira. Uretako gorputzetan duten presentzia eta aniztasuna, izatez ere, kalitate ekologikoaren adierazle bikaina da, oso sentikorrak baitira aldaketa fisikoetara, kimikoetara eta fisiko-kimikoetara, eurak bizi diren inguruan. Adierazle onak dira, laginak lortzea erraza delako eta aldaketetarako sentikortasun handia dutelako.

ganismoek jasaten duten ingurumen estresa adierazten du; nolabait ere, adierazle fisiko-kimikoei, biologikoei eta faktore hidromorfiko batzuei buruzko alderdiak islatzen ditu. Uren bost kalitate adierazten ditu, hiru taldetan bilduta: garbiak edo kutsatu gabeak; kutsaduraren bat dutenak; eta kutsatuak edo oso kutsatuak.

Azken urteotako IBMWP indizearen emaitzen bilakaerak, EAE osoari dagokionez, hobekuntza orokorra adierazten du, 90eko hamarkada amaierarekin konparatuz. Hala eta guztiz ere, oraindik ere egoera txarreko tarte handiak daude, batez ere Nerbioi-Ibaizabalen, Debaren eta Oriaren arroan.

Horrela, ur kutsatuen kalifikazioarekin, 2005eko kanpainan lorturiko laginketa estazioen ehunekoa %34koa da. Emaitza horri dagokionez, 1999ko kanpainan, ehunekoa %55ekoa izan zen.

Hala eta guztiz ere, 2005eko kanpainan 2004koan baino emaitza txarragoak lortu dira. Ur kutsatuak dituzten estazioen ehunekoa puntu bateko hazkundera izan du. Gainera, egoerak txarrera egin du 2003ari dagokionez, eta horrek zailtasun jartzen du hoberako joera orokorra.

Ez dago arrazoi argirik emaitzen txarrerako joera edo emaitzen egonkortzea azaltzeko. Arazketa sistemak mar-txan jarri dira oraintsu, adibidez, Urolaren arroan, baina

ez da emaitza bikainik mantendu. Hori ulergarria izan daiteke geure ibaietan, gehien erregimen hidrologikoa oso sentikorra baita prezipitazioekiko.


Estuarioko eta itsasertzeko uren egoera

Aldagai fisiko-kimikoak aztertzeaz gain, Itsasertzeko Uren Kalitatearen Zaintza eta Kontrol Sareak uren kutsaduraren adierazle biologikoak ere erabiltzen ditu. Horrela, koefiziente biotikoa (KB) eta indize biotikoa (IB) garatu da, geruza biguneko makroornogabe bentonikoen komunitetetan oinarrituz. EAEko kostaldearen kalitate biologikoa bilakaera jakiteko aukera ematen du, bi mutur hauen arteko kutsaduraren sailkapena eginez: "kutsadura barik" eta "kutsadura oso handia".

Estuarioan, 2005ean nagusiak dira kutsadura maila desberdinak dituzten laginketa guneak; hain zuzen ere, %66ra iristen dira 1999ko emaitzei dagokienek (%53)

Joera negatibo hori orokortu egin da azken lau laginketa kanpainetan, hau da, estuarioaren barruko aldean kontroleko leku berriak sartu direnetik hona. Egoera arazotsurik gehienak barruko lekuetan eta, beraz, ibaien eraginik handieneko lekuetan daude. Aipagarria da 2005eko kanpainan estuario-estazio guztiak kutsatuta egotea, egindako diagnostikoaren arabera, eta egoera hori 1999koaren antzekoa da.

ESTUARIOAK: INDIZE BIOTIKOAREN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Ekintza Saila.

Urumearen, Debaren eta Artibairen estuarioek izan dituzte emaitzarik txarrenak 2005eko kanpainan.

Itsasertzean egon da, berriro ere, bilakaerarik onena. 2005ean estazioen %53 kutsadura gabekotzat kalifikatu dira, eta 1999an, berriz, estazioen %15 soilik kalifikatu ziren kutsadura gabekotzat. Hala eta guztiz ere, azken urteotako egoerak aditzera ematen du emaitzak egonkortzen ari direla.

Pasaiaiko itsasertzeko (Oiartzun) L-OI10 estazioa 2005ean kutsadura ertaina izan duen bakarra da.

2004an Ibaizabalen Abrako itsasertzean (superportuaren aurrean) dagoen L-N10 estazioari buruzko kutsadura gogorreko diagnostikoa, izan ere, egoera berezi baten eraginezkoa izan zen, 2005ean kutsadura gabekotzat kalifikatu baita.

Bainua hartzeko uren kalitatea

Prestigen hondamenetik bi urte igaro ondoren, garai hartan kutsaturik gelditu ziren bainurako zonarik gehienak ondo daude orain, eta erreferentziako balioak betetzen dituzte. Horrela, 2002an erreferentziako balioak (2. mota) bete eta 2003an balio horiek galdu zituzten (derrigorrezko balioak soilik betez) bainurako 31 zonetatik, bat izan ezik (Zarautz erdia) gainerako guztiak suspertu egin dira.

Hain zuzen ere, Plentzia, Gorliz eskuina, Gorliz erdia eta Gorliz ezkerria (Bizkaian), eta Antilla hondartza eta Kontxa-Nautikoa hondartza (Gipuzkoan), 2004an suspertu barik egon arren, 2005ean suspertu egin dira.


Gros eskuina eta Gros erdia hondartzek galdu egin zuten euren kalitatea, Prestigeren hondamenarekin; 2004an suspertu baina 2005ean berriro narriatu dira.

Bestalde, bainurako beste 10 zona hobetu egin dira 2004tik 2005era, eta beste 14 egonkortu egin dira.

Hondartza inguruko eremuari dagokionez, Bizkaiko 30 zonetatik 17 ontzat kalifikatu dira 2004an (aurreko urtean 19), 12 hobetzeko modukotzat (2004an 10) eta 1 txartzat. Hau da, egoerak txarrera egin du apur bat, 2 onetik hobetzeko modukora igaro baitira. Bestalde, Gipuzkoan 23 zonetatik 18 ontzat kalifikatu dira, 2 hobetzeko modukotzat eta 3 txartzat; 2003tik 2004ra ez da aldaketarik ikusi, ezta 2004tik 2005era ere.

Azkenik, Araban, 2005ean bainurako uraren kalitateak txarrera egin du Ullibarri-Ganboa urtegian, Landako eskuinaldean, eta gauza bera gertatzen da Barrundia urtegiko eskuinaldean ere. Bestalde, hondartza inguruko bost eremuak hobetzeko modukoak dira, eta ez da aldaketarik egon 2003ari eta 2004ari dagokionez.

ITSASERTZA: INDIZE BIOTIKOAREN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Ekintza Saila.

BAINURAKO UREN KALITATEA EAEn, ITSASOKO URAK 2003-2005

Probintz.	Udalerria	Bainuko zona	Laginketa lekua	Bainurako uren kalifikazioa (*)				Hondartza inguruko eremuaren Kalifikazioa (*)		
				2002	2003	2004	2005	2002	2003	2005
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	Arena hondartza	(1)Eskuina	1	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	Arena hondartza	(2)Erdia	1	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Muskiz - Zierbena	Arena hondartza	(3)Ezkerra	1	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Getxo	Ereaga hondartza	(1)Erdia	1	1	1	2	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Getxo	Ereaga hondartza	(2)Ezkerra	1	1	1	2	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Getxo	Arrigunaga hondartza	(1)Erdia	1	1	1	2	Ona	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Getxo	Azkorri hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Hob. mod.	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana - Getxo	Solandotes hondartza	(2)Eskuina	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana - Getxo	Solandotes hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietara hondartza	(1)Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Hob. mod.
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietara hondartza	(2) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Hob. mod.
Bizkaia	Sopelana	Atxabiribil-Arrietara hondartza	(3)Ezkerra	2	1	2	2	Ona	Ona	Hob. mod.
Bizkaia	Plentzia	Plentziako hondartza	(1) Erdia	2	1	1	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(1)Eskuina	2	1	1	2	Hob. mod.	Ona	Hob. mod.
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(2) Erdia	2	1	1	2	Hob. mod.	Ona	Hob. mod.
Bizkaia	Gorliz	Gorlizko hondartza	(3) Ezkerra	2	1	1	2	Hob. mod.	Ona	Hob. mod.
Bizkaia	Bakio	Bakioko hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Hob. mod.	Ona	Ona
Bizkaia	Bermeo	Aritxatxu hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Mundaka	Laidatxu hondartza	(1) Erdia	1	1	1	1	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Sukarrieta	Toña hondartza	(1) Erdia	0	0	0	0	Txarra	Txarra	Txarra
Bizkaia	Sukarrieta	San Antonio hondartza	(1) Erdia	1	1	1	1	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Bizkaia	Ibarrangelua	Laida hondartza	(1) Itsasoa	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelua	Laida hondartza	(2) Itsasad.	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelua	Laga hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ibarrangelua	Laga hondartza	(2)Eskuina	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ea	Eako hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ispaster	Ogeia hondartza	(1)Ezkerra	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Lekaitio	Isuntza hondartza	(1)Eskuina	1	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Mendexa	Karraspio hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Bizkaia	Ondarroa	Arrigorri hondartza	(1) Erdia	1	1	1	1	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Mutriku	Saturraran hondartza	(1) Erdia	0	0	0	0	Txarra	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Mutriku	Mutrikuko hondartza	(1) Erdia	1	1	1	1	Ona	Hob. mod.	Hob. mod.
Gipuzkoa	Mutriku	Ondarbeltz hondartza	(1) Erdia	1	1	1	0	Hob. mod.	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Deba	Debako hondartza	(1) Erdia	2	2	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zumaia	Iburrun hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zumaia	Santiago hondartza	(1) Erdia	0	0	0	0	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Gipuzkoa	Getaria	Gaztetape hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Hob. mod.	Ona	Ona
Gipuzkoa	Getaria	Malkorbe hondartza	(1) Erdia	0	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zaratutz	Zarautzeko hondartza	(1) Eskuina	0	0	0	0	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zarautzeko hondartza	(2) Erdia	2	1	0	0	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Zarautz	Zarautzeko hondartza	(3)Pasealek.	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Orio	Antilla hondartza	(1) Erdia	2	1	1	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Orio	Oribarzar hondartza	(1) Erdia	0	0	0	0	Txarra	Txarra	Txarra
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Ondarreta hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Ondarreta hondartza	(2) Ezkerra	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxa hondartza	(1) Erdia	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxa hondartza	(2) Ezkerra	1	1	1	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Kontxa - Nautiko hondartza	(3) Nautikoa	2	1	1	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Gros/La Zurriola hondartza	(1) Eskuina	2	1	2	1	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Gros/La Zurriola hondartza	(2) Erdia	2	1	2	1	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Donostia-San Sebastian	Gros /La Zurriola hondartza	(3) Ezkerra	2	1	2	2	Ona	Ona	Ona
Gipuzkoa	Hondarribia	Hondarribiako hondartza	(1) Eskuina	2	2	2	2	Hob. mod.	Ona	Ona
Gipuzkoa	Hondarribia	Hondarribiako hondartza	(2) Erdia	2	2	2	2	Hob. mod.	Ona	Ona
Araba	Arrazua-Ubarrundia	E. Ullibarri-Ganboa (Landa)	(1) Eskuina	1	1	2	1	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Araba	Arrazua-Ubarrundia	E. Ullibarri-Ganboa (Landa)	(2) Ezkerra	1	1	2	2	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Araba	Arrazua-Ubarrundia	E. Ullibarri-Ganboa (Isla de Zuaza)	(1) Eskuina	1	2	2	2	Ona	Hob. mod.	Ona
Araba	Barrundia	E. Ullibarri-Ganboa (Garaio)	(1) Eskuina	1	2	2	0	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.
Araba	Barrundia	E. Ullibarri-Ganboa (Garaio)	(2) Ezkerra	2	2	2	2	Hob. mod.	Hob. mod.	Hob. mod.

(*) Bainurako urei eskatzeko moduko gutxieneko kalitate irizpideak Kontseiluaren 76/160/EEE Zuzentarauan (75-XII-8) eta 734/1988 Errege Dekretuan (88-XII-1) ezarrita daude. Derrigorrezko balioak ezarri dira (derrigorrez bete beharrekoak), baita erreferentziako balioak ere, eta osasun ekintzaren helburua horiek lortzea da. Hiru kalifikazio ezarri dira: (*):

2. mota: derrigorrezko eta erreferentziako balioak betetzen dituzte.

1. mota: derrigorrezko balioak betetzen dituzte, baina erreferentziako balioak ez.

0. mota: ez dituzte derrigorrezko balioak betetzen.

(**) Hondartza inguruko eremuaren kalifikazioa hondartza osoari dagokionez egiten da, lekuen arabera bereizketarik egin gabe (adibidez, uraren kasuan). Horrenbestez, hondartza bateko leku guztiak kalifikazio bera edukiko dute, euren arteko desberdintasunak egon arren.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

(b) Airearen kalitatea eta kutsagarri atmosferikoen isurpena

Urriaren 18ko 1073/2002 Errege Dekretuaren helburua "mugako balioak" eta "alertako atariak" zehaztea eta ezartzea da, airean dauden sufre dioxidoaren (SO₂), nitrogeno dioxidoaren (NO₂), partikulen (PM₁₀), berunaren (Pb), bentzenoaren eta karbono monoxidoaren (CO) pilaketek dagokienez; halaber, biztanleei eta Europar Batasunari informazioa eman behar die, erregulaturiko substantziek gizakiaren osasunean eta ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak ekiditeko, aurreikusteko eta murrizteko.

Urriaren 8ko 1073/2002 EDren ondoretarako, "ebaluazioaren" definizioaren barruan, inguruko airean dagoen kutsadura maila neurtzeko, kalkulatzeko edo aurreikusteko erabilitako edozein metodo sartzen da, eta horrek *airearen kalitate indizea* adierazten du.

Airearen kalitate indizea lortzeko, EAEen kontrolleko eta zaintzako sare bat dago, eta horrek parametro batzuk denbora errealean neurtzen ditu; esaterako, honako kutsagarri hauek: sufre dioxidoa (SO₂), nitrogeno dioxidoa (NO_x), karbono monoxidoa (CO), 10 µm-ko ebaketa (PM₁₀) eta troposferako ozonoa (O₃). Neurketa, berriz, EAEko zenbait zonatan banaturiko estazioetan egiten da. Airearen kalitate indizeak hartzeko moduko balioen multzoa, berriz, sei balio-bitartetan biltzen da eta horiei zona jakineko airearen kalitatearekin lotuta dagoen kolo-rea ematen zaie.

Airearen kalitatearen indizearen kalkuluan lorturiko emaitzak, bestalde, zona bakoitzean aintzat harturiko estazioen eragin-aldea adierazten du. Eguneroko airearen kalitate indizea da. Eguneroko aldatu egiten da indizearen balioa, eta beraz, kasuan kasuko zonako airearen kalitateari buruzko informazioa ere aldatu egiten da; horrela, airearen kalitate indize desberdineko zonak egon daitezke.

Orain arte, airearen kalitate indizearen kalkuluan EA-Eko lurraldeko zortzi zona hartu dira kontuan, muga geografikoa, administratiboa, biztanleriarena eta azalera aintzat hartuz.

Azken urteotako ikerketetan kontuan hartu dira O₃-k udan dituen eraginak, kostaldeko zonan kokaturiko estazioetan, baita PM₁₀ partikulek zonetan izandako eragina ere (udazkenean eta neguan); ondoren, lorturiko emaitzak aztertu ondoren, komenigarria izan da EAE hamaika zonatan banatzea (lehengo zortzi zonetan banatu beharrean), airearen kalitatearen ezaugarriak jakiteko.

Zona bakoitzak, halaber, sentsoreak eta azterketarako gailu automatikoak dituzten *estazioak* ditu, eta horiek denbora errealean neurtzen dituzte kutsagarriak (SO₂, NO₂, PM₁₀, O₃ eta CO); horrela, indizea kalkulatzeko.

Estazio bakoitzean kutsagarri bakoitzerako banakako indizea kalkulatzeko, eta hori *indize partziala da. Estazio bakoitzerako indize orokorra bat dator jokabiderik txarrena duen kutsagarriaren indize partzialarekin*. Horrela, estazio bakoitzerako indize orokorra dago. Era berean, zona bateko estazioen indize orokorren baliorik txarrena zona horretako airearen kalitatea zehazten duena da.

Indizearen balioa 0 izango da kutsagarriaren pilaketarik ez dagoenean, eta 100 balioa esleitzen da pilaketa bat datorrenean Errege Dekretuan finkaturiko mugako balioarekin. Indizearen balioa, beste edozein pilaketa baliori dagokionez, interpolazio linealaren bitartez lortzen da.

Airearen kalitate indizeak balio bat izango du esleitu-ta, eta horrela, balio hori zenbat eta handiagoa izan, kasuan kasuko zonako airearen kalitatea hainbat eta txar-rragoa izango da.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontrol Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera,


AIREAREN KALITATE INDIZEA

Ona
Onargarria
Moderatua
Txarra
Oso txarra
Arriskutsua

LURRALDEAREN ZONA-BANAKETA

1. Urbazterra	1. Nerbioi Behea
2. Kostaldea	2. Kostaldea
3. Donostialdea	3. Donostialdea
4. Goierri-Urola	4. Enkarterri
5. Deba Garaia-Ibaizabal	5. Nerbioi Garaia
6. Nerbioi Garaia-Enkarterri	6. Ibaizabal-Deba Garaia
7. Arabako Lautada	7. Urola Garaia
8. Nerbioi Behea	8. Oria Garaia
	9. Arabako Lautada
	10. Ipar Araba
	11. Arabako Errioxa

EAEko AIREAREN KALITATEA 2005EAN (EGUN BAKOITZEAN NEURTUTA)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontroleko Zuzendaritza.


esan daiteke airearen kalitatea ona edo, behintzat, onargarria dela azpizona guztietan.

Hala eta guztiz ere, airearen kalitate txarreko eta oso txarreko indizeak dituen egun kopurua gero eta handiagoa da. Horrela, 2001ean, zortzi estazioetako batez bes-

tekoa 2,9koa zen, eta 2005ean 19,5koa da. Bilakaera negatiboa izan arren, airearen kalitatea ona edo, behintzat, onargarria da.

Hain zuzen ere, 2005ean, aipagarriak dira Goi Deba-Ibaizabal (airearen kalitate txarreko 39 egun eta oso tx-

KUTSAGARRI ATMOSFERIKOEN ISURPENAK EAEn



Iturria: Ingurumena EAEn, Ingurumen Adierazleak, 2005.

AIREAREN KALITATE TXARREKO EDO OSO TXARREKO EGUN KOPURUA, ZONEN ARABERA

	2001	2002	2003	2004	2005
Urbazterra	4	0	0	1	3
Kostaldea	0	0	3	2	6
Donostialdea	1	2	10	20	14
Goierri-Urola	3	2	13	26	37
Deba Garaia-Ibaizabal	6	4	19	22	46
Nerbioi Garaia-Enkarterri	2	3	5	3	5
Arabako Lautada	2	6	14	12	15
Nerbioi Behea	5	4	15	10	30
B. besteko egun kopurua	2,9	2,6	9,9	12,0	19,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Ekintza Saileko Ingurumen Planifikazio, Ebaluazio eta Kontroleko Zuzendaritza, eta Ingurumen Adierazleen txostena (2005).

reko 1 egun), Goierri-Urola (airearen kalitate txarreko 26 egun eta oso txarreko 11 egun) eta Behe Nerbioi (airearen kalitate txarreko 27 egun eta oso txarreko 3 egun), Sailak emandako datuen arabera.


EAEn 2005ean neurturiko kutsagarri bakoitzaren gainditzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Ekintza Sailak emandako datuen arabera, PM₁₀ kutsagarriarako soilik detektatu dira 1073/2002 EDan ezarritako legeko mugen gainditzeak.

2005eko Ingurumen Adierazleen Txosteneko datuen arabera, 1995etik 2003ra bitartean, substantzia azido-tzaileen (NO_x eta SO₂) eta troposferako ozonoaren aurrerarien (NO_x, COV eta CO) isurpenak %14an eta %11n murriztu dira, hurrenez hurren. Lehenengoan ka-


suan, garraioan erabilitako erregai fosiletako sufre kantidadea murriztearen ondorioz; bigarrenen kasuan, berriz, garraioan COV isurpenak murriztearen eraginez.

SO₂-ren eta COV-ren isurpenen bilakaeran ikusten denez, bete egingo dira EBk Espainiako estaturako 2001/81 zuzentarauan finkaturiko helburuak; izan ere, SO₂-ren isurpenak %39an murriztu dira 1990etik 2003ra (helburua %66ko murriztapena), eta COV-ren isurpenak, berriz, %43an murriztu dira (helburua -%77). NO_x-ren isurpenei buruz ezin daiteke gauza bera esan, isurpenok %8ko hazkundea izan baitute 1990etik, helburua %31n murriztea izan arren.

Gaur egun, Europako Batzordea airearen zuzentarauak ebaluatzen ari da, partikuletan irizpide hain zorro-

NEG ISURPENAK EBn, ESTATUAN ETA EAEn ETA 2010ERAKO HELBURUA

**1990-2004 BITARTEKO ALDAKETA NEG
ISURPENETAN SEKTOREKA (%)**



tzik ezarri, eta horrela, airearen kalitatearen hobekuntza arazkoa baino ez da izango, hau da, ez du zerikusirik izango parametro fisikoekin. Beraz, etorkizunean kalitate indize fisikoa ezarri nahi da, arazko aldaketekin zerikusirik ez duena, airearen kalitatea neurtzeko adierazle hobe baiza.

(c) Negutegi efektuko gasen isurpenak

EBk hitzarturiko Kiotoko Protokoloan (Kontseiluak 2002ko apirilaren 25ean harturiko 2002/358/EE Erabakia), konpromisoa hartu zen 2008-2012an negutegi efektuko gasen (NEG) isurpenak %8an murrizteko, 1990eko maila dagokienez. Taldeko helburu hori, gero, estatu mailako kuotetan banatu zen.

Espainiako estatuak CO₂-ren isurpenak %15ean murrizteko konpromisoa dauka, 1990eko mailari dagokionez. Hazkunde hori baimentzeko arrazoia, izan ere, EBko gainerako estatu kideekin konparatuz Espainiako estatua bosgarren postuan egon arren (CO₂-ren isurpenei dagokienez) CO₂ per capita isurpenak aintzat hartuta azkenaurreko postuetan egotea da (Portugalen aurretik bakarrik).

Eustatek argitaraturiko azken datuek agerian jarri dutenez, Europar Batasunean (EB-25) NEG isurpena %8an

murriztu da, oinarri-urteari (1990) dagokionez, eta horren bestez, isurpenen indizeak bete egin du 2010erako finkaturiko helburua.

Espainiako estatuaren egoera kezagarria da; izan ere, isurpenak %15ean handitzeko aukera eduki arren (1990eko maila dagokienez), azken datuek %41 inguruko hazkundeak adierazi dituzte 1990etik 2003ra (berari dagokiona baino 26 puntu gehiago).

EAEen NEG isurpenak Estatuan baino hazkunde txikiagoa izan du 1990etik 2004ra (%35). Isurpenek berriro ere gora egin dute 2000ko eta 2001eko gorakadaren ostean (%23,3tik %18,8ra).

2004an, EAEko NEG isurpenak 20,4 milioi CO₂-koak izan dira, hau da, oinarri-urteko (1990) maila baino %35 handiagoak (%14,8 milioi tona).

Sektorea, 2004an, energia da eragile nagusia (%33) eta horren isurpenek %129ko hazkundea izan dute, 1990ekoei dagokienez. Garraioak isurpenen %25 eragiten ditu (industria sektorea gaindituta, hori azken urtean bigarren eragile nagusia baitzen), %92ko hazkundearekin. Industriak isurpenen %23 egiten ditu, baina ehuneko murriztu duen sektore bakarra da (%26ko murriztapena, 1990ari dagokionez).

Aurreko urteari dagokionez, 2005eko *Ingurumen Adierazleak* txostenean adierazitakoaren arabera, aipagarriak dira isurpenek industria sektorean izandako murriztapena (-%2) eta energiaren (+%13), zerbitzuen (+%12), egoitzaren (+%9) eta garraioaren (+%4) sektoreetan izandako hazkundeak.

(d) Lurzoruaren kalitatea: kutsadura, higadura eta artifizialtasuna

Europar lurzorua narriaduraren adierazpenik ohikoena, izan ere, lurzorua kutsadura (lekutua eta barreriatua), higadura, artifizialtasuna, trinkotzea, gazitzea eta basamortu bihurtzea dira. Kutsadura, higadura eta artifizialtasuna, bestalde, lurzorua narriadura modu identifikagarriak eta lehentasunezkoak dira EAEen.

EAEko industria iraganak eta orainak pasibo bat utzi dute, "Ingurumenaren Egoera EAEen, 2004" txostenean adierazitakoaren arabera: kutsaturik dauden edo egon daitezkeen 8.587 leku, eta horiek azalera osoaren %1,1 betetzen dute.

1990etik 2005era bitarteko aldirian, "Ingurumenaren Egoera EAEen, Ingurumen Adierazleak, 2004" txostenean

esaten denez, kutsaturik dauden edo egon daitezkeen 191 leku ikertu dira, eta horien azalera osoa 582 ha.koa da. Ikerturiko leku guztietatik 95 suspertu dira (227 ha.).

EAEko oraingo egoerari eta higaduraren nahiz artifizialtasunaren arloan aurreikusten diren joerei dagokienez (ikusi Hirigintza eta Etxebizitza kapitulua), esan behar da kezkarriak direla.

Higadura prozesuak mekanismo naturalek eta mekanismo artifizialek eragiten dituzte (babeseko landare estalduraren ezabaketa, luberritzearekin edo halakorik gabe, edo horizonte edafiko baten nahiz batzuen ezabaketa), nekazaritza nahiz baso jardueretan, eraikuntza zein erauzketa jardueretan, basoko suteetan, etab.

“Ingurumenaren Egoera EAEn, 2004” txostenean jasotako Ingurumen Sailaren datuen arabera, EAEn higadura arazo handiaren, oso handiaren edo muturrekoaren eraginpean dagoen azalera %6 ingurukoa izan daiteke. Arazorik handiena Araban dago (lurraldearen %13,7 eta aipagarria da Arabako Errioxan ikusitako eragina), eta neurri askoz ere txikiagoan Bizkaian (%0,6) eta Gipuzkoan (%0,4).

(e) Kutsadura akustikoa edo zarata


Kutsadura akustikoa soinu-iturri desberdinen nahaste konplexua da; soinuok inguruan hedatu eta giza jarduerari estu lotuta daude. Kutsadura akustikoaren iturri nagusia garraioa da, batez ere ibilgailuen trafikoa.

Gaur egun, nazioartean zarata neurtzeko onartzen den neurri-unitatea dezibelak (dB(A))² dira, eta horiek aireko soinu-presioa erreferentziako presioarekin konparatzen dute.

Azken datuek agerian jarri dutenez, inguruko kutsadura akustikoa etengabe hazten ari den faktorea da; eragin kaltegarriak ditu mundu osoko biztanle askoren osasunean eta bizi-kalitatean. Europar Batasunean, biztanleriaren %40 inguru (“Ingurumenaren Egoera EAEn, 2005” txostenaren arabera) 65 dB(A)-tik gorako zarata mailen eraginpean dago (ibilgailuen trafikoa sorturiko zarata); gauez, gainera, biztanleriaren %30 55 dB(A)-tik gorako zarata-presioaren eraginpean dago, eta horrek, OMEk dioenez, nahasteak eragin ditzake loan.

EAEn, lurraldearen orografiaren, hiri ezarkuntzen banaketaren eta komunikazioko bideen trazatu zailaren eraginez, zarata eragin handiko ingurumen faktorea da. Izan

ERREPIDEETAKO ZARATAREN ERAGINPEKO LURZORUAREN ETA BIZTANLERIAREN EHUNEKO EAEn



Iturria: Ingurumenaren egoera EAEn, 2004; Ingurumen Adierazleak, 2005.


ERREFERENTZIAKO BALIOAK ZARATAREN ARLOAN

Barrutia	Gomendaturiko mugako balioa	Osasunaren gaineko eragina, gomend. muga gainditzean
Kanpoko bizigarria	55 dB	Ondoez gogorra, egunez eta iluntzez
	50 dB	Ondoez moderatua, egunez eta iluntzez
Etxebizitza barrua	35 dB	Ahozko komunikazioan interferentzia, egunez eta iluntzez
	30 dB	Lo egiteko arazoak, gauez
Logela	45 dB (kanpoko balioa)	Leihoa irekita, lo egiteko arazoak

Iturria: OME.

² A haztapena: zarata batek gizakiarengan sortzen duen soinu-presioaren eta eduki espektralaren efektua indize bakarrean laburbiltzeko hitzarmena.

KUTSATURIKO LURZORUAK: IKERTUAK ETA SUSPERTUAK



Iturria: EAEko Ingurumen Adierazleen txostena, 2005.

ere, errepideetan sorturiko zarataren eraginez, EAEko %9,3 OMEk gomendaturikoen gaineko soinu-mailen eraginpean dago. Gaueko zifra 53,6koa da.

Biztanleriari dagokionez, "Ingurumenaren Egoera EAEn, 2005" txostenean adierazitakoaren arabera, %18 dago eraginpean (Bizkaian %25, Gipuzkoan %13 eta Araban %3).

Zaratari buruzko 37/2003 Legearen arabera, EAEko 94 udalerri trafikoa garraio-sareetan sorturiko zaratari buruzko mapa egin beharko lukete. Gaur egun, "Ingurumen Adierazleak, 2005" txostenean esaten denez, 21 udalerri ari dira mapa hori egiten.

(f) Hondakinen sorrera eta kudeaketa.

Hondakin Arriskutsuak eta Hiri Hondakinak

Hondakinen kudeaketa ondo planifikatzeko sortzen den lehenengo oztopo handia, izan ere, zenbaketan dau den mugen eraginezkoa da.

EAEko hondakinen zenbaketaren eta inbentarioaren arloan, Europako definizioak eta irizpideak aplikatzen dira; horien arabera, izenaren ondoretarako, hondakin arriskutsuak eta arrisku gabeak bereizi behar dira, eta arrisku gabeko barruan, hiri hondakinak nahiz asimilagarriak gainerakoetatik bereizi behar dira. Hondakinak motaren arabera sailkatzen dira, Hondakinen Europako

Zerrendan (HEZ) jasotzeko izenatariko batzuetan, eta kasuan kasuko HEZ kodea esleitzen zaie.

Izendapenaren eta sailkapenaren arloan aurrerakuntza metodologiko handia egon den arren, oraindik ere bide luzea dago egiteko, batez ere arriskutsuak ez diren hondakinen kuantifikazioari dagokionez. Horrela, EAEko hondakinak zenbatzeko prozesuaren kalitatea eta fidagarritasuna desberdina da. Hondakin Arriskutsuen eta udal Hondakinen Inbentarioek heldutasun maila handia lortu dute. Hala eta guztiz ere, arriskutsuak ez diren gainerako hondakinen inbentarioak finkatzeko metodologia prestakuntza fasean dago.

Hiri Hondakinak (HH)

Lehen esan dugunez, hiri hondakinen kasuan, orain tsu arte horien zenbaketa zenbatespenetan oinarritu da, datu errealean baino gehiago. Bizkaian "Hiri Hondakinen Behatokia" sortu da 1996an, eta horrek garapen handiagoa izan du 1999tik aurrera; behatoki horrek datu fidagarriagoak eman ditu. Gipuzkoan ezarritako sistema informatikoa ez da ondo ibili 1996-97ra arte. Hala eta guztiz ere, industriako, merkataritzako eta erakundeetako hondakin asimilagarriek (IMEHA) ez dute informaziorik hустubideren baten korrante batzuei buruz. Azkenik, Araban ez dago lurralde osoa barruan hartzen duen datu-sailik (IMEHAei dagokienez), eta, 2001ean eta 2003an izan

SORTURIKO HIRI HONDAKINAK (KG/PERTSONA)

	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	Aldaketa 1995-2003
Polonia	285	301	315	306	319	316	287	272	260	-8,8
Lituania	424	400	421	443	350	309	300	288	263	-38,0
Txekiar erres.	302	310	318	293	327	334	273	279	280	-7,3
Eslovakia	340	348	316	316	315	316	390	283	319	-6,2
Letonia	263	263	254	247	244	270	302	369	362	37,6
Errumania	342	326	325	277	314	355	336	383	364	6,4
Estonia	357	383	406	383	394	440	372	406	418	17,1
Grezia	306	344	372	388	405	408	417	422	428	39,9
Belgika	455	450	464	459	460	468	462	462	446	-2,0
Finlandia	414	410	448	466	485	503	466	457	450	8,7
Portugal	385	399	402	423	442	472	472	447	452	17,4
Hungaria	460	468	487	484	482	445	451	457	463	0,7
Suedia	380	397	416	431	428	428	442	468	471	23,9
Turkia	472	501	530	533	536	500	474	479	474	0,4
Eslovenia	596	590		589		584	551	479	479	-19,6
Bulgaria	693	616	577	495	503	516	505	500	499	-28,0
Italia	450	453	463	466	492	502	508	525	523	16,2
EB-25	457	470	485	487	513	520	520	531	534	16,8
EAE	465	476	487	491	503	536	527	535	545	17,2
Malta	338	350	361	385	473	483	550	474	549	62,4
Frantzia	489	500	511	522	523	532	545	557	561	14,7
EB-15	482	495	511	516	545	554	558	574	577	19,7
Holanda	549	563	590	593	599	616	612	615	599	9,1
Espainia	467	492	517	530	576	595	595	588	609	30,4
Austria	438	517	532	532	563	581	578	611	610	39,3
Erresuma Batua	496	507	527	536	562	569	582	600	610	23,0
Alemana	533	543	556	546	605	610	600	640	638	19,7
Luxenburgo	592	589	607	629	650	657	650	653	658	11,1
Danimarka	567	619	588	593	627	665	677	668	675	19,0
Norvegia	626	632	619	647	596	615	635	677	696	11,2
Zipre	600	642	650	664	670	680	703	709	724	20,7
Irlanda	514	524	548	557	580	603	707	698	732	42,4
Islandia	918	940	956	973	983	996	1.006	1.022	1.040	13,3

Iturria: "Waste generated and treated in Europe, Eurostat 2005".

HIRI HONDAKINEN (PER CAPITA) SORRERAREN BILAKAERA EAEn (1990-2003)

	Kg/bizt./urte									Aldaketa 1990-2003
	1990	1992	1994	1996	1998	2000	2001	2002	2003	
Bizkaia	447	456	460	482	490	531	533	536	534	19,5
Gipuzkoa	463	466	473	489	510	535	536	545	548	18,4
Araba	389	397	404	422	451	488	479	505	584	50,1
EAE	445	451	457	476	491	526	527	535	545	22,5

Iturria: EAEko Hiri Hondakinen Inbentario Historikoa (1990-2003)

ezik, horien gaineko informazioa hiriburuari edo lurraldearen gainerako zatiari buruzkoa da.

Salbuespen horiek egin ondoren, esan behar da EAEko HHen sorrerak (per capita) goranzko joera duela. 1990etik 2003ra %22,5eko hazkundera egon da eta 2003an 545 kg/bizt./urte izan da. Zifra hori EB-25eko batez bestekoaren gainetik dago (534 kg/pertsona), eta Italiaren eta Frantziaren mailara iristen da.


Lurralde historikoen arabera, hazkunderik handiena Araban egon da (%50,1), gero Bizkaian (%19,5) eta, azkenik, Gipuzkoan (%18,4).

2002 urtera arte, HHak eta, batik bat, etxeko hondakinak BPGren erritmoan hazi dira (egokitzapena). Hala eta guztiz ere, Bizkaian IMEHAen sorrerak ezegokitzapen zantzuak izan ditu 2001etik 2003ra.

Hondakin Arriskutsuak

EAEko *Hondakin Arriskutsuen Inbentarioak*, 2003an (azken urte erabilgarria), hondakin arriskutsuen 371.821 tona ditu jasota, eta horrek %7,4 inguruko hazkundera adierazten du 2001ari dagokionez; ehuneko hori aurreko aldiko %2,76tik gorakoa da. Urteroko produkzio jarduera-

HONDAKIN ARRISKUTSUEN SORRERAREN BILAKAERA EAEN




Iturria: EAEko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa.

SORTURIKO HONDAKINAK ETA APLIKATURIKO KUDEAKETA MOTA

	GUZTIRA 2002		2003									
	Tonak	%	GUZTIRA		EZABAKETA		ERRAUSK.		BIRZIKLAPENA		BALIO ENERG.	
	Tonak	%	Tonak	%	Tonak	%	Ton.	%	Tonak	%	Tonak	%
01. Meatzeak eta harrobiak	14	0	6	0,002	6	100	0	0	0	0	0	0
02. Oinarritzko produkzioa	196	0	5	0,001	5	100	0	0	0	0	0	0
03. Zurgintza eta papergintza	6	0	9	0,002	9	100	0	0	0	0	0	0
04. Larrugintza eta ehungintz.	23	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
05. Petrolioaren fintzea	7.408	2,1	8.626	2,32	1.842	21,36	0	0	6.779	78,59	5	5,05
06. Ind. kimiko ez organikoa	9.401	2,7	8.827	2,37	8.727	98,87	0	0	100	1,13	0	0
07. Ind. kimiko organikoa	9.203	2,7	10.109	2,72	8.767	86,73	47	0,47	810	8,02	484	4,78
08. Pinturak, bernizak eta tintak	5.386	1,6	6.330	1,70	4.710	74,41	0	0	1.574	24,86	47	0,74
09. Ind. fotografikoa	874	0,2	804	0,22	400	49,79	0	0	404	50,21	0	0
10. Ind. termikoa	158.212	45,7	157.919	42,47	70.078	44,38	0	0	87.832	55,62	10	0,01
11. Metalen trat. eta estal.	90.408	26,1	92.856	24,97	41.195	44,36	0	0	51.640	55,61	21	0,02
12. Metalen mekanizatuak	18.199	5,3	17.001	4,57	14.017	82,45	143	0,84	2.488	14,64	352	2,07
13. Erabilitako olioak	16.748	4,8	20.788	5,59	6.155	29,61	804	3,88	8.348	40,16	5.478	26,35
14. Erabilitako disolbagarriak	2.597	0,7	2.224	0,60	439	19,74	1	0,05	1.784	80,22	0	0
15. Ontziak eta trupuak	4.864	1,4	6.166	1,66	3.888	63,06	2	0,03	2.276	36,91	0	0
16. Beste hondakin batzuk	6.515	1,9	8.270	2,22	3.736	45,18	25	0,30	4.395	53,15	113	1,37
17. Eraikuntza eta eraispina	9.176	2,6	24.128	6,49	24.118	99,96	5	0,02	4	0,02	0	0
18. Osasun zerbitzuak	1.272	0,4	1.306	0,35	194	14,88	1.112	85,15	0	0	0	0
19. Hondakinen tratamendua	3.998	1,2	4.278	1,15	4.163	97,31	0	0	85	1,99	30	0,69
20. Udalekoak eta asimilag.	1.632	0,5	2.170	0,58	4	0,20	0	0	2.165	99,80	0	0
GUZTIRA	346.133		371.821		199.455	51,76	2.142	0,58	170.685	45,91	6.539	1,76

Iturria: EAEko hondakin arriskutsuen inbentarioa, 2003

HONDAKIN ARRISKUTSUEN KUDEAKETA MOTEN BILAKAERA EAEn



Iturria: Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa.

ri loturiko hondakinak albo batera utzita (kutsaturiko lurrak, amiantozko hondakinak eta PCB deritzenak dituzten olioak/aparatuak), hazkundea %3,29ra murrizten da eta hori 2001etik 2002ra loturiko %4,66 baino txikiagoa da.

Hondakinen sorrera BEGen arabera neurtuta (euroak milioietan), ikusten da horrek berriro ere gora egin duela, eta 26,26 tona./urte/miloi eurotik 27,2ra igaro da.

Metalen produkzio eta eraldaketa industria, urte honetan ere, ekarpenik handieneko sektorea da. Bestalde, 2003tik sektore horiek borondatezko konpromisoak hartu dituzte arlo honetan, EAEko Administrazioarekin sinaturiko ingurumen akordioaren bitartez. Bigarren mailan, industria petrokimikoa eta industria kimiko organikoa eta ez-organikoa daude. Hirugarrenez, hondakinaren izaeraren

inguruan sailkaturiko korranteak daude; nagusiak pinturak, erabilitako olioak eta ontziak nahiz xurgatzaileak dira. Azkenik, aipagarria da eraikuntzako eta eraispeneko hondakinek izandako hazkundea (batez ere, lur kutsatuak), lurzorua apurka-apurka garbitzen eta suspertzen joatearen eraginez.

Balioztaturiko hondakinen ehunekoa 1999ko %30,51tik 2003ko %47,66ra igaro da, eta 2006rako finaturiko helburua lortzeko 3 puntu baino ez ditu falta.

Hain zuzen ere, %45,9 birziklatu egin da eta %1,75ean balorazio energetikoa egin da. Aldiz, %51,76aren azken helburua ezabaketa izan da (tratu-mendu fisiko-kimikoa, geldotzea, uztea edo jardura horien konbinazioa), eta guztizkoaren %0,58 baino ez da erraustu.

3.1.2. Baliabide naturalen kontsumoa

(a) Ur gezako baliabideak: ur erakarpina eta kontsumoa

EAEn, hornidura publikorako ur erakarpina 412,2 Hm³-koa izan zen 2003an, EINen *Ur hornidurari eta tratamenduari buruzko inkestan* adierazitakoaren arabera, eta horrek %14,5eko hazkundea adierazten du. Urte honetan ere, erakarpenik handiena enpresak egin du³, hau da, bertan sorturikoa da, beste unitate batzuei eskuraturiko ur bolumena guztizkoaren %23,3koa baino ez baita.

Bertako jatorriko 318 Hm³ uren %87,8 gainazaleko uretatik dator batez ere. 2001ean eta 2002an gertaturikoaren alderantziz (murriztu egin ziren lurpeko uretatik eta gainazaleko uretatik egindako erakarpenak, hurrenez hurren, -%19,7an eta -%1,9an), 2002tik 2003ra gainazaleko uren erakarpenak %11,1eko hazkundea izan du eta lurpeko uren erakarpenak %32,4ko murriztapena izan du.

³ Erakarpenean, ura naturatik erauzi edota hartu eta bildu egiten da, gero erabili ahal izateko. Honen barruan urtegi zerbitzuak sartzen dira, baita oinarritzko arterietatik eta hodiedetatik egindako eramatea ere. Besteak beste, gainazaleko uren erakarpena eta lurpeko uren erakarpena bereizten dira, eta azken hori zundaketen edo zulaketen bidez egiten da.

Gainazaleko ur kontinentalak gainazaleko korrantea dutenak dira, edo lurrazalean bilduta daudenak, hau da, urtegiak. Gainazaleko korrantea duten uren barruan, ubide naturaletako (ibaiek eta errekek) urak eta ubide artifizialetakoak (ureztaketarako, industriarako eta nabigaziorako kanalizazio-sistemak, drainatze sistemak eta erreserba artifizialak) bereizten dira.

Inkesta honen helburuetarako, ibaien ertzetan gertatzen diren iragazpenak gainazaleko uren artean sartzen dira, eta trantsizioko urak, urtegi gaziak eta estuarioak, berriz, ez dira gainazaleko urtzat hartzen eta baliabide hidrikoen beste mota batzuen barruan sartzen dira.

Lurpeko urak, orokorrean, lurpeko erauzketa batetik edo horren bidez erauzten dira, hau da, akuifero batetik ateratzen dira. Akuiferoak, berriz, lurpean dauden ur-biltegi iraunkorrak edo aldi baterakoak dira, bai modu artifizialean eta bai modu naturalean betetzen direnak, eta erabilera jakinerako kalitate nahikoa dute. Atal honetan, iturburuetatik ateratako ura sartzen da. Salbuetsita dago iragazpenetatik ateratako lurpeko ura, horiek gainazaleko uren multzoan sartuko baitira.

EAEEn hornidura publikorako kontrolaturiko eta banaturiko ur osoaren bolumena 213,8 Hm³-koa izan da 2003an, eta horrek %9,2ko hazkundea adierazten du 2002ko bolumenari dagokionez. Bolumen horretatik 114,7 Hm³ (%53,6 eta aurreko urtean %57,6) etxeak hornitzeko

erabiltzen dira; 76,3 Hm³ (%35,7 eta aurreko urtean %32,5) sektore ekonomikoak hornitzeko; 18,8 Hm³ (%8,8) udal kontsumoetarako, eta gainerakoa beste erabilera batzuetarako, Sektore guztietako kontsumoak gora egin duela ikusten da.

EAEko HORNIDURA PUBLIKORAKO KONTROLATURIKO ETA BANATURIKO UR BOLUMENA

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	01/02ko %	02/03ko %
EDATEKOA EZ DEN URAREN ERABILGARRITASUN OSOA (m³-ak milatan)								
GUZTIRA	209.251	231.117	244.038	366.719	361.692	414.212	-1,4	14,5
Enpresak berak egindako erakarpen osoa	205.550	227.453	244.038	329.469	310.034	318.494	-5,9	2,7
Beste unitate batzuei eskuraturiko bolumena				37.249	51.658	95.718	38,7	85,3
Beste enpresa batzuei hornituriko edateko ur bolumena	3.701	3.664	—			0		
ENPRESAK 2000tik EGINDAKO UR ERAKARPENAK (m³-ak milatan)								
GUZTIRA	209.251	231.117	244.038	329.469	310.034	318.494	-5,9	2,7
Gainazaleko urak	207.390	229.048	242.879	256.256	251.387	279.258	-1,9	11,1
Lurpeko urak	1.861	2.069	1.159	33.083	26.574	17.963	-19,7	-32,4
URAREN BANAKETA erabiltzaile multzo handien arabera (m³-ak milatan)								
Hornidurarako kontrolaturiko eta banaturiko ur bolumen osoa	166.026	172.363	187.378	202.231	195.723	213.770	-3,2	9,2
Sektore ekonomikoak	51.463	53.311	55.765	69.502	63.611	76.315	-8,5	20,0
Etxeak	102.542	106.364	117.751	114.528	112.832	114.660	-1,5	1,6
Udal kontsumoak	11.850	12.502	13.206	13.976	15.595	18.831	11,6	20,8
Beste batzuk	171	186	656	4.225	3.685	3.964	-12,8	7,6
Banaketa sarean galdutako ura (a)	69.157	71.724	77.691	71.040	65.371	30.108	-8,0	-53,9
Edatek. ez den uraren erabilgarritasun osoa (b)	205.550	227.453	244.038	329.469	310.034	318.494	-5,9	-2,7
Banaketako sare publikoan galdutako uraren % (a/b)	33,6	31,5	31,8	21,6	21,1	9,5		
Banaturiko uraren zenbat. osoa (€-ak milatan)	95.711	103.380	126.297	129.205	126.297	147.501	-2,3	16,8
Hornidura zerbitzuetako inbertsioaren zenbateko osoa (euroak milatan)	11.828	11.197	1.965	13.344	1.965	1.285	-85,3	-34,6

Iturria: EIN "Uraren hornidurari eta kontsumoari buruzko inkesta"

ETXEETAKO BATEZ BESTEKO UR KONTSUMOA ETA URAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA

	B. besteko kontsumoa*			B. besteko prezioa		
	2002	2003	Aldaketa	2002	2003	Aldaketa
Andaluzia	184	184	0,0	0,69	0,79	14,5
Aragoi	170	169	-0,6	0,62	0,66	6,5
Asturias	158	161	1,9	0,59	0,65	10,2
Balearrak	127	130	2,4	1,48	1,42	-4,1
Kanariak	134	135	0,7	1,67	1,68	0,6
Kantabria	182	185	1,6	0,55	0,6	9,1
Gaztela eta Leon	155	168	8,4	0,49	0,53	8,2
Gaztela-Mantxa	185	184	-0,5	0,52	0,57	9,6
Katalunia	182	183	0,5	0,98	1,04	6,1
Valentziako Erkidegoa	158	163	3,2	0,78	0,83	6,4
Extremadura	165	163	-1,2	0,76	0,73	-3,9
Galizia	131	143	9,2	0,61	0,62	1,6
Madril	166	166	0,0	0,81	0,86	6,2
Murtzia	146	149	2,1	1,08	1,08	0,0
Nafarroa	148	152	2,7	0,63	0,73	15,9
EAE	147	149	1,4	1,14	1,15	0,9
Errioxa	140	136	-2,9	0,44	0,54	22,7
Ceuta eta Melilla	146	139	-4,8	0,68	0,74	8,8
Estatua	164	167	1,8	0,81	0,86	6,2

* Unitatea: litroak/biztanle/egun.
Iturria: EIN.

HONDAKIN UREN BILKETA ETA TRATAMENDUA EAEn (m³/EGUN)

	2001	2002	2003	02/03ko aldak. %
Bildutako hondakin uren bolumena	499.427	485.494	550.531	13,4
Trataturiko hondakin uren bolumena	433.841	422.389	515.848	22,1
Isuritako uraren bolumen osoa	389.155	374.676	542.108	44,7
Berriro erabilitako uraren bolumen osoa	98.500	33.340	8.423	-74,7
Hondakin uren bilketan eta tratamenduan egindako inbertsio gastuen zenbateko osoa (€-ak milatan)	87.624	26.913	39.127	45,4
Saneamenduko kuoten zenbateko osoa (euroak milatan)	90.709	84.725	97.356	14,9

Iturria: EIN. Ur hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta.

Banaketa sarean galdutako urak %53,9ko murriztapena izan du 2002ari dagokionez; 30,1 Hm³ dira eta aurreko urtean 65,3 Hm³. 2003an guztizko erabilgarriaren %9,5 zen eta 2002an, berriz, %21,5. Estatuan, banaketa-sare publikoetan (ihesen, apurtzeen eta abarren eraginez) ur erabilgarri osoaren %18,7 galdu zen.

Bestalde, 2003an, egunero bildutako hondakin uren 550.531 m³-etatik %93,7 (aurreko urtean %87) tratatu egiten da eta hortik %1,6 baino ez da berriro erabili (2001ean %14 eta 2002an %7,9); gainerakoa isuri egiten da. Jarduera horiek 39.127 milioi €-ko gastua eragin dute inbertsioetan, eta horrela, gainditu egin dira 2000ko (26.913 milioi euro) eta 2002ko mailak, baina ez 2001ekoak.

2003ko datuak aurreko urtekoekin konparatuta ikusten denez, bildutako hondakin uren bolumenak %13,4ko hazkundea izan du. Hala eta guztiz ere, berriro erabilitako uraren bolumenak %74,7ko murriztapena izan du.

Uraren per capita kontsumoari dagokionez, hori eguneko 149 litrokoa da eta horrek %1,4ko hazkundea adierazten du 2002ari dagokionez; horrela, Estatuko batez bestekotik behera kokaturik gaude, bertan per capita kontsumoak berriro ere gora egin baitu (eguneko 167 litrokoa da). EAE osterara ere zazpigarren postuan dago batez besteko kontsumoan. Aurretik Balearrak, Kanariak, Errioxa, Ceuta eta Melilla, Galizia eta Murtzia daude (2002an aurretik zeuden erkidegoak).

EAEn uraren batez besteko prezioa, 2002an, 1,15 euro/m³ da (Estatuan 0,86 euro/m³), 2002an ordaindutako batez besteko prezioa baino %0,9 garestiagoa. Estatuan %6,2ko garestitzea egon da.

Urte honetan ere, EAE hirugarren postuan dago, Kanariaren eta Balearren atzetik, uraren batez besteko prezioari dagokionez, eta hori harrigarria da.

3.1.3. **Materialen kontsumoa: materialen beharizan osoa (MBO⁴)**

EAEtik mugiarazitako materialen jarioak azken kontsumitzaileek (pribatuak eta publikoak) eskatzen dituzte, baita bitarteko kontsumitzaileek ere (jarduera ekonomikoak). Jario horietariko batzuk EAEn sortzen dira eta beste zenbait, berriz, bertatik kanpo. Orain ez daukagu datu kuantitatiborik, unitate fisikoetan adierazitako daturik, materialen balantze hori eskaini ahal izateko, bai EAEn eskatzen direnei (MBO) eta bai EAEn kontsumitzen direnei (MEK) dagokienez. Lan hori orain egiten ari dira.

MBO, besteak beste, input-output tauletako balantze ofizialek emandako informazioan oinarrituz kalkulatzen da, eta horiek, berriz, urte batzuk beranduago argitaratzen dira. Azken datuak 2000ri buruzkoak dira eta ondorengoak zenbatespenak dira.


Datu horiek adierazitakoaren arabera, 1990etik 2003ra EAEko MBOk %24ko hazkundea izan du, eta biztanle bakoitzeko 79 tonatik 97 tonara igaro da. MBOren balio hori kontrajarri egiten zaio Estaturako 2000n eta EB-15erako 1997an kalkulaturikoari, horiek 50 tonakoak (per capita) baitira ("Ingurumen Adierazleak, 2005"). Izan ere, EAEko ekonomia batez ere industrian oinarritzen da.

EAEko MBO osatzen duten material mota nagusiak aztertuta ikusten denez, metalezko materialen osagaia nagusitu egiten zaie gainerako guztiei, eta azken urte-oro

⁴ Materialen Beharizan Osoa (MBO): Wuppertal Institutuak garaturiko adierazle honek ekonomia jakinak sorturiko ondasunen barruko baliabide naturalen kantitatea (tonatan) adierazten du, baita produkzio horri loturiko ezkutuko jarioak ere.

Ezkutuko jarioak kontzeptuak MBO lortzeko prozesuaren eraginez mugiarazitako materia kantitatea adierazten du (zuzeneko materialaren inputa), ekonomiatik kanpo gelditzen dena. ZMI, izan ere, industria ekonomia jakinean prozesatzeko sartzen diren baliabide materialen jarioa da.

ERAGINKORTASUN MATERIALA ETA MBO



Iturria: Ingurumena EAEn. Ingurumen Adierazleak, 2005.

EKOERAGINKORTASUN OROKORRA ETA SEKTORIALA EAEn: EGOERA, BILAKAERA ETA BALORAZIOA

Adierazlea	Egoera eta joera	Joeraren balorazioa
Ekonomia orokorrean	1990-2004 aldian ezegokitze erlatiboko prozesua ikusten da, hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren artean; izan ere, ingurumen presio nagusiak (NEG isurpenak, hiri hondakinen sorrera, energia kontsumoa, materialen kontsumoa) hazi egin dira, baina BPG baino gutxiago.	Aurrerapauso batzuk, baina ez da nahikoa
Garraioa	EAEko ekonomiak 1990-2004 aldian izandako BPGren hazkundearekin batera, hazkunde handiagoak egon dira garraioak sorturiko ingurumen presio batzuetan. Esate baterako, garraio sektoreko energiaren kontsumoaren hazkundearen eraginez (%88), bertako NEG isurpenek ere hazkundea izan dute (%92). Aldi berean, autobide eta autobia sarearen luzerak ere %43ko hazkundea izan du. 2004an, aipagarria da ingurumen presio nagusiek gorako joera izan dutela.	Tendencia desfavorable
Industria	1990-2004 bitarteko aldian, industria sektoreko balio erantsi gordinak %68ko hazkundea izan du, eta sektore horrek sorturiko ingurumen presio nagusiek behera egin dute. NEG isurpenek behera egin dute (%26), eta hondakin arriskutsuen sorrerak ere behera egin du (%13). Azken urteko bilakaera aztertuta ikusten denez, BEGen hazkundearekin batera, industria sektorean, hazkundea egon da hondakin arriskutsuen sorreran eta energiaren kontsumoan, baina NEGen isurpenak murriztu egin dira 2003koei dagokienez.	Tendencia favorable
Egoitza sektorea	1990-2004 bitarteko aldian, etxetako gastuan izandako hazkundea (%40) estu lotuta egon da ingurumen presioek sektorean izandako hazkunderi. 1990etik energiaren kontsumoak %55eko hazkundea izan du, NEG isurpenek %45eko hazkundea eta hiri hondakinen bolumenak %27ko hazkundea. 004an, aztertutako aldagai guztien hazkundea ikusi da: energiaren kontsumoa (%8), NEG isurpenak (+%9), hondakinen sorrera (+%3) eta turismo kopurua (+%3).	Tendencia desfavorable
Energiaren eraldaketa	1990-2004 bitarteko aldian, energia eraldatzeko sektorean (petrolioaren fintzea eta elektrizitatearen sorrera) produkzioak %13ko hazkundea izan du. Sektoreko jardueran izandako hazkunde horrekin batera, NEG isurpenetan %129ko hazkundea egon da, batik bat Pasaiaiko eta Santurtziko zentral termikoen produkzioak izandako hazkundearen eraginez. 2004an, aipagarria da energiaren produkzioaren hazkundearen eraginez (+%3) sektoreko NEG isurpenek %13ko hazkundea izan dutela.	Tendencia desfavorable

Iturria: Ingurumena EAEn, Ingurumen Adierazleak, 2005.

tan guztizkoaren %40ra iritsi da. Horrek agerian jartzen du EAEko industria sektorearen garrantzia, batik bat oso intentsiboak diren azpisektoreetan (adibidez, metala, mekanika edo garraioko materiala). Sektore horiek metalezko material kantitate handiak behar dituzte eta horiek ezkutuko jario handiak dituzte lotuta ("Ingurumenaren Egoera EAEn, 2004").

Bestalde, materialen jarioaren azterketak Produktibitate Materiala (BPG, MBOren arabera) izeneko kontzeptua erabiltzen du materialaren ekoeraginkortasunaren adierazletzat. Azken datu erabilgarriak agerian jarri dute, materialen kontsumoko eraginkortasunak %22ko hazkundera izan zuen 1990-2003 aldian; hau da, produktibitate materialak (PBG/MBOtzat neurtuta) hazkunde handia izan zuen. Hala eta guztiz ere, 1997-2003 aldian, eraginkortasunak %7ko beherakada izan du.

3.1.4. Ekoeraginkortasun orokorra eta sektoriala

Jarduera ekonomikoak eragina dauka ingurumenean, izan ere, gizarteak eskatzen dituen ondasunen nahiz zerbitzuen produkzio eta kontsumo prozesuen eraginez baliabide naturalak kontsumitu eta hondakinak, isurpenak eta isurketak sortzen dira, eta horiek eragin handia dute ingurumenaren egoeran.

Garapen iraunkorreko politika publikoek planteaturiko helburuetariko bat, izan ere, hazkunde ekonomikoaren

eta horrek sorturiko ingurumen eragin kaltegarrien arteko erlazioa apurtzea da (ezegokitzapen fenomeno). Erlazio hori aztertzeke, *ekoeraginkortasun* kontzeptua sortu da, eta, berorren bidez, erabilitako "ingurumen" unitate bakoitzeko sorturiko "jarduera ekonomikoaren" kantitatea sartzen da.

Ekoeraginkortasuna hobetzeko bi bide nagusiak honako hauek dira:


- Produktzioan: hobekuntza teknologikoak edota materialen ordezpina (itxuraz hain kaltegarriak ez diren materialekin).
- Kontsumoan: etxeko kontsumoaren murriztapena.

Gehien erabiltzen diren adierazleak honako hauek dira: ekonomia orokorraren ekoeraginkortasuna, sektorea, garraioa, industria, egoitza sektorea, energiaren eraldaketa sektorea eta horren egoera, joera eta balorazioa, ondoko laukian jasotakoaren arabera.


3.2. Industria enpresa eta ingurumena

Industria ekobarometroa bi urtean behin egiten da, urte bakoitietan, eta azkena 2004an egin zen; EAEn industria enpresak ingurumenarekiko duen jarrera aztertzeke dagoen tresna nagusienetakoa da.

"Industria Ekobarometroa 2004: Ingurumen sarrera eta konpromisoa EAEko enpresan" deritzona EAEko 567



**INGURUMENA EUREN ERRENTAGARRITASUNERAKO LEHENTASUNEZKO FAKTORETZAT
HARTZEN DUTEN ENPRESEN EHUNEKOAK**




industria enpresari egindako zundaketan oinarritzen da, eta horren helburua, izan ere, elkarriketaturiko enpresa horiek ingurumenari dagokionez dituzten jarrerak, oztopoak, konpromisoa eta jarduketak biltzea da; honako honi buruzko emaitzak eman ditu:

- Enpresa jarrerak eta estrategiak ingurumenari dagokionez.
- Ingurumen legeria.
- Enpresen ingurumen arazoak.
- Ingurumen politika: enpresaren ingurumen konpromisoa.
- Sarturiko ingurumen hobekuntzak.

3.2.1. Enpresa jarrerak eta estrategiak ingurumenari dagokionez

lkerketan lorturiko datuek adierazitakoaren arabera, ingurumena oraindik ere ez da funtsezko elementutzat hartzen, kontsultaturiko enpresarik gehienek errentagarritasunari dagokionez. Inkestan parte hartu duten enpresen %7k soilik uste dute (2000n eta 2002an ehunekoa %8koa zen) ingurumena euren errentagarritasunaren funtsezko hiru faktoreetariko bat dela, beste zenbait elementuren parean, adibidez, bezeroaren poztasuna edo errentagarritasuna.

**INGURUMENAREN GAIKEKO ERAGINAREN
MURRIZTAPENAK HOBARI EKONOMIKOAK ERAGIN
DITZAKEELA USTE DUTEN ENPRESEN EHUNEKOAK**



Iturria: Industria ekobarometroa, 2004.

“Attitudes 2000” deritzenez (Britainia Handiko Gobernuko Ingurumen eta Industria sailak egindako inkesta, lhobek nazioarteko erreferentziatzat erabiltzen duena) jasotako datuei dagokienez, EAEko industriak Britainia Handikoak baino lau puntu beherago daude. Elkarriketaturiko Britainia Handiko enpresen %12ren us-

tez, ingurumena errentagarritasunaren funtsezko hiru faktoreetarikoa bat da.

Sektorekako banaketak, urte honetan ere, alde handiak adierazten ditu ingurumenak errentagarritasunean duen garrantziari dagokionez. Ostera ere, garrantzi hori handia da kimikan (%14) eta metalurgian (%17), eta biok IPPC⁵ zuzentarauari lotuta daude; aldiz, baxua da metalezko produktuetan (%3), elikaduran (%4), makinerian eta ekipoen (%4), eta, neurketa honetan, sektore elektrikoan (%4). IPPC enpresek argi gainditzin dituzte batez besteko datuak, ingurumena euren errentagarritasuneko funtsezko faktoretzat hartzeari dagokionez.

Bestalde, hiru enpresatik bik baino gehiagok onartu egiten dute ingurumenaren gaineko eraginaren bat sortzen dutela, eta horretan hazkunde handia ikusten da (+10 puntu) 2002ari dagokionez. Sektoreka, onarpen horren lehenengo postuetan enpresa kimikoak (%83 eta 2002an %75) eta metalurgikoak (%71 eta 2002an %61) daude, eta gero, makineria industriak (%73 eta 2002an %60), elektrikoak (%71 eta 2002an %61) eta elikadurakoak (%69 eta 2002an %64).

Bestalde, enpresen %23k soilik esan zuten euren ingurumenean sorturiko eraginaren murriztapenak etekin ekonomiko garrantzitsuak sor ditzakeela. Beraz, 3 puntu-

ko atzerakadaxoa ikusten da 2002ari dagokionez. Senti-kortasunik handieneko sektoreak metalurgikoa, kimikoa eta elikadura sektorea dira.

3.2.2. Ingurumen legeria

Enpresen %59k (2002an %54) diote badakitela zein araudiren eraginpean dauden, eta, alderdi horretan, mailak oso antzekoak dira aztertutako sektore guztietan, sektore kimikoan (%88) eta metalurgikoan (%63) izan ezik. Berrito ere, tamainarik handieneko enpresek hobeto ezagutzen dute ingurumenaren arloko legeria, eta enpresa txikiek ez dute horren inguruko ezagupen hain handirik.

Enpresen %46k diotenez (9 puntuko hazkundea), ingurumen legeria betetzeko inbertsio handiak egin behar dira, eta beraz, horrek kostu ekonomiko handia dakar; hazkunde handia egon da metalezko produktuetan (+15 puntu eta enpresen %40), metalurgian (+21 puntu eta enpresen %61) eta IPPC enpresetan (+18 puntu eta %59).


3.2.3. Enpresaren ingurumen arazoak

Orokorrean, 2005ean ingurumen kezkarik handiena hondakin arriskutsuek sortzen dute (%43 eta 2002an %35), eta gero arriskutsuak ez diren hondakinak (I) eta airera egindako isurpenak (%27 eta 2002an ehuneko handiagoa, %30).

Bestalde, ingurumen arazoen gaineko ezagupena gero eta handiagoa da. Hondakin arriskutsuak, airera egindako isurpenak, arriskutsuak ez diren hondakinak eta ur isurketak ez ezik, ingurumen alderdi berriak hasi dira aintzat hartzen; esaterako, zarata (inkestaturiko enpresen %15), ontzien hondakinak (%10) eta neurri txikiagoan, kutsaturiko lurzorua (%3) eta usainak (%3). Halaber, sektorerik gehienetan gero eta hobeto ezagutzen dira teknika erabilgarriak (%46).

Sektore bakoitzeko emaitzak aztertuta, desberdintasunak ikusten dira. Hondakin arriskutsuak kezkarik larrienak dira makineriaren sektorean (%71), produktu mekanikoaren sektorean (%65) eta sektore kimikoan (%61). Airera egindako isurpenak ingurumen alderdi nagusiak dira sektore metalurgikoan (%65). Arriskutsuak ez diren hondakinak, ontziak izan ezik, arazo handitzat hartzen dira produktu metalikoaren sektorean (%42), sektore elektrikoan


FINANTZA MUGAK INGURUMEN JOKABIDEA HOBETZEKO OZTOPO HANDITZAT IKUSTEN DITUZTEN ENPRESEN EHUNEKOA



Iturria: Industria ekobarometroa, 2004.


⁵ KONTSEILUAK 1996ko irailaren 24an emandako 96/61/EE ZUZENTARAU, kutsaduraren aurreikuspen eta kontrol integratuari buruzkoa. IPPC (Integrated Pollution Prevention and Control).

ENPRESEK DETEKTATURIKO INGURUMEN ARAZO ETA ALDERDI NAGUSIAK (ENPRESEN EHUNEKOA, EAE)



Iturria: Industria ekobarometroa, 2002 eta 2004.

INGURUMEN ARAZO NAGUSIAREN PERTZEPZIOA INDUSTRIA SEKTOREETAN (ENPRESEN %)



Iturria: Industria ekobarometroa 2004.

(%36) eta kimikoan (%36). Zaratak nagusitasuna dauka sektore metalurgikoan (%14) eta metalezko produktuen sektorean (%8); lurzoruarekiko kezka, berriz, makineria-ren sektorean (%3) eta sektore kimikoan (%2) nagusitzen

da. IPPC zuzentarauaren eraginpeko enpresei dagokienez, airera egindako isurpenekiko kezka nagusitzen da (%66), eta gero, hondakin arriskutsuek eta ur isurpenek sortutakoa (%48).

3.2.4. Ingurumen politika: enpresaren ingurumen konpromisoa

Ingurumenarekiko konpromisoaren adierazleetariko bat enpresak ingurumen politikarik ote duen jakitea da. Horri dagokionez, enpresan finkatu egin da ingurumen arduradunaren irudia. Izan ere, kontsultaturiko enpresa guztien %55ek arduradun hori dute. Gainera, horren funtzioak beste arlo batzuen ardura duten pertsoneri eratziki ahal zaizkie, adibidez, kalitatearen edota laneko segurtasunaren arduradunari.

Beste adierazle bat sorturiko hondakinen eta isurpenen neurketa da; alderdi horretan, 17 puntuko hazkundeak egon da 2002ari dagokionez. Horrela, kontsultaturiko enpresen %67k diotenez, sorturiko hondakinak edota isurpenak neurtu egiten dituzte nola edo hala, eta 100 enplegatutik gorakoek dute horren gaineko kontrolik handiena (%90).

Eraginak aztertu eta neurtu ondoren, hurrengo pausoa hondakinak eta isurpenak murrizteko helburuak ezartzea da, eta, 2002-2004 aldian hazkundeak egon da helburu horien ezarkuntzan (+16 puntu). Kontsultaturiko enpresen %51k diotenez, helburu horiek ezarrita dituzte. Ehuneko hori handiagoa da sektore kimikoan (%92).

Azkenik, Ingurumen Kudeaketako Sistemaren ezarkuntza, ingurumen konpromisoa ez ezik, lehiakortasuneko faktore garrantzitsua da nazioarteko merkatuan.

Horri dagokionez, ingurumen ziurtagirien edo ziurtagiri "berdeen" kopurua (ISO 14001 eta Europako EMAS Araudia)⁶, gero eta handiagoa da; izan ere, arlo horretan EAE munduko eskualde nagusienetariko bat da, 2004-2005 aldiko hazkundeak adierazitakoaren arabera (%20,4 ISO 14001 ziurtagirien kasuan —aurreko aldian %24,5— eta %42,3 EMASen kasuan).

Horrela, 1999an EAEko 36 enpresak zituzten ingurumen kudeaketaren ziurtagiria (Estatuko %8), ISO 14001 ziurtagiria eta EMAS araudia; 2003aren amaieran 543 ziren, eta 2005ean (EMASen kasuan datua 2006ko maiatzekoa) 897 (860 ISO 14001 eta 37 EMAS), eta horrek Estatuko %6,2 egiten du.

Sektoreka, hazkunderik handiena, "beste batzuk" deitzenaren kasuan izan ezik, energian (ziurtaturiko 16 enpresa gehiago), kimikoan eta petrokimikoan (8 ziurtagiri berri) eta metalurgian (4 ziurtagiri berri) egon dira.

Aldiz, beherakadarik handienak automobilgintzan (-11), hondakinetan eta birziklapenean (-10) eta lehenagien lehenengo eraldaketan (-5) egon dira.

INGURUMEN KUDEAKETAKO ZIURTAGIRIAK*

	Guztira XII-31n			2005eko ziurtagiri berriak				Ziurtagiria		
	2003	2004	2005	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzk.	2003	2004	2005
Guztira	569	714	860	146				145	145	146
Lehen sektorea	4	5	5	0	0	0	0	4	1	0
Elikadura	8	10	11	1	1	0	0	2	2	1
Papera	6	7	9	2	0	1	1	1	1	2
Kimikoa eta petrokimikoa	25	26	35	9	5	3	1	3	1	9
Lehengaien 1. eraldaketa	16	21	21	0	0	0	0	6	5	0
Metalurgia	22	24	30	6	2	3	1	4	2	6
Siderurgia	18	18	18	0	0	0	0	2	0	0
Metalezko gaiak	42	53	67	14	2	5	7	11	11	14
Makineria	32	37	39	2	1	0	1	8	5	2
Etzetresna elektrikoak	3	8	9	2	1	0	0	2	4	2
Sektore elektrikoak	19	21	25	4	0	1	1	1	2	4
Sektore elektronikoa	9	10	12	2	0	1	0	0	1	2
Automobilgintza	22	41	49	8	0	8	0	4	19	8
Plastikoa eta kautxua	17	19	23	4	1	2	1	1	2	4
Hondakinak eta birzikl.	45	61	67	6	3	1	2	4	16	6
Energia	23	24	41	17	1	11	5	1	1	17
Eraikuntza	56	70	81	11	0	9	2	13	14	11
Banaketa eta merkataritza	40	58	68	10	2	7	1	7	18	10
Garraioa	30	36	41	5	1	2	2	16	6	5
Bankuak eta aseguruak	12	12	15	3	0	0	3	7	0	3
Beste batzuk	120	150	193	43	5	27	12	29	30	43

Iturria: Ihobe.


⁶ Enpresa guztietarako, ez industria enpresetarako bakarrik.

ZIURTATURIKO INGURUMEN KUDEAKETA SISTEMA DUEN ENPRESA KOPURUA

	ISO 14001 ziurtagiria (04ko urria)		EMAS balioztatzea		Guzt. aldak. % ISO 14001	Guzt. aldak. % (EMAS)
	2004	2005	2004	2005 (2006ko maiatza)		
Japonia	16.696	19.477			16,7	
Alemania	4.320	5.094	2.080	1.912	17,9	-8,1
Erresuma Batua	5.460	6.223	67	364	14,0	443,3
Suedia	3.404	4.043	133	100	18,8	-24,8
Espainia*	6.265	8.120	540	698	29,6	29,3
AEB	3.890	5.100	3	1	31,1	-66,7
Australia	1.250	1.406			12,5	
Taiwan	1.417	1.494			5,4	
Frantzia	2.344	2.089	20	17	-10,9	-15,0
Italia	4.318	7.080	324	394	64,0	21,6
EAE	714	860	26	37	20,4	42,3

* EAEko datuak barne.
Iturria: Ihobe S.A.

INGURUMENEAN ERAGIN POSITIBOA IZAN DUTEN ALDAKETAK SARTU DITUZTEN ENPRESEN EHUNEKOA, ALDAKETA MOTAREN ARABERA




Iturria: Industria ekobarometroa, 2004.

Lurralde historikoen arabera, hazkunderik handiena Bizkaian egon da, bertan lortu baitira ziurtagiri berri guztien %55,5; gero, Gipuzkoan (ziurtagiri berrien %40), eta, azkenik, Araban (ziurtagiri berrien %17,1).

Sarturiko ingurumen hobekuntzak


Kontsultaturiko enpresen %80k aldaketaren bat sartu dute azken bi urteetan, ingurumen jokabidea hobetze-ko faktoretzat har daitekeen aldaketaren bat. Hazkunderako joera ikusten da, 2000-2002 aldian enpresen ehunekoa %68koa baitzen. Urte honetan ere, aldaketen hazkundera, batez ere, honako honetan oinarritu da: ekipo berrien sarrera (+10 puntu), enpresa kudeaketaren barruko aldaketak (+19) eta, neurri txikiagoan, produkzio pro-

ENPRESETAN INGURUMEN HOBETUNTZARAKO ALDAKETAK ERAGIN DITUZTEN FAKTOREAK



Iturria: Industria barometroa, 2002 eta 2004.

zesuetan egindako aldaketak (+11). Horrela, ekipo berrien instalazioa enpresen %67k egindako hobekuntza da; enpresa kudeaketaren eta produkzio prozesuen barruko al-

AAEetako ingurumen babeserako gastua, BPGri dagokionez, industria enprezetan (ehunekoak)

Iturria: EIN.

daketak, berriz, enpresen %61ek eta %49k egin dituzte, hurrenez hurren.

Ikuspegi sektorialetik begiratuta, ingurumen arloko aldaketarik gutxien sartu dutenak elikadura eta metalezko produktuak izan dira, baina goranzko aldaketa tasak dituzte enpresen ehunekoan.

Enpresa ingurumen hobekuntzarantz daramaten faktoreei dagokienez, 2002ko datuekin konparatuta, barruko indar eragileen hazkunderako joera ikusten da (ingurumen kontzientzia, hondakinen nahiz kostuen murriztapena, ekipoak berritu beharra, produktibitatea, segurtasuna, produktuaren kalitatea, enplegatuekiko irudia,...), kanpoko indarren hazkundera baino gehiago (legeria, merkatuaren eskariak, bezeroekiko irudia,...).

Oro har, barruko indarrak hazi (+%11) eta kanpokoak murriztu egin dira (−%4), ingurumen hobekuntzak eragiten dituzten aldaketei dagokienez.

3.3. Industria enpresek ingurumen babesean egindako gastua

Industria enpresek ingurumen babesean egindako gastuari buruzko inkestako datuek adierazten dutenez, enpresa horiek 2003an EAEn egindako gastu osoa 183 milioi eurokoa izan da, eta horrek %5,2ko beherakada adierazten du 2001eko gastuari dagokionez.

INDUSTRIA ENPRESEK INGURUMEN BABESEAN EGINDAKO GASTUA (EUROAK)

	2001	2003
Andaluzia	231.339.509	236.224.390
Aragoi	57.257.383	62.785.906
Asturias	102.420.216	86.437.063
Balearrak	6.321.902	4.402.474
Kanariak	30.894.920	33.576.869
Kantabria	28.610.173	22.325.280
Gaztela eta Leon	147.524.197	153.536.263
Gaztela-Mantxa	51.312.231	68.330.462
Katalunia	482.249.139	528.891.058
Valentzia	182.700.670	199.326.426
Extremadura	14.246.357	12.685.038
Galizia	130.559.777	115.730.330
Madril	118.788.493	115.928.496
Murtzia	64.776.432	70.503.028
Nafarroa	50.903.937	54.084.921
EAE	174.542.038	183.329.517
Errioxa	16.457.690	15.205.304

Iturria: EIN.

Gastu osoaren %49 (2001ean %51) ekipoetako inbertsioak egitera bideratu zen (2001ean %46,1).

Gastua BPGren ehunekotzat neurtuta (%0,38), EAE hirugarren postuan dago Asturiasen (%0,51) eta Nafarroaren (%0,41) atzetik; bestalde, Gaztela-Mantxa izan ezik, gainerako autonomia erkidego guztiek murriztu egin dute arlo honetako ahalegina, 2001etik 2003ra bitarteko al-dian. EAEn kasuan, %0,41etik %0,38ra igaro da.

4

Produkzio azpiegiturak

164


Azpiegitura fisikoak zona jakina garatzeko behar diren euskarriko ekipamenduak, egiturak eta zerbitzuak dira. Bi azpiegitura mota daude; alde batetik, produkzio garapenari lotutakoa (azpiegitura ekonomikoa edo oinarritzakoa), esate baterako, ura, elektrizitatea nahiz gas hornidura, zabor bilketa zein hondakinen arazketa, garraioa, telekomunikazioak eta lurzoruaren kudeaketaren ingurukoak (uholdeen prebentzioa, drainatzeak, higadura, oihaneztatzea...); bestetik, gizarte azpiegitura, hau da,

honako zerbitzu hauek eskaintzen dituenak: laguntza, osasuna, hezkuntza, kultura, ingurumena, prebentzioa, segurtasuna eta administrazioa.

Horrela, azpiegitura fisikoak funtsezkoak dira gizartearen garapen ekonomikorako, ongizate orokorrerako eta kohesiorako; gainera, herri baten jarduera ekonomiko orokorraren gaineko eragin handia izan eta, hain zuzen ere, lagungarriak dira produktibitatea eta hazkundea handitzeko.

Horri dagokionez, EAEk orografia zaila eta biztanleria dentsitate altua ditu; halaber, biztanleria hori hirigune askotan barreiatuta dago eta, beraz, halako azpiegiturretan inbertsio handia egin behar da, bai eremu handia bete behar duelako eta bai eraikuntza kostuak altuak direlako (ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokionez).

MERKANTZIEN GARRAIOAREN BILAKAERA, MOTAREN ARABERA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Garraio Saila, "Euskadiko Garraioaren Behatokia".

4.1. Garraio azpiegiturak

EAEko garraio sektorea (lurrekoa, airekoa, itsasokoa eta erantsitakoak) Erkidegoko balio erantsiaren %5era eta enpleguaren %4,5era iristen da. Erkidegoan 580.000 tona merkantzia baino gehiago garraiatzen dira egunero; horien %80 errepidez mugitzen dira, %16 itsasoz eta gainerakoa trenez, aireko trafikoa oso txikia baita alderdi honetan. Egoera estrategikoaren eta industria jarduera handiaren eraginez, era guztietako trafiko mailarik handienak dituen zonetarikoa da Europa osoan. Errepide sare trinko-



ak, trenbide lineek, itsas portu handi bik eta hiru aireportuk ahalegina egiten dute barruko nahiz kanpoko trafikoren beharrian guztiak betetzeko eta egunero zerbitzu hobeak nahiz kalitate handiagokoak eskaintzeko.

Errepideko trafikoa

EAE N-1 errepideak zeharkatzen du Iparretik Hegoera; errepide hori Europako ibilbidearen barruan dago eta oso garrantzitsua da (E-5 Glasgow-Paris-Algeciras); gainera, bera Ekialdetik Mendebaldera zeharkatzen duten Bilbo-Behobia ordainpeko A-8 autobidearekin (bertatik E-70, Coruña-Bordele) eta Bilbo-Zaragoza (E-80 Lisboa-Pau) autobideekin batera, Iberiar Penintsularen eta Europako gainerako zatiaren arteko komunikazio bide nagusienetarikoa da. Nazioarteko trafikorako bide horiek ez ezik, EAEko barruko komunikazioa 4.000 kilometrotik gorako luzera duen errepide sareak osatzen du, eta horren titulartasuna Foru Aldundiena da (baita A-8 autobidearen titulartasuna ere). Eskualde barruko loturarako bide nagusienetarikoa bat Debako saihezbidea eta Durango-Beasain zeharreko ardatza da; hori eraikitzen ari dira eta Bizkaiko eta Gipuzkoako barruko industria udallerri nagusienetarikoa batzuen arteko komunikazioa ahalbidetzen du (biztanle kopururik handieneko udalerrien artekoa); era berean, Leizarango autobia ere oso garrantzitsua da eta horrek Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen ditu. Funtsean, sare hau hirurogeiko hamarkadan eraiki

zuten, baina inbertsioen helburua lekurik arazotsuenak ezabatzea edo bideak hobetzea bideratu dira. Une honetan, Gasteiz-Eibar autobidearen eraikuntza da (Europaz gaindiko Garraio Sarearen barrukoa, E-5 Iparra-Hegoa ardatzean) EAEn errepideen arloan egiten ari den obrarik garrantzitsuenak; horren kostua 650 milioi € ingurukoa da, 46,2 km-ko luzera dauka eta 2007an sartuko da zerbitzuan.

EAEko errepideetan egindako batez besteko inbertsioa (eraikitzen, kontserbatzen eta ustiatzen ari diren errepideak) 336 milioi eurotik gorakoa da (gastu publikoa), biztanle bakoitzeko 159 €-koa (Estatuan biztanle bakoitzeko 2000-2004 aldian egindakoa baino %20 handiagoa, eta , kilometroka neurtuz gero, bi aldiz handiagoa), eta Erkidegoko BPGren %0,63.


Horrenbestez, Europako sarerik trinkoenetarikoa da, azalerako dentsitate handienetarikoa baitauka (0,6 kilometro errepide, azalerako km²-ko, Estatuaren bikoitza, biztanleko dentsitatea txikiagoa izan arren); %12an baino gehiagoan edukiera handiko bideek osatzen dute (horien %40 ordainpeko autobideak), eta Estatuan ehunekoa %7,5ekoa da. Estatuko edukiera handiko bide guztien %4,2 eta ordainpeko autobideen ia %8 EAEn daude. Bestalde, sarearen kantitatea ez ezik, horren kalitatea ere garrantzitsua da; horri dagokionez, baloratu beharreko elementu bat, izan ere, zirkulazioari eskainitako segurtasuna da, edo errepideotan gerta-

ERREPIDE SAREA, ZOLADURAREN ZABALERAREN ARABERA, 2004 (KILOMETROAK)

	Guztira	Galtzada bateko errepideak				Edukiera handiko errepideak		
		Guztira	< 5 m	5 a 7 m	≥ 7 m	Galtzada bikoitz. errep.	Autobia/ Autobide askea	Ordain. Autobid.
EAE	4.250	3.728	839	1.393	1.496	97	219	206
Araba	1.478	1.304	366	557	381	26	86	62
Gipuzkoa	1.361	1.195	355	375	465	31	54	81
Bizkaia	1.411	1.229	118	461	650	40	79	63
Estat. %	2,6	2,4	2,6	2,1	2,8	5,7	2,7	7,8

Iturria: Sustapen Ministerioa.

ERREPIDEETAN EGINDAKO INBERTSIOA EAEn



Iturria: Eustat.

ERREPIDE SAREAREN ADIERAZLEAK* (2004)

	EAE	Estatua
Sare osoa/azalerako km ²	0,59	0,33
Sare osoa/1000 biztanle	2,00	3,76
Parkeko ibilgailuak/sare osoa	268	160
Parkeko ibilgailuak/1000 biztanleko	536	601
Arrisku tasa	6,5	3,8
1000 biztanleko b. besteko inbertsioa	142,8	118,7
Estaturak		58,5
Lurralde erakundeak	142,8	60,2
Sareko kilometro bakoitzeko b. besteko inbertsioa (1)	71,4	31,6
Estaturak		102,3
Lurralde erakundeak	71,4	18,9

(*) Ez da sartzen udalen, Defentsa Ministerioaren eta beste erakunde batzuen konturako auzoko bideen luzera. (1) errepide sarean 2000-2004 aldian (€-ak milatan). (2) Biktima-istripuak 1.000 ibilgailuko.

Iturria: Sustapen Ministerioa.

turiko istripu kopurua. EAEko istripu kopurua ibilgailuen parkearekin erlazionatzen duen tasaren balioek erraz gainditzen dituzte Estatukoak (1000 ibilgailuko 6,5 eta 3,8 hurrenez hurren, eta tasa hori 8koa da Araban eta 7koa Gipuzkoan).

2004rako trafikoari buruz dauden datu erabilgarriek agerian jarri dutenaren arabera, urte horretan trafikoak hazkunde etengabea izan du, batez besteko %3,6koa, EAEko errepideen multzoari dagokionez (bai Estatuaren titulartasuneko errepideak eta bai FFAAen titulartasuneko errepideak), eta Gipuzkoaren kasuan tasa hori nahiko handiagoa da (%8,5), baita Estatuan ere (%9,6). Guztira, EAEko errepideetan Estatuko ibilgailu guztien %4,3 dabilta kilometroko, eta ibilgailu astunen ehuneko antzekoa da (EAEn aforaturiko ibilgailu guztien %14, hain zuzen ere).

KALKULATURIKO TRAFIKOA ERREPIDE SARERA (IBILGAILUAK MILIOITAN-KM)

	2002		2003		2004		02-03ko alda. %		03-04ko alda. %	
	Estatuko sarea	EAEko sarea	Estatuko sarea	Estatuko sarea	EAEko sarea	EAEko sarea	Estatuko sarea	EAEko sarea	Estatuko sarea	EAEko sarea
EAE	632	9.282	654	9.469	676	9.814	3,5	2,0	3,4	3,6
Araba	374	1.440	388	1.463	403	1.490	3,7	1,6	3,9	1,8
Bizkaia	258	4.684	266	4.768	273	4.811	3,1	1,8	2,6	0,9
Gipuzkoa		3.159		3.238		3.514		2,5		8,5
Estatua	114.890	113.730	119.634	100.906	122.645	119.070	4,1	-11,3	2,5	18,0

Iturria: Errepide Zuzendaritza Nagusia. Sustapen Ministerioa.

EAEko MERKANTZIEN BARNE GARRAIOA (TONAK MILATAN)

	1995	2000	2005	1995-00	2000-05
Garraiatua [a+b+c]	55.724	79.627	107.109	42,9	34,5
Kargatua [a+b]	41.812	61.526	83.661	47,1	36,0
Deskargatua [a+c]	41.721	60.064	83.083	44,0	38,3
Lekualdatze mota					
Eskualde barrukoa [a]	27.809	41.963	59.635	50,9	42,1
Eskualde artekoa					
Guztira [b+c]	27.915	37.664	47.474	34,9	26,0
Bidalitakoa [b]	14.003	19.563	24.026	39,7	22,8
Jasotakoa [c]	13.912	18.101	23.448	30,1	29,5
Esk. artek. ratioa (%)					
Guz. [(b+c)/(a+b+c)]	50,0	47,3	44,3	-2,7	-3,0
Bidalit. [b/(a+b)]	33,4	31,7	28,7	-1,7	-3,0
Jasotakoa [c/(a+c)]	33,3	30,1	28,2	-3,2	-1,9

Iturria: Sustapen Ministerioa.

Errepideko merkantzien trafikoa¹ (igarotzeko nazio-arteko trafikoa ez da horren barruan sartzen) gero eta handiagoa da azken bi urteetan (2004-2005), eta %9,9ko eta %9,3ko tasak izan ditu, hurrenez hurren; hala eta guztiz ere, 2004an eskualdeen arteko trafikoa zen hazkunde horren eragile nagusia (%14ko hazkunde) eta horrek 2005ean -%2,1eko beherakada izan du (jasotakoak behera egitearen ondorioz), eta aldiz, eskualde barruko trafikoa urte horretan %21eko hazkunde izan du, aurreko urtean %6,2ko hazkunde izan ondoren.

Hala ere, Estatu osoan errepidez garraiatutako merkantzien guztizkoaren gaineko ratioak beherantzko joera izan du hamarkada osoan. 1995ean EAEn %9,47koa zen, 2000an %8,77koa, 2004an %7,32koa eta 2005ean %7,16koa. Bilakaera hori, batik bat, eskualdeen arteko merkantzien trafikoa Estatuan izandako hazkunde handiagoaren (jatorria eta helmuga EAEn dituenak izandakoa baino handiagoa) eraginezkoa da, baina trafiko mota horretan Erkidegoak oraindik ere Estatuaren %14,4 dauka (1995ean %18 zen).

Estatuko beste erkidego batzuekiko eskualdeen arteko trafiko honetan, truke bolumenik handiena ondoko erkidegoekin egiten da (Gaztela-Leon, Nafarroako Foru Erkidegoa, Madril, Katalunia, Kantabria eta Aragoi), eta 2004an hazkunderik handienak lehenengo hirurek izan dituzte, Aragoirekin eta Asturiasekin batera.

Aipagarria da EAEn gaur egun garraioko lau zentro intermodal daudela: Gasteizeko Garraio Zentroa, Arasur (Rivabellosa, 2006ko urtarrilean inauguratua), Zaisa (Irun) eta Aparkabisa (Trapaga), "Europlataforms" deritzon Garraioko Plataformen Europako Taldearen barruan, eta horren helburua garraio zentro logistikoen erabilgarritasun ekonomikoa sustatzea da.

Azkenik, EAEko errepideko bidaiarien garraioak (pisu arineko ibilgailua eta autobusa), 2003an, 690.677 bidaiari mugitu ditu egunero. Pisu arineko ibilgailuko trafikoa, edozein egunetan (eskualdez gaindiko bidaiak, baina ez hirikoak edo eskualde barrukoak) 500.575 pertsonakoa izan da 2003an, eta 2001etik urtero %3,8ko hazkunde izan du. %60 EAE barrukoak dira, %27 EAEn sortzen edo

¹ Nazioarteko trafikoaren inguruko datu barik.

ERREPIDEKO ETA TRENBIDEKO MERKANTZIA GARRAIOA EAEN, JATORRIAREN ETA HELMUGAREN ARABERA (2004, TONAK MILATAN)

	Errepideko garraioa			Trenbideko garraioa		
	Helmuga EAE	Jatorria EAE	%	Helmuga EAE	Jatorria EAE	%
GUZTIRA	96.774	93.170	100	1.467,0	2.381,2	100
Espainia	93.612	90.830	95	1.363,6	2.243,0	93
Gaztela eta L.	6.408	4.949	9	21,9	333,0	10
Nafarroa	5.366	3.731	7	2,1	143,8	4
Katalunia	2.193	2.449	4	153,0	319,0	13
Kantabria	2.473	1.841	4	0,0	0,1	0
Madril	1.598	2.118	3	105,9	353,0	13
Aragoi	1.678	1.777	3	190,8	167,5	10
Valentz. Erk.	1.036	1.059	2	223,1	164,7	11
Gainerakoa	4.883	4.929	8	344	440	22
EAE		67.978	56		322,8	9
Europa 15	3.154	2.321	4	102,3	134,5	7
Beste herri b.	7	19	0	1,2	3,3	0

Iturria: Sustapen Ministerioa.

bertara iristen dira bidaia nazionalen (batez ere, Kantabriarekin eta, gero, Nafarroarekin), %11 nazioarteko bidaiak dira (ia kasu guztietan Frantziara) eta gainerako %2 igarobidean daude. Autobuseko bidaiarien trafikoa, edozein egunetan (2003), 334.279 bidaiarikoa da, %43 eskualde barrukoak, %53 eskualdeen artekoak eta %4 EA-En sortu edo bertara doazenak bidaia nazionalen. Gainera, 2005ean 67,7 milioi bidaiarik baino gehiagok autobusaren bidezko hiriko garraioa erabili zuten EAEn (2004an baino milioi erdi gehiago).

Trenbideko garraioa

Trenbide sarean hasiera-hasieratik dauden ulermen arazo ugariak (trenbide zabalera desberdinak, trenbideko garraioaren ulermen erradiala Estatuan, loturarik eza, etab.) larriagotu egiten dira gure erkidegoan, bertako orografia zailaren, lurraldearen barne-egiturari lehentasuna eman ez dion ulermena egotearen (merkantzien zirkulazioa asko zailtzen duen egitura) eta Europarekiko loturaren eraginez. Arazo horien ondorioz, gure erkidegoan trena ezin da lehiatu beste garraiobide batzuekin, batez ere hiriburuaren arteko loturetan. Hala eta guztiz ere, trenbidea XXI. mendeko garraio publiko nagusitzat hartzen da, ustiapen kostu merkeak dituelako eta beste garraiobide batzuek baino ingurumen eragin txikiagoak sortzen dituelako.

EAEko trenbide sarea 589 kilometrok osatzen dute; horietatik %51 RENFE enpresarenak dira eta horrek bi linea nagusiak kudeatzen ditu, Madril-Irun eta Bilbo-Miiranda; beste %37 Eusko Trenenak dira (Bilboko Metroaren bi lineen oraingo 34 km-ak ere barne), eta Bilbo-Donostia-

Hendaia linea hortxe sartzen da; gainerako %12 trenbide estuko trenbideena da (FEVE), eta horrek Bilbo-Santander nahiz Bilbo-Leon lineak eta eskualdeen arteko loturakoak kudeatzen ditu, Bilbo Handiaren eremuan. Ibilbide luzeak lineei eta horien nazioarteko loturei dagokienez, aipagarria da Irunen eta Frantziako TGVren arteko lotura, baita Euskadiko Y deritzonaren proiektua ere: EAerako trenbide trazatu berria eta abiadura handiko trena, Erkidegoko hiru hiriburuak 30 minututan lotuko dituen, eta gainera, Madrilera eta Bordelera ere 2 ordutan (apur bat gehiago) iritsiko da (aurreikusitako inbertsioa 3.000 milioi €-koa).

Bilboko Metroaren eta Euskotrenen bidaiari-garraioari dagokienez (horien gaineko datuak baino ez daude), 2005ean %6,9ko hazkunde handia egon da. Bilboko Metroak garraiatutako bidaiari kopuruak %6,4ko hazkunde izan du eta 77,8 milioi pertsonakoa izan da, Eusko Trenen kasuan, berriz, aurreko urtean bidaiari kopuruak %2,1eko beherakada izan zuen, baina azken urtean %8,9ko hazkunde izan du linea guztietan; gainera, Bilboko tranbian (zerbitzu nahiko berria) %28ko hazkunde egon da.

FEVERen lineetan egindako garraioaren barruan (kantabriar erlaintzeko linea), oso garrantzitsua da Bilbo-Balmaseda lineako aldiriko bidaiarien garraioak, eta bertan 1,9 milioi bidaiari inguru ibili dira, baina azken urteetan aipagarria da merkantzien garraioa, batez ere Arcelor enpresaren produktu siderurgikoa, EAEn eta Asturiasen artean.

Merkantzien trenbide-garraioari dagokienez (batik bat, RENFE), zifrak errepideko garraiokoak baino askoz ere txikiagoak dira. Izan ere, 1980tik 1997ra trafiko horrek %17ko murriztapena izan du EB osoan (kilometro bako-

EUSKOTREN ETA METROBILBAOK GARRAIATURIKO BIDAIRIAK (BIDAIRIAK MILATAN)

	2003	2004	2005	03-04 %	04-05 %
BILBOKO METROA	72.609	73.089	77.802	0,7	6,4
EUSKOTREN*	19.300	18.903	20.580	-2,1	8,9
Deustua-Lezama	2.319	2.108	2.203	-9,1	4,5
Bilbo-Donostia	6.545	6.133	6.464	-6,3	5,4
Bilbo-Bermeo	2.418	2.200	2.305	-9,0	4,8
Lasarte-Hendaia (Sator.)	6.620	6.027	6.551	-9,0	8,7
Bilboko tranbia	1.144	2.198	2.822	92,2	28,4
RENFE aldiriak, Bilbo	24.936	21.998		-11,8	

(*)Euskotren eta Metrobilbao, Larreinetako funikularra eta Azpeitiko Lurrun-trena ere barne.
Iturria: Euskotren eta Metrobilbao.

tzeko tonatan neurtuta); hain zuzen ere, merkantzien garraioko merkatuaren %15ekoa izatetik %9 baino gutxiago izatera igaro da, eta kuota hori batik bat errepideak irabazi zuen. Kasu honetan ere, garrantzitsuena ondoko er-kidegoekiko eskualde arteko trafikoa da (batez ere, Gaztela-Leon, Madril, Katalunia eta, urrunago, Aragoi, Valentzia, Gaztela-Mantxa eta Nafarroa), eta nazioarteko trafikoa ere, batik bat Frantziarekin, %7koa da.

EAEn geltoki intermodal bakarra dago, RENFEren mendekoa (Arabako Jundiz), eta hori lehiatu egiten da Europako trafikoa, Baiona-Mouguerre Europako Zentroarekin (trenbide loturadun 20 ha., autopistarako sarbideekin, eta 50 ha. baino gehiago erreseban), Baionatik hurbileko zonan.

Aireko garraioa

EAEn hiru aireportu daude, bakoitza hiriburu batetik hurbil (Loiu, Hondarribia eta Foronda); beraz, bost aire-

portu daude 70 km-ko erradioan (hiru horiei Iruñeko No-ain eta Biarritz gehituta); hala ere, hegaldien maiztasunetan eta lineetan gabeziak daude, baita akatsak ere, eskaintzen diren zerbitzuetan.

Aireporturik garrantzitsuena, bidaiarien bolumenari dagokionez, Loiu da (EAEko aireportu nagusia); bertatik, 2005ean, 3,8 milioi bidaiari igaro ziren, aurreko urtean baino %13,1 gehiago (Estatuko batez bestekotik gora, %9,3), eta horrela, Estatuko iparraldeko aireportu nagusienetarikoa da. Merkantzien trafikoari dagokionez, beste alde batetik, bertako bolumena -%4,9an murriztu da.


Forondako aireportua Estatuko kargako hiru aireportu nagusienetarikoa da, Madrilekoaren eta Bartzelonakoaren atzetik (2005ean posizioa jaitsi du, Kanaria Handikoak aurrea hartu baitio); 2005ean merkantzien trafikoak -%20,4ko murriztapena izan zuen (Estatuan -%3,1). Berherakada horrekin batera, Jumbo 747 hegazkinaren aste-roko hegaldia ezabatu egin da; Hego Afrikatik iritsitako hegazkin horrek arraina zekarren, baina produktu horren

EAEN AIREKO GARRAIOAK MUGITURIKO HEGAZKINAK, BIDAIRIAK ETA MERKANTZIAK

	EAE		Vitoria-Gasteiz		Bilbo		Donostia-SS		2004-2005ko aldak. %			
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	EAE	Vitoria-Gasteiz	Bilbo	Donostia-SS
HEGAZKINAK												
Guztira	63.403	66.899	10.560	8.461	46.606	51.345	6.237	7.093	5,5	-19,9	10,2	13,7
Naziokoa	42.167	48.565	6.734	5.249	29.313	36.336	6.120	6.980	15,2	-22,1	24,0	14,1
Nazioartekoa	21.236	18.334	3.826	3.212	17.293	15.009	117	113	-13,7	-16,0	-13,2	-3,4
BIDAIRIAK (Milatan)												
Guztira	3.766	4.219	92	90	3.386	3.831	288	297	12,0	-2,2	13,1	3,1
Naziokoa	2.596	3.228	86	81	2.222	2.850	288	297	24,3	-5,8	28,3	3,1
Nazioartekoa	1.170	990	6	9	1.164	981	0	1	-15,4	50,0	-15,7	
MERKANTZIAK (Tonak)												
Guztira	47.952	39.143	43.684	34.777	4.153	3.951	115	415	-18,4	-20,4	-4,9	260,9
Naziokoa	11.165	9.333	8.296	6.248	2.755	2.670	114	415	-16,4	-24,7	-3,1	264,0
Nazioartekoa	36.787	29.810	35.388	28.529	1.398	1.281	1	0	-19,0	-19,4	-8,4	

Iturria: Sustapen Ministerioa. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia. Merkataritza Trafikoa Espainiako Aireportuetan.

BIDAIARIEN ETA MERKANTZIEN AIRE TRAFIKOAREN BILAKAERA EAEn



Iturria: Eustat.

inportazioek beherakada handia izan dute (iragankorren karga, izan ere, aireportu horretako merkantzia bolumen osoaren mugimenduaren %30 ingurukoa da; Forondak 21.600 tona arrain inportatu zituen eta horietatik 7.200 zuzenean iritsi ziren, Afrikatik etorritako kargako hegazki-naren bidez). Bidaia-riren trafikoari dagokionez, trafiko horrek 2005ean berriro ere behera egin zuen (-%2,2), eta 1993tik beherakada -%62koa da.

Hondarribiko aireportuan bidaia-riren bolumenak %3,1eko hazkundea izan du eta merkantzien bolumena lau aldiz handiagoa da orain; hala eta guztiz ere, EAE osoko bidaia-riren %7koa eta merkantzien %1ekoa baino ez da.

Itsasoko garraioa


EAEko itsas portuak hiru talde handitan sailkatzeko modukoak dira. Lehenengo taldea Bilboko eta Pasaiaiko bi merkataritza portu handiek osatzen dute; bigarrena, berriaz, Eusko jaurlaritzaren eskumeneko arrantza portuek osatzen dute; eta hirugarren taldea, azkenik, aisialdiko eta kirol-arrantzako itsas jardueretarako portuek, eta jardura horietako gehienak berriak dira EAEn. Guk Erkidegoko bi portu nagusiak aztertuko ditugu hemen: Bilboko eta Pasaiaikoa.

Bilboko portua, 2005ean, Estatuko laugarren porturik garrantzitsuen da merkantzien trafikoan, Algecirasekoa-


ITSASOKO GARRAIOAK MUGIARAZITAKO MERKANTZIAK, MOTAREN ARABERA

		Tonak milatan							Aldak. %	
		1992-03eko b. b.	1995	2000	2003	2004	2005	%	03-04	04-05
Bilbo	Guztira	27.360	27.901	28.745	28.099	33.214	34.090	100	18,2	2,6
	Ontziratu gabeak	13.988	13.066	14.835	15.663	18.596	19.685	58	18,7	5,9
	Aleak	4.671	5.435	4.495	3.913	5.030	4.251	12	28,5	-15,5
	Edukiontzia	3.565	3.041	4.389	4.760	4.941	5.468	16	3,8	10,7
	Merkantz. konbentz.	3.237	3.604	3.957	3.288	3.940	3.824	11	19,8	-3,0
	Bestelakoak	1.900	2.755	1.069	475	708	863	3	49,1	22,0
Merkantziak	Guztira	4.411	4.134	4.530	5.947	5.736	5.409	100	-3,5	-5,7
	Ontziratu gabeak	350	470	202	256	100	2	0	-60,9	-98,0
	Aleak	2.441	2.219	2.716	3.441	3.479	3.274	61	1,1	-5,9
	Edukiontzia	1.549	1.365	1.550	2.198	2.099	2.081	38	-4,5	-0,9
	Merkantz. konbentz.	71	79	61	52	58	53	1	11,5	-9,3

Iturria: Bilboko eta Pasaiaiko Portu Agintaritza.

EAEko PORTUETAKO ITSASONTZI KOPURUA

Iturria: Sustapen Ministerioa.

EAEko PORTUETAN GARRAIATURIKO MERKANTZIAK

Iturria: Sustapen Ministerioa.

ren, Bartzelonakoaren eta Valentziakoaren atzetik; 34 milioi tonako bolumena (Estatu osoko %7,7) eta %2,6ko hazkundera (Estatuan %7,5) izan du, aurreko urteari dagokionez. Merkantzia nagusiak ontziratu gabeak dira (%58), batez ere petrolioaren produktuak, baina solidoek ere bolumen handia dute (aurten -%15,5eko beherakada izan arren), eta edukiontzien trafikoak ere bai (%10,7ko hazkundera).

Pasaiaiko portuko kuotak txikiagoak dira eta, gainera, azken urteotan atzerakuntza prozesuan dago; hain zuzen ere, merkantzien trafikoak -%3,4ko beherakada izan du 2004an eta -%5,7 2005ean. Beherakada hori, alde batetik, solidoek izandako murriztapenaren eraginezkoa da (batik bat, txatarrak eta produktu siderurgikoak); izan ere, merkantzia hori portuko trafikoaren %60 baino gehiago da eta -%6ko beherakada izan du, eta merkantzia konbentzionalak (trafiko osoaren %38), 2004an -%18ko beherakada izan ondoren, urte honetan -%0,9ko beherakada izan du.

4.2. Telekomunikazioak

Telekomunikazio industriak Informazioaren Gizarteko zerbitzuen euskarriak dira; izan ere, halako industrien birtatez, hiritarrek Sareko testu, irudi edo soinu zerbitzu guztiak eskuratzen dituzte. Informazioa eta horren tratamenduari, azterketari nahiz transmisioari loturiko teknologiak funtsezko baliabide estrategikoak dira edozein gizarteren garapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako. Herri batek Ezagupenaren arlo berri horretan duen posizioa, beste alde batetik, bere azpiegituren araberakoa izango da; hau da, kapital fisikoa eta giza kapitala funtsezkoak dira inguru berri horretara egokitu ahal izateko.

Horrenbestez, informazioaren tratamendurako eta transmisiorako azpiegitura egokia behar da, horren barruan telekomunikazioko modu guztiak sartuta (esate baterako, gaitasun handiko telefono lineak, kablea, satelitea, ordenagailuen azpiegiturak, Internet), baita gizarte

ETXEBIZITZAK EKIPAMENDU MOTAREN ARABERA


	Etxeb. kopurua	Aldaketaren %		% Etxeb.		Hazkundera 2003tik	
	2005*	04-05	03-04	EAE	Estatua	EAE	Estatua
Telefono finkoa	731.687	3,3	7,1	92,5	86,8	2,0	−1,3
Sakelako telefonoa	661.812	8,7	9,5	83,6	80,0	7,5	6,3
Ordenagailua	449.257	13,7	17,6	56,8	50,6	10,8	7,3
Interneteko konexioa	323.021	9,1	25,8	40,8	32,6	8,6	7,4
Banda zabaleko konexioa	167.603	63,0	85,8	21,2	19,4	13,6	10,4

(*) Lehenengo seihilekoa.

(**) ADSL, RDSI, Kableko sarea.

Iturria: EIN.

INTERNET DUTEN ETXEBIZITZAK, KONEXIO MOTAREN ARABERA



Iturria: EIN.

azpiegitura egokia ere (ondo hezitakoa eta irekia den gizartea), informazioa askatasunez jariatzeko. Gainera, telekomunikazioen sektorea balio erantsi handiko industria da gaur egun (ekipo ondasunen fabrikatzaileak/hornitzaileak, operadoreak eta zerbitzu kudeatzaileak), enpleguak sortzen ditu, eta arlo horretako inbertsioak ezinbestekoak dira gainerako jarduera ekonomiko guztien garapen lehiakorerrako.

Telekomunikazio maparen egitura konplexua da, honako honen ondorioz: zerbitzu berrien etengabeko eskaintza (aurrerakuntza teknologiko etengabeak, lege-gintza mailako aldatetak, legeak egoera berrietara egokitzeko eta sarritan nekez zehazteko modukoak diren produktuak nahiz zerbitzuak arautzeko) eta enpresen etengabeko mugimendua. Azken urte hauetan, zerbitzu tradizionalak motelduta daude eta telefonia mugikorrari loturiko zerbitzuek gora egin dute (laster asetuta egongo badira ere) eta, gainera, banda zabalaren eskariak gora egin du². Etorkizunean garapena izango duten beste berritasun batzuk operadore mugikor birtualen arlokoak dira (OMB), espektro irrati-elektroik gabeko zerbitzu-en-

presak (azpiegiturarik gabekoak), eta Interneten bidezko telefoniak ere hazkunde handia izango du (IP edo VoIP telefonia); azken horrek ahotsaren transmisioa ahalbide-tzen du Interneten bidez, eta horrela, erabiltzaileek datu sare batera konektaturiko ordenagailuen bitartez egin ahal izango dituzte deiak.

Gure erkidegoan ahalegina egiten ari gara telekomunikazioen azpiegituren gaitasuna garatzeko eta sare osoa nahiz eraginkorra bermatzeko, bai enpresentzat, ikerketa zentroentzat eta herri administrazioarentzat, bai erabiltzaile partikularrentzat. Azpiegitura horiek telefono sare tradizionalak, mikrouhindunak eta banda zabalak osatzen dituzte, eta horiek zerbitzuak eskaintzen dizkiete geure erkidegoan dauden telekomunikazio enpresei.

Izan ere, biztanleriaren estaldura telefonikoa (finkoa eta mugikorra) 2005ean Estatuko batez bestekotik gorakoa izan da, eta azken hiru urteetan hazkunde handiagoak izan ditu (familien %16 telefono finkoa baino ez dute eta %76,5 finkoa nahiz mugikorra dute, Estatuan baino 8 puntu gehiago). Ordenagailuari eta Interneti dagokionez gau-

² Banda zabalak edo abiadura handiko internetek edukia 200 kbp/s-tik gorako abiaduran dekaratzeko aukera ematen du; lau konexio motaren bidez garatzen da: Telefóniko ADSL, kablemodema, kiribil desagregatua eta PLC (linea elektrikoaren bidezko konexioa). Teknologia erabilienak eta preziorik lehiakorrenak dituztenak lehenengo biak dira, ADSL orain arte abiadura motelagoa eduki arren (ADSL2+ berriak 20Mbps/1Mbps abiadura dauka eta soluzioa eman dio arazo horri). Beste batzuk, adibidez, satelite bidezkoak, garestiagoak dira eta beste bien estaldurarik gabeko lekuetan erabiltzen dira (landa inguruak); azkenik, berritzaileena PLC da; konpainia batzuek (esaterako, Iberdrola) konexio hori probatzen ari dira zenbait hiritan.

EAEN HELBIDERATURIKO TELEKOMUNIKAZIO OPERADOREAK, KOMUNIKAZIO ELEKTRIKOEN SAREEN ETA ZERBITZUEN OPERADORE ERREGISTROAN INSKRIBATURIK DAUDENAK

Operadorearen lizentzia	Helbidea	Lizentz. mota	Eremu geografikoa	Ebazpen data	Espektro. erabilera prib.	Okupazio eskubidea	Zerbitzuaren deskribapena
Balada Telecomunicaciones SL.	Bizkaia	A1	Nazionala	2001/03/01	Ez	Ez	Telefono Zerbitzu Berriaren birsalmanta
SARENET, S.A.	Bizkaia	A1	Nazionala	28/10/1999	Ez	Ez	Interneteko konexioaren hornitzailea, erabiltzaileen talde itxiko telefonia, komunikazio elektronikoaren sare publikoaren arakapena
EUSKALTEL	Bizkaia	B1, C1	B1(Euskadi), C1 (Nazionala)	19/04/2000 (B1), 12/06/2003 (c1)	Ez	Bai	Interneteko konexioaren hornitzailea, datuen konmutazio hornidura (paketeen edo zirkuituen arabera), telefono finakoaren edo sakelakoaren zerbitzuaren birsalmanta, eskariaren arabera bidea
URNIATEL	Gipuzkoa	B1	Andoaín, Lasarte-Oria, Astigarraga, Hernani y Urnieta	24/06/1999	Ez	Bai	Interneteko konexioaren hornitzailea
Autopista Vascoaragonesa Concesionaria Española, S.A.	Bizkaia	C1	Nazionala	21/06/2001	Ez	Bai	
IBERDROLA, S.A.	Bizkaia	C1	Nazionala	22/06/2000	Ez	Bai	Interneteko konexioaren hornitzailea, datuen konmutazioaren hornidura (paketeen edo zirkuituen arabera), telefonia finakoaren zerbitzuaren birsalmanta
Servicio de Telecomunicación Puente Genil, S.L.	Araba	C1	Nazionala	21/03/2002	Ez	Bai	Interneteko konexioaren hornitzailea, transmisio taitasunaren/zirkuituen salmenta, informazioaren, testuaren, irudiaren eta soinuaren transmisioa (sare publiko finakoaren bidez), bideokonferentzia
TARIFA PLANA, S.L.	Bizkaia	C2	Nazionala	04/11/1999	Bai	Ez	Interneteko konexioaren hornitzailea, datuen nahiz irudiaren puntu anitzeko banaketa (eskariaren menpe)

A1 motako lizentziak: Jendearentzako telefono zerbitzu finakoa, konmutazio eta transmisio bideak erabiliz.

A2 motako lizentziak: Jendearentzako telefonia mugikorren zerbitzua, konmutazio eta transmisio bideak erabiliz. Sarearen ustiapenaren barruan, errentatzeko moduko lineen zerbitzua emateko eskubidea sartzen da.

B2 motak lizentziak: Jendearentzako telefonia mugikorren zerbitzua, titularrak telefonia mugikorren sareak ezarri edo ustiatu.

C1 motako lizentzia: Ezartzen edo ustiatzen diren sareak publikoak direnean, jabari publiko irati-elektrolikorik gabe. Sarearen ustiapenaren barruan, errentatzeko moduko lineen zerbitzua emateko eskubidea sartzen da.

C2 motako lizentziak: Ezartzen edo ustiatzen diren sareak publikoak direnean eta jabari publiko irati-elektrolikoaren erabilera dutenean.

Iturria: Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordea.

za bera esan daiteke, baina banda zabalarik dagokionez, batez bestekotik gora egon arren, posizio asko galdu dira Estatuko beste autonomia erkidego batzuei dagokionez.


Banda zabala telekomunikazioen merkatuko protagonista da azken urteetan, batez ere ADSLren garapenaren bidez; izan ere, estatuan %45eko urterik urterako hazkundeak dauka eta 2005aren amaieran 3,5 milioi konexio baino gehiago egon dira; horietatik %3,8 baino ez dira EAEkoak (kablean, berriz, ehunekoa %12koa da).

Hala eta guztiz ere, 90eko hamarkadaren amaieran pentsa zitekeenaren aurka, banda zabaleko (finkoa eta mugikorra) komunikazio sare berrien hedapen fisikoan ez

da aldaketa drastikorik egon; sare horiek beharrezkoak dira Informazioaren Gizarteko zerbitzu berrien garapenerako. Telekomunikazio operadoreek Estatuan egindako guztizko inbertsioak gero eta txikiagoak dira 2000tik hona, batez ere telefonia finakoaren eta banda zabala garatzeko inbertsiorik ez egitearen eraginez. Izan ere, 2003an (azken datuak urte horri buruzkoak) –%6ko beherakada egon da telefono linea finakoaren kopuruan, Estatu osoan, eta horixe izan da EB-15ean egon den beherakadarik handienetarikoa ere.

EAEko Herri Administrazioak Erkidegoan Informazioaren Gizartea garatzeko planteaturiko ekintzen artean, ai-

TELEKOMUNIKAZIOEN MERKATUKO INBERTSIOAREN BILAKAERA (ESTATUA)



Iturria: CMT.

pagarria da Euskadi Informazioaren Gizartean Plana (2001-2003), horren helburuak 2005era arte finkatu dira, lau ardatz estrategikotan oinarrituz: heziketa eta aldaketa kulturala, on-line Administrazioa, e-Business eta Azpiegiturak. Telekomunikazioen azpiegiturak, hasiera-hasieratik, Eusko Jaurlaritzaren Informazioaren Gizarteko politikaren lehentasunetarikoa izan dira; horren barruan zenbait ekintza sartzen dira, esate baterako, banda zabaleko azpiegituren hedapena, operadore pribatuaren inbertsio planen estalduratik kanpo gelditzen diren biztanle guñeetarako. Azpiegiturretan egindako esku-hartze publikoa beste jarduketak batzuekin osatzen da; esaterako: Wi-Fi sarea profesionalak igarotzeko lekuetan (Kongresu Jauregiak, hotelak,...); azken belaunaldiko sare azpiegituren nahiz teknologien ezarkuntza, I+G+B-rako sare akademikoa garatzeko (i2BASK); multimedia korridorearen sorrera, kalitateko zerbitzuko komunikazioen erabilera behar duten proiektuei euskarri fisikoa emateko; IP protokolo berriak edota banda zabala behar duten aplikazioak; eta EuskoNIX deritzonaren edo trafiko trukeko enbargunearen sorrera, Interneteko zerbitzuen belaunaldi berriaren azkartasuna eta kalitatea hobetzeko (multimedia, eskariaren araberako bideoa).

Plan hau EAEko Administrazioan bertan osatzen da, "Informatika eta Telekomunikazio Plana, 2003-2005" deritzonarekin, eta bertan, jarraipena ematen zaio aurreko hiru urtekoan landutako planari; protagonismo handiagoa

ematen zaio Administrazioaren garapenari. Lau lerro estrategikotan biltzen da: barruko kudeaketaren hobekuntza, administrazio elektronikoaren garapena, azpiegitura teknologikoen hobekuntza eta antolaketaren sustapena. Ekintzen artean, aipagarriak dira hiritarrentzako eta enpresentzako sinadura elektronikoa (IZENPE), jakinarazpen elektronikoa, lizitazio elektronikoa, on-line ordainketa eta hiritarren atari berri baten garapen, eta atari horretan, Administrazioarekiko tramiteak (lehenengo transakzio mailan) garatzen ari dira.

Izan ere, banda zabaleko konexioetako estaldura txikiago horrek kezkatuta dauka Europar Batasuna, eta horrek estrategia bat abiatu du, Interneteko banda zabaleko konexioek %100eko estaldura edukitzeko (Europar Batasunak) eta etxeetako estaldura %50ekoa izateko (2010ean); horretarako, baliabide komunitarioak erabili ditu, esate baterako, egiturazko eta landa garapeneko fondoak, landako eta bazterturiko eskualdeen atzerakuntza teknologikoa murrizteko eta Europako sartze tasa txikiagoa murrizteko, aurrerago dauden herriei dagokienez (Estatu Batuetan sartze tasa %14,5ekoa da eta EBn, berriz, %11,5ekoa, baina estatu kide batzuk —Herbehereak, Finlandia, Danimarka, Belgika eta Suedia— %20tik gora dabilta. Espainia batez betekoa baino apur bat gorago dago—).

Gainera, arauketaren arloan, kontuan hartu behar da eraikinetako azpiegitura komunei (telekomunikazio zerbi-

tzuetarako) buruzko otsailaren 27ko 1/1998 Errege Lege Dekretuak, apirilaren 4ko 401 Errege Dekretuaren bidez garatuta (telekomunikazioen azpiegitura komunaren Araudia onetsi duen dekretua, eraikinen barruan telekomunikazio zerbitzuak lortzeko eta telekomunikazio ekipoak nahiz sistemak instalatzeko), nahitaez bete beharreko baldintzak ezartzen ditu, teknologia berriak etxebizitzetan errazago instalatzeko, telekomunikazio zerbitzuen lorpenari dagokionez (esate baterako, telefoniaren modalitate guztiak, internet, kable bidezko teknologia, soinuaren bidezko irratia, telebista analogikoak, digitalak, lurrekoak edo satellite bidezkoak, etab.).

Azkenik, telekomunikazioei loturiko zerbitzu-ematearen barruan, era askotako jarduerak sartzen dira; esaterako, telefonia eta Interneteko konexioa (azken erabiltzaileari), edo datuen nahiz irudien transmisioa zerbitzu aurreratuak, hostinga, etab. EAEn komunikazio elektronikoko zerbitzuen eta sareen 8 operadore daude, Telekomunikazioen Merkatuko Batzordearen Erregistroan inskribatuta (egoitza EAEn), baina jakina, Estatuko beste operadore batzuek ere zerbitzuak eskaintzen dituzte Erkidegoan.

4.3. Energia

Energiaren sektorea EAEko industria sektorerik garrantzitsuenetakoa da; industria balio erantsi korrantearen %7ko ekarpena egiten du, enpleguaren %2 baino gutxiagorekin. EAEn eta Estatuan nahiz inguruko herrietan, erregai fosilekiko mendekotasun handia dago. Ikatzaren ostean (hirurogeiko hamarkadan energia eskariaren erdia), hirurogeita hamarrekiko hamarkadan petrolioaren eratorriak iritsi ziren, eta lauogeiko hamarkadan gas naturala, kontsumo elektrikoaren hazkunde handiarekin batera. Iberdrola eta Petronor enpresak EAEn finkatu dira eta garrantzi handia dute Estatu osoan.

Petronor findegiak urtero petrolio gordinaren 11 milioi tona prozesatzeko gaitasuna dauka, eta, olio-bideen

bitartez, CLH pilatzeko zentroekin (Rivabellosa eta Valladolid) eta Bilboko Portuarekin lotuta dago; azken horrek tamaina handiko petrolio-ontziak porturatzen instalazioak ditu, baita pilaketako instalazioak eta EAEko beste lekuetan banatzeko logistika ere). Petrolio gordinaren eta horren eratorriak pilatzeko gaitasuna, gure erkidegoan, 2,9 milioi m³-koa da: %31 gordinaren deposituak Petronorren findegian, %41 eratorritako produktuak findegi horrextan eta %28 gainerako operadoreak.

Gasaren sektoreak likidoturiko gas naturala (LGN) inportatzeko terminala dauka Bilboko Portuan 2003tik (300.000 m³-ko pilaketa gaitasuna, metano-ontziak deskargatzeko kaiarekin, 150.000 m³-ko bi pilaketa deposituarekin eta 800.000 Nm³/h-ko birgasifikazio gaitasunarekin); gainera, oinarritako terminal bat dauka gasa 3.700 km inguruko distantzian garraiatzeko eta banatzeko, eta hori Estatuko gas-sistemara konektaturik dago Hegoaldetik eta Europako sarera Irunitik (eraikuntza fase aurreratuan). Bestalde, Bermeo aurreko "Gaviota" gas naturaleko antzinako meatokia birmoldatu egin da eta pilaketa estrategikorako biltegia da orain (780 milioi Nm³ gaseko bolumen erabilgarria).


Sektore elektrikoari dagokionez, sorkuntza elektrikoaren parkea eraldaketa fasean dago; izan ere, Santurtziko bi planta termoelektrikoak (I. eta II. taldeak, fuel-olioa edo gas naturala) apurka-apurka ixten joateko asmoa dago, baita Paisaiakoa ere (inportazioko harrikatza), hogei-ta hamar urte baino gehiago baitauka; bestalde, ziklo konbinatuko zentralak sortu dira (Bahia Bizkaia Electricidad, 800 MW-rekin, Bilboko Portuan —2003—, Iberdrola 400 MW-rekin Santurtzin —2004— eta Bizkaia Energia Boroan —2005—). Gainera, produkzioa tamaina handiko bi instalazio hidraulikorekin osatzen da (Sobron eta Barazar; bien artean 113 MW-ko gaitasuna), eta 100 instalazio minihidrauliko baino gehiago dago (10 MW-tik beherako potentzia, guztira 60 MW inguru), baita 3 instalazio mikrohidrauliko ere (guztira 1,4 kW). Garraio sarea,

TRANSFORMAZIOKO IRTEERAK, ZENTRAL MOTAREN ARABERA, EAEn

	Ktep		% 2004	Hazkundearen %		
	2003	2004		01-02	02-03	03-04
Guztira	10.429	10.774	100,0	-9,4	19,2	3,3
Findegia	9.633	9.756	90,6	-12,5	21,2	1,3
Z. termoelektrikoa	311	514	4,8	97,7	-13,5	65,4
Baterako sorkuntza	376	384	3,6	15,0	12,1	2,2
Koketegia	107	117	1,1	11,4	1,3	9,5
Biogas planta	3	3	0,03	9,5	21,7	3,6

Iturria: EEE.

ENERGIAREN SORRERAK ETA KONTSUMOAK EAEn IZANDAKO BILAKAERA



Iturria: EEE.


zenbait puntutan, Estatuko sarearekin eta Frantziarekin konektaturik dago (220 Kv eta 400 Kv, azken horrek 486 km-ko luzerarekin); halaber, azpiestazioak eta transformagailuak daude, baita energia elektrikoa ekoizletik azken kontsumitzaileera eramateko banaketa sarea ere, eta horrek Frantziarekiko trukeak egiten ditu, Hernani-Cantegrit —400 kV— eta Arkale-Mougerre —220 kV— lineen bidez.

Energiako beste azpiegitura talde sorberri bat energia berriztagarriena da. Esate baterako, energia eolikoa; lau parke daude funtzionamenduan eta horien potentzia osoa 134 MW-koa da (Elgea 27 MW4, Urkilla 32 MW eta Badaia 49 MW Araban, eta Oiz 26 MW Bizkaian), eta gainera, estazio "minieoliko" asko daude (400 W-tik 45 kW-ra bitartekoak). Bestalde, hondakindegiko lau biogas instalazio daude (BioArtigas Bilbon, BioSanmarkos Donostian, BioGardelegi Gasteizen eta BioSasieta Beasainen; Jatakoa eta Igorrekoa, berriz, eraikuntza fasean daude); gainera, lokatzen araztegi bat dago (Galindo, Sestaon); guztira 5,6 MW dituzte. 2005ean Zabalgarbiko hiri hondakin solidoen suspertze energetikorako planta hasi da martxan; HHSen eta gas naturalaren konbinazioan oinarritzen da (Bilboko Artigaseko hondakindegian). Halaber, EAEn baterako sorkuntzako 90 instalazio inguru daude eta horien potentzia osoa 440 MW-koa da (gehienak industriakoak), baita plaka fotovoltaiakoko 770 instalazio baino gehiago ere, eta horien potentzia osoa 1,6

MWp-koa da energia elektrikoa sortzeko (autokontsumorako edo sare elektrikora konektatuta, sistema hornitze-ko); azkenik, eguzki-kolektore termikoen 240 instalazio daude, ur beroa sortzeko.

2005ean energiaren sektoreak jardura maila handia mantendu du, baina erritmoaren nolabaiteko motelteea ikusten da, aurreko urteekin konparatuta, *Industria Produktzioaren Indizeak* sektore horri buruz adierazitakoaren arabera. Indize horrek %7,6ko hazkundera izan du 2005ean, aurreko urteko hazkunderaren erdia, baina bigarren seihilekoan hazkunde handia izan du.

Industria Prezioen Indizeko datuen arabera, energia elektrikoaren, gasaren eta uraren sektoreko prezioek %3,5eko hazkundera izan dute 2005ean, aurreko bi urteetan murriztapenak izan ondoren, eta azken hilean %8,5eko urterik urterako tasa lortu dute. *Kontsumoko Prezioen Indizeko* energia osagaiak urtetik urterako %8,4ko hazkundera izan du 2005ean, eta erregaien tasak, berriz, %11,4ko hazkundera izan du, aurreko urtean baino bi aldiz handiagoa. Energiaren osagaiak dagokienez, Eurostateg bildutako datuen arabera, etxeen kontsumorako elektrizitatearen prezioak %1,7ko hazkundera izan du 2005ean, eta industria erabilerako elektrizitatearen prezioak %27,5eko hazkundera izan du. Etxeko gasaren prezioak %3ko hazkundera izan du eta industria erabilerarako gasaren prezioak %6,1eko hazkundera. Gainera, iturri

ENERGIA INTENSITATEAREN BILAKAERA SEKTOREKA

Iturria: Geuk landuta, EEEren eta Eustaten datuetan oinarrituz.

horren arabera, kontsumitzaileari saltzeko gasolinaren batez besteko prezioak (zergak barne) %12,5eko hazkundea izan du, eta gas-olioaren prezioak %24,2ko hazkundea izan du 2005ean.

EAEko energia sektoreko produkzioari buruzko azken datuek aditzera ematen dutenez (Energiaren Euskal Erakundeak 2004an emandako datuak), EAEko oinarritzko energiaren produkzioa 401,6 ktep-koa da, eta horrek %15,8ko hazkundea adierazten du 2003ari dagokionez, energia berriztagarriek izandako %21,4ko hazkunde handiaren ondorioz (bertako iturri nagusia); izan ere, gainerakoen kasuan (petrolioaren eratorriak eta eratorritako energiak) murriztapenak egon dira. Oinarritzko energiaren produkzio urri horrek EAEko energia eskariaren %5,5 betetzen du, aurreko urtean baino puntu erdi gehiago, EAEko energiaren azken kontsumoak urte horretan %4,6ko hazkundea izan arren, aurreko urtean baino puntu erdi

gehiago (batik bat, petrolioaren eta gas naturalaren eratorriak, %2,8ko hazkundea, eta elektrizitatea, %7,1eko hazkundea).

EAEko energia produkzio osoak (eraldaketa irteerak) %19,2ko hazkundea izan zuen 2003an; 2004an tasa hori moderatu eta %3,3ko hazkunde baino ez da egon, findegien jardura baxuaren eraginez (EAEko eraldaturiko energiaren %90); hala ere, zentral termoelektrokoetan eta koketegiaren hazkunde handia egon da (%65 eta %9,5, hurrenez hurren), eta eratorritako energietan ere hazkunde moderatua egon da (biogaseko eta baterako sorkuntzako plantak), hurrenez hurren, %3,6koa eta %2,2koa.


Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren "Ingurumen Adierazleak 2005" txostenean adierazitakoaren arabera, energiaren azken kontsumoak %38ko hazkundea izan du EAEko, 1990etik 2004ra, eta azken urte horretan 5.574 ktep-ekoa izan da, aurreko urtean baino %4,8 handia-

SEKTOREETAKO ENERGIAREN AZKEN KONTSUMOA

	Ktep			Banak.	Urteko aldak. %		
	2002	2003	2004		01-02	02-03	03-04
Guztira	5.630	5.320	5.574	100,0	11,7	-5,5	4,8
Industria-erakuntza	2.969	2.545	2.659	47,7	21,2	-14,3	4,5
Garraioa	1.590	1.657	1.711	30,7	2,8	4,2	3,3
Nekazaritza eta arr.	173	175	177	3,2	13,6	1,2	1,1
Zerbitzuak	363	377	411	7,4	2,0	3,7	9,2
Egoitza	535	567	615	11,0	-0,4	6,0	8,5


Iturria: Energiaren Euskal Erakundea <www.eve.es>.

INTENTSITATE ENERGETIKOA, KONTSUMO ENERGETIKOA ETA BPG



Iturria: Eusko Jaurlaritza "Ingurumen Adierazleak 2005".

AZKEN KONTSUMO ENERGETIKOA SEKOREKA (KTEP)




Iturria: Eusko Jaurlaritza "Ingurumen Adierazleak 2005".


goa. Osaketa sektorialari dagokionez, kontsumo horretan eraginik handiena dutenak industria (%48) eta garraioa (%31) dira. Horrek %4,5eko hazkundea izan du industrian, %3,3koa garraioetan eta %1,1koa lehen sektorean, 2003ari dagokionez. Hala eta guztiz ere, aurtan energia kontsumoan hazkunderik handienak izan dituzten sektoreak zerbitzuak (%9,2) eta egoitza sektorea (%8,5)

dira. Aipagarria da, halaber, azken kontsumoak energia iturriaren arabera duen azken osaketan eraginik handiena dutenak petrolioaren eratorriak (%37) eta elektrizitatea (%28) direla.

Bestalde, intentsitate energetikoak, hau da, sektore bakoitzak bere Balio Erantsi Gordinari dagokionez duen

AZKEN KONTSUMO ENERGETIKOA SEKTOREKA


Iturria: Eusko Jaurlaritza "Ingurumen Adierazleak 2005".

**ENERGIAREN AZKEN KONTSUMOA,
ENERGIA ITURRIAREN ARABERA (2004)**


Iturria: Eusko Jaurlaritza "Ingurumen Adierazleak 2005".

azken kontsumoak (egoitza sektorerako konparaziotzat biztanleria erabiliz), %1,4ko hazkundera izan du 2004an. Goranzko joerak ez dira balio berekoak sektore guztietan, eta hazkunderik handienak egoitzan eta zerbitzuetan egon dira; lehen sektorean murriztapena egon da. Nolanahi ere, 1990etik 2004ra, intentsitate energetikoak batez besteko %13ko murriztapena izan du, 1997tik aurrera %2ko hazkundera egon arren.





1


Kanpoko inguru ekonomikoa

182

2005eko parametro ekonomikoetan moteltze txiki bat ikusi da mundu osoko hazkundean, eta gainera, petrolioaren prezioek gora egin dute eta merkataritza truke gutxiago dago. Izan ere, urte honetan hazkunderik txikiena munduko merkataritzan egon da; hain zuzen ere, 2004ko %10,4tik 2005eko %7,3ra moteldu da hazkunde hori.

Parametro ekonomiko horiek ez ezik, ez da ahaztu behar urte honetan ezegonkortasun politiko handia egon dela Ekialde Ertainean, eta Londreseko atentatuak ere hortxe daude; gainera, urteko bigarren erdian Katrina urakanak hondamen handiak eragin ditu Mexikoko golko kostaldean (abuztuan) eta Indiako azpikontinentean ere 7,6 graduko lurrikara egon da urrian (Richter eskalan),

BPGREN BILAKAERA HERRI GARATUETAN



Iturria: BZZN, Ekonomia Ministerioa.

		2004	2005
Munduko BPGren hazkundera	(hazk. %)	5,3	4,8
Ekonomia aurreratuak	(hazk. %)	3,3	2,7
Europar Batasuna	(hazk. %)	2,5	1,8
Munduko merkataritza	(hazk. %)	10,4	7,3
North Sea brent petrolio			
	(\$/upela; urteko b. best.)	38,2	54,5
Truke tasa \$ - €	(urteko b. bestekoa)	1,24	1,24
	(abendua)	1,34	1,18
Esku-hartzeko interes tasa	(abenduko %)		
	EB	2,00	2,25
	AEB	2,25	4,25
Burtsako indizea	(aldak. %, urteko b. best.)		
Dow Jones (New York)		14,5	2,0
Eurostoxx zabala		18,2	17,4

Iturriak: NMF, Ekonomia Ministerioa.

1.000 pertsona baino gehiago hil dituen; halaber, Asiatik hego-ekialdean hegaztien gripearen pandemiaren mehatxua sortu zen.

Munduko BPGren hazkundera, NMFk egindako kalkularen arabera, %4,8koa izan da, aurreko urtean baino puntu erdi txikiagoa; horri dagokionez, AEBetako BPG zazpi hamarrenetan moteldu da eta EBk %1,8ko hazkundera baino ez du lortu; emaitza eskas horietan salbuespen bakarra Japonia da. Aldiz, ekonomia sorberriek dinamismo ekonomiko handiagoa izan dute, mundu osoko ekono-


miaren moteltze horren barruan. Horrela, aipagarria da Amerika Latinoak erakutsi duen suspertzea, baina urte honetan eremuko emaitza orokorrak Brasil eta Mexikoren hazkunde txikiagoen lasta dauka; era berean, Ekialde Ertainak ere susperraldia izan du, petrolioaren prezioak gora egitearen ondorioz, eta Sahara hegoaldeko Afrika eta Asia ere suspertu egin dira; Asiaren kasuan aipagarria da Txinaren eta Indiaren %8tik gorako hazkundera: suspertze azkarra erakutsi dute joan den urteko tsunamiaren ostean. Balantzaren beste aldean, lehenengo Sobietar Batasuneko errepublikak eta Europa erdialdeko nahiz ekialdeko herriak daude, bertako ekonomiaren erritmoa moteldu egin baita apur bat.

1.1. Faktore ekonomiko nagusiak

Petrolioaren prezioa: 2002an hasitako prezioen hazkundera bizkortu egin da. North Sea brent petrolioaren prezioaren batez besteko hazkundera, dolarretan, %42koa izan da, 2004an baino 10 puntu handiagoa, eta abuztuan 64\$/upeletik gorakoa izan zen. Izan ere, dolar iraunkorreko prezio horiek 1985etik honako preziorik handienak izan dira. Petrolio upelak eurotan izandako prezioak %35eko hazkundera izan du (aurreko urtean baino ia 25 puntu handiagoa).


Gainera, manufacturetarako funtsezko beste lehen-gai batzuen prezioan ere hazkunde handiak izan dira urte honetan, batez ere metalen kasuan, horien prezioek

PETROLIOAREN PREZIOA (NORTH SEA BRENT)



Iturria: Ekonomia Ministerioa.

EUROPAREN, DOLARRAREN ETA YENAREN TRUKE TASAREN BILAKAERA




Iturria: Ekonomia Ministerioa.

%16ko hazkundea izan baitute (aurreko urtean izandako hazkundearen erdia).

Truke tasak: 2004an nolabaiteko moteltzea hasi zen, euroak dollarrarekiko zuen balio-irabaztean, baina 2005ean joera hori goitik behera aldatu da: urtearen

amaieran euroaren balio-irabaztea %11,6koa izan da dollarrari dagokionez (mantendu egin da yenari dagokionez, %1eko balio-irabazte txiki batekin). Hala eta guztiz ere, urteko batez bestekoan, Europako monetaren kotizazioa iraunkor mantendu da AEBetako monetari dagokionez.

INTERES TASEN BILAKAERA EBN ETA AEBN



Iturria: Ekonomia Ministerioa.

Horrela, 2004ko amaierako euro bakoitzeko 1,34 dolarreko truketik 2005eko abenduko 1,18ko trukera igaro da.

Interes tasak: aldagai honetan ere 2001etik aurrerako beheranzko joeran aldaketa bat ikusi da, eta hori, berriaz, joan den urtearen amaieratik hasi da nabaritzen, batez ere Amerikako Estatu Batuetan.

AEBetako Erreserba Federalaren esku-hartze tasek %2,25ean hasi zuten urtea eta zortzi aldiz igo dira urtean zehar (bakoitzean 25 puntu), eta urtea %4,25ean amaitu dute (2001en erdialdetik honako altuenak). Bestalde, Europako Banku Zentralak, 2005ean egin duen mugimendu bakarrean, urte amaieran egokitu egin ditu oinarritzko 25 puntutan, eta horrela, %2,25ean daude. Horrela, bi ekonomien arteko interes tasen aldea nulua izan da aurreko urtearen amaieran eta EDBren aldekoa izan da azken hiru urteetan; alde hori ehuneko bi puntutara handitu da eta 2000ko irailetik ez da halakorik gertatu.

Inflazioa: urte honetan prezioek gora egin dute, energiaren eta oinarritzko beste produktu batzuen kostu handiagoen eraginez, baina oraindik ere horiek kontrolpean mantendu dira. Horrela, NMFk dioenez, herri aurreratuen multzoan bi hamarreneko gorakada egon da, eta 2005ean %2tik %2,2ra igo dira; garapen bideko herrietan, berriaz, hamarren batean igo dira, %5,8tik %5,9ra igaroz.

Finantza merkatuak: orokorrean urte ona izan da burtseztat, batez ere Europako burtseztat. Europako Eurostoxx indizeak %17,4ko urteko batez besteko hazkunde izan du, aurreko urteko hazkundearen antzekoa, eta urte amaierako hazkundeak %23koa izan da. Ibex35 deritzonak %20,8ko hazkunde izan du urtero, Tokioko burtsako Nikkei indizeak izandakoa baino handiagoa; bestalde, New Yorkeko burtsako Dow-Jones indizeak izan ditu emaitzari txarrenak, urteko %2ko hazkunde baino ez baitu izan.

Enplegua: OCDEren eremuan enplegua %1,3ko hazkundeetan mantendu da, eta jokabide hobea izan du erakunde horretako bigarren mailako herrietan, zazpi herri nagusietan baino, eta horrela, langabezia tasak murriztu egin dira apur bat.

1.2. Bilakaera ekonomikoa arloka

Amerikako Estatu Batuak: azken bi urteetako hedapen ekonomikoa, dirudienez, 2005ean egonkortu egin da %3,5eko tasetan (aurreko urtean baino zazpi hamarren gutxiago), batez ere urteko bigarren sei hilekoan, Katrina urakanak eragindako hondamenen (ezagutzen den seigarren urakanik indartsuena), petrolioaren prezioak gora egitearen (kontsumoko prezioek %3,4ko hazkunde izan dute, 2004an baino sei hamarren gehiago) eta, azken

batean, kontsumo pribatua ahultzearen eraginez (azken hori 2004an baino puntu erdi txikiagoa). 2005eko abuztuan Amerikako Estatu Batuetako hegoaldea eta erdialdea hondatu zuen urakan horrek 1.422 pertsona hil eta kalte material handiak eragin zituen (gutxi gorabehera, 75 mila milioi dolar), eta horrela, bertako historia osoko hondamen naturalik handiena eta garestiena izan da; horrela, hango BPGren murriztapena sortu zuen, eta hori lehenengo hiru hilabeteetako %3,6tik azken hiru hilekoko %3,2ra igaro zen.

Hala eta guztiz ere, inbertsioa indartsu mantendu da, bai egoitzakoa (dirudienez, higiezin *boomak* egonkortze zantzuak erakutsi ditu, etxebizitzaren prezio handien eta interes tasen gorakadaren ondorioz) eta bai egoitzakoa ez dena; gainera, langabezia tasa gero eta beheragoa izan da (2004ko %5,5etik 2005eko %5,1era) eta, produktibitateak moteltze zantzuak erakusten hasi arren, oraindik ere gainerako herri garatuetakoa baino %2,1 handiagoa izan da.

Une honetan, ekonomia horren ahultasunik handienak, alde batetik, kanpoko defizit handiegiaren eraginezkoak dira; izan ere, 2005ean ere handitu egin zen, inportazioak moderazio handiagoa izan arren (bai kontsumoa murriztearen eta bai dolarraren balioa galtzearen eraginez, azken urteetan), eta horrela, kontu korronteko defizita BPGren $-5,7$ tik (2004) $-6,4$ ra (2005) murriztu da. Bestalde, ahultasunik defizit publikoaren eraginezkoak dira, horrek 2005ean ez baitu behera egin, zergen bidezko diru-sarrerek hazkunde handia izan arren, Iraken inbasioaren gastu militar handien eta Katrinaren ondorioz.

Japonia: Goranzko joeran jarraitu du eta horren erritmoa bizkortu egin da urteko lehenengo seihilekoan (%5era iritsita). 2005ean BPGren hazkunde tasa %2,7koa da, aurreko urtean baino ia %2,7 puntu; bertan, kontsumo pribatuak langabezia murriztu egin da hirugarren urtez) eta egoitzakoa ez den inbertsioek goranzko joeran jarraitu dute (%1,7, 2004an baino bi hamarren gehiago, eta %7,4, 2004an baino puntu eta erdi gehiago, hurrenez hurren). Aldiz, esportazioa asko moderatu da, eta 2004ko %14,4tik 2005eko %6,5era igaro da, yenaren balioa %1,8an galdu arren (urteko batez bestekoa), dolarrari dagokionez, batik bat bigarren seihilekoan (abenduan %14,3). Horrela, defizit publikoa puntu eta erdian murriztu da, eta 2004ko BPGren $-8,1$ etik 2005eko $-6,6$ ra igaro da, baina zor garbia oraindik ere oso handia eta gero eta altuagoa da (BPGren %82,9).

Asia: Ekonomia sorberrien hazkundea %8tik gora mantendu da, esportazioarekiko mendekotasuna handia

izan arren, eta hori, lehen ikusi dugunez, apur bat moteldu egin da urte honetan. Hala eta guztiz ere, Japoniaren susperraldia eta Txinaren hazkunde handia aintzat hartuta, aurreko urteko BPGren hazkunde tasak errepikatu dira: %8,2 eremu osoan, %9,9 Txinan, %8,3 Indian eta %5,2 ASEAN-4 deritzon herrietan (Indonesia, Tailandia, Filipinak eta Malasia), eta %4,6 lau herri industrializatu berrietan (Korea, Taiwan, Singapur eta Hong Kong), NMFk emandako datuen arabera. Gainera, superabit korrontea hazi egin da (BPGren %4,5 zonako herrien multzoan eta %7,1 Txinan, hau da, eremu osoko superabitaren bi heren); prezioak, berriz, moderatu egin dira, eta 2004ko %4tik 2005eko %3,5era igaro da, Txinak izandako beherakadaren ondorioz (%1,8ko hazkunde, aurreko urtean baino bi puntu gutxiago), baina Asia hegoaldeko eta ASEAN-4 deritzon herrietan gora egin dute.

Ekialde ertaina: Petrolioaren prezioak gora egitearen eta nekazaritza suspertzearen eraginez, Ekialde Ertaineko herriek %5,9ko hazkunde tasa handiak mantendu dituzte (2004koak baino puntu erdi handiagoak), eta bertako merkataritza superabita %12,4an handitu da 2004an (BPGri dagokionez) eta %19,1ean 2005ean. Izan ere, %5etik igaro ez diren bakarrak Libano (%1) eta Siria (%3,5) izan dira. Gainera, barruko eskaria indartsua da eta inflazio tasa %8,4an mantendu da zonan, baita petrolio esportatzen ez duten eta nekazaritzan oinarritzen diren herrietan ere, adibidez, Egipton eta Israelen, baina zonako ezegonkortasun politikoa oraindik ere oso handia da.

EBn integratu gabeko Ekialdeko eta Hegoaldeko Europako herriak (Turkia, Bulgaria, Errumania eta Jugoslavia ohiko errepublikak): BPGren hazkunde tasak moderatu egin dira, baina oraindik ere altuak dira; hala eta guztiz ere, defizit korronteak oso handiak dira. Turkiak %7,4ko hazkunde izan du, 2004an baino puntu eta erdi gutxiago, eta bertako inflazio tasa moderatu egin da apur bat (%8,2); Turkiako liraren balioak gora egin arren, merkataritza defizita larriagotu egin da. Bulgariak %5,5eko hazkunde izan du, aurreko urtean baino bi hamarren txikiagoa. Errumaniako BPG %4,1ean hazi da, 2004ko hazkundearen erdia, eta Kroaziak %4,1eko hazkunde izan du, aurreko urtean baino hiru hamarren gutxiago, barne eskaria nahiko indartsua izatearen ondorioz (prezioek ere gora egin dute).

Estatu Independenteen Elkarte: EIEen ere murriztu egin dira aurreko bi urteetako hazkunde tasa handiak, batik bat handiagoak eta nahiko aberatsagoak diren herrietan, petrolio gordinaren eta lehengai batzuen prezio-

BPG ERREALAREN ETA PER CAPITA BPGREN HAZKUNDEA ARLOA (NMF)

	Bizt. %	BPG (PPP) %	per c. BPG (PPP \$-tan)	BPG err. hazk. %		
	2004	2004	2004	1990-2003	2004	2005
Mundua (175 herri)	100	100	19.375	3,3	5,3	4,8
Ekonomia aurreratuak (29)	15,4	54,6	31.532	2,5	3,3	2,7
AEB	4,7	20,9	39.496	2,8	4,2	3,5
Japonia	2,0	6,9	29.906	1,5	2,3	2,7
Europar Batasuna (25)	7,2	21,1	25.596	2,1	2,5	1,8
Euroren eremua (12)	4,9	15,3	27.459	1,9	2,1	1,3
EBren gainerakoa (13)	2,3	5,8	21.729	2,6	3,6	3,1
Beste ekonom. aurreratu batz. (13)	2,2	6,6	26.139	4,1	4,6	3,7
Asiako industria ekonom. (4)	1,3	3,5	23.739	5,6	5,8	4,6
Garapen bideko ekonom. (146 herri)	84,6	45,4	4.755	4,2	7,6	7,2
Afrika (48)	12,5	3,3	2.322	2,7	5,5	5,2
Asia (23)	52,1	24,6	4.187	7,1	8,8	8,6
Txina	20,7	13,2	5.642	9,3	10,1	9,9
India	17,0	5,9	3.080	5,6	8,1	8,3
Ekialde Ertaina (14)	4,0	2,8	6.232	4,2	5,4	5,9
Amerika Latinoa (33)	8,5	7,5	7.821	2,6	5,6	4,3
Erdialdeko eta Ekiald. Europa (15)	2,9	3,4	10.272	1,7	6,5	5,3
CIS (13)	4,5	3,8	7.536	-1,5	8,4	6,5
Errusia	2,3	2,6	10.179	-1,2	7,2	6,4

(*) 2005erako 2006ko apirilera aurreikuspena da.

Ekonomia aurreratuak (29 herri): G-7, EB, Asiako 4, Suitza, Norvegia, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Asiako industria ekonomiak: Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong, Singapur. Asia (23 herri), Japonia eta Asiako 4 industria ekonomiak izan ezik. Erdialdeko eta Ekialdeko Europa (15): Jugoslavia ohiko errepublikak, Europa Ekialdeko herriak (orain EB), Albania eta Turkia. Estatu Independenteen Elkarte-CIS (13 herri): lehenengo Sobietar Batasuneko errepublikak eta Mongolia.

Iturria: NMF "Munduko ekonomiaren ikuspegiak" (2005eko urria).

ek gora egin arren. Elkarre horren BPG 2004ko %8,4tik 2005eko %6,5era igaro da; hain zuzen ere, Errusiak %6,4ko hazkundera izan du (2004an baino zortzi hamarren gutxiago), baina Ukrainiak %2,6ko hazkundera baino ez du izan (aurreko urtean %12,1), batez ere inbertsioaren ahultasunaren eta produkzio gaitasunaren defizitaren eraginez. Eremuko inflazioa oraindik ere bi digituetan dago, eta 2004ko %10,3tik 2005eko %12,3ra igaro da.

Amerika Latinoa: 2003an hasitako suspertze ekonomikoak aurrera jarraitu du 2005ean, eta gainera, gero eta indartze handiagoa erakusten du eremu osoan, herri garrantzitsu batzuek, adibidez, Brasilek edo Mexikok, 2004an baino hazkunde tasa txikiagoak izan arren. Izan ere, kanpoko inbertsio jarioak eta esportazioa indartsu mantendu dira zonan; zor publikoa murriztu egin da, eta gainera, herri batzuek, esaterako, Argentinak eta Brasilek, ordaindu egin dituzte NMFrekiko maileguak. Azpi-kontinenteko BPGren tasa %4,3koa da (2004an %5,6koa), baina herririk gehienek aurreko urtean baino hazkunde handiagoa izan dute. Horixe gertatu da petrolio, metal eta nekazaritza produktuen esportatzaile batzuen kasuan; esate baterako, Argentina (%9,2), Txile (%6,3), Kolonbia (%5,1), Peru (%6,7), eta Erdialdeko Amerikako eta Karibeko herriak. Gainera, Uruguain (%6)

edo Venezuelen (%9,3), tasak oraindik ere handiak dira, 2004koak baino txikiagoak izan arren (azken urte horietan %12tik gorakoak). Aldiz, Brasilen (%2,3, barruko eskaria moteltzearen ondorioz) eta Mexikon (%3) hazkunderaren erritmoa moteldu egin da.

Afrika: 2005ean, kontinente horretako BPG %5,2an hazi da, aurreko urtean baino hiru hamarren gehiago; hala ere, hori Magrebeko herrietan gertatu den hazkunde txikiagoaren eraginezkoa da (2005ean %4,1, 2004an baino puntu bat gutxiago), batez ere Marokon (2005ean %1,8, aurreko urtean baino 2,4 puntu gutxiago); izan ere, Sahara hegoaldeko eremuan tasak 2004koen antzekoak izan dira. Egin-eginean ere, eremu horretan hazkunde tasak %5etik gorakoak izan dira ia herri guztietan (Kamerunen, Bolikostan —positiboak izan arren— edo Zinbawen, eta azken kasu horretan BPG 2004ko -%3,8tik 2005eko -%6,5era igaro da, eta inflazioa %240koa da). Halaber, herri ia guztietan kontu korronteko balantza hobetu egin da, lehengaien prezioek gora egitearen ondorioz. Horrela, Magrebeko herrietan %7,1eko superabiletik %11,8kora igaro da (kasu honetan ere Marokoren salbuespenarekin), eta Sahara hegoaldeko eskualdean, berriz, defizita 2004ko -%2,1etik 2005eko -%1,1era murriztu da.

1.3. Europar Batasuna

Europar Batasuneko datu ekonomikoek oraindik ere hazkunde profil baxua erakutsi dute 2005ean, aurreko urtean baino baxuagoa; izan ere, BPGk %1,6ko hazkundearen izan du 25 kideetan, eta %1,3koa EDBkoetan. Izan ere, lehenengo seihilekoko BPG, euroaren zonan, ez da %1,2tik gorakoa izan, eta bigarren seihilekoan %1,6ko hazkundearen izan du, batez ere kanpoko sektorearen jokabide eskasaren ondorioz; izan ere, barruko eskaria aurreko urtekoen antzeko tasetan mantendu da eta inbertsioak %2,2ko gorakadaxoa izan du urterik urterako tasan (2004an baino lau hamarren gehiago). Nolanahi ere, faktorerik positiboena Alemaniaren ekonomikoak urte honetan izandako susperraldia izan da, baita Frantziak izandakoa ere.

Kanpoko sektoreak, eskari orokor txikiagoaren eta faktura energetikoaren eraginez, bi hamarren kendu dizkio urte honetan BPGren hazkundeari, batez ere urteko lehenengo seihilekoan; izan ere, esportazioak erdira murriztu ditu aurreko urteko hazkunde tasak, urteko lehenengo erdian, eta tasa horiek %3koak dira (urteko batez bestekoa %3,9); bigarren seihilekoan suspertu egin da. Inportazioetan, berriz, tasa handiagoak egon dira (%4,7ko urteko batez bestekoa). Horrela, 2004an %0,6ko superabit korronea egon da, eta 2005ean, oster, %0,3ko defizita egon da; hain zuzen


ere, 2004ko 45,6 bilioi euroetatik 2005eko -28 bilioi euroetara igaro da.

Europako esportazioak izandako hazkunde urri horren ondorioz, industria sektoreak %0,9ko hazkundearen baino ez du izan (urteko batez bestekoa), baina azken hiru hilekora-ko %2,6koa izan da. Zerbitzuen sektoreak, berriz, %2ko hazkunde eritmoa mantendu du.

Nolanahi ere, hazkunde ekonomiko urri horrek ez du enplegu sorrera geldiarazi, eta hori %1eko hazkunde eritmoan mantendu da 2005ean, zerbitzu sektorean eta eraikuntzan euskarrituz; horrela, langabezia tasa hiru hamarrenetan murriztu da EDBn eta urteko batez bestekoa %8,6koa da. Langabetu kopurua 400 milatan murriztu da, eta horrela, 2005ean langabezian dauden pertsonak 12,5 milioi dira.

Herrien egoera bi talde handitan azter daiteke. EB-15eko herrien artean, %3,4tik gorako hazkundeak dituzten nagusiak Irlanda eta Luxenburgo dira (hurrenez hurren, %4,7 eta %4,2), Espainiarekin, Greziarekin eta Danimarkarekin batera; bestalde, %1,5eko batez bestekoaren barruan Austria, Frantzia, Finlandia, Suedia eta Erresuma Batua daude. Hazkunderik txikiak Belgikan, Holandan, Portugalen nahiz Italian (azken horren kasuan ez da hazkunderik izan) eta Alemanian egon dira. Alemaniaren kasuan, EBren barruan duen garrantzia aintzat hartuta, aipagarria da azken seihilekoan %1,5eko tasak izan

BPG ERREALAREN BILAKAERA EDBn



Iturria: Europako Banku Zentrala <www.ecb.int>.

EUROAREN EREMUKO ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK (URTERIK URTERAKO ALDAKETA TASA)

	2003	2004	2005	I	II	III	IV
BPG merkatuko prezioetan	0,7	2,1	1,3	1,2	1,2	1,6	1,7
BARRUKO ESKARIA	1,2	1,8	1,6	1,6	1,7	1,7	1,6
Kontsumo pribatua	1,0	1,4	1,4	1,3	1,5	1,9	0,8
Kontsumo publikoa	1,6	1,1	1,3	0,8	1,2	1,6	1,7
FBC finkoa	-0,6	1,8	2,2	1,2	1,9	2,7	3,2
KANPOKO SALDOA	-0,6	0,1	-0,2	-0,3	-0,5	-0,1	0,1
Exportaciones	0,2	5,9	3,9	3,1	2,6	4,9	5,1
Importaciones	2,0	6,2	4,7	4,3	4,2	5,4	5,0
Industriaren BPG	0,1	2,3	0,9	0,4	0,6	1,4	2,6
Merkatuko zerbitzuen BPG	0,9	2,1	2,0	2,2	1,9	2,1	2,0
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA							
Enplegua	0,3	0,7	1,0	2,1	1,1	0,5	0,6
Langabezia tasa	8,7	8,9	8,6	8,8	8,6	8,4	8,3
Langabetu kop. (pertsonak milioitan)	12,4	12,9	12,5	12,8	12,7	12,3	12,2
LANEKO KOSTUAK ETA PREZIOAK							
Inflazioa (IAPC)	2,1	2,1	2,2	2,0	2,0	2,3	2,3
Soldatapeko bakoitzeko soldata	2,1	2,3	1,7	1,3	1,6	1,8	1,9
Laneko produktibitatea (erreala)	0,2	1,5	0,5	-0,4	1,0	0,7	0,6
Laneko kostu unitario erreala	-0,1	-1,1	-0,7	-0,2	-1,1	-0,6	-0,8
Interes tasa (3 hilerako Euriborra)	2,33	2,11	2,19	2,14	2,13	2,13	2,34

Iturria: Europako Banku Zentrala, 2005eko urteroko txostena.

EUROPAR BATASUNAREN BILAKAERA EKONOMIKOA

	per cápita BPG ¹	BPG errealearen hazkundera			Langabezia tasa ²		Enpleguaren hazkundera		Inflazioa (IAPC)			Produk. / lang. ³	Laneko kostu unitario err. aldak. %	
	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	05-ab.	2005	2004	2005	
EB-15	100	2,3	1,5	8,1	7,9	0,7	0,9	2,0	2,1	2,2	100,0	-1,0	-0,1	
Euro-zona	98	2,0	1,3	8,9	8,6	0,7	1,0	2,1	2,2	2,2	100,0	-1,2	-0,5	
Alemania	100	1,6	0,9	9,5	9,5	0,4	-0,2	1,8	1,9	2,1	94,6	-1,7	-1,4	
Austria	113	2,4	1,9	4,8	5,2	0,0	0,6	2,0	2,1	1,6	105,1	-2,2	-0,6	
Belgika	109	2,6	1,2	8,4	8,4	0,6	0,9	1,9	2,5	2,8	120,6	-2,1	-0,2	
Espania	91	3,1	3,4	10,6	9,2	2,6	3,6	3,1	3,4	3,7	92,5	-1,2	-2,1	
Frantzia	101	2,3	1,5	9,6	9,5	0,1	0,2	2,3	1,9	1,8	112,5	-1,1	0,0	
Finlandia	104	3,6	2,1	8,8	8,4	0,3	1,6	0,1	0,8	1,1	101,1	0,3	1,0	
Grezia	77	4,7	3,7	10,5	9,8	3,4	0,9	3,0	3,5	3,5	92,2	0,8	0,4	
Holanda	114	1,7	1,1	4,6	4,7	-1,4	-0,4	1,4	1,5	2,0	102,3	-0,9	-1,0	
Irlanda	128	4,5	4,7	4,5	4,3	3,1	4,7	2,3	2,1	1,9	121,7	1,8	1,0	
Italia	96	1,1	0,0	8,0	7,7	0,9	0,2	2,2	2,2	2,1	102,8	-0,6	0,6	
Luxenburgo	225	4,2	4,2	4,8	5,3	2,5	3,0	3,2	3,8	3,4	148,9	1,2	0,8	
Portugal	66	1,1	0,3	6,7	7,6	0,1	0,1	2,5	2,1	2,5	61,6	-0,9	0,5	
Danimarka	114	1,7	3,4	5,5	4,8	0,0	0,7	0,8	1,7	2,2	99,3	-1,9	-1,4	
Suedia	109	3,7	2,7	6,3	6,3	-0,5	0,6	1,0	0,8	1,3	101,5	-1,4	0,2	
Erresuma Bat.	107	3,1	1,8	4,7	4,7	1,0	1,0	1,3	2,0	1,9	100,4	0,1	1,8	
EB-25	92	2,4	1,6	9,1	8,7	0,6	0,9	2,1	2,2	2,1	94,5	-1,1	-0,3	
Txekiar errep.	68	4,7	6,0	8,3	7,9	0,1	0,9	2,5	1,6	1,9	64,8	-1,9	-3,5	
Zipre	77	3,9	3,8	4,7	5,3	1,5	1,5	1,9	2,0	1,4	70,3	-1,3	-0,7	
Eslovakia	50	5,5	6,0	18,2	16,4	-0,3	1,8	7,5	2,8	3,9	57,4	0,1	-1,3	
Eslovenia	75	4,2	3,9	6,3	6,3	0,4	0,7	3,7	2,5	2,4	72,4	0,6	1,7	
Estonia	52	7,8	9,8	9,7	7,9	0,0	2,0	3,0	4,1	3,6	51,2	-0,1	-2,1	
Hungaria	57	4,6	4,1	6,1	7,2	-0,7	0,0	6,8	3,5	3,3	66,3	-0,3	-1,4	
Letonia	43	8,5	10,2	10,4	9,0	1,1	1,5	6,2	6,9	7,1	43,3	0,3	-3,3	
Lituania	47	7,0	7,5	11,4	8,2	-0,1	2,6	1,2	2,7	3,0	48,5	-1,7	-2,0	
Malta	64	-1,5	2,5	7,3	7,3	1,4	0,6	2,7	2,5	3,4	77,1	0,7	-2,0	
Polonia	46	5,3	3,2	19,0	17,7	-0,3	1,0	3,6	2,1	0,8	59,3	-6,8	0,2	

(1) PPStan.

(2) 15-74 urte.

(3) ratioaren hazkundera tasa (soldatapeko bakoitzaren soldata prezio korranteetan / BPG enplegatu bakoitzeko prezioetan).

Iturria: Eurostat.

ZERGEK BPGn DUTEN GARRANTZIA EUROPAR BATASUNEAN

	Zerga guztiak (Giz. Seg. kontribuzioak ere barne)							Giz. Seg. kontribuzioak izan ezik			
	1995	2000	2004			95-04ko	1995	2000	2004	95-04ko	
	Guztira	Guztira	Guztira	Zeharrek.	Zuzenak	G. Seg.					abend.
EB-25	39,7	41,0	39,3	13,8	12,9	12,8	-0,4	39,7	41,0	39,3	-0,4
EB-12	39,9	41,5	39,7	13,6	11,9	14,4	-0,2	39,9	41,5	39,7	-0,2
Alemania	39,8	41,9	38,7	12,0	10,2	16,5	-1,1	39,8	41,9	38,7	-1,1
Austria	41,3	42,8	42,6	14,8	13,4	14,4	1,3	41,3	42,8	42,6	1,3
Belgika	43,8	45,2	45,2	13,6	17,5	14,1	1,4	43,8	45,2	45,2	1,4
Danimarka	48,8	49,4	48,8	17,6	30,1	1,2	0,0	48,8	49,4	48,8	0,0
Espainia	32,7	33,9	34,6	12,2	10,7	12,2	1,9	32,7	33,9	34,6	1,9
Frantzia	42,7	44,1	43,4	15,7	11,6	16,3	0,7	42,7	44,1	43,4	0,7
Finlandia	45,6	47,7	44,3	14,3	18,1	11,9	-1,3	45,6	47,7	44,3	-1,3
Grezia	32,6	37,9	35,1	14,0	8,9	12,1	2,4	32,6	37,9	35,1	2,5
Holanda	40,5	41,5	37,8	13,0	10,8	14,0	-2,7	40,5	41,5	37,8	-2,7
Irlanda	33,1	31,6	30,2	13,2	12,4	4,6	-2,8	33,1	31,6	30,2	-2,9
Italia	40,1	41,8	40,6	14,3	14,0	12,3	0,6	40,1	41,8	40,6	0,5
Luxenburgo	42,4	40,4	40,1	14,7	14,1	11,3	-2,3	42,4	40,4	40,1	-2,3
Portugal	31,9	34,3	34,5	14,5	—	11,3	2,6	31,9	34,3	34,5	2,6
Erresuma Bat.	35,4	37,4	36,0	13,6	15,8	6,6	0,7	35,4	37,4	36,0	0,6
Suedia	49,0	53,4	50,5	17,1	19,5	13,8	1,5	49,0	53,4	50,5	1,5
NMS-10	38,0	34,7	34,5	13,7	7,8	13,2	-3,5	38,0	34,7	34,5	-3,5
Txekiar errep.	36,2	34,4	36,6	12,0	9,4	15,1	0,4	36,2	34,4	36,6	0,4
Zipre	26,9	30,5	34,1	17,4	8,9	7,8	7,2	26,9	30,5	34,1	7,2
Estonia	37,9	32,6	32,6	13,0	8,5	11,1	-5,3	37,9	32,6	32,6	-5,3
Letonia	33,6	29,5	28,6	11,9	7,9	8,7	-5,0	33,6	29,5	28,6	-5,0
Lituania	28,6	30,0	28,4	11,3	8,8	8,4	-0,2	28,6	30,0	28,4	-0,2
Hungaria	41,6	39,2	39,1	16,3	9,3	13,5	-2,6	41,6	39,2	39,1	-2,5
Malta	27,6	28,3	35,1	15,9	12,4	6,9	7,6	27,6	28,3	35,1	7,5
Polonia	38,5	34,2	32,9	13,4	6,4	13,4	-5,6	38,5	34,2	32,9	-5,6
Eslovenia	40,2	38,5	39,7	16,5	8,5	14,7	-0,6	40,2	38,5	39,7	-0,5
Eslovakia	40,5	33,2	30,3	12,7	6,1	12,2	-10,1	40,5	33,2	30,3	-10,2

(*BPGrekin haztaturiko batez bestekoa.
Iturria: Eurostat.

dituela BPGn. Gainera, langabezia tasak ere lehenengo multzokoek murriztu dituzte neurririk handienean, Luxenburgoren kasuan izan ezik, bertako tasek gora egin baitute; bigarren multzoetan, oro har, mantendu egin da 2004ko langabezia tasa edo kasu batzuetan tasa horrek gora egin du, adibidez, Portugalen, Austriaren edo Holandaren kasuan. EBko kide berrien artean, BPGren hazkunde tasak %3tik gorakoak dira kasu guztietan, Maltaren kasuan izan ezik; hala ere, herri batzuetan %6tik gorako hazkundeak egon dira (Txekiar Errepublika, Estonia, Letonia, Lituania eta Eslovakia).

Aurreko urtean, inflazioak gorakadatxoa izan zuen, baina urteko batez bestekoa 2004koa baino hamarren bat handiagoa da soilik; hain zuzen ere, urteko batez bestekoa %2,2koa da, eurozonako Kontsumo Amortizatu Prezioen Indizean; Irlandan, Italian eta Finlandian soilik egin du behera, eta herri askotan bost hamarretetik gorako hazkundeak izan du. Hala eta guztiz ere, interes tasak nahiko egonkorak izan dira urtearen zatirik handienean, AEBn hazkundeak egon arren. Europako Banku Zentralak %2an mantendu zituen interes tasa ofizialak abendura arte, eta orduan %2,25era igo zituen;

hiru hileko euriborra, berriz, urte amaierako %2,49ra igo zen urte amaieran (aurreko urteko aldi horretan baino 33 puntu gehiago).

Diru Batasuneko finantza publikoen kasuan ere ez da aldaketa handirik egon; horrela, Herri Administrazioen defizita eurozonan -%2,3ra murriztu arren (2004an -%2,7), herri batzuek, adibidez, Italiak edo Portugalek, gaititu egin dute urte horretan BPGren %3, Egonkortasun eta Hazkunde Itunean ezarritakoa, eta hori 2004an Frantziak, Alemaniak eta Greziak ere gaititu zuten. Zor publikoa 2004an BPGren %69,8koa zen eta 2005ean %70,8koa izan da. Azkenik, eremu honi dagokionez, aipagarria da Frantzia maiztean eta Holandan ekainean uko egin ziotela Europako Konstituzioaren proiektuari, kasuan kasuko erreferendumetan.

1.4. Espainiako ekonomia

Espainiako ekonomiaren BPGren urteko batez besteko hazkundeak %3,4koa izan da, hain zuzen ere, aurreko urtean baino hiru hamarren gehiago eta Europar Batasuneko batez bestekoaren bikoitza; baina, gainera, urte

osoan goranzko joera argia erakutsi du. Horrela, 2004ko azken hiruhilekoan %3,3ko hazkunde egon zen eta 2005eko amaieran %3,6koa, EINen hiruhileko kontabilitate datuetan adierazitakoaren arabera.

Hazkunde horren egiturazko oinarriak aurreko urtekoak dira: barruko eskari oso gogorra, eta horrek nabarmendu egiten du kanpoko desoreka, eskariaren aldetik; eskaintzaren arloan, berriz, produkzio sektore nagusia eraikuntza da, eta horrek 2005ean merkatuko zerbitzuen laguntza izan du. Industriak, bestalde, %0,6ko hazkunde baina ez du izan (urteko batez bestekoa), baina urtea %1,1eko tasarekin amaitu du, metalezko produktuek eta ekipo informatikoak izandako bilakaera hobearen ondorioz; aldiz, ehungintzak, larrugintzak nahiz jantzigintzak eta automobilgintzak ibilbide txarragoa izan dute.


2005ean, **barruko eskariak** %5,3ko hazkunde izan du, 2004an baino lau hamarren gehiago, batik bat inbertsioak izandako gorakadaren eraginez (%7,2ko hazkunde, aurreko urtean baino bi puntu baino gehiago, eta bertan, osagarririk dinamikoena ekipo ondasunena da); kontsumo pribatua, berriz, %4,4ko batez bestekoan mantendu da (batez ere zerbitzuetan, turismoan, bidaietan eta komunikazioetan oinarrituz, eta ez horrenbeste ibilgailuak bezalako ondasun iraunkorretan), baina urte osoan beheranzko ibilbidea izan du. Hala eta guztiz ere, **kanpoko sektoreak** hazkunde murriztu dio BPGri: 2005ean

–19 puntuko murriztapena, aurreko urtean baino apur bat gehitxoago, baina badirudi azken hiruhilekoan murriztu egin dela. Bestalde, esportazioek eta inportazioek 2004an baino hazkunde txikiagoa izan dute (gutxi gorabehera bi puntu gutxiago), baina inportazioek %7,1eko hazkunde izan dute batez beste, eta esportazioek, berriz, %1ekoa baino ez; hala eta guztiz ere, %2ko tasa lortu dute, zerbitzuen esportazioan oinarrituz (%4ko hazkunde eta aurreko urtean %1,2koa, turismoan diru-sarrerei esker), eta ondasunen esportazioak –%0,4ko beherakada izan du (2004an %4,4ko hazkunde).

Horrenbestez, Espainiako ekonomiaren finantza egoerak txarrera egin zuen, munduko gainerako eskualdeetako egoerari zegokionez. Ekonomiaren finantziazio beharri-zana (defizita) BPGren %4,8tik (2004) %6,5era (2005) igaro zen, hau da, 58 mila milioi euro (aurreko urtean baino 18 milioi gehiago).

Bestalde, **enpleguaren** sorrera mantendu eta, gainera, puntu bateko bizkortzea egon da, aurreko urteari dagokionez; hain zuzen ere, pertsona landunen kopuruan hori %3,6koa izan da eta lanpostu kopuruan %3,1ekoa (2004an baino bost hamarren gehiago), EINen Hiruhileko Kontabilitatean adierazitakoaren arabera. Horrela, enplegaturiko pertsona kopuruak 649 milako hazkunde izan du eta lanaldi osoko lanpostu kopuruak, berriz, 549 milako hazkunde. EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak dio-

ESTATUKO BPG ERREALAREN BILAKAERA*




(*) urte-sasoi barik.
Iturria: EIN.

MERKATARITZA SALDOA ETA DEFIZITA ESPAINIAKO EKONOMIAN

	2001	2002	2003	2004
Finantz. gait./beharr.	-23.248	-18.843	-23.542	-40.074
Ordainketa balantz.	-20.958	-16.152	-19.745	-35.903
Kontu korrontea	-26.348	-23.815	-27.910	-44.451
Ondasunak	-38.601	-36.510	-39.839	-52.937
Zerbitzuak	22.957	22.609	23.301	22.231
Errenta eta transf.	-10.704	-9.914	-11.372	-13.745
Kapital kontua	5.389	7.662	8.165	8.548
Finantza saldoa	20.958	16.153	19.745	35.903
Zuzeneko inbertsioa	-5.325	6.905	-1.421	-26.345
Zorroko inbertsioa	-18.924	4.726	-26.592	85.805
Beste inber. batz. eta	27.732	961	46.183	-9.547
B.España-ko akt.	17.475	3.561	1.575	-14.010

Iturria: Banco de España "Finantza Kontuak".

LAN MERKATUAK ESTATUAN IZANDAKO BILAKAERA



Iturria: Geuk landuta, EINen eta G. Segurantzako datuetan oinarrituz.

enez (berriro ere aldaketa metodologikoei¹), okupazioak %5,6ko hazkundera izan du (2004an baino 1,7 puntu gehiago eta 2004an baino milioi bat pertsona gehiago lanean, urteko batez bestekoan). Biztanleria aktiboak 700 mila pertsonako hazkundera izan duenez, langabezia egoeratik 300 mila pertsona irten dira, eta langabezia tasa 1,8 puntu txikiagoa da (%9,2). Hala eta guztiz ere, kontratu guztien hazkundera aurreko urtekoaren erdia baino txikiagoa da (%5), baina Gizarte Segurantzako afiliazioetan

aurkakoa gertatu da, hau da, %4,8ko hazkundera egon da (2004koa baino ia bi aldiz handiagoa).

Inflazioak, Kontsumoko Prezioen Indizearen bidez neurtuta, %3,4ra arteko hazkundera izan du, 2004an baino lau hamarren gehiago, eta, oraindik ere kezagarriagoa dena, urtean zehar goranzko joera egon da; izan ere, urterik urterako hazkundera %3,6rekin amaitu da, besteak beste, energiaren prezioek izandako eragin handiaren ondorioz. Gainera, EDBrekiko prezioen aldea berriro ere 1,5

¹ 2004an berrikusi egin zen 2001eko zentsuaren emaitzekin eta urteroko errolda-datuekin. 2005eko lehenengo hiruhilekoan, galdeketa berria sartu zen, eta beraz, 2005eko datu guztiak ezin dira konparatu aurreko urteetakoekin. BAI berri honetan hobeto jasotzen dira noizean behingo okupazio egoerak, eta hortaz, okupazio zifrak handitzeko eta langabezia zifrak murrizteko joera dauka.

ESTATUKO ESZENATOKI MAKROEKONOMIKOA
(URTERIK URTERAKO HAZKUNDE TASA, BOLUMEN KATEATUAREN SAILEAN)

	2003		2004				2005				
	b. best.	b. best.	I	II	III	IV	b. best.	I	II	III	IV
Barruko eskaria (*)	3,8	4,9	4,1	4,9	5,2	5,3	5,3	5,5	5,4	5,3	5,0
Kontsumo pribatu nazionala	2,5	4,4	3,3	4,8	4,7	4,7	4,4	4,6	4,6	4,3	4,0
Kontsumo publikoa	4,8	6,0	5,5	6,0	6,5	6,0	4,5	5,2	4,0	4,2	4,6
Kapital eraketa gordina	5,4	4,8	4,4	4,1	5,0	5,6	6,9	6,8	7,2	7,3	6,5
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,5	4,9	4,1	4,1	5,3	5,8	7,2	7,0	7,6	7,3	6,8
Kanpoko saldoa (*)	-0,8	-1,8	-1,1	-1,9	-2,0	-2,0	-1,9	-2,2	-2,0	-1,8	-1,5
Ondasunen eta zerbitz. esportazioa	3,6	3,3	4,0	3,0	3,7	2,7	1,0	-1,4	1,3	2,1	1,9
Ondasunen eta zerbitz.inportazioa	6,0	9,3	7,4	9,6	10,5	9,7	7,1	6,2	7,9	7,8	6,6
BPG merkatuko prezioetan	3,0	3,1	3,0	3,0	3,1	3,2	3,4	3,3	3,4	3,5	3,5
Nekazaritza eta arrantza adarrak	-0,1	-1,1	0,9	-1,0	-1,8	-2,3	-0,7	-1,9	-1,3	0,3	0,1
Energia adarrak	1,3	2,0	1,8	2,6	1,8	1,8	4,4	4,2	4,0	4,5	5,0
Industria adarrak	1,0	0,3	0,2	0,6	0,3	0,3	0,6	0,3	0,0	0,9	1,1
Eraikuntza	5,0	5,1	5,6	5,2	4,9	4,8	5,5	5,4	5,4	5,8	5,4
Zerbitzuen adarrak	2,9	3,6	3,3	3,4	3,5	4,1	3,9	3,8	3,8	3,9	4,0
Produktuen gaineko zerga garbiak	6,9	4,1	4,5	3,4	5,6	3,0	3,8	4,0	5,5	3,2	2,6
Enplegua											
(landun kopuruaren aldaketaren %)	2,6	2,6	2,6	2,3	2,6	2,9	3,6	3,3	3,5	3,7	3,7
(lanaldi osoko lanpostuen aldak. %)	2,5	2,6	2,7	2,2	2,6	2,8	3,1	3,0	3,2	3,2	3,2
Langabezia tasa (BAI**)	11,5	11,0	11,5	11,1	10,7	10,6	9,2	10,2	9,3	8,4	8,7
KPI	3,0	3,0	2,2	3,2	3,3	3,4	3,4	3,3	3,2	3,4	3,6

(*)Mkerkatuko prezioetako BPGren hazkunderako ekarpena.

(**) Teknologia berria 2005eko lehenengo hiruhilekotik.

Iturria: EIN, Hiruhileko Kontabilitatea.

punturaino handitu da urtearen amaieran (KPIk %3,7ko hazkundera izan du Espainian eta %2,2koa euroaren zonan), eta horrela, Espainia euroaren zonako inflaziorik handiena duen herria da (EB-25ean hirugarren postuan).

Estatuko Herri Administrazioen multzoak superabitarakin amaitu du 2005 urtea, Kontabilitate Nazionalaren arabera; hain zuzen ere, hori 9.801 milioi eurokoa izan da (behin-behineko datuak), eta beraz, 2004ko -%0,2ko defizitetik (BPGn) 2005eko %1,1eko superabiteria igaro da.

Finantzakoak ez diren diru-sarrerek %9,8ko hazkundera izan dute Herri Administrazioetan (2004an baino puntu eta erdi gehiago), eta kasuan kasuko gastuek -%2,3ko murriztapena izan dute.

Zerga nagusien bilketak hazkunde handia izan du urte honetan, %14 (2004an %8,3), AAEEen eta TTEEn partaidetza barne. Horrela, zerga zuzenek %18ko hazkundera izan dute (PFEZk %15eko hazkundera eta Sozietateen gaineko Zergak %25eko hazkundera), eta zeharreko zergek, berriz, %9,6ko hazkundera (BEZek %12ko hazkundera, baina zerga bereziek %3ko hazkundera baino ez dute izan 2005ean), transferentzia korronteez, osteraz, %1eko hazkundera baino ez dute izan eta kapitalaren transferentziek -%41eko beherakada izan dute (gogoratu 2004an transferentzia garrantzitsua egin zitzaiola RENFERi).

Bestalde, gastuek %4,2ko hazkundera izan dute, aurreko urtean baino bi puntu gehiago. Hazkunde nagusiak inbertsioen kapitulan (%19, 2004an izandako gelditzea-

DEFIZIT PUBLIKOA ERAGILEEN ARABERA *

	€-ak milioitan			BPGren %		
	2003	2004p	2005	2003	2004p	2005
Herri Administrazioak	-375	-1,296	9.801	-0,05	-0,15	1,08
Estatuko Administrazioak	5,357	-1,047		0,69	-0,13	
Estatua eta E. Auton.	-2,652	-9,682		-0,34	-1,16	
Gizarte Segurantzak	8,009	8,635		1,03	1,03	
Lurralde Erakundeak	-5,732	-249		-0,73	-0,03	
AAEE	-3,829	-223		-0,49	-0,03	
Toki Korporazioak	-1,903	-26		-0,24	0,00	

(*)Finantziario gaitasuna/beharrizana, Espainiako Kontabilitate Nazionalaren arabera.

Iturria: Banco de España eta IGAE.

ren ostean, urte horretan %1,2ko hazkunde baina ez baitzuten izan) eta langileriaren kapituluaren (%5,9) egon dira. Ondasunen eta zerbitzuen erosketek %1,4ko hazkunde izan dute, eta Herri Administrazioen arteko transferentzia korranteen erosketek, berriz, %4,4ko hazkunde (gizarte Segurantzarakoak %6,2ko hazkunde baina ez); kapital transferentzien erosketek, azkenik, %0,5eko hazkunde izan dute.

1.5. Autonomia erkidegoak

2005ean, Autonomia Erkidegoetako BPGren hazkundeak, EINen Eskualde Kontabilitatearen datu ofizialetan adierazitakoaren arabera, gaitzitu egin du, kasu guztietan, Europako %1,7ko batez bestekoa. Urte honetan, hazkunderik handiena izan duen autonomia erkidegoa Madril izan da, eta bertako BPG %4an hazi zen, Estatuko batez bestekoa baino sei hamarren gehiago, eraikuntza sektoreak egindako ekarpen handiaren ondorioz, horren atzean Extremadura eta Murtzia egon ziren (%3,8), eta gero EAE; gure erkidegoari dagokionez, iturri horren arabera, %3,7ko hazkunde egon da. Gainera, Aragoi, Andaluzia eta Gaztela-Mantxa ere Estatuko %3,4ko batez bestekoa gainetik daude.

AAEE ia guztiek %3tik gorako hazkunde izan dute BPGn, Kanarien eta Asturiasen kasuan izan ezik (hama-

ren bat gutxiago); Balearrek ere ez dute ehuneko hori gaitzitu eta, aurreko hiru urteetan bezala, dinamismo-rik txikiaren ekonomiadun erkidegoa izan ziren (%2,4ko hazkunde). 17 autonomia erkidegoen arteko gehieneko aldea 1,6 puntutan handitu da, 2004koari dagokionez.

Per capita BPGrik handiena ere Madrilek dauka, eta bertako BPG 27.279 eurokoa da biztanle bakoitzeko (batez bestekoa baino %30,9 handiagoa); gero, EAE (%27,2 handiagoa), Nafarroa, Katalunia, Balearrak, Errioxa eta Aragoi datoz. Aldiz, Gaztela-Mantxa, Andaluzia eta Extremadura Estatuko babes besteko %80tik behera daude (20.838 €). Horiek ez ezik, EB-25eko batez bestekoaren %75etik behera daudenak (23.400 €) Galizia eta Murtzia dira.

Hala eta guztiz ere, azken bost urteetan, errenta erlatiborik txikiaren erkidego ia guztiak izan dira gehien hazi direnak. Horrela, urteko batez besteko hazkunderik handiena duen erkidegoa Murtzia da (%3,9, Estatuko batez bestekoa baino zortzi hamarren gehiago), eta gero Andaluzia (%3,7), Kanariak, Gaztela-Mantxa eta Extremadura; hazkunderik txikiaren osterak, Errioxa, EAE, Galizia, Asturias eta Balearrak izan dira.

Lan egoera ere antzekoa da; 2005eko hazkunderik handienak Errioxan, Andaluzian, Kantabrian, Gaztela eta

BPGren NAHIZ ENPLEGUAREN HAZKUNDEA ETA LANGABEZIA TASAK AUTONOMIA ERKIDEGOETAN (URTEKO BATEZ BESTEKOAK)

	Enpleguaren hazkunde ¹		Langabetu kop.		Langabezia tasa ¹		BPGren hazkunde ²			Per capita BPG 2005
	1995-2004	2005	1995-2004	2005	2004-1995	2005	2000-2005	2004	2005	
Andaluzia	4,9	7,1	-5,2	-16,3	-16,8	13,8	3,7	3,5	3,5	77,3
Aragoi	3,0	5,1	-9,5	9,3	-10,4	5,8	3,2	2,9	3,5	107,5
Asturias	2,0	3,8	-6,6	2,4	-10,0	10,2	2,6	2,5	2,9	88,9
Balearrak	5,8	4,3	0,0	-19,0	-5,2	7,2	1,6	2,5	2,4	110,1
Kanariak	5,8	3,7	-3,4	1,4	-11,6	11,7	3,8	2,8	2,9	90,6
Kantabria	3,8	6,3	-6,1	-16,1	-11,9	8,5	3,5	3,0	3,0	98,6
Gaztela eta Leon	2,2	6,6	-6,4	-14,8	-10,2	8,7	3,0	3,1	3,3	94,9
Gaztela-Mantxa	4,0	6,5	-5,6	2,0	-10,7	9,2	3,4	3,4	3,5	78,3
Katalunia	4,0	5,9	-5,2	-26,3	-10,0	7,0	2,9	3,1	3,3	119,3
Valentziako Erkidegoa	4,7	5,2	-5,4	-12,5	-12,1	8,8	3,2	2,6	3,0	91,5
Extremadura	3,0	4,0	-5,4	-6,2	-13,6	15,8	3,4	2,9	3,8	67,4
Galizia	1,4	4,3	-2,3	-26,8	-4,4	9,9	2,4	3,1	3,3	81,0
Madril	5,3	5,7	-8,6	7,3	-13,8	6,8	3,0	3,3	4,0	130,9
Murtziako Eskualdea	5,7	5,0	-4,9	-23,3	-12,9	8,0	4,1	3,2	3,8	83,1
Nafarroako Foru Erkidegoa	3,6	5,2	-6,8	7,5	-7,6	5,6	2,8	3,5	3,1	127,1
EAE	3,0	3,9	-7,8	-23,4	-12,8	7,3	2,5	3,0	3,7	127,2
Errioxa	4,4	9,7	-8,5	22,8	-10,6	6,2	2,8	3,2	3,0	108,2
Ceuta eta Melilla	3,8	1,0	-7,1	28,8	-16,7	17,1	3,0	2,8	3,3	89,2
Guztira	4,1	5,6	-5,6	-13,6	-11,9	9,2	3,1	3,1	3,4	100,0
Ehuneko puntuak*	4,4	6,0	9,5	49,7	12,4	10,1	2,5	1,0	1,6	63,5

(*) Ceuta eta Melilla izan ezik.

Iturria: (1) BAI berria (2) EINen Eskualde Kontabilitatea

Leonen eta Gaztela-Mantxan egon dira, kasu guztietan %6tik gorakoak; hala ere, Kanarietan, Asturiasen, Extremaduran eta Ceutan eta Melillan (oraindik ere bi digituko

langabezia tasa duten erkidegoak, Andaluziarekin batera), enpleguaren hazkundera Estatuko batez bestekotik beherakoa izan da.

2

EAEko abagune ekonomikoa

196

Hiruhileko azken Kontu Ekonomikoen² arabera, EAEko ekonomiak %3,9ko batez besteko hazkundeak izan du 2005ean, aurreko urtean baino hiru hamarren handiagoa, eta urtearen amaierako urterik urterako tasa %4,3koa izan da. Gainera, barruko eskaria indartsua da eta inbertsioa %6tik gorako tasetan hazi da.

Bestalde, eskaintzari dagokionez, hazkundearen eragile nagusia eraikuntza da eta horren tasa %5,3koa da (2004koa baino puntu bat handiagoa), eta beraz, gezurta- tu egin da sektore horren moteltzearen inguruko aurrei- kuspena. Bestalde, industriak ere aurreko urtean baino dinamismo handiagoa erakutsi du, eta bertan, urteko ba- tez besteko hazkundeak %4,4koa izan da; zerbitzuek %3tik gorako hazkundeak mantendu dituzte.

Enpleguan ere hazkundeak tasak egon dira: %2ko haz- kunda lanpostu kopuruan. Horrenbestez, aurreko urtean baino 20.008 lanpostu gehiago daude, eta landunen ko- puruak %1,3ko hazkundeak izan du (2004an baino hiru ha- marren gutxiago), BJAk emandako datuen arabera; hala ere, urte amaieran langabezia tasa %4,9ra murriztu da (49.100 langabetu baino ez).

Lanaren ageriko **produktibitatea** hazi egin da 2002tik, eta 2005ean %1,7ko hazkundeak egon da (2004an baino sei hamarren gehiago). Aldiz, **inflazioak** goranzko joera mantendu eta batez besteko %3,3ko hazkundeak izan du urtean (2004an baino hiru hamarren gehiago, eta tasa %3,7koa izan da abenduan), produktu energetikoen prezio altuen eraginez; horrela, urte amaieran berriro ere handitu egin da prezioen aldea EDBrekin. Azkenik, EAEko merkata- ritza saldoak -267 milioi euroko saldo negatiboa dauka, eta azken hamarkadan ez da halakorik gertatu.

2.1. Barruko eskaria

Barruko eskaria indartsua izan da 2005ean, eta gai- nera, urtean zehar goranzko joera izan du. Eustaten *Hiruhileko Kontu Ekonomikoen Datuek* agerian jarritakoa- ren arabera, barruko eskariak urterik urterako %4,5eko hazkundeak izan du 2005ean; horri dagokionez, aipagarria da inbertsioaren %6,3ko hazkundeak eta kontsumo pribatuaren mantenamendua, %4,1eko hazkundearekin. Aldiz, kontsumo pribatuak, %2,7an hazi arren, aurreko urtean baino hazkunde txikiagoak izan du.

² 2005eko 2. hiruhilekotik, Hiruhileko Kontu Ekonomikoei eta Urteko Kontu Ekonomikoei neurraketa metodo berria erabiltzen dute, orain arte era- bilitako oinarri finkoko prezio iraunkorreko edo bolumeneko balioen ordez. Metodologia berriarekin, aldi bakoitzeko agregatuen hazkundeak ez da de- flaktatzen oinarri-urteko prezioetan: aldi bakoitzean agregatuen balioak aurreko urteko prezioetan adieraziko da, eta beraz, oinarri mugikorra dago. Oinarri mugikorra horrekin, indize-zenbakien aldi baterako seriea lortzen da eta horri "Bolumen Kateatuen Indizea" esaten zaio.

EAEko ESZENATOKI MAKROEKONOMIKOA

	2004	2005		2004	2005
	Bolumen kateatua (Bolumen kateatuaren indizeko aldaketaren urterik urterako tasak)*			Bolumen kateatua (Bolumen kateatuaren indizeko aldaketaren urterik urterako tasak)*	
Kontsumo pribatua	4,4	4,1	BPG prezio korranteetan (Urtaroen efektuen datu zuzenduak)	8,2	7,3
Kontsumo publikoa	3,5	2,7	BPGren deflaktatzailea	4,7	3,4
Kapital eraketa gordina	7,5	6,3	Lanpostuak	2,0	2,0
Barruko eskaria (b)	5,1	4,5	Lanaren ageriko produktibitatea		
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	4,9	5,1	(Bolumen kateatuaren indizeko aldaketaren urterik urterako tasak)	1,1	1,7
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	7,3	6,0	Langabezia tasa (BAI)	7,8	5,7
Kanpoko eskaria (BPGrako ekarp.) (a-b)	-1,0	-1,0	KPI	3,0	3,3
BPG merkatuk oprezioetan (a)	3,6	3,9	Kontsumo pribatua	4,4	4,1
L. Sektorea	29,9	-11,5	Kontsumo publikoa	3,5	2,7
Industria	2,9	4,4			
Eraikuntza	4,4	5,3			
Zerbitzuak	3,2	3,6			
Merkatuko zerb.	3,4	3,6			
Merkatukoak ez diren zerb.	2,0	3,4			
Balio erantsi gordina	3,5	3,8			
Produktuen gaineko zerga garbiak	4,5	5,0			

* Indize kateatuen moneta adierazpena da. Kalkulua egiteko, indize kateatu guztiak aldagaien balio korranteekin biderkatu behar dira, erreferentziako urtea aintzat hartuta.

Iturria: Eustat "Hiruhileko Kontu Ekonomikoak, 2000" eta BAI nahiz EIN.

Kontsumo pribatuaren abaguneko adierazle nagusiek diotenez, horrek 2005ean aurreko urtean baino indar handiagoa izan du, turismoen matrikulazioaren eta barruko merkataritzaren indizearen kasuan izan ezik. Horrela, kontsumoko ondasunen industria jardueraren indizeak ur-


terik urterako %3,3ko batez besteko hazkundea izan du (2004an baino 1,3 puntu gehiago), eta kontsumoko ondasunen produkzioaren indizeak -%0,2ko batez besteko murriztapena izan du (aurreko urtean -%0,3ko murriztapena), baina hori, berriz, lehenengo hiruhilekoak izanda-

BARRUKO ESKARIAREN ADIERAZLE BATZUEN BILAKAERA (URTERIK URTERAKO ALDAKETA TASA)

	2003		2004				2005				
	b. best.	b. best.	I	II	III	IV	b. best.	I	II	III	IV
Kontsumo pribatuaren adierazleak											
Kontsumoko ondasunen IPI	-0,6	-0,5	-2,0	3,5	-0,6	-2,9	-0,2	-6,6	3,5	1,8	0,8
Kontsumoko ondasunen IAI	-0,2	2,0	1,7	2,2	3,3	0,7	3,3	0,3	5,0	4,2	3,5
Turismoen matrikulazioa	2,6	3,9	9,3	12,0	1,0	-5,6	-4,4	-7,9	-6,2	-1,8	-1,5
Barruko Merkataritzaren Indizea	1,9	3,0	4,3	2,3	3,0	2,5	0,8	-2,6	2,1	1,5	1,9
Azalera handietako salmentak	2,9	4,0	4,8	1,9	4,4	4,7	9,4	7,3	10,7	11,6	8,2
Enplegua (BJA)	1,4	1,6	1,7	1,4	1,0	2,3	1,3	1,8	0,5	1,5	1,4
Laneko eta lanbideko errendimen. atx.	6,2	4,0	1,5	3,0	3,9	6,9	8,2	6,5	9,8	8,4	8,3
Kapital higagarriaren errendimen. atx.	-11,9	-4,8	0,6	-3,7	-13,3	-6,0	17,3	16,5	-4,4	21,2	33,5
Soldaten hazkundea (hitzarmenak)	4,4	4,0	3,6	3,6	3,7	3,8	4,5	4,2	4,2	4,2	4,3
Kontsumo publikoaren adierazleak											
Eusko Jaurlaritzaren eta FFAAen gastu korrontea	9,3	7,5	10,8	6,4	8,0	6,2	7,2	-0,2	8,3	8,4	9,8
Inbertsioaren adierazleak											
Inbertsioko ondasunen IPI	1,4	4,5	1,7	5,8	9,6	1,9	6,4	0,9	10,4	3,4	10,2
Inbertsioko ondasunen IAI	2,7	2,0	-1,0	5,1	3,5	0,8	1,5	1,4	2,9	-0,8	2,0
Kargako ibilgailuen matrikulazioa	8,8	14,9	15,5	18,4	16,5	9,8	12,1	9,6	20,5	7,3	10,4
Ekipoko ondasunen inportazio. balioa	-0,3	17,5	-8,6	38,2	30,7	10,1	4,0	24,1	-4,4	1,2	2,5
Sektore pribatuaren kreditua	11,1	11,8	12,7	10,9	11,2	12,5	15,6	13,3	14,8	16,1	17,9

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza.

INBERTSIOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA (URTERIK URTERAKO BALIOAREN %)




Iturria: Geuk landuta, Eustaten datuetan oinarrituz.

ko jokabide txarraren ondoriozkoa da (-%6,6ko murriztapena), gainerako hiru hilekoetan tasa positiboak izan baititu, horiek beheranzkoak izan arren. Azalera handietako salmenten hazkunde tasa %9,4koa da (2004ko batez bestekoa baino ia bost puntu eta erdi gehiago), eta urtearen erdialdean tasak %10etik gorakoak izan dira. Tasarik txarrenak turismoen matrikulazioek izan dituzte, eta, hain zu-

zen ere, 2005ean -%4,4ko murriztapena izan dute eta 2004an %3,9ko hazkundea izan zuten; baita barruko merkataritzaren indizeak ere, %0,8ko hazkundea baino ez baitu izan, aurreko urtean baino 2,2 puntu gutxiago.

Kontsumoa eusteari dagokionez, Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioaren *Kontsumitzailearen Konfiantza Indizearen* (KKI) bilakaera interpretatu ahal dugu; ber-

KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN INDIZEAREN BILAKAERA



Iturria: Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa.

tan, EAEko 2005eko urteko batez bestekoa -3koa izan da (2004an -9koa), eta Estatukoa eta EBkoa -11koa izan da (bi kasutan ere aurreko urteko datu bera), baina urtean zehar horrek beheranzko joera izan du. Egin-eginean ere, 2005ean familiek euren egoera ekonomiko orokorrari eta etxeari buruz izandako pertzepzioak hobekuntza orokorra izan du, batez ere aurrezpenari dagokionez.

Inbertsioaren kasuan, hazkunderik handiena izan duen abaguneko adierazlea ekipoko ondasunen IPI izan da (urteko %6,4ko batez besteko hazkundera, aurreko urtean baino bi puntu gehiago); izan ere, Industria Jardueraren Indizea eta kargako industria ibilgailuen matrikulazioa 2004koak baino maila apur bat txikiagoetan mantendu dira, eta ekipoko ondasunen inportazioaren balioak beherakada handia izan du bere hazkunde tasan.

2.2. Kanpoko sektorea

2005ean inportazioaren hazkunde tasak moteltze handia izan du eta hori herri garatu guztietan gertatu da. Esan behar da hazkunde erritmoaren moteltze hori, besteak beste, munduko merkataritzan izandako moteltzearen eraginezkoa dela, ezin izan baita aprobetxatu euroak urte honetan dolarrari dagokionez izandako balio-galtzeak eskainitako hobari erlatiboa.

Eustaten *Hiruhileko Kontu Ekonomikoen* datuek adierazitakoaren arabera (Estatuari eta munduko gainerako herriei egindako ondasun eta zerbitzu salmentei buruzko datuak), esportazioak %5,1eko hazkundera izan du (2004ko tasa baino bi hamarren gehiago), eta inportazioak %6koa (aurreko urtean baino 1,3 puntu gutxiago).

Bestalde, EAEko ekonomiaren irekiera mailak gora egin du, eta 2004tik 2005era %124tik %125era igaro da; hala eta guztiz ere, ondasunen eta zerbitzuen esportazioaren estaldura mailak (inportazioarekin) puntu bateko murriztapena izan du, eta %95,8tik %94,8ra igaro da.

Atzerriarekiko kanpoko merkataritzaren datuek, *Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak* eskainitakoek (Aduanen Erregistroetan oinarrituriko estatistika), aditzera ematen dute esportazioaren balio korronteak 2005ean %5,3ko hazkundera izan duela (2004an baino 9,3 puntu gutxiago), eta horrek goranzko joera izan du urtean zehar; energetikoen kasuan hazkundera %8,1ekoa izan da eta ez-energetikoen kasuan %5,1ekoa. Bestalde, guztizko inportazioek %15,3ko hazkundera izan dute (2004an baino 45 puntu gutxiago); izan ere, esportazioan ez bezala, inportazioak moteltze handia izan du urtean (izan ere, azken hiruhilekoan tasa -%3,2koa izan da ez-energetikoetan); bertan, inportazio energetikoen balioak (guztizkoaren ia %31) %50,7ko hazkundera izan du (aurreko urtean baino

15 puntu gehiago), eta ez-energetikoen hazkundea %4,4koa izan da.

EAEko ondasun ez-energetikoen esportazioen artean, ekipoko ondasunak nabarmentzen dira, esportazio guztien %50ekin (ia %50eko banaketa makineriaren eta garraioko materialaren artean); horiek -%0,2ko beherakada izan dute 2005ean, 2004an %18,2ko hazkundea izan ondoren; makineriak %6,3ko hazkundea izan du, baina garraioko materialak -%5,4ko beherakada; dena den, aintzat hartu behar da 2004an %38ko hazkundea izan zuela, eta beraz, zifra horiek ez dira txarrak. Bigarrenez, metalen


eta horien manufakturen esportazioa da nabariena (energetikoak ez direnen %25 baino gehiago); 2005ean aurreko urteko hazkunde tasa altuak mantendu dituzte: 2004an %18,7ko hazkundea izan zuten eta 2005ean %13,6koa, baina urtean zehar hazkunde horrek moteltze azkarra izan du. Gainerako produktuei dagokienez, aipagarriak dira produktu kimikoen, plastikoen eta kautxuaren esportazioan izandako hazkundeak, hobetu egin baitira aurreko urteko tasak, baita sailkatu gabeko produktuetan izandako hazkundeak ere. Aurkako aldean, nekazaritza produktuak eta beste manufaktura batzuk daude.

EAEko ONDASUNEN KANPOKO MERKATARITZA ATZERRIAREKIN (HAZKUNDE TASA IZENDUNA, EUROAK MILIOITAN)

	Esportazioa								Inportazioa								Saldoa (€-ak m.)	
	2003		2004		2005								2003		2004		2005	
	Guzt.	Guzt.	Guzt.	I. H.	II. H.	III. H.	IV. H.	Ban.	Guzt.	Guzt.	Guzt.	I. H.	II. H.	III. H.	IV. H.	Ban.	2004	2005
Guztira	1,3	14,6	5,3	2,1	1,8	7,5	9,6	100,0	3,2	19,8	15,3	28,7	12,6	16,4	9,7	100,0	936	-267
Energetikoak	31,3	35,5	8,1	-54,4	17,6	5,9	77,5	6,0	5,3	35,8	50,7	48,7	43,1	60,7	53,4	30,7	-2.171	-3.606
Energetikoak ez direnak	0,1	13,5	5,1	6,2	0,9	7,6	6,0	94,0	2,6	15,6	4,4	22,3	4,0	1,5	-3,2	69,3	3.107	3.339
Nekazaritza produktuak	4,5	0,7	-1,6	-1,1	-2,7	-5,1	4,9	3,4	0,7	-12,3	0,6	-5,8	4,8	-3,3	12,8	5,6	-321	-334
Produktu kimikoak	-0,2	6,0	14,8	23,8	19,2	7,5	11,9	2,9	9,6	9,1	1,3	5,6	9,7	0,2	-4,3	3,1	-90	-43
Plastikoak, kautxua	0,2	3,8	18,3	5,8	-4,5	55,7	14,1	6,7	6,1	9,7	6,6	10,4	6,2	8,0	8,2	4,4	196	302
Papera	-1,2	0,9	3,0	5,1	12,9	-2,0	-2,4	3,0	-5,9	15,0	2,1	11,5	-10,3	-0,1	11,5	2,3	89	95
Metala eta horren manuf.	-0,7	18,7	13,6	23,6	15,7	10,1	6,3	26,0	9,9	32,6	6,1	42,4	13,5	-4,4	-15,6	23,3	79	329
Ekipoko ondasunak	0,5	18,2	-0,2	-1,4	-6,6	2,1	5,7	46,3	-3,8	18,2	2,8	24,1	-4,4	1,2	2,5	23,6	3.273	3.169
Beste manuf. batzuk	-0,7	-6,4	-0,8	-6,8	4,5	4,9	-4,7	5,0	5,1	-1,3	9,1	4,0	9,8	23,5	4,0	6,7	-176	-263
Sailkatu gabekak	-6,8	-15,7	24,0	27,9	10,3	19,8	44,8	0,9	23,1	0,5	-9,3	-12,9	0,0	-6,1	-9,3	0,3	55	83

(*)2005eko datuak behin-behinekoak dira.
Iturria: Eustat "Kanpoko Merkataritzaren Estatistika".

EAEko KANPOKO SEKTOREAREN BILAKAERA (ZIKLOA-JOERA BOLUMENAREN INDIZEAREN ALDAKETAREN URTERIK URTERAKO TASAK)



Iturria: Eustat "Hiruhileko Kontu Ekonomikoak".

Energiakoak ez diren inportazioei dagokienez, metalek eta horien manufakturek %6,1eko hazkundera izan dute, 2004an izandakoaren bostena, eta joera hori oso negatiboa izan da bigarren seihilekoan; hala ere, ekipoko ondasunen inportazioak %2,8ko hazkundera izan du, garrarioko materialen inportazioaren eraginez (%5,5eko hazkundera), makineriaren inportazioa %1,3an gelditu baita. Gainerakoei dagokienez, aipagarriak dira plastikoen eta kautxuan izandako %6,6ko hazkundera eta beste manufaktura batzuetan izandako %9,1ekoa.

EAEko esportazio ez-energetikoen helmugako eremu geografikoen aldetik, OCDEra eta, horren barruan, EBra egindako esportazioek jokabide hobea izan dute gainerakoek baino, kanpoko merkataritzaren erritmo-moteltzearen jarraibide orokorraren barruan; hala eta guztiz ere, azken eremu horretan tasa handiko herri batzuk nabarmentzen dira, batik bat Txina, MERCOSUR eta Asiako ekonomia dinamikoak (AED). EBren barruan (gure kanpoko merkaturik handiena, esportazio guztien %72rekin), aipagarria da estatu kide berriei egindako esportazioan izandako %19ko hazkundera (batez ere, Polonia). Gure esportazioetan garrantzirik handiena duten herrien artean (EB-15en barruan), aipagarriak dira Belgikarako eta Italiarako esportazioak; aldiz, Ale-

maniara, Frantziara, Herbehereetara, Portugalera eta Erresuma Batua egindako esportazioek behera egin dute. EBtik kanpo, nolabaiteko suspertzea egon da AEBetara egindako esportazioak eta Mexikorakoak ere handiak izan dira; aldiz, Japoniarakoek murriztapen handia izan dute, eta, neurri txikiagoan, Errusiarakoek ere bai, baina bi herri horiek proportzio oso txikia dute gure kanpoko merkataritzan.

Inportazioaren kasuan, mantendu egin da OCDEren inportazioen batez bestekotik beherako hazkunderen joera, batez ere EB-15ari eta AEBei dagokionez; hala eta guztiz ere, EBKBtik (%19,4), Belgikatik (%18) eta Herbehereetatik (%10,3) iritsitakoek hazkunde handia izan dute; Frantziakoetan beherakadak egon dira (-%5,1), eta Alemaniakoetan (%1,5) eta Italiakoetan (%4,3), berriz, hazkunde txikiak (gure inportazioen hiru jatorri nagusiak). Hala ere, OCDEren eremutik kanpokoetan hazkunde handiagoak egon dira (%12,2), eta horien artean aipagarriak dira Txinako (%33,6) eta Brasileko (%13,3) hazkundeak.

Ondasun ez-energetikoen estaldura tasak %133rainoko hazkundera izan du urte honetan, Frantzia, Italia, Portugalen eta AEBn izandako bilakaera onari esker; horiei, gainera, Mexiko, MERCOSUR merkaturako herriak eta

ENERGETIKOAK EZ DIREN ONDASUNEN KANPOKO MERKATARITZA EAE, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (HAZKUNDE IZENDUNAREN TASA)

	Esportazio ez energetikoa				Inportazio ez energetikoa				Saldoa (euroak milioitan)			Estaldura tasa	
	2003	2004	2005	%	2003	2004	2005	%	2004	2005	Ald. %	2004	2005
Munduko	0,1	13,5	5,1	100,0	2,6	15,6	4,4	100,0	3,107	3,339	7,5	132	133
OCDEren guztizkoa	1,6	11,8	5,4	83,3	0,7	10,5	2,3	77,5	2,969	3,368	13,5	139	143
Europar	2,3	10,9	5,3	72,0	0,6	11,7	2,1	70,0	2,263	2,607	15,2	133	137
EB-15	2,4	10,9	4,7	68,4	0,2	11,7	1,6	67,9	2,031	2,332	14,8	130	134
Alemania	2,2	17,6	-0,5	15,3	-3,9	18,6	1,5	17,2	363	327	-10,1	121	119
Belgika	2,6	9,3	16,3	2,9	-1,6	6,7	18,0	3,3	49	53	7,1	117	116
Frantzia	1,0	11,6	3,4	20,2	-2,7	12,7	-5,1	14,9	1.035	1.205	16,4	166	181
Italia	3,8	0,0	21,0	8,2	-0,7	13,8	4,3	10,0	-53	96	-279,6	94	110
Herbehereak	5,3	10,0	-6,7	2,6	14,8	1,1	10,3	3,8	26	-33	-225,8	108	91
Portugal	-4,7	6,3	-0,9	5,2	2,5	17,6	-4,5	2,3	458	462	1,0	290	301
Erresuma B.	-0,6	20,1	3,6	8,3	4,1	-0,6	0,0	9,4	127	165	30,2	114	118
Gain. EB15	17,5	-0,5	11,3	5,7	6,2	15,1	6,9	7,1	26	58	125,6	104	108
EBKB	-0,1	11,2	19,0	3,7	16,9	13,2	19,4	2,1	232	275	18,7	229	228
Polonia	-4,1	33,9	15,6	1,5	18,0	15,7	19,1	0,6	119	136	14,1	340	330
EB ez den	-3,2	17,6	6,8	11,8	2,9	2,9	2,6	8,0	694	773	11,5	189	196
AEB	14,6	-17,6	3,0	4,1	1,4	-7,4	-4,3	2,5	271	298	10,1	203	218
Japonia	-30,8	137,8	-35,2	0,5	-14,1	-3,3	15,8	1,6	-36	-93	155,1	73	41
Mexiko	-22,1	54,5	27,9	2,9	1,4	5,6	-16,0	0,2	281	370	31,6	1304	1986
OCDEren gain.	-11,9	46,4	6,2	4,3	14,8	14,9	3,8	3,7	178	198	11,1	150	153
OCDE ez den guzt.	-7,2	22,8	3,7	16,7	13,1	40,0	12,2	22,5	138	-29	-121,0	107	99
Txina	67,4	28,1	14,2	1,4	17,1	24,6	33,6	5,6	-258	-377	46,0	39	33
Errusia	1,8	84,4	-0,3	0,5	20,6	103,1	-3,8	3,6	-317	-302	-4,5	17	17
MERCOSUR	-25,5	5,8	19,7	2,2	10,3	36,3	4,0	1,9	67	109	62,5	137	158
Brasil	-30,2	0,5	14,3	1,7	22,1	37,0	13,3	1,7	54	64	16,9	137	138
AED	-55,4	-4,1	23,7	1,2	20,1	12,8	-2,8	2,5	-123	-85	-30,8	51	65

EBKB: Europar Batasuneko Kide Berriak; MERCOSUR: Hego Amerikako Merkatu Batua; AED: Asiako Ekonomia Dinamikoak.

(*) 2005eko behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat "Kanpoko Merkataritzaren Estatistika".

Asiako ekonomia garatuak gehitu behar zaizkie (azken horien eragina txikiagoa da, truke bolumen txikiagoa baitute); aldiz, txarrera egin du Herbehereekin, Poloniarekin, Japoniarekin eta Txikinarekin.

2005eko merkataritza saldoak -267 milioiko defizita dauka (BPGren %0,5) eta 1992tik ez da halakorik gertatu; batez ere, produktu energetikoen eraginezkoa da, bertan -3.606 milioiko defizita egon baita (2004koa baino %66 handiagoa). Aldiz, produktu ez-energetikoen superabitak %7,5eko hazkundera izan du eta 3.339 milioi eurokoa da (BPGren %5,8, aurreko urtean bezala). Eremuen eta herrien arabera, Europar Batasunarekiko kanpoko saldoa gero eta handiagoa da (2005ean %15eko hazkundera), Alemaniarekin, Frantziarekin, Portugalekin, Italiarekin eta EBKBekin izandako bilakaera onari esker; halaber, OCDEko gainerako herriein ere hazi egin da (%11,5), baina erakunde horretan ez dauden herriein txarrera egin du, batez ere Txinarekin (defizitak ia %50eko hazkundera eta estaldura tasa %33 baino ez) eta Errusiarekin.

2.3. Atzerriko inbertsioa


EAEko atzerriko inbertsioak berriro ere behera egin du 2005ean, aurreko urtean gora egin ondoren, eta gutxieneko mailetan dago. Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Atzerriko Inbertsioen Erregistroak Atzerriko Inber-

tsioari buruz emandako 2005eko behin-behineko datuen arabera (urtarrila-abendua), EAErrako atzerriko inbertsio gordinaren jarioak, atzerriko balioak dituzten erakundeak kenduta (ABDE), -%44ko beherakada izan du 2005ean, aurreko urtean %150eko hazkundera izan ondoren. Guztira, EAEk atzerriko inbertsio gordinen 205,6 milioi euro jaso ditu (ABDEak kenduta, 186,8 milioi euro).

Aintzat hartuta Estatuan atzerriko inbertsioak aurreko %24ko hazkundera izan duela, EAEk guztizkoari dagokionez duen proportzioa %2,88koa izan da 2004an eta %1,29koa 2005ean; horrenbestez, bosgarren autonomia erkidegoa da inbertsioen bolumenari dagokionez, Madril (%3ko hazkundera), Kataluniaren (%34ko hazkundera), Andaluziaren (-%12ko murriztapena) eta Galiziaren (-%51ko murriztapena) atzetik. Madriliko Erkidegoak jasotzen duena kenduta, beherakada oraindik ere oso handia da: 2004ko %4,57tik 2005eko %1,87ra.

Beherakada hori, izan ere, Europako herrietatik iritsitako inbertsioen murriztapen handiaren eraginezkoa da (batik bat EBko herriak); egin-eginean ere, horiek EAErrako atzerriko inbertsioaren %90etik gora iristen dira, baina 2005ean -%53ko beherakada izan dute, eta horrela, %79ra baino ez dira heldu. Izan ere, Estatuan inbertsioen urte onetan %20ko hazkundera izan dute. Aldiz, AEBetatik egindako inbertsioek %102ko hazkundera izan dute (2004an %50eko hazkundera), eta horrela, guztizkoaren ia

ATZERRIKO INBERTSIOA EAEn



(*) ABDE izan ezik.

Iturria: Ekonomia Ministerioa "Atzerriko Inbertsioen Erregistroa".

%20koak dira. Gainera, Amerika Latinoko herrietatik egindakoek ere (batez ere, Brasil eta Argentina) %705eko hazkundera izan dute, baina atzeritik jasotako inbertsio osoaren %2koak baino ez dira.

Sektorekako inbertsioari dagokionez, aipagarriak dira manufaktura sektoreak jasotakoak, hain zuzen ere, EAE-

ko inbertsio osoaren %62. Gainera, aipatzekoak dira metalurgian (Estatuan egindako guztizkoaren %75) eta makineriaren eraikuntzan (%Estatuko %37) egindako inbertsioak, horiek %750eko hazkundera izan baitute. Aipatzeko moduko beste sektore batzuk edizioaren industria eta arte grafikoak dira (EAEko inbertsioaren %10 eta


INBERTSIO GORDINA* EAEn, SEKTOREAREN ETA HERRIAREN ARABERA (€-AK MILATAN)

	2003	2004	2005	Banaketa	Estat. %	03-04%	04-05%
Elekt., ur. eta gas produkzioa/banaketa	11.104	78.926	8.045	4,3	12,6	610,8	-89,8
Paper indus., edizioa, arte grafikoak	719	15	19.420	10,4	15,8	-97,9	127327,4
Ind. kimikoa eta kautxuaren nahiz plast. transf.	5.415	30.988	357	0,2	0,0	472,3	-98,8
Beste manufaktura batzuk	79.655	55.625	115.232	61,7	6,4	-30,2	107,2
Metalurgia	5.391	29.858	88.490	47,4	74,8	453,9	196,4
Eraik. ind., makineria eta ekipo mekanikoa	7.724	2.685	22.971	12,3	37,4	-65,2	755,5
Altz. fabrik., beste manufaktura indust. batzuk	4.000	1.320	3.197	1,7	51,6	-67,0	142,1
Eraikuntza	142	538	2.560	1,4	1,9	279,6	375,6
Merkataritza	1.464	154.041	28.237	15,1	3,5	10420,3	-81,7
Higiezinaren jarduerak eta zerbitzuak	16.144	11.743	12.607	6,7	0,7	-27,3	7,4
Higiezinaren jarduerak	4.220	11.564	10.731	5,7	1,1	174,0	-7,2
Beste enpresa jarduera batzuk	11.798	146	1.815	1,0	0,7	-98,8	1140,2
Gainerakoa	18.876	3.045	308	0,2	0,0	-83,9	-89,9
Inbertsioa guztira	133.518	334.921	186.765	100,0	1,3	150,8	-44,2
EB	117.092	316.462	147.943	79,2	1,3	170,3	-53,3
EBkoak ez diren Europako Herriak	1.300	567	4	0,0	0,0	-56,4	-99,3
Europakoak ez diren OCDE Herriak	11.181	16.729	33.716	18,1	1,7	49,6	101,5
Zerga paradisuak	976	480	42	0,0	0,0	-50,8	-91,3
Erdialdeko eta ekialdeko Europa	4	28	5	0,0	0,0	555,7	-83,7
Amerika Latinoa	2.960	514	4.138	2,2	1,8	-82,6	705,1
Gainerako Herriak	5	140	918	0,5	5,8	3.010,9	554,2

(*) Inbertsio gordina ABDE barik.

Iturria: Atzerriko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia Ministerioa.

EAEK ATZERRIAN EGINDAKO INBERTSIO GORDINA*



(*) ABDE izan ezik (urtarrila-abendua).

Iturria: Ekonomia Ministerioa "Atzerriko Inbertsioen Erregistroa".

EAEK ATZERRIAN EGINDAKO INBERTSIO GORDINA*, SEKTOREAREN ETA HERRIAREN ARABERA (€-AK MILIOITAN)

	2003	2004	2005	Banaketa	Estat. %	03-04%	04-05%
Elek., gas eta ur produk./banaketaren guztizkoa	234	5.228	11.823	1,1	3,2	2130,5	126,2
Ind. kimik. eta kautx. nahiz plast. trans. guztizkoa	1.239	61.832	12	0,0	0,0	4889,0	-100,0
Beste manufaktura batzuen guztizkoa	195.566	244.022	55.552	5,1	5,1	24,8	-77,2
Metalezkoak ez diren beste prod. batz. fabrik.	46.279	30.900	25	0,0	0,0	-33,2	-99,9
Metalurgia	25.721	35.980	300	0,0	0,1	39,9	-99,2
Metal. prod. fabrikazioa, mak. izan ezik	5.396	11.974	28.700	2,6	57,8	121,9	139,7
Eraik. indus., metalez. prod. eta ekip. mekanikoa	526	1.236	10.506	1,0	13,3	134,7	750,3
Motor. ibil. eta osagaien fabrikazioa	108.758	111.922	15.433	1,4	4,4	2,9	-86,2
Garraioen eta komunikazioen guztizkoa	5.405	1.545	64.359	5,9	0,8	-71,4	4065,2
Finantz. bitart., bank. eta aseg. guztizkoa	412.988	3.428.573	949.751	86,4	18,3	730,2	-72,3
Banka eta beste finantza bit. batzuk	407.522	3.425.225	863.886	78,6	19,5	740,5	-74,8
Aseg. eta pents. planak, giz. seg. salb.	5.465	3.348	84.641	7,7	14,8	-38,7	2428,2
Gainerakoa	75.189	55.653	17.432	1,6	0,2	-26,0	-68,7
Guztizko orokorra	690.621	3.796.852	1.098.929	100,0	4,8	449,8	-71,1
EBko lehengo herriak	45.117	292.204	334.856	30,5	3,0	547,7	14,6
EBko herri berriak	8.913	243	2.792	0,3	0,0	-97,3	1049,1
Europakoak ez diren ocde herriak	43.254	83.091	700.302	63,7	46,6	92,1	742,8
Japonia	73	47.145	24.887	2,3	52,1	64703,7	-47,2
Amerikako estatu batuak	43.181	34.162	673.593	61,3	49,4	-20,9	1871,7
Zerga paradisuak	0	3.925	2.687	0,2	4,5		-31,6
Amerika Latinoa	555.850	3.389.507	54.715	5,0	1,5	509,8	-98,4
Argentina	3.312	6.714	43.250	3,9	2,3	102,7	544,2
Brasil	208.742	8.176	5.281	0,5	0,7	-96,1	-35,4
Asiako Herriak (Japonia izan ezik)	3.425	420	685	0,1	1,4	-87,7	63,0
Txina	2.121	197	665	0,1	1,5	-90,7	237,3
Gainerako herriak	25.824	1.110	2.892	0,3	0,4	-95,7	160,7

(*) Inbertsio Gordina ABDE barik.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia Ministerioa.

Estatuan sektore horretan egindakoaren %16), baita merkataritza (jasotako inbertsio guztiaren %15) eta eraikuntza ere, %375eko hazkundearekin.

EAEk atzerrian egindako inbertsioan, bestalde, 2004ko 3.797 milioi euroko bolumenetik 2005eko 1.099ko bolumenera igaro da; hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar da 2004an inbertsioaren %91 Bancomer (Mexiko) erosteko LEPen (akzioen eskaintza publikoa) eraginezkoa zela (BBVak egindako erosketa), eta, EAEk atzerrian egindako inbertsio hori kenduta, inbertsioa 465 milioi eurora murrizten zela. Horrenbestez, 2005eko datua bosturtekoaren batez bestekoan dago, eta %136ko hazkundea adierazten du, 2004ko inbertsioari dagokionez, banku-eragiketa hori kenduta. Izan ere, EAE Estatuko hirugarren autonomia erkidegoa da atzerrian egindako inbertsioan, Madril en eta Kataluniaren atzetik (beti bezala), eta Estatuko inbertsio osoaren %4,8 egiten du (Madril kenduta %25, hori guztizkoaren %81era iristen baita). Kontuan hartu behar da Estatuak atzerrian egindako inbertsioak -%41eko beherakada izan duela.

Sektoreka, banka eta finantza bitartekaritza nagusitzen da berriro ere; izan ere, 2005eko kanpoko inbertsioaren %80ra iritsi da eta Estatuak sektore horretan egindako inbertsioaren %20ra (BBVak Laredo National Bank

eta South Texas National Bank eta Homeowners Loan Corporation erosi du, AEBetan hipoteketan espezializaturiko konpainia); halaber, aipagarria da asegurueta eta pentsio planetan egindako inbertsioa. Gainera, aipatzeko modukoak dira lurteko garraioan (EAEko inbertsioaren %6) eta manufaktura egindako inbertsioak, batez ere metalezko produktuen fabrikazioan egindakoak (Estatuak sektore horretan egindako inbertsioaren %60), baita ibilgailuen nahiz osagaien fabrikazioan eta makineriaren eraikuntza industrian egindakoak ere.

Herriei dagokionez, EAEk atzerrian egindako inbertsioaren %30 baino gehiago EB-12ren barruan egin da (kide berriak ez dira %0,3ra heldu), eta horretan, 2005ean %15eko hazkundea egon da; izan ere, Luxenburgoren %16 egin da, Portugalen %7, Erresuma Batuan %5,3 eta Frantziaren %1. EAEk atzerrian egindako inbertsioaren beste helmuga garrantzitsu bat AEBak izan dira; izan ere, bertarako inbertsioak 20 aldiz handiagoak dira eta %61era iristen dira, EAEk atzerrian egindako inbertsioari dagokionez. Gainera, aipagarria da Japonian egindako inbertsioa (guztizkoaren %2,3), aurreko urtekoaren erdia izan arren. Azkenik Amerika Latinoan egindako Inbertsioa guztizkoaren %5ekoa da, eta, horren barruan, Argentinan egindakoa nabarmentzen da (aurreko urtean baino 6 aldiz handiagoa).


3

EAEko sektore publikoa

EAEko sektore publikoaren barruan, 2005ean hazkunde handia egon da diru-sarrera publikoetan, %13,2tik gorakoa (aurreko urtean baino 4 puntu gehiago), zuzeneko zergetan (%16) eta zeharrekoetan (%11) izandako hazkunde handien eraginez, eta horrela, EAEko sektore publikoaren diru-sarrerak, BPGri dagokionez, 2003ko %20,7tik 2004ko %21era eta 2005eko %21,5era hazten joan dira apurka-apurka.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore publikoak, bestalde, %6,5eko hazkundera izan du (aurreko urtean baino puntu erdi gehiago), eta urte honetan foru aldundietan pare bat puntu gehiago hazi da Eusko Jaurlaritzan baino, eta horrela, magnitude horrek BPGri dagokionez duen ehunekoa hiru hamarren txikiagoa da, aurreko urtekoari dagokionez, eta, hain zuzen ere, %20,1ekoa da.

EAEko SEKTORE PUBLIKOKO MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA, BPGRI DAGOKIONEZ





Horrenbestez, diru-sarrerek gastuak baino hazkunde handiagoa izatearen eraginez (bai korronteak eta bai kapitalarenak), aurrezpen publikoak %33ko hazkundeak izan du, eta superabit publikoa ere (administrazio guztietan) aurreko urtean baino bi aldiz eta erdi gehiago hazi da; hain zuzen ere, 2004an BPGren %0,65ekoa izatetik 2005ean %1,25ekoa izatera igaro da.

Hala eta guztiz ere, aurrezpenak gora egin eta superabita handiagoa izan arren, EAEko sektore publiko osoaren (Toki Erakundeak izan ezik) zorpetze garbia gero eta handiagoa izan da 2005ean, azken hiru urteetan gertatu den moduan, baina hazkundeko %4,1ekoak baino tasa nahiko txikiagoetan.

3.1. Diru-sarrerek

Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek likidaturiko guztizko diru-sarrerek, 2005ean, %13,2ko hazkundeak izan dute, eta horrela, aurreko urteko hazkundeak 4 puntutan gainditu dute, zuzeneko zergetan (%16,1) eta zeharrekoetan (%11) izandako hazkunde handien eraginez, bi horien artean administrazio hauen guztizko diru-sarreraren %90era iristen baitira.

Beste zenbait kapituluko ere hazkunde handiak izan dituzte, EAEko Sektore Publiko osoaren barruko diru-sarretan proportzio txikiagoa izan arren; esate baterako,


transferentzia korronteak (%63,5, 2004an –%31ko beherakada izan ondoren), ondareko diru-sarrerek (%19,2) eta inbertsioen besterentzea (%308). Aldiz, kapitalaren transferentziek beherako joerari eutsi diote, eta 2005ean ia %20ko beherakada izan dute (2004an –%36). Finantzako diru-sarrerek –%13ko beherakada izan dute, eta horrela, aurreko urteetako murriztapen ibilbidera itzuli dira, zor gutxiago jaulkitzearen ondorioz, 2004an ibilbide hori apurtu ondoren, bertan %5,9ko hazkundeak egon baitzen (Bizkaiko eta Arabako FAen zorpetzeak gora egitearen ondorioz).

Zeharreko zergen hazkunde handiagoaren eraginez, Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren diru-sarreraren hazkundearen arteko aldea %13,2an hazi da, Foru Aldundietarako, eta %10,4an Eusko Jaurlaritzarako. Horri dagokionez, aipagarriak dira Bizkaiko Foru Aldundiko diru-sarreraren arteko %14,2ko hazkundeak, zuzeneko eta zeharreko zergek bilakaera hobea izatearen ondorioz (zorraren jaulkipen txikiagoa), eta Gipuzkoako eta Arabako Aldundien hazkunde txikiagoak.

Horrela, EAEko Sektore publikoaren diru-sarrerek, Erdidegoko BPGri dagokionez, 2003ko %20,7tik 2004ko %21era eta 2005eko %21era igaro dira.

Zerga Itunduen bilketari dagokionez (zuzeneko eta zeharreko zergen zatirik handiena eta zerga guztien %90 baino gehiago), zerga horiek %13,7ko hazkundeak izan du-

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FFAAEN DIRU-SARRERA GUZTIEN BILAKAERA, BPGri DAGOKIONEZ



Fuente: Departamento de Hacienda y Finanzas del Gobierno Vasco.

EAEko SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARRERA LIKIDOAK 2005EAN, ERAKUNDEEN ARABERA

Euroak milioitan	EJ eta FFAA*	EJ	Bizkaiko FA	FFAA
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	12.353	7.765	6.216	11.951
Zerga zuzenak	5.110	0	2.688	5.110
Zeharreko zergak	6.119	7	3.111	6.112
Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	284	116	105	169
Transferentzia korranteak*	210	7.224	129	276
Ondare diru-sarrerak	63	37	17	27
Inbertsio errealeen besterentzea	15	2	8	13
Kapital transferentziak	114	70	43	116
Finantz. ez diren diru-sarrerak guzt.	11.915	7.455	6.101	11.822
Finantza aktiboen aldaketa	12	9	1	3
Fin. pas. aldak. (jaul. zorra)	426	300	114	126
Finantza diru-sarrerak guztira	438	309	115	129
<i>Diru-sarrera/BPG izenduna (%)</i>	<i>21,5</i>	<i>13,5</i>	<i>21,3</i>	<i>20,8</i>
2004ko likidazioaren gaineko aldaketaren %				
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	10,2	10,4	14,2	13,2
Zerga zuzenak	16,1		17,7	16,1
Zeharreko zergak	11,0	2,2	13,9	11,0
Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	0,9	-5,3	8,7	5,6
Transferentzia korranteak*	38,7	15,1	20,2	63,5
Ondare diru-sarrerak	-74,9	-84,1	17,3	19,2
Inbertsio errealeen besterentzea	175,0	-13,1	4.774,5	307,8
Kapital transferentziak	5,8	56,5	-41,2	-19,7
Finantz. ez diren diru-sarrerak guzt.	11,2	11,6	15,0	13,6
Finantza aktiboen aldaketa	-83,9	-87,4	-587,9	38,3
Fin. pas. aldak. (jaul. zorra)	1,2	9,1	-14,9	-13,7
Finantzako diru-sarrerak guztira	-11,9	-11,5	-14,2	-12,9

(*) Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean 7.363 milioi euroko finkapena egin da.
Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila, "Aurrekontu Gauzapenaren Estatistika". Eusko Jaurlaritza.

EAEko FORU ALDUNDIEN ZERGA ITUNDUEN BILKETA 2005EAN

	Euroak milioietan				Banak. (%)	04-05eko aldaketaren %			
	AFA	BFA	GFA	EAE		AFA	BFA	GFA	EAE
ZERGA ITUNDUEN GUZTIZKOA	1.836	5.817	3.613	11.265	100,0	10,5	16,5	11,0	13,7
ZERGA ZUZENAK	807	2.665	1.604	5.076	45,1	14,0	18,5	14,1	16,4
ERRENTAREN GAINEKO ZERGA ZUZENA	786	2.561	1.543	4.890	43,4	13,7	18,0	13,4	15,8
PFEZ	549	1.727	1.128	3.404	30,2	7,7	12,1	12,6	11,5
Lanaren eta jard. profesionalen atxik.	560	1.775	1.120	3.455	30,7	6,5	8,6	8,5	8,2
Kap.higigarriaren errendimenduen atxik.	23	64	47	134	1,2	1,9	12,7	34,7	17,3
Kapital higiezinaren atxikipena	7	8	16	30	0,3	2,8	7,3	5,8	5,5
Ondare irabazien atxikipena	2	9	5	16	0,1	25,3	62,9	50,5	53,5
Prof. eta enpr. egindako zatikako ordain.	29	68	67	165	1,5	4,1	1,7	2,7	2,5
Kuota diferentzial garbia	-71	-196	-128	-396	-3,5	-4,2	-14,5	-14,8	-12,9
Sozietateak	234	795	411	1.440	12,8	30,4	31,6	15,5	26,4
Ez egoiliarren errentaren gaineko zerga	3	38	4	46	0,4	25,1	53,2	34,2	48,8
KAPITALAREN GAINEKO ZERGA ZUZENAK	21	105	60	186	1,7	26,7	34,7	32,6	33,1
Oinordetzak eta dohaintzak	9	46	25	79	0,7	46,5	86,1	54,9	70,3
Ondarea	12	59	36	107	0,9	15,9	10,9	20,5	14,5
ZEHARKAKO ZERGAK	823	2.505	1.595	4.924	43,7	10,2	20,0	11,8	15,5
BEZ (bertako kudeaketa)	517	1.508	948	2.974	26,4	13,7	32,8	16,4	23,7
Ondare eskualdaketak	34	167	106	307	2,7	11,1	6,7	15,6	10,1
EJD	19	55	41	115	1,0	-0,5	0,0	9,0	2,9
Zerga bereziak eta aseguru primak	253	772	500	1.524	13,5	4,3	4,2	3,4	3,9
Garraibideen zehazt.	10	35	19	65	0,6	3,2	8,8	-0,2	5,1
Fabrikazioa: Hidrokarburoak	164	493	323	979	8,7	2,6	2,0	1,8	2,0
Fabrikazioa: Elektrizitatea	9	28	18	55	0,5	2,0	1,4	1,2	1,4
Fabr.: Alkohola, garagardoa eta tabakoa	51	154	101	306	2,7	9,7	9,1	8,8	9,1
Hidrok. Txikizk. salment. gaineko zerga	8	24	16	48	0,4	6,6	6,0	5,7	6,0
Aseguru primen gaineko zerga	10	37	23	71	0,6	7,5	11,2	8,1	9,6
TASA ETA PREZIO PUBLIKOAK	11	62	32	105	0,9	5,5	1,8	0,2	1,7
Jolasaren tasa	8	44	20	72	0,6	-0,6	-1,1	1,0	-0,5
Beste diru-sar. batzuk (errek., beran. inter.)	3	18	12	33	0,3	26,6	9,5	-1,3	6,7
BERTAN KUDEAT. ZERGA ITUND. GUZTIZKOA	1.642	5.232	3.231	10.105	89,7	12,0	19,0	12,8	15,8
BEZen eta ZERGA BEREZ. ERAG. EGOKITZAP.	194	584	382	1.160	10,3	-1,0	-1,5	-1,8	-1,5
Aduanen eta barruko eragiketen BEZ	203	610	399	1.213	10,8	-1,8	-2,3	-2,5	-2,3
Zerga bereziak	-9	-26	-17	-52	-0,5	-16,5	-17,0	-17,2	-17,0

Iturria: EAEko Foru Aldundiak.

EUSKO JAURLARITZAK AURREKONTUAN ADIERAZITAKO DIRU-SARREREN ETA GASTU FISKALEN ARTEKO KONPARAZIOA

Zerga-kontzeptuak	Gastu fiskala (€-ak milioiet.)			Gastu fisk. ald. %		Gastu fisk./Aurrek. diru-sar. (%)		
	2003	2004	2005	03-04	04-05	2003	2004	2005
PFEZ	1.442	1.667	1.869	15,6	12,1	33,2	34,6	34,5
Ondarea	98	130	126	33,7	-3,5	48,6	57,6	52,7
Sozietateak	471	511	526	8,4	2,9	31,4	32,2	27,3
BEZ	369	532	2.936	44,2	452,3	15,7	13,5	41,5
Ondar. esk. eta EJD *	52	64	108	22,6	68,0	26,7	28,1	20,2
Zerg. bereziak, txikizkako salm., hidrok. eta aseguru primak	169	179	229	5,7	28,1	12,0	12,1	13,0
GUZTIRA*	2.623	3.117	5.794	18,8	85,9	26,1	25,3	34,2

* Bizkaian 2003-2004ko Ondo. eta Ondar. Eskual. gaineko Zergari buruzko daturik ez.

Iturria: Eusko Jaurlaritza, "EAEko Aurrekontuak".

te; bertan, bertako kudeaketak hortik gorako hazkundera izan dute (%15,8, aurreko urtean baino ia bi aldiz handiagoa), eta BEZen eta zerga berezien eraginezko egokitzapenak, berriz, -%1,5eko beherakada izan dute (2004an %9,6ko hazkundera), bai BEZen eta bai Zerga Be-

rezen eraginezkoek (egokitzapen negatiboak sortzeaz gain, urte honetan -%17ra iritsi dira). Horrela, EAEko sektore publikoan Zerga Itunduen ondorioz dauden diru-sarrerek puntu bateko gorakada izan dute eta EAEko BP-Gren %19,6ra iristen dira, sekulako tasarik altuena; zuze-

EAEko SEKTORE PUBLIKOTIK 2005EAN LIKIDATURIKO GASTUA, ERAKUNDEEN ARABERA

Euroak milatan	EJ eta FFAA*	EJ	Bizkaiko FA	FFAA
Gastua guztira	11.568	7.306	6.004	11.625
Langileria gastuak	1.747	1.469	146	278
Funtzionamendu gastuak	2.509	2.256	145	253
Finantziario gastuak (interesak)	109	60	35	49
Transferentzia korronteak	5.236	2.285	5.261	10.242
Inbertsio errealak	760	272	227	489
Kapital transferentziak	682	570	97	185
Finantzazkoak ez diren gastuen guztizkoa	11.043	6.910	5.911	11.495
Finantza aktiboen aldaketa	226	165	36	61
Fin. pasib. aldak. (amortizaturiko zorra)	298	231	57	68
Finantza eragiketetako gastuen guztizkoa	525	396	93	128
2005eko likidazioaren/2004ko likidazioaren aldaketaren %				
Gastua guztira	6,5	8,6	11,5	10,5
Langileria gastuak	5,5	5,4	7,1	5,6
Funtzionamendu gastuak	7,0	7,0	4,8	6,9
Finantziario gastuak (interesak)	-13,1	-16,2	-9,7	-9,0
Transferentzia korronteak	8,5	9,9	13,5	13,2
Inbertsio errealak	4,4	9,9	19,1	1,5
Kapital transferentziak	-0,1	-0,7	-11,7	-2,9
Finantzazkoak ez diren gastuen guztizkoa	6,5	6,8	12,6	11,9
Finantza aktiboen aldaketa	1,8	20,5	-33,5	-28,3
Fin. pasib. aldak. (amortizaturiko zorra)	7,1	99,0	-28,5	-58,4
Finantza eragiketetako gastuen guztizkoa	4,8	56,4	-30,6	-48,1
2005ean BPG korronteari dagokionez likidaturiko gastuaren %				
Gastua guztira	20,10	12,70	20,60	20,20
Kontsumo publikoa	7,40	6,48	1,00	0,92
Inbertsio erreala	2,51	1,46	1,11	1,17

(*) Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean 7.363 milioi euroko finkapena egin da.
Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila, "Aurrekontu Gauzapenaren Estatistika". Eusko Jaurlaritza.
Oharra: Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundiek ez dituzte taula honekin zerikusia duten daturik eman.

neko zergen hazkundea (%8,8) eta zeharrekoen hazkundea (%8,6) antzekoa izan da.

Lurraldeka, aipagarria da zerga itunduek Bizkaian izandako %16,5eko hazkunde tasa handia; PFEZ eta Sozietateen gaineko Zerga nagusitzen dira, baina batez ere BEZ (%32,8ko hazkundea, aintzat hartuta Arabakoa %13,7koa eta Gipuzkoan %16,4koa izan dela); Gipuzkoako (%11) eta Arabako (%10,5) hazkundeak moderatuagoak izan dira. Izan ere, sektore publikoaren diru-sarrerak 1,5 puntuko hazkundea izan dute Bizkaian, eta gainerako bi lurraldeetan puntu erdiko; lurralde horietan dauka zerga-presiorik handiena EAEn (%20koa eta beste lurralde biek %19,1koa), kontuan hartuta 2004an Arabak eta Gipuzkoak baino presio txikiagoa zuela.

Aintzat hartu behar da, datu horiek baloratzeko orduan, 2005eko erdialdetik foru ogasunak inportazioari asimilaturiko eragiketen BEZ biltzen hasi zirela¹ (hidrokarburoen, alkoholaren eta tabakoaren BEZ), eta horrek jasanarazpen handia izan du Bizkaian, lurralde horretan Petronorren findegia dagoelako.

EAEn 2005ean bildutako Zerga Itunduen bolumena 11.265 milioi eurokoa da, eta horren %30 PFEZri, %37 BEZi (bertako kudeaketa eta barruko eragiketen nahiz aduanen egokitzapenak), ia %13 Sozietateen gaineko Zergari eta %14 Zerga Bereziei dagokie.

Lehen esan dugunez, bertako kudeaketako Zerga Itunduen artean, lehenengo eta behin, zuzeneko zergen hazkunde handia aipatu behar da (%16,4ko hazkundea, 2004an baino 13 puntu gehiago); horri dagokionez, PFEZk

¹ Ordura arte, bilketa Estatuko Ogasunak egiten zuen, eta gero, egokitzapena egiten duen FFAAekin, lurralde bakoitzeko kontsumoaren arabera. Bilketarako administrazioa, berriz, Europako Batzordearen irizpen baten ondoriozkoa izan da (zerga horiek jatorrian bildu behar zirela zioen irizpena), baita urtarillaren 31ko 87/2005 Errege Dekretuaren ondoriozkoa ere. EAEko Finantza kontseiluak egindako kalkuluaren arabera, hemengo bilketaren %85 Bizkaian egiten da.

eta Sozietateen gaineko Zergak hazkunde handia izan dute (%15,8 eta %16,4, hurrenez hurren), baina gainerako en kasuan ere hazkunde handiak egon dira. Era berean, aipagarria da zeharreko zergen %15,5eko hazkunde; hala eta guztiz ere, kasu honetan protagonismo osoa bertako kudeaketako BEZek dauka, %23,7ko hazkundearekin, zerga berezien artean hazkunde tasa txikiagoak baitira. Azkenik, tasa eta prezio publikoek eta errekaruen, berandutze-interesen eta zehapenen eraginezko diru-sarreak ere %1,7ko hazkunde txikia izan dute.

2005eko aurrekontuko gastu fiskalari dagokionez (hau da, bertako zergetan eta Foru Aldundien ekarpenetan zenbaturiko zergetan eragina duten hobari fiskalen zenbatekoak: salbuespenak, gastu kengarriak, murriztapenak, urritzeak, hobariak, diferimenduak, etab.), horiek 5.794 milioi eurokoak izan dira, 2004an baino %86 gehiago (aintzat hartuta aurreko bi urteetan ez zirela zenbaturiko Bizkaiari zegozkion gastu batzuk), eta horrek, berriz, irudi horietan zerga itunduei dagozkien diru-sarreraren %34,2 adierazten du (hau da, aurrekontuko diru-sarrerak gehi kalkulaturiko gastu fiskalak).

Gastuaren %51 BEZen eraginezkoa da (gastu fiskalak dira %16ko tasa orokorrean zergapetu ez diren eragiketen eraginezkoak, horren %65, eta salbuetsitako eragiketak —posta zerbitzuak, osasunekoak, hezkuntzakoak, etab.—); %32 PFEZren eraginezkoa da (1.869 milioi €-etatik %40 laneko errendimenduen hobarien ondoriozkoak dira, %21 BGAEei egindako ekarpenen ondoriozkoak eta %22 gehien-

bat etxebizitzan egindako murriztapenen ondoriozkoak), eta %9 Sozietateen gaineko Zergaren eraginezkoa da.


3.2. Gastuak

EAEko Sektore Publikoaren gastu osoak (Toki Erakundeak izan ezik, horiei buruz ez baitago konparaziorako moduko daturik) %6,5eko hazkundea izan du, aurreko urtean baino puntu erdi handiagoa, baina diru-sarrerak izandako hazkunde baino 3,7 puntu txikiagoa, eta alde hori, berriz, 2004an izandakoa baino apur bat handiagoa da; horrela, magnitude horrek BPGri dagokionez duen ehunekoa hiru hamarren txikiagoa da aurreko urtekoa baino, eta %20,1ekoa da.

Gastuaren hazkundea urte honetan handiagoa izan da Aldundietan (%10,5) Eusko Jaurlaritzan baino (%8,6), eta horrela, mantendu egin da 2004an gertaturikoa; beraz, gastu publikoak BPGri dagokionez duen ratioa %19,7tik %20,2ra hazi da Foru Aldundietarako, eta %12,7an mantendu da Eusko Jaurlaritzarako.

EAEko Sektore Publikoaren gastuaren kapituluaren adaketa nagusiak ez dira oso desberdinak aurreko urteetan izandakoetatik. Gastuaren batez bestekotik gorako hazkundeak egon dira funtzionamendu gastuetan (%7), transferentzia korranteetan (%8,5, baina Foru Aldundietan %13,5) eta amortizaturiko zorren (%7,1, aurreko urtean baino askoz ere txikiagoa, bertan hazkunde handia egon baitzen hiru Foru Aldundietan).

EAEko GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGRI DAGOKIONEZ



EUSKO JAURLARITZAREN GASTUAREN BILAKAERA, SAILEN ARABERA

	Euroak milatan				Banak. %	Aldaketaren %		
	2002	2003	2004	2005		02-03	03-04	04-05
GUZTIRA	6.026.306	6.392.506	6.725.309	7.312.911	100,0	6,1	5,2	8,7
Legebiltzarra	23.859	21.520	21.520	23.617	0,3	-9,8	0,0	9,7
Gobernuko Lehendakaritza	16.394	19.043	18.789	20.510	0,3	16,2	-1,3	9,2
Lehendakariordetza	8.181	9.510	10.357	12.553	0,2	16,2	8,9	21,2
Ogasuna eta Herri Administrazioa	159.854	159.389	161.509	171.829	2,3	-0,3	1,3	6,4
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	1.700.754	1.819.806	1.882.886	2.021.892	27,6	7,0	3,5	7,4
Herrizaingoa	481.421	492.447	528.255	526.690	7,2	2,3	7,3	-0,3
Industria, Merkataritza eta Turismoa	287.821	256.221	251.938	285.864	3,9	-11,0	-1,7	13,5
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	166.066	187.138	225.385	209.721	2,9	12,7	20,4	-6,9
Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza	299.827	341.496	363.555	410.777	5,6	13,9	6,5	13,0
Osasuna	1.933.419	2.073.046	2.226.584	2.421.574	33,1	7,2	7,4	8,8
Kultura	194.736	200.223	203.297	209.021	2,9	2,8	1,5	2,8
Ingurumen eta Lurralde Antolamendua	86.333	110.149	109.672	114.616	1,6	27,6	-0,4	4,5
Garraioak eta Herri Lanak	185.892	195.399	176.506	182.424	2,5	5,1	-9,7	3,4
Nekazaritza eta Arrantza	169.753	188.124	177.899	190.704	2,6	10,8	-5,4	7,2
Inbertsio Sozioekonomikoen Plan Berezia	0	0	55.475	67.207	0,9			21,1
Laneko Harremanetarako Kontseilua	2.077	2.140	2.140	2.338	0,0	3,0	0,0	9,2
Kontseilu Ekonomikoa eta Soziala	1.503	1.560	1.560	1.624	0,0	3,8	0,0	4,1
Kooperatiben Kontseilu Nagusia	691	715	715	745	0,0	3,5	0,0	4,2
Kontu Auzitegia	7.928	5.085	5.085	6.144	0,1	-35,9	0,0	20,8
Datuen Babeserako Agentzia	0	0	120	1.161	0,0			867,7
Zor Publikoa	281.736	191.218	176.883	281.918	3,9	-32,1	-7,5	59,4
Erakundeetako Baliabideak	14.864	116.795	124.856	149.754	2,0	685,8	6,9	19,9
Sailletako beste gastu batzuk	3.199	1.484	321	229	0,0	-53,6	-78,4	-28,8
% BPG	12,94	12,90	12,61	12,71				

Iturria: Eusko Jaurlaritza.

EAEko SEKTORE PUBLIKOAREN AURREZPENA ETA DEFIZITA 2005EAN

Euroak milioitan	EJ eta FFAA	EJ	Bizkaiko FA	FFAA
Diru-sarrera guztira	12.353	7.765	6.216	11.951
Finantzako ez diren diru-sarrerak	11.915	7.455	6.101	11.822
Finantzako diru-sarrerak	438	309	115	129
Gastua guztira	11.568	7.306	6.004	11.625
Finantzako ez diren gastuak	11.043	6.910	5.911	11.495
Finantzako gastuak	525	396	93	128
Aurrezpen gordina	2.187	1.314	462	872
Finantz. beharr./Gaitasuna (superabita)	872	545	190	327
2004/2005 likidazioaren aldaketaren %				
Diru-sarrera guztira	10,2	10,4	14,2	13,2
Finantz. ez diren diru-sarrerak guztira	11,2	11,6	15,0	13,6
Finantzako diru-sarrerak guztira	-11,9	-11,5	-14,2	-12,9
Gastua guztira	6,5	8,6	11,5	10,5
Finantzako ez diren gastuak guztira	6,5	6,8	12,6	11,9
Finantzako gastuak guztira	4,8	56,4	-30,6	-48,1
Aurrezpen gordina	32,9	33,5	62,1	31,9
Finantz. beharr./Gaitasuna (superabita)	151,2	158,5	225,1	139,9
2005eko likidazioaren % (BPG korrontea)				
Aurrezpena	3,80	2,29	1,59	1,52
Superabita	1,52	0,95	0,65	0,57

Iturria: Ogasun eta Herri Ad. Saila, "Aurrekontu Gauzapenaren Estatistika". Eusko Jaurlaritza.

Horien atzetik, hazkunde txikiagoekin, langileriaren gastuak (%5,5, 2004an baino bi puntu gehiago), inbertsio errealak (%4,4, aurreko urtean -%2,2ko beherakada izan

ondoren) eta finantza aktiboak daude (%1,8, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien aurkako aldaketarekin, aurreko urteko -%20ko murriztapenari dagokionez). Murriz-

tapen moderatua izan dute kapitalaren transferentziek (%-0,1), eta murriztapen nabariagoa, berriz, finantza gastuek (-%13,1).

Eusko Jaurilaritzaren gastuari dagokionez, 2005eko likidazioak %8,7ko hazkundea adierazten du, honako sail hauen hazkunde oso handiekin: Lehendakariordetza (%21,1), Industria, Merkataritza eta Turismoa (%13,5) eta Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzak (%13). Gastuaren bolumena aintzat hartuta garrantzitsuenak diren sailak dagokienez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak (guztizkoaren %28) gastuaren hazkunde orokorretik beherako hazkundea dauka, baina 2004koa baino bi aldiz handiagoa (%7); Osasun Saila (guztizkoaren %33), berriz, batez bestekoa mantendu eta %8,8ko hazkundea izan du, aurreko urtean baino 1,4 puntu gehiago.

Gainerako sailetan hazkunde txikiagoak ikusten dira gastuan, Gobernu Lehendakariaren izan ezik; batzuetan, gainera, murriztapenak ikusten dira, esate baterako, Herrizaingoa eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietan. Gainera, aipagarriak dira Erakunde Baliabideak (%20) eta Ekonomia eta Gizarte Inbertsioen 2004-2007 Plan Bereziak² (%21 eta 67,2 milioi euro) izandako hazkundeak; era berean, zor publikoak ia %60ko hazkundea izan du eta Da-


tuen Babeserako Euskadiko Agentzia berrirako partida ere handitu egin da. Azkenik, Eusko Legebiltzarra eta Lan Harremanetarako Kontseiluak %9tik gora hazi dira, eta beste bi kontseiluek (EAEko CES eta Kooperatiben Kontseilu Nagusia) %4,1eko hazkundea izan dute, eta Kontu Auzitegiak, azkenik, %20,8ko hazkundea.

Horrela, 2005ean ere diru-sarrerek gastuek baino hazkunde handiagoa izan dute (bai korronteak eta bai kapitalarenak); horren eraginez, aurrezpen publikoak %33ko hazkundea izan du (2004an %25,3koa), eta horrela, hori 2004ko %3,09tik (BPGri dagokionez) 2005eko %3,80ra igaro da; halaber, administrazioen superabit publikoren hazkunde aurreko urtekoa baino bi aldiz eta erdi handiagoa izan da, eta 2003ko 34 milioi euroetatik 2004ko 347 milioi euroetara eta 2005eko 872 milioi euroetara igaro da (2004an BPGren %0,65 izatetik 2005ean %1,52 izatera).

3.3. *Sektore publikoaren zorpetzea*

EAEko sektore publikoaren zorpetze garbiak goranzko joera mantendu du 2005ean, azken hiru urteetan bezala, baina tasa nahiko txikiagoetan. Urte amaieran, Eusko Jaurilaritzaren eta Foru Aldundien zorraren bolumena

EAEko Administrazioaren Zorpetzearen Bilakaera, Erakundeen Arabera (BPGren %)



Iturria: Eusko Jaurilaritza, Eustat eta geuk landuta.

² Ogasun eta Herri Administrazio Sailak sustaturiko Plana, azpiegiturretako (sozialak nahiz kulturalak, teknologikoak, energetikoak eta ingurumenekoak) inbertsio proiektu batzuk finantzatzeko, Naturcorp sozietatea pribatizatzeko prozesua amaitzearen ondoriozko fondoeekin (Gobernuak 232,5 milioi euroko diru-sarrera izan zuen).

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZOR PUBLIKOAREN BILAKAERA (EUROAK MILATAN)

	Jaulk. gordina		Amortizazioa	Zor garbia		Urteko azken zor bizia	
	(1)	Aldak. %	(2)	(1)-(2)=(3)	Aldak. %	Guztira	Aldak. %
Eusko Jaurlaritzaren							
2002	366.900	52,9	222.461	144.439	-195,9	1.514.613	10,5
2003	390.000	6,3	128.922	261.078	80,8	1.775.691	17,2
2004	275.000	-29,5	115.935	159.065	-39,1	1.934.756	9,0
2005	300.000	9,1	230.719	69.281	-56,4	2.004.037	3,6
Diputaciones Forales							
2002	241.500	97,7	54.114	187.386	191,4	1.226.780	18,0
2003	61.000	-74,7	61.195	-195	-100,1	1.226.585	0,0
2004	146.001	139,3	162.471	-16.470	8.338,6	1.210.115	-1,3
2005	126.000	-13,7	67.564	58.436	-454,8	1.268.551	4,8

Iturria: Zerga Koordinazioko Organoa, Eusko Jaurlaritzaren eta FFAA.

3.273 milioi €-koa izan da (%4,1eko hazkundea), aurreko urtekoa baino txikiagoa (%4,7ko hazkundea).

Hazkunde hau Eusko Jaurlaritzaren (%3,6 eta zorpetze osoaren %61) eta Foru Aldundietan (%4,8) egon da, baina kasu horretan amortizazio txikiaren eraginezkoa izan da batik bat. Zor publikoaren jaulkipenak, orokorrean, aurreko urtekoen antzeko zifrak izan ditu, 426 milioi €, eta amortizazioa, berriz, 2004koa baino %7 handiagoa da, batez ere Eusko Jaurlaritzaren amortizazio handiagoaren ondorioz.

Horrela, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien zor garbi osoa EAEko BPGren %5,69koa da, 2004an baino 21 ehunen txikiagoa.

Eusko Jaurlaritzak 300 milioi euroko zorra izan du 2004an, aurreko urtean baino %9,1 handiagoa, eta 231 milioi amortizatu ditu, 2004an baino bi aldiz gehiago; beraz, zorraren saldo bizia 69 milioi handiagoa da. Urte amaieran, zor bizia 2.004 milioi eurokoa izan da, eta murriztu egin da BPGri dagokionez, 2004ko %3,63tik %3,48ra igarota.

Bestalde, Foru Aldundien zor jaulkipen osoa 126 milioi eurokoa izan da, 2004an baino 20 milioi gutxiago (-%13,7), eta horren %90 Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio (Arabakoak aurreko urteko 12 milioiak jaulki ditu eta Gipuzkoak hirugarren urtez ez du zorrik jaulki). Hala eta guztiz ere, Foru Aldundien zorraren amortizazioa aurreko urtekoa baino -%58 txikiagoa da (67,6 milioi euro); hortik %84 Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, %7 Gipuzkoako Foru Aldundiari eta gainerako %9 Arabako Foru Aldundiari; horrela, Foru Aldundien zorraren saldo biziak %4,8ko hazkundea izan du, aurreko urtekoari dagokionez, murriztapena Gipuzkoan baino ez baita egon, baina BPGri

dagokionez ere behera egin du, 2004ko %2,27tik 2005eko %2,21era jaitsita.

3.4. EAEko, Estatuko eta EBko erakundearen arteko transferentziak

EAEEn bertako jardueraren finantzatzeko sistema berezia dago; izan ere, zergarik gehienak biltzeko ahalmena dauka eta Estatuko gastuetan laguntzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak ez diren gaietan (Kuporen bidez). Erkidegoaren barruko eskumenen banaketari dagokionez, bilketa batez ere Foru Aldundiek egiten dute, eta horiek, bestalde, Eusko Jaurlaritzaren finantziarioan laguntzen dute, kasuan kasuko ekarpenak eginez, baita Lurralde Historiko bakoitzeko udalen finantziarioan ere. EAEko Herri Administrazioek lortzen dituzten baliabideak ez ezik, Europar Batasuneko fondoak eta Estatuko fondoak ere jasotzen dira, BEZen eta Zerga Berezien bilketa egokitzeko, baita honako honi loturiko zergen bilketa egokitzeko ere: Foru Aldundiek eta udalek itundu gabeko zergetan duten partizipazioari lotutakoak, Kirol eta Ongintzako Apustuen eta Estatuko Loterien eta Apustuen Erakunde Nazionalaren bilketan duten partizipazioari lotutakoak, eta Estatuko Administrazioen eta Erakunde Autonomoen artean ezarritako finantziario akordioei eta hitzarmenei lotutakoak.

Ekarpenei buruzko 2002-2006 Legean baliabideak banatzeko jasota dagoen metodologiak ezarritakoaren arabera, Foru Aldundiek bildutako zerga itunduen %70,44 Eusko Jaurlaritzari transferitzen zaizkio, gastu komunaren mantenamenduari egindako ekarpenentzat (Eusko Jaurlaritzak lorturiko diru-sarreraren guztien %88 ekarpen horien eraginezkoa dira). 2005ean, ekarpenen

EAEko, ESTATUKO ETA EBko ERAKUNDEEN ARTEKO TRANSFERENTZIAK

	Euroak miletan			Aldak. %	
	2003	2004*	2005*	03-04	04-05
A. EAE BARRUKO TRANSFERENTZIAK					
1. FFAAek E. Jauriaritzari egindako ekarp.	5.764.518	6.181.796	7.088.345	7,2	14,7
Ekarpen orokorra	5.764.518	6.181.796	7.085.585	7,2	14,6
Ekarpen bereziak	0	0	2.760		
2. EAEko beste erak. batz. E.Jri egindako beste transf. batz.	14.552	14.256	7.205	-2,0	-49,5
3. FFAAek udalerriei egindako transferentziak	907.354	937.418		3,3	
UFFF-Gipuzkoa	303.878	314.116		3,4	
Udalkutxa-Bizkaia	473.458	488.993		3,3	
UFF-Araba	130.018	134.309		3,3	
B. EAEren ETA ESTATUAREN ARTEKO TRANSF.					
4. Estaturako transferentziak (kupo likidoak)	1.029.275	1.128.463	1.200.849	9,6	6,4
Oinarritzko kupo gaurkotua	1.144.154	1.258.383	1.359.315	10,0	8,0
(-) Kupoaren egokitzapenak eta konpentsazioak	114.879	129.920	158.466	13,1	22,0
5. EAEko transferentziak	1.077.466	1.182.050	1.204.092	9,7	1,9
Gizarte Segurantzako transferentziak	72	0	0		
Hitzarmenen eraginezkoak eta beste batzuk	2.774	3.787	43.677	36,5	1.053,4
BEZen eta zerga berezien egokitzapenaren transf.	1.074.620	1.178.263	1.160.415	9,6	-1,5
C. EUROPAR BATASUNAREN FONDOAK	172.181	114.800	145.726	-33,3	26,9

(*) behin-behineko datuak.

Iturria: Zerga Koordinazioko Organoa eta geuk landuta.

behin-behineko zenbatekoa 7.088 milioi eurokoa izan zen, eta %14,7ko hazkundea izan zuten, aurreko urtean baino bi aldiz handiagoa. Lurralde Historikoen ekarpen-koefizienteek 16,72ra handitu ziren Araban (9 hamarren gehiago) eta, aldiz, Bizkaian 50,34ra (ehunen bat gutxiago) eta Gipuzkoan 32,94ra (8 hamarren gutxiago) murriztu ziren. Estaturako behin-behineko Kupo Likidoak, urtero Kupoari buruzko 2002-2006 Bosturteko Legearen bitartez finkatzen dena, 1.200,8 milioi eurokoa izan da urte horretan, eta %6,4ko hazkundea izan du 2004koari dagokionez.

Estatuari egindako ordainketa horiek ez ezik, zenbateko batzuk ere jasotzen dira, eta, horien artean, aipagarria da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eraginezko egokitzapena, barruko merkatuan egindako eragiketen eta inportazioen eraginezkoak (Estatuko Ogasunak soilik egiten du); izan ere, Estatuko EAEko Administrazioen arteko finantza egokitzapena da, zerga-administrazioen bilketa teorikoak eta errealak egokitu behar izatearen ondoriozkoa, administrazio horiek muga fiskalik gabeko espazioan jarduten baitute lurraldean. Egokitzapen horiei, 1997an, honako honen eraginezko distortsioa zuzentzeko behar ziren zerga bereziei zegozkienak gehitu zitzaizkien: zerga horiekin zergapeturiko produktuen azken kontsumoa produktuen fabri-

kaziokoa ez den beste lurralde batean egitea. 2005ean 1.160 milioi eurokoak izan ziren eta zifra horrek %1,5eko beherakada izan du.

Azkenik, EAEk 2000-2006 aldian Europar Batasuneko egituretan izandako partaidetza (Eskualdeen Garapenerako Europako Fondoa —FEDER— eta Europako Gizarte Fondoa —EGF—), batez ere, 2. helburuaren bidez gauzatu zen (egiturazko akatsak dituzten zonen ekonomia eta gizarte birmoldaketarako laguntza). Egiturazko Fondo horiek emandako laguntzaren bolumena, orokorrean, 587,6 milioi eurokoa da. Zenbateko horretatik, %95 EGFri dagokio eta gainerako %5 EGFri, eta partaidetza publiko osoa 1.316,2 milioi eurokoa da. Gainera, 3. helburuari laguntzako Europako Esparruan (enplegu hobea eta orokorra lortzeko giza baliabideen garapenerako), 222,6 milioi euro daude 9 ardatzetan banatuta, eta Europako Urban II eta Interreg III ekimenetarako, berriz, 10,5 eta 7,2 milioi euro daude, hurrenez hurren, 2000-2006 programazio aldirako. Azkenik, Kohesio Fondoak 2000-2002 urteetan onetsitako laguntza (EAEn gauzatu beharreko proiektuetarako) 68,5 milioi eurokoa izan da 2001ean eta 100,2 milioi eurokoa 2002an. 2002tik, EBtik iritsitako fondoen bolumenak beherakada handia izan du; hala eta guztiz ere, 2005ean %27ko hazkundea izan eta 145,7 milioi eurokoa izan zen.

3.5. EAEko enpresa sektore publikoa

EAEko Administrazio Nagusiaren eta Erakundeen partaidetza duen enpresa sektore publikoari buruz dau- den datuak³ 2004koak dira, eta administrazioen emai- tza positiboa adierazten dute; hain zuzen ere, azken ur- te horretan 53,3 milioi euroko irabaziak izan dituzte (hala eta guztiz ere, 2003an baino 14,9 milioi euro gu- txiago).

Eusko Jaurlaritzaren partizipazioa duen enpresa sek- tore publiko horren egitura iraunkor mantendu da ezau- garri nagusietan; horren barruan, enpleguaren eta parti- zipazioaren bolumena aintzat hartuta, garrantzitsuenak SPRI, EEE, EITB eta Eusko Trenbideak, Ejie, Euskadiko Or- kestra, Neiker nahiz Mendikoi sozietateak dira.

2004an, Eusko Jaurlaritzak zuzeneko eta zeharreko partizipazioa zuen 57 enpresa eta sozietate publikotan, aurreko urtean baino bi gehiagotan (Red Ferroviaria Vas- ca, Euskotren Participaciones, eta Zumaia Kiroi Portua, guztietan kapitalaren %100ekin, azken horretan izan ezik, %51ekin, eta IMEBISA desagertu egin zen). Horietariko 22tan %100eko partizipazioa mantendu zuen (12tan zu- zenean eta 10etan zeharka), eta 35etan %100etik behe- rako eta %50etik gorako partizipazioa izan zuen (3tan zu- zeneko partaidetza eta 32tan zeharrekoa).

Eusko Jaurlaritzaren partizipazio nagusia duten so- zietateen langileria ere egonkor mantendu da, 2.900 en- plegatu ingururekin, urterik urterako aldaketa txikiekin (2004an %1,5eko hazkundea izan zuen, batik bat Eusko- tren eta Visesa taldeak izandako hazkundearen ondorioz, bertako langileria 40 pertsonatik 54ra igaro baitzen).

Hala eta guztiz ere, Foru Aldundien partaidetza nagu- sia duten sozietateetako langileriak goranzko joerari eu- tsi dio, eta 2004an %5,9ko hazkundea izan du (2002an %13,3koa eta 2003an %2,8koa); hain zuzen ere, 67 per- tsona gehiago. Eusko Jaurlaritzaren partaidetza nagusia duten sozietate eta enpresa publiko nagusiek, 2004an, 814 milioi €-ko irabaziak izan zituzten, aurreko urtean 50,2 milioi €-ko irabaziak izan ondoren, Naturcop-en sal- mentaren eraginez. Emaita positibo hori, berriz, honako hiru faktore hauek azaltzen dute:

- EEEK, Visesa-k, Osatek-ek eta tamaina txikiagoko gai- nerako enpresek lorturiko irabaziak; izan ere, sozietate horiek, orokorrean, halako emaitza positiboak lortzen dituzte. Horrela, EEEK 29,9 milioi €-ko irabaziak izan zituen, eta horrela, 2003a baino lehenagoko urteetako ibilbide tradizionalera itzuli zen, urte horietan iraba- zia oso handiak izan baitziren, aipaturiko gas-konpai- nia saltzearen ondorioz. Osatek enpresaren kasuan

EAEko ENPRESA PUBLIKOEN LANGILERIA

	Pertsona kopurua				Aldaketaren %		
	2001	2002	2003	2004	01-02	02-03	03-04
ZERB. PUBLIKOA GUZT.	5.541	5.666	5.703		2,3	0,7	
EJ + FFAA GUZTIRA	3.958	4.024	3.989	4.098	1,7	-0,9	2,7
Eusko Jaurlaritza (1)	2.988	2.925	2.859	2.901	-2,1	-2,3	1,5
EITB	1.105	957	942	917	-13,4	-1,6	-2,7
ET	859	907	931	955	5,6	2,6	2,6
EEE	194	190	65	70	-2,1	-65,8	7,7
SPRI	172	176	179	185	2,3	1,7	3,4
EJIE	162	166	167	167	2,5	0,6	0,0
Euskadiko orkestra	98	99	99	100	1,0	0,0	1,0
Neiker	125	140	145	152	12,0	3,6	4,8
Mendikoi	93	93	94	94	0,0	1,1	0,0
Gainerakoak	180	197	237	261	9,4	20,3	10,1
FORU ALDUNDIAK (2) (3)	970	1.099	1.130	1.197	13,3	2,8	5,9
Arabako FA	98	110	114	118	12,3	2,8	4,0
Bizkaiko FA	556	644	676	691	15,9	4,9	2,3
Gipuzkoako FA	316	344	341	387	9,0	-1,1	13,8
TOKI ERAKUNDEAK (2)	1.583	1.642	1.714		3,7	4,4	

Iturria: Geuk landuta honako honetan oinarrituz: (1) Eusko Jaurlaritzaren "EAEko enpresa sektore publikoa", (2) Eustat "Sektore Publikoko Kontuak" eta (3) FFAAen aurrekontua (2004).

³ Kontuan hartu behar da 1998tik Osakidetza zuzenbide pribatuko Erakunde Publikoa dela, eta beraz, enpresa publikorik handiena da, langile kopurua eta aurrekontuak aintzat hartuz; hala ere, ez da atal honetan sartu, EAEko osasunari eta osasun sistemari buruzko atalean baizik.

gauza bera gertatzen da; izan ere, 617 milioi €-ko irabaziaz izan ditu, 2003an baino %16 gehiago. Hala eta guztiz ere, Visesa-ren irabaziaz ia 7 aldiz handiagoak izan eta 1,3 mila €-koak izan dira, lehenagoko ekitaldietako sustapen kopuru handia saltzearen ondorioz, baita "etxebizitza hutsa" programako sustapenak eta haztamuz lorturiko etxebizitzak saltzearen ondorioz ere, Eusko Jaurlaritzaren "EAEko enpresa sektore publikoa" txostenean adierazitakoaren arabera. Tamainarik txikieneko taldetxoak, bestalde, 2003an galera txoak izatetik 2004an 568 milioi €-ko irabaziaz izatera igaro da, batez ere Itelazpi-ren ondorioz.

- SPRI eta Mendikoi 2003an galerak izatetik 2004an irabaziaz izatera igaro dira. Hain zuzen ere, SPRI 2003an -10,2 milioi €-ko galerak izatetik 2004an 361 milioi €-ko irabaziaz izatera igaro da. Horren azalpena "Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk" epigrafean aurkituko dugu; izan ere, epigrafe horretako diru-sarrerak 2003ko 11,8 milioi €-etatik 2004ko 31,2 milioi €-etara igaro dira; bertan, Eusko Jaurlaritzatik jasotako transferentziak eta dirulaguntzak sartzen dira, ustiapenaren defizita estaltzeko bideratzen direnak, baita programak saltzeagatik, ekipoak alokatzeagatik eta irudi eskubideak lagatzeagatik lorturiko diru-sarrerak ere. Mendikoi-ren kasuan gauza bera gertatzen da; hain zuzen ere, 2003an -5,5 milioi €-ko galerak eta, gero, 255 mila €-ko irabaziaz.
- Eusko Trenbideak, Ihobe eta Neiker enpresen galerak murriztu egin dira. Eusko Trenbideak enpresaren kasuan, galerak erdira murriztu dira (2004an -21 milioi €), Ihobe enpresaren kasuan, 2003koak (-6,4 milioi € baino -%43 txikiagoak dira, eta Neiker enpresaren ka-

suan -%90etik gorakoak dira (-457 milioi €). Kasu horietan ere, Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzen zenbatekoek hazkunde handia izan dute.

Azkenik, EITBren defizitaren zifrak aurreko urtekoen antzekoak dira (-3,9 milioi €), baina emandako dirulaguntzak %11ko hazkundera izan du (93,2 milioi eurotik 104 milioi €-ra igaro da); Euskadiko Orkestrak 329 mila €-ko galera izan du eta Egailan-en galerak 2003ko 240 mila €-etatik 2004ko 145 mila €-etara igaro dira.

Foru Aldundiei dagokienez, 28 sozietate publiko dau (2003an baino bat gutxiago, Abandoibarraren jardura amaitu egin baita urte amaieran): zortzi Araban (Álava Agencia de Desarrollo, Gestión del Patrimonio Cultural Edificado de Álava, Centro de Cálculo, Fernando Buesa Arena, Naturgolf, Arabako Lanak, Álava Agencia del Agua eta Vías de Álava), lau Gipuzkoan (Uliazpi Fundazioa, IZFE, Etorlur eta Bidegi) eta gainerako hamazazpiak Bizkaian (Aparcabisa, Azpiegitura, Basalan, Beaz, Bizkaiko Bideak, Bizkailur, Boroa, Centro de Diseño Industrial, Euskalduna Jauregia, Garbiker, Lantik, Meaztegi, Seed Capital de Bizkaia, Sala de Exposiciones de Rekalde, Parque Industrial de Abanto y Ciérvana eta Interbiak).

Enpresa publiko horien emaitzei dagokienez, 2003an gertatu zen bezala, orokorrean, Bizkaian eta Gipuzkoan sorturiko bi sozietate berrien eraginpean daude (Interbiak eta Bidegi, A-8 autobidea kudeatzeko ardura dutenak); hain zuzen ere, 52,5 milioi euroko irabaziaz egon dira, aurreko urtean baino hiru aldiz handiagoak; hala eta guztiz ere, bi sozietate horiek kenduta, 2004ko emaitzak, Foru Aldundien partizipazio nagusia duten merkataritza sozietateen multzoari dagokionez, -15,6

EUSKO JAURLARITZARI ERATXIKITAKO IRABAZIAK EDO GALERAK, PARTIZIPATURIKO SOZIESTATE PUBLIKO NAGUSIEI DAGOKIENEZ

	Euroak milatan				Aldak. %		
	2001	2002	2003	2004	2002	2003	2004
EJ GUZTIRA*	-142.684	-109.634	50.242	814	-23,2	-145,8	-98,4
Energ. Euskal Erak.	22.884	49.039	133.272	29.871	114,3	171,8	-77,6
EITB	-83.855	-88.567	-3.798	-3.876	5,6	-95,7	2,0
Eusko Trenbideak	-38.997	-40.904	-45.686	-20.960	4,9	11,7	-54,1
SPRI	-6.769	-8.649	-10.168	361	27,8	17,6	-103,6
IHOBE	-26.383	-11.141	-11.144	-6.371	-57,8	0,0	-42,8
Neiker	-4.161	-4.461	-6.805	-457	7,2	52,6	-93,3
Mendikoi	-3.967	-4.800	-5.529	255	21,0	15,2	-104,6
Euskadiko orkestra	495	165	-360	-329	-66,6	-318,1	-8,6
VIKESA	-1.990	-596	185	1.262	-70,0	-131,1	580,6
OSATEK	346	233	530	617	-32,5	127,2	16,4
Egailan	-220	0	-240	-145	-100,0		-39,7
Gainerako sozietateak	-66	47	-15	568	-171,2	-131,9	-4007

(*) EJEK emaitza nulua aurkeztu du irabazietan/galeretan.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren "EAEko enpresa sektore publikoa".

FORU ALDUNDIEN PARTIZIPAZIOA DUTEN SOZIETATE PUBLIKOEN EMAITZA

	Euroak milatan				Aldaketaren %		
	2001	2002	2003	2004	01-02	02-03	03-04
FFAAak GUZTIRA	-2.744	-6.570	17.909	52.483	139,4	-372,6	193,1
FFAA guztira, Interbiak eta Bidegi izan ezik	-2.744	-6.517	-15.569	-15.640	137,5	138,9	0,5
ARABAKO FA	520	1.808	-4.553	-3.283	247,7	-351,8	-27,98
Fernando Buesa Arena	-13	0	-45	-112	-100,0		145,5
Arabako Lanak	492	318	-37	-699	-35,3	-111,6	1.789
Álava Agencia de Desarrollo	223	1.690	864	4.078	657,8	-48,9	372,1
Centro de Cálculo de Álava	-12	-2	-4.956	-5.411	-79,2	198.456	9,2
Gestión del Patrim.							
Cultural Edificado-Arabarri	0	-8	-10	-356		36,2	3.363,2
Naturgolf	-172	-171	-342	-486	-0,5	99,7	42,1
Álava Agencia del agua	2	-19	-26	-298	-1.053	35,7	1.052,3
Vías de Álava	0	0	0	0			
GIPUZKOAKO FA	3.529	392	22.461	47.237	-88,9	5.636	110,3
IZFE-Soc.Foral de Servicios Informáticos	59	93	22	100	58,0	-76,8	362,8
Etorlur (antes Urnieta Lantzen)	273	127	46	141	-53,5	-63,8	207,4
Uliazpi Fundazioa	3.196	224	260	45	-93,0	16,5	-82,7
Bidegi-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras	0	-52	22.133	46.950		-42.411	112,1
BIZKAIKO FA	-6.792	-8.769	1	8.530	29,1	-100,0	819.355
Aparcabisa	-601	-720	-807	-1.279	19,7	12,0	58,6
Azpiegitura	-145	-1.868	-1.830	-1.246	1.187,2	-2,1	-31,9
Basalan	-167	15	31	117	-109,2	101,4	275,8
Beaz	-1.620	-1.744	-2.374	-2.521	7,6	36,1	6,2
Bizkaiko Bideak	151	422	900	-1.601	179,0	113,3	-277,9
Bizkailur	-590	-272	-831	-298	-53,9	205,4	-64,1
Borrea	20	2	-802	625	-92,2	-50.711	-178,0
Centro de Diseño Industrial	-1.417	-1.719	-1.665	-1.750	21,3	-3,1	5,1
Euskalduna Jauregia	-1.184	-1.357	-1.287	-1.397	14,6	-5,2	8,5
Garbiker	214	49	17	-1.462	-76,9	-65,8	-8.769
Lantik	0	0	0	0			
Meaztegi	-243	-457	-486	-470	87,8	6,4	-3,3
Sala de Exposiciones Rekalde	-401	-392	-585	-755	-2,2	49,1	29,0
Seed Capital	-377	-497	-456	-602	31,9	-8,3	31,9
Paque Industrial de Abanto y Ciérvana	-19	-4	-3	-4	-81,0	-15,5	40,1
Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitatea-Interbiak	0	0	11.345	21.173			86,6
Abandoibarra (jarduera 2003an amaituta)	-413	-227	-1.166	0	-45,1	414,7	

Iturria: Geuk landuta, Foru Aldundien Kontu Orokorretan eta EAEko Kontu Auzitegiaren txostenetan oinarrituz.

milioi €-ko galerak adierazten ditu (aurreko urtekoaren zifra ia berdín-berdina).

Arabako foru sozietateen galerak %28an murriztu dira, eta 2003ko -4,6 milioi euroetatik 2004ko -3,3 milioi euroetara igaro dira; bertan, Centro de Cálculo de Álava-ren -5,4 milioi euroko emaitza negatiboa, neurri batean,

Agencia de Desarrollo-k izandako 4,1 milioiko irabaziarekin orekatzen da. Gipuzkoako sozietate guztiek irabaziak izan dituzte, baina emaitza orokorrak aurreko urtekoak baino bi aldiz handiagoak dira, 47,2 milioi €-ko irabaziekin. Azkenik, Bizkaiko 16 foru sozietateetatik 12k emaitza negatiboak izan dituzte; hain zuzen ere, 2003ko emaitza nulutik 8,5 milioi €-ko irabazietara igaro da.

4


Ekonomia soziala

220

Ekonomia Soziala izen orokorraren barruan eraketa eta helburu anitzeko erakunde mota desberdinak sartzen dira; hala ere, kasu honetan, aurreko urteetan bezala, atal honetan egiten dugun tratamendua merkaturako ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituztenen errealitatea

adieraztera mugatzen da, eta ez dira aztertzen jardura sozialak soilik egiten dituzten beste erakunde batzuk. Kooperatibek eta laneko sozietateek osaturiko ekonomia sozialaren produkzio zatiaren dimentsio erlatiboa kokatzeko, datu erabilgarriek EAEko balio erantsiaren %6 eta

EKONOMIA SOZIALEKO SOZETATE KOPURUAREN BILAKAERA



Iturria: E. Sozialaren Erregistroa, Eusko Jaurlaritza.

enpleguaren %13 inguru adierazten dute, industria sektoreari dagokionez; esportaziorako gaitasuna, berriz, EAEk atzerrira egindako esportazio guztien %14ra iristen da, Ekonomia Sozialaren Kontuei buruz argitaraturiko azken datuetan adierazitakoaren arabera.

Gizarte Segurantzak, urte amaieran, 1.471 sozietate erregistratu ditu EAEen (kooperatiben izaera juridikoa duten sozietateak), aurreko urtean baino 28 gehiago; horietan, 55.438 langilek egiten dute lan (2004an baino %2,6 gehiago) eta, horietatik, ia %60 elkarturiko laneko kooperatibetako bazkideak dira eta kotizazioa autonomoen araubide berezian egiten dute. Iturri horrek dioenez, 1.103 lan-sozietate ari dira kotizatzen, 2004an baino 21 gutxiago (16 anonimo eta 5 mugatu gutxiago), eta horietan 13.356 pertsona dabilta lanean, 2004an baino %6,8

gehiago (bi sozietateek hazkundeak izan dituzte, baina enpleguaren %70 anonimoek sortzen dute). Zifra horien arabera, ekonomia sozialak EAEko enpresen %0,7 eta enpleguaren %7 sortzen du; batez besteko dimentsioa 36 langilekoa da, kooperatiba bakoitzeko, eta 12 langilekoa lan-sozietate bakoitzeko (EAEko batez bestekoa baino 8 eta 4 aldiz handiagoa, hurrenez hurren). Gainera, Gizarte Segurantzaren altan dauden sozietateen egoerari buruz egindako ikerketa baten arabera (Estatu mailako ikerketa, 1994-2005 aldirako), kooperatiben (autonomoen araubide berezikoak izan ezik) eta lan-sozietateen urterik urterako hilkortasun-tasa %10etik hurbilekoa da. Aldi horren erdialdeko urte bat hartuta, 5 urteko iraupenaren ostean, enpresa guztien %51,4k altan jarraitzen dute Gizarte Segurantzaren, eta hasierako enplegu guztien %90,9 kontserbatzen dira. Izan ere, mantendu egiten diren enpresek 10 urte igarotakoan bikoiztu egiten dute hori (enpresen ia %30ek bizirik jarraitzen dute eta hasierako enplegu osoaren %66ko enplegu bolumena ematen dute).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako *Ekonomia Sozialeko Zuzendaritzaren Erregistroak* 3.766 kooperatiba eta lan-sozietate ditu erregistraturik, eta ekonomia sozialeko enpresa kopurua 94 enpresatan handitu da, 2004ari dagokionez; laneko sozietate anonimoen kopurua apurka-apurka murriztu (2005ean 15 gutxiago) eta mugatuen nahiz kooperatiben kopuruak gora egin du (hurrenez hurren, 30 eta 79).

EKONOMIA SOZIALAREN PARTIZIPAZIOA EAEKO GUZTIZKOAN (GUZTIZKOAREN %)

	1994	1996	1998	2000	2002
Enplegua guztira	6,0	6,0	6,2	6,5	6,8
Industria enplegua	13,0	12,6	12,2	12,9	13,1
BEG	4,60	4,78	5,03	4,98	5,32
Atzerriako esportazioa	9,1	10,6	11,6	11,1	13,6

Iturria: Geuk landuta Eustaten eta datuetan eta E. Sozialeko Kontuetan oinarrituz.

4.1. Kooperatiba sozietateak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialeko Zuzendaritzaren Erregistroak emandako datuen arabera, 2005ean 79 kooperatibako hazkundera egon da, eta zifra horrek %5,3ko hazkundera adierazten du aurreko urteari dagokionez (urte horretan 99 kooperatibako hazkundera, %7). Urte amaieran, kooperatiba kopuru osoa 1.580 sozietatekoa izan da¹.

Azken urteetan gertatu den bezala, hazkundera hori, batik bat, asoziazio-laneko 43 kooperatibetan gertaturiko hezkundearen eraginezkoa da (2004an baino 40 gehiago), bertan biltzen baita sozietate bolumenik handiena (guztizkoaren %66); etxebizitza sektorea, berriz, bigarren postuan dago, sozietate berririk gehien ematen duten sozietateei dagokienez (2005ean 19, 2004an baino gutxiago, azken urte horretan 41 sozietate berri sortu baitziren). Izan ere, etxebizitza-kooperatibetan azken bosturtekoan izandako hazkundera tasa %117koa izan da, sektore guztien artekorik handiena (kreditukoak eta mistoak aintzat hartu barik, horien kopurua oraindik ere nahiko txikia baita), EAEko kooperatiben %35eko batez bestekoa baino askoz ere handiagoa; horien atzean zerbitzuak datoz (%49) eta gero asoziazio-lanekoak (%28). Halaber, aipagarria da bigarren mailakoek izandako hazkundera (kooperatiben kooperatibak), 2005ean kasu bakoitzean hiru gehiago egon baita, aurreko urteari dagokionez.

Gainerako sektoreetan ez da aldaketa kuantitatibo handirik egon, nekazaritzako kooperatiben sektorean izan ezik, bertan urte honetan aurreko urtean baino 6 sozietate gehiago sortu baitira; halaber, zerbitzuetan 4 sozietate berri sortu dira, eta irakaskuntzan bi kooperatiba berri; urte honetan, bestalde, ez da kooperatiben galera garbirik egon ezein sektoretan.

EAE osorako adierazitakoa, beste alde batetik, lurralde historiko bakoitzari aplikatzeko modukoa da, bai sozietate kopuruaren hazkunderari eta bai sektore nagusi bakoitzaren hazkunderari dagokionez. Gipuzkoan 26 sozietate kooperatiba berri sortu dira, eta urte honetan Bizkaian gehiago sortu dira, hain zuzen ere 31; bi kasuotan ere, hazkundera hori asoziazio-laneko kooperatibek izandako hazkundearen eraginezkoa izan da (hurrenez hurren, 13 eta 26). Araban, bestalde, hazkundera garbia 22 sozietatekoa da, eta lurralde horrexek dauka, beraz, hazkundera tasarik handiena (%53), batik bat etxebizitzako kooperatibek izandako hazkundera handiagoaren eraginez (8 kooperatiba berri).

Kooperatiben enpresa demografiari dagokionez, 2005eko dinamikaren erritmoa moteldu egin da apur bat; gainera, sozietate gutxiago eratu da eta horiek bazkide gutxiago (sozietate bakoitzak 11 inguru eta 2004an 30) eta kapital gutxiago dute (aintzat hartu behar da 2004an Gipuzkoan zerbitzu sektorean eraturiko sozietate batek kapital oso handia zuela bazkide bakoitzeko, eta horrek nolabait ere desitxuratu egiten du konparazioa); hala ere, 2004an aldagai horiek hazkundera handia izan dute, baina hiru motibazioetako bitan gertaturiko produkzio baxuek ere behera egin dute (likidazioa eta eraldaketa, eta desgiteak 12tik 13ra igaro dira). Horrela, 93 kooperatiba eratu eta 26 baxa egon dira.

EAEko kooperatibetako bazkideei dagokienez, Gizarte Segurantzari egindako kotizazioen datuak (lehen adierazitakoak) aztertuta ikusten denez, horien batez besteko adina Estatukorik handienetakoa da (%6,2 soilik dira 25 urtetik beherakoak, Estatuko proportziorik txikiena, eta mantendu egiten da 55 urtetik gorako pertsonen proportzioa, %11,8; gainera, 40 urtetik gorako

KOOPERATIBA KOPURUA EAEⁿ, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA (XII-30)

	2003	2004	2005	%	04-05 hazkund.	Ald. % 00-05
GUZTIRA	1.402	1.501	1.580	100,0	79	35,3
Nekazaritzakoak	89	89	95	6,3	6	8,0
Kontsumoa	29	32	32	2,1	0	14,3
Zerbitzuak	66	69	73	4,7	4	49,0
Asoziazio lana	924	964	1.007	65,9	43	28,0
Irakaskuntza	88	94	96	6,3	2	12,9
Etxebizitza	155	196	215	11,1	19	117,2
Kreditua	3	3	3	0,2	0	200,0
Mistoak	7	10	12	0,5	2	200,0
2. maila	41	44	47	2,9	3	74,1

Iturria: Kooperatiben Erregistroa. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritzak.

¹ Zifra hori eta II.2.1 kapituluaren (Produkzio Egitura) agertzen dena ez dira berberak (Enpresa Egiturari eta Demografiari buruz eman den zifra). Kapitulu horretan, iturria EIn Enpresa Direktorio Nagusia da, eta oraingo kapituluaren, berriz, Eusko Jaurlaritzaren Kooperatiba Erregistroa aipatzen da.

LURRALDE HISTORIKOETAKO KOOPERATIBA KOPURUA, MOTAREN ARABERA (XII-30)

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2004	2005	Ald. % 00-05	2004	2005	Ald. % 00-05	2004	2005	Ald. % 00-05
GUZTIRA	290	312	52,9	596	627	25,9	615	641	38,1
Nekazaritzakoak	40	47	27,0	25	24	-4,0	24	24	-11,1
Kontsumoa	2	2	0,0	17	17	21,4	13	13	0,0
Zerbitzuak	8	8		29	29	2.800,0	32	36	1.700,0
Asoziazio lana	133	137	1.857,1	427	453	1.712,0	404	417	1.985,0
Irakaskuntza	9	9	-92,9	43	43	-88,1	42	44	-86,0
Etxebizitza	89	97	977,8	46	52	30,0	61	66	100,0
Kreditua	0	0		1	1	-96,4	2	2	-95,9
Mistoak	1	2		1	1	-75,0	8	9	80,0
2. maila	8	10		7	7		29	30	

Iturria: Kooperatiben Erregistroa. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.

KOOPERATIBEN DEMOGRAFIA, MOTAREN ARABERA (XII-30)

	Eratutako kooperatibak						Gertaturiko baxak							
	2004			2005			2004				2005			
	Kop.	Soz.	Kapitala/bazkidea	Kop.	Soz.	Kapitala/bazkidea	Guztira	D	L	E	Guztira	D	L	E
GUZTIRA	112	3.430	5.671	93	1.045	2.629	30	12	15	3	26	13	12	1
Nekazaritzakoak	0	0		7	32	1.726	0	0	0	0	3	2	1	0
Kontsumoa	3	16	62.988	0	0		0	0	0	0	0	0	0	0
Zerbitzuak	4	27	138.904	4	17	39.424	2	1	1	0	0	0	0	0
Asoziazio lana	48	219	14.279	52	235	7.120	17	8	9	0	15	8	6	1
Irakaskuntza	6	2.711	43	2	547	11	1	0	1	0	0	0	0	0
Etxebizitza	45	416	1.567	23	198	521	10	3	4	3	9	4	5	0
Kreditua	0	0		0	0		0	0	0	0	0	0	0	0
Mistoak	3	20	353.200	2	9	7.222	0	0	0	0	0	0	0	0
2. maila	3	21	177.762	3	7	23.714	0	0	0	0	0	0	0	0

D: deseginda; L: likidatuta; T: eraldatuta.

Iturria: Kooperatiben Erregistroa. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.

pertsonen proportziorik handienetarikoa bat dago). Hala-ber, EAE emakumeen presentziarik handienetarikoa dago bazkideen artean (%43,5 eta Estatuko batez bestekoa %38,7), eta enplegu mugagabea ere gure erkidegoan dago hedatuen (EAEn %76,4 eta Estatuko batez bestekoa %64,9).

4.2. Lan sozietateak


Ekonomia sozialeko enpresek hartzen duten beste forma juridiko bat hau da: lan sozietateak, anonimoak edo mugatuak. Halako sozietateetan kapitalaren zatirik handiena, izan ere, zerbitzu pertsonalak ematen dituzten langile-bazkideen jabetzakoa da, eta horien lan-harremana mugagabea izaten da. Bazkide bakoitzak gehienez eduki dezakeen kapital soziala ezin da guztizkoaren here-na baino handiagoa izan (partizipazio publikoari loturiko salbuespen batzuen kasuan izan ezik), eta horrela, gu-txieneko bazkide kopurua hirukoa izaten da.

Kapital soziala akzio izendunetan banatuta dagoenean, Lan Sozietate Anonimoak izaten dira, eta kapitala partizipazio sozialetan banatuta dagoenean, Lan Erantzukizun Mugatuko Sozietateak izaten dira. Nolanahi ere, akzioak eta partizipazioak bi taldetan banatzen dira: langileenak direnak (Sozietatearekin lan-harremana mugagabea duten langileak) eta beste pertsona batzuenak direnak.

EAEn erregistraturiko bi mota horietako sozietate kopuru osoa 2.186koa zen 2005aren amaieran, 2004koa baino kopuru apur bat handiagoa (15 gehiago, hau da, puntu bat gehiago); izan ere, mugatuek gaintitu egin dituzte lehenengoz anonimoak sozietate kopuruan, baina ez enplegu kopuruan. Asoziazio-enpleguan izandako hazkunde 70 pertsonakoa baino ez da izan (Arabana 61 eta Bizkaian 117, baina Gipuzkoan 108 gutxiago); guztira, bazkide kopurua 17.111koa da, eta horietatik %90 langile-bazkideak dira.

Sozietate mugatuen kopurua gero eta handiagoa da; hain zuzen ere, aurreko urtean baino 30 gehiago dira eta

LANEKO SOZIEATEEN ETA BAZKIDEEN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritza.

KALIFIKATURIKO LAN SOZIEATEAK EAEn, 2005-XII-30EAN

	Guztira				Mugatuak				Anonimoak			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzk	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzk	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzk
Sozietate kopurua	2.186	238	1.178	770	1.105	133	639	333	1.081	105	539	437
Nekazaritza	20	2	11	7	10	1	5	4	10	1	6	3
Industria	800	75	383	342	246	28	126	92	554	47	257	250
Eraikuntza	346	49	194	103	191	26	106	59	155	23	88	44
Zerbitzuak	1.020	112	590	318	658	78	402	178	362	34	188	140
Bazkideak guztira	17.111	1.488	9.320	6.303	4.820	516	2.817	1.487	12.291	972	6.503	4.816
Nekazaritza	88	7	52	29	30	3	14	13	58	4	38	16
Industria	10.366	811	5.364	4.191	1.446	134	810	502	8.920	677	4.554	3.689
Eraikuntza	1.635	212	966	457	748	92	438	218	887	120	528	239
Zerbitzuak	5.022	458	2.938	1.626	2.596	287	1.555	754	2.426	171	1.383	872
Langileak guztira	15.232	1.283	8.308	5.641	3.782	390	2.214	1.178	11.450	893	6.094	4.463
Gizonak	13.114	1.022	7.235	4.857	2.806	282	1.669	855	10.308	740	5.566	4.002
Emakumeak	2.118	261	1.073	784	976	108	545	323	1.142	153	528	461
Bazkide kapitalistak	1.879	205	1.012	662	1.038	126	603	309	841	79	409	353
Gizonak	860	91	472	297	417	46	245	126	443	45	227	171
Emakumeak	921	103	489	329	571	77	323	171	350	26	166	158
Erakundeak	98	11	51	36	50	3	35	12	48	8	16	24
Kapital soziala (€-ak milioit.)	13.085	1.439	5.517	6.128	771	93	385	293	12.314	1.346	5.133	5.836
Kapital soziala sozietateko	6,0	6,0	4,7	8,0	0,7	0,7	0,6	0,9	11,4	12,8	9,5	13,4
Langileen kapital soziala	11.785	1.267	4.943	5.575	639	65	337	237	11.146	1.202	4.606	5.338
Langileen kapital sozialaren %	90,1	88,0	89,6	91,0	79,0	70,0	88,0	81,0	90,0	89,0	90,0	91,0

Iturria: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

langile-bazkideen kopuruak %3,6ko hazkundera izan du, lan sozietate anonimoen kopuruak, berriz, behera egin du (15 gutxiago eta enpleguak $-0,9\%$ ko murriztapena). Izan ere, urte honetan emakumeen enpleguak %1,6ko hazkundera izan du halako sozietateetan, eta gizonen enplegua aurreko urteko mailetan mantendu da.

Lan sozietateen kapital soziala ere murriztu egin da; hain zuzen ere, 2003an $-2,8\%$, 2004an $-2,1\%$ eta

2005ean $-2,1\%$, bai sozietate mugatueta (2005ean $-3,3\%$) eta bai anonimoetan (-2%). Sozietate bakoitzeko kapital soziala murriztu egin da apur bat; izan ere, urte honetako batez bestekoa 6 milioikoa da, mugatuen kasuan 0,7 milioi eta anonimoen kasuan 11,4 milioi, eta langile-bazkideek mantendutako kapital sozialaren proportzioa guztizkoaren %90ekoa da. Bestalde, emakumeen presentzia (sorturiko enpresa berrietako lan-bazkideen artean) %14an hazi da eta guztizkoaren %18koa da.

5

Lan merkatua EAEn

Lan merkatua ohiko iturrien bidez aztertzean, lehenengo eta behin esan behar da 2005ean Eustatek eta EInek BJAren eta BAiren ikuskapen metodologikoa egin dutela, hurrenez hurren (aldaketek, batik bat, eragina izan dute laginaren tamaina handitzean nahiz diseinuan, galdeketa —Eurostatek eskaturiko aldagai berriak— eta 2001eko oinarriko biztanleria proiektio berrien sarreraren), eta horrela, aldaketak sortu dira, lehenagoko memorietan azaldutako zifrei dagokienez. Aldaketa metodologikoen, funtsean, jardueraren hazkundearen eragin dute, baita okupazioaren hazkunde handiagoa eta, hortaz, langabeziaren bolumenaren zein langabezia tasaren beherakadaxoa (BAiren handiagoa emakumeen kasuan, BJAren baino).

Enpleguak EAEn 2005ean izandako bilakaerak aurreko urteen ildotik jarraitu du, %1,3ko enplegu tasarekin (2004an baino hiru hamarren gutxiago), eta azken hiruhile-

koan 951.500 pertsonak izan dute enplegua, eta hori zerbitzu sektorean soilik izan da jarraitua (%4ko hazkunde eta enplegu osoaren %64), industrian berriro ere behera egin baitu, baita eraikuntzan ere (bigarren urtez jarraian).

Urte honetako ezaugarri nabariena, izan ere, langabetu kopuruak eta langabezia tasak EAEn izandako murriztapen itzela izan da: langabezian egon den pertsona kopuruak 21.600eko murriztapena izan du eta urte amaieran 49.100 pertsonakoa izan da, eta langabezia tasa 2004ko %7,8ko batez bestekotik 2005eko %5,7ra igaro da (laugarren hiruhilekoan %4,9), eta horrela, EAE berriro ere EBko batez besteko tasaren azpitik dago. Testuinguru horretan, biztanleria aktiboak ia puntu bateko murriztapena izan du, lehenengoz azken bost urteotan, bai gizonen eta bai emakumeen kasuan, eta 35 urtetik beherako talde guztietan.

LAN MERKATUAREN BILAKAERA EAEn, BJAren ARABERA (URTEKO BATEZ BESTEKOAK)


		Milak	aldea		Hazkund. %	
		2005	03-04	04-05	03-04	04-05
Biak	Aktiboak	998,2	7,2	-9,5	0,7	-1,0
	Landunak	941,2	14,6	12,1	1,6	1,3
	Langabetuak	57,0	-7,5	-21,6	-9,5	-37,9
Emak.	Aktiboak	420,4	10,2	-5,4	2,4	-1,3
	Landunak	390,9	17,4	5,8	4,5	1,5
	Langabetuak	29,5	-7,2	-11,2	-17,7	-38,0

Iturria: Eustat.

Sexuen arabera, 2005ean gizonen eta emakumeen enpleguak modu orekatuan egin du gora, eta langabeziaren beherakadaren kasuan ere gauza bera esan daiteke; aurreko aldietan ez da halakorik gertatu, bertan emakumeen enpleguak hazkunde handigoa izan baitu. Gizonen langabezia tasa %4,3ra murriztu da urte


amaieran, eta emakumeena, ostera, %5,7ra murriztu da; horrela, langabezia tasen aldea 1,3 puntukoa baino ez da izan 4. hiruhilekoan. Adinaren arabera ere murriztapen handia ikusten da langabezia tasetan, langabeziak gazteen artean izandako beherakada handiagoaren ondorioz.

BPGREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA



Iturria: Eustat.

JARDUERA, ENPLEGU, LANGABEZIA, ETA DENBORAZKOTASUN TASEN KONPARAZIOA EBN ETA EAEN (2005)



Iturria: Eurostat eta Eustat.

2005ean beste joera batzuk ere mantendu dira. Lehenengo eta behin, sorturiko enplegu ia osoa goi ikasketak dituzten pertsonentzat izan dela (bigarren hezkuntzako ikasketen kasuan beherakada egon da); bigarren, nabarmendu egin dela iraupen luzeko langabezia murrizteko joera; hirugarren, kide guztiak langabezian dituen familia kopurua ia %30ean murriztu dela eta kide guztiak lanean dituen familia kopuruak gora egin duela; laugarren, denborazkotasun tasa murriztu egin da, laugarren urtez jarraian, bina gehiago gizonen artean (%23,3ko tasa), emakumeen artean baino (%28,8), eta beraz, sexuen arteko aldea 5,6 puntura handitu da (estatistika hauek jasotako alderik handiena). Azkenik, urte honetan kontratazioak ere moteltze zantzuak erakutsi ditu, lan merkatuko gainerako aldagaien moduan, erregistraturiko kontratu kopuruak %2,1eko hazkundea izan baitu (2004an %6,3), batik bat kontratuak kontratu mugagabe bihurtzearen ondorioz (%7,4ko hazkundea), kontratu berrien gutzitza %1,9ko hazkundea baino ez baitu izan. Hala eta guztiz ere, kontratazio mugagabeak %5,3ko hazkundea izan du eta horrek berretsi egin du aurreko urtean erakutsitako goranzko joera; lanaldi partzialeko kontratuak %8,7ko hazkundea izan dute, baina lanaldi osoko aldi baterako kontratazioak (kontratu guztien %63), aurreko urteetan ez bezala, %0,9ko murriztapena izan du eta heziketa kontratuak %3,9ko beherakada izan dute. Arlo horretan egoera apur bat hobea izan da emakumeentzat, kontratuen erdiak emakumeei egin

zaizkielako; hala ere, kontratu egonkorretan oraindik ere presentzia txikiagoa dute (ez da %40ra iristen), eta lanaldi partzialeko kontratuetan, aldiz, presentzia oso handia dute (%70).

EMBko tasen konparazioa EAEn aldekoa da kasu ia guztietan, emakumeen jarduera eta enplegu tasen kasuan izan ezik, eta bertan aldeak oso txikiak dira; langabezia tasetan, aldiz, batez bestekotik behera gaude (gizonen kasuan puntu bat behetik eta emakumeen kasuan 4 hamarren behetik). Erregistrorik txarrenak denborazkotasunean egon dira; bertan aldeak 9 puntutik gorakoak dira gizonen artean eta 14 puntukoak emakumeen artean.

5.1. Jardueraren, enpleguaren eta langabeziaren bilakaera

5.1.1. Enplegua eta langabezia sexuaren eta adinaren arabera


Biztanleria aktiboa

BJAn egindako azken aldaketan ostean, **16 urtetik gorako biztanleriaren** (aktibotzat hartzen dena) bolumen osoa hazi egin da apur bat. Izan ere, 2003an %0,3ko hazkundea izan zuen eta 2004an %0,2koa; 2005ean ia nabaritzeko modukoa ez den tasan hazi da, %0,1. Hala eta guztiz ere, biztanleriaren egonkortze horren azpian aldaketa de-

JARDUERA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASA, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA (URTEKO BATEZ BESTEKOAK)

	Jarduera tasa			Enplegu tasa			Langabezia tasa		
	2003	2004	2005	2003	2004	2005	2003	2004	2005
16 ur. gor. bizt	55,1	55,4	54,8	50,4	51,1	51,7	8,6	7,8	5,7
16-64 urte guztira	69,6	69,9	69,3	63,6	64,4	65,3	8,6	7,8	5,7
16-24	40,6	40,7	37,7	31,6	32,4	32,6	22,2	20,5	13,5
25-34	89,1	89,2	86,5	78,3	80,0	80,1	12,1	10,3	7,4
35-44	84,0	83,8	83,7	78,8	79,0	79,2	6,2	5,7	5,4
45-54	74,4	76,6	76,6	71,4	73,3	74,2	4,0	4,4	3,2
55-64	41,9	41,1	42,5	40,7	39,8	41,5	2,8	3,2	2,3
+64	0,9	1,1	1,1	0,9	1,1	1,1	0,0	0,0	0,0
Gizonak GUZT.	66,2	65,8	65,3	61,9	61,5	62,2	6,5	6,5	4,8
16-64 urte guztira	80,6	80,1	79,5	75,3	74,8	75,7	6,5	6,6	4,8
16-24	44,8	43,8	41,5	36,3	35,9	36,6	18,9	18,2	11,9
25-34	93,6	91,8	89,8	84,1	82,5	83,9	10,1	10,2	6,5
35-44	95,5	96,6	93,8	91,8	92,7	89,5	3,9	4,1	4,6
45-54	92,4	92,7	93,3	90,0	90,2	91,2	2,5	2,6	2,2
55-64	59,3	56,9	59,2	57,6	54,9	58,0	2,8	3,6	2,1
+64	1,3	1,4	1,6	1,3	1,4	1,6	0,0	0,0	0,0
Emakum. GUZT.	44,5	45,5	44,9	39,4	41,2	41,8	11,5	9,6	7,0
16-64 urte guztira	58,3	59,6	58,9	51,6	53,9	54,8	11,6	9,6	7,0
16-24	36,1	37,3	33,7	26,6	28,6	28,4	26,4	23,3	15,7
25-34	84,2	86,5	83,1	72,1	77,4	76,1	14,4	10,5	8,4
35-44	72,4	70,6	73,6	65,7	65,0	69,0	9,2	8,0	6,3
45-54	56,4	60,7	60,1	52,8	56,5	57,3	6,4	7,0	4,7
55-64	25,1	25,8	26,4	24,4	25,2	25,7	2,7	2,3	2,7
+64	0,7	0,8	0,7	0,7	0,8	0,7	0,0	0,0	0,0

Iturria: Eustat "BJA".

LANDUNEN BILAKAERA


mografiko handia dago, EAEko biztanleria apurka-apurka zahartzen ari baita. Horrela, 24 urtetik beherako biztanleriak $-6,1\%$ eko murriztapena izan du (12.900 pertsona gutxiago dira); bitarteko adin tartetean dagoen biztanleria ere (25-34


urte bitartekoak) murriztu egin da apur bat ($-0,9\%$, 3.100 pertsona gutxiago), baina 45 urtetik gorakoak $1,8\%$ ko hazkundearen izan du (16.500 pertsona), batik 45 eta 54 urte bitarteko biztanleei dagokienez ($3,2\%$).

LANDUN BIZTANLERIA

	Perts. kop.			aldea		Urterik urterako aldak. tasa			
	2005	03-04	04-05	03-04	04-05	I	II	III	IV
Guztira	941.275	14.650	12.150	1,6	1,3	1,8	0,5	1,5	1,4
Gizonak	550.325	-2.750	6.300	-0,5	1,2	1,1	0,5	1,4	1,6
Emakumeak	390.900	17.425	5.800	4,7	1,5	2,7	0,6	1,7	1,0
Adina 16-24	64.700	-1.950	-3.650	-2,8	-5,3	-10,6	-10,9	3,2	-2,6
ADINA 25-44	543.175	7.625	100	1,4	0,0	0,2	-0,2	-0,4	0,5
ADINA +45	333.375	9.000	15.675	2,9	4,9	7,3	4,4	4,4	3,7
Oinarritzko ikasketak	146.500	-9.200	1.600	-6,0	1,1	8,8	1,4	-3,9	-1,8
Bigarren hezkuntza	514.575	6.300	-11.825	1,2	-2,2	-4,2	-3,8	-1,4	0,3
Goi hezkuntza	280.200	17.600	22.350	7,3	8,7	10,0	8,9	11,0	5,0
Ez soldatapekoa	171.775	-8.800	-3.700	-4,8	-2,1	5,7	-4,9	-2,9	-6,1
Enplegatzailea	28.425	1.325	-1.275	4,7	-4,3	24,7	-2,3	-14,1	-24,8
Autonomia	117.825	-7.050	2.425	-5,8	2,1	-1,8	0,6	7,8	2,0
Familia laguntza	7.225	-900	2.425	-15,8	50,5	244,7	-29,3	-12,8	8,3
Kooperatibistak	18.300	-2.175	-7.275	-7,8	-28,4	-27,1	-28,3	-34,0	-24,3
Soldatapekoa	769.475	23.525	15.800	3,2	2,1	0,9	1,8	2,5	3,2
Sektore publikoa	131.900	4.400	175	3,5	0,1	-2,1	-0,7	0,4	2,9
Sektore pribatua	637.575	19.125	15.625	3,2	2,5	1,5	2,3	3,0	3,2

Iturria: Eustat. "BJA".

LANDUNAK IKASKETA MAILAREN ETA ADINAREN ARABERA



Iturria: Eustat.

Aldiz, EAEko **biztanleria aktiboak** urte honetan $-0,9\%$ ko beherakada izan du, lehenengoz azken bost urteetan, eta, oraindik ere garrantzitsuagoa dena, gizonen nahiz emakumeen artean eta 35 urtetik beherako talde guztietan egin du behera. 2005ean, estatistika horrek adierazten du 4.150 gizon ($-0,7\%$ ko beherakada) eta 5.300 emakume (urteko batez bestekoaren $-1,3\%$) irten direla jardueratik. Izan ere, 45 urtetik beherako gi-

zonen artean aktiboek kopuruak 14.000 pertsonako beherakada izan du, baina 45-64 urte bitarteko gizonen artean jarduerak 9.500 pertsonatan egin du gora. 35 urtetik beherako emakumeen artean, aktiboek bolumenak 14.500 emakumeko beherakada izan du, baina 35-44 bitarteko taldean 6.500eko hazkundea ego da, eta adin nagusiagoko taldeetan hazkundea 3.000 emakumekoa izan da.

ENPLEGUA DUTEN PERTSONAK EAEan, ENPLEGU TALDEAREN ARABERA (4. HIRUHILEKOA)

	2004ko pert. kop.		2005eko per. kop.		2004-05eko aldak. %		
	Guztira	Em. %	Guztira	Em. %	Guzt.	Gizona	Em.
Guztira	908.200	41,7	951.100	41,9	4,7	4,3	5,4
Zuzendariak eta goi mailakoak	31.300	24,0	38.500	26,5	23,0	19,4	36,0
Intelek. eta zientzialariak	127.100	51,6	143.000	51,5	12,5	12,8	12,2
Laguntzako teknikariak	98.400	39,1	135.500	50,4	37,7	12,2	77,4
Administrari motako enpleguak	102.800	65,6	79.800	65,7	-22,4	-22,9	-22,3
Zerbitzuen eta salmenten langileak	159.400	70,5	162.300	68,1	1,8	10,2	-1,7
Nekazariak eta arrantzaleak	13.100	23,7	10.700	16,8	-18,3	-10,0	-41,9
Industriako kualifikatuak	140.100	6,8	157.800	6,1	12,6	13,5	2,1
Gidariak eta operadoreak	112.000	7,9	82.600	7,5	-26,3	-26,0	-29,5
Kualifikaziorik gabeak	124.000	52,8	140.900	46,9	13,6	28,0	0,9

Iturria: Eustat "BJA".

Horrela, EAEko jarduera tasak¹ 0,6 puntuko murriztapena izan du, eta antzeko beherakadak egon dira gizonen eta emakumeen artean; hain zuzen ere, 35 urtetik beherako taldeetan 3 puntuko murriztapenak egon dira, 35-54 urte bitarteko taldea egonkortu egin da (gizonen murriztapenaren eta emakumearen hazkundearen ondorioz) eta 54 urtetik gorako taldean hazkundea egon da.

Enplegua

Enpleguak 2005ean izandako bilakaerak aurreko bi urteen ildotara jarraitu dio; hain zuzen ere, enpleguaren hazkunde tasa %1,3koa izan da (2004an baino hiru hamarren txikiagoa) eta aurreko urtean baino 12.200 pertsona gehiago dabilta lanean, eta horrela, urte amaieran, EAEko landunen kopurua 951.500 pertsonakoa da. Enpleguak, funtsean, pertsona helduen taldean egin du gora (gazteen artean -%5,3ko murriztapena izan du, talde horrek izandako beherakada demografikoaren eraginez); hala eta guztiz ere, 2005eko aurreko aldietan ez bezala, gizonen eta emakumeen enpleguak gora egin du, baina azken kasu horretan tasa apur bat handiagoa da. Gainera, sorturiko enplegua goi ikasketak dituzten pertsonentzat izan da batez ere (+22.400), eta bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenen artean -11.800 pertsonako beherakada izan du, eta beraz, ordezipena egon dela esan daiteke.

Enplegua sortzeko hiru hileko-jarraibidea egon da berriro eta enplegua muturreko hiru hilekoetan hazi da, batez ere lehenengoan (%1,8), eta bigarrenean (urte osokorik txarrena) %0,5era murriztu da.

Gainerako adierazleek eta iturriek EAEko enpleguari buruz emandako datuen arabera, BJAk adierazitakoa baino hazkunde handiagoa egon da. Izan ere, EINEko BAIK dioenez, enpleguak %3,9ko batez besteko hazkundea izan du urtean (2004an baino ia hiru puntu gehiago, batez beste 36.300 pertsona eta urte amaieran 46.700), eta Gizarzte Segurantzaren afiliaturik eta altan dauden pertsonen kopuruak %2,5eko hazkundea izan du (2004an %1,8, hau da, 22.200 pertsona gehiago). EEZPk erregistraturiko kontratu kopuruak %1,9ko hazkundea izan du (aurreko urtean %6,4), eta beraz, urte amaieran 12.300 kontratu gehiago egon dira.

Landun pertsonen lanbide egoeraren arabera, soldatapeko enpleguak %2,1eko hazkundea izan du (aurreko urtean baino puntu bat gutxiago eta batez ere sektore pribatuan), eta soldatapekoa denaren kasuan -%2,1eko murriztapena egon da (2004an -%48), gehien bat enplegatzaileen artean, aurreko urtean izandakoaren antzekoa, eta kooperatibetako kideen artean -%28,4ko murriztapena egon da; familiei emandako laguntzek, oster, %50,5eko hazkundea izan dute.

Enplegu tasak goranzko joera izan du eta sei hamarreneko hazkundea izan du; %51,7ko tasa izan du, eta hazkunde berberak egon dira gizonen (%62,2) eta emakumeen (%41,8) artean, baita adin talde desberdinen artean ere, 45-64 urte bitarteko taldean handiagoa izan arren. Emakumeen artean, enplegu tasak hazkunde handiagoa izan du 35-44 urteko (4 puntu), 45-54 urteko (0,8 puntu) eta 55-64 urteko (0,4 puntu) taldeen artean, baina 25-34 taldean -1,3 puntuko beherakada egon da. Gizonen artean, hazkunderik handienak 55-64 urteko (3,1 puntu) eta

¹ Talde **Jakinaren Jarduera Tasa** talde horrek biztanleria aktiboaren barruan dituen kideen ehunekoa da. Talde baten **Langabezia Tasa** talde horrek langabezian duen kide aktiboaren ehunekoa da. Talde baten **Enplegu Tasa**, azkenik, talde horrek enpleguarekin dituen kideen ehunekoa da. BJAk tasa orokor hauek 16 urteko eta hortik gorako biztanlerian oinarrituz kalkulatu dira.

25-34 urteko (1,4 puntu) taldeetan egon dira, baina 35-44 urteko taldean 3,2 puntuko murriztapena egon da.

Urte honetan ere, emakumeen presentziak gora egin du lanbide mailarik teknikoena duten taldeetan. Izan ere, harrigarria da langileria teknikoaren eta laguntzako langileriaren taldean izandako %77ko hazkundera (2004an ere %11), eta talde horretako presentzia %50etik gorakoa da (2003an ez zen %37ra iristen). Halaber, goiko eta zuzendaritzako lanpostuetan duen presentziak ere hazkunde handia izan du (%36), eta profesional teknikoen eta zientifikoen artean ere bai (%12); zerbitzuko eta salmentako langileen artean (emakumerik gehien duen taldea), ostera, mantendu egin da, eta talde horrexetan da emakumeen partaidetzarik handiena, urte honetan %70etik behera murriztu arren. Aldiz, emakumeen bolumena murriztu egin da enplegu administratiboetan (gizonen antzeko tasan, -%22), eta garrantzia galdu du industriako langile trebatuen (gidariak nahiz operadoreak), nekazarien nahiz arrantzaleen artean eta trebatu gabeko langileen artean (azken kasu horretan, gizonen bolumenak %28ko hazkundera izan du).


Heziketa mailaren arabera ere, enpleguak mantendu egiten du, orokorrean, azken urteetako goranzko joera goi ikasketak dituzten pertsonen artean (2004an %6,7ko hazkundera eta 2005ean %8,7koa —2003an %2,1—, 22.400 pertsona gehiago), adin talde guztietan gainera (talderik

gazteenean izan ezik, biztanle kopuruak izandako beherakadaren ondorioz). Bigarren mailako ikasketak dituztenek, orain arte enplegu sorrerari eutsi ondoren (baina beheranzko tasekin, 2004an %0,5eko hazkundera baino ez baita egon), 2005ean -%2,3ko beherakada izan dute (-11.900 enplegu gutxiago), batez ere 45 urtetik gorako pertsonen artean. Azkenik, 2005ean oinarritzko ikasketak dituzten pertsonen artean enpleguak %1,2ko hazkundera izan du (1.700 landun gehiago).


Soldatapekoek egindako lanaldiari dagokionez, pertsona landunen kasuan (15-44 ordu bitarteko lanaldia dutenak) berriro ere gora egin du, %3an, eta gehiegizko lana egiten dutenen artean (44 ordutik gorako lanaldia) -%19ko murriztapena izan du, urteko batez bestekoari dagokionez (2004an -%7,6), eta beraz, eutsi egin zaio azken urteotako joerari. Enplegu urria, bazterrekoa edo langabeziatik hurbilekoa egiten duten pertsonen bolumenak (astean 15 ordutik beherako lanaldia) behera egin du apur bat.

EAEn lan egindako ordu kopuruari dagokionez, BJA-ren datuek adierazitakoaren arabera, batez besteko lanaldia 2003tik murriztu egin da apur bat, eta 2005ean -%0,2ko murriztapena izan du (astean batez beteko 36,6 ordu). Eraitza hori, berriz, lan egindako ordu kopuru osoak izandako hazkundearen eraginezkoa da (%3,3, 2004an baino hiru puntu gehiago), ordu horiek egiten dituen per-

EGINDAKO ORDUEN ETA B. BESTEKO JARDUNALDIAREN BILAKAERA (URTEKO TASA LEUNDUA)



Iturria: Eustat "BJA".

LANDUN PERTSONA KOPURUA, LAN EGINDAKO ORDUEN ARABERA (MILAK-URTEKO TASA LEUNDUA)


Iturria: Eustat "BJA".

BIZTANLERIA LANGABETUA

	Per.	Aldea		Aldak. %		Lang. tasa	
	2005	03-04	04-05	03-04	04-05	2004	2005
Guztira	56.975	-7.450	-21.625	-8,7	-27,5	7,8	5,7
Gizonak	27.450	-200	-10.475	-0,5	-27,6	6,5	4,8
Emakumeak	29.525	-7.250	-11.150	-15,1	-27,4	9,6	7,0
Adina 16-24	10.125	-2.425	-7.450	-12,1	-42,4	20,4	13,5
Adina 25-44	37.075	-6.575	-10.900	-12,1	-22,7	8,1	6,4
Adina +45	9.750	1.550	-3.275	13,5	-25,1	3,9	2,8
Oinarrizko ikasketak	5.150	-125	-2.225	-1,7	-30,2	4,8	3,4
Erdi mailako ikasketak	35.175	-2.975	-15.525	-5,5	-30,6	8,8	6,4
Goi ikasketak	16.650	-4.400	-3.875	-17,7	-18,9	7,4	5,6
Lan egin dute	51.800	-4.775	-16.400	-6,5	-24,0		
Lehenengo enpl. bila	5.175	-2.700	-5.200	-20,7	-50,1		

Iturria: Eustat "BJA".

tsona kopuruak izandakoa baino txikiagoa (%3,5, aurreko urtean baino 1,7 puntu gehiago).


Langabezia

Urte honetan lanaren arloko ezaugarri nagusienetarikoa bat, zalantzarik gabe, EAEko langabetu kopuruan eta langabezia tasan izandako beherakada itzela izan da. 2004an 7.500 pertsona gutxiago zeuden langabezian (urteko batez bestekoa), eta 2005ean beherakada hori 21.600 pertsonakoa izan da; horrela, langabetuen kopuru osoa 56.975 pertsonakoa izan da (urte amaieran 49.100).

Langabezia tasa 2004ko %7,8ko batez bestekotik urte honetako %5,7ra igaro da (laugarren hiru hilekoan %4,9), bai gizonen eta bai emakumeen artean, adin talde guztietan; hortaz, EAE berriro ere euroaren zonako eta EB-15eko batez besteko tasatik behera dago (hurrenez hurren, %8,8 eta %8,1).


Sexuen arabera, kasu honetan ere beherakadak orekatuak izan dira gizonen eta emakumeen artean; hala eta guztiz ere, emakumeen artean langabezia tasa %7koa da (aurreko urtean baino 2,5 puntu gutxiago), eta gizonen artean %4,8koa (2004an baino 1,8 puntu gutxiago); tasa horiek urte amaieran %5,7koak eta %4,3koak izan dira,

LANGABETU KOPURUAREN BILAKAERA ETA LANGABEZIA TASA SEXUEN ARABERA



Iturria: Eustat "BJA".

LANGABETU KOPURUA ETA LANGABEZIA TASA ADINAREN ARABERA



Iturria: Eustat.

hurrenez hurren, eta beraz, sexuen arteko aldea 1,3 puntukoa da, gutxieneko historikoa (izan ere, BJAren metodologia berriarekin, esan behar da hirugarren hiru hilekotik emakume langabetuen kopurua gizonena baino txikiagoa dela).

Adinen arabera ere murriztapena ikusten da langabezia tasen arteko aldeetan. Gazteen artean, langabeziak urteko batez beteko $-42,4\%$ ko murriztapena izan du, eta gainerako adinetan, berriz, murriztapenak -23% koa eta -25% koa izan dira; horrela, langabezia tasak

EEZPREN BULEGOETAN ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA (URTEKO B. BESTEKOA)

	Perts. k.	Aldea		Aldak. %	
	2005	03-04	04-05	03-04	04-05
GUZTIRA	84.808	94	-4.941	0,1	-5,5
GIZONA	35.361	934	-2.043	2,6	-5,5
EMAKUMEA	49.447	-840	-2.898	-1,6	-5,5
Adina < 25 urte	7.868	-697	-1.091	-7,2	-12,2
Adina 25-44 urte	43.883	-939	-4.097	-1,9	-8,5
Adina 45 urte eta g.	33.057	1.729	247	5,6	0,8

Iturria: EEZP.

%13,5ekoak dira 24 urtetik beherakoentzat (aurreko urtean baino ia 7 puntu gutxiago eta langabetu guztien %18), %6,4koak 25-44 urte bitarteko pertsonentzat (1,7 puntu gutxiago eta langabezia osoaren %65) eta %2,8koak 44 urtetik gorakoentzat (2004an baino puntu bat gutxiago).

Gainera, nabarmendu egin da iraupen luzeko langabezia murrizteko joera (azken hiruhilekoan 8.700 langabetu, urte 1-2ko langabezian, eta beste 6.500 pertsona bi urtetik gorako langabezian), eta bolumen hori 6-12ko langabezian dauden langabetuen antzekoa da (7.400 pertsona). Une honetan, talderik handiena 6 hilabetetik beherako langabezian daudenek osatzen dute (26.200 pertsona 2005aren amaieran), baina iraupen guztietan ere pertsona kopuruak -%20-30eko murriztapena izan du. Lehenengo enpleguaren bila ari diren pertsonen artean ere -%50eko murriztapena izan du (2005ean baino 5.000 pertsona gehiago).

Beste datu interesgarri batek agerian jarri duenez, kide aktibo guztiak langabezian dituzten familien kopuruak -%28,6ko murriztapena izan du, eta egoera horretan dagoen pertsona kopurua 2004ko 17.500 pertsonatik 2005eko 12.500era murriztu da; horrela, kide aktiboak dituzten familien kopuru osoarekiko ehunekoa ia puntu batean murriztu da (%3,30etik %2,37ra). Gainera, kide aktiboak lanean dituen familia kopurua 2004ko %87,9tik 2005eko %90,8ra murriztu da, eta Araban eta Gipuzkoan gainditu egin dute ehuneko hori.

Azkenik, EEZPren langabetuen erregistroko datua BJArena baino %49 handigoa da; bertan adierazitakoaren arabera, langabetu kopuruak -%5,5eko murriztapena izan du, eta bertan, aurreko urtean baino 4.900 langabetu gutxiago dago erregistraturik. EEZPn inskribaturiko langabetuen bolumen osoa 84.808 pertsonakoa da (urteko batez bestekoa), sistema berriko datu homogeneoak aintzat hartuta. %58 emakumeak dira eta %40, berriz, 45 urtetik gorakoak; talde horretan, langabeziak %0,8ko hazkundea izan du.

Erregistraturiko langabezia zifra horietan jaso gabeko enplegu eskariei dagokienez, hau da, EEZP-EINek Langabetu gabeko Eskatzaileak deritzenari dagokienez (irizpide estatistikoen arabera, neurketarako salbuetsi egiten dira erregistraturiko langabeziatik²), EAEn guztira 30.658 pertsona dira (%58 emakumeak), 2004an baino 18.880 gutxiago (aintzat hartu behar da lehen atzerritar guztiak salbuetsita zeudela, zergatiren baten barruan egon ala ez), gehienak landun eskatzaileak direlako.

Denborazkotasuna

Denborazkotasun tasa, BJAren datuek diotenez, murriztu egin da hirugarren urtez; %25,6koa da, aurreko urtean baino 1,3 puntu gutxiago. Dena den, murriztapena handiagoa izan da gizonen artean (%23,3ko tasa, 2004an baino 1,7 puntu gutxiago), eta hortaz, bi sexuen artean denborazkotasunari dagokionez dagoen aldea handitu egin

² Estatistika irizpide hauek 1985eko martxoaren 11ko Ministro Aginduan adierazita daude; bertan salbuetsita daude honako egoera hauetan daudenek egindako eskariak: Irizpide hauen antolaketa berriari ondoren adierazitakoa da:

- Enplegurako prestutasun urria duten edo laguntza berezikoak diren eskatzaileak (bitartekaritzarekin aldiakakoak; jubilatua; pentsiodunak).
- Landunak diren edo lan harremana duten eskatzaileak (lankidetzako lanetan eratzikitako prestazio-jasotzaileak).
- Soziala; enplegua arautzeko espedientedunak; aldiakako langile finkoak; nekazaritzako aldi baterako langile sorospendunak; Gizarte Segurantzako araubide orokorrean edo autonomoen araubidean afiliatuak).
- Enplegu jakina eskatzen dutenak (etxeko lana soilik; telelana; atzerriko lana soilik; itzultzeko asmoa duten emigranteak, beste erkidego baten lana bakarrik; prestazioaren esportatzaileak).
- Enplegurik edo lanik gabeko beste eskatzaile batzuk (hiru hiletik beherako lan eskaria —abaguneko enplegua—; asteko 20 orduetik beherako lan eskaria —lanaldi partzialekoa—; 25 urtetik beherako ikasleak edo lehenengo enplegua lortu nahi dutenak, 25 urtetik gorakoak izanez gero).

FAMILIEN SAILKAPENA KIDEEN JARDUERAREN ARABERA, EAEn

	2005 (familiak milatan)				04-05eko %			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzk.	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzk.
Familiak guztira	764,9	107,3	412,0	245,5	4,2	8,1	2,7	5,0
Aktibo barik	238,2	29,5	136,6	72,1	17,1	17,1	15,7	20,0
Aktibo 1 baino gutxiago	526,7	77,9	275,4	173,5	-0,7	5,1	-2,7	-0,1
Langabeturik ez	478,2	73,7	243,2	161,4	2,5	10,2	-1,4	5,5
Landunik ez	12,5	0,7	8,7	3,0	-28,6	-50,0	-17,9	-45,5
Gainerako familiak	36,0	3,4	23,5	9,0	-22,6	-41,4	-8,2	-40,4


Iturria: Eustat "BJA".

ENPLEGU ESKATZAILEAK EEZPN, LANGABETUTZAT HARTU GABEAK, BAZTERKERIAREN ZERGATIAREN ARABERA (2005EKO ABENDUA)

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
GUZTIRA	30.658	4.325	15.888	10.445
Ezintasun mugatuarekin	3.217	584	1.531	1.102
Lan erlazioarekin	1.870	271	842	757
Landunak	20.287	2.955	10.712	6.620
Enplegu jakinen eskatzaileak	953	54	649	250
Beste langabetu batzuk:	4.331	461	2.154	1.716
Abaguneko enplegua	1			1
Lanaldi partziala	3.639	378	1.518	1.743
Ikasleak	691	83	198	410

Iturria: EEZP (Informatika eta Estatistika Zuzendariorde Nagusia).

LANGABETUAK, LANGABEZIAREN IRAUPENAREN ARABERA



Iturria: Eustat.

da eta 5,6 puntukoa da, estatistika hauek jasotakorik handiena.

Bestalde, kontraturik gabeko egoerak eta gehienbat emakumeengan eragina duten beste batzuk biltzen di-

tuen tasak ere behera egin du urte honetan (gizonentzat %1,5ekoa 2005ean eta tasa hori 1998-1999an baino ez da gairitu, beti ere %2tik behera). Emakumearen kasuan %6,7koa da, aurreko urtean baino bi puntu eta erdi gutxiago eta hamarkada osoko tasarik txikiena.

SOLDATAPEKO LANDUNAK¹, KONTRATU MOTAREN ARABERA

	Urteko b. bestekoa		Indizeak		Aldak. tasa	
	2004	2005	2004	2005	03-04	04-05
Bi sexuak guztira	753,7	769,5	100,0	100,0	3,2	2,1
Mugagabea-finkoa	516,1	543,4	68,5	70,6	5,1	5,3
Aldi baterakoa	203,1	197,1	26,9	25,6	-3,1	-3,0
Kontratu barik eta b. b.	34,4	29,0	4,6	3,8	16,2	-15,7
Gizonak guztira	429,1	434,9	100,0	100,0	1,6	1,4
Mugagabea-finkoa	317,8	327,5	74,1	75,3	4,6	3,1
Aldi baterakoa	106,9	100,8	24,9	23,2	-7,0	-5,7
Kontratu barik eta b. b.	4,4	6,6	1,0	1,5	25,7	50,0
Emakumeak guztira	324,6	334,5	100,0	100,0	5,5	3,0
Mugagabea-finkoa	198,4	215,8	61,1	64,5	6,1	8,8
Aldi baterakoa	96,2	96,3	29,6	28,8	1,6	0,1
Kontratu barik eta b. b.	30,0	22,4	9,2	6,7	14,9	-25,3


(1) Kooperatibistak izan ezik.
Iturria: Eustat "BJA".

2005ean, kontratazio finko mugagabeak %5,3ko hazkundera izan du, eta aldi baterako kontratazioak, berriz, -%3ko murriztapena izan du (aurreko urtekoen antzeko ehunekoak).

Hala eta guztiz ere, sexuen arteko alde handiak daude. Gizonen kasuan, soldatapeko enpleguak %1,4ko hazkundera izan du, kontratazio mugagabeak %3,1eko hazkundera (2004an baino 1,5 puntu gutxiago) eta aldi baterako kontratazioak, aldiz, -%5,7ko beherakada; beraz, denborazkotasuna nabarmen murriztu da. Emakumeen artean, soldatapeko enplegua gizonen kasuan baino bi

aldiz gehiago hazi da, %3 (2004an baino 2,5 puntu gutxiago), eta kontratu mugagabeek %8,8ko hazkundera izan dute (aurreko urtean baino 2,7 puntu gehiago), baina aldi baterako kontratuak ia ez dute hazkunderik izan (%0,1).

Kontraturik ezari loturiko egoeretan eta gainerako egoera berezi guztietan, EAEko 29.000 pertsona daude eta hortik %77 emakumeak dira (2004an %87); sexuek elkarren aurkako bilakaera izan dute. Gizonen kasuan %50eko hazkundera egon da eta emakumeen artean, ostera, -%25eko murriztapena.

DENBORAZKOTASUNAREN NAHIZ KONTRATU GABEKO PERTSONEN INDIZEA ETA BESTE EGOERA BATZUK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA


5.1.2. Enplegua eta langabezia sektoreen arabera

Enpleguaren bilakaera sektoriala aztertzean ikusten denez, urte honetan ere enplegua zerbitzu sektoreak eutsi du (EAEko enpleguaren %64), industrian berriro ere behe-rakadak egon baitira (2001etik 13.850 enplegu galdu dira sektorean, azken urtean 3.550), eta eraikuntzaren kasuan ere gauza bera gertatu da, bigarren urtez jarraian (2004an 1.500 enplegu gutxiago eta 2005ean 3.200 gutxiago).

Horrela, zerbitzuetan enpleguak 23.850 pertsonako hazkundera izan du eta urteko batez besteko tasa %4koa da, aurreko urtean baino bi hamarren gehiago; langabetu kopuruak -7.900 pertsonako murriztapena izan du. Bestalde, industriako enplegua -%1,4ko tasan murriztu da, batik bat urteko bigarren seihilekoan (-%3tik gorako tasa); hala eta guztiz ere, sektore honetan langabeziak -%51,5eko beherakada izan du eta 2005ean 10.150 pertsona baino ez dira, BJAk emandako datuen arabera (EEZPren bulegoetan erregistraturiko langabezia, ordea, ia 16.000 pertsonakoa da).

Lehen esan dugunez, eraikuntza sektoreak enplegua galdu du urte honetan, aurreko urtean baino tasa apur bat handiagoan; izan ere, 2004an -%1,7ko murriztapena egon zen eta 2005ean -%3,9koa da. BJAren langabezia zifrek, hala ere, 3.150 pertsonako murriztapena adierazten dute, eta EEZPren bulegoetan erregistraturiko langabezia 2004an baino 700 langabetu gehiago daude.

Urte honetan ere, bilakaera sektorialik txarreana, enplegua sortzeari dagokionez, lehen sektorean egon da, bertan 4.900 enplegu galdu baitira (-%44ko urteko murriztapen tasa); hala ere, aurreko edizioetan esan dugunez, sektore horrek EAEn duen enplegu bolumena txikia dela kontuan hartuta (2005ean 11.200 pertsona), estatistika akatsa dauka³, eta beraz, datu horiek kontuz erabili behar dira.

Lehenengo enpleguaren bila ari den langabetu kopu-ruari dagokionez, BJAk dioenez, 2005ean talde horrek -4.850 pertsonako murriztapen handia izan zuen, eta, horrenbestez, horren bolumena aurreko urtekoaren erdia da eta 5.500 pertsonakoa baino ez da (EEZPn erregistraturiko langabeziak adierazitakotik hurbilekoa).


Azkenik, urte honetan emakumearen presentziak atzerakadaxoa izan du, batez ere horren presentzia txikia duten sektoreetan, batik bat industrian eta eraikuntzan. Emakumeen enpleguak -%5,9ko beherakada izan du industrian (gizonen kasuan -%0,3) eta %19,7koa da (ia puntu bateko murriztapena); eraikuntzan, ostera, %23,4ko hazkundera izan du (gizonen kasuan -5,4ko murriztapena) eta %7,5koa da (1,6 puntuko hazkundera). Gainera, zerbitzu sektorean emakumearen enpleguak %2,9ko hazkundera baino ez du izan, eta gizonen kasuan urteko batez besteko hazkundera %5,7koa izan da; beraz, emakumeen enplegua sektore horretan pilatuta egon arren, 2004ko %56,2tik 2005eko %55,5era igaro da.

LANDUNAK ETA LANGABETUAK SEKTOREKA

	Pertsona kopurua		Hazkundera		Urterik urterako aldak. tasa					
	2004	2005	03-04	04-05	03-04	04-05	I	II	III	IV
Enplegua	929.050	941.275	14.600	12.225	1,6	1,3	1,8	0,5	1,6	1,4
L. Sektorea	16.050	11.175	-2.875	-4.875	-15,2	-43,6	-28,8	-40,0	-31,5	-17,8
Industria	250.175	246.625	-2.175	-3.550	-0,9	-1,4	0,1	0,5	-3,2	-3,0
Eraikuntza	85.875	82.675	-1.500	-3.200	-1,7	-3,9	-2,1	-6,9	-3,2	-2,5
Zerbitzuak	576.950	600.800	21.150	23.850	3,8	4,0	4,0	2,9	5,2	4,3
Langabezia	78.625	56.950	-7.475	-21.675	-8,7	-38,1	-18,5	-27,2	-35,3	-30,7
L. Sektorea	925	350	125	-575	15,6	-164,3	-40,0	-33,3	-66,7	-86,7
Industria	15.375	10.150	650	-5.225	4,4	-51,5	-33,5	-31,7	-24,2	-47,3
Eraikuntza	9.500	6.350	2.475	-3.150	35,2	-49,6	-40,0	-37,1	-34,7	-18,1
Zerbitzuak	42.450	34.575	-8.025	-7.875	-15,9	-22,8	-7,8	-21,2	-29,5	-16,5
1. enpleg. bila	10.375	5.525	-2.700	-4.850	-20,7	-87,8	-15,5	-35,6	-68,4	-66,0
Erregistr. lang.	71.398	78.663	-2.039	7.264	-2,8	9,2	-5,3	15,0	15,7	16,4
L. Sektorea	534	687	-41	153	-7,1	22,3	-10,1	38,3	41,1	49,0
Industria	14.579	15.935	-567	1.356	-3,7	8,5	-6,0	16,5	15,8	12,1
Eraikuntza	6.168	6.854	158	686	2,6	10,0	-1,7	12,9	16,3	17,5
Zerbitzuak	41.782	48.429	-847	6.647	-2,0	13,7	-3,6	21,4	22,3	24,9
1. enpleg. bila	8.336	6.759	-743	-1.578	-8,2	-23,3	-14,7	-18,3	-20,0	-23,3

Iturria: Eustat. "Biztanleria Jardueraren Arabera" inkesta eta EEZP.

³ 15.000 pertsonatik beherako balioak dituzten gurutzak laginketa akats handia dute (%30etik gora).


ENPLEGU SEKTORIALAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA


Iturria: Eustat.

5.1.3. Enplegua eta langabezia eremu geografikoen arabera


EAEko lan merkatuak urte honetan izandako bilakaera-ekin bat etorri, BJAren bidez kalkulaturiko langabezia tasetan ere beherakada ikusi da hiru lurralde historikoetan.

Hala eta guztiz ere, langabezia tasarik txikieneko lurraldeetan (Araba eta Gipuzkoa) horrek hiru puntuko murriztapena izan du (hurrenez hurren, %3an eta %4,2an konkatuta), eta Bizkaian -1,1 puntu biko bako ez du izan (urteko batez bestekoa %7,4); beraz, langabezia tasen konbergentziarako joerak (EAEko eremu geografiko guz-

LANGABEZIA TASEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOETAN


Iturria: Eustat "BJA".

LANGABEZIA TASEN BILAKAERA EAEko KANPOALDEKO ESKUALDEETAN



Iturria: EIN.

tietan), 2003an gutxieneko kotak izan ondoren, hazkunde izan du azken bi urte hauetan.

Langabeziak Bizkaian izandako murriztapen txikiago hori, izan ere, enpleguaren hazkunde tasa txikiagoa izatearen ondoriozkoa da (urteko %0,8ko batez bestekoa); Araban %1,6koa izan da eta Gipuzkoan %2koa.

Eskualde mailako langabezia tasetan bestelako bilakaera ikusten da; izan ere, kasu honetan ikusten denez, EEZPn erregistraturiko langabetu kopuruak %16,4ko haz-

kundea izan du 2005ean (EAEko batez bestekoa), eta hazkunde hori eskualde guztietan egon da; hala ere, hazkunde handiena izan dutenen artean iraganean aktiboenak izan direnetariko eta langabezia arazorik gutxien dutenetariko batzuk daude (adibidez, Deba Garaia, Lea-Artibai, Gorbeialdea, Urola Kosta, Arabako Haranak edo Arabako Mendia); aldiz, zonarik narriatuenetariko batzuetan langabeziak hazkunde tasa txikiagoak izan ditu (esate baterako, Aiara Harana, Enkarterri, Nerbioi Ertaina, Ibaizabal edo Ezkerraldea; Bilbo EAEko batez bestekoa dago).

EAEko BI ESKUALDEETAN ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA* (2005 -4. HIRUHILEKOA)

	2005	04-05 h. %		2005	04-05 h. %
EAE	83.390	16,4	Goierri	1.051	15,9
Deba Behea	2.004	45,7	Arratia-Zornotza	793	14,8
Uribealdea	2.188	33,2	Donostiako Mend.	2.717	14,6
Deba Garaia	1.817	29,4	Txorierrri	1.456	14,6
Durangaldea	2.201	29,1	Oarsoaldea	2.710	13,4
Lea-Artibai	829	27,7	Ibaizabal	3.605	12,4
Gorbeialdea	172	27,4	Arabako Lautada	349	10,8
Bidasoa Behea	3.559	27,2	Urola Erdia	849	10,5
Busturialdea	1.595	25,9	Ezkerraldea	13.136	10,2
Urola Kosta	1.320	25,1	Nerbioi Erdia	1.039	10,1
Arabako Haranak	168	24,4	Enkarterri	1.056	8,9
Arabako Mendia	71	20,3	Urola Garaia	752	8,7
Tolosaldea	1.558	18,0	Gobela	4.145	8,1
Donostia	6.064	17,3	Aiara Harana	1.652	5,2
Gasteiz	8.629	17,2	Arabako Errioxa	217	3,8
Bilbo	15.688	16,4			

(*): Hazkunde tasak 2004ko datuetan oinarrituz kalkulatu dira, lehengo metodologia erabiliz.
Iturria: EEZP-EIN.

Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar da azken zona horietan dagoela EAEko langabezia bolumenik handiena (biztanle kopuru oso handiko eskualdeak), eta tasa txikiagoetan langabetu kopuruaren hazkunde handiak daude. Horri dagokionez, bilakaera txarrenetarikoa bat Bidasoa Beheak izan du; izan ere, bertan dago langabetu kopururik handienetarikoa (hiriburuak alde batera utzita), eta urte honetan erregistraturiko langabezia %27tik gorakoa da.

5.2. Lan merkatuan sartzeko eta irteteko jarioak

Atal honetan, Lan Miinisterioko eta EEZP-EINeko estatistiketan erregistraturiko lan mugikortasunari buruzko datuak aztertzen dira, batez ere banakako edo taldeko kontratazioak nahiz kaleratzeak eta lan errotazioaren ratioak; halaber, lan merkatuan lan eskaintzaren eta eskariaren artean dagoen ezegokitzapen mailara hurbiltzeko ahalegina egingo dugu, bete barik dauden lanpostuek izandako bilakaera aztertuta (EEZP-EINen datuen arabera).

5.2.1. Kontratazioaren panorama


2005ean kontratazioaren erritmoak ere moteltzeko joera izan du EAEn, lan merkatuko gainerako aldagaien kasuan gertatu den bezala. Erregistraturiko kontratu kopu-

ruak %2,1eko hazkundea izan du urte honetan (2004an %6,3). Izan ere, tasa hori handitu egin da, kontratu asko kontratu mugagabe bihurtzearen eraginez, eta zifrak %7,4ko hazkundea izan du (aurreko urtean baino ia hiru puntu gehiago), kontratu berrien kopuruak %1,9ko hazkundea eta kontratuen luzapenak %0,8ko hazkundea (2004an %12,7) soilik izan dutelako.

2005ean, guztira, EEZP-EINen 806.103 kontratu erregistratu dira (kontratu berriak eta bihurtzeak), 2004an baino 16.700 gehiago; horietatik 1.800 bihurtzeak izan dira, hau da, aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea (horretan ekarpenik handiena egin duen hasierako kontratua, izan ere, produkzioaren arabera aldi baterako kontratua izan da, baina urte honetan aipagarriak dira obrako edo zerbitzuko eta txandako kontratuak izandako hazkundeak), eta gainera, 88.714 kontratu luzapen egon dira (aurreko urtekoaren antzeko zifra). Lurralde historikoen arabera, hazkunde apur bat handiagoa egon da Araban eta Bizkaian (hurrenez hurren, %2,1 eta %2,2), Gipuzkoan baino (%1,4), baina azken lurralde horretan aurreko urtean kontratu berriek %11,2ko hazkundea izan zuten (EAEko batez bestekoaren bikoitza).

Gainera, 2005ean EAEn 61.774 kontratu egin zitzaizkien atzerritarrei (2005ean %35eko hazkunde tasa eta 2004an %27koa), kontratu guztien %7,7 (2004an %5,8). EBtik kanpoko Europako herrietako pertsonei egindakoek

ERREGISTRATURIKO KONTRATUEN BILAKAERA, MODALITATEAREN ARABERA



Iturria: EIN.

KONTRATATURIKO PERTSONA KOPURUA (2004)

Sinaturiko kontratu kopurua	Guztira	Gizona	Emakumea	<20 urte	20-24	25-29	30-44	45 urte eta geh.
Kontratu 1	165.429	96.727	68.702	24.178	96.311	102.780	151.202	61.454
2-3 kontratu	85.461	47.283	38.178	11.288	61.608	56.614	73.744	23.509
4-5 kontratu	22.100	11.089	11.011	2.627	16.962	14.819	19.099	5.560
6-10 kontratu	15.384	6.781	8.603	1.765	12.283	10.069	12.998	3.902
11-20 kontratu	6.420	2.492	3.928	821	5.069	3.800	5.571	1.756
21-50 kontratu	2.862	1.110	1.752	328	2.340	1.520	2.387	1.073
+ 50 kontratu	475	204	271	41	390	190	531	195
Guztira	298.131	165.686	132.445	41.049	194.961	189.981	265.266	97.546

Iturria: Egailanek EEZP-EiNen datu-basean.

LAN ERROTazioA EAEn

	2002	2003	2004	2005
Kontratuak guztira	708.141	742.386	788.803	806.103
Gizona	360.539	370.947	391.729	398.030
Emakumea	347.602	371.439	397.074	408.073
Kontraturiko pertsonak guzt.	296.072	292.219	298.131	314.553
Gizona	166.904	163.134	165.686	173.673
Emakumea	129.168	129.085	132.445	140.880
Bi sexuen errotazioa	2,39	2,54	2,65	2,56
Gizona	2,16	2,27	2,36	2,29
Emakumea	2,69	2,88	3,00	2,90

Iturria: Lanbide eta EEZP.

%97ko hazkundera izan dute (batez ere, Kroaziakoei —30 aldiz gehiago—, Errumaniakoei eta Ukrainiakoei), Amerika Latinoko pertsonen egindakoek %50eko hazkundera (kontratua duten atzeritar guztien %40) eta Asiakoei egindakoek %48ko hazkundera; Afrikakoei egindakoak, berriz, %17koak baino ez dira.

Oro har, egoera apur bat hobea izan da emakumeen taldearentzat, baina horri zenbait ñabardura egin behar zaio. Kontratu guztien eta kontratu berrien erdia emakumei egin zaie, baina horien presentzia oraindik ere txikiagoa da kontratu egonkorretan (%40tik beherakoa), baita aldi baterako eta heziketako kontratuetan ere (ehuneko hori baino apur bat handiagoa); hala ere, presentzia oso handia dute lanaldi partzialeko kontratuetan (%71). Gainera, bihurtzeetan %40ra eta luzapenetan %45era baino ez da heltzen emakumeen presentzia.

Aipagarria da urte honetan kontratazio modalitateetan erabilitako intentsitate desberdina, aurreko urteetako jarraipen ildoari dagokionez. Horrela, alde batetik, lanaldi osoko kontratuak eta aldizkako finkoak —%0,7ko murriztapena izan dute (2004an %5,2ko hazkundera), lanaldi partzialekoek %8,7ko hazkundera izan dute, baina heziketak —%3,9ko beherakada izan dute (aurreko urtean %6,4ko hazkundera). Izan ere, lehenengoan artean, beherakadak egon dira kategorian guztietan: kontratu egonko-

rrak —%0,7an murriztu dira, aldi baterakoak —%0,9an eta aldizkako finkoak —%28an.

Hala eta guztiz ere, **kontratazio mugagabea** 2004tik aurrerako goranzko joera berretsia egin da 2005ean, %5,3ko hazkunderarekin (aurreko urtean baino hiru puntu gehiago), batik bat kontratu mugagabe arruntan eraginez, horiek %8ko hazkundera izan baitute (emakumeen artean %16), baita txandakako kontratuen eraginez ere, %18ko hazkunderarekin (emakumeen taldean %47); gainerako modalitate egonkorretan, berriz, beherakadak egon dira, ezinduei egindako kontratu mugagabeen kasuan izan ezik.

Lanaldi osoko aldi baterako kontratazioak (EAEko kontratuen %63), aurreko urteetan ez bezala, beherakadak izan ditu. Guztira, 2004an baino aldi baterako 4.600 kontratu gutxiago erregistratu dira, obrako edo zerbitzuko kontratuak izandako —%3,6ko murriztapenaren ondorioz (emakumeen artean —%5,7) eta produkzioaren arabera behin-behineko kontratuak mantentzearen ondorioz (%0,3ko hazkundera, baina emakumeen artean —%1,3ko murriztapena), bolumena aintzat hartuta horiek baitira behin-behineko kontratu nagusiak. Bitarteko kontratuak (hirugarren mota nagusia, modalitate honen barruan) %3ko hazkundera izan dute. Gainera, 2005ean laneratzeko aldi baterako kontratu oso gutxi sinatu dira.

EAEn ERREGISTRATURIKO KONTRATUAK

	Bi sexuak				Emakumea				
	2005	Banak.	03-04 %	04-05 %	2005	Banak.	03-04 %	04-05 %	Guz. %
KONTRATUAK GUZTIRA (1+2+3+4)	806.103	100,0	6,3	2,1	408.206	100,0	7,0	2,8	50,6
KONTRATU BERRIAK GUZTIRA (1+2+3)	779.319	96,7	6,4	1,9	397.261	97,3	6,9	2,6	51,0
1-LANALDI OSOA ETA ALDIZKAKO FINKOAK	535.416	66,4	5,2	-0,7	227.096	55,6	5,9	-0,6	42,4
a) Kontratu egonkorak	24.394	3,0	2,3	5,3	9.367	2,3	4,9	4,0	38,4
Mugagabe arruntak	11.446	1,4	-1,0	8,0	3.153	0,8	5,2	16,0	27,5
Sustapeneko mugagabeak	9.015	1,1	-0,9	-1,6	5.342	1,3	1,9	-5,3	59,3
64 urteko erretiro berezia	83	0,0	32,0	-35,2	23	0,0	42,9	-42,5	27,7
Ezinduen mugagabeak	254	0,0	-5,1	5,8	63	0,0	15,4	-16,0	24,8
Txandakoa	3.596	0,4	29,8	18,3	786	0,2	41,3	47,2	21,9
b) Aldi baterako kontratuak	507.769	63,0	5,4	-0,9	216.253	53,0	5,7	-0,6	42,6
Obra edo zerbitzua	193.109	24,0	4,2	-3,6	54.186	13,3	4,2	-5,7	28,1
Behin-behinekoa, produkzioaren arabera	223.028	27,7	5,9	0,6	98.475	24,1	6,5	-1,3	44,2
Bitartekoak	90.653	11,2	8,1	3,0	63.270	15,5	7,0	7,1	69,8
Ezinduak	965	0,1	14,6	13,9	312	0,1	6,0	16,9	32,3
Laneratzeara	14	0,0	-36,3	-99,1	10	0,0	-34,4	-98,9	71,4
c) Aldizkako finkoa	1.560	0,2	9,1	-28,0	821	0,2	56,1	-37,3	52,6
d) Beste batzuk	1.693	0,2	-16,5	29,1	655	0,2	-6,1	18,0	38,7
2-LANALDI PARTZIALA	234.666	29,1	9,5	8,7	166.439	40,8	8,5	7,5	70,9
Aldi baterakoak/Erretiro partziala	226.760	28,1	10,1	9,1	161.086	39,5	9,1	7,7	71,0
Mugagabeak eta aldi baterako finkoak / Lanaldi partzialeko txandakakoa	7.906	1,0	-5,3	-0,3	5.353	1,3	-5,2	0,1	67,7
3-HEZIKETA KONTRATUAK	9.237	1,1	6,4	-3,9	3.726	0,9	2,6	-2,3	40,3
Heziketa	2.419	0,3	8,3	-12,4	923	0,2	-1,7	-4,8	38,2
Praktikak (lanaldi osoa eta partziala)	6.818	0,8	5,6	-0,5	2.803	0,7	4,1	-1,4	41,1
4- KONTRATU MUGAGABE BIHURTZEA	26.784	3,3	4,5	7,4	10.945	2,7	9,7	7,7	40,9
Obra edo zerbitzua	7.002	0,9	0,4	13,0	2.485	0,6	3,1	14,5	35,5
Aldi baterakoa, produkzioaren arabera	15.451	1,9	3,9	7,1	6.790	1,7	11,6	6,3	43,9
Bitartekoa	749	0,1	57,7	-9,9	412	0,1	66,0	-7,4	55,0
Txandakakoa	1.324	0,2	72,1	29,9	279	0,1	31,1	100,7	21,1
Ezinduak	292	0,0	19,6	36,4	97	0,0	23,6	42,6	33,2
Ordezpena 64	22	0,0	-34,9	-21,4	5	0,0	-42,9	25,0	22,7
Praktikak	1.793	0,2	-9,1	-12,0	816	0,2	-5,3	-6,7	45,5
Heziketakoa	132	0,0	-10,8	-27,1	54	0,0	-3,2	-10,0	40,9
Gainerakoak	19	0,0	-23,1	-5,0	7	0,0	0,0	0,0	36,8
KONTRATUEN LUZAPENAK	88.714	11,0	12,7	0,8	39.799	9,7	17,1	-0,5	44,9

Iturria:EEZP-EIN.

Aldizkako kontratu finkoek, lehen esan dugunez, -%28ko beherakada izan dute, eta emakumeen kasuan tasa -%37koa da; **lanaldi partzialeko kontratazioak**, bestalde, mantendu egin ditu aurreko aldietako hazkunde tasa handiak (2005ean %8,7), aldi baterakoek izandako %9,1eko hazkundearen eraginez (aurreko urtean baino 19.000 gehiago). Emakumeei dagokienez, kontratu mota hau emakumeei egindako kontratu guztien %41era iristen da, eta emakumearen presentzia nagusia duen kontratazio modalitate bakarra da (%71, urte honetan 0,8 puntu galdu arren); arlo horretan %7,5eko hazkundera egon da, guztizkoan egon dena baino apur bat txikiagoa.


Azkenik, **heziketako eta praktikako kontratuak** %64ko hazkundera izan zuten 2004an eta urte honetan -%3,9ko murriztapena izan dute (emakumeen kasuan

-%2,3); hain zuzen ere, heziketakoek -%12,4ko murriztapena izan dute eta praktiketakoek -%0,5ekoa.

Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, batez besteko iraupen luzeagorako joera mantendu da; izan ere, murriztu egin da kontratua amaiturik duen batez besteko egun kopurua, kontratu guztien kasuan, honako hauetan izan ezik: heziketakoa, erretirokoa (partziala eta ordezkpenekoa), laneratzekoa eta ezinduen aldi baterakoa. Gainera, iraupena zehaztuta ez dute aldi baterako kontratuak behera egin zuten 2004an, eta sei hilabetetik beherako iraupena dutenak ere bai.

Lan errotazioari buruzko datuek murriztapentxoak adierazten dute 2005ean, baina oraindik ere 2000-2003 aldikoak baino gehiago dira; hain zuzen ere, 2004an kontraturiko pertsona bakoitzeko 2,65 kontratuetatik

ALDI BATERAKO KONTRATUAK, IRAUPENAREN ARABERA



Iturria: geuk landuta, EInen datuetan oinarrituz.

ALDI BATERAKO LAN ENPRESEN JARDUERA*

	2004	2005	04-05 %
Enpresa kopurua*	46	46	0,0
Estatuan	32	31	-3,1
Erkidegoan	1	1	0,0
Probintzian	13	14	7,7
Erabiltzeko kontratuak	165.487	176.001	6,4
EAEko/Estatuko kontratuen %	7,49	7,38	
Nekazaritza	90	325	261,1
Industria	73.295	74.023	1,0
Eraikuntza	2.460	2.563	4,2
Zerbitzuak	89.488	98.858	10,5
Sailkatu ezin direnak	154	232	140,9

* urte amaieran.

Iturria: Lan eta Gizarte Gaien Ministerioa.

2005eko 2,56ra igaro dira, eta murriztapenak egon dira gizonen (7 ehunen) eta emakumeen (10 ehunen) artean, baina azken horien kasuan murriztapena gizonen kasuan baino askoz ere handiagoa da.

Azkenik, mantendu egin dira EAEko aldi baterako laneko 46 enpresak (ABLE); hala eta guztiz, ere, behin-behineko datuetan ikusten denez, horien jarduerak hazkunde txikiagoa izan du, aurreko urtean egindako kontratu kopuruari dagokionez. Izan ere, 2003an halako kontratuak %11ko hazkundea izan zuten eta 2004an %11,3ko hazkundea, baina 2005ean %6,4ko hazkundea baino ez dute


izan (Estatuan egindakoen %7,4). Erabilitako kontratu mota nagusia produkzioaren arabera behin-behinekoa izan da, kasu guztien %63an, eta gero obrakoa edo zerbitzuko (%30,3). Azkenik, halako zerbitzuak gehien erabiltzen dituen hirugarren sektorea da (kontratu guztien %56,2), eta gero industria (%42,1).

5.2.2. Banakako eta taldeko kaleratzeen bilakaera

Erregistraturiko banakako kaleratzeak, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Agintaritzak eskuduneari (Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzak Saila) egindako adiskidetzaren eraginezkoak dira, alderdien arteko adostasunarekin amaitzen direnak, baita gizarte epaitegietan tramitatzen direnak ere.

Taldeko kaleratzeak enplegua erregulatzearen espediente baten bidez egiten dira; espediente hori enpresak edo langileen abokatuak aurkeztu behar dute, lan harremanaren iraungipena eskatzeko (lanaldia eteteko edo murrizteko ere eska daiteke), zergati ekonomikoetan, teknikoetan, antolaketa mailakoetan, produktiboetan, ezinbestean edo kontratugilearen nortasun juridikoaren iraungipenaren oinarrituz; lan agintaritzak eskudunak ebatzi behar du. Agintaritzak hori Eusko Jaurlaritzako Justizia, enplegu eta Gizarte Segurantzak Saileko Zuzendaritzak da, arlo horretako eskumenak transferiturik baititu.

EAEko KANPORATZEEN BILAKAERA



Iturria: Lan Ministerioa "Lan Estatistiken Aldizkaria".

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da estatistika horietan ez dira kaleratze guztiak biltzen; izan ere, ez da administrazio baimenik behar zergati ekonomikoen, teknikoen, antolaketakoen edo produkziokoen eraginezko kaleratzeetarako, kaleratzeak taldeko kaleratzetzat ezarritakoa baino langile kopuru txikiagoan duenean eragina⁴, eta gainera, enplegua arautzeko erabakien eraginezko alde aurreko erretiroak iraungitzetzat hartzen dira estatistiketan.

EAEko kaleratze kopuru osoak beheranzko joera dauka 2002tik, Estatu osoan gertatzen den bezala; hain zuzen ere, kopurua 2002ko 14.000 pertsonetatik, 2003ko 11.500 pertsonetara, 2004ko 8.900 pertsonetara eta 2005eko 6.900 pertsonetara igaro da, eta gainera, murriztu egin da EAEko kaleratzeek Estatukoei dagokien ez duten ehunekoa, 2004ko %5,5etik 2005eko %4,5era. Gainera, aurreko urteetan murriztapen eragile nagusia, izan ere, Lan Agintaritzak baimendutako espediente kopuru txikiagoa izan da, eta 2005ean antzeko beherakadak egon dira enplegua arautzeko espedienteetan, baita organo judizialek baimendutakoetan ere, aurreko urteetan murriztapenerako joera urriagoa izan arren.

Kaleratzeen arloko kalte-ordain kontzeptuan erabakitako zenbateko osoetan ere murriztapenak egon dira, baina 2005ean gora egin dute arlo judizialari dagozkionak (zenbateko txikiagoak). Guztira, 75,6 milioi euroko kalte-ordainak erabaki dira, 2004an baino 15,2 milioi gutxiago, eta beraz, -%16,8ko murriztapena egon da. Aldiz, batez besteko zenbatekoak goranzko joera dauka eta urte honetan %7,6ko hazkundea izan du, EAEko Lan Agintaritzak izandako hazkundearen ondorioz (33.293€), baita Gizarte Epaitegietan erabakitako zenbatekoen ondorioz ere, horiek bikoiztu egin baitira, aurreko urtean beherakada handia izan ondoren, baina hala ere nahiko txikiagoak dira (1.348€).

5.3. Lan harremanak eta lan osasuna

5.3.1. Lan osasuna

Osalanen EAEko laneko ezbehar-tasari buruz erregistraturiko datuek, aurreko urtera arte laneko istripu eta gaixotasun kopuruan zein horien larritasunean beheranzko joera izan ondoren, gora egin dute 2005ean, sailkapenaren barruko kategoria ia guztietan, eta, oraindik ere txarragoa dena, larritasunik handiena du-

⁴ Taldeko kaleratzea izango da kaleratze horrek 5 langiletik gorako langileria oso batean eragina duenean, enpresa jarduera guztiz lagatzearen ondorioz, edo, laurogeita hamar eguneko aldirian, gutxienez 10 soldatapekotan eragina duenean, 100 langiletik beherako enpresetan, langilariaren %10ean, 100-300 langileko enpresetan, edo 30 soldatapekotan, 300 langiletik gorako enpresetan.

KALERATZEEN BILAKAERA EAEn

				Aldak. %			Estat. %
	2003	2004	2005	02-03	03-04	04-05	2005
Eraginpeko langileak GUZTIRA	11.464	8.851	6.873	-17,9	-22,8	-22,3	4,5
EAEko Lan Agintaritza	4.137	2.752	2.183	-50,8	-33,5	-20,7	3,8
Gai juridiko sozialak	2.925	2.885	2.177	23,7	-1,4	-24,5	3,6
Enpleguaren arauketa	4.402	3.214	2.513	37,7	-27,0	-21,8	7,2

Ba etortzearekin amaituriko kaleratzeen banakako adiskidetzeeen erabakitako zenbatekoak

Zenbateko osoa (€-ak milatan)	111.763	90.855	75.613	-26,5	-18,7	-16,8	3,9
EAEko Lan Agintaritza	104.890	88.916	72.678	-28,1	-15,2	-18,3	4,3
Gai juridiko sozialak	6.873	1.939	2.935	12,0	-71,8	51,3	1,3
Batez besteko zenbatekoa (€)	15.826	16.118	17.342	12,1	1,8	7,6	107,2
EAEko Lan Agintaritza	25.354	32.310	33.293	46,0	27,4	3,0	112,9
Gai juridiko sozialak	2.350	672	1.348	-9,5	-71,4	100,6	36,4

Iturria: Lan Ministerioa, "Lan Estatistiken Aldizkaria".


tenetan. Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar da Osalanek esandakoaren arabera, datuak jasotzeari loturiko arazoen eraginez, 2004ko urtarrilari, otsailari, martxoari eta apirilari buruzko informazioa ez dagoela aldi errealarari egotzita; horrenbestez, datuak kontu handiz interpretatu beharko dira, azterketa eta konparazioa egiteko orduan.

Urte honetan egon den istripu kopuruak %7,5eko hazkundera izan du (2004an -%20ko murriztapena); istripu larriek %7,4ko hazkundera izan dute eta hilgarriek %12,3ko hazkundera (2004an, %30,5eko murriztapena). Baxadun istripuen artean, bai lanaldian eta bai *in itinere*-


re, ezbehar-tasak %9,8ko hazkundera izan du, berriz gaitxo-zeek %19,1eko hazkundera eta baxadun lanbide gaixotasunen kopurua, aurreko urtean -%77ko murriztapena izan ondoren, urte honetan lau aldiz handiagoa da.

Baxa eragin duten istripuei dagokienez, urte honetan 53.114 istripu egon dira, %90 lanaldian eta %10 *in itinere*. Lehenengoen artean, hazkunde handiagoak daude, istripuaren larritasuna zenbat eta handiagoa izan: istripu arinek %9,2ko hazkundera izan dute, larriek %11,8ko hazkundera eta hilgarriek %17ko hazkundera. Datu positibotzat, aipagarria da *in itinere* erako istripu larriek izandako -%15,3ko murriztapena.

BAXADUN ISTRIPIEN BILAKAERA EAEn



Iturria: Osalan.

EZBEHAR-TASA 100 LANDUNEKO, SEKTOREAREN ETA SEXUAREN ARABERA

Iturria: Geuk landuta, Osalenen eta Eustaten ("BJA") datuetan oinarrituz.

BAXA IZAN DUTEN LAN ISTRIPUEN BILAKAERA, MOTAREN ARABERA

	2004				2005					2004-2005eko aldak. %			
	Total	Leve	Grave	Mortal	Total	%	Leve	Grave	Mortal	Total	Leve	Grave	Mortal
Istripuak guztira	89.421	47.836	444	73	96.129		52.555	477	82	7,5	9,9	7,4	12,3
Baxadun istripuen guztizkoa	48.353	47.836	444	73	53.114	100,0	52.555	477	82	9,8	9,9	7,4	12,3
Lanaldian baxarekin	43.843	43.418	372	53	47.881	90,1	47.403	416	62	9,2	9,2	11,8	17,0
Nekazaritza	847	828	15	4	924	1,7	904	18	2	9,1	9,2	20,0	-50,0
Industria	17.644	17.495	138	11	19.198	36,1	19.051	132	15	8,8	8,9	-4,3	36,4
Eraikuntza	8.478	8.378	91	9	9.027	17,0	8.901	103	23	6,5	6,2	13,2	155,6
Zerbitzuak	16.874	16.717	128	29	18.732	35,3	18.547	163	22	11,0	10,9	27,3	-24,1
In Itinere baxarekin	4.510	4.418	72	20	5.233	9,9	5.152	61	20	16,0	16,6	-15,3	0,0
Baxarik gabeko istripuak	41.068				43.015					4,7			
Istripuen eraginez berriro gaix.	1.996	1.971	25	0	2.377		2.355	22	0	19,1	19,5	-12,0	
Lanbide gaixotasun berrien guzt.	2.740				3.288					20,0			
Baxadun lanb. gaix. berr. guzt.													
nuevas con Baja	597	594	3	0	2.439	100,0	2.435	3	1	308,5	309,9	0,0	
Nekazaritza	5	5	0	0	19	0,8	19	0	0	280,0	280,0		
Industria	321	318	3	0	1.327	54,4	1.326	0	1	313,4	317,0	-100,0	
Eraikuntza	64	64	0	0	299	12,3	298	1	0	367,2	365,6		
Zerbitzuak	207	207	0	0	794	32,6	792	2	0	283,6	282,6		
Baxa gabeko lanb. gaix. berr. guztizkoa	2.143				849					-60,4			
Lanbide gaix. erag. berriz gaix.	272	270	2	0	299		295	4	0	9,9	9,3	100,0	

Iturria: OSALAN.

2005ean 82 istripu hilgarri egon dira, aurreko urtean baino 9 gehiago; horietatik 62 lanaldian izan dira eta, lanaldirako ibilbidean izandakoei dagokienez, aurreko urteko kopurua egon da aurten ere (20).

Ezbehar-tasak izandako hazkunde hori sektore guztietan banatuta dago; hala eta guztiz ere, aipagarria da zer-

bitzuetan eta lehen sektorean izandako hazkunde handiagoa, dena den, istripu hilgarriek dagokienez, bi sektore horietan murriztapenak egon dira (hurrenez hurren, -%24 eta -%50), eta eraikuntzan, aldiz, %156ko hazkundea egon da (2004an baino 14 hildako gehiago; 2005ean, guztira, 23 hildako) eta industrian %36koa (aurreko urtean baino 4 gehiago eta guztira 14). Gainera, hildako 82 per-

BAXADUN LAN ISTRIPUAK SEKTOREKA, 1.000 LANGILEKO

	Istripu kopurua			B. bestekoaren desbideratzea	Aldak. tasa		
	2003	2004	2005		02-03	03-04	04-05
Baxadun istripuak guztira	58,9	52,0	56,4	100,0	-5,7	-11,6	8,4
larriak	0,57	0,48	0,51	0,9	-11,7	-16,8	6,0
hilgarriak	0,11	0,08	0,09	0,2	-1,4	-31,6	10,9
Lanaldiko istripuak							
baxarekin	53,5	47,2	50,9	90,1	-5,9	-11,8	7,8
larriak	0,47	0,40	0,44	0,8	-13,6	-15,0	10,4
hilgarriak	0,07	0,06	0,07	0,1	-9,4	-23,3	15,5
Nekazaritza	51,5	52,8	82,7	146,5	-26,5	2,4	56,7
Industria	77,5	70,5	77,8	138,0	-6,5	-8,9	10,4
Eraikuntza	118,7	98,7	109,2	193,5	-10,9	-16,8	10,6
Zerbitzuak	32,4	29,2	31,2	55,3	-0,7	-9,8	6,6
In itinere istripuak baxarekin	5,4	4,9	5,6	9,9	-3,2	-9,6	14,5
larriak	0,10	0,08	0,06	0,1	-1,4	-24,6	-16,4
hilgarriak	0,04	0,02	0,02	0,0	17,7	-46,8	-1,3
Lanbide gaixotasun berriak baxarekin	2,9	0,6	2,6		9,2	-77,5	303,2

Iturria: OSALAN eta Eustat "BJA".

EZBEHAR-TASAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA, EAEn

	2005eko istripu kopurua						2004-2005eko aldak. %							
	Gizona			Emakumea			Gizona				Emakumea			
	Guztira	Larria	Hilgar.	Guztira	Larria	Hilgar.	Guztira	Arina	Larria	Hilgar.	Guztira	Arina	Larria	Hilgar.
Baxadun istripuak guztira	39.110	383	61	8.771	33	1	6,3	6,4	0,5	-7,6	-24,2	-24,1	-47,6	-85,7
Lanaldian	39.110	383	61	8.771	33	1	14,3	14,2	15,0	22,0	-8,8	-8,7	-15,4	-66,7
Nekazaritza	856	14	2	68	4	0	22,5	22,4	40,0	-33,3	-54,1	-54,9	-20,0	-100,0
Industria	17.418	127	15	1.780	5	0	15,9	16,0	-3,1	50,0	-31,9	-31,9	-28,6	-100,0
Eraikuntza	8.939	103	23	88	0	0	8,6	8,3	15,7	155,6	-64,2	-63,9	-100,0	
Zerbitzuak	11.897	139	21	6.835	24	1	15,9	15,8	35,0	-25,0	3,5	3,5	-4,0	0,0
In itinere														
Baxa gabeko istripuak	36.202			6.813			4,5				6,1			
Istripuak guztira	75.312	383	61	15.584	33	1	9,3	14,2	15,0	22,0	-2,8	-45,4	-15,4	-66,7
Istripuen eraginezko berriz gaix.	1.895	20	0	482	2	0	22,3	23,0	-16,7		7,8	7,6	100,0	

Iturria: OSALAN.

EZBEHAR-TASAREN BILAKAERA KONTRATU MOTAREN ARABERA, EAEn

	2000	2001	2002	2003	2004	01-02%	02-03%	03-04%
KONTRATU MUGAGABEAK								
Soldatapekoak (BJA)	444.700	473.500	478.200	490.900	516.100	1,0	2,7	5,1
Baxadun istripuak	25.258	26003	26.033	24.239	23.914	0,1	-6,9	-1,3
Ezbehar-tasa (milakoa) (A)	56,8	54,9	54,4	49,4	46,3	-0,9	-9,3	-6,2
ALDI BATERAKO KONTRATUAK								
Soldatapekoak (BJA)	191.300,00	192.500,00	210.900,00	209.600,00	203.100,00	9,6	-0,6	-3,1
Baxadun istripuak	24.516	24.570	24.334	24.377	20.073	-1,0	0,2	-17,7
Ezbehar-tasa (milakoa) (A)	128,2	127,6	115,4	116,3	98,8	-9,6	0,8	-15,0
B / A	2,26	2,32	2,12	2,36	2,13			

Iturria: Geuk landuta Lan Ministerioaren ("Lan Istripuen Estatistika") eta Eustaten ("BJA") datuekin.

tsona horietatik emakume 1 baino ez dago (2004an 7), eta, orokorrean, ezbehar-tasak emakumeen artean duen eraginak, azken urteotan hazkunde azkarra izan ondoren, beherakada handia izan du 2005ean.

Laneko ezbehar-tasek sektore bakoitzeko pertsona kopuruari dagokionez ere hazkunde adierazi dute urte honetan. Industriako eta eraikuntzako tasek %10eko hazkunde izan dute, zerbitzu sektoreko tasek %6,6ko

hazkundera eta lehen sektoreko tasak %57ko hazkundera. Nolanahi ere, tasarik handiena eraikuntzak dauka urte honetan ere (mila landuneko 109,2). Orokorrean, tasa horiek lanaldiko istripuen % 47,2ko hazkundera adierazten dute 2004an (baxadun istripuak), eta 2005eko batez betekoa, berriz, 1.000 landuneko 50,9koa da. Baxadun *in itinere* istripuek mila landuneko 5,6ko tasa dute; gainera, laneko gaixotasunen eraginak gora egin du, eta 0,6 pertsonatik 2,6 pertsonara igaro dira, mila landuneko.

Kontratu motaren arabera ezbehar-tasak adierazten duen eragina bi aldiz handiagoa da aldi baterako kontratuetan, kontratu mugagabeetan baino. Izan ere, 2004ari buruzko azken datuek horixe adierazten dute; hain zuzen ere, urte horretan ezbehar-tasek murriztaper handia izan zuten eta bi kontratu moten arteko aldeak murriztu egin ziren. Kontratu mugagabea dutenen kasuan, ezbehar-kopuruak -%1,3ko beherakada izan zuen, eta aldi baterako arteko beherakada, berriz, -%17,7koa izan zen. Gainera, kontratu mugagabeen kasuan izandako hazkundera eta aldi baterako kontratuen kasuan izandako murriztapena aintzat hartuta, kontratu mugagabeko mila pertsonako ezbehar-tasa 2003ko % 49,4tik, 2004ko % 46,3ra igaro da, eta aldi baterako kontratua duten pertsonen artean tasa % 116,3tik %98,8ra igaro da (100eko indizetik behera lehenen-

goz). Nolanahi ere, aurreko urteetan bezala, esan behar da beharrezkoa dela sektoreen arteko banaketa jakitea, behin betiko ondorioak atera ahal izateko.


5.3.2. Laneko gatazkak

Laneko gatazkak nabarmen murriztu dira 2005ean, aurreko urtean gertaturikoaren alderantziz (gatazken hazkunde handia), eta horrela, azken hamarkadakoen artean gatazkarik gutxien izan duenatarikoa izan da urte hau.

Urte honetan 176 greba eta 2 itxiera patronal egin dira, 2004an baino 67 gutxiago; horrela, eraginpeko langileen kopuruak -%50eko murriztapena izan du, eta lan egin gabeko egun kopuruak, berriz, -%83ko murriztapena. Ratioek, halaber, beherakada handiak adierazten dituzte gatazka bakoitzeko langile kopuruan (416tik 302ra, -%27ko beherakada) eta gatazka bakoitzeko lan egin gabeko lanaldi kopuruan (-%76ko beherakada eta 603 lanaldiko batez bestekoa). Horrela, eraginpeko langile bakoitzeko lan egin gabeko ordu kopurua 2004ko 48 ordutik 2005eko 16 ordura jaitsi da.

EAEko laneko gatazkek izandako beherakada hori hiru lurralde historikoetan gertatu da, baina Bizkaian eta Gipuzkoan Araban baino murriztaper handiagoa egon da; izan ere, 2004an, lehenengo bi lurralde horietan

LAN GATAZKAK EAEN



(*) Greba orokorraren eragina kenduta.
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

GREBA KOPURUA, ERAGINPEKO LANGILEAK ETA GALDUTAKO EGUNAK EAEn

		Kopurua			Hazkunde tasa		
		Greben eta itxiera patronalen kop.	Eraginpeko langileak	Galdutako gunak	Greba kopurua	Eraginpeko langileak	Galdutako egunak
EAE	2003	221	74.794	339.866	15,7	-87,6	-48,4
	2004	243	101.058	606.155	10,0	35,1	78,4
	2005	176	53.116	106.188	-27,6	-47,4	-82,5
Araba	2003	38	6.883	43.975	-7,3	-96,0	-75,9
	2004	41	11.681	47.338	7,9	69,7	7,6
	2005	36	6.274	32.990	-12,2	-46,3	-30,3
Bizkaia	2003	118	24.043	128.756	25,5	-90,8	-56,2
	2004	116	47.639	197.233	-1,7	98,1	53,2
	2005	85	39.817	56.673	-26,7	-16,4	-71,3
Gipuzkoa	2003	65	43.868	167.315	16,1	-74,1	-8,2
	2004	86	41.738	361.584	32,3	-4,9	116,1
	2005	55	7.025	16.525	-36,0	-83,2	-95,4

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Araban baino gatazka gehiago zegoen, eta gainera, 2005ean, Araban laneko gatazka gehiago egon zen (greba bakoitzeko lan egindako egun kopuru handiagoa, baita langile bakoitzeko lan egin gabeko ordu kopuru handiagoa ere). Horrela, gatazka kopuruak murriztapen handiagoa izan du Gipuzkoan (-%36) eta Bizkaian (-%27), Araban baino (-%12); eraginpeko langileen kopuruak -%83ko murriztapena izan du Gipuzkoan (aurreko urtean greba sektorial handia eraikuntzan eta siderometalurgian), -%46 Araban eta -%16 Bizkaian; azkenik, galdutako lan-egun kopuruak -%95eko beherakada izan du Gipuzkoan, -%71koa Bizkaian eta -%30ekoa Araban (batik bat, Pferd-Ruggeberg edo *Ca-ballito* enpresak izandako grebaren ondorioz).

Urte honetan egindako greben artean, aipagarriak dira Gipuzkoako anbulantzia sektorekoa, Bizkaiko siderometalurgiakoa, bidaiarien garraiokoa eta Osakidetza sektore batzuetakoa. Lan Harremanen Kontseiluaren datuek adierazitakoaren arabera, greben eraginez lan egindako egunen eta bertako partaideen %84 negoziazio kolektiboaren ondoriozkoak dira.


Estatuan ere gatazka kopuruak murriztapen handia izan du 2005ean. Gatazka kopuruak -%5eko murriztapena soilik izan duen arren (aurreko urtean hazkunde), lan egin gabeko egunen bolumenak -%83ko murriztapena izan du eta eraginpeko pertsona kopuruak -%40ko murriztapena. Horrenbestez, gatazka bakoitzeko 495 langile izan dira (-%37ko murriztapena 2003ari dagokionez), gatazka bakoitzeko lan egin gabeko 1.134 egun (-%82ko murriztapena) eta eraginpeko langile bakoitzeko 18 ordu EAEn (aurreko urtean 64 ordu).

5.3.3. *Negoiazio kolektiboa: soldaten igoera eta lanaldia*

Atal honen hasieran, esan behar da negoziazio kolektiboak gelditze nabaria izan duela 2005ean.

Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) negoziazio kolektiboari buruz emandako datuen arabera, urte honetan indarreko hitzarmenen kopurua (abenduren 31ra arte erregistraturiko hitzarmenak) 629koa izan da (2004an baino 20 gehiago), baina horren eraginpean langile kopuru txikiagoa dago (-%11 gutxiago): eraginpeko langile kopurua 346.651koa da (%77 sektoreko hitzarmenen babesarekin eta %23 enpresako hitzarmenen babesarekin), negoziazio horren eraginpeko 569.789 langileetatik, eta zifra horrek soldatapeko guttien %45eko estaldura adierazten du, BJA adierazita-koaren arabera (aurreko urtean baino ia 7 puntu gutxiago). Hala ere, gainera, urte horretan langileen %71rako hitzarmenak negoziatu behar ziren (2004an amaitu egiten ziren teorian 2005ean berritzeak ziren hitzarmenetariko asko, baita aurreko urteetatik berreturik zeuden asko ere), eta horien erdietan baino ez dira akordioak lortu (223.360 langile).

EAEn eragina duten hitzarmenetan 2005erako itundutako batez besteko soldata-hazkundeak %4,38koa da, eta horrela, gainditu egin da EAEn 2004an itundutako hazkundeak, baita estatuan 2005ean itundutako %3,95eko hazkundeak ere, eta KPIk EAEn 2004an izandako batez besteko hazkundeak (urte horretako abenduan %3,18) eta 2005ekoaren batez besteko hazkundeak (urteko %3,29ko batez bestekoa eta abenduan %3,74) ere bai.

SOLDATEN HAZKUNDEA ETA KPI EAEn

EAEn egindako hitzarmenetako soldataren hazkundera %4,51koa izan da; lurralde historikoen arabera, aurreko urtean bezala, aipagarriak dira EAEko lurralde arteko hitzarmenetan izandako %4,64ko hazkundera, Bizkaiko %4,75koa eta Arabako %4,49koa; bestalde, Erkidegoko batez bestekotik behera daude Gipuzkoan sinaturikoak (%4,32), baita Erkidegoan eragina duten estatu mailako hitzarmen kolektiboak ere, horietan egon baitira soldata hazkunderik txikienak (%4,05). Gainera, enpresako hitzarmenetan soldataren hazkundera %3,98koa izan da (2004an baino 37 ehunen gehiago), eta sektoreko hitzarmenetan hazkundera %4,5koa izan da (2004an baino 64

ehunen gehiago); bi kasuetan ere gainditu egin dira Estatuko batez bestekoak.

Itundutako lanaldi osoari dagokionez, orduak murrizteko joera mantendu da, baina joera hori moteldu egin da aurreko urteei dagokionez; hala ere, orain arte ezin da datu finkaturik eman 2005eko indarreko hitzarmenei buruz, oraindik ere hitzarmen garrantzitsuak baitaude sinatzeko. Abendura arte berrituriko hitzarmenetan (EAEn eragina duten hitzarmenak), urteko 5 orduko batez besteko murriztapena kalkulatzeko da (2004an 6 ordu), eta EAEn egindako hitzarmenetan murriztapena 6,1 ordukoa izan da

HITZARMENETAN ITUNDUTAKO SOLDATA IGOERA ETA LANALDIA

		2002	2003	2004	2005*
Soldata igoera	Guztizkoa indarreko hitzarmenetan	4,13	4,11	3,89	4,38
	Aurreko urteetan sinaturikoak	4,01	3,82	4,01	4,55
	Urtean eta hurrengoan sinaturikoak	4,70	4,39	3,81	4,23
	Hitzarmen sektorialak	4,17	4,25	3,86	4,50
	Enpresako hitzarmenak	3,94	3,63	3,61	3,98
Lanaldia (orduak urtean)	Indarreko hitzarmenak guztira				
	Hitzarmen sektorialak				
	Enpresako hitzarmenak				
Pro-memoria	Indarreko hitzarmen kopurua EAEn(*)	615	604	609	629
	Estalitako langile kopurua (*)	411.631	330.577	389.014	346.651
	estalitako langileen / soldatapeko guztien %	56,90	45,30	51,60	45,10
	Abenduko KPI (EAE)	3,90	2,63	3,18	3,74
	Soldata igoera Estatuan	3,85	3,68	3,62	3,95

(*) 2005-12-31ko behin-behineko datuak.
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

(aurreko urtean 6,9 ordu). 2005erako berrituriko hitzarmen horietan, urteko 1.680 orduko batez besteko lanaldia finkatzen da, eta kopuru hori sektoreko hitzarmenetan (1.681 ordu) enpresakoetan (1.675) baino handiagoa da, baina betiere estatuko hitzarmenetakoak baino txikiagoak dira (1.756 ordu, 2004an hitzarturiko lanaldiaren modukoa). EAEn eragina duten hitzarmen kolektibo guztietarako estaldura handiagoa eskaintzen duen datua emateko (berritutako eta berritu gabeko hitzarmenak), LHK-k egindako kalkuluaren arabera enpresen multzoari aplikatzeko moduko batez besteko lanaldia 1.698 ordukoa da 2005ean (berrituriko hitzarmenen batez bestekoa baino 18 ordu gehiago, berritu gabeko hitzarmen sektoreak lanaldi handiagoa edukitzearen ondorioz).

Bestalde, EINen laneko Kostuaren Hiruhileko Inkestan adierazitakoaren arabera, urteko benetako lanaldia 1.561 ordukoa da EAEn (2002an baino 2 ordu gutxiago), eta Estatuko ordu kopurua, berriz, 1.643koa da (aurreko urtean baino 10 gutxiago).

5.4. Enplegu politikak eta zerbitzuak EAEn

Enplegu politiken helburua langileak lanpostua galtzearen eraginezko arazoetatik babestea da; halako politikak, berriz, laneratze azkarragoa eta aktiboagoa ahalbidetzeko neurrien bitartez garatzen dira. Enplegu Politika Aktiboen barruan, era askotako neurrien multzo heterogeneoa biltzen da, hasi heziketatik, enpleguaren sustapenetik eta lan-malgutasunetik nahiz balioaniztasunetik eta informaziora zein orientaziora, eta pertsona horien "enplegarritasuna" sustatzeko ahalegina egiten da.

EPAen gaineko eskumenaren titulartasuna Autonomia Erkidegoak dauka, Autonomia Estatutuaren bidez; hala eta guztiz ere, halako politikak Estatuko Administrazio Nagusiak gauzatzen ditu, hori oraindik ez baitago Erkidegora transferituta, Espainiako estatuko gainerako 16 autonomia erkidegoen kasuan bezala (Enpleguari Laguntzeko programen eta Okupazioko Lanbide Heziketaren kudeaketa eta Enplegu Zerbitzu publikoaren funtzioak dituzte).

Beraz, enplegu politikaren lanketa eta horren finantziaketa, lehenengo eta behin, Lan Miinisterioak gauzatzen ditu, eta horren kudeaketa, berriz, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (EEZP) dauka. EEZPk EAEk enplegu politika aktiboetan egindako gastuaren %75 baino gehiago kudeatzen du, eta politika horiek Estatuko Administrazioaren nahiz Gizarte Segurantzaren eta Europako Gizarte Fondoaren finantziaketa dute⁵.

Gainera, EAEn Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, udalerriek eta Garapeneko Eskualde agentziek ere helburu horretarako ekintzak egiten dituzte. Lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzak, batez ere Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren bitartez, Enplegu eta Heziketako programa batzuk kudeatzen ditu. Bigarrenez, orientazio eta bitartekaritza jarduketak ere egiten ditu, Lanbideren bitartez (Egailan S.A.ren mendekoa). EAEko Administrazioak kudeaturiko politika aktiboen multzoa EAEn egindako EPA guztien %11ra iristen da; horien %55 Eusko jaurlaritzak finantzatzen ditu eta %40 EGfK.

Foru Aldundiei dagokienez, lurraldeen arteko desberdintasun handiak daude halako jarduketetan; alde batek, Araban eta Gipuzkoan esku-hartze maila txikiagoa da, eta Bizkaian jarduera eta sorturiko egitura handiagoak dira. Nolanahi ere, erakunde horiek finantzaturiko EPA guz-

ENPLEGU ETA HEZIKETA POLITIKAK EAEn

	Lan Ministerioa-EEZP	Eusko Jaurlaritza
Bitartekotza, erregistroa eta informazioa	Enplegu bulegoak	Langai, Lanbide
Orientazioa	EALO - EZI	Orientazioko E. Zerbitzua
Okupazio Heziketa	EIN, zentro laguntzaileak	Zentro laguntzaileak
Enplegu-heziketako, esperientziako eta laneratze programak	Lantegi-eskolak, enplegu-lantegia, lanbide-etxeak, EIN-toki korporazioak programa	Dekretuak (sustatzailer berriak, alternantziako heziketa, gazte-enpresa,...)
Kontratatziorako dirulaguntzak	GSko hobariak, ezind., auton.,...	Enplegu programen dekretuak
Heziketa iraunkorra	FORCEM eta HOBETUZ	HOBETUZ

⁵ Europako Gizarte Fondoko Administrazio Unitatearen bidez; Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren mendekoa da eta EGfK Espainiara iristen diren baliabideak administratzeko ardura dauka; EGfK autonomia erkidegoetan duten banaketa kudeatzen du, baita Estatuko Administrazio Nagusiko kudeaketa organismoak ere. EGfK Espainiako enplegu politika aktiboetan duen finantza laguntza, 1997-2003 aldian, %25ekoa izan da.

tien %80 zuzen-zuzen kudeatzen dituzte (EAEko EPA guztien %5 inguru), eta gainerako %20, berriz, erakunde laguntzaileekin lankidetzan kudeatzen dira (funtsean, heziketako erakundeak), edo beste administrazio batzuekin batera finantzatzen dira jarduerak, adibidez, Eusko Jaurilaritzarekin edo udalekin.

Toki Erakundeak (toki garapeneko agentziekin batera), funtsean, enplegu politika aktiboen kudeatzaileak dira. EAEn egindako gastu guztiaren ia %3 finantzatu arren, hiru aldiz bolumen handiagoa kudeatzen dute, Eusko Jaurilaritzari, Estatuko Administrazioetik, EEZPtik nahiz EGFtik eta, neurri txikiagoan, Foru Administrazioetik jasotako baterako finantziarioari esker.

Azkenik, eta kudeaketari dagokionez, irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakunde pribatuak daude, baita arlo hauetan jarduerak kudeatzen dituzten enpresak nahiz sindikatuak eta heziketa zentroak ere, batez ere

gizarteratzeko arazoak dituzten taldeen nahiz pertsonen heziketari, gizarteratzeari nahiz laneratzeari dagokionez.


EAEko bi eragile nagusiek garaturiko enplegu sustapeneko politika aktiboak aztertuko ditugu; erakunde bakoitzak arlo nagusietan garatzen dituenak ikusitiko ditugu: enpleguaren sustapena, bitartekotzat eta orientazioa lan merkatuan, eta heziketa, bai landunena eta bai langabetuena.

5.4.1. Lan Ministerioak-EEZPk garaturiko politika aktiboak

(a) Lan bitartekotza

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (EEZP), lehen EIN, lan merkatuko bitartekotzaren ardura duen organismo nagusia da, eta gainera, politika pasiboen kudeaketa ere egiten du (langabeziaren prestazioen onarpena eta

EEZP-EINen ERREGISTRATURIKO KOLOKAZIOAK, KOLOKAZIO BIDEAREN ARABERA



Iturria: EEZP-EIN (Informatika eta Estatistika Zuzendariord. Nagusia).

ENPLEGURAKO LANBIDE ORIENTAZIOKO EKINTZEN ETA AUTOENPLEGURAKO LAGUNTZAREN ONURADUNAK

	EEZP			Erakunde laguntzaileak			Guztira		
	2003	2004	2005	2003	2004	2005	2003	2004	2005
Araba	904	703	2.637	3.986	3.196	2.094	4.890	3.899	4.731
Bizkaia	1.275	1.453	2.250	10.995	10.459	4.616	12.270	11.912	6.866
Gipuzkoa	887	807	5.417	4.839	4.895	8.105	5.726	5.702	13.522
EAE	3.066	2.963	10.304	19.820	18.550	14.815	22.886	21.513	25.119

Iturria: EEZP (Informatika eta Estatistika Zuzendariordetza Nagusia).

ordainketa). 2005ean, EEZPk EAEn erregistraturiko enpleguen edo egindako kontratuen kopuru osoak %2,1eko hazkundera izan du, aurreko urtean baino lau puntu gutxiago; hain zuzen ere, 786.447 enplegu erregistratu dira (zifra hori eta kontratuena ez dira berdinak, erregistroko edo sisteman sartzeko data eta kontratua indarrean sartzeko data ez baitira berdinak), aurreko urtean baino 18.177 gehiago.

Enplegu horietariko gehienak erregistroaren aurreko pausotzat jakinarazten zaizkio EEZPri, eta erakunde horrek zuzenean kudeatzen dituenak⁶ behera egin dute aurreko urtean (azken bost urteko beherakada iraunkorra). 2005ean 63.680 enplegu izan dira, 2004an baino -%22 gutxiago. Horrela, EEZPre azken urteetan enpleguen gutzizkoa gero eta txikiagoa da, eta 2005ean ia ez ziren %8,1era iristen.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa eta autonomia erkidegoetako EZPa, izan ere, langabetuak laneratzeko zerbitzuari loturiko lanak egiten dituzten eragile publiko nagusiak dira, baina arlo horretan laguntza ematen duten irabazi asmorik gabeko erakundeak ere badira; horiek legezko onarpena dute, lan merkatuan bitartekotza jarduerak egiteko. Hain zuzen ere, EAEn halako funtzioak dituzten 12 agentzia daude.

(b) Orientazioa: Enplegu eta autoenplegurako laguntzako irabazi asmorik gabeko enplegu agentziak eta orientazio zerbitzuak

Enplegu Zerbitzu Publikoek ematen duten beste zerbitzu bat orientazioarena da, eta hori EEZPk bertako enplegu bulegoen bitartez egiten du, baita kudeaketa transferiturik duten autonomia erkidegoen bitartez ere, horien zerbitzuak erabiliz. EEZP eta laguntzako erakundeak ez ezik, irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuk daude, adibidez, enplegurako eta autoenplegurako (EALO) lanbide orientazioko zentroak; horiek Enplegu Zerbitzu Publikoekin lankidetzan jarduten dute, inoren eta norberaren konturako okupazio aukerak hobetzeko ekintzetan, Enplegu Bulegoan inskribaturiko enplegu eskatzaileei dagokienez.

2005ean 25.119 enplegu eskatzailek laguntzaren bat jaso zuten, enpleguko orientazio ekintzen multzoaren barruan, eta horrek -%16,8ko hazkundera adierazten du aurreko urteari dagokionez. Hazkunde hori, berriz, EEZPre laguntzaren onuradun kopuruak izandako hazkundearen eraginezkoa da (%238,6), eta halako ekintzak egiten dituzten Erakunde Laguntzaileen kopuruak %25,2ko beherakada izan du.

(c) Okupazio-heziketako, enplegu-heziketako, esperientziako eta laneratzeko ekintzak

Langabetuentzako okupazio-heziketako jarduketak Lanbide Heziketako eta Laneratzeko Plan Nazionalaren eta Lantegi Eskolen nahiz Lanbide Etxeen, Sustapen Unitateen eta Enpresa Ekimeneko Zentroen bitartez egiten dira. EEZPk okupazio-heziketako ekintzak egiten ditu, Okupazio Heziketako Zentroetan (bi zentro ditu EAEn, Lasarte Garraio nahiz Komunikazioko CNFO eta Sestaoko Mantenamendu eta Konponketa); batez ere, Zentro Laguntzaileetan homologaturiko heziketa espezialitateetan egindakoak finantzatzen ditu, erakunde horiekiko kontratu-programaren edo lankidetzak-hitzarmenaren bidez: heziketa-ekintzen %95 baino gehiago, Okupazio Heziketa ez baitago Arauzko Hezkuntza Sistemaren barruan. Jarduera horiek, batez ere, Europako Gizarte Fondoaren dirulaguntza jasotzen dute, eta 16-65 urteko ikasleen artean doakoak dira; hain zuzen ere, honako talde hauei zuzenduta daude:

- 25 urtetik beherako langabetuak: iraupen laburreko nahiz luzeko langabetuak eta emakumeak, horien presentzia urria duten espezialitateetan (lanbide trebakuntza urriarekin edo ezegokiarekin).
- 25 urtetik gorako langabetuak: iraupen laburreko nahiz luzeko langabetuak eta emakumeak (iraupen laburrekoak edo luzekoak, 5 urteko langabeziarekin, presentzia urriko lanbideetan eta familia erantzukizunekin); oinarritzko trebakuntza eta lanbide hobekuntza nahiz birziklapena da helburua.
- Beste talde batzuk: elbarriak (Gizarte Zerbitzuen Nazio Institutuarekin lankidetzan); migratzaileak eta horien

⁶ Aintzat hartuta kudeaketa zuzenaren barruan EINen zerbitzuen enplegu aktiboa eta beste egoera batzuk sartzen direla; azken egoera horien barruan, berriz, aurkezpen-txartelaren bidezko enplegua edo EINen iragarki-oholaren bidezkoa sartzen da, baita EINek egin gabeko kontratazioak ere (azken sei hilabeteetan bertako bulegoetan kontakturen bat izan dituzten pertsonen kontratazioak), etab. Gainera, datu horiek aurkezteko modua aldatu egin da 2005eko maiatzetik, SISPE deritzona martxan jarrita: enplegu politika aktiboak kudeatzeko eredu mistoa, enplegua kudeatzeko zerbitzu autonomoei transferituriko politikak, langabeziaren prestazioei dagokienarekin (EEZP-EINen eskumenekoa), eta horrela, estatistika serie berria hasten da, sistema berriaren bidez lorturiko datuetan oinarrituz. Sistema horren ezarkuntzak estatistika mailako eragin handia izan du erregistraturiko langabeziaren neurketan, datuen gaurkotze sarriagoaren bidez zehazturiko kudeaketa prozesu berrien ondorioz.

familiak (Emigrazioko Nazio Institutuko Zuzendaritza Nagusiak eginda, edo beste erakunde batzuekin lankidetzan); askatasunaz gabeturiko pertsonak, etab.

- Hezitzaileak: Planean parte hartzen duten irakasleen heziketa edo gaurkotze tekniko-pedagogikora zuzenduta.

Guztira, EEZPk 981 heziketa ekintza finantzatu ditu 2005ean, eta bolumenak -12% ko murriztapena izan du aurreko urteari dagokionez (Bizkaiko zentro laguntzaileetan bakarrik, EEZPren zentroetan egindakoek 17% ko hazkundea izan baitute). Ikastaro horietan parte hartzen duten pertsonen kopuruak ere (ebaluazio positiboarekin heziketa pertsonak) -18% ko murriztapena izan du, lehenengo kasuan bezala Bizkaian izandako beherakadaren ondorioz, Araban eta Gipuzkoan mantendu egin baitira aurreko urteko zifrak. Guztira 11.535 pertsona trebatu dira ebaluazio positiboarekin; urte honetan 16.394 alta (sar-

tzeak) eta 15.541 baxa (ebaluazio positiboa amaitu duten ikasleak, 428 baino gehiago ebaluazio negatiboarekin eta, lanean hastearren edo beste zergati batzuen ondorioz, ikastaroa amaitu ez duten 3.578 pertsona).

Ekintzen jasotzaileak diren taldeen barruan, arreta langabetuen taldean oinarrituz (talderik handiena), 2005ean mantendu egin dira aurreko urteetan ikusitako proportzioak, ikasleen beherakadaren barruan (lehen ikusitakoaren arabera). 23% , horrela, 25 urtetik beherakoak dira, 80% iraupen laburreko langabetuak dira, eta 6% ordezkapen urriko emakumeak.

Enpleguko eta heziketako heziketa jardura mistotzat, EEZPk EAEko Lantegi Eskolak, Enplegu Lantegiak eta 3 Lanbide Etxeak finantzatzen ditu; horiek 25 urtetik beherako gazte langabetuei zuzenduta daude, laneratzeko eta gizarteratzeko arazo handiak dituzten gazteei. Lantegi Eskolak eta Lanbide Etxeak enpleguko nahiz heziketako programak dira; euren helburua laneratzeta da, heziketa lanbide-praktika txandakatuz, ondare historikoa, kulturala edo naturala suspertzearekin erlazionaturiko lanbideetan. Enplegu Lantegietan, heziketako eta enpleguko ekintzak konbinatzen dira, 25 urteko edo gehiagoko langabetuei begira, horiek laneratzeko arazo bereziak dituztenean (iraupen luzeko langabetuak, 45 urtetik gorako langileak, emakumeak, ezinduek), interes orokorreko edo gizarte intereseko enplegu arloetan.

Azkenik, EEZP-EINek toki erakundeekiko lankidetzat garatzen du, gizarte intereseko enplegu programen barruan; bertan, gizarteratze esperientzia-planak egiteko dirulaguntza publikoak jasotzen dira, Toki Administrazioaren mendeko nahiz horri loturiko erakundeen edo toki korporazioen kontratua (interes orokorreko edo gizar-

EINek EAEn EMANDAKO IKASTAROAK, ZENTROAREN ARABERA (1)

		Guztira	Okup. Heziketako Zentroak	Zentro laguntzaileak
2003	EAE	1.006	109	897
2004	Araba	132	4	128
	Bizkaia	689	40	649
	Gipuzkoa	291	4	287
	EAE	1.112	48	1.064
2005	Araba	139	3	136
	Bizkaia	542	39	503
	Gipuzkoa	300	14	286
	EAE	981	56	925

(1) 2005ean amaiturikoen guztizkoa. Ez dira zenbatu 2006an jardunean jarraitzen dutenak.
Iturria: EEZP (Informatika eta Estatistika Zuzendariordetza nagusia).

TREBATURIKO IKASLEAK, EEZPren HEZIKETA EKINTZAREN ZENTRO TALDE JASOTZAILEAREN ARABERA

	Guztizko positiboa	Langabetuak							B. talde batzuk	Hezi-tzailea	Ebalua. negatib.	Utzi dutenak
		Guztira	25etik beherakoak			25etik gorakoak						
			IL	ILU	Emak. (1)	IL	ILU	Emak. (2)				
EAE 2003	12.791	12.490	2.661	192	224	7.001	1.659	753	88	213	416	3.183
EAE 2004	14.099	13.811	2.944	219	177	8.149	1.721	601	100	188	415	3.218
EAE 2005	11.535	11.258	2.346	108	105	6.800	1.343	556	104	173	428	3.578
Araba	1.532	1.412	346	5	1	903	154	3	78	42	60	501
Bizkaia	6.442	6.313	1.441	87	0	3.897	853	35	26	103	199	2.340
Gipuzkoa	3.561	3.533	559	16	104	2.000	336	518	0	28	169	737

Salbuetsita daude ebaluazio negatiboko ikasleak, ikasturtean (lanpostua lortzearen eraginez) baxa hartu dutenak edo urtea amaitu ondoren heziketan jarraitu dutenak (IL= iraupen laburra; ILU= iraupen luzea).

(1) Ebaluazio positiboarekin amaitu eta ordezen gutxiko espezialitateetan trebatu diren emakumeak.

(2) Ebaluazio positiboarekin amaitu eta iraupen luzeko eta laburreko ordezkapen gutxiko espezialitateetan trebatu diren emakumeak, 5 urteko ez-aktibitatea eta familia erantzukizunak dituztenak.

Iturria: EEZP (Informatika eta Estatistika Zuzendariordetza Nagusia).

LANTEGI-ESKOLETAKO ETA LANBIDE-ETXEETAKO PARTAIDEAK EAEn

	Guztira			Lantegi-eskola			Lanbide-etxea*-enplegu lantegia		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
2003	1.103	610	493	254	213	41	849	397	452
2004	1.112	634	478	226	188	38	886	446	440
2005	1.122	595	527	1.151	133	18	971	462	509

Iturria: EEZP-EIN (Informatika eta Estatistika Zuzendariordetza Nagusia).

te intereseko obretan edo zerbitzuetan) duten langabetu taldeen okupazio-gaitasuna hobetzeko. Programa horren barruan, honako hauekiko lankidetzaren sartzendak: Estatuko Administrazioari beste organo batzuekin nahiz bertako organismo autonomoekin, autonomia erkidegoekin, unibertsitateekin eta irabazi asmorik gabeko erakundeekin.

(d) Enplegua sustatzeko programak


Enpleguaren sorrerarako laguntzaren arloko programen artean (Lan eta Gizarte Ekintza Ministerioaren sustapen ekonomikoa duten programak), enplegua sustatzeko hoberia nabarmen da; horrexek ditu baliabiderik gehien funtzio honetan, eta gainera, EAEn egindako EPA-etan baliabiderik gehien duen programa da. Egonkortasun-

na kontratazio mugagabearen bidez sustatzeko eta, aldi berean, arazorik gehien duten taldeak babesteko (iraupen luzeko langabetuak, emakumeak, gazteak, ezinduek eta berrogeita bost urtetik gorako langileak) laguntza horiek, bestalde, 1997ko lan erreformatik hona garatu dira⁷. Izan ere, 45/2002 Legeak handitu egin zituen langabetu talde batzuei kontratazio mugagabea egitearen eraginezko pizgarriak, 2002ko enplegu-sustapen Programari dagokionez, eta gainera, beste hiru programa berri ezarri zituen (langabeziako prestazioen jasotzaileen kontratazioa sustatzeko, horiek heziketako langileak ordeztzen dituzten bitartean; langabeziako sorospena eta inoren konturako lana bateratzea ahalbidetzeko; eta langabetuen mugikortasun geografikoa sustatzeko).

Harrezkero, kontratazioarako pizgarri horiek hazkunde handia izan zuten; hain zuzen ere, 2005ean 162.910 milioi euro izan ziren, aurreko urtean baino %10,2 gehiago, aintzat hartuta 2003an %14,9ko hazkundea eta 2002an %13,8ko hazkunde handia izan zutela. Langile onuradunen kopurua 153.078koa izan zen, eta beraz, onuradun bakoitzeko batez besteko hoberia 940 eurokoa izan da.

Beste programa osagarri batzuk, bestalde, toki garapeneraren sustapenean enplegua bultzatzeari buruzkoak dira, baita I+E-tzat kalifikaturiko proiektuak, enplegu autonomoaren sustapena eta ezinduen laneratzeko sustatzeari buruzkoak ere. 2005eko datuek aditzera ematen dutenez, 28,3 milioi euro ematen dira halako jarduketak garatzeko. Horien banaketa oso egonkorra da; hain zuzen ere, laguntzen %83 (gutxi gorabehera) ezinduek laneratzeko dira, %9 enplegu autonomoa sustatzeko eta %8 toki ekimenetarako (azken horiek, batez ere, kontratazio mugagabeen eta toki enpleguak eragilean dirulaguntzetarako).

EEZPek EAEn ENPLEGUA SUSTATZEKO EMANDAKO HOBARIAK



Iturria: EEZP.

⁷ "Enpleguaren Egonkortasunerako Konfederazio arteko Akordioa", maiatzaren 16ko 8/1997 Errege Dekretuaren ostean gauzatua; abenduaren 26ko 63/1997 Legea, Lan Merkaturako Hobetzeko eta Kontratazio Mugagabea Sustatzeko Premiazko Neurriei buruzkoa, eta abenduaren 26ko 64/1997 Legea, Gizarte Segurantzaren arloko pizgarriak arautu dituen (kontratazio mugagabea sustatzeko arlo fiskalekoa). 1999tik 2003ra bitarteko enplegua sustatzeko programak, neurri fiskalei, administratiboei eta sozialei buruzko Legearen barrukoak (urtero Estatuko Aurrekontu Nagusien Legearekin batera), pizgarrien sistema gaurkotzen dute aldiaren behin (abenduaren 30eko 53/2002 Legea, Neurri Fiskalei, Administrazioari eta Sozialari buruzkoa, 2002ko abenduaren 31ko EAO).

ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMAK EAEn. LAN ETA GIZARTE GAIEN MINISTERIOA (EUROAK MILATAN)

	Guztira*	Tok. gar. sustapena eta I+E proiektuen nahiz enpresen bultzada	Enplegu autonom. sustapena	Ezindua laneratzea
2002	22.271	2.513	2.937	16.820
2003	22.934	2.638	3.024	17.233
2004	26.467	2.294	2.820	21.353
2005	28.322	2.295	2.564,8	23.462

(*)Guztizkoaren eta programen batuketaren arteko kendura, Kooperatibetako eta S.M.ko Enplegua bultzatzeko Programari dagokio.
Iturria: Lan eta Gizarte Gaien Ministerioa.

5.4.2. Eusko Jaurlaritzak sustaturiko politika aktiboak

(a) Enplegua sustatzeko programak

Eusko Jaurlaritzak enplegua sustatzeko dituen politika aktiboak, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailaren bidez garaturikoak, nabarmen aldatu dira 2004tik, *abenduaren 23ko 329/2003 Dekretua (enplegurako laguntzak arautu dituen)* eta *abenduaren 23ko 328/2003 Dekretua (kultura ekintzaileari eta enpresa sorrerari laguntza eman diona)* onestearen ondorioz.


Lehenengo Dekretua 2003ko uztailaren 22an onetsitako Enpleguko 2003-2006 Erakunde arteko Planean oinarriturik dago; dekretu horrek kontratazioarako laguntza berriak arautzen ditu, laneratzeko arazoak dituzten langabetu taldeei dagokienez, eta arau beraren barruan, beriz, zenbait dekretutan jasotako jarduketak biltzen ditu (en-

presetako langileriak berritzeari, lanaldia banatzeari, aparteko orduak ezabatzeari eta laneko nahiz familiako bizitza adiskidetzeari buruzkoak), dekretu berri honek indargabetzen dituen jarduketak.

Bestalde, 328/2003 Dekretuko IV. kapituluan, langabetuek eraturiko enpresen sorreran laguntzeko dirulaguntzak ezartzen dira; eraketa hori banaka edo Ondasun Komunitatearen, Sozietate Zibilarren edo Merkataritza Sozietatearen formarekin egin daiteke; dekretu horrek, gainera, indargabetu egiten du *abenduaren 24ko 305/1996 Dekretua, autoenplegua sustatzeko neurriak arautu dituen*.

Dekretu horiek garatzen dituzten enplegurako laguntzak bost jarduketa ildotan biltzen dira:

- Lehenengo laguntza ildoaren (II. kapituluan jasotako laguntzak) helburua hau da:

EUSKO JAURLARITZAKO PROGRAMEN ZENBATEKOEN ETA LANGILE KOPURUAREN BILAKAERA

Iturria: Justizia, Enplegu eta G. Segurantzza Saila.

2005EAN ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMAK. EUSKO JAURLARITZA
(DIRULAGUNTZADUN LANGILEAK, DIRULAGUNTZAK -EUROAK MILATAN- ETA BATEZ BESTEKO DIRULAGUNTZA EUROTAN)

Enplegu Zerbitzuko programak	EAE			Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Lan. Kop.	Dirul. guztira	B. best. dirul.	Lan. Kop.	Dirul. guztira	Lan. Kop.	Dirul. guztira	Lan. Kop.	Dirul. guztira
Kontratazioa (1)	1.423	6.217	4.369	83	436	892	4.073	448	1.707
Toxikomano ohien kontratazioa (1)	52	600	11.540	3	30	36	411	13	159
Langilerien berrikuntza (2- Txandako kontratua).	1.167	5.823	4.989	158	765	513	2.522	496	2.535
Langilerien berrik. kooperatibetan (2-Lagun. lana uzten duen bazk.)	122	603	4.942	10	45	4	24	108	534
Langilerien berrikuntza kooperatib. (2-Sozietateko kontratu berriak)	78	802	10.277	10	103	3	24	65	675
lanaldiaren banaketa (3)	83	152	1.833	3	6	12	23	68	124
Enplegu eta heziketa proiektuak (4)	415	1.699	4.094	52	372	258	1.141	105	186
Laneko eta familiako bizitza adiskidetzeari (5-Langileak)	9.578	17.376	1.814	2.036	3.534	4.336	7.977	3.206	5.865
Laneko eta familiako bizitza adiskidetzeari (5-Enpresak)	1.133	2.507	2.213	224	394	452	1.005	457	1.108
Enpresen sorrera (6)	1.188	7.062	5.944	126	756	556	3.294	506	3.012
Programak guztira	15.239	42.840	2.811	2.705	6.442	7.062	20.494	5.472	15.904

329/2003 Dekretua: (1) II. kap.; (2) III. kap.; (3) IV. kap.; (4) V. kap.; (5) VI. kap.; 328/2003 Dekretua: (6) IV. kapitulua.
Iturria: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.

- Lan merkatuan sartzeko arazorik gehien duten taldeetako pertsonen laneratzea bultzatzea, aldi batearako edo mugagabea den kontratazioarako dirulaguntzak emanez, eta talde horietako pertsonak dituzten aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea (dirulaguntzek %25eko hazkundeak, kontratazioak emakumeekin eginez gero).
- Gutxienez 30 pertsonako taldearen kontratazio mugagabea edo aldi baterakoa sustatzea, hiru hileko aldian (kontratu guztien erdia, izan ere, arazorik gehieneko taldeetako langabetu talderen bateko pertsonekin izango da).
- Banakako enpresaburuen arloan, kontratazio mugagabea sustatzea eta inoren kontrako lehenengo langilearen aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtzea.
- Bigarren laguntza ildoak (III. kapitulua) enpresen langileria berritzera bideratzen da, txandako kontraturako laguntzak emanez; horrek honako ezaugarri hauek ditu:
 - Langileen Estatuko 12.6 artikuluan aipaturiko txandakako kontratuak, bai langabetutzat inskribaturiko pertsonekin edo bai enpresarekin iraupen jakineko kontratua hitzarturik duten langileekin (lanaldi osoko nahiz denbora mugagabeko txandako kontratuak edo iraupen mugatuko kontratuak, hori amaitzean kontratu mugagabe bihurtzeko konpromisoarekin).
 - Sozietate kooperatibetan langileriak berritzeko laguntzak, bai bazkideak diren langileek lan jarduerak uzten dutenean, bai bazkide langabetuak kontratatzen direnean, erretiroaren eraginezko lanpostu hutsak betetzeko.
- Hirugarren laguntza ildoak (IV. kapitulua) lanaldiaren banaketa sustatzen du, eta horretarako, laguntzen helburua hau da:
 - Enpresetan aparteko orduak ezabatzea, langabetuen kontratazioarako dirulaguntzak emanez; enpresaren eta langileen edo bazkideen arteko talde-ituna egiten da, eta bertan, aparteko orduen ezabaketa egon behar da jasota.
 - Enpresek langileak ordeztzeko egiten dituzten kontratazioak, baita langileak diren bazkideak ordeztzeko egiten dituztenak; horiekin lanaldia murrizteko edo horretaz askatzeko kasu batzuk egoten dira itunduta edo onartuta (lanpostua gordetzeko edo ohiko lanaldira itzultzeko bermearekin).
- Laugarren laguntza ildoaren helburua (V. kapitulua), izan ere, toki arloko Enplegu-Heziketa Proiektuen barruan egiten diren lan kontratuak dirulaguntza ematea da, horien heziketa faseak dirulaguntza jaso duenean, okupazioa hobetzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituen Dekretuan ezarritakoa dela bide.

- Bosgarren laguntza lerroaren helburua (VI. kapitulua) laneko eta familiako bizitza adiskidetzera da, eta horretarako, honako hauei ematen zaizkie laguntzak:

- Inoren konturako langileak, lanaldi murriztapeneko edo eszedentziako eskubideak hartzen dituztenak, sei urtetik beherako edo ezintasuna duten adin horretatik gorako seme-alabak zaintzeko eta halako egoeretan sortzen den soldata murriztapena konpentsatzeko.
- Langabetutzat inskribaturiko pertsonak kontratatzen dituzten erakunde pribatuak, aipaturiko eskubideak hartzen dituztenak ordeztzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden lantokietan, enpresa kotizazioaren %100era arteko hobariarekin Gizarte Segurantzari, kontingentzia arrunten eraginez.

2005erako enplegu programa horien emaitzen jasotzaileak 15.239 pertsona/erakunde dira; hain zuzen ere, 2004ko langabetu guztien %15,8tik (BJAren arabera) %26,7ra igaro dira, eta 42,8 milioi euroko dirulaguntzak eman dira. Programa horietan parte hartzen duen langile kopurua gero eta handiagoa da (%22,4ko hazkundera urte honetan, eta 2004an %17,3koa), eta enplegua sustatzeko dirulaguntzen hazkundera ez da hain handia (%20,5 eta 2004an %17,3); horrenbestez, dirulaguntzaren batez besteko zenbatekoak $-1,5\%$ ko murriztapena izan du eta 2.811 € dira pertsona bakoitzeko (aurreko urtean baino 44 € gutxiago).

Neurri handian, emaitzak laneko eta familiako bizitza adiskidetzeko programaren eraginean daude; izan ere, langileen eta enpresen artean onuradunen %70 eta dirulaguntzaren %46 dira, baina bi kasuotan ere hazkundera gainerako programetan izandakoa baino txikiagoa da. Gainerako programen kasuan, laguntza guztien %15,9 II. kapituluko laguntzak dira, lan arazoak dituzten taldeen kontratazioarako (EAEko batez bestekoaren arabera), %16,9 langileriak berritzeko laguntzak dira (efek-

tibo kopurua -8% an eta dirulaguntza kopurua -13% an murrizten duen programa), %16,5 autoenplegua sustatzera bideratzen dira (pertsonek eta laguntzen %80 inguruko hazkundera) eta %4 toki arloko enplegu-heziketarako laguntzak dira, horiek sustapen handia izan baitute urte honetan.

(b) Okupazio heziketa


Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren sailen arauketa eta dirulaguntza duten programen kasuan ez da aldaketa handirik egon araudian eta garaturiko programetan. Horrela, indarrean daude 83/2000 Dekretua, Okupazio Heziketako Programa arautu duena (eta 302/2000 Dekretua, aurrekoa aldatu duena), 303/2000 Dekretua, Junior-Enpresa programa arautu duena, 304/2000 Dekretua, alternantziako heziketa praktiken programa arautu duena, baita 2004ko apirilaren 7ko Agindua (EAEko EQUAL deritzenen baterako finantziario buruzkoa) eta dekretu horiek guztiek zenbait urtetarako garatzen dituzten gainerako aginduak ere. Horrela, honako programa hauetarako dirulaguntza ematen da:

1. Arauzko Lanbide Heziketa Zentroek emandako heziketa.
2. Metodologia, eduki edo baliabide mailako berrikuntza handiko jarduerak.
3. Enpresa arlo funtzionaleko eta enpresa kudeaketako heziketa.
4. Ekintzaile berrien heziketa (enpresa sustatzaileak).
5. Teknologia arloko (batez ere, informazioaren gizar-teak sorturiko aukerei buruzko arloak, hau da, informazioaren teknologia berriei eta telekomunikazioen garapenari buruzkoak), lanbide jardueraren arlo berrietako eta gremioetako nahiz arte-lanbideetako heziketa.

AURREKONTU ZUZKIDURA, DIRULAGUNTZA LERROEN ARABERA

	2003	2004	Ald. %
Arauzko LH Zentroek emandako heziketa	1.155.000	640.000	-44,6
Berrikuntza metodologiko handiko jarduerak	217.000	190.000	-12,4
Enpres. eta kudeaketako eremu funtzionalen heziketa	336.000	250.000	-25,6
Ekintzaile berrien heziketa	546.000	420.000	-23,1
Teknologia arloko heziketa	1.386.199	800.000	-42,3
Emakumeen heziketa berezia	520.000	350.000	-32,7
Talde berezien heziketa	840.000	643.763	-23,4
Kontratazio konpromisoko heziketa planak	2.477.237	1.276.237	-48,5
Erakunde arteko planak	1.295.000	695.000	-46,3
Orientazio Zerbitzuen eraginezko planak	977.000	577.000	-40,9
Europar Batasunaren planak	70.000	70.000	0,0
GUZTIRA	9.819.436	5.912.000	-39,8

EUSKO JAURLARITZAK HEZIKETARAKO EMANDAKO DIRULAGUNTZEN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritza.

6. Emakumeentzako heziketa berezia (aukera berdintasunerako ekintza positiboekin).
7. Talde berezien heziketa (ezinduak, immigranteak, presoak edo preso ohiak, drogamendekotasuna dutenak, IMIren jasotzaileak edo gizarte bazterkeriako arriskuan daudenak, etab.).
8. Kontratazio/sustapeneko konpromisoa duten heziketa planak.
9. Junior-enpresa programa eta alternantziako heziketa.
10. Enpresetako eta sindikatuetakoa kideen heziketa iraunkorra.
11. Erakundeen arteko planak.
12. Orientazio Zerbitzuen eraginezko planak.
13. Heziketa planak beste erkidego batzuekin edo EBko eskualdeekin (Europako Programak)

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren sailaren arauketa eta dirulaguntza duten heziketa programen kasuan ere aldaketa handiak egon dira araudian eta 2004tik garaturiko programetan, honako dekretu hauek onetsi direnetik: abenduaren 23ko 327/2003 Dekretua, enplegua hobetzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautu dituenak, eta abenduaren 23ko 328/2003 Dekretua, Kultura Ekintzailea eta Enpresa Sorrera bultzatzeari buruzkoa; gainera, indarrean mantendu da uztailaren 29ko 191/2003 Dekretua, Enpresei eta Sindikatuari emandako dirulaguntzak arau-

tu dituenak (bertako giza baliabideen trebakuntza hobetzeko heziketa planak garatzeko dirulaguntzak, euren jardueraren arloko gaietan), eta abenduaren 26ko 303/2000 Dekretua, Junior-Enpresa programa arautu duena. Gainera, 2004an EAEen Europako EQUAL ekimenari dagozkion laguntzak lortzeko bigarren deialdia egin zen (2004ko apirilaren 7ko Agindua).

Horrela, honako programa hauetarako dirulaguntza eman da:

1. Enplegurako orientazioa, Orientazio Zerbitzuen Euskadiko Sareak garatuta (Enplegu Euskadiko Zerbitzuaren zentro laguntzailea. 327/03 Dekretuko I. kapitulua).
2. Laneratze zerbitzurako heziketa (327/03 Dekretuko II. kapitulua); honako aukera hauek daude:
 - Aurretiazko baimenarekin: Okupazio profiletako heziketa berezia; lantokiko heziketa praktikoa; ezintasunera egokituriko heziketa; trebakuntzaren aurretiazkoa edo osagarria den oinarritzako heziketa; Heziketa horizontala edo zeharrekoa; telelana hedatzeko heziketa; enplegurako toki proiektuen edo proiektu sektorialen eraginezko heziketa (erakundeen arteko itunetan edo Europar Batasunak onetsitako planetan euskarrituriko proiektuak); presentziarik gabeko heziketa.

- Aurretiazko baimenik gabe: Kontratazio konpromisoko heziketa eta enplegu-heziketako proiektuei loturiko heziketa.
- 3. Enpresa sustapena (328/03 Dekretua); horren barruan kultura ekintzailea hedatzeko programak (II. kapitulua) eta enpresa sustatzaile berrien heziketa (II. kapitulua) sartzen dira. Gainera, 2002tik Gaztenpresa Fundazioari dirulaguntza ematen zaio Enpresa Sorrerarako Laguntza Integraleko programaren barruan; horren helburua ekimenak bultzatzea eta enpleguaren sorrera errazten duten ekintzak garatzea da, gazteei eta gizarteratzeko proiektuei arreta berezia jarrita, hiru jarduketa estrategiarekin: Enpresa ikaskuntzaren sustapena; Enpresa berrien sorrerarako laguntza; eta Enpresa finkapenerako laguntza.
- 4. Junior-enpresa programa (303/2000 Dekretua).

Azkenik, programa espezifikokoak daude, esate baterako, Enpresetako eta Sindikatuetako kideen Heziketa Iraunkorra (191/03) Dekretua eta Equal programa komunitarioaren baterako finantziakzioa.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak egindako okupazio heziketaren eraketa berria, une honetan, laneratzeko zerbitzuari heziketa eskaintzeko programetan oinarritzen da (2005ean emandako dirulaguntzen erdia), baita enplegurako orientazioan ere (dirulaguntzaren %30-35), eta enpresa sustapenerako programetan ere bai (%10 inguru).

Enplegu eta Heziketa Zuzendaritzak finantzaturiko heziketa ekintzen multzoa 2004an 14,5 milioi eurokoa izan zen (aurreko urtean baino –%30 gutxiago), eta 2005ean 18,2 milioi izan ziren (%25 gehiago); bertan, aipagarria da okupazio heziketan izandako hazkunde handia, sistema berria martxan jarri ondoren.

Enplegurako orientazio programan, azken urte honetan, 34.802 pertsona bildu dira halako ekintzetan, eta partaide bakoitzeko batez besteko gastua 180 €-koa izan da. Laneratzeko zerbitzuaren heziketan 2005ean 14.302 partaide egon dira eta horiek pertsona bakoitzeko 50 orduko heziketa egintzak egiten dituzte, eta partaide bakoitzeko batez besteko gastua 627 €-koa da. Enpresa sustapenerako ekintzen barruan, alderdi kuantitatiborik garrantzitsuena ekintzaile berrien heziketa da, partaide bakoitzeko 367 €-ko gastuarekin, eta bertatik 3.021 pertsona igaro dira. Kultura ekintzailearen hedapenaren gastua askoz ere txikiagoa da (pertsonako 39 €), eta partaideak 4.545 izan dira. Heziketa eskema berri horren barruko beste programa garrantzitsu bat junior-enpresa da, batez bestekotik gorako kostuarekin (pertsona bakoitzeko 279 €), eta, horren bidez, 401 pertsona trebatu dira. Azkenik, enpresetako eta sindikatuetako kideen Heziketa Iraunkorrean 2005ean emandako dirulaguntza guztien %6 sartu dira; urteroko 1,1 milioi euroko finantziakzio nahiko egonkorra egon da 16.043 partaidereantz, eta partaide bakoitzeko batez besteko kostua 68 €-koa izan da.

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAREN HEZIKETA EKINTZAK (2004-2005)

	2004					2005				
	Ekintzak	Ord.	Partaid.	Dirulaguntza		Ekintzak	Ord.	Partaid.	Dirulaguntza	
				Guzt. ¹	Dirul./part. ²				Guzt. ¹	Dirul./part. ²
Enplegurako orientazioa			14.626	4.794	328			34.802	6.280	180
Okupazio heziketa	102	161.303	1.921	3.339	1.738	578	736.479	14.302	8.962	627
Enpresa sustapena	367	17.652	5.352	1.166	218	547	23.819	8.190	1.637	200
Kultura ekintzailearen hedapena	34	1.393	3.319	130	39	56	1.908	4.545	178	39
Enpresa sustatzaile berriak	83	16.259	1.409	704	500	241	21.911	3.021	1.109	367
Gaztenpresa ³	250	624	332	532	250	624	350	561		
Junior-enpresa	41	25.200	210	61	290	87	53.234	401	112	279
Enpresako kideen hez. iraunk.	297	11.266	18.771	1.066	57	280	12.943	16.043	1.094	68
Enpresak.	207	1.790	4.639	322	69	191	4.687	4.015	304	76
Sindikatuak	90	9.476	14.132	744	53	89	8.256	12.028	790	66
EQUAL				4.066						
GUZTIRA	807	215.421	40.880	14.492	355	1.492	826.475	73.738	18.085	245

(1) €-ak milioitan.

(2) €.

(3) enpresak eta enpleguak.

Iturria: Heziketa eta Enplegu Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila.

(c) Enplegu zerbitzuak: lanbide

EAEko Enplegu Lanbide zerbitzua orientazioko, laguntzako eta okupazio-heziketako zerbitzua da, eta Enplegu 2002-2006 Erakunde arteko Plana onetsi zenean jarri zen martxan. Langaik 1996tik jarduten zuen, EEZPen enplegu agentzia laguntzaileztat, lan merkatuko bitartekotzat jarduketetan.

Enplegu zerbitzu horrek EGAILANekiko mendekotatzen organikoa dauka (Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saileko Heziketa eta Enplegua Sustatzeko Sozietate Publikoa); bertan, bitartekotzat zerbitzu horiek ez ezik, informazioko, lanbide orientazioko eta enplegua sustatzeko zerbitzuak ere eskaintzen dira.

Lanbidek, 2005ean, 131.614 enplegu eskari bildu ditu, aurreko urtean baino %31,4 gehiago; horietatik, iturri ho-

rren arabera, %78 langabezia egoeran daude (hau da, 102.252 pertsona, eta BJAk 2005eko laugarren hiruileko-rako emandako datua 49.100 pertsonakoa izan da); zerbitzu horren eta berorren zentro laguntzaileen bidez, 13.705 lanpostu eskaini dira (2004an baino 1.642 gehiago).

Lanbideren bitartez eskainitako eta eskaturiko lanpostuen artean, titulazio edota espezializazio txikia iraunkor mantendu da (enplegu zerbitzu publikoetan, "kalitateko" enpleguetan langileria hautatzeko enpresa pribatuen bidez tramitatzen baita hori), batez ere zerbitzu sektorean (esate baterako, saltzaileak, garbiketako langileak, administrariak, bilketako laguntzaileak, hipermerkaturko zuzkiztailea, merkataritza agentea, inkestatzaila, tabernaria, telefonia zentralako operadorea, sukaldaria, etab.), industrian eta eraikuntzan (mekanikaria-egokitzaila, elektrizitateko teknikaria).

ENPLEGU ESKATZAILE AKTIBOAK LANBINDE-N

	Guztira	Alda. % 2004-05	Langab. %	Gizona	Emak.
16-24	30.436	21,4	89	17.020	13.416
25-34	56.933	32,3	72	25.258	31.675
35-44	28.282	36,4	73	12.080	16.202
45-54	12.832	39,9	81	5.233	7.599
55 eta +	2.927	45,3	84	1.435	1.492
Guztira	131.614	31,4	78	61.137	70.477

Iturria: Lanbide.

LANBINDE-REN BIDEZ GEHIEN ESKAINI EDO ESKATU DIREN LANBIDEAK

Okupazioa	Eskain.	Eskaria	EI*
ESKARI HANDIAGOIA			
Merkataritzaren mendekoa, oro har	250	21.187	1,2
Garbiketako langileak edo garbitzaileak, oro har	758	18.559	4,0
Administrariak, orokorrean	440	17.781	2,5
Hipermerkaturko zuzkiztailea	311	12.331	2,5
Zama-lanetarako langilea, biltegia	394	11.479	3,4
Metalgintzako eta fabrikazioko behargina	202	10.441	1,9
ESKAITZA HANDIAGOIA (aurrekoak izan ezik)			
Merkataritza agentea	902	4.338	20,8
Elkarrizketatzailea/inkestagilea	753	465	161,9
Informazioko azafata	480	1.315	36,5
Tabernaria, orokorrean	408	3.575	11,4
Zentral telefonikoko operadorea	379	5.724	6,6
Sukaldaria, orokorrean	361	1.767	20,4
ENPL. INDIZEAREN ARABERA (aurrekoak izan ezik)			
Aseguru agentea	191	151	126,5
Produktuak erakusten dituen establezimenduetan	149	155	96,1
Sendagilea, medikuntza orokorra	36	83	43,4
Dastatze-azafata	151	412	36,7
Arkitekto teknikoa	46	143	32,2
Telefono bidezko saltzailea	216	767	28,2

(*) Lanbide Enplegagarritasun Indizea, enpresek lana eskaintzen duten 100 pertsonako eskaintako lanpostuak.
Iturria: Lanbide.

5.4.3. Lanbide heziketa iraunkorra EAEn

Lanbide heziketa iraunkorra gure herriko Lanbide Heziketa Sistemaren barruko hiru azpisistematariko bat da, eta horren helburua enplegaturiko langileei heziketa iraunkorra eta birziklapena eskaintzea da. Pertsonen eta enpresen arteko heziketa iraunkorreko jarduketak, EA-En, Lanbide Heziketa Iraunkorrerako Euskadiko Fundazioaren (HOBETUZ) bidez kudeatzen dira, baita Enplegu Heziketarako Fundazio Hirukoitzaren bidez ere⁸. Ekintza hauen finantziakzioa, batik bat, honako honen bitartez egiten da: soldatepeko pertsonen nominen gaineko lanbide heziketako kuotak, Europako Gizarte Fondoak emandako zenbatekoak (Heziketa Iraunkorraren eta Enpresa Ekimena Indartzearen arloko Eskualde Anitzeko Jarduketa Programa Eragileen bidez emandako zenbatekoak) eta estatuko Administrazioari (EEZPri esleitura) edo Eusko Jaurlaritzako (Hobetuz) aurrekontu publikoetako fondoak.

2001eko aldaketaren ostean, Europan gai honetan dagoen arauketa berriaren ondorioz, erakunde horiek heziketa iraunkorrera bideraturiko laguntzak bi deialdi motaren bidez ezartzen dira; alde batetik enpresei zuzendutakoak (edo enpresa taldeei zuzendutakoak, Heziketako Banakako Baimenak-HBB ere barne⁹), eta horietan enpre-

sak baterako finantziakzioa eman behar du¹⁰; bestetik, banaka okupaturiko langileei zuzendutakoak (heziketa plan mota desberdinetarako Programa Kontratuen bidez —Sektore artekoak, Sektorekoak, Ekonomia Sozialekoak eta Langile Autonomoenak—), dirulaguntza publikoen deialdien bidez finantzatuta. Gainera, Ekintza Osagarriak eta Heziketarako Laguntzak ere badaude.

Fundazio Hirukoitzak Enpleguaren Sustapenerako kudeaturiko heziketa ekintzei buruzko behin-behineko datuek aditzera ematen dutenez, heziketako pertsona kopuruak eta zenbatekoak (hobariak eta dirulaguntzak) hazkunde handia izan dute 2005ean, sistema berria martxan jarri ondoren eta enpresek nahiz langileek horren berri izandakoan.

Egoitza soziala EAEn duten enpresentzako Heziketa Iraunkorreko Ekintzetan (lehenengo Eskari Planak), enpresa hezitzaileen kopurua (heziketaren hasiera eta hobarien aplikazioa jakinarazi dutenak, eta heziketa banaka —bertako langileentzat— edo taldeka —beste enpresa batekin edo batzuekin, antolatzailea enpresatariko bat edo antolaketa egitera mugatzen den beste erakunde bat izanik—) bikoiztu egin da 2005ean, batez ere tamainarik txikienekoen artean, eta Estatu guztikoan %3,9 izatetik

HEZIKETA IRAUNKORREKO EKINTZAK EAEKO ENPRESETAN (EHFH) (HOBARI SISTEMEN AURRERAPENA, ENPRESAKO ENPLEGU GERUZAREN ARABERA)

	Enpresa hezitzaileak				Esleituriko kreditua (€-ak milatan)				Jakinarazitako partaideak			
	2004	2005	Ald. %	Estat. %	2004	2005	Ald. %	Estat. %	2004	2005	Ald. %	Estat. %
1-5	219	525	139,7	2,4	101	285	181,1	2,9	295	913	209,5	2,9
6-9	114	279	144,7	3,7	90	251	177,7	5,0	354	880	148,6	5,3
10-49	468	1.116	138,5	5,3	1.045	2.876	175,3	7,1	3.081	9.035	193,2	7,2
50-99	192	383	99,5	7,1	1.125	2.521	124,2	9,2	2.796	6.898	146,7	8,1
100-249	140	248	77,1	6,6	1.737	3.550	104,3	7,8	3.490	8.562	145,3	6,7
250-499	53	92	73,6	7,1	1.135	2.367	108,6	7,9	2.355	6.050	156,9	7,0
500-999	39	38	-2,6	6,1	1.501	1.834	22,2	6,2	2.994	4.923	64,4	5,3
1.000-4.999	30	32	6,7	7,2	3.404	4.713	38,5	7,8	7.669	10.039	30,9	4,7
4.999 baino g.	2	3	50,0	3,9	3.084	4.057	31,5	5,8	5.265	7.905	50,1	3,3
Guztira	1.258	2.716	115,9	4,4	13.227	22.453	69,7	7,0	28.324	55.205	94,9	5,4

Iturria: Enpleguko Heziketarako Fundazio Hirukoitza.

⁸ 2004ko urtarrilaren 1etik Lanbide Heziketa Iraunkorreko Azpisistema berria sartu zen indarrean (1046/2003 Errege Dekretuaren bidez araututa), eta 2004ko azaroan FORCEMek eta Enpleguko Heziketarako Fundazio Hirukoitzak (Espainian Heziketa Iraunkorra kudeatzeko ardura duen erakundea) bat egin zuten, eta horrenbestez, Enpleguko Heziketarako Estatuko Fundazioa sortu arte (1046/2003 Dekretuan bihurtze hori dago aurreikutsita, eta bertako Patronatuaren autonomia erkidegoetako ordezkariak sartzen dira) berak kudeatuko ditu Eredu Berriari esleituriko jarduerak.

⁹ Horien helburua langileek titulazio ofizialean onarturiko heziketa ekintzak egin ahal izatea da (enpresarako kosturik gabe).

¹⁰ Lanbide Heziketaren kontingentziaren eraginezko kotizazioa duten enpresek (enpresak soldataren %0,6 ordaintzen du horretarako eta langileak %0,1eko ekarpena egiten du) Heziketa Iraunkorrerako kreditua dute; horren zenbatekoa, berriz, enpresak kontzeptu horretan (aurreko urtean) ordaindutako zenbatekoari Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean urtero ezarritako hobari-ehunekoa aplikatzearen eraginezkoa da (enpresen tamaina aintzat hartuta). Eskariko Planak langilearen tamainaren arabera banatzen dira, eta horrela, enpresako planak (35 langile edo gehiago), enpresa taldeko planak (50 edo gehiago) edo bildutakoak (100 edo gehiago) izan daitezke.

HOBETUZ DEIALDIEN EMAITZAK

	Onetsitako planak				Langile kopurua				Dirulaguntza (€-ak milatan)			
	2002	2003	2004	2005*	2002	2003	2004	2005*	2002	2003	2004	2005*
GUZTIRA	946	910	83	469	108.432	104.293	12.293	61.174	20.873	21.169	5.575	10.517
Enpresa eta talde plana	724	695	0	386	73.622	67.765	0	39.113	11.873	12.197	0	7.160
Bildutako planak	60	48	0	0	10.724	9.298	0	0	1.593	1.589	0	0
Sektore arteko planak	19	17	0	0	8.233	9.111	0	0	2.164	2.071	0	0
Banak. planak eta katalog.	143	150	83	83	15.853	18.119	12.293	22.061	5.243	5.312	5.575	3.357

(*) 2005erako itxi gabeko ebazpen datuak dira.
Iturria: Hobetuz Fundazioa.

%4,4 izatera igaro dira. Gauza bera gertatzen da jakinarazitako partaideen bolumenarekin¹¹, 2004an 28.324 izatetik 2005ean 55.205 izatera igaro baitira, nahiz eta horien %75 100 enplegatutik gorako enpresetakoak izan (ia %60 500 enplegatutik gorako enpresetakoak), eta Estatuko %5,4 dira. Azkenik, enpresei heziketa ekintza horiek egiteko esleituriko kredituek¹² (Gizarte Segurantzari Lanbide Heziketaren eraginezko kotizazioen hobarien ondorioz dagokion zenbatekoa) ia %70eko hazkundera izan dute, eta bikoiztu eta, kasu batzuetan, hirukoiztu egin dira 500 enplegatutik beherako ia guztien kasuan; 22,5 milioi € eta Estatuko gutzizkoaren %7 dira. Kredituek partaideek baino hazkunde txikiagoa izan dutela kontuan

hartuta, 2005ean partaide bakoitzeko batez besteko kostua 407 €-koa da, 2004an baino –%13 txikiagoa. Ez daukagu heziketako banakako baimenei buruzko daturik, baina horien bolumena orain arte beti izan da 100etik beherakoa.

Langilean heziketa iraunkorrerako Programa Kontratuari dagokionez (Sektore arteko Heziketa Planetarako, Plan Sektorialetarako, Ekonomia sozialeko Planetarako eta Langile Autonomoen Planetarako), partaide kopuruak enpresen planen kasuan baino hazkunde handiagoa izan du. 2004ko bolumena baxua dela aintzat hartuta, 1999-2003 bosturtekoko batez besteko zifra 10.000 partaidekoa izan da (Eskainitako Planetako partaideak); gainera, 2005ean jakinarazitako (ez amaitutako) 18.768 partaideek jauzi oso garrantzitsua eman dute partaidetzan. Hazkunde handi hori plan mota guztietan gertatzen da, baina aipagarria da Heziketa Sektorialeko Planen garrantzia (gutzizkoaren %71). Nolanahi ere, planetan ez da %3tik gorako hazkunderik egon, Estatuari dagokionez, Ekonomia Sozialeko planen kasuan izan ezik, horiek %21,4ko hazkundera izan baitute. Plan horien finantziarioari dagokionez, Estatu mailan partaide bakoitzeko programaturiko batez besteko kostuaren datua baino ezin dugu eman, eta hori 460 €-koa izan da 2005ean.

Lanbide Heziketa Iraunkorrerako Euskadiko Fundazioaren bidez (Hobetuz) egiten diren heziketa iraunkorreko jardueri dagokionez (EAEn landunen heziketa iraunkorren kudeaketa egiten duen organismoa), Hobetuzen Patronatuak (patronalaren, sindikatuen eta Eusko Jaurilaritzaren ordezkariak), Heziketa iraunkorren sistemak Espainian 2004an izandako erreformaren finan-

EHFHREN PROGRAMAKO KONTRATUETAKO PARTAIDEAK (PLAN ETA HEZIKETA EKINTZA MOTAREN ARABERA)

	2004	2005
Guztira	1.238	18.768
Plan mota		
Sektore arteko Heziketa Plana	14	1.659
Ekonomia Sozialeko Heziketa Plana	1.209	3.622
Heziketa Sektorialeko Plana	15	13.410
Lang. Autonomoen Heziketa Plana		77
Heziketa ekintzaren izena		
Erabiltzailearen informatika / Ofimatika	10	2.707
Laneko arriskuen prebentzioa		1.254
Hizkuntzak	134	1.584
Elikadura segurtasuna: manipulaz.eta kontr.	15	1.781
Giza baliabideen kudeaketa	501	1.240
Laneko osasuna eta lanbide gaixotasunak		684
Ekonomia Sozialeko enpresen kudeaketa	141	1.127
Zerbitzu pertsonalak		558
Kalitatea	18	581
Bezeroaren arreta/Zerbitzuaren kalitatea		709
Gainerakoa	419	6.543

Iturria: Enplegu Heziketarako Fundazio Hirukoitza.

¹¹ Aintzat hartu behar da pertsona batek heziketa ekintza bat baino gehiago egiteak egindako ekintza kopuruaren araberako partaide kopurua sortzen duela.

¹² Izan ere, intereseko zifra kreditua da (Heziketa Ekintzetarako erabilitako Lanbide Heziketako kredituaren zenbatekoa, heziketa taldeen finantziarioaren jakinarazpena egin ondoren), baina AAEEk ez dute informazio hori eman. 2004ko datuak, Estatu osorako, aditzera ematen du esleituriko %60 baino gutxiago erabili dela.

tziazio arazoekin jarraituz (heziketa ekintza horiek Gizarte Segurantzaren duten kotizazioetako hobarien sistema berria ere aintzat hartuta), EAEko Kualifikazioen Sistemari loturiko deialdia baino ez du argitaratu 2005ean (moduluak dituen katalogoa), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren erakunde laguntzaile-tzat¹³, baita enpresei Enpresako Planen bitartez bideratzen zaiena ere.

Horrela, Hobetuzen jarduera (2005ean) 2000-2003koaren erdia izan da. 2005ean 469 plan onetsi dira 61.174 langilerentzat. 2005ean 10,5 milioi €-ko dirulaguntzak eman dira, eta beraz, langile bakoitzeko heziketako dirulaguntzaren batez bestekoa (plan horietan) 172 €-koa da,

2004koa baino apur bat txikiagoa, banakako planetarako dirulaguntzetan egon den murriztapenaren ondorioz.

Europako eskualde-datuekiko konparazioak aditzera ematen duenez, 356 eskualdeetatik (nuts-2), EAE 202. postuan dago, langileek heziketa iraunkorreko jardueretan duten partaidetza mailari dagokionez. Eurostaten datuek adierazitakoaren arabera, 2004an %6,5eko ehunekoa egon da (halako jarduerak egin dituzten 80.500 langile), eta EB-15eko batez bestekoa %9,3koa da (euroaren zonan %7,3) eta Espainiako batez bestekoa %4,7koa. Lehenengo postuetan, Europa iparraldeko herriak daude (Suedia, Finlandia, Danimarka), eta horien ehunekoak %20-30 bitartekoak dira.

¹³ 2004an, Hezkuntza Sailak, Lanbide Heziketako eta Ikaskuntza Iraunkorreko Sailburuordetzaren bidez, esan zuen beharrezkoa zela langileen heziketa iraunkorrerako dirulaguntzen deialdia bere izenean egitea, eta Hobetuz laguntza horien kudeaketarako erakunde laguntzailea zela adierazi zuen.

6


Prezioak, kostuak, produktibitatea eta errentak

6.1. Kontsumo ondasunen prezioak

EAEan, Estatuan bezala, inflazioak goranzko joera mantendu du, eta berriro ere handitu egin da (urte amaieran) EMBko prezioekiko aldea; horrela, euroaren zonako herrien artean inflaziorik handiena duena da, besteak beste, energiaren prezioek izandako eragin handiaren on-

dorioz (petrolioaren prezioek, eurotan adierazita, %40tik gorako batez besteko hazkundea izan dute). 2005ean, kontsumo ondasunen prezioek %3,3ko urteko batez besteko hazkundea izan dute, 2004an baino hiru hamarren gehiago, eta tasa hori abenduan %3,7koa izan da (aurre-

BATEZ BESTEKO ETA AZPIKO INFLAZIOA (URTERIK URTERAKO TASA LEUNDUA)



Iturria: Geuk landuta, ElNen datuetan oinarrituz.



ko urtean baino bost hamarren gehiago). Goranzko joera egon da urte osoan, eta hazkunderik handienak apirilean, irailean eta abenduan izan dira.

Produktu energetikoek %9,8ko hazkundera izan dute urte amaieran (2004an %6,2 edo 2003an hazkunderik ez), eta erregeaiek eta karburanteek %13,3ko hazkundera izan dute abenduan; horrela, produktu energetikorik gabe KPIk %2,8ko hazkundera izango zuen urtean (batez beste). Hala eta guztiz ere, azpiko inflazioa¹ azken urteetako tase-tan mantendu da (%2,7ko urteko batez bestekoa).

Ondasun eta zerbitzu taldeen bilakaera desberdina izan da. Lehenengo taldean hazkunde handiak egon dira: garraioa (%5,6ko batez besteko hazkundera, 2004an baino puntu eta erdi gehiago), alkohol-dun edariak eta tabakoa (%4,7), etxebizitza (%5eko batez besteko hazkundera, baina abenduan %6,4) eta ostalaritza (%4,4). Aldiz, prezioen beherakadak egon dira komunikazioetan (-%1,6, aurreko urtean baino handiagoa) eta aisialdian eta kulturean, edo handitze txikiak egon dira arropetan eta oinetakoetan (%0,7), etxeko tresnetan eta zerbitzuetan (%2,2) eta osasun zerbitzuetan (%1). Azkenik, bitarteko hirugarren talde bat EAEko batez bestekotik

gorako hazkundera duten talde batzuek osatzen dute, baina horiek murriztapena izan dute aurreko urteari dagokionez: alkohol-dunak ez diren edariak eta janariak (6 hamarren gutxiago, baina abenduan %4,3ko hazkundera, 2004an baino puntu bat gehiago) edo irakaskuntza (aurreko urteko batez bestekoa baino bi hamarren gutxiago). Beste ondasun eta zerbitzu batzuen azken taldea batez bestekotik behera hazi da, baina aurreko urtean baino 0,6 puntu gehiago izan ditu.

Ondasun eta zerbitzu taldeen inflazio garrantzia baloratzeko, prezioen indizearen hazkundera ez ezik, horrek "erosketa-otzaren" duen garrantzi erlatiboa ere aintzat hartu behar da. Horrela, azpitalde batzuek iraunkortasuna izan dute azken urteotan, kontsumoko prezioen gainean egindako presio handiagoaren eraginez. Lehenengo eta behin, janariaren prezioek %12,8ko hazkundera izan dute azken hiru urtekoan (2005ean %3,7), eta aldi horretako inflazioaren laurdenera iristen dira. Ondoren, jatetxeak, tabernak eta kafetegiak datoz, ibilgailuei loturiko ondasunekin nahiz zerbitzuekin eta ibilgailuekin eurekin batera. Bi talde horietariko bakoitzak KPIren hazkunderaren %18 izan du hiru urtekoan edo 2005ean, eta, elikadurarekin ba-

¹ Energetikoak ez diren zerbitzuen eta ondasun landuen prezioak. Azpiko inflazioa edo inflazioaren erdigunea osagai iraunkorra edo epe luze-rakoa da, osagai iragankorrei edo epe laburrerakoei kontrajarrita. Neurririk ohikoena Zerbitzuen Prezioen eta energetikoak ez diren Ondasun Landuen Indizearen (ZPOLI) bidez kalkulatzen dena da; izan ere, ondasun energetikoen eta landu gabeko produktuen prezioak eragilearen kontrolatik kanpo zergatien eraginpean daude (klimatologia, zerga-arloa, etab.), eta aldiaren behingoak eta iragankorrak dira.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

	EAE				Estatua	
	Urteko b.best.		Abendua		B. b.	Ab.
	2004	2005	2004	2005	2005	2005
INDIZE OROKORRA	3,0	3,3	3,2	3,7	3,4	3,7
Alk. gabeko janariak eta ed.	4,3	3,6	3,4	4,3	3,2	4,2
Alkoholodun edariak eta tabak.	3,7	4,7	4,9	4,9	5,1	5,1
Arropak eta oinetakoak	0,7	0,7	1,6	1,0	1,4	1,4
Etxebizitza	4,2	5,0	3,6	6,4	5,3	6,0
Etxeko tresnak eta zerbitzuak	2,2	2,2	2,4	2,2	2,1	2,2
Medikuntza eta osasun zerb.	0,7	1,0	1,2	1,5	0,9	0,7
Garraioa	4,0	5,6	5,3	6,0	6,3	6,2
Komunikazioak	-1,1	-1,6	-0,7	-1,7	-1,6	-1,7
Aisialdia eta kultura	-0,2	-0,3	0,3	0,1	-0,2	0,6
Irakaskuntza	4,4	4,2	4,6	4,1	4,2	4,1
Hotelak, kafetegiak eta jatetx.	4,0	4,4	4,2	4,3	4,2	4,3
Beste ondasun eta zerbitzu b.	2,6	3,1	2,7	3,5	3,1	3,4

Iturria: EIN.

EAE INFLAZIOARIK HANDIENA DUTENAK (2005 ETA 2002-2005 LAURTEKOAK)

2005	Pisua	hazk.	Eragina	2002-2005	Pisua	hazk.	Eragina
INDIZE OROKORRA	1000.00	3.29	3.29	INDIZE OROKORRA	1000.00	9.75*	9.49*
ERAGINIK HANDIENAKOAK	716.96	4.34	3.11	ERAGINIK HANDIENAKOAK	594.31	12.39	7.36
Janariak	207.67	3.70	0.77	Janariak	204.27	12.78	2.61
Ibilgailuen ondasunak eta zerbitzuak	64.09	9.15	0.59	Jatetxeak, tabernak eta kafetegiak	125.49	12.79	1.61
Jatetxeak, tabernak eta kafetegiak	125.55	4.47	0.56	Ibilgailuen ondasunak eta zerbitzuak	64.91	18.37	1.19
Elektrizitatea, gasa eta beste erreg. batz.	40.55	5.15	0.21	Etxebizitzari loturiko beste zerbitzu b.	36.06	16.89	0.61
Etxebizitzari loturiko beste zerbitzu batz.	36.45	5.37	0.20	Aseguruak	40.07	9.52	0.38
Tabakoa	19.08	6.70	0.13	Ibilgailuak	63.92	5.11	0.33
Aseguruak	41.39	2.87	0.12	Tabakoa	19.16	16.72	0.32
Ibilgailuak	59.71	1.78	0.11	Elektrizitatea, gasa eta erregaia	40.44	7.85	0.32
Irakaskuntza	20.69	4.20	0.09	GAINERAKO HAZK. HANDIENAK	113.39	12.59	1.43
Zaintza pertsonaleko ondasunak eta zerb.	26.20	3.21	0.08	Finantza zerbitzuak	0.22	38.00	0.01
Altzariak eta beste gauza batzuk	23.00	3.19	0.07	Ospitaleko zerbitzuak	1.17	23.65	0.03
Etxebizitzaren alokairua	16.27	4.31	0.07	Garraio zerbitzuak	12.32	14.60	0.18
Garraio zerbitzuak	12.30	5.04	0.06	Irakaskuntza	20.90	13.96	0.29
Etxeko beste ondasun eta zerbitzu batz.	24.03	2.53	0.06	Etxebizitzaren alokairua	15.85	13.89	0.22
GAINERAKO HAZK. HANDIENAK	22.33	4.27	0.10	Etxebizitzaren kontserbazioa	12.92	13.83	0.18
Ospitaleko zerbitzuak	1.14	9.38	0.01	Gizarte zerbitzuak	1.85	12.41	0.02
Finantza zerbitzuak	0.22	5.15	0.00	Jolas, kirol eta kultura zerbitzuak	13.77	11.52	0.16
Erabilera pertsonaleko gauzak	4.30	4.02	0.02	Osasun eta hortz zerbitzuak	10.12	10.73	0.11
Etxebizitzaren kontserbazioa	11.37	3.99	0.05	Liburuak, prentsa eta papergintza	18.57	9.73	0.18
Beste zerbitzu batzuk	5.31	3.95	0.02	Etzerako zuntzak	5.71	8.88	0.05
GAINERAKOAK	260.71	0.29	0.08	GAINERAKOAK	292.30	2.39	0.70

(*) Hezkunde tasa eta kalkulaturiko eragina ez datoz bat, laurtekoaren batez besteko haztapena erabiltzen delako.


Iturria: EIN eta geuk landuta.

tera, prezioen igoeraren %60 azaltzen dute. Inflazio handiko beste talde batzuk, izan ere, etxebizitzarekin erlazionaturiko zerbitzuak, tabakoa, aseguruak eta elektrizitatea, gasa eta erregaia izan dira. Talde horrek prezioen hazkunderaren %80 eragin du hirurtekoan eta 2005ean. Gainera, beste zenbait taldek ere prezioen hazkunde oso handiak izan dituzte; hala eta guztiz ere, "otzaran" garrantzi txikiagoa dutenez, eragin txikiagoa izan dute KPIIn; esate baterako, garraio zerbitzuak (batik bat, hiriko eta hiri arteko garraio publikoa), ospitale nahiz finantza zerbi-

tzak, irakaskuntza (2005ean haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta unibertsitateko hezkuntza), eta etxebizitzaren alokairua eta kontserbazioa.


Elikadurari dagokionez, 2005ean elkarren aurkako jokabidea ikusi da landu gabeko produktuen prezioen (%4,3ko hazkunde handia; 2004an %5 eta 2003an %5,9; baina 2005eko abenduan %5,7ko urterik urterako tasa) eta produktu landuen artean; azken horiek, izan ere, hazkunde tasa txikiagoa dute, %3,3 (aurreko urtean

NEKAZARIEK JASOTAKO PREZIOEN BILAKAERA ETA KPI (LANDU GABEKO JANARIAK)



Iturria: EIN eta NAEM.

KONTSUMO AMORTIZATUKO PREZIOEN INDIZEA EUROPAR BATASUNEAN




Iturria: Eurostat.

baino sei hamarren gutxiago). 2005ean aipagarria da honako produktu hauen prezioak izandako hazkundera: ardi-okela (%10,6 urtean eta 2002tik %23), kontserbako frutak eta fruitu lehorrak (%9,9 urtean eta 2002tik %23), olioak eta koipeak (%9,7 urtean eta lehenengo hiru urte-

koan %28tik gora), ogia (%5,8 eta 2002tik %21,4), arrain freskoa eta izoztua (%5), behi-okela (4,8), lekale eta barazki freskoak (%4,5), krustazeoak, moluskuak eta arrain-prestakinak (%4,5) eta fruta lehorrak (%4,4 2005ean, eta 2002tik ia %25).

INFLAZIOAREN DAGOEN ALDEA EMBREN ETA ESPAINIAREN ARTEAN TALDEKA



Iturria: Eurostat.

Nekazariak kobratutako prezioek %3,2ko hazkundeak izan dute 2005ean, aurreko urtean %1,5eko hazkundeak soilik izan ondoren; hala eta guztiz ere, ikusten denez, hazkunde hori landu gabeko elikagaiena baino askoz ere txikiagoa izan da, eta hasierako eta amaierako prezioen arteko aldeak gora egin du. Nolanahi ere, nekazaritza produktuen prezioen (%5,1eko hazkundeak) eta abeltzaintzako produktuen (-%5eko beherakada) arteko alde handiak ikusi dira.

Azkenik, prezioek Espainiaren eta euroaren zonaren artean duten aldeak gunerik gorena lortu du 2005ean (2002tik aurrera); hain zuzen ere, 2005eko urteko batez besteko aldea 1,2 puntukoa da eta abendukoa 1,5 puntukoa; horrela, Espainia, abenduan, EMBko herriko inflazionistena da eta EB-25eko hirugarren herriko inflazionistena (Letoniaren eta Esloveniaren atzetan, hurrenez hurren %7,1 eta %3,9). Izan ere, 2004ko urtariletik (inflazioaren aldeak lau hamarreneko gutxieneko balioa lortu zuenean) goranzko joera iraunkorra egon da.

Kontsumo Amortizatuko Prezioen Indizeak² (KAPI) %3,4ko urteko batez besteko hazkundeak adierazten du Estatuan, aurreko urtean baino hiru hamarren gehiago, eta EMBko batez bestekoa %2,2koa da, 2004an baino hamarren bat gehiago. Abenduko tasa, Estatuan %3,7koa da (aurreko abenduan baino lau hamarren gehiago), eta EMBn 2,2koa da (2004koa baino bi hamarren gutxiago). Hala eta guztiz ere, 2005ean inflazio tasa herri gutxi murriztu dute; batez ere Austriak, Frantziak eta Italiak (0,9, 0,4 eta 0,3 puntu, hurrenez hurren), eta Alemaniak, Luxenburgok eta Portugalek hamarren bat. Gainerako herrietan inflazio tasak gora egin du, eta, esate baterako, hazkunde hori Finlandian puntu batekoa izan da eta Holandan nahiz Belgikan bederatzi hamarrenekoa.


Ondoko grafikoan ikusten denez, gure inflazio aldea (euroaren zonarekiko) azken bost urteotan sustatzen duten ondasun eta zerbitzu talde nagusiak elikadura, arropak nahiz oinetakoak, ostalaritza eta irakaskuntza dira. Izan ere, ondasun energetikoez ez dute halako alderik sortu prezioetan (aldiz, aldeak murriztu egin dituzte, esaterako, aisialdiak eta kulturak edo medikuntzak), eta eragile nagusiak landu gabeko janariak eta etxebizitzari loturiko zerbitzu batzuk izan dira.

6.2. Industria ondasunen eta lehengaien prezioak

2005ean apurtu egin da industria ondasunek 2003ko amaieratik hona izandako goranzko joera handia, baina IPRIren urteko batez bestekoak oraindik ere %5,3ko hazkundeak adierazten du, 2004koa baino puntu bat handiagoa. Hala eta guztiz ere, abenduko urterik urterako datuek hobeto adierazten dute joera aldaketa hori: 2005ean %4,3ko tasan hazi dira, aurreko urtean %6,6ko hazkundeak izan ondoren.

Indizeko osagaien beheranzko ibilbide hori, batez ere, azken aldietan tasarik handienetan hazi direnen eraginpean dago (batez ere, osagai energetikoa, horrek urrira arte mantendu baitu bere hazkundeak, eta 2005ean %17ko batez besteko hazkundeak izan du), baita bitarteko ondasunen eraginpean ere, horiek moderazio joera argia erakutsi baitute urte hasieratik (%5,2ko batez besteko hazkundeak, 2004an baino 1,7 puntu gutxiago, baina abenduan tasa %1,9ra murriztu da, aurreko urtean baino

² **Kontsumo Amortizatuko Prezioen Indizeak** (KAPI) Europar Batasuneko inflazioaren neurri komuna eskaintzen du. Konparazio homogeneo horiek lortzeko, KPIa jasotako kontsumo-partiden salbuespenak egin behar izan dira (esaterako, KAPItik salbuesita daude Osasun zerbitzuak, Arauturiko irakaskuntza, Dirulaguntza duten sendagaiak eta produktu farmazeutikoak, etab.).

IPRIren Bilakaera (Urteko Tasa Leundua)


Iturria: Eustat "IPRI".

Metalurgia sektoreko prezioak


Iturria: EIN.

ia 8 puntu gutxiago). Bestalde, kontsumo eta ekipo ondasunen prezioen bilakaera egonkorragoa izan da. Lehenengoek %1,7ko hazkundera izan dute (aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago), baina ondasun iraunkorretan gorakada egon da; eta ekipo ondasunen prezioek

%1,8ko urteko batez besteko hazkundera izan dute (2004ko tasa baino zortzi hamarren gehiago).

Sektoreka, aipagarria da metalurgian eta metalezko gaitan gertaturikoa, horrek garrantzi handia baitauka

EAko INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

		Batez bestekoa			Abendua	
		2003	2004	2005	2004	2005
Indize Orokorra		1,9	4,3	5,3	6,6	4,3
Ond. helb. ekonomik.	Energia	-0,1	5,5	17,0	8,9	23,4
	Kontsumo ond. – guzt.	1,5	1,9	1,7	2,3	1,7
	– iraunkorra	0,4	0,9	2,2	1,4	2,0
	– iragankorra	2,7	2,3	1,5	2,9	1,6
	Ekipoko ondasunak	3,3	1,0	1,8	1,2	1,5
		Bitarteko ondasunak	1,9	6,9	10,7	1,9
Sektoreak	Erauzketa industriak	4,4	9,5	11,5	14,4	5,2
	Manufaktura industria	2,0	4,6	5,3	6,8	4,2
	Elikadura industria	2,6	3,1	1,1	3,2	1,3
	Ehungintza eta jantzigintza	-1,6	0,5	2,7	1,9	2,8
	Larrugintza eta zapatagintza	0,2	-4,9	-1,0	-4,3	3,9
	Zurgintza	-1,2	0,3	0,1	-0,3	0,4
	Papera, edizioa eta grafikoak	3,0	-0,4	0,4	1,4	0,1
	Petrolioaren fintzea	1,8	9,6	23,7	13,1	30,8
	Industria kimikoa	0,9	2,7	4,5	4,4	3,1
	Kautxua eta plastikoa	2,4	1,0	1,8	1,5	1,9
	Metalarena ez den industria	2,0	1,4	2,4	2,0	3,1
	Metalurgia eta metalezko g.	2,7	10,7	6,9	15,9	2,0
	Makineria	4,1	0,2	2,9	0,7	2,5
	Material elektrikoa	0,1	0,7	0,5	-0,6	1,2
	Garraio materiala	1,5	0,3	0,5	0,7	0,1
	Beste manufaktura batzuk	0,0	2,5	3,7	3,5	3,6
	Energia elektrikoa, gasa eta ura	-3,9	-2,1	3,5	1,2	8,5

Iturria: EUSTAT, "IPRI".

THE ECONOMIST INDIZEA (LEHENGAIEN NAZIOARTEKO MERKATUETAN DITUZTEN PREZIOAK)

	Tindizearen aldaketa tasa \$-tan					Indizearen aldaketa tasa €-tan				
	Orokorra	Janariak	Industria produkzio lehenagaiak			Orokorra	Janariak	Industria produkzio lehenagaiak		
			Guztira	Metala ez	Metala			Guztira	Metala ez	Metala
2003	11,9	9,1	16,0	21,7	12,2	-6,5	-8,7	-3,3	1,7	-6,6
2004	16,6	10,5	25,3	8,1	37,6	6,2	0,7	14,1	-1,4	25,3
2005	3,2	-1,9	9,6	-2,3	16,3	3,2	-2,1	9,7	-2,4	16,5
I	-2,7	-8,9	5,6	-10,7	15,6	-7,3	-13,2	0,6	-14,9	10,2
II	-1,8	-7,7	6,1	-8,7	15,2	-6,0	-11,7	1,5	-12,6	10,2
III	6,4	3,4	10,0	1,3	14,8	6,7	3,7	10,2	1,6	15,0
IV	12,0	7,8	16,8	11,1	19,5	22,1	17,5	27,3	21,0	30,3

Iturria: BZZN, Ekonomia Ministerioa.

EAEn; izan ere, 2004an prezioek %10etik gorako urteko batez besteko hazkundera izan ondoren, 2005ean %7tik beherako hazkundera izan dute, eta abenduan hazkundera %2koa izan da. Manufaktura sektoreen artean, prezioen hazkunderik handienak petrolioaren fintzean (2004an %9,6ko hazkundera eta 2005ean ia %25ekoa, eta abenduan %31koa), industria kimikoan (%4,5), beste manufaktura batzuetan (%3,7) eta makinerian (%2,9) egon dira. Gainerako manufakturrek prezioen hazkunde moderatuagoak izan dituzte; metalezkoak diren eta ez diren mineralen erauzketa eta produkzio sektoreen prezioek %11,5eko batez besteko hazkundera izan dute urtean

(2004an baino bi puntu gehiago), eta abenduan %5,2ko murriztapena izan dute.

Azkenik, lehengaien nazioarteko merkatuetan izandako bilakaerak ("The Economist" indizeak neurtzen duena) ere eritmo moteltze nabaria izan du, eta hori handiagoa izan da dolarretan eurotan baino. Horrela, indize orokorra, dolarretan, 2004ko %16,6tik 2005eko %3,2ra igaro da, eta eurotan aldaketa %6,2tik %3,2rako izan da. Azken mone-ta horri dagokionez, beherakada handiak ikusi dira elika-durako lehengaien prezioetan (-%2,1), baita metalezkoak ez diren industria produktuen prezioetan ere (-%2,4). Me-

talezko lehengaien prezioek oraindik ere hazkunde handia izan dute, (%16,5), aurreko urtean ere %25,3ko hazkunde handia izan ondoren. Nolanahi ere, urteko bi seihilekoen arteko aldeak ere aipagarriak dira; izan ere, lehenengoan prezioak moderatu egin dira edo behera egin dute; eta bigarrenean, batez ere azken hiru hilekoan, prezioen hazkunde handiak egin dira lehengai guztietan.

6.3. Lan kostuak


EAEko lan kostuen adierazleek diotenez, horiek hazkunde handiagoa izan dute 2005ean aurreko urtean baino, eta gainera, Estatu osoan eta EBn baino hazkunde handiagoa izan dute.

Aztertuko dugun lehenengo adierazleak aditzera emandakoaren arabera (indarreko hitzarmenetan itundutako soldata hazkundeak), soldaten hazkunde ikuskatua³ egon da, %4,35ekoa 2005ean (2004an baino 57 ehunen

gehiago eta Estatuan itundutakoak baino 40 ehunen gehiago, Lan Ministerioak emandako datuek diotenez).

Bigarren adierazlea Soldatapekoen Ordainketa⁴, lanpostu bakoitzeko, eta hori Eustaten *Kontu Ekonomikoetan* eta EINen estatistikan oinarrituz kalkulatzen da; adierazle horrek dioenez, ordainketa horrek %5,2ko hazkunde izan du 2004an eta %4,6koa 2005ean; gainera, handitu egin da Estatuarekiko aldea, bertan urte honetan %2,5eko hazkunde baino ez baita egon. Gainera, Estatuan 2005erako dagoen datuak adierazten duenez, aldagai horretan moteltze handia egon da, %2,5eko hazkunde izan baitu, aurreko urtean baino puntu bat gutxiago. Eurostatek EB-25erako eta euroaren zonarako dituen datuek ere nolabaiteko moteltzea adierazten dute, enplegu bakoitzeko ordainketan (2005ean bi eta hiru hamarren bitartean).

Lan kostuen hirugarren adierazlea abagunearen araberakoa da: *Laneko Kostuaren Hiruhileko Inkesta*⁵. Adierazle horrek osagaien arteko banaketa egiteko aukera ematen du. *Laneko Kostuaren Hiruhileko Inkestaren* da-



Iturria: EIN "Lan Kostuaren Hiruhileko Inkesta" eta Eurostat.

³ "Zaintzako klausularen" eraginezko soldata berrikuspenak jatorrian itundutako soldata igoeran sartzearen ondoriozkoak. Aintzat hartu behar da adierazle partziala dela; izan ere, alde batetik, azken urte hauetan batez besteko igoera horiek itundu diren hitzarmenek soldatapekoen %50 inguru babesten dituzte, eta bestetik, soldata igoera "arruntei" buruzkoak dira, hau da, ez dute kontuan hartzen aparteko orduen ordainketaren efektua, eta lan egindako ordu kopurua ere ez dute aintzat hartzen eta ez dituzte soldatakoak ez diren beste kostu batzuk jasotzen.

⁴ Datu zuzena soldatapekoena izan behar da, baina Eustaten Hiruhileko Kontuak lanpostu kopurua baino ez du eskaintzen.

⁵ Inkestan oinarrituz, Laneko Kostu Amortizatuaren indizea lantzen da, lan kostuen neurri konparagarria EB osorako.

LAN KOSTUEN ADIERAZLE MAKROEKONOMIKOAK

	EAE ¹			Lanpostu bakoitzeko ord. (ald. %)				Hitzarm. sold. igoera ⁴	
	Solda. ordainketa (€-ak milatan)	Lanpostuak	Lanpostu bak. ordainketa (€)	EAE ¹	Estatua ²	Eb-25 ³	EMB ³	EAE (ald. %)	Estatua (ald. %)
2002	22.905	891.647	25.689	4,1	3,8	2,9	2,5	4,03	3,85
2003	24.308	910.971	26.683	3,9	3,7	0,5	1,8	4,23	3,68
2004	26.198	933.380	28.067	5,2	3,4	3,0	2,1	3,78	3,62
2005	27.979	953.388	29.347	4,6	2,5	2,7	1,9	4,35	3,95

Iturriak: (1) Eustaten Hiruhileko Kontuak. (2) EINen Hiruhileko Kontabilitatea (3) Eurostat (4) Lan Ministerioa.

LAN KOSTUAREN INDIZEA

	Langile bakoitzeko kostua (€-ak urtean)						Ordu bakoitzeko kostua (€-ak orduan)					
	Estatua			EAE			Estatua			EAE		
	KO	SKO	SKA	KO	SKO	SKA	KO	SKO	SKA	KO	SKO	SKA
2002	22.935	17.104	14.959	26.655	19.922	17.316	13,7	10,2	9,0	16,8	12,6	10,9
2003	23.909	17.762	15.403	27.519	20.495	17.668	14,4	10,7	9,3	17,5	13,0	11,2
2004	24.619	18.251	15.722	28.276	21.084	18.123	14,9	11,1	9,5	18,2	13,6	11,7
2005	25.321	18.722	16.141	29.426	21.849	18.809	15,4	11,4	9,8	19,0	14,1	12,1

ALDAKETAREN %												
2002	4,4	3,9	3,9	4,3	4,2	3,3	4,6	4,1	4,2	5,4	5,4	4,5
2003	4,2	3,8	3,0	3,2	2,9	2,0	4,7	4,3	3,4	4,0	3,6	2,8
2004	3,0	2,8	2,1	2,8	2,9	2,6	3,8	3,6	2,8	3,9	4,0	3,7
2005	2,9	2,6	2,7	4,1	3,6	3,8	3,5	3,2	3,4	4,3	3,8	4,0

KO: Kostu osoa; SKO: Soldata kostu osoa; SKA: Soldata kostu arrunta .
Iturria: EIN, "Lan Kostuaren Hiruhileko Inkesta".

tuek adierazitakoaren arabera, 2005ean EAEn langile bakoitzeko lan kostuek %4,1eko hazkundea izan zuten (2004an baino 1,3 puntu gehiago eta Estatuan baino 1,2 puntu gehiago). 2005ean langile bakoitzeko kostu osoa 29.426€-koa izan da, Estatuan baino %16 gehiago. EAEn lan egindako ordu bakoitzeko kostu osoek %4,3ko hazkundea izan dute 2005ean, aurreko urtean baino lau hamarren gehiago eta Estatuan baino bi hamarren gehiago (Estatuan baino %23 gehiago).

Gainera, Estatuko lan kostuak hiru hamarrenetan murritu ziren 2005ean, aurreko urteari zegokionez, eta EA-En horren aurkako joera egon da; euroaren zonan ere gauza bera gertatu da (baina hamarren bat bakarrik), baita EB-25ean (sei hamarren gutxiago), eta bertako lan kostuek %2,8ko batez besteko hazkundea izan dute 2005ean, Lan Kostu Amortizatuaren Indizearen arabera.

6.4. Produktibitatea

Lanaren ageriko produktibitateak, BPGren (2005ean %3,9ko hazkundea) eta lanpostutan neurturiko enpleguaren (Eustaten Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera, %2ko hazkundea azken urtean) zatiduratzat neurtuta,

%1,7ko hazkundea izan du 2005ean, aurreko urtean baino sei hamarren gehiago, batik bat industria sektorean izandako hazkundearen eraginez, bertako urteko batez besteko tasa %5,3koa izan baita.

Gainera, eraikuntza sektoreak %1,4ko hazkunde tasa positiboa izan du, zazpi urtez jarraian produktibitatea galdu ondoren, eta zerbitzuetan hazkunde tasa %0,1ekoa baino ez da izan.

Horrela, EAEko produktibitateak hamarkadako batez bestekotik (%1) gorako hazkundea izan du 2005ean, eta industria sektoreari dagokionak ere bai (bikoitza baino gehiago).

Hala eta guztiz ere, lan egindako ordu bakoitzeko produktibitateak (BJAren ordu kopurua erabiliz neurtuta, lanpostu kopuru osoa erabiliz neurtu beharrean) %0,4ko hazkundea baino ez du izan 2004an, aurreko urteetan %2,8ko hazkundea izan ondoren, azken urtean lan egindako ordu kopuruan izandako hazkunde handiaren ostean (%3,3 eta aurreko bi urteetan %0,4).

EAEko lanaren ageriko produktibitatearen bilakaera Espainiakoa baino askoz ere hobea da, ez 2005ean baka-

LANAREN AGERIKO PRODUKTIBITATEAREN BILAKAERA (BOLUMEN KATEATUAREN INDIZEAREN ALDAKETAREN URTEROKO TASAK)

	EAE ¹					Estatua ²		EB-25 ³		EMB ³	
	Guztira	L. sekt.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guzt.	Industria	Guzt.	Industria	Guzt.	Industria
1995-2000	1,1	0,2	2,7	-1,2	0,3	0,0	0,9	1,7	3,3	1,2	2,7
2001-2005	0,9	6,1	1,2	-0,6	0,7	0,2	1,1	1,0	2,3	0,5	2,0
1995-2005	1	3,1	1,9	-0,9	0,5	0,1	1,0	1,4	2,8	0,9	2,4
2002	0,4	-0,3	-0,2	-1,7	1,1	0,3	1,4	0,6	1,8	0,0	1,3
2003	0,9	-3,0	0,0	-1,5	1,0	0,3	1,8	0,8	2,3	0,1	1,4
2004	1,1	28	2	-0,7	0,4	0,4	1,3	1,9	4,5	1,5	4,3
2005	1,7	-8,2	5,3	1,4	0,1	-0,1	-0,1	0,9	2,1	0,5	2,2

Iturriak: (1) Eustaten Hiruhileko Kontuak. (2) EINen Hiruhileko Kontabilitatea (3) Eurostat.

rik (Estatuan tasa negatiboak), baita hamarkadako urte guztietan ere, bai ekonomia osoari eta bai industria sektoreari dagokionez (azken kasu horretan, 2000-2002 hirurtekoan izan ezik).

EBrekin konparatuz, EAEko ekonomiaren produktibitate osoaren hazkundea handiagoa da 2005ean (EB-25ean baino puntu erdi gehiago eta EMBn baino puntu bat gehiago); hala eta guztiz ere, EB-25eko hamarkadako batez bestekoa EAEkoa baino lau hamarren handiagoa da, eta hori euroaren zonakoarekin lerrokaturik dago. Industriadaren kasuan ere EAEko datuak gainditu egiten ditu

Europako datuak, 2005ean; hala ere, kasu honetan azken hamar urteetako batez bestekoarekiko aldeak hazkunde handiagoa dute bi arlo horietan, EAEko industria produktibitateari dagokionez: EB-25ek ia puntu bat eta EMBk bost hamarren.

6.5. Lan kostu unitarioak

Produktibitatearen eta lan kostuen bilakaera aztertu ondoren, EAEko ekonomiako Lan Kostu Unitarioen⁶ (LKU) bilakaera ikusiko dugu orain.


LAN KOSTU UNITARIOAK (ALDAKETAREN URTEKO TASA)

	1995-2005	2001	2002	2003	2004	2005
EAE						
Landun bakoitzeko produktibitatea	1,0	0,3	0,4	0,9	1,1	1,7
Landun bakoitzeko lan kostua	3,7	5,1	4,1	3,9	5,2	4,6
LKU korrontea	2,7	4,8	3,7	3,0	4,3	3,0
LKU iraunkorra	-0,4	2,6	0,9	-0,3	0,2	-1,0
Estatua						
Landun bakoitzeko produktibitatea	0,1	0,2	0,3	0,3	0,4	-0,1
Landun bakoitzeko lan kostua	2,8	3,5	3,3	3,2	3,2	2,1
LKU korrontea	2,7	3,2	3,0	2,9	2,7	2,2
LKU iraunkorra	-0,9	-1,0	-1,4	-1,1	-1,3	-2,2
EB-25						
Landun bakoitzeko produktibitatea	1,4	0,9	0,6	0,8	1,9	0,9
Landun bakoitzeko lan kostua	3,2	3,4	2,7	0,8	3,0	2,5
LKU korrontea	1,8	2,5	2,1	0,0	1,2	1,6
LKU iraunkorra	-0,4	0,4	-0,4	-0,3	-1,2	-0,3
EMB						
Landun bakoitzeko produktibitatea	0,9	0,5	0,0	0,1	1,5	0,5
Landun bakoitzeko lan kostua	2,0	2,9	2,3	2,0	2,2	1,7
LKU korrontea	1,1	2,4	2,2	2,0	0,6	1,2
LKU iraunkorra	-0,6	0,0	-0,3	-0,1	-1,3	-0,5

Iturria: Geuk landuta, honako iturri hauekin oinarrituz: (1) Eustat "Kontu Ekonomikoak" (2) EIN "Hiruhileko Kontabilitate Nazionalea" (3) Eurostat.


⁶ **Lan Kostu Unitario** (LKU) korrontea soldatapeko **bakoitzeko lan kostuaren** (soldatapekoen ordainketa prezio korrontean, soldatapeko kopuruarekin zatituta) eta **landun bakoitzeko produktibitatearen** (BPG merkatuko prezioetan, prezio iraunkorretan, landun kopuruarekin zatituta) arteko ratioa da. Prezio iraunkorreko LKU, izan ere, soldatapeko lan kostuaren (soldatapekoen ordainketa prezio korrontean, soldatapekoen kopuruarekin zatituta) eta landun bakoitzeko produktibitate korrontean (BPG merkatuko prezioetan, prezio iraunkorretan, landun kopuruarekin zatituta) arteko ratioa da.

LAN KOSTU UNITARIO ERREALAREN BILAKAERA



Iturria: Geuk landuta, Eustaten, EINen eta Eurostaten datuetan oinarrituz.

LAN KOSTU UNITARIO IZENDUNAREN BILAKAERA



Iturria: Geuk landuta, Eustaten, EINen eta Eurostaten datuetan oinarrituz.

2005eko datuek egonkortasunerako joera adierazten dute, eta horren tasak aurreko urtekoen antzekoak dira. Horrela, prezio korronteko LKUek %3ko hazkundera izan dute (hamarkadako batez besteko tasari jarraituz), eta, prezioen eragina kendu ondoren, prezio iraunkorreko

LKUek -%1eko murriztapena izan dute; horrela, azken hamar urteotako batez bestekoa baino puntu eta erdi beherago daude.

Estatuko Lan Kostu Unitario korrontetek EAEkoek baino lau hamarren hazkunde txikiagoa izan dute (%2,2), az-

ken hiru urteetan antzeko tasetan gora egin ondoren. Beraz, arlo horretan prezio iraunkorreko LKUEk ere EAEn baino beherakada handiagoak izan dituzte (2005ean $-2,2\%$ tasak, EAEn baino $1,2$ puntu gutxiago). Alde horien jatorria bikoitza da; izan ere, produktibitatea EAEn handiagoa izan arren, lan kostuak eta prezioak ere handiagoak dira (landun bakoitzeko produktibitate izendunak $5,4\%$ ko hazkundea izan du EAEn eta $4,3\%$ koa Estatuan).

Europar Batasunean eta euroaren eremuan, LKU korronteek, hurrenez hurren, $1,6\%$ eta $1,2\%$ ko hazkundea izan dute 2005ean, hau da, EAEn eta Estatuan baino txikiagoa; hala eta guztiz ere, prezio iraunkorrek LKUEk EAEn baino proportzio txikiagoan egin dute behera, ia puntu bat gutxiago, hurrenez hurren, $-0,3\%$ eta $-0,5\%$, bi kasutan ere hamarkadako batez bestekoen ildoari jarraituz, baina 2004an baino murriztapen txikiagoekin.

6.6. Errenten banaketa faktoriala


Gure ekonomian sorturiko balio erantsia, lehenengo eta behin, berori sortzeko lagungarriak izan diren produkzio faktoreetan banatzen da: soldatapeko soldataren ordainketa, soldatuko ez den lanaren nahiz kapitalaren ustiapenaren soberakin garbia, kapital finkoaren kontsumoa (produkzioak urtean zehar izandako balio-galtzea aintzat hartuta) eta, azkenik, produkzioari eta inportazioari loturiko zergak (dirulaguntzen garbiak), herri adminis-

trazioari dagozkionak. Bigarrenez, produkzio faktoreen jabetzan izan duten partaidetzaren eta jasotako errenten arabera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, erreferentziazat prezio korronteko $7,3\%$ ko BPG hartuta (2005ekoa), ikusten da zerga garbiek $3,9$ puntu gehiagoko hazkundea izan dutela, hau da, horien urteko batez besteko hazkundea $11,2\%$ koa izan da, eta soldatapekoen errentaren hazkundea txikiagoa izan da ($6,8\%$), baita kapital finkoaren kontsumoa ($6,3\%$) eta ustiapenaren soberakin garbia ere ($7,1\%$). Horrela, soldatapeko lanaren errentak BPGren $48,6\%$ koak dira, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago; ustiapenaren soberakin garbiak, berriz, mantendu egin du bere proportzio erlatiboa, lau urtez jarraian beherakadak izan ondoren, eta BPGren 31% koa da. Produktiorako eta inportazioarako zergen kasuan (produkzio sektoreei emandako dirulaguntzak kenduta), BPGrekiko proportzioa gero eta handiagoa da eta 11% iritsi dira. Bestalde, kapital finkoaren kontsumoak $9,5\%$ eko zatiki egonkorra adierazten du, BPGri dagokionez.

Errenten oraintsuko bilakaera hau Estatuarekin konparatuta ikusten denez, 2005ean soldatako errentek zazpi hamarren gehiago hazi dira EAEn, eta ustiapenaren soberakin garbiak, oster, estatuan baino $1,2$ puntu gutxiago hazi dira, 2003an erritmo berean hazi ondoren. Dirulaguntzen zerga garbiei eta kapital finkoaren kontsu-

ERRENTAREN BILAKAERA EAEn



Iturria: Eustat "Kontu Ekonomikoak".

moari dagokionez ere aldeak daude; izan ere, horiek hazkunde handiagoak izan dituzte 2003an eta 2004an Estatuan, eta gainera, 2005ean hazkunde horiek handiagoak dira, eta horrela, handitu egin dira EAerekiko aldeak. Errenten egiturari dagokionez, Estatuan soldatapekoen ordainketak garrantzia galdu du eta ENEn, berriz, man-

tendu egin da BPGren kuota, zergek eta amortizazioak irabazten dutena, eta hortxe ikusten da EAerekiko alderik handiena (5,9 puntuko aldea).


EMBko datuetan, hazkunde tasak EAekoak eta Estatuak baino apur bat txikiagoak dira faktoreen multzo osorako; izan ere, euroaren zonako BPGk 3-4 puntuko haz-

ERRENTAREN BANAKETA EAEn, ESTATUAN ETA EMBN

	Euroak milioietan				%			Urteko ald. %		
	2002	2003	2004	2005	2003	2004	2005	02-03	03-04	04-05
EAE										
Soldatapekoen ordainketa	22.905	24.308	26.198	27.979	49,0	48,8	48,6	6,1	7,8	6,8
Ustiapenaren soberakin garbia	14.682	15.463	16.638	17.812	31,2	31,0	31,0	5,3	7,6	7,1
Kapital finkoaren kontsumoa	4.357	4.677	5.093	5.414	9,4	9,5	9,4	7,3	8,9	6,3
Dirulaguntzen zerga garbiak	4.616	5.125	5.073	6.344	10,3	10,6	11,0	11,0	11,3	11,2
BPG merkatuko prezioetan	46.559	49.573	53.632	57.549	100,0	100,0	100,0	6,5	8,2	7,3
ESTATUA										
Soldatapekoen ordainketa	355.653	378.653	401.878	426.498	48,5	48,0	47,2	6,5	6,1	6,1
Ustiapenaren soberakin garbia	200.109	210.644	223.109	241.662	27,0	26,6	26,7	5,3	5,9	8,3
Kapital finkoaren kontsumoa	102.615	112.666	124.796	138.046	14,4	14,9	15,3	9,8	10,8	10,6
Dirulaguntzen zerga garbiak	70.644	78.587	87.533	98.117	10,1	10,5	10,8	11,2	11,4	12,1
BPG merkatuko prezioetan	729.021	780.550	837.316	904.323	100,0	100,0	100,0	7,1	7,3	8,0
EMB										
Soldatapekoen ordainketa	3.551.300	3.636.882	3.733.460	3.835.278	48,9	48,2	48,1	2,4	2,7	2,7
Ustiapenaren soberakin garbia	1.832.691	1.888.050	1.998.421	2.060.015	25,4	25,8	25,8	3,0	5,8	3,1
Kapital finkoaren kontsumoa	1.021.872	1.051.406	1.092.923	1.126.164	14,1	14,1	14,1	2,9	3,9	3,0
Dirulaguntzen zerga garbiak	839.751	867.691	915.768	958.886	11,7	11,8	12,0	3,3	5,5	4,7
BPG merkatuko prezioetan	7.245.614	7.444.029	7.740.572	7.980.344	100,0	100,0	100,0	2,7	4,0	3,1

Iturria: Eustat "Kontu Ekonomikoak (oinarria 2000)", EIN "Espainiako Kontabilitate Nazionalea. Oinarria 2000" eta Eurosat.


FAKTOREEN ERRENTEN BANAKETA EAEn



Iturria: Eustat "Kontu Ekonomikoak".

kundea izan du. Soldatapekoen ordainketak hazkunde egonkorra izan du azken hiru urtekoan, eta azken urte horretan murriztapena izan du ustiapenaren soberakin garbian eta zergetan, EAEn bezala. Hala eta guztiz ere, errentaren ehuneko banaketari dagokionez, alde handiak

ikusten dira, ustiapenaren soberakin garbiak EAEn garrantzi handiagoa izateari dagokionez (EAEn %31, EMBko %26 baino txikiagoa), eta kapital finkoaren kontsumoaren kasuan ere gauza bera gertatu da (%14,1, Estatukoaren antzeko ehunekoa, eta EAEn %9,4).



bizi kalitatea EAEn

4



1


Talde zaugarri batzuen bizi baldintzak

Aldaketa demografikoak gizarte berria moldeatzen ari dira, eta badirudi aldaketa horiek bizkortu egingo direla 2020tik aurrera: gero eta gazte eta heldu gutxiago, eta gero eta adineko langile, jubilatu eta zahar gehiago egongo da. Europar Batasunak horri buruz esandakoaren arabera¹, bide berriak bilatu behar dira belaunaldi gazteen eta adinik nagusieneko hirutarren hazkunde ahalmena balioztatzeko. Izan ere, Memoria Sozioekonomikoaren 2005eko edizio honetako kapitulu honetan (talde zaugarrien bizi kalitateari buruzko kapitulua) bi adin talde horiek aztertzen dira batik bat, eta EAEn etxerik gabe bizi diren pertsonen taldeari buruzko ohar txikiak ere egiten dira.

Lehenengo eta behin, hurrek eta gazteek ordeztu egin beharko dituzte eurenak baino belaunaldi ugariagoak. Izan ere, euren heziketa maila nagusia baino apur bat hobea da, eta horrela, pentsa daiteke produktibitate eta egokitzapen gaitasun handiagoa izango dutela. Hala eta guztiz ere, gazteria behar bezala baloratzen ez den baliabide urria izan daiteke, eta, agian, integrazioa zailtasun handiak aurkituko ditu.

Beste alde batetik, bizi-itxaropenak izandako hazkunde iraunkorrari esker, gure gizartean adineko pertsona

BIZTANLERIA OSOAREN ETA BIZTANLERIA AKTIBOAREN HAZKUNDEA GELDITZEKO/MURRIZTEN HASTEKO



Iturria: Eurostat, 2004. Proiektzio Demografikoa. Kroaziarako eta Turkiarako (TR): UN WPP (2000).

¹ "Frente a los cambios demográficos, una nueva solidaridad entre generaciones" Liburu Berdea, Europako Komunitateen Batzordea, COM (2005) 94 azkena. Brusela, 05.03.16.



gero eta gehiago dago (65 urteko ohiko muga aintzat hartuta), eta adin oso nagusiko pertsona gero eta gehiago ere badago (80 urtetik gorakoak). Segurutzat, bakarrik bizi diren zaharren kopuruak gora egingo du, batik bat emakumeen artean, bi sexuen arteko bizi-luzetasun desberdinen ondorioz emakume alargun gehiago dagoelako. Horrekin batera, emakumeen erretiroko pentsioen maila, orain arte, gizonena baino nahiko txikiagoa izan da. Horrela, familiek ezin izango dute eurenez konpondu pertsona horien (mendekoak edo autonomoak) laguntzaren arazoa, eta, horrenbestez, gaur egun baino laguntza gehiago beharko dute; funtzio hori, berriz, gizarte zerbitzuek eta elkartasuneko nahiz zaintzako sare publikoek berengantatu beharko dute.

Grafikoan ikusten denez, jarraibide demografikoak apur bat aldatu egiten dira EBko herri batetik bestera. Estatu kide guztiek, hurrengo urteotan, zahartzearen arazotari egin beharko diote aurre, baina ez guztiek batera edo intentsitate berberarekin. EB-25eko biztanleriaren murriztapena 2025erako dago aurreikusita, eta horren aurretik, lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren murriztapena egongo da, 2011tik aurrera, Eurostatek egindako azken kalkuluen arabera.

EBko biztanleriak hurrengo hamarkadotan izango duen osaketari buruzko aurreikuspenek, gainera, zahartze orokorreko egoera adierazten dute, baina bilakaera faktoreen aniztasun handiarekin, eremu geografikoen arabera.

Alde batetik, eragile demografikorik eza nabaritzen da; izan ere, estatu kide batzuetan biztanleria ez da murriztuko 2050 baino lehen, baina estatuok garrantzi oso urria dute; biztanlerik gehieneko bostetatik, egindako aurreikuspenen arabera, Erresuma Batua eta Frantzia bakarrik haziko dira 2005etik 2050era bitartean (hurrenez hurren, %8 eta %9,6).

Mendekotasun tasaren hazkundea, aurreikuspen horren arabera, Europan %66koa izango da 2030ean, eta, testuinguru horretan, gazteen taldeak garrantzia galtzen joango dira; urte hori baino lehen, 15 eta 24 urte bitarteko biztanleriak nekez gaindituko du guztizkoaren %10, EB-25ean; 64 urtetik gorako taldeek, berriz, ehuneko hazkunde handiak izango dituzte, eta hori, iturri horrek dioenez, modu nabariagoan ikusiko da Espainiako estatuan gainerako estatuetan baino, bertan 2050era arte %20ko hazkundea egongo baita.

EINEk egindako biztanleria proiektzioek adierazten dute zahartze-panorama ez dela hain drastikoa, Eurostatek Estaturako adierazitakoekin konparatuta, baina panorama kezkagarria da, eta, horren arabera, 64 urtetik gorako taldeak urte horretara %15 inguruko hazkundea izango du. Bestalde, gazteen taldeak (15-29 urte) 6-9 puntu galduko ditu. 2010ean biztanleria osoaren %17koa izango da, eta 2020an beste 2-3 puntuko murriztapena izango du, hurrengo urteetako immigrante-sarreren bolumenaren arabera.

1.1. Gazteria

Oraingo gizartean, era askotako egoeratan egon arren, gazteriak balioak eta helburuak partekatzen ditu, baita zailtasunak ere. Pertsona horiek erabat eraldatzen ari den taldea osatzen dute; beranduago hasten dira lanean eta familia ere geroago sortzen dute; gainera, lan eta ikasketa aldiak tartekatzen dituzte, eta, batik bat, euren ibilbide pertsonalak iraganekoak baino askoz ere anitzagoak dira. Eskolak edo unibertsitateak, enpleguak eta gizarte inguruak, dagoeneko ez dute lehengo eginkizun integratzailea. Gainera, gero eta beranduago independizatzen dira. Horren ondorioz, hauskortasun sentimendua sortu, konfiantza galdu eta nolabaiteko interesik eza agertzen da, gizartean parte hartzeko modu tradizionalak dagokienez.

Izan ere, gazteen taldearen ezaugarri soziologikoen, ekonomikoen eta kulturakoen bilakaera izan dute, aldaketak demografikoen ondorioz, baina baita gizarte inguruan izan diren aldaketan, banakako zein taldeko jokabideen, familia harremanen eta lan merkatuko baldintzen ondorioz ere. Mendebaldeko gizarteetako gazteriak hiru ezaugarri nagusi ditu:

1. Gaztaroaren luzapena: demografoek ikusi dutenez, faktore ekonomikoen eta soziokulturalen presioaren eraginez, gazterik gehienek adin nagusiagoarekin zeharkatzen dituzte bizitzako etapak: ikasketen amaiera, lanaren lorpena, familiaren sorrera, etab.
2. Linealak ez diren bizi-ibilbideak: gaur egun, "bizi-faseak elkarren gainean jartzen dira"²: ikaslea eta familiako arduraduna izan daiteke aldi berean, langilea edo enplegu eskatzailea, edo gurasoekin bizi daiteke, eta egoera horiek gero eta sarriago txandakatzen dira.
3. Talde eredu tradizionalak galdu egiten dute euren garrantzia, gero eta banakakoagoak diren ibilbide pertsonalen alde. Pertsona bakoitzaren familia-egutegia, ezkontzako eta laneko dagoeneko ez da betiko eredu arabera antolatzen, eta horrek eragin handia dauka politika publikoetan.

Lehen esan dugunez, herri aurreratueta fenomeno sozial eta demografiko nagusienetarikoa bat, izan ere, biz-

ADIN ERTAINAREN BILAKAERA ETA ESTATUKO BATEZ BESTEKOA. 1900-2020.

Urteak	Adin ertaina	B. best. adina
1900	24 urte	28 urte
1970	30 urte	32 urte
1996	35 urte	38 urte
2020 (p)	45 urte	44 urte

Iturria: "Aspectos salariales de los jóvenes trabajadores". Hidalgo Vega eta López Camarero. INJUVE, 2005. EINEOinarriz landuta.

tanleriak azken hamarkadotan izandako zahartzea da, eta, horren eraginez, biztanleria-adinaren piramidea zabaldu egin da goialdean; horrela, gazteen taldearen garrantzi erlatiboa murriztu egin da. Orain dela ehun urte, biztanleriaren erdia 24 urtetik beherakoa zen (adin ertaina), eta batez besteko adina 28 urtekoa zen. Gaur egun, hala eta guztiz ere, EAEko biztanleriaren batez beteko adina 40 urtekoa da³.

Izan ere, gazteen biztanleriaren garrantzi-galtzea ohiko fenomeno da Europar Batasun osoan, baina prozesua bizkorragoa izan da Estatuan eta EAEn beste herri batzuetan baino. 1994 eta 2004 bitartean, 15-29 urte bitarteko taldearen garrantzi erlatiboa %21,7tik %19,6ra igaro zen EB-15ean; hain zuzen ere, %23,3tik %21,4ra Estatuan eta %24,7tik %19,5era EAEn, eta tasa horren barruan, gaur egun, 400.000 pertsona baino apur bat gehiago sartzen dira gure erkidegoan.

Horrela, Europako biztanleria gazteak bi puntu galdu dituen bitartean, EAEko biztanleriak bost puntu baino gehiago galdu ditu. 1994an Espainiako datuak gaintzen zituen bakarra Irlanda zen, gazteen biztanleriari zegokioenez; hala ere, herri honetan murriztapena askoz ere txikiagoa izan da azken hamar urteotan, eta 2004an oraindik ere %24koa zen.

Eta, EBko gazteak non ote dauden galdetuz gero, esan behar da, jakina, biztanlerik gehieneko herriek dutela gazte kopururik handiena. Alemanian, Frantzia, Erresuma Batuan, Italian, Polonian eta Espainian biltzen dira EB-25eko 90 milioi gazteen %74. Hala eta guztiz ere, beste alde batetik, herri horietariko bakoitzaren gazteria-tasa aztertuta ikusten denez, iparraldeko herriak gazteen

² "Jeunesse, le devoir d'avenir", Commissariat Général du Plan, 2001. EUROPAKO BATZORDEA.

³ Hori dela eta, gaur egun gazte-adina 30ra edo 35era arte hedatzen dela jotzen da, eta orain arteko banaketa denboraz kanpokatzen hartzen da, bertan gazteen taldean 16 eta 25 urte bitarteko pertsonak sartzen baitziren. Hala eta guztiz ere, irizpide hori oraindik ere indarrean dago aldagai batzuetan, esate baterako, gazteen enpleguaren adierazleetan. Kapitulu honetan, horrenbestez, adin-bitarteak modu malgutan hartuko dira, datuen erabilgarritasunaren arabera.

15-29 URTE BITARTEKO GAZTEAK EBN. 2004.

	Biztanleria 2004 (milioiak)	15-29 urteko biztanleria (milioiak)	EB-25eko gazteen %	Herriko biztanl. %
EB25	457,2	89,5	100,0	19,6
EB15	383,1	72,0	80,4	18,8
Belgika	10,4	1,9	2,1	18,4
Txekiar Err.	10,2	2,3	2,6	22,6
Danimarka	5,4	1,0	1,1	17,6
Alemania	82,5	14,3	16,0	17,4
Estonia	1,4	0,3	0,3	22,3
Grezia	11,0	2,3	2,5	20,6
Espainia	42,3	9,0	10,1	21,4
Frantzia	60,2	11,6	13,0	19,3
Irlanda	4,0	1,0	1,1	24,0
Italia	57,9	10,2	11,4	17,6
Zipre	0,7	0,2	0,2	23,0
Letonia	2,3	0,5	0,6	22,3
Lituania	3,4	0,8	0,8	21,9
Luxenburgo	0,5	0,1	0,1	18,0
Hungaria	10,1	2,2	2,5	21,9
Malta	0,4	0,1	0,1	22,1
Holanda	16,3	3,0	3,3	18,1
Austria	8,1	1,5	1,7	18,5
Polonia	38,2	9,4	10,5	24,6
Portugal	10,5	2,2	2,5	21,0
Eslovenia	2,0	0,4	0,5	21,4
Eslovakia	5,4	1,4	1,5	25,2
Finlandia	5,2	1,0	1,1	18,8
Suedia	9,0	1,6	1,8	18,2
Erresuma B.	59,7	11,4	12,7	19,0
EAE	2,1	0,4	0,5	19,5

Iturria: Geuk landuta, Eurostaten, EINN eta Eustaten oinarrituz.

%20ko batez bestekoaren azpitik daude (Polonia izan ezik), eta euren biztanlerian gazte kopururik gehien dutenak Europa hegoaldeko eta ekialdeko herriak dira.

Bestalde, EAEko 412.000 gazteak Europar Batasune-ko gazteen talde osoaren %0,5era iristen dira, eta Letoniako edo Esloveniako gazteek proportzio bera dute. Gazteok Erkidegoko biztanleriaren barruan duten proportzioa %19,5ekoa da, EB-25ekoa baino apur bat txikiagoa eta Frantziako edo Erresuma Batuko egoerarekin konparatze-ko modukoa.

1.1.1. Gizarte jarrerak eta balioak

Lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzaren "Euskadiko Gazteria 2004" txostenean agerian gelditu denez, EAEko gazteei dibortzioari, abortuari, eutanasiari eta harreman homosexualei buruz galdetu zaie, eta gehienek, neurri handiagoan edo txikiagoan, justifikatu egiten dituzte egoera horiek, baina aipatu beharreko ñabardurak daude.

Gazteen artean onarpenik handiena duten bi gizarte jardunak harreman homosexualak eta dibortzioa dira.

Izan ere, lehenengoen kasuan, gazteen %88k guztiz justifikatzen dituzte (gainera, beste %6k ñabardurekin justifikatzen dituzte). Bestalde, abortua eta eutanasia gazteen %90 inguruk justifikatzen dituzte, baina gehienek baldintzak jartzen dizkiete jardun horiei (abortuaren kasuan %57 eta eutanasiaren kasuan %55). Halaber, gazteen %8 ez daude horien alde eta %34k kasu guztietan justifikatzen dituzte.

Orokorrean, generoaren arabera alde handiak daude. Horrela, gizonek emakumeek baino neurri handiagoan justifikatzen dituzte abortua eta eutanasia, eta emakumeek gehiago erlatibizatzen dituzte, kasuen arabera. Aldiz, emakumeek gizonek baino neurri handiagoak justifikatzen dituzte harreman homosexualak eta dibortzioa, kasu guztietan.


Bestalde, gai horiei dagokienez EAEko gazteen orain-go eta orain lau urteko jarrera konparatuz gero ("*Euskadiko Gazteria 2004*", EAEko 2001eko Memoria Sozioekonomikoan adierazitakoa), esan daiteke, orokorrean, EAEko gazteria orain dela lau urte baino haizukorragoa dela orain, eta haizukortasun mailan hazkunderik handiena izan duena dibortzioa da.

"PRAKTIKA HAUETATIK, ZEIN JUSTIFIKATUKO ZENUKE". 2000-2004ko KONPARAZIO DATUAK

	Kasu guztietan		Kasu batzuetan		Inoiz ere ez		ED/EE	
	2000	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004
Harreman homosexualak	82	88	11	6	5	4	3	2
Dibortzioa	57	71	39	26	2	2	1	1
Abortua	30	34	56	57	12	8	2	1
Eutanasia	30	34	57	55	9	8	4	3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA, Euskadiko Gazteria 2004.

EAEko GAZTERIAREN TOLERANTZIARIK EZA: HONAKO TALDE HAUEKIN TOLERANTZIARIK EZ DUTENEN EHUNEKOA. 2000-2004ko KONPARAZIOA.



Iturria: Eusko Jaurlaritza "Euskadiko Gazteria 2004".

Beste alde batetik, gaiari buruzko azken inkestan gertatu den bezala, EAEko gazteria oso intolerantea da neonaziekin edo eskuin muturreko pertsonekin, auzotar-intolerantziari dagokionez (%56k diote ez dutela halako auzorik eduki nahi). Gero, gazteen artean ukapenik handiena duen taldea drogazaleena da, eta horiek EAEko 30 urtetik beherako pertsonen %40k soilik onartzen dituzte auzokotzat. Neurri txikiagoan, ukapena sortzen duten beste talde batzuk militarrek (%50), prostitutak eta gigoloak (%24) eta poliziak (%22) dira. Beste muturrean, gazteek tolerantzia handia erakusten dute homosexualekin eta atzerriko immigranteekin, eta horiek gazteen %7k eta %12k soilik ukatzen dituzte, hurrenez hurren. 2000ko iker-


ketarekin konparatuz ikusten denaren arabera, murriztu egin da honako talde hauekiko ukapena: neonaziak eta eskuin muturrekoak, toxikomanoak eta, apur bat, militarrek, poliziak eta ezker muturrekoak. Aldiz, immigranteekiko eta homosexualekiko ukapenak gora egin du apur bat.

Gazteek euren burua etorkizunean ikusteko moduari dagokionez, "Gazteriaren joerak 2005" ikerketan adierazitakoaren arabera (Gazteriaren Euskadiko Behatokiak egindako ikerketa), inkestan parte hartu duten gazteen erdiak ez dauka etorkizuna planifikaturik (%45); izan ere, ez dakite seguru etorkizunean zertan lan egingo duten (%52,6). Lan-etorkizunari buruzko ziurgabetasun horrek eragin handiagoa dauka biztanlerik gazteenengan, heziketa etapan daudenengan, horiek oraindik ez baitute erabaki euren lanbide-etorkizuna; halaber, ziurgabetasun handia dago lanean ari direnengan ere, aintzat hartuta erdiak baino gehiagok diotela ez dakitela seguru etorkizunean zertan lan egingo duten.

Bestalde, gazteak oso baikorrak dira euren etorkizun pertsonalari dagokionez (%80,2), eta familiakoekin hitz egiten dute euren etorkizuneko planei buruz (%50,9), baita lagunekin (%21,5) eta bikotearekin ere (%15,9). Irakasleekin, berriz, %0,6k soilik hitz egiten dute horri buruz. Munduaren etorkizunari dagokionez, orokorrean, %27,2 baikorrak dira, baina adinak aurrera egin ahala baikortasun hori murriztu egiten da.

Halaber, 0tik 10era bitarteko eskalan, EAEko gazteek dio bizi-kalitate ona dutela (7,54 puntu). Bizitzako alderdi garrantzitsuei dagokienez, aipagarriak dira osasuna (9,23) eta familia (9,13), eta horien atzetik adiskidetasuna (8,81), maitasuna (8,73), sexua (7,99), lana (7,83) eta ikasketak (7,47). Azkenik, garrantzirik txikiena dutenak, euren iritziz, politika (5,05) eta erlijioa (3,34) dira, gainerako alderdiek baino puntuazio askoz ere txikiagoak izan baitituzte.

Eta, bizi-kalitate orokorrari buruz galdetu zaienean, EAEko gazteek erantzun dute, Eusko Jaurlaritzako Pros-

EAEko GAZTEEN LEHENTASUN PERTSONALAK: 1ETIK 10ERAKO BALORAZIOA. 2004


Iturria: Eusko Jaurlaritza "Euskadiko Gazteria 2004".

pekie Sozilogikokoaren Kabinetearen "Gazteriaren Erretratua 7" ikerketan adierazitakoaren arabera (2004ko uztailean), EAEko bizimodua Estatu osorik onena dela (%66, eta 30 urtetik gorakoaren artean %61), halaber, %85ek esan dute beste nonbait bizitzeko eta lan egiteko baldintza berberak izan arren nahiago dutela EAEn bizi.

Azkenik, gazteen kezkei dagokionez, oraingo gazteria gehien kezkatzen duten alderdiak dirua eta ondasun materialak dira (%31,5); horien ostean osasun fisikoa nahiz buruko (%25,2), gainerakoek eurei buruz egindako balorazioa (%21,9) eta irudi nahiz itxura pertsonala (%21,8) datoz. Beste alderdi aipagarri batzuk familia (%17,6), lagunak (%16,6), sexualitatea (%13,6) eta bikoteko harremanak (%13) dira. Alderdi horien inguruko kezkarik handiena dutenak neskak eta gazteenak dira.


1.1.2. Lan mundua

Gazteen taldeak lan munduarekin duen harremanak egoera konplexua eta arazotsua sortu du orain dela urte batzuetatik hona: lehenengo enplegua lortzeko borroka, lan baten edo batzuen bilaketa (kontratuak aldi baterakoak izatearen ondorioz), ikasketak eta lana bateratzeko erabakia, ... Horiek guztiak jardueratik bertatik kanpoko elementuak dira, baina modu erabakigarrian egituratzen dute gazteriaren eta lan munduaren arteko elkarrekin.

Gazteen langabezia arazo nagusienetarikoa bat da herri guztietan, horien garapen maila edozein izan arren. Oro har, heldu langabetu bakoitzeko bi gazte daude lan barik. Egoera horren ondorioak oso ezagunak dira; izan ere, soldatapeko enplegua gizarteratzeko eta autoestimua lortzeko elementu nagusietarikoa bat da gaur egun ere. Horri dagokionez, 2001eko Memoria Sozioekonomikoan agerian gelditu ziren gazteek lehenengo enplegua lortzeko zituzten arazoak, lan-irteeren inguruko informaziorik eza eta segurtasun nahiz orientaziorik ezari loturiko sentimenduak, etorkizunari dagokionez. Izan ere, horiek dira EAEko gazteen lan-panorama ondoen adierazten duten ezaugarrietarikoa batzuk.


Nolanahi ere, eta 1993tik hona etengabe gertatu denez (2003ko hazkuntzetxoaren salbuespenarekin), gazteen langabezia tasak berriro ere murriztu egin dira 2005ean. Gazteen langabezia mailak %50etik gorakoak ziren 90eko urteetan, baina ez dute oraingoekin zerikusirik. Eustaten datuen arabera, 25 urtetik beherako langabezia tasa %13,5ekoa izan zen 2005ean, eta aurreko urteko tasa %20,5ekoa izan zen. Guztiarekin ere, langabezia gehien jasaten duen taldea gazteena da, adinaren arabera denbora-serieetan ikusten denez. Talde horren ostean, adinean hurrengoa den taldea dator, hau da, 25-34 urte bitarteko pertsonena; talde hori, ikerketa soziologiko askoren arabera, orain gazteriatzat

GAZTEEN LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA



Oharra: EAerako eta Estatutako datuak urteko batez bestekoak dira, eta EB-15erako eta EB-25erako datuak, berriz, urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoari dagozkio.
Iturriak: Eustat, EIN eta Eurostat.

LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA, ADIN TALDEEN ARABERA



Iturria: Eustat "BJA".

(esangura zabalean) ulertzen denaren barruan egongo litzateke.

Era berean, interesgarria da gazteen enplegu egora ezagutzea. Eusko Jaurlaritzaren "*Euskadiko Gazteria 2004*" ikerketan adierazitakoaren arabera, urte horretan

30 urtetik beherako gazteen %43ren jarduera bakarra ikastea zen, %38ren jarduera bakarra lan egitea zen eta %14k bi jarduera horiek konbinatzen zituzten. Aditzera eman behar da inkestako laginaren %4 soilik zegoela langabezia. Horrela, gazte langabetuen kopuruak murrizta-

EAEko GAZTEEN ENPLEGU EGOERA. ESTATUAREKIKO KONPARAZIOA. DATUAK %-TAN. 2004

	EAE guztira	Sexua		Adina			Estatua 2003
		Gizona	Emak.	15-19	20-24	25-30	
Ikasten	43	42	43	81	55	23	35
Lanean	38	37	38	14	32	47	42
Ikasten eta lanean	14	15	14	4	10	20	11
Langabezian	4	4	3	0	2	6	8
Etxeko lanetan	1	1	1	0	0	2	:
Beste batzuk	1	1	1	0	0	2	:
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko Gazteria, 2004.

LANEKO EGONKORTASUNA. ANTZINATASUNA ETA KONTRATU MOTA. DATUAK EHUNekoETAN. 2004.

	EAE guztira	Sexua		Adina			EAE 2000
		Gizona	Emak.	15-19	20-24	25-30	
		ANTZINATASUNA*					
Urtebete baino gutxiago	55	54	55	85	65	39	40
Urtebetetik hirura	27	26	29	13	24	33	36
Hiru urte baino gehiago	16	18	15	0	9	26	24
Ed/Ee	2	2	1	2	1	2	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
KONTRATU MOTA							
Kontratu mugagabea	31	33	28	6	26	40	35
Aldi baterako kontratua	54	54	55	67	60	47	46
Norberaren kontura	5	6	4	2	3	7	8
Noizean behingo lana	7	5	8	22	8	3	9
Ed/Ee	4	2	5	2	5	4	4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko Gazteria, 2004.

(*) Orain lanean ari ez direnei soilik egindako galdera, euren azken lanari dagokionez.

pen handia izan du azken lau urte hauetan (2000n %7,2), Eustaten estatistikek ere aditzera eman dutenez. EAEko gazteen enplegu-egoera Estatuko gazteen egoerarekin konparatuta ikusten denez, gure erkidegoan gazte kopuru handiagoa dago ikasten; horrenbestez, lanean soilik edo langabezian dauden ehunekoak EAEn Estatuan baino txikiagoak dira (CISen datua, 2003).

Bestalde, interesgarria da gazteen taldearen lan baldintzak ezagutzea. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren ikerketak hiru aldagai aztertu ditu: gazteen lanaren egonkortasuna, lanaldia eta ezaugarriak. Lehenengo eta behin, orain edo iraganean lan egin duten gazteen taldean, %60k diote sei hilabetetik beherako lanen bat izan dutela, %46k 6-12 hilabeteko lanen bat izan dute, eta %58k diote urtebetetik gorako lanen bat izan dutela. Azken enpleguan lan egindako denborari dagokionez, erdiak baino gehiagok (%55) diote urtebetetik hona lortu dutela lana, edo azken enpleguan urtebetetik beherako aldi egin dutela lan. Horrela, ikusten da ezegonkortasunak gora egin duela, 2000ri dagokionez (urte horretan %40ko ta-

sa). Aldiz, urtebetetik gorako iraupena duten lan-kontratuaren kopuruak behera egin du: 2000n %60 ziren eta orain %43 (%27 urtebetetik hirura, eta %16 hiru urte baino gehiago).

Kontratazio motari dagokionez, lan egiten duten edo iraganean egin duten gazteen erdiak baino gehiagok aldi baterako kontratua izan du, eta kontratu mugagabea dutenak edo izan dutenak %31 dira. Datu horiek 2000koekin konparatuta ikusten denez, kontratazio mugagabearen garrantzia lau puntura erori da. Gainera, ehunetik bost euren kontura zebiltzan lanean 2004an, eta ehunetik zazpi noizean behingo lanetan soilik dabilta edo ibili dira.

Bestalde, EAEko gazteei euren lanpostuaren ezaugarriei buruz ere galdetu zaie. Orokorrean, lan egiten duten edo lan egin duten gazteen ustez, euren lanak nahiko interesgarriak dira edo ziren (%60), kualifikatuak ziren (%58), egonkorak (%54), etorkizun handikoak (%52) eta ondo ordaindutakoak (%51). Enplegu horiek ez dute estresik sortzen edo estres oso txikia sortzen dute (%62), ez

GAZTEEN LANAREN EZAUGARRIAK. KALIFIKATZAILE HAUEI DAGOKIENEZ "OSO" EDO "NAHIKO" ERANTZUN DUTEN ELKARRIZTATUEN EHUNEKOAK. 2004.

	EAE guztira	Sexua		Adina		
		Gizona	Emak.	15-19	20-24	25-39
Gaitua	58	61	54	38	55	65
Interesgarria	60	62	58	58	56	65
Errepikakorra	61	62	60	63	64	57
Estresa	37	35	39	32	33	41
Arriskutsua	15	23	8	10	13	18
Etorkizunekoa	52	58	46	36	47	61
Zure heziketarekin zerikusirik	41	44	40	23	41	47
Egonkorra	54	60	47	32	52	61
Ondo ordainduta	51	58	45	51	52	52

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko Gazteria, 2004.

dira arriskutsuak edo arrisku txikikoak dira (%84), baina nahiko edo oso errepikakorrek dira (%61). Hala eta guztiz ere, dirudien ez daude oso lotuta jasotako heziketa akademikoarekin (%56ren ustez, euren lanek ez dute zerikusirik izandako heziketarekin). Gainera, aldagai hauek tan beste batzuetan baino gehiago, elkarrizketaturiko pertsonaren sexua faktore bereizgarria da; izan ere, emakumeen iritzian, euren oraingo edo iraganeko lanak, orokorrean, gizonenak baino trebakuntza nahiz interes txikiagokoak eta etorkizun urriagokoak dira, lotura txikiagoa dute jasotako heziketarekin, ez dira gizonenak bezain egonkorak eta txarrago ordainduta daude.

Azkenik, oro har, autoenpleguak onarpen txikia dauka gazteen artean, orain lau urte baino onarpen txikiagoa (horren aldeko jarrera 2000ko %21,1etik 2004ko %10era igaro da, eta aurkako jarrera, berriz, %60,9tik %79ra igaro da); gainera, egoitza lanaren eraginez aldatzearen aldeko joera oro orokorra da gazteen artean, baina bostetik bat soilik dago prest munduko edozein lekutara joateko, lan interesgarriren baten truke.

1.1.3. Etxebizitza eta bizikidetzat motak

Enpleguarekin batera, gizabanakoaren emantzipazio prozesuko elementu nagusienetarikoa bat etxebizitza da, eta, horrenbestez, gazte faseko azken etapetatik heldutasunaren hasierako etapetara egindako ibilbidearen barruko elementu garrantzitsuenetarikoa da. Bi alderdi horiek (enplegua eta etxebizitza, hurrenkera horretan) EAEko gazteen artean kezkarik eta ardurarik handiena sortzen duten bi elementu nagusiak dira.

Lehenengo etxebizitzaren erosketak duen laguntza publikoa (batez ere, desgrabazio fiskalen bidezkoa) eta interes-tasa txikiak (baita amortizazioaldiak 30-35 urte-

ra luzatzea ere), izatez faktore oso lagungarriak dira EA-Eko gazteek etxebizitza bat erosteko. Hala eta guztiz ere, inflazioari loturiko higiezinaren testuinguru batean, gazteen emantzipazio proiektuak atzeratu egiten dira, eta, batez beste, 30 urterekin desblokeatzen dira, gehienetan bikote-harreman iraunkorrek edota ezkontzak beharrezko kaudimen maila lortzeko aukera ematen dutenean, etxebizitzaren erosketari aurre egin ahal izateko. Horrela, "Euskadiko Gazteria 2004" ikerketan adierazitakoaren arabera, 15-29 urte bitarteko pertsonen %89ren ustez etxebizitzaren prezioa da emantzipatzeko oztopo nagusia. Izan ere, pertsona bakarreko aukera irabazi oso handiak dituen gutxiengo baten esku baino ez dago. Hortaz, gazteen emantzipazioaren batez besteko adina bat etortzen da ezkontzeko adinarekin: 31,7 gizonen kasuan eta 29,7 emakumei dagokienez (Eustat. "Ezkontzen Estatistika 2003").

Espainiako estatuari dagokionez, EAEn bizi den 18-34 urte bitarteko taldeak emantzipazio tasa txikiagoa dauka: %31,8 eta Estatuan %37,4 (Etxebizitzaren gazte Behatokia Espainian, 2004ko Urtekaria, Espainiako Gazteriaren Kontseilua). Emantzipazio urriago hori argiago ikusten da beste autonomia erkidego batzuetakoarekin konparatzen denean; Estatuako lehenengo postuan Balearrak daude, %47,2ko tasarekin, eta gero Katalunia eta Valentziako Erkidegoa daude. Gure erkidegoaren atzetik Galizia, Kantabria eta Asturias baino ez daude.

Bestalde, etxebizitzak erkidego horietan duen prezioa eta, oraindik ere interesgarriagoa dena, gazteek (aintzat hartuta lan egoera, soldatak, etab.) onartu ahal duten gehieneko prezioa konparatuta, egoera aldatu egiten da kasu batzuetan: lehenengo eta behin, etxebizitza askearen prezioa EAEn, 2004an, Estatuako batez bestekoa baino %44,6 handiagoa zen (hortik gorako prezioak


dituen bakarra Madrileko Erkidegoa da), eta Kataluniarren eta Balearren aurretik. Gazteek onartzeko moduko gehieneko prezioei erreparatuta ikusten denez, Gazteriarren Kontseiluak egiaztatu du horrek gora egin duela erreferentziako urtean, eta 108.447€-koa da; etxebizitzaren prezioa, berriz, 237.377€-koa da. Familia gazte batek onartzeko moduko gehieneko prezioari dagokionez (kontuan hartuta kasurik gehienetan etxebizitzaren erosketa bikote batek egiten duela), prezio hori 150.000€-koa da, eta zenbateko hori batez besteko prezioetatik oso urrun dago. Estatuan, etxebizitzaren batez besteko prezioaren eta familia gazte batek onartzeko moduko prezioaren arteko aldea askoz ere txikiagoa da: 27.241€, eta EAE 88.005€. Aipagarria da, aldagai horiei dagokionez, grafikoan ikusten denaren arabera, kasu batzuetan (adibidez, Katalunian eta Balearretan) etxebizitzaren prezioak handiak izan arren emantzipazio tasak Estatuko tasarik altuenak izatea.

Nolanahi ere, eta 2000ko ikerketan agerian gelditu zenaren arabera, "Euskadiko Gazteria 2004" ikerketak familiako bizitzarekiko poztasun handia ikusi du EAEko gazteen artean; izan ere, gazteen %97k diote oso edo nahiko pozik daudela familiako bizitzarekin (%52 eta %45, hurrenez hurren). Gainera, bikotean edo ezkontuta bizi diren pertsonen poztasun maila handiagoa dute: EAEko gazteen %66 ezkontuta daude eta bikotekidearekin bizi diren %64k diote oso pozik daudela. Horrenbestez, gaz-

teen taldea orokorrean pozik egon arren, oraindik ere emantzipatu ez den talde horren zatia oraindik ere poztasun dago.


Izan ere, lehen esan dugunez, emantzipazio urria EAEko gazteriarren ezaugarri nagusienetarikoa da: inkestan parte hartu duten gazterik gehienak familiarekin bizi dira

HONAKO EGOERA HAUETATIK ZEINEK DAUKA ANTZIK HANDIENA ZEUREAREKIN? EAEren eta Estatuaren arteko konparazio-datuak. Datuak ehunekotan



Iturria: Eusko Jaurlaritza "Euskadiko Gazteria 2004" ikerketan eta CIS-2003an oinarrituz.

GAZTERIA ETA ETXEBIZITZA. EMANTZIPAZIO TASA ETA ETXEBIZITZAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA. 2004



Iturria: Espainiako Gazteriarren Kontseilua.

ZEIN NEURRITAN ZAUDE POZIK ZEURE FAMILIA BIZITZAREKIN? DATUAK %-TAN. 2004

	EAE guztira	Sexua		Familia egoera			EAE 2000
		Gizona	Emak.	Ezkong.	Ezkondua	Bikotean	
Asko	52	49	54	50	66	64	59
Nahiko	45	47	43	47	33	32	37
Gutxi	2	3	2	2	1	3	3
Batere ez	0	0	0	0	0	1	1
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko Gazteria, 2004.

(%84), eta ehuneko hori %88koa da gizonen kasuan. Ikerketa horretan oinarrituz, esan daiteke EAEko gazte emantzipaturik gehienak emakumeak, 25-29 urte bitarteko gazteak eta gizarte mailarik baxuenekoak direla. Horrenbestez, emantzipazio berantiararen zergatiak oso ezagunak dira, eta estu lotuta daude etxebizitzaren prezioarekin (%89) eta diru-sarrera urriekin (%70), baina baita erosotasunarekin ere (%36), batez ere gizonen kasuan (%40), eta Gipuzkoako gazteen kasuan (%43). Hala eta guztiz ere, erosotasunak familiaren etxearekiko independentziarik ezak eginkizun garrantzitsua duela dioten EAEko gazteen ehunekoak 13 puntutik gorako murriztapena izan du 2000tik.

1.1.4. Aisialdia eta astialdia

Denboran zehar, astialdiaren kantitatea eta horren erabilera aldatu egin dira. EAEko gazteek, gizarteko gainerako gazte guztiek bezala, aldatu egin ditu ohiturak, eta interesgarria da orain horren ezaugarriak eta ematen zaion erabilera aztertzea.

Azken hamarkadotan, astialdiaren fenomenoaren zatiak zehaztu da, eta, horrela, produktuen eskaintza bikoiztu egin da: kulturari, turismoari, kirolari eta aisialdiari loturiko ondasunak eta zerbitzuak. Bezero berriak agertu dira, esate baterako, adineko pertsonak, ezintasuna duten pertsonak edo emakumeak. Halaber, gazteen presentziaren kuotak gora egin du eta informazioaren nahiz komunikazioaren teknologien paradigma apurka-apurka finkatu egin da, astialdirako modutzat, eta, beraz, enplegu meatoki berria da gaur egun.


"Euskadiko Gazteria 2004" ikerketak agerian jarri duenez, EAEko gazteek diote astialdirako ordu asko dituztela, ez asteburuetan bakarrik, baita astegunetan ere; ordu horiek, gainera, hazkundea izan dute azken lau urteotan. %46k diotenez, astegunetan egunero lau ordu baino gehiago dute astialdirako, eta 2000ko ehuneko

%39koa zen. Astialdirako ordu kopururik handiena dute honako hauek dira: gizonak (%48), 20-24 urteko adintartea (%48), ezkongabeak (%48) eta langabetuak (%75 astegunetan, baina %87 aintzat hartuta aste osoa).

EAEko gazteek, batez ere, honako honetarako erabiltzen dute astialdia: familiarekin egoteko (%87), telebista ikusteko (%84), musika entzuteko (%78), telefonoz hitz egiteko edo sakelako telefonotik nahiz posta elektronikotik mezua bidaltzeko (%75), lagunekin egoteko eta paseatzeko edo kafean egoteko (%61 bi kasuetan). Erdi baina gutxiagok prentsa edo aldizkariak irakurtzeko (%43), ordenagailuarekin ibiltzeko (%41) edo atsedena hartzeko edo ezer ez egiteko (%35) erabiltzen dute astialdia. Halaber, asteburuetan aipagarria da, ohikoa den neurrian, tabernetara eta, apur bat gutxiago, diskoteketara joatea, baita kultura edo kirol ikuskizunetara joatea edo mendira zein erosketak egitera joatea ere. Jarduera politikoak edota sindikalak, boluntariotzakoak eta erlijiosoak dira gutxien egiten direnak, EAEko gazteen artean.

Bestalde, EAEko gazteriaren laurdenak (gutxi gorabehera) astialdiaren zatitxo batean liburuak irakurtzen ditu (%24), eta ehuneko hori %31koa da emakume gazteen kasuan. Adin taldeen arabera, adina zenbat eta handiagoa izan tasa igo egiten da; izan ere, 25-29 urtekoen artean, ia egunero irakurtzen dutenen tasa %31koa da, baina tasa hori %18ra murrizten da 19 urtetik beherakoan artean. Hilean gutxienez behin liburuak irakurtzen dituzten gazteak aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoaren Kabinetearen "Gazteriaren Erretratuak-8" ikerketan ikusten denez (2005eko urria), inkestaturiko gazteen %14k 12 liburu baino gehiago irakurri dituzte azken urtean, %17k 8-12 liburu, eta %36k 4-8 liburu.

Kirolari dagokionez (kirola egitea eta kirol-elkarteren batekoa izatea), joera hori nahiko nabariagoa da gizonen artean emakumeen artean baino. Izan ere, "Euskadiko


**GAZTEEK AISIALDIRAKO ERABILTZEN DUTEN
DENBORA, ENPLEGU EGOERAREN ARABERA**


Iturria: Eusko Jaurlaritza "Euskadiko Gazteria 2004".

"Gazteria 2004" ikerketak dioenez, gazteen %21ek esan dute ia egunero egiten dutela kirola, eta mutilen kasuan tasa hori %30ekoa da (nesken kasuan %12koa). Kirol-elkarteetakoa izateari dagokionez, tasak %15ekoak dira, %24koak mutilen kasuan eta %7koak emakumeei dagokienez.

Kirola egiteari dagokionez, bestalde, "Gazteriaren Erretratuak-8" ikerketan adierazitakoaren arabera, EAEko gazteen %53k diote kirol-zaletasun oso handia dutela. %37k diote kirola atsegin dutela eta behar beste kirol egiten dutela; %29k diote atsegin dutela baina ez dutela behar beste egiten, eta %19k diote kirolarekiko interesa dutela, baina ez dutela kirolik egiten, lehen egin arren. Gehien egiten diren kirolak futbola (%24), igeriketa (%23) eta txirrindularitza (%23) dira. Horien atzetik honako hauek daude: mantenamenduko gimnasia (%14), futbitoia (%14), saski-baloia (%14), jogginga (%13) eta mendia (%12).

Bestalde, Interneten erabilerak gorakada itzela izan du azken urteotan: EAEko gazteen %80k baino gehiagok nabigatu egiten dute saretik, eta interneten inoiz ere sartu ez direnen tasa %17koa da. Tasa hori, 2000n, %53koa zen. Datu horiek CISEk Estatuko gazteriari dagokionez

**KIROLA EGITEAREN ZERGATIAK. ADINAREN
ARABERAKO BANAKETA. DATUAK %-TAN. 2005**


Iturria: Eusko Jaurlaritza "Euskadiko Gazteria 2004".

2003an lorturikoekin konparatuta ikusten denez, EAEko gazteek gehiago erabiltzen dute Internet, Estatuan baiezko erantzuna eman dutenak %51,1 baino ez baitira.

"Euskadiko Gazteria 2004" inkestan esaten denez, kasu honetan ez dago generoaren araberrak desberdintasunik; izan ere, gizonek eta emakumeek maila berean erabiltzen dituzte teknologia berriak, eta, nolahi ere, gazteen taldearen barruan, gazteenak dira mundu honetan lehenen sartu direnak. Gainera, EAEko lau internauta gaztetik batek astean zazpi ordu baino gehiago egiten dituzte sarean konektatuta. Horri dagokionez, Internet gehien erabiltzen duen taldea 15-19 urte bitartekoa da; talde horretako kideek ordenagailua dute etxean eta astialdian ordenagailua edo txatak erabiltzen dituzte; horrela, badi-rudi teknologia berrien etorkizuna bermatuta dagoela EA-En, aintzat hartuta, gainera, gazteen %18k internauta esperientzia handia dutela, lau urterik hona ari baitira nabigatzen.

Asteburuetako astialdi jardueretara itzulita, horiek gaueko astialdiari, alkohola edateari eta, kasu gutxi batzuetan, beste substantzia batzuk hartzeari lotuta daude, gazteen kasuan. Gazteriaren Euskadiko Behatokiak egindako "Gazteriaren Joerak 2005" ikerketan adierazi-

ZENBAT DENBORA DARAMAZU INTERNET ERABILTZEN? 2004.

	EAE guztira	Sexua		Adina		
		Gizona	Emak.	15-19	20-24	25-39
Ez dut inoiz erabili	17	18	17	12	14	25
6 hilab. baino gutx.	8	8	8	10	8	7
6-12 hilabete	7	7	8	10	8	5
1-2 urte	16	16	17	21	17	11
2-3 urte	19	19	18	23	20	13
3-4 urte	14	15	14	12	15	15
4 urte baino geh.	18	18	17	12	17	23
Ed/Ee	0	1	0	1	1	0
GUZTIRA EHUNEKOAK	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko Gazteria, 2004.

HERIOTZAREN ERAGILE NAGUSIAK 15-29 URTEKO BIZTANLEEN ARTEAN EAEN. DATUAK EHUNEKOTAN.

	1992-1996	1997-2001			
		15-19	20-24	25-29	Guztira
Trafiko-istripuak	22,6	40,9	46,7	26,1	37,0
HIESa	20,2	7,3	10,7	11,9	4,6
Drogen eraginezko ezusteko pozoitzea	7,4	0,5	1,4	8,5	4,3
Norbere burua hiltzea eta lesioak eragitea	7,1	0,9	2,3	7,1	10,4
Beste zergati batzuk	42,7	49,5	38,9	46,4	43,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Osasun Saila. Gazteriaren Euskadiko Behatokia.

takoaren arabera, EAEko gazteen %61,1ek gaueko astialdiaz gozatzen dute asteburu guztietan edo ia guztietan. Sarrien egiten dutenak gazteenak eta ikasleak dira, eta, asteburuan irten ez direnen artean, horren zergati nagusia ikasketak edo nekea dira. Etxera itzultzeko ordua goizaldeko 4,00 eta 7,00 bitartekoa izaten da (%53,8), eta beranduago iristen direnak nagusienak eta mutilak dira. Astialdi horretan, gehien egiten diren jarduerak tabernetara, pubetara eta diskoteketara joatea (%55,4), jatetxetara joatea (%31,2) eta *botellon* deritzona egitea (%23,1) dira (zinera edo kontzertuetara joatea ozta-ozta heltzen da %20ra). Gehienbat Bizkaian egiten da eta adinarekin murriztu egiten da. Gainera, gazteek gaueko irteerei dagokienez adierazi duten poztasun maila nahiko altua da (10etik 7,6), eta horrek aditzera ematen du jarduera horiek poztasun handia ematen dutela.

Astialdiko jarduera horiei lotuta, aipagarria da alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumo handia, baita EAEko gazteen arteko hilkortasun handia ere, asteburu-istripuen ondorioz. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako datuen arabera, 15-29 urte bitarteko biztanleen arteko heriotzaren eragile nagusiak trafiko istripuak dira: 1997-2001 aldian hildakoen %37 horren ondoriozkoak izan ziren (tasa %46,7koa da 20-24 urte bitar-

teko gazteen artean), eta 1992-96 aldiko tasa, berriz, %22,6koa izan zen.

1.1.5. Bizi baldintzak eta gizarte ekintza

Aurreko epigrafeetan ikusi dugunez, EAEko gazterik gehienek bizi-kalitate oso onargarria dute, eta familia eta harreman inguruak babestu egiten dituzte zailtasunetatik; gainera, beharrezko kotetan ez bada ere, langabezia tasek murrizteko joera dute. Hala eta guztiz ere, 2001eko Memoria Sozioekonomikoan Kontseiluak datu nahikorik ez zegoela esan arren, aipagarria da gazteen azpitalde batek zenbait arrazoiaren eraginez (besteak beste, langabezia, baina baita beste batzuk ere, esaterako, drogak hartzea edo ezintasunak edukitzea), oztopoak eta zailtasunak ditu, baita gatazkak ere, eta horien ondorioz bazterkeria egoeran edo horren arriskuan daude.

Gazteen taldeari dagokionez, "Euskadiko Gazteria 2004" ikerketan adierazitakoaren arabera, EAEko gazteen laurdena bere eta bikotearen diru-sarreretatik bizi dira; Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren "Espainiako Gazteria 2004" txostenak Estatuko gazteriarako emandako tasa, berriz, %33koa da. Estatuari buruzko datuekin jarraituz, 2004an gazteen %24k erabateko autonomia ekonomikoa zuten, eta %21 neurri batean independenteak

GAZTE LANGABETUEN TIPOLOGIA. TALDEAK EHUNEKOTAN DUEN BANAKETA. ESTATUA.

	Ez dute Ongizate Egoeraren babesik jasotzen	Estatuaren babesa jasotzen dute Ongizatean	Gutztira
Langileren bat duen familia unitate batean bizi dira	70	10	80
Bizikidetzat unitateko inor ez dabil lanean	15	5	20
GUZTIRA	85	15	100

Iturria: "Las condiciones de vida de los jóvenes desempleados". INJUVE, MTAS, 2005.

ziren. Bigarren kasu horretan, eurek sortzen ez dituzten baliabideak jatorrizko familiatik datoz eta gainerakoak bikotekidearengandik. Euren baliabideekin guztiz edo neurri batean bizi direnen baliabideen jatorriak, izan ere, lan erregularra (%76), aldian behingo lanak (%14) eta beste iturri batzuk (%10) dira.

EAEko datuetara itzulita, gazteen erabilgarritasun ekonomikoa mugatua da: taldearen erdiak baino gehiagok 600€ baino gutxiago dauka hilean. Gurasoen etxetik lehenen alde egiten dutenak emakumeak izan arren, euren dituzte hileko errentarik txikiak. Adinak aurrera egin ahala, diru-sarrerak handiagoak dira, baina 24 urtetik gorakoen bostenak 300€ baino gutxiago dauka hilean.

Gazte langabetuen taldeari dagokionez, Espainiako Gazteriaren Institutuak (Lan eta Gizarte Gaien Ministerioa, 2005) egindako "Gazte langabetuen bizi-baldintzak" ikerketak gazte langabetuen lau tipologia adierazten ditu Estatutarako (EAEra estrapolatzeko moduko datuak), gizarte babeseke mekanismoekiko duten jarreraren eta familia unitatearen barruan duten rolaaren arabera. Lan horrek berretsi egiten ditu gazteen mendekotasuna (jatorrizko familiari dagokionez) luzatzeari buruzko hipotesiak, baita Ongizate Estatuaren funtzionamenduaren izaera subsidiarioari buruzkoak ere, horrek sarritan (baita gazteen kasuan ere) familiari eskuordetzen baitio beharizan larriko egoeretara bideraturiko gizabanakoen babesa.

Tipologia horri jarraituta, 16-29 urte bitarteko gazte langabetuak (%70) "mendeko langabetutzat" har daitezke, gizarte babeseke mekanismo publikoen babesik ez dutelako, ez baitute horien laguntzarik jasotzen; hala ere, kideren bat lanean duen familia unitate batean bizi dira eta kide horrek beharrezko baliabideen hornitzaileen rola dauka. Gazte langabetuen %5 aurkako posizioan daude; izan ere, Ongizate Estatuaren babesa izanik euren inguruan ez dago lanean dabilen beste pertsonarik. Gainerako gazte langabetuak bitarteko egoeretan daude,


bi esfera horiek partekatuz. Ikerketa honek, gainera, gauza guztiz kezkarria jarri du agerian: gehienak Estatuan "langabeziari emandako babes mailarekin pozik" egon arren, Estatuko gazte langabetuen herenak baino gutxiagok (%29) ezagutzen ditu langabeziaren eraginezko kontribuzio-prestazioa, eta laurdenak soilik (%23) ezagutzen dituzte laguntzako sorospena kobratzeko dauden baldintzak.

Bestalde, 2001eko Memoria Sozioekonomikoak dioenez, "*bazterkeria gero eta gazteagoa*" da; izan ere, pobrezia buruzko ikerketek urte batzuetatik hona aditzera ematen dute behin-behineko egoeretan bizi diren pertsonak gero eta gazteagoak direla. Eusko Jaurlaritzaren "*Pobrezia buruzko Inkestaren*" azken datuetan (2004ari buruzkoak⁴) adierazitakoaren arabera, pobrezia arriskurik handiena duten taldeen artean gazteak daude. Hain zuzen ere, pobrezia loturiko arazoei eragin handiagoa dute 35 urtetik beherako familia burua duten familietan (%15,9) edo 35-44 urte bitarteko familia burua duten familietan (%7,4); familiako pertsona nagusiaren adina handiagoa izan ahala tasa horiek murriztu egiten dira argi eta garbi.

"*Pobrezia buruzko Inkesta*" ateratako ondorio nagusien artean, aipagarria da 45 urtetik beherako pertsona nagusia duten familietan izandako hazkunde handia (2000-2004an %21 ingurukoa), eta horrek agerian jartzen du aldi horretan bizkortze garrantzitsua egon dela gazteak emantzipatzeko prozesuan. Langabeziak eta enplegu ezegonkorak talde horretan duten eraginak eta egoera horiek pobrezia arriskuarekin duten lotura handiak justifikatu egiten dute pertsona talde hori pobrezia egoeren erdigunea izatea 2004an. Horrela, 2000an %27 izatetik, etxeko ardura duten 45 urtetik beherako pertsonak (enplegu egonkorrik gabekoak) 2004an %53,3 izatera igaro dira, pobrezia arriskuan dauden pertsona guztiei dagokionez.

⁴ "Pobrezia buruzko 2004ko Inkesta" deritzoneko emaitzak zehatzago ikusteko, EAEko Memoria Sozioekonomiko honen 2004ko ediziora jo dezake irakurleak (IV. kapitulu: Pobrezia eta Gizarte Bazterkeria EAEn).

POBREZIA ARRISKUKO EGOEREN GARRANTZIA (MANTENAMENDUKO EDO PILAKETAKO POBREZIA), EGOERA SOZIODEMOGRAFIKO BATZUEI DAGOKIENEZ. FAMILIAKO ETXEBIZITZETAKO BIZTANLERIA. EHUNEKOAK. 2000-2004



Iturria: Eusko Jaurlaritza "Pobreziari buruzko Inkesta (2004)".

1.2. Adineko pertsonak


2004an EAEko 65 urteko edo hortik gorako biztanleen taldean 385.385 pertsona sartzen dira (guztizkoaren %18,2), eta talde hori 20 urtetik gorako gazteek eratutako (351.855 pertsona, guztizkoaren %16,6) baino ugariagoa da. Emaita horiek aldaketa handia adierazten dute, 1981ean ikusitako adin-egiturari dagokionez, izan ere urte horretan, gazteen taldean biztanleriaren %34,2 sartzen zen eta adineko pertsonen taldearen tasa guztizkoaren %9,2koa baino ez zen. Aldaketa horrek agerian jartzen du 80ko eta 90eko hamarkadetan jaiotza-tasak behera egin duela eta biztanleriak bizi itxaropen handiagoa duela.

Bilakaera hori egon arren, EAE oraindik ere bitarteko zahartze mailan dago, Europako eskualdeei dagokionez. Horrela, 65 urteko eta hortik gorako biztanleen ehunekoa aintzat hartuta, EAE bitarteko zonan dago Europako eskualdeen rankingean, honako eskualde hauek baino askoz ere beherago: Liguria (%26), Limousin (%23,2), Toskana (%22,8) edo Alentejo (%22,6); baina beste batzuk baino gorago, adibidez, Ipar Irlanda (%13,4), Madeira (%13,4), Frantziako Uhartea (%12,4) eta Londres (%12,1).

Hala ere, oraindik ere garrantzitsuagoa da biztanleriaren zahartzea hurrengo urteetan handiagoa izango dela egiaztatzea. Izan ere, Eustaten "Biztanleriaren Proiekzioen Estatistika 2015" deritzonak egindako aurreikuspenaren arabera, 20 urtetik beherakoen taldeak aldiari gora egingo duen arren (2015ean %18,6), bilakaera hori ez da nahikoa izango 65 urteko edo hortik gorako biztanleriaren hazkundera orekatzeko: 101.000 pertsona gehiago, hau da, aldiaren amaieran biztanleriaren %21,3 izango dira. Hala ere, hazkunderik handiena 85 urteko eta hortik gorako pertsonen artean egongo da; izan ere, talde hori 2000ko %9,9tik 2015eko %16,4ra igaroko da, adin oso nagusiko biztanleriaren segmentuaren hazkunde erritmo handiagoaren ondorioz (urteko +%5,14), 65 urtetik gorako biztanleriari dagokionez (urteko +%1,64). Erritmo horrek 85 urteko edo hortik gorako 40.000 pertsonatik gorako hazkunde absolutua adierazten du; hau da, 15 urtean 36.100 izatetik 76.600 izatera igaroko dira. Egin-eginean ere, proiektzio horien aurreikuspenaren arabera, EAEko biztanleriaren bizi itxaropena 2015ean 80,2 urtekoa izango da gizonentzat eta 86,9koa emakumeentzat.

Izan ere, Nazio Batuek diotenez⁵, 2050ean Espainia munduko biztanleriarik zaharrena izango duen herria

⁵ "Consecuencias del envejecimiento en la sociedad española actual", M. Teresa Bazo. Panorama Social aldizkaria, 1. zenb. Funcas, 2005.

BIZTANLERIAREN ZAHARTZE MAILA EUROPAKO ESKUALDEETAN. 2003.

Iturria: Eurostat "Regions: Statistical Yearbook. 2004".

izango da, eta bertako batez besteko adina 55 urtekoa izango da. Horren atzetik Italia, Eslovenia eta Austria egongo dira (54 urteko batez bestekoa), Kasu horretan, Espainian eta Italian haur bakoitzeko 60 urtetik gorako lau pertsona egongo dira. Halaber, hamar herritan biztanleriaren %10ek baino gehiagok 80 urtetik gora izango du. Gaur egun, herririk zaharrena Japonia da, 41 urteko batez bestekoarekin, eta munduko batez besteko adina 26 urtekoa.

Osasun laguntzaren hobekuntzaren, bizi itxaropenaren hazkundearen eta adineko pertsonen bizitza autonomorako erraztasun gero eta handiagoen eraginez, gero eta etxebizitza gehiagotan adineko pertsonak daude. 1981 eta 1991 bitartean, 65 urtetik gorako pertsonen osaturiko etxebizitza kopuruak 45.000 unitateko hazkundera izan du (+%43). Orintsuago, 1991 eta 2004 bitartean, prozesu hori bizkortu eta 91.000 etxebizitzaren hazkundera egon da (%50etik gorako hazkundera, aldi horretan detektaturiko 174.900 etxebizitzari dagokienez). Gainera, beste 51.952 etxebizitzatan 65 urteko eta hortik gorako kideak dituzten bikoteekin osaturik daude, eta horrek EAEko etxebizitzaren %7 adierazten du.

Bakarrik bizi diren 65 urteko eta hortik gorako pertsonen egoera aztertuta (pertsona bakarreko familiak), aipagarria da familia horien proportzio handiak guztiz ordaindutako etxebizitza duela jabetzan (%78 eta gainerako

familien kasuan tasa %59,7koa da). Hala eta guztiz ere, alokairua gainerako familietan baino hedatuago dago (%9,1 eta %7,1). Era berean, etxebizitzaren zati handia eraikin nahiko zaharretan daude (%17 1920 baino lehenago eraikitako eraikinetan daude, eta beste %14,3 1921 eta 1940 bitartean eraikitako eraikinetan). Horrenbestez, ez da harrigarria pertsona horietariko gehienak igogailurik gabeko eraikinetan bizitzea (%53,6), kasu batzuetan familia bakarreko etxebizitza-eraikinak izan arren (%6,6).

Hortaz, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak (2001) emandako datuetatik ondorioztatzen denez, adineko pertsonarik gehienak euren beharrianetara egokitzen ez diren etxebizitzetan bizi dira; etxebizitza horiek sarritan "handiegiak" dira eta, batzuetan, ez dute gutxieneko instalaziorik halako pertsonen muga fisikoei beharrezko laguntza eskaintzeko.

1.2.1. Adineko pertsonen gizarte eta ekonomia rol berria


Gaur egun, zahartzaroari buruz hitz egitea ahalmenei buruz hitz egitea da. Ondo zahartzea garrantzia hartzen ari den kontzeptua da, antzinako estereotipo negatiboak ezabatu ondoren, eta baikortasun berria hedatzen ari da, honako honetan oinarrituz: adineko pertsonak behar bezala aprobetxatzen ez diren ahalmenak eta gaitasunak dituzten pertsonatzat ikusten dira. Orain arte pentsatzen

65 URTETIK GORAKO PERTSONEK SOILIK OSATURIKO ETXEA. EAE. 2001

Etxe mota	Kopurua	%
85 urteko edo gehiagoko emakumea bakarrik	7.486	1,0
85 urteko edo gehiagoko gizona bakarrik	1.428	0,2
65-84 urteko emakumea bakarrik	43.487	5,9
65-84 gizona bakarrik	12.045	1,6
Pertsona bakarreko etxeak guztira	64.446	8,7
85 urteko edo gehiagoko bikotea	878	0,1
65-84 urteko kide bat eta 85 urteko edo gehiagoko beste bat dituen bikotea	2.799	0,4
65-84 urteko bikotea	47.915	6,5
Adineko bikotedun etxeak guztira	51.952	7,0
Adineko pertsonadun etxeak guztira	116.038	15,7
EAEko etxeak guztira	741.408	100,0

Iturria: EIN. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua.

EAEko BIZTANLERIAREN BILAKAERA, ADIN TALDEEN ARABERA. PROIEKZIOAK




Iturria: Eustat "Biztanleriaren Proiekzioak 2015".

zen adineko pertsonak jasotzaile hutsak zirela (zaintzen eta laguntza materialaren nahiz ekonomikoaren jasotzaileak). Gaur egun, hala ere, laguntza ematen diete euren familiei (gogoratu EAEko 12.000 familiak gutxienez aitona-amonengana jotzen dutela haurrak zaintzeko), eta gainera, gero eta gehiago, gizarte jarduera altruistak egiten dituzte boluntario-elkarteetan. Izan ere, bizi itxaropenaren gorakadak bereizketa argia egiten du "adineko pertsonen" eta "adineko zaharren" artean⁶. Oraintsu arte, bereizketa horren muga 75 urte inguruan zegoen, baina gaur egun muga hori 80 urtera atzeratu da, adin horretara heltzeko bizi baldintzak daudela aintzat hartuta.

⁶ "EAEko biztanleriaren poizitza eta horren ondorio ekonomikoak eta sozialak", Ogasun eta Herri Administrazio Saila. EUSKO JAURLARITZA. Ekonomia Ikerketak, 17. zenb. 2005.


ZER EGITEN DU EDO EGIN NAHI DU JENDEAK ERRETIROA HARTZEAN? DATUAK EHUNEKOTAN. ESTATUA, 2006




Iturria: AXA "Erretiroari buruzko Nazioarteko Ikerketa. 2006ko urtarri".

Horrela, jubilatu berriek (oro har, 65 urtetik gorakoak) honako ezaugarri komun hauek dituzte:

- Osasun hobea: Bizi itxaropenak 30 urtetan egin du gora azken mendean. Izan ere, orain gehiago eta hobeto bizi da jendea, eta adineko pertsonen euren osasunari buruz duten iritziak ere hobera egin du azken urteotan; izan ere, osasun ona dutela dioten jubilatuak kopuruak gora egin du. Egin-eginean ere, jubilatuak aisialdi pasiboan denborarik gehien ematen duten pertsonak izan dira orain arte, baina gaur egun gero eta garrantzi handiagoa dute gizarte arlo eta ikuskizun guztietan, baita orain arte hiruugarren adinetik baztertuta zeudenetan ere (esate baterako, kirola).
- Heziketa eta kultura maila handiagoa: Orain hogei urte jubilatuak belaunaldian gutxi batzuk soilik lortzen dituzten oinarriko heziketa mailak. 2001ean, 65 urtetik gorako biztanleriaren %13,5ek gutxienez lanbide ikasketak edo bigarren hezkuntzakoak ditu.

USTEZKO OSASUNA. 1997-2002KO BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. DATUAK EHUNEKOTAN


Iturria: Eusko Jaurlaritza "Osasunari buruzko Inkesta (2002)".

BIZI-ITXAROPENAREN BILAKAERA EAĒN. 1992-2002


Iturria: Eusko Jaurlaritza "Osasunari buruzko Inkesta (2002)".

Kultura eta heziketa handiagoko belaunaldi horrek beste bizimodu batzuk aukeratu, astialdiko jarduerak garatu (adibidez, irakurri, etab.), ikuskizunetara joan, ikus-entzunezko materiala erabili, kultura nahiz politika arloetan parte hartu eta halako gauzak egiten dituzte. Oraingo jubilatuak gero eta esperientzia handiagoa dute gizarte zibilean parte hartzeko mekanismoetan, eta gehienak euren eskubideak ezagutu eta errespetua sortzen dute.

– Pertsona horiek erabilgarritasun handia dute gizartearentzat: gaur egun, 65 eta 75 urte bitarteko pertsonarik gehienek ez dute gaixotasunik, mendekotasunik eta halakorik (orain arte "zahartzaroari" loturiko ezaugarriak), eta esan daiteke euren bizitzak antz handiagoa duela pertsona heldu baten bizitzarekin, orain dela hamarkada gutxi batzuetako zahar baten bizitzarekin baino. Hortaz, "gizarte erabilgarritasun" handia dute, politikari, ekonomiari eta gizarteari dagokionez. Azken batean, jubilatuak aztertzean ikusten da ahalmen gero eta handiagoa dutela, ez zergati demografikoen ondorioz bakarrik, baita gazterik jubilatzen direlako eta lehengo jubilatuak baino ezagupen nahiz trebetasun handiagoak dituztelako ere. Horren eraginez, gero eta jarduera gehiago egin nahi izaten dituzte, eta euren lekua aurkitu nahi izaten dute; gainera, definizio berrien eta identitate pozgarrien bila ibiltzen dira.

– Azkenik, adineko pertsonen kontsumoak gora egin du termino absolutuetan eta erlatiboetan. Izan ere, ondasunen eta zerbitzuen merkatuak gero eta interes handiagoa dauka adineko pertsonen sektorean (esate baterako, turismoaren arloan); gainera, eragin ekonomikoa, soziala eta kulturala estuago lotuta dago hezkuntzarekin, ikaskuntzekin eta bizi-estiloekin, adinarekin baino. Adineko pertsonen merkatuko kontsumitzailetzat duten eginkizuna

zenbait faktoreen eraginpean dago: jarduera tasak, landun-langabetu erlazioa, erretiroaren adina eta baldintzak, osasun zein gizarte politika, adineko pertsonen ondarea. Egindako ikerketa batzuek diotenez, Europan dagoeneko sortzen ari dira adineko pertsonen hazkundearen eta pentsaera berriaren arabera garatuko diren sektore berriak.

1.2.2. Osasun egoera

EAEko adineko pertsonen osasun egoera eta, horren besteko garrantzia duena, hautemandako osasuna, orokorrean, ona da, aurreko atalean ikusi dugunez. Talde osoa aintzat hartuta, ezintasunei loturiko osasun arazo larriak dituzten adineko pertsonak, zorionez, gutxi dira. Hala eta guztiz ere, osasun eza horrek adineko pertsonetan eta gizarte osoan sorturiko mugak eta arazoak aztertu behar dira.

Egoera ahalik eta onenetan bizitzaren garrantzia aintzat hartuta, eta politika publiko egokiak martxan jarri ahal izateko, gero eta bereizketa handiagoa egiten da bizi itxaropenaren eta eta osasun oneko bizi itxaropenaren artean. Bigarrenaren kasuan kontuan hartzen da hilkortasunaren, erikortasunaren eta bizi kalitateko faktoreen arteko konbinazioa. EAEko azken "Osasunaren Inkestak" diotenez (2002ari buruzko datuak), adierazle horrek gora egin du gizonen eta emakumeen kasuan, 1997ari dagoeneko (aurreko inkestaren urtea). Hazkunde hori, gizonen artean, ezintasuneko urte kopuruak behera egitearen eta osasun oneko bizi itxaropenak gora egitearen eraginezkoa da. Emakumeen artean, berriz, osasun oneko bizi itxaropenak gorantz jarraitzearen eraginezkoa da, ezintasun urteak ia iraunkor mantendu baitira.

Datu horiek Europar Batasuneko egoerarekin konparatuta ikusten denez, lehenengo eta behin, EAEko emakumeek dute bizi itxaropenik handiena jaiotzean (83,8); gero, Espainiako estatukoak (83,5) eta Frantziakoak (83 urte). Bestalde, EAEko gizonak 75,9 urteko bizi itxaropena dute, eta EB-15eko eta Estatuko batez bestekoan sartzen dira (bi kasutan 75,8 urte); bizi itxaropenik handiena duten gizonak Suediakoak dira (77,7 urte). Hala ere, osasun oneko bizi itxaropena konparatuta, emaitzak bestelakoak dira; izan ere, EAEko emakumeek 11,6 urte galtzen dituzte, osasun oneko 72,2 urte edukitzeko (batez beste), eta gizonak, aldiz, 8,9 urte galtzen dituzte, 67 urtera arte (osasun onean).

EUROPAKO BIZI ITXAROPENAREN ADIERAZLEAK. 2002.


	Gizonak		Emakumeak	
	Jaiotzean	Osasun onean	Jaiotzean	Osasun onean
EB-25	74,8	:	81,1	:
EB-15	75,8	:	81,6	:
Belgika	75,1	67,4	81,1	69,2
Txekiar Errep.	72,1	62,8	78,7	63,3
Danimarka	74,8	63,0	79,5	60,9
Alemania	75,4	65,0	81,2	64,7
Estonia	65,3	:	77,1	:
Grezia	75,4	66,7	80,7	68,4
Espainia	75,8	66,8	83,5	70,2
Frantzia	75,8	60,6	83,0	63,9
Irlanda	75,2	63,4	80,3	65,4
Italia	76,8	70,9	82,9	74,4
Zipre	:	68,4	:	69,6
Letonia	64,8	:	76,0	:
Lituania	66,3	:	77,5	:
Luxenburgo	74,9	:	81,5	:
Hungaria	68,4	53,5	76,7	57,8
Malta	75,9	65,1	81,0	65,7
Herbehereak	76,0	61,7	80,7	58,8
Austria	75,8	66,2	81,7	69,6
Polonia	70,4	62,5	78,7	68,9
Portugal	73,8	59,8	80,5	61,8
Eslovenia	72,7	:	80,5	:
Eslovakia	69,9	:	77,8	:
Finlandia	74,9	57,3	81,5	56,5
Suedia	77,7	62,5	82,1	62,2
Erresuma B.	75,9	61,5	80,5	60,9
EAE	75,9	67,0	83,8	72,2

Iturria: Eurostaten eta Eusko Jaurlaritzan oinarrituz landuta.

JARDUERAREN MUGAKETA KRONIKOA DUTEN PERTSONEN EHUNEKOAK, ADINAAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2002.

Adin taldeak	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Guztira 1997
< 25	1,9	1,8	1,9	1,9
25 - 44	4,5	3,3	3,9	4,5
45 - 64	11,9	8,9	10,4	12,1
> 65	19,2	22,8	21,3	26,8
GUZTIRA	7,7	8,1	7,9	8,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza: Osasunari buruzko Inkesta. 2002.

MOLDATZEKO LAGUNTZA BEHAR DUTEN 70 URTETIK GORAKO PERTSONEN EHUNEKOAK. 1997-2002

Iturria: Eusko Jaurlaritza "Osasunari buruzko Inkesta" (1997 eta 2002).

Horrenbestez, EAEko emakumeek lehenengo postua galdu eta hori Italiako emakumeek hartzen dute (74,4 urte osasun onarekin), eta gizonak hirugarren postuan gelditzen dira Zipreren (68,4 urte) eta Belgikaren (67,4) atzean. Izan ere, 65 urtetik aurrera ezintasunik gabeko bizi itxaropena murriztu egiten da bizi itxaropenari dagokionez, eta EAEn adin hori duten emakumeak beste zazpi urte baino apur bat gehiago bizi daitezke ezintasunik gabe. Emakumeen kasuan ezin daiteke esan urte gehiago bizitzea hobeto bizitzea denik, batez ere oso zaharrak direnean⁷. Hortaz, prebentzioa garrantzi handikoa da, gizartearen eta gizabanakoaren ikuspegitik.

Horrenbestez, generoko ikuspegia ezinbestekoa da zahartze-prozesua aztertze orduan. Emakumeak gehiago bizi dira mendebaldeko gizarteetan, baina gizonek bai-

no ezintasun gehiago izaten dituzte. Osasunari buruzko 2002ko Inkestaren arabera, 70 urtetik gorako emakumeen %12,8k laguntza behar dute bizitzako ohiko jarduerak egiteko, eta %8,4k laguntza behar dute bizitza independentea edukitzeko. Gizonen artean, ehunekoak %11,7ra (lehenengo kasuan) eta %6,5era (bigarrenen) jaisten dira. Datu horiek 1997koekin konparatuta ikusten denez, adin nagusiko pertsonen artean (bi sexuetoakoak) eraginko pertsonen ehunekoak murriztu egin dira, eta horrela, esan daiteke adineko pertsona nagusien osasun egoerak, orokorrean, hobera egin duela.

Halaber, jardueraren muga kronikoren bat duten 65 urtetik gorako pertsonen tasa %21,3koa zen 2002an (emakumeen kasuan %22,8 eta gizonen kasuan %19,2), eta murriztapen handia egon zen 1997ari zegokionez. Beraz, adineko pertsonen osasun adierazleek hauxe adierazten dute. Taldearen osasun-mendekotasun arazoei, ehunekoak dagokionez, hobera egin dute. Bizi itxaropenaren gorakadak hazkundera ekarri du mendekotasuna duten adineko pertsonen kopurura; hala ere, alderdi kualitatiboari dagokionez, adineko pertsonen mendekotasun mailak behera egin du. Biztanleriaren zahartze handiagok, beraz, ez dakar mendekotasuna duten adineko pertsona kopuruaren hazkunderik, adina ez baita mendekotasun arazoen sorreraren eragile bakarra.

1.2.3. Mendekotasunaren gizarte arazoa. Gizarte baliabideak

Orokorrean, eta mendekotasuna duten adineko pertsonen laguntzari lotuta⁸, hauxe egiaztatu da⁹:


- Adinarekin mendekotasuna handiagoa da eta hori edukitzeko arriskurik handienak honako hauek dira: emakumea izatea, alarguna eta diru-sarrerak gutxikoa.

⁷ Bazo (2005). Panorama Social aldizkaria.

⁸ Mendekotasuna eguneroko bizitzako jarduerak (adibidez, jan, jantzi, duxatu, etxea atondu eta garbitu, etab.) modu autonomoan egiteko ezintasuna da. Adineko pertsona guztiek ez dute mendekotasunik, baina zahartu ahal autonomia galtzeko arrisku gero eta handiagoa dago.

⁹ EUSKO JAURLARITZA (2005). Ekonomiari buruzko Ikerketak, 17.

NORK ZAIKTZEN DITU EZINTASUNA DUTEN ADIN NAGUSIKOAK? EAEko ZAIINTZAILE NAGUSIA EHUNEKOTAN. 1999



Iturria: EIN "Ezintasunei buruzko Inkesta, 1999".

ADINEKO PERTSONENTZAKO GIZARTE ZERBITZU BATZUEN ESTALDURA INDIZEA. EMAITZAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2004ko URTARRILA

	SAD	Telelag.	Eguneko zentr.	Egoitza zerbitzuak	Guztira
Andaluzia	3,5	1,8	0,3	2,8	8,5
Aragoi	3,1	2,7	0,3	4,5	10,5
Asturias	3,3	1,8	0,4	4,1	9,4
Balearrak	2,1	1,9	0,2	2,8	7,1
Kanariak	2,7	0,6	0,2	2,9	6,4
Kantabria	1,9	0,5	0,4	4,0	6,8
Gaztela-Leon	3,1	2,5	0,4	6,1	12,1
Gaztela-Mantxa	4,9	3,9	0,2	5,1	14,1
Katalunia	3,9	0,8	1,0	4,4	10,0
Valentziako Erkid.	1,7	1,9	0,3	2,5	6,3
Extremadura	7,4	1,3	0,4	3,7	12,9
Galizia	1,9	0,7	0,2	2,1	4,8
Madril	3,4	4,6	0,7	4,6	13,2
Murtzia	1,8	1,4	0,4	2,3	6,0
Nafarroa	3,6	4,7	0,4	5,3	14,0
EAE	1,8	2,3	0,6	3,9	8,5
Errioxa	3,4	1,3	0,5	4,7	9,9
Ceuta	3,4	0,4	0,3	1,7	5,8
Melilla	3,2	3,0	0,3	2,7	9,2
Estatua guztira	3,1	2,1	0,4	3,7	9,0


Iturria: IMSERSO. Mendekotasuna duten pertsonen eskaintako arreta Espainian. Liburu Zuria. 2005.

- Eguneroko gauzak egiteko pertsona baten laguntza adineko pertsonen %12k (mendekotasun moderatua eta larria) edo %26k (mendekotasun txikia ere barne) behar dute.
- 75 urtetik aurrera, biztanleen erdiak arazoren bat dauka eguneroko jarduerak egiteko (oinarizkoak eta tresnazkoak diren jarduerak), bost biztanletik baten kasuan

arazo horiek larriak dira. Mendekotasunaren eta laguntza beharizanaren hasieraren batez besteko adina 72 urtekoa da.

- Gizartearen barruko aldaketak aintzat hartuta, etorkizunean zerbitzu formalen eskari handiagoa egongo da; hala eta guztiz ere, laguntza informala izango da, hurrengo urteetan, mendekotasuna duten pertsonen la-

ZAHARRETXEEN ERABILTZAILEAK SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA



Iturria: Eustat "Gizarte Zerbitzuen Estatistikak" (2003).

guntzeko eredu nagusia, horrek beherazko joera izango duen arren.

Egoera horiek ikusita, laguntza informala "gizarte babes ikusezina" da. Doakoa eta masiboa den babes horrek berebiziko garrantzia dauka adineko pertsonen laguntza zerbitzuen sisteman. Mendekotasuna duten adineko pertsonen zaintzaile informala gehienetan emakumea da (%83,6), batez ere etxekoandrea (%50), eta horren batez besteko adina 52,9 urtekoa da. Hala eta guztiz ere, adineko pertsonen zaintzan diharduten emakumerik gehien jarduera nagusia etxeko lanak dira (lan merkatutik kanpo daude), eta segmentu handi batek lanok soldatapeko lanarekin bateratzen ditu. Gehienetan zaindutako pertsonaren emazteak edo alabak dira. Gainera, gehienek ez dute heziketa berezirik halako lanak egiteko, %75ek modu iraunkorrean eskaintzen du zerbitzua eta %47k sei urte baino gehiago egin dute mendekotasuna duen pertsona zaintzen.


IMSERSOK "Mendekotasunari buruzko Liburu Zuria" izenekoa jasotako datuen arabera (2005), mendekotasuna duten adineko pertsonentzako gizarte zerbitzuen eskaintzaren arloan EAE autonomia erkidegoen batez bestekotik hurbileko posizioan dago. Telaguntzako zerbitzuak (65 urtetik gorako pertsonen %2,3), eguneko zentroak (milako 6) eta egoitza zerbitzuak (%3,9) batez bestekotik gora daude; etxeko laguntza zerbitzua (adine-

ko pertsonen %1,8), berriz, urrun dago Estatuko %3,1eko batez bestekotik. Azken batean, zerbitzu nagusien estalduran Erkidegoko adineko pertsonen %8,5 sartzen dira, eta Estatuaren kasuan tasa %9koa da. Ikerketako datuen erreferentziako urtean (2004ko urtarrila) posiziorik oneak dituzten autonomia erkidegoak Gaztela-Mantxa (%14,1), Nafarroa (%14) eta Madril (%13,2) dira.

Orokorrean, adineko pertsonentzako 345 egoitza daude; bertan, 14.550 plaza eskaini eta 13.515 erabiltzaile daude, hau da, 65 urtetik gorako ehun pertsonako 3,8 plaza (IMSERSOren datuek, 2004ko urtarrilari buruzkoek, %3,9ko estaldura adierazten dute). Sare publikoan 100 egoitza eta 5.081 plaza sartzen dira (guztizkoaren %35). Azken urteotan, egoitza-plazen eskaintza gero eta handiagoarekin, enpresa pribatua sartzen joan da sektore horretan, gero eta eskari handiagoak eskaintzen dituen negozio aukerek erakarrita (biztanleria gero eta zaharragoa baita). Araban eta Bizkaian eskaintza pribatuak hazkunde handia izan du, batez ere 30 plazaetik beherako egoitza txikietan eta etxebizitzetan oinarrituz.

Lagundutako pertsonen ezaugarriei dagokienez, adineko pertsonen egoitzen proportzio txiki batek soilik (guztira 31) eskaintzen du lagundutako zaharren arreta, eta guztira 2.105 plaza eskaintzen dira. Gainerako banaketa hau da: 78 eurenez moldatzen diren zaharrentzat eta 236 mistoak (plaza guztien %77). Egoitzetan dauden za-

ZAHARRETKEKO PLAZA BAKOITZEKO GASTUA. EUROAK



Iturria: Eustat "Gizarte Zerbitzuen Estatistikak" (2003).

harrei dagokienez, lagundutakoek %8ko urteroko hazkundea izan dute azken urteotan, eta euren moldatzen diren zaharren zifra nahiko egonkor mantendu da.

1.2.4. Egoera ekonomikoa¹⁰

Adineko pertsonen arazo nagusia gabezia ekonomikoak dira, mendekotasun arazoekin batera, eta horiek, batez ere, etxebizitzaren egoeran dute eragina, diru-sarrerara erabilgarrietan baino gehiago. Eustaten "Pertsonaren eta Familiaren Errentari buruzko Estatistika" deritzonaren azken datuek agerian jarri dutenez (2001ari buruzko datuak), errenta erabilgarriak beherakada handia izaten du, adinak gora egin ahala. Izan ere, errenta erabilgarriaren gehienekoa 45-49 urte bitartean egoten da, eta 50 urtetik aurrera apurka-apurka murrizten doa. Horrela, erretiroko adinean dauden pertsonen (batez beste, 65 urte) 9.929€-ko batez besteko errenta erabilgarria izaten dute, eta zenbateko hori 5.801€-ra murrizten da 95 urtekoen eta gehiagoko taldean.

Gainera, sexuaren arabera alde handiak ikusten dira; izan ere, emakumeak (adinak aurrera egin ahala gero eta gehiago) 5.280€-ko batez besteko errenta erabilgarriarekin heltzen dira 65 urtera (gizonen kasuan 15.177€), eta 95 urterekin eta gehiagorekin euren errenta 5.201€-ra murriztuta egoten da.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren "Pobreziari eta Gizarte Desorekei buruzko Inkesta 2004" izenekoaren emaitzak aztertuta ikusten denez, pilaketako pobreziak¹¹ adinaren arabera duen eraginaren bilakaeran, azken urteotan, joera negatiboa dago gazteen taldean, batez ere 25-44 urte bitarteko artean. Hala eta guztiz ere, 65 urtetik gorako pertsonen kasuan, 2000-2004 bitartean nabarmen murriztu da halako arazoaren eragina. Hain zuzen ere, 2000n kide nagusitzat 65 urtetik gorako pertsona bat zuten familiek pilaketako pobrezia jasaten zuten, eta lau urte geroago tasa horrek %52,7ko murriztapena izan du eta %1,2koa da (biztanleria osoaren kasuan murriztapena %12,8koa izan da).

¹⁰ Memoria Sozioekonomiko honetako V. kapituluaren ("Pobrezia eta Gizarte Bazterkeria EAEn"), bertako ataletan, Erkidegoko adineko pertsonen jasotako gizarte prestazioei buruzko informazioa eskaintzen da.

¹¹ Pilaketako pobrezia egoeratarako hurbilketa egiteko, Eusko Jaurlaritzak etxeetan bizi-kalitatearen adierazle batzuei dagokienez (adibidez, etxebizitzako ekipamenduak) dagoen egoera aztertu du, baita ondare baliabideei dagokienez dagoen egoera ere (etxebizitza, ondarearen beste ondasun batzuk, pilaturiko aurrezpenak eta hamar urtetik beherako ibilgailuak). Pilaketako pobrezia egoerak, beti ere, ondare arazoaren bat eta etxebizitza arazo oso larriak adierazten ditu.

BATEZ BESTEKO ERRENTA BOST URTEKO ADIN TARTEAREN ETA ERRENTA MOTAREN ARABERA (EUROAK) 2001, BI SEXUAK.

	Errenta osoa	Lanaren errenta	Kapital higig. errenta	Kapital higiez. errenta	Jardueren errenta	Transfere- rentziak	Errenta erabilgarria
Guztira	12.676	8.466	742	186	873	2.407	10.800
18-19 urte	974	756	59	8	32	119	892
20-24 urte	4.522	4.089	106	17	148	161	3.982
25-29 urte	10.378	9.315	222	24	503	314	8.985
30-34 urte	13.189	11.419	336	45	914	475	11.302
35-39 urte	14.898	12.698	414	76	1.245	465	12.536
40-44 urte	16.728	14.018	549	131	1.549	481	13.887
45-49 urte	17.739	14.586	727	198	1.597	631	14.563
50-54 urte	17.633	13.828	926	285	1.485	1.108	14.454
55-59 urte	16.258	11.251	1.107	372	1.367	2.161	13.531
60-64 urte	13.359	5.722	1.344	385	1.007	4.901	11.533
65-69 urte	11.120	937	1.385	388	378	8.033	9.929
70-74 urte	10.499	293	1.342	344	237	8.282	9.547
75-79 urte	9.953	224	1.380	302	150	7.897	9.133
80-84 urte	9.303	126	1.437	283	122	7.335	8.600
85-89 urte	8.320	113	1.514	256	116	6.320	7.750
90-94 urte	7.326	103	1.620	241	78	5.284	6.827
95 urte eta g.	6.274	79	1.539	204	116	4.336	5.801

Iturria: Eustat. Pertsona bakoitzaren eta familien errentaren estatistika.

Berriro ere sexuaren arabera alde handiak ikusten dira; izan ere, adineko gizonen eta emakumeen kasuan murriztu egin da pilaketako pobrezia, eta murriztapen hori, gainera, handiagoa izan da emakumeen artean; baina 2004an emakumeek gizonen baino neurri handiagoan jasaten dute pobrezia hori. Hain zuzen ere, pertsona nagusizat 65 urtetik gorako emakumea duten familietan eragina %3,8tik %1,9ra igaro da (–%64,7), eta, egoera horretan dauden gizonen dagokionez, tasa %1,6tik %1era igaro da aldi berean (–%38,9). Beraz, ikusten da bi sexuen artean pilaketako pobrezia tasek berdintzeko joera dutela, baina generoak oraindik ere garrantzia dauka. Horrenbestez, 65 urteko pertsona nagusia duten familiak oraindik ere EAEko familien %13,2 dira, aldagai horri dagokionez, eta adinekoen taldearen bilakaera positiboa ikusten da, 2000n pilaketako pobrezia zuten familien tasa %22,2koa baitzen.

Beste alde batetik, mantenamenduko pobrezia kasuatarako ere (ohiko gastuei aurre egiteko baliabide maila baxua adierazten duen pobrezia), adineko pertsonen egoeraren hobekuntza erlatiboa ikusi da. Horrela, pertsona nagusizat 65 urtetik gorako pertsona duten familietako mantenamenduko pobrezia tasek %2,6tik 2004ko %1,2ra igaro dira gizonen kasuan, eta %8,2tik %1,7ra emakumeen kasuan. Oraingoan ere, kasu honetan, behar-kada (ehunekoari dagokionez) handiagoa da emakume-

en kasuan, baina oraindik ere emakumeek jasaten dute gehien pobrezia mota hori. Guztira, EAEn mantenamenduko pobrezia jasaten duten familien %8,2ko familia bura 65 urtetik gorako pertsona da. Hala eta guztiz ere, ongizate ezaren eraginaren tasak aintzat hartuta, ongizaterik ez duten pertsonen tasa %22,2koa da, familiako buruzat 65 urtetik gorako pertsona duten familiei dagokionez.


1.3. Etxerik gabeko pertsonak EAEn

Memoria honen aurreko edizioan adierazitakoaren arabera, iturritzat Etxerik gabeko Pertsonen Europako Behatokia (FEANTSA¹²) hartuta, 1990etik gora egin du Europako geografian etxerik ez duten pertsonen kopuruak; horien artean immigrante irregularren, emakumeen eta haurren presentzia gero eta handiagoa dago, eta %70 baino gehiago 40 urtetik gorakoak dira. Biztanleriaren zati baten egoera gero eta txarrago horren eragileak ez dira pertsonaren baitakoak (alkoholismoa, drogamenpekotasuna, etab.), eta zergati multzo batean oinarritutaz azaldu behar dira; zergatiok honako hauek dira:

- Zergati materialak: enplegua edo etxea galtzea, behin-behineko egoera ekonomikoak.
- Harreman mailakoak: familia arazoak, etxeko in-darkeria, isolamendua, etab.

¹² FEANTSA: European Federation of National Organisations Working with the Homeless – European Observatory on Homeless, <http://www.feantsa.org/Observatory/>.

EAeko ERRENTA PERTSONAL OSOAREN ETA BIZTANLERIAREN PIRAMIDEA. 2001. (%)



PILAKETAKO POBREZIA: ETXeko PERTSONA NAGUSIAREN MOTA SOZIODEMOGRAFIKOAREN ARABERAKO BANAKETA. FAMILIAKO ETXEBIZITZEN BIZTANLERIA


	Pilaketako pobrezia	
	2000	2004
Landun egonkorak	18,2	12,2
Landun ezegonkorak	8,2	24,7
Gizon langabetuak	17,9	7,6
Emakume langabetuak	8,2	3,5
Gizon ez-aktiboak < 65 urte	20,5	4,1
Emak. ez-aktiboak < 65 urte	4,6	35,7
Gizonak > 65 urte	10,7	7,5
Emakumeak > 65 urte	11,5	4,7
Etxeak guztira	100	100

Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desorekei buruzko inkesta, 2000 eta 2004.

- Pertsonalak: arazo fisikoak edo burukoak.
- Erakunde mailakoak: espetxetik edo harrerako erakundeetatik irtetea, erbestea,...

2004ko Memoria Sozioekonomikoan, EInek (Eustaten lankidetzarekin) EAerako egindako ikerketa baten lehenengo zatia aurkeztu genuen; pertsona hauei laguntza ematen dieten zentroei eta erakundeei buruzko inkesta izan zen, eta informazio gehiago edukitzeko bertara jo daiteke. Oraingoan "Etixerik gabeko pertsonen buruzko inkesta" horren bigarren zatia datu nagusiak aurkezten dira (halako zentroak eta erakundeak erabiltzen dituzten pertsonen buruzko zatia). Gogoratu behar da proiektu ho-

ETXERIK GABEKO PERTSONAK EAEN. LAN JARDUERAREN, SEXUAREN ETA NAZIOTASUNAREN ARABERAKO BANAKETA. 2005



ri, oinarritu ere, talde horrentzako definizio bakarra aurkitzeko zailtasunean oinarritzen dela; izan ere, pertsona bat

halako bazterkeria mailalara eraman dezaketen egoeren aniztasunarekiko pertzepzio desberdinak daude. Europaren testuinguruan, egoera oso desberdinak daude; alde batetik, definizio legala edo ofiziala duten herriak daude, adibidez, Erresuma Batua, Finlandia edo Frantzia, eta bestetik, inolako definiziorik gabeko herriak, esate baterako, Espainia.

1.3.1. Etxerik gabeko Pertsonen Inkestaren emaitza (2005)

Lehenengo eta behin, esan behar da EAEko harrerako ostatueta eta jatetxeetan egon diren etxerik gabeko pertsonen %48 atzerritarra izan direla 2005ean. Gainera, batez beste, 5 urte daramate Estatuan eta bi urte baino apur bat gehiago EAEn. Kontinenteka, %61 Afrikakoak dira, %26 Europakoak eta %12 Amerikakoak. Hain zuzen ere, gehienak Marokokoak (%37), Aljeriakoak (%16), Errumaniakoak (%8) eta Boliviakoak (%3,4) dira. Lurraldeka, EAEko etxerik gabeko biztanleriaren ia erdia Bizkaiko zentroetan egon da (%45,8), eta etxerik gabeko pertsonarik gehien duen hiriburua Bilbo da (laginean jasotako 1.833 pertsonetako %43). Araban etxerik gabeko


pertsonen %27,7ri eman zitzaion laguntza, eta Gipuzkoan tasa %26,5ekoa izan zen.

Pertsona horien %75 gizonak dira, gehienak 30-45 urte bitartekoak. Hala eta guztiz ere, emakumeen eta atzerritarren presentziak gaztetu egin du taldea: emakumeen %46 18-29 urte bitartekoa da eta atzerritarren %86 45 urtetik beherakoa (Espainian jaiotakoen tasa %53koa da). Batez besteko adina 38 urtekoa da. Orain arte, ikerketek 42 urte inguruko batez bestekoa adierazi dute. Espainiako estatuan, EINEK egindako inkestaren arabera, etxerik gabeko pertsonen %82 gizonak dira eta talde horren batez besteko adina 38 urtekoa da.

EAEko etxerik gabeko pertsonen taldearen batez besteko hezkuntza mailak ere immigranteen etorrera masiboaren eragina izan du; izan ere, horien %20k goi ikasketak ditu. Oro har, %57k bigarren hezkuntzako ikasketak dituzte, %23k lehen hezkuntzakoak eta %14k unibertsitatekoak.


Bestalde, isolamendua ohikoa da talde horretan; izan ere, %81ek ez dauka bikoterik eta beste %10, bikotea eduki arren, ez da horrekin bizi. Seme-alabei dagokienez,

ETXERIK GABEKO PERTSONAK EAEN. EGOERA ZIBILAREN ETA SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA. 2005



Iturria: Eustat "Etxerik gabeko pertsonen inkesta".

ETXERIK GABEKO PERTSONAK EAEN: FAMILIAN 18 URTE BETE ORDUKO IZANDAKO GERTAKARIAK. DATUAK EHUNEKOTAN, GUZTIZKOARI DAGOKIONEZ. 2005



Iturria: Eustat "Etxerik gabeko pertsonen inkesta".

ETXERIK GABEKO PERTSONAK EAEN. BANAKETA EHUNEKOTAN, GIZARTE ZERBITZUAK ERABILTZEAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2005

	Guztira	Gizonak	Emakumeak	18-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	≥65 urte
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Egonaldia "eguneko zentro" batean azken hilean	25,8	29,9	12,9	17,7	36,5	20,5	3,9
Harremana gizarte langile batekin azken urtean	80,7	77,5	90,7	78,9	85,2	77,5	66,7
Gizarte zerbitzuen laguntza jaso du							
Ezer ere ez	24,3	28,7	10,6	24,4	22,9	27,3	13,7
Gutxi	26,2	28,7	18,6	20,9	33,0	21,1	33,3
Nahiko	33,0	29,9	42,4	35,1	31,8	33,2	25,5
Askok	16,5	12,5	28,6	19,6	12,4	18,4	23,5
Ed/Ed	0,1	0,1	—	—	—	—	3,9
Azken urtean oinarritzko errenta jaso du	23,5	18,2	39,9	19,2	20,1	34,6	9,8

Iturria: Eustat. Etxerik gabeko pertsonen buruzko inkesta.

ETXERIK GABEKO PERTSONAK EAEN. BANAKETA EHUNEKOTAN, JUSTIZIAREKIKO HARREMANAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2005

	Guztira	Gizonak	Emakumeak	18-29 urte	30-44 urte	45-64 urte	≥65 urte
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Erasoa jasan du	22,5	23,7	18,8	18,0	30,9	15,8	11,8
Sexu erasoa jasan du	2,1	0,2	7,8	3,5	2,3	0,6	—
Lapurreta izan du	33,3	34,9	28,6	27,4	37,6	35,2	15,7
Iruzurra egin diote	16,6	17,9	12,4	13,1	23,4	10,9	7,8
Irainak izan ditu	35,4	35,6	34,6	31,7	43,6	26,6	41,2
Salatu egin dute	26,2	28,4	19,7	21,7	31,1	25,4	9,8
Atxilotu egin dute	35,2	41,2	16,4	24,8	46,8	31,3	9,8
Zigortu egin dute	20,2	23,6	10,0	15,2	29,0	14,3	3,9

Iturria: Eustat. Etxerik gabeko pertsonen buruzko inkesta.

gizonen %39 eta emakumeen %68 seme-alabaren bat dute. Seme-alabak dituzten emakumeen bi herenak euren bizi dira, baina etxerik gabeko gizonen %9 soilik dago egoera horretan.

Eustaten txostenean esaten denez, iturritzat Caritas-ek eta Comillas-eko Pontifize Unibertsitateak 1999an egindako ikerketa aipatuz, elkarriketaturiko etxerik gabeko pertsonen %60-70ek urtebete baino gehiago egin dute etxerik gabe. Gaur egun, EAEko etxerik gabeko pertsonen dagokienek, inkestak pertsona horien haurtzaroko gertaerak ere ikertu ditu. Aipatzeko moduko emaitzen artean, esan daiteke taldearen erdiak, familiako bizitzan, 18 urte baino lehen diru arazoak izan zituela, eta herenak langabezia luzea edo familiakoren baten heriotza jasan zuela. Bestalde, emakumeen kasuan, haurtzaroko indarkeriari, utzikariari, gurasoen arteko arazoei eta abarri loturiko gertakizunen bat izan dutenen ehunekoa altua da (%30 ingurukoa).

Talde horretako gizonen eta emakumeen jokabide desberdina agerian jartzen duen beste ezaugarri bat osatuarena da: gizonen %50ek aterpetxeak nahiz egoitzak aukeratzen dituzte, eta emakumeen %55ek, berriz, etxe-

bizitzak. Bizitzeko prestaturik ez dauden lekuak, esaterako, leku publikoak (geltokiak, aparkalekua, parkeak, etab.) eta "zoriko ostatuak" (higiezinen atondoa, korridorea edo eskailera, garajea, haitzuloa, bertan behera utzitako automobila,...) gizonen soilik erabiltzen dituzte (%14), eta emakumeek leku seguruagoak aukeratzen dituzte.

Bestalde, etxerik gabeko pertsonen %72,5ek enplegurik eduki ez arren, aipagarria da etxerik gabeko emakumeen %26,6 lanean ari direla, eta gizonen arteko tasa %8,8koa da. Batez besteko diru-sarrerak hileko 380€-koak dira, eta gehienbat Oinarritzko Errentatik (%16,8 talde osorako, eta emakumeen kasuan %28,4), lanetik (%12 talde osorako, eta emakumeen kasuan %19,7) eta kaleko jendeak egindako dohaintzetatik (%10,5) datoz. Oinarritzko Errentari dagokionez, aipagarria da elkarriketaturiko etxerik gabeko pertsonen %23,5ek laguntza publiko hori jaso dutela ikerketa hau egin baino lehenagoko urtean.

Gizarte zerbitzuen erabilerari dagokionez, inkestan adierazitakoaren arabera, elkarriketaturiko taldearen %80,7k harremanak izan ditu gizarte langileren batekin, azken hilean, eta emakumeen kasuan tasa %90,7koa da;

taldearen %25,8k diotenez, aurreko hilean eguneko zentro batean egon ziren. Zerbitzu horien gaineko balorazioari dagokionez, %24,3k esan zuten ez zietela "inolako" laguntzarik eman, %26,2k laguntza "gutxi" eman zietela, %33k laguntza "nahiko handia" eman zietela eta %16,5ek laguntza "handia" eman zietela. Balorazioak, beraz, oso anitzak dira.

Osasun egoeraren aldetik, orokorrean, taldearen %55ek uste dute osasun egoera ona edo oso ona dutela. %54,7k ez dute inoiz ere alkoholik edaten eta, gainera, %40k drogarik ere ez dute hartzen. Gehien hartzen diren drogen artean, aipagarriak dira haxixa edo marihuana (kontsumitzaileen arteko %48).

Azkenik, inkestan etxerik gabeko pertsonen taldean justiziarekin duen harremana aztertzen da, horiek urratzailatzat eta biktimatzat hartuta, gorabehera desberdinei dagokienez. Lehenengo eta behin, pertsona horien %22,5ek esan dute inoiz erasoren bat jasan dutela, %33,3k lapurreta jasan dute eta %35,4k irainak jasan dituzte. Emakumeen kasuan, %7,8 eraso sexual baten biktimak izan dira; baina, harrigarria bada ere, beste mota bateko erasoak jasan dituen etxerik gabeko emakume kopurua txikiagoa da kasu guztietan. Bestalde, etxerik gabeko pertsonen %35,2k atxiloketaren bat izan dute (30-44 urte bitarteko taldean tasa %46,8koa da), eta %20,2k zigorra jasan dute noizbait.

2

Osasuna eta osasun sistema

Osasunak EAEn duen panorama orokorra eta lehentasunezko osasun arazoak aztertzeak ondorioztatzen denez, EAE jaiotzean bizi itxaropenik handiena duten herrien artean kokaturik dago, heriotza kopuruak behera egin du eta heriotzaren eragile nagusiak zirkulazio sistemako gaitasunak nahiz neoplasia gaiztoak (minbizia) dira oraindik ere, nazioarteko joerarekin bat etorritik.

Hain zuzen ere, neoplasia gaiztoak bigarren postuan daude, EAEko hilkortasunari dagokionez, eta laugarren postuan ospitaleratze kopuruaren eragileei dagokionez. Neoplasia gaiztoaren motaren arabera, 2004an ospitaleratze kopururik handiena eragin duena puxikako neoplasia gaiztoa izan da, eta, horrela, ordura arte lehenengo postuan zegoen bularreko neoplasia gaiztoa bigarren postuan dago orain.

Kapitulu honetako bigarren zatian, osasun sistema aztertuko dugu, egitura eta baliabideak (giza baliabidea, funtzionamendukoak eta finantzakoak) aintzat hartuta. Eurostatek eta Eustatek argitaraturiko azken datuek agerian jarri dutenez, EAEn, EB-15en eta EB-25en profesional kopuruak gora eta ohe kopuruak behera egin du (biak 100.000 biztanleko).

Bestalde, Osakidetzaaren sareko batez besteko enplegu indize orokorrak gora egin du 2005ean, 2004ko indizeari dagokionez, eta %84,6koa da. Gainera, CISEk 2005ean argitaraturiko Osasun Barometroaren arabera,

EAEko biztanleek uste dute Sistema orokorrean ona dela (aldaketak behar baditu ere), eta txarra dela edo funtsezko aldaketak behar dituela uste dutenen tasa %18,3koa da. EAEko biztanleek Estatuak Osasunera bideratzen dituen finantza baliabideei buruz (zergen bidezko baliabideak) egindako balorazioari dagokionez, EAEn elkarrekin bideratzen diren pertsonen %34,9k uste du bidezko zenbatekoa bideratzen dela, %44,7k gutxi bideratzen dela eta %3,6 gehiegi bideratzen dela.

2.1. Osasunaren panorama orokorra eta lehentasunezko arazoak

2.1.1. Bizi itxaropena, hilkortasuna eta erikortasuna

(a) Bizi itxaropena jaiotzean

Jaiotzean dagoen bizi itxaropenak edo bizitzaren batez bestekoak erkidego bateko osasuna adierazten du. Erreferentziako unerako, biztanleria jakineko gizon baten edo emakume baten gehieneko adina adierazten du.


Jaiotzean dagoen bizi itxaropena gero eta handiagoa da EAEn, eta orain, herri garaturik gehienetan dagoena baino handiagoa da. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Argitaraturiko azken datuak 2003ari buruzkoak dira (Hilkortasun Erregistroa), eta, datuok diotenez, gizonen bizi itxaropena 77 urtekoa da (2002an 76,7koa) eta emaku-

meena 84 urtekoa; azken kasu horretan aurreko urtekoaren berdina da eta beherakadaxoa izan du 2001etik hona, azken urte horretan 84,3 urtekoa izan baitzen.

Zifra horiek EBkoekin konparatuta ikusten denez, EAEk posizio ona dauka, EB-15eko eta EB-25eko bizi itxa-

ropena, bai gizonen eta bai emakumeen kasuan, EAEkoa baino txikiagoa baita. Horrela, EB-15ean gizonen bizi itxaropena 76 urtekoa da eta emakumeena 81,7 urtekoa; eta EB-25ean gizonena 75,1ekoa eta emakumeena 81,2koa.

EAEko JAIOZAKO BIZI ITXAROPENAREN BILAKAERA ETA EBko BATEZ BESTEKOAK, SEXUAREN ARABERA



Iturria: "Hilkortasun Erregistroa", Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza eta Eurostat.

(b) Hilkortasuna. Heriotzaren zergati nagusiak

EAEko hildakoen kopurua 18.101ekoa izan zen 2004an (EUSTATen behin-behineko datuak); horietatik 9.343 gizonak izan ziren eta 8.617 emakumeak. Datu horiek aditzera ematen dutenez, urte horretan 2003an baino 1.204 pertsona gutxiago hil ziren; hain zuzen ere, 620 gizon gutxiago (%6,2ko beherakada) eta 584 emakume gutxiago (%6,3ko beherakada).

Lurraldeen eta generoaren arabera azterketak adierazitakoaren arabera, Araban heriotza kopuruaren murriztapen handiagoa egon da gizonen eta emakumeen artean (bi kasuetan -%7,6).

Heriotza kopuruak 1997tik izandako bilakaerak adierazten duenez, azken urteotan horietariko gehienak adi-

nik nagusieneko taldeetan gertatzen dira; izan ere, talde horretakoak, gaixotasunen prebentzioan eta tratamenduan egindako aurrerakuntza handien ondorioz, "laugarren adinera" iristen ari dira. Horrela, 70-79 urteko taldean 4.644 heriotza egon dira, 80-89 urteko taldean 6.196, 90-99 urteko taldean 2.922, eta 99 urtetik gorako taldean 109.


Hala eta guztiz ere, 90 urtetik gorako pertsonen heriotza kopurua murriztu egin da lehenengoz, aurreko urteari dagokionez (datuen azterketa, EAEko biztanleak izanik bertatik kanpo hil direnen heriotzari buruzko datuak sartu ondoren, baliozkia izango da datorren urtean joera horretan benetan aldaketarik egon den ikusteko).

Aurreko urtean bezala, eta Europako ildoari jarraituz, heriotzarik gehienak (%30,5, 5.525) zirkulazio aparatuko gaixotasunen eraginezkoak izan ziren. Ondoren, tumoreen eraginezkoak, %29,5arekin (5.340 heriotza), eta hiru-garrenez, aurrekoetatik nahiko urrun, arnas aparatuko gaixotasunen eraginezkoak, %9,6 (1.740).

Heriotzak zergatiaren eta generoaren arabera bereizita ikusten denez, gizonen artean heriotzaren eragile nagusiak tumoreak (guztizkoaren %35) eta, gero, zirkulazio aparatuko gaixotasunak (%27) dira. Emakumeen kasuan aurkakoa gertatzen da, hau da, eragile nagusiak zirkulazio aparatuko gaixotasunak dira (%34,3) eta gero tumoreak (%21,9).

Urtebetetik gorako haurren hilkortasunak etengabeko gorakada izan du 2001etik, eta 2004an 68 heriotza izan dira. 1998an eta 2000an gertatu zen bezala, 2004an hildakorik gehienak neska izan dira (35 neska eta 33 mutil), eta, 2003ari dagokionez, aldaketa tasa positiboa da neskentzat (%2) eta iraunkorra mutilentzat (%0). Haurren hilkortasun tasaren jokabide hori ez da berdina hiru lurralde

HILKORTASUN ZERGATI NAGUSIEN BANAKETA EBN ETA EAEN



Iturria: Eustat (behin-behineko datuak) eta Eurostat "Health in Europe 2005".

HERIOTZAK SEXUAREN ARABERA

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guztira	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.
1997	17.535	9.500	8.035	2.037	1.153	884	9.764	5.275	4.489	5.734	3.072	2.662
1998	18.151	9.648	8.503	2.104	1.157	947	10.071	5.328	4.743	5.976	3.163	2.813
1999	18.396	9.801	8.595	2.272	1.227	1.045	10.110	5.392	4.718	6.014	3.182	2.832
2000	18.242	9.801	8.441	2.191	1.202	989	10.214	5.469	4.745	5.837	3.130	2.707
2001	18.087	9.670	8.417	2.219	1.223	996	10.008	5.351	4.657	5.860	3.096	2.764
2002	18.619	9.875	8.744	2.166	1.134	1.032	10.430	5.524	4.906	6.023	3.217	2.806
2003	19.305	10.050	9.255	2.357	1.229	1.128	10.684	5.584	5.100	6.264	3.237	3.027
2004 (p)	18.101	9.430	8.671	2.177	1.135	1.042	10.057	5.298	4.759	5.867	2.997	2.870
2003-04ko aldea	-1.204	-620	-584	-180	-94	-86	-627	-286	-341	-397	-240	-157
03-04ko ald. %	-6,2	-6,2	-6,3	-7,6	-7,6	-7,6	-5,9	-5,1	-6,7	-6,3	-7,4	-5,2

(b) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistikak.

EAEko HERIOTZAK, ADINAREN ARABERA

	<1	1-9	10-19	20-29	30-39	40-49	50-59	60-69	70-79	80-89	90-99	≥100
1997	84	29	68	245	500	719	1.040	2.636	4.397	5.511	2.232	74
1998	99	33	60	235	423	638	1.155	2.607	4.731	5.760	2.351	59
1999	81	17	53	228	376	663	1.190	2.422	4.794	5.852	2.633	87
2000	53	27	67	215	394	646	1.272	2.415	4.855	5.689	2.541	68
2001	60	22	41	181	356	601	1.263	2.305	4.811	5.682	2.667	98
2002	61	23	48	162	327	660	1.280	2.304	4.834	6.020	2.777	123
2003	62	19	43	148	300	696	1.304	2.184	4.955	6.379	3.075	140
2004 (b)	68	21	34	106	250	623	1.230	1.898	4.644	6.196	2.922	109

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistikak.

URTEBETETIK BEHERAKOEN HERIOTZAK, SEXUAREN ARABERA (HILEAK)

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guzt.	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.
1997	84	46	38	13	8	5	43	22	21	28	16	12
1998	99	48	51	11	5	6	49	24	25	39	19	20
1999	81	48	33	8	6	2	45	28	17	28	14	14
2000	53	23	30	8	4	4	25	8	17	20	11	9
2001	60	36	24	5	5	0	30	18	12	25	13	12
2002	61	33	28	8	4	4	31	17	14	22	12	10
2003	62	33	29	5	4	1	36	17	19	21	12	9
2004 (b)	68	33	35	6	3	3	36	17	19	26	13	13
03-04ko ald. %	9,7	0,0	20,7	20,0	-25,0	200,0	0,0	0,0	0,0	23,8	8,3	44,4

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistikak.

HERIOTZAK ZERGATIAREN ARABERA

	EAE								EB-25	
	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004 (b)		2002 %
								k	%	
Guztira	17.535	18.151	18.396	18.242	18.087	18.619	19.305	18.101	100	100
Tumoreak	5.119	5.151	5.180	5.378	5.496	5.467	5.548	5.340	29,5	25
Zirkulazio Sistema	6.076	6.267	6.070	5.900	5.743	5.891	5.891	5.525	30,5	38
Arnas Sistema	1.545	1.855	1.956	1.962	1.649	1.944	2.066	1.740	9,6	7,5
Digestio Sistema	859	957	930	957	979	954	1.041	972	5,4	—
Istripuak	918	894	846	831	760	795	806	636	3,5	—
Bestelako gaixotasun.	3.018	3.027	3.414	3.214	3.460	3.568	3.953	3.888	21,5	—

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat (Heriotzen Estatistikak) eta Eurostat ("Health in Europe, 2006").

historikoetan (2004an), izan ere, Araban eta Gipuzkoan orekatuta dago nesken eta mutilen artean, eta Bizkaian generoaren arabera aldeak daude (19 neska eta 17 mutil).

Eustatek dioenez, jaiotzak heriotzak baino gehiago dira (1.347 pertsona gehiago), eta horrela, EAEko hazkunde begetatiboa positiboa da.

(c) Hilkortasun goiztiarra. Bizitzeko galdutako ahalezko urteak (BGAU)

Adierazle hau irizpide komunak dituzten eta behaketa epidemiologiko prospektiboaren barruan dauden per-

tsionen talderako eratzen da, oinarritzat heriotza goiztiarra izan duten pertsonak (70 urte bete orduko hil direnak) bizi ez diren urte kopurua hartuta (hiltzeko adinaren eta 70 urteko adinaren arteko kenduren batuketa pilatua). Horrela, Bizitzeko Galdutako Ahalezko Urteek (BGAU), osasun publikoari dagokionez, biztanlerik gazteenen arteko hilkortasunaren ondoriozko eragina islatzen duen neurri ona osatzen dute.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako datuen arabera, motorreko ibilgailuekin izandako trafiko istripuak eta tumore gaiztoak (trakea, bronkioak eta birrika) izan dira berriro ere 2004an bizitzeko ahalezko urte gehia-

BIZITZEKO GALDUTAKO AHALEZKO URTEAK, SEXUAREN ARABERA, ETA ZERGATI NAGUSIAK

	BGAU	T. gordina*	T. estan.*	BGAU	T. gordina*	T. estand.*
	Gizonak 2003			Gizonak 2004		
Trakea, bronkio eta biriketako TG	4.523	5,05	4,59	4.698	5,28	4,81
Trafiko istripuak (mot. ibil.)	5.170	5,78	5,49	3.772	4,24	4,14
Kardiopatia iskemikoa	4.036	4,51	4,07	3.395	3,82	3,41
Buruaz beste egitea eta autolesioak	2.385	2,66	2,25	2.698	3,03	2,64
Zirrosia eta gibleko gaix. kronikoak	2.213	2,47	2,19	1.905	2,14	1,92
HIESa	1.508	1,68	1,36	1.855	2,09	1,68
TG txarto zehazturiko lek. (b. mail.)	1.390	1,55	1,42	1.195	1,34	1,19
TG ezpainenetan, ahoan eta faringean	1.303	1,46	1,32	1.093	1,23	1,11
Burmuina/baskularra	1.295	1,45	1,35	1.073	1,21	1,10
TG kolonean	1.035	1,16	1,04	1.073	1,21	1,10
TG sabelean	790	0,88	0,79	950	1,07	0,95
Ezusteko erortzeak	757	0,85	0,83	892	1,00	0,91
TG hestegorrian	858	0,96	0,87	878	0,99	0,92
Drogen bidezko ezusteko pozoitzea	978	1,09	0,88	865	0,97	0,77
TG laringean				798	0,90	0,84
TG entzefaloan	893	1,00	0,93			
	Emakumeak 2002			Emakumeak 2003		
TG bularrean	1.930	2,18	1,89	2.060	2,34	2,02
Trakea, bronkio eta biriketako TG	1.290	1,46	1,23	1.420	1,61	1,37
Trafiko istripuak (mot. ibil.)	1.749	1,97	2,24	883	1,00	1,10
Buruaz beste egitea eta autolesioak	655	0,74	0,67	853	0,97	0,82
Burmuina/baskularra	820	0,93	0,81	635	0,72	0,69
TG kolonean	675	0,76	0,65	613	0,70	0,59
Zirrosia eta gibleko gaix. kronikoak	665	0,75	0,67	575	0,65	0,55
Kardiopatia iskemikoa	640	0,72	0,62	553	0,63	0,53
TG txarto zehazturiko lek. (b. mail.)	513	0,58	0,51	543	0,62	0,53
HIESa	718	0,81	0,66	533	0,61	0,48
TG entzefaloan	453	0,51	0,45	510	0,58	0,50
TG sabelean	398	0,45	0,40	390	0,44	0,38
Zirk. sist. jaiotzetiko malf.				388	0,44	0,68
TG obarioan	558	0,63	0,54	358	0,41	0,35
TM uteroan	365	0,41	0,33	333	0,38	0,31
TG pankreasean	545	0,61	0,53			

*1.000ko tasa gordina eta adinaren arabera tasa estandarizatu, adinaren arabera, Europako biztanleria estandarra kontuan hartuta.
Iturria: Hilkortasun Erregistroa. Osasun Planifikazio eta Antolaketako Zuzendaritza.

go galarazi duten zergati nagusiak, bai gizonen eta bai emakumeen artean.

Emakumeen arteko hilkortasun goiztiarraren eragile nagusiak honako hauek izan ziren 2004an: bularreko tumore gaiztoak; trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak, eta motorreko ibilgailuekin izandako trafiko istripuak. Ikusten denez, hiru gaixotasun horiek berriro ere BGAUen eragile nagusiak dira; hala ere BGAUetan eta hilkortasun tasetan (tasa gordina eta egokitua) hazkundeak egon dira lehenengo bi kasuetan, eta murriztapenak hirugarren kasuan. Aurreko urtean ez bezala, pankreaseko tumore gaiztoa ez dago BGAUen lehenengo 10 eragileen artean, eta, aldiz, zirkulazio sistemako malformazioak (jaiotzetikoak) lehenengo 10 eragileen artean daude. Era berean, aipagarria da norbere buruaren hilketek eta autolesioek izandako hazkundeak eta HIESaren eraginezko heriotza kopuruak izandako murriztapena.

Gizonen kasuan, 2004an, BGAUen eragile nagusiak, EAEn, berriro ere honako hauek izan ziren: trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak; motorreko ibilgailuen istripuak, eta kardiopatia iskemikoa. Egoera hori 2003koarekin konparatuta ikusten denez, hiru gaixotasunok eragile nagusiak dira BGAUetan, baina BGAUetan eta hilkortasun tasetan (gordina eta egokitua) beherakadak egon dira bigarren kasu bietan, eta hazkundeak egon dira lehenengo kasuan. Aurreko urtean ez bezala, entzefaloko tumore gaiztoa ez dago BGAUen lehenengo 10 eragileen artean, baina laringeko tumore gaiztoa bai.

(d) Erikortasuna

Gaixoak jasotzen duen ospitaleko altaren txostenean datorren diagnostiko nagusian oinarrituz (ospitaleratzea eragin duena), gaixotasunak Gaixotasunen Nazioarteko


Saillkapenaren arabera sailkatzen dira (8. ikuskapen Al-daketa Klinikoa —CIE-9-MC—), osasun egoerari buruzko datuak bateratzeko; horrela, nazio eta nazioarteko maila-ko diagnostikoak egin daitezke.

Eustaten Ospitaleko Erikortasunaren Estatistikaren arabera (lehenengo Ospitaleko Alten Estatistika), zirkulazio sistemako gaixotasunak gaur egun ere ospitaleratzearen eragile nagusiak dira (alta guztien %13,1 2004an, Esta-tuan bezala, bertan, 2003an alta guztien %12,9ra iritsi baitziren).

Ondoren, honako hauek daude: digestio aparatuko gaixotasunak (alta guztien %11,7), nerbio sistemako eta sentimen-organoetako gaixotasunak (%10) eta, %9 inguru-ko tasekin, neoplasiak (tumoreak), haurdunaldiko, erdi-tzeko nahiz puerperioko arazoak eta arnas aparatuko gai-xotasunak.


“Health at a Glance, OECD indicators, 2005” txoste-naren arabera, OCDE herrietan ere ospitaleratzearen era-gile nagusiak zirkulazio aparatuko gaixotasunak dira (%13). Gero, digestio aparatuko gaixotasunak (%10), kanpoko zergatiak (istripuak, indarkeria eta pozoitzea), haurdunaldia nahiz erditzea, arnas gaixotasunak eta min-bizia daude.

OSPITALEKO ALTA, DIAGNOSTIKO TALDE NAGUSIEN ARABERA (EGUN BATETIK BEHERAKO EGONALDIAK), EAEN 2004AN (%)



Iturria: Eustat “Ospitaleko Erikortasunaren Estatistika”.

OSPITALEKO ALTA, DIAGNOSTIKO TALDE NAGUSIEN ARABERA (EGUN BATETIK BEHERAKO EGONALDIRIK GABE), EAEN 2004AN ETA OCDEn 2002AN (%)



Iturria: Eustat “Ospitaleko Erikortasunaren Estatistika”, eta OCDE “Health at a Glance, Indicators 2005”.

Hala eta guztiz ere, nerbio sistemako gaixotasunak eta sentimen-organoetakoak, EAEn leku garrantzitsua izan arren, ez dira oso ohikoak OCDEko herrietan. Horren zergati nagusia, izan ere, EAEko ospitaleratzeen erregistroan kirurgia-eguneko ospitale-jarduera ere jasotzen dela da, ospitaleratzeak egun batetik beherakoak izan arren.

Izan ere, egun batetik beherako egonaldiak aintzat ez hartzean, zenbait gaixotasun (adibidez, begietakoak) ez daude ohikoenen artean, eta diagnostikoaren arabera alta-banaketa Estatukoaren eta OCDEko herririk gehienetakoaren antzekoa izango litzateke.

Sexuaren arabera, desberdintasunak ikusten dira. Horrela, gizonen kasuan, ospitaleratzearen eragile nagusiak zirkulazio aparatuko gaixotasunak izan dira, eta gero digestio aparatuko gaixotasunak eta arnas gaixotasunak; emakumeen kasuan, hori hirugarren eragile nagusia izan da, haurdunaldiko, erditzeko eta puerperioko arazoen atzetik eta nerbio sistemako nahiz sentimen-organoetako arazoen atzetik.

2.1.2. Lehenasunezko osasun arazo batzuk

(a) Neoplasia gaiztoak edo minbizia

Minbiziaren ezaugarri nagusia (neoplasia gaiztoak izendatzeko erabiltzen den izena) zelula gaiztoen kontro-

lik gabeko hazkundea da. "Health in Europe" txostenean jasotako datuen arabera (Eurostat, 2005), minbizia heriotzaren bigarren eragile nagusia da EBn.


EAEn, Eustatek egindako Hilkortasunaren eta Erikortasunaren Estatistiken arabera, neoplasia gaiztoak hilkortasunaren bigarren eragile nagusiak dira, eta ospitaleratze guztien laugarren eragile nagusiak.

EAEko egoera EBko beste herri batzuetakoarekin konparatuta ikusten denez (Eustaten eta Eurostaten datuetan oinarrituz), neoplasia gaiztoak EAEn eragiten duen hilkortasun tasa erdiko posizioan dago (1.187,3 kasu 100.000 biztanleko), tasa altuak dituzten herrien (adibidez, Austria, Erresuma Batua eta Finlandia) eta tasa baxuagoak dituzten herrien artean (esaterako, Zipre, Portugal eta Estatuak); halaber, EB-25eko batez bestekotik hurbil dago (1.240,7 kasu 100.000 biztanleko), baita Estoniako, Frantziako eta Lituaniako batez bestekotik hurbil ere.

Eustaten ospitaleko Erikortasunaren Estatistikaren datuek adierazitakoaren arabera, neoplasia gaiztoak aintzat hartuta, EAEn ospitaleratzerik gehien eragin duena, 2004an, puxikako neoplasia gaiztoa izan da, eta horrek bigarren postuan utzi du orain arte (2000-2003) nagusia zen bularreko neoplasia gaiztoa.

Izan ere, neoplasia gaiztorik ugarienen artean, azken urteotan hazkunderik handiena izan dutenak puxikakoa

MINBIZIAREN ERAGINEZKO OSPITALEKO ALTAK (100.000 BIZTANLEKO) EBKO HERRIETAN. 2002



Iturria: Eurostat eta Eustat "Ospitaleko Erikortasunaren Estatistika, 2004".

eta kolonekoa izan dira (hurrenez hurren, %32ko eta %35,5eko hazkundea).

Hala eta guztiz ere, heriotza kopururik handiena sortzen dutenak trakeakoak, bronkioetakoak eta birikakoa dira (neoplasia gaiztoak eragindako heriotza guztien %13,5); horien ostean, arnas eta digestio aparatukoak datoz (%12,4) eta gero kolonekoak (%6,9).

Generoaren arabera, emakume baino gizon gehiago hiltzen da neoplasien eraginez, eta hori EAEn, Estatuan eta EBn egiaztatuta da, Eurostaten "Health in Europe" txostenean (2005) jasotakoaren arabera.

Ospitaleko Erikortasunaren Estatistikako datuek adierazten dutenez, EAEko gizonen artean, eragile nagusia

trakeako, bronkioetako eta birikako neoplasia gaiztoa da, batez ere 65-74 urte bitarteko gizonen artean; emakumei dagokionez, eragile nagusia arnas eta digestio aparatuko neoplasiak dira, 75 urtetik aurrera.

(b) Nahitaezko Adierazpeneko Gaixotasunak (NAG)

Osasun Publikoaren eginkizunetarikoa bat gaixotasun kutsagarrien kontrola da.

EAEko osasun sistemak lorturiko garapenak eta bizi baldintzen hobekuntzak murriztu egin dute gaixotasun kutsagarri askoren eragina, baina horiek oraindik ere osasun arazo handia sortzen dute.


DIAGNOSTIKORIK OHIKOENEN ALTAK, SEXUAREN ARABERA (2004)

	Guztira	Sexua	
		Gizona	Emakum.
Begi-lausoa	16.718	6.847	9.871
Belaunaren barruko arazoa	5.280	3.411	1.869
Hernia inguinala	5.219	4.637	582
Kolelitiasia	4.757	1.898	2.859
Osteoartrosia	4.412	1.728	2.684
Bronkitis kronikoa	4.068	3.245	823
Bihotzeko arazoa	4.057	2.115	1.942
Beste kardiopatia iskemiko kroniko batzuk	4.033	3.038	995
Hanketako barize-zainak	3.984	1.365	2.619
Sintoma orokorrak	3.594	2.174	1.420
Zehaztu gabeko pneumonia	3.457	2.137	1.320
Disritmia kardiakoak	3.373	1.932	1.441
Erditze arrunta	3.208	—	3.208
Besoaren mononeuritis eta moneuritis anitza	3.027	739	2.288
Ondorengo beste zaintza eta tratamendu batzuk	2.899	1.797	1.102
Arnas aparatuen sintomak	2.882	1.630	1.252
Miokardioko bihotzeko akutua	2.664	1.865	799
Prozeduren berezko arazoak	2.531	1.338	1.193
Hernia abdominala	2.471	1.249	1.222
Buruko arterien oklusioak	2.377	1.270	1.107
Apendizitis akutua	2.329	1.364	965
Behatz lodia deformatzioak	2.284	358	1.926
Femurraren apurtzea	2.271	546	1.725
Amigdalaren adenoidesen gaixotasun kronikoa	2.228	1.229	999
Uretrako eta gernal-traktuko beste arazo batzuk	2.219	1.183	1.036
Erditze luzea	2.171	—	2.171
Ustezko gaixotasunen behaketa eta ebaluazioa	1.912	918	994
Abdomeneko eta pelbiseko beste sintoma batzuk	1.900	781	1.119
Amen beste gaixotasun batzuk, erditzea zailtzen dutenak	1.888	—	1.888
Fetuaren eta plazentaren beste arazo batzuk	1.854	—	1.854
Sinobiako beste arazo batzuk	1.836	800	1.036
Bronkitisa eta bronkitis akutua	1.776	860	916
Disko inbertebraletako arazoa	1.729	921	808
Neoplasia gaiztoa puxikan	1.728	1.458	270
Arnas aparatuen beste gaixotasun batzuk	1.728	910	818
Asma	1.722	697	1.025
Erditzearen beste arazo batzuk, sailkatu gabeak	1.695	—	1.695
Diabete mellitusa	1.625	872	753
Emakumeen bularreko neoplasia gaiztoa	1.617	—	1.617
Bizkarreko arazoak, adierazi gabeak	1.562	820	742
Goiko arnas traktuaren beste arazo batzuk	1.496	882	614

(2) Datuak EAEko akutuen ospitaletakoak dira (publikoak eta pribatuak).

Iturria: Ospitaletako Erikortasunaren Estatistika. Eustat.

**NEOPLASIA GAIZTOEN (TUMOREAK)
TALDEKO HERIOTZEN ERAGINEZKO ALTAK,
MAIZTASUN HURRENKERAREN ARABERA, 2004**



Iturria: Eustat "Ospitaleko Erikortasunaren Estatistika, 2004".

Tuberkulosia (urterik urterako eragin txikiagoa) edo elgorria (desagertzeko bidean) ez ezik, beste gaixotasun batzuk ere sortzen dira aldian behin, gaixotasun sorberriak, eta beraz, zaintza epidemiologiko egokia egin behar da.

Horri dagokionez, aipagarriak dira gripearen (+37.484), A hepatitisaren (+62), disenteriaren (+30), parotiditisaren (+15) eta errubeolaren (+14) kasuan izandako hazkundeak, eta barizelaren (-2.352), tuberkulosiaren (-27) eta tosferinaren (-10) kasuan izandako murriztapenak.

1. epidemia indizea aztertzetik ondorioztatzen denez, errubeola kasuek hazkunde handia izan dute 2005ean, 2004ko datuei dagokienez (15 kasu, eta 2004an 1), gainera, 2. epidemia indizean ikusten denaren arabera, azken bost urteotan disenteriak eta sifilisak gora egin dute.

NAHITAEZKO ADIERAZPENEN GAIXOTASUNEN BILAKAERA EAE

	Kasu kopurua				Indizeak, 2005	
	2003	2004	2005	2005-04 ald.	EI1	EI 2
Botulismoa	0	0	0	0	0	0
Kolera	0	0	0	0	0	0
Disenteria	15	13	43	30	3	9
Sukar tifo-paratifikoa	4	4	3	-1	1	1
Trikinosia	5	0	0	0	0	0
Gaixot. meningokozikoa	109	109	100	-9	1	1
Gripe	68.157	22.004	59.488	37.484	3	1
Legionelosi	100	110	113	3	1	1
Meningitis tuberkuloso	6	10	9	-1	1	2
Tuberkulosia	501	499	472	-27	1	1
Nafarrerria	11.123	13.104	10.752	-2.352	1	1
Infekzio gonokozikoa	28	22	26	4	1	1
Sifilisa	19	18	25	7	1	8
Difteria	0	0	0	0	0	0
Parotiditisa	37	36	51	15	1	1
Poliomielitisa	0	0	0	0	0	0
Errubeola	0	1	15	14	15	1
Elgorria	0	0	0	0	0	0
Tetanoa	4	1	1	0	1	1
Tosferina	9	15	5	-10	0	0
A hepatitis	56	37	99	62	3	2
B hepatitis	40	24	27	3	1	1
C hepatitis	12	12	11	-1	1	1
Beste hepatitis biriko batzuk	2	0	0	0	0	0
Bruzelosi	3	3	0	-3	0	0
Amorrui	0	0	0	0	0	0
Sukar horia	0	0	0	0	0	0
Paludismoa	32	19	19	0	1	1
Izurria	0	0	0	0	0	0
Tifus exantematikoa	0	0	0	0	0	0
Legenarra	1	1	0	-1	0	0
Errubeola kongenitua	0	0	0	0	0	0
Sifilis kongenitua	0	0	0	0	0	0
Tetanoa	0	0	0	0	0	0

Iturria: EAEko Epidemia Aldizkariak (b) Behin-behineko datuak

EI1 (1. epidemia indizea) lauasteen (edo lauasteetan, pilaturiko epidemia indizeetan) gaixotasun baterako aurkezturiko kasuen eta aurreko urteko (2004) aldi berean gaixotasun horretarako aurkeztu diren kasuen arteko erlazioa da.

EI2 (2. epidemia indizea) lauasteen gaixotasun baterako aurkeztu diren kasuen eta aurreko bost urteko kasuen batez bestekoaren arteko erlazioa da.

(c) GIBa eta HIESa

GIBek eragindako Infekzio Berrien Zaintza Sistema 2002ko urtarrilean jarri zen martxan EAEn, birus horren kutsadura-diagnostiko berriak jasotzeko, 1997-2004 al-dian, EAEn GIBen 1.411 kutsadura diagnostikatu dira. %72,2 gizonak dira eta %27,8 emakumeak.

Bilakaeraren ikuspegitik begiratuta, eta EuroHIVen datuek EB-25 osorako aditzera emandakoarekin bat etorrituz, GIBen diagnostiko positiboetan beherakada egon da 1997tik 2000ra, baina gero, 2000tik 2003ra hazkundea egon da, eta azkenik, 2004an beste beherakada bat ikusi dugu.


Aztertutako iturri guztiek, halaber, aditzera ematen dute GIBen eraginezko infekzioa orain ez dela gehienbat xiringen bidez kutsatzen, eta, munduko gainerako eskualde guztietan gertatzen ari den bezala, gaur egun gaixotasuna batez ere sexu harremanen bitartez kutsatzen da. Izan ere, EAEn kutsatu direnen %62,2k sexu harremanen bidez hartu du GIB (%42,7 harreman heterosexualetan eta %19,5 harreman homosexualetan). Sexuaren arabera, gizonen kasuan %33,9 harreman heterosexualetan kutsatu dira, %31,3 drogak bide parentenaletik hartuta (DEP) eta %26,7 harreman homosexualetan. Emakumeen kasuan, %66,3 harreman heterosexualetan eta %23 drogak bide parentenaletik hartuta (DEP).

Garrantzi handiko bete alderdi bat, izan ere, GIBek azken urteotan kutsaturiko pertsona berrien %31,1ek seropositiboak zirela diagnostikoa egiteko unean jakitea izan zen, hau da, jakin zutenerako HIES gaixotasuna garatuta zuten.

2005eko ekainaren 30ean jasotako jakinarazpenen arabera, 2004an Espainiako estatuan 2.071 HIES kasu diagnostikatu ziren, eta horrek, 2003ko 2.218 kasuekin konparatuz, %6,6ko murriztapena adierazten du. Sexuen arabera eta 2003ari dagokionez, gizonen artean %10,3ko murriztapena egon da eta emakumeen artean %8ko hazkundea.


1996aren amaieran tratamendu antirretobiralak hedatu zirenetik, HIESaren eragina murriztu egin da. EuroHIVren datuetan oinarrituz, HIESaren diagnostiko positibo berrien kopuruak, EBN 1996-2003 al-dian, %55eko murriztapena izan du (1996an 4.085 kasu eta 2003an 1.772). Espainiako estatuan %69ko murriztapena egon da; hain zuzen ere, 1997-99 al-dian murriztapen handia egon da eta 2001ean murriztapen moderatua. 2002tik aurrera, murriztapenak %10etik behera mantendu dira.

Hala eta guztiz ere, EINen datuek agerian jarri duteenez, Europa Mendebaldeko herrien artean HIESaren eraginik handiena duten herrien artean Espainiako estatua dago: Portugal (79 kasu milioi bat pertsonako), Espainia (33 kasu), Suitza (30 kasu) eta Letonia (25 kasu).

GIBEN ERAGINEZKO INFEKZIOEN BILAKAERA EAEn OSPITALEETAN (1997-2004), GENEROAREN ARABERA


Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

GIBEN ERAGINEZKO KUTSADURA BERRIEN BILAKAERA EB-25EAN



Iturria: EuroHIV.

GIBEN ERAGINEZKO KUTSADURAK, TRANSMISIOAREN KATEGORIAREN ARABERA (1997-2004)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

EAEren kasuan, HIESaren Estatuko Erregistroak egindako jakinarazpenen %7,1 EAEk egindakoak dira, eta beraz, egoera nahiko kezagarrian gaude; gure erkidegoko tasak gaintzen dituzten bakarrak, izan ere, Madril (jakinarazpenen %24, baina biztanle kopuru askoz ere handiagoa), Katalunia (%20,9), Andaluzia (%13,9) eta Valentzia (%8) dira.

HIESAREN ERAGINA (PERTSONAK MILIOITAN)

	2001	2002	2003
Eslovakia	1	0	0
Txekiar Errepub.	1	1	1
Irlanda	7	8	2
Lituania	3	3	3
Hungaria	2	3	3
Eslovenia	3	2	3
Alemania	8	8	4
Polonia	3	3	4
Finlandia	3	4	5
Austria	6	8	5
Suedia	5	7	6
Estonia	2	4	7
Danimarka	13	8	8
Belgika	13	10	8
Norvegia	6	7	9
Errumania	16	11	9
Frantzia	28	27	12
Luxenburgo	9	2	18
Letonia	17	23	25
Suitza	30	28	30
Espainia	57	49	33
Portugal	92	93	79

Iturria: EIN.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Osasun Publiko-ko Zuzendaritzak emandako datuen arabera, 2004an EA-En 128 kasu berri diagnostikatu ziren, 2003an baino 8 gutxiago. HIESak hildakoen kopurua 79koa izan zen, aurreko urtean baino 11 gutxiago.

Drogen erabilera parentenala da (DEP) transmisio bide nagusia, bai Estatuan eta bai EAEn; hala eta guztiz ere, EAEn bide horrek garrantzi handiagoa dauka guztizkoaren gainean Estatuan baino (%73,5 eta %63,2, hurrenez hurren). Bigarren postuan, askoz ere tasa txikiagoarekin, harreman heterosexualak daude (EAEn %14,6 eta Estatuan %15,5), eta hirugarrenez, harreman homo/bisexualak eta horiek alde positiboa dute Estatuarekiko alde positiboa dute EAEn (%6,4 eta %13,7, hurrenez hurren).

Generoaren arabera azterketa eginez, garrantzia-
ren hurrenkera bera ikusten da transmisio bideetan, bai-
na desberdintasun batzuk agertzen dira. Emakumeen ar-
tean, drogen erabilera parentenaren eraginezko
kutsadura gizonen artean baino apur bat txikiagoa da
(%66,5 eta %75,2 EAEn); hala ere, harreman heterose-

xualen bidezko kutsaduretan kasu gehiago dago (%25,9 eta %11).

HIES kasuen beherakada mantentzeko, GIBen proba sustatzeko esku-hartzeak bultzatu behar dira; halaber, ga-
rrantzitsua da kutsaduraren diagnostiko goiztiarra eta
aholkua, HIES arriskuko jardunak izan dituzten pertsonen
artean.

(d) Osasuna eta aisialdia: bidaiariaren prebentzioa eta osasuna

Azken hamarkadan, garapen bideko herrietarako na-
zioarteko bidaien kopuruak hazkunde handia izan du, ba-
tez ere zona tropikaletara egindako bidaien kopuruak; ho-
rrek, berriz, gaixotasun exotiko kutsagarriak hartzeko
arriskua eta geure inguruan baino ugariagoak diren bes-

HIES KASUEN BANAKETA GENEROKA, TRANSMISIOAREN KATEGORIAREN ARABERA

	EAE			Estadua		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Homo/bisexuala	8,3	0	6,4	17,1	0	13,7
DEP	75,2	66,5	73,5	64,0	60,1	63,2
Hemoerotorriak	1,3	0,5	1,1	1,3	0,5	1,1
Transfusioa	0,3	1,2	0,1	0,4	1,2	0,5
Ama-umea	0,8	2,7	1,2	0,8	3,3	1,3
Heterosexuala	11,0	25,9	14,6	11,8	30,6	15,5
Beste batzuk /EE	3,1	3,2	3,1	4,7	4,3	4,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria CNE. HIESaren Erregistro Nazionala.

HIES KASUAK AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEAN, TRANSMISIOAREN KATEGORIAREN ARABERA (04.06.30)

	Homo/ bisexual	DEP	Hemo- erotor.	Trans- fusioa	Ama- umea	Hetero- sexuala	B. batz. /EE	Guztira	
								Kop.	%
Andaluzia	837	7.002	146	47	115	1.342	373	9.862	13,9
Aragoi	105	789	31	6	22	307	88	1.348	1,9
Asturias	138	764	12	14	10	242	76	1.256	1,8
Balearrak	433	1.874	23	12	34	421	115	1.256	1,8
Kanariak	595	673	26	13	18	394	143	1.862	2,6
Kantabria	59	425	5	2	11	88	26	616	0,9
Gaztela-Mantxa	95	835	24	3	14	203	66	1.240	1,7
Gaztela eta Leon	165	1.764	56	11	43	421	94	2.554	3,6
Katalunia	2.832	8.272	114	24	207	2.719	678	14.846	20,9
Valentziako Erk.	725	3.527	53	53	71	876	400	5.705	8,0
Extremadura	51	699	22	33	17	109	83	1.014	1,4
Galizia	272	2.213	60	6	14	648	130	3.343	4,7
Madril	2.720	11.294	139	31	231	1.907	695	17.017	24,0
Murtzia	226	780	18	82	18	283	73	1.480	2,1
Nafarroa	57	555	9	5	5	149	24	804	1,1
EAE	321	3.708	58	3	63	737	158	5.048	7,1
Errioxa	22	299	3	24	9	100	12	469	0,7
Ceuta	4	113		2	3	20	16	158	0,2
Melilla	9	50		2	2	10	3	76	0,1
Atzerria	87	73	1	5	2	35	15	218	0,3
ESTADUA GUZT.	9.753	44.922	800	376	909	11.011	3.268	71.039	100

Iturria: Hiesaren Zaintza Epidemiologikoa Espainian, 2005. EZN. HIESaren Erregistro Nazionala.

URTERO DIAGNOSTIKATURIKO HIES KASUAK ETA HILDAKOAK EAEn



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

te gaixotasun batzuk hartzeko arriskua sortzen du. Horietariko batzuk txertoen bidez aurreikusteko modukoak dira, baina oso garrantzitsua da bidaiari heziketa egokia ematea, transmisio bideei aurre egiteko neurri higienikoak buruz.

2004an, EAeko Nazioarteko Txertaketa Zentroetan 18.149 bidaiari egon ziren, eta horiei 6.620 txerto eman zitzaizkien (sukar horia, Japoniako encefalitisa, Europa Erdialdeko encefalitisa, meningitis tetrabalentea, kolera, amorrua,...), eta gainera, beste 10.030 txerto hartzeko gomendioa eman zen (A hepatitis, B hepatitis, sukari-foidea, difteria-tetanoak, hirukoitz birikoa, polioa, gripa eta beste batzuk), eta sarritan txertaketa jarraibide bizkortuak erabili behar izan ziren.

Bidaiarien %40k soilik eskatzen du bidaiari buruzko aholkularitza, abiatu baino lehen, eta horietatik %20k baino gehiagok azken 15 egunetan eskatzen dute aholkularitza hori, azken orduko bidaiak izatearen eraginez; izan ere, aurretiazko kontsultaren eta bidaiaren irteko egunaren arteko denbora tarte laburra egoten da. Horrenbestez, osasuneko profesionalen arriskuen ebaluazioa egin behar izaten dute, infekzioen eragina eta larritasuna aintzat hartuta, eta gainera, txertoetan lehentasuna ezarri behar izaten dute, babesak eta betetzea ahalik eta denbora laburrenean bermatuz, kontuan hartuta txertaketa bizkortuaren erantzun immunea eta erreaktogenizitatea (ja-

rraibide konbentzionalei dagokionez), baita emandako prestakin immunologiko desberdinak aldi berean ematean sor daitekeen elkarreragina ere.

Malaria eta nazioarteko bidaiak

Malaria edo paludismoa parasito-gaixotasuna da; "anopheles" generoko eltxo emearen ziztadaren bidez kutsatzen da; eltxo horrek gauez ziztatzeko ohitura dauka, kolore ilunek, CO₂ emisioek, tenperaturak eta hezetasunak urrunetik erakartzen baitute; 3.000 m-tik gorako altueretan eta 15° C-ko tenperaturetan ez dago kutsatzeko arriskurik.

Nazioarteko bidaiak egiten dituzten 10.000 bidaiarik baino gehiagok, zona endemikoetara doazenean, paludismoa hartzen dute jatorrizko herrietara itzultzen direnean. EAEn ere, inportaturiko kasuen kopuruak hazkunde handia izan du; izan ere, ez da ondo betetzen araubide kimiofilaktikoa edo profilaxi ezegokia hartzen da, eta gainera, ez dago ziztadarekiko babes egokirik.

Gaixotasuna sortzen duen parasitoa Plasmodium sp da, eta horrek lau espezie ditu (p.falciparum, p.vivax, p.ovale, p.malariae). Ziztadatik odolean parasito-formak egon arte 7-14 egun inguru igarotzen dira, p.falciparum espeziearen kasuan, eta 30 egun edo gehiago gainerako espezieen kasuan.

PALUDISMO ARRISKUA ETA PREBENTZIOA

	Paludismo arriskua	Prebentzio mota
I. mota	Paludismoa hartzeko arrisku oso txikia	Eltxoan ziztaden aurkako prebentzioa bakarrik
II. mota	Paludismoa P. vivax edo P. falciparum deritzonaren bidez hartzeko arriskua (klorokinarekiko erab. sent.)	Eltxoan ziztaden aurkako prebentzioa eta klorokinarekiko kimioprofilaxiak
III. mota	Paludismoa hartzeko arriskua eta klorokinarekiko erresist.	Eltxoan ziztaden aurkako prebentzioa eta klorokinarekin + proguanilekin egindako kimioprofilaxiak
IV. mota	Paludismoa falciparum deritzonaren bidez hartzeko arriskua, eta gainera, sendagaiekiko erresistentzia; edo falciparum deritzonaren bidez hartzeko arr. moderatua/txikia, baina send. erresistentzia handiarekin	Eltxoan ziztaden aurkako prebentzioa eta meflokina edo doxiziklina edo atobakonea/proguanila (erresistentziarik gabeko sendagaia hartzea, bisitatu beharreko eremuen arabera)

Iturria: OKM.

Madrileko eta Bartzelonako aireportuetan 2005ean egindako inkesta epidemiologikoei agerian jarri dutenez, malariaren arrisku zonetara doazen bidaiarien %34k soilik hartu dute paludismoaren aurkako kimioprofilaxia.

Paludismorik larriena p. falciparum espezieak eragindakoa da, eta hilgarria izan daiteke kasu guztien %1-2an. Gaixotasun larri hori ekiditeko modurik onena diagnostiko goiztiarra eta tratamendu egokia da; beraz, beste edoein jatorrikoa izan ezin den sukarra dagoenean pentsatu behar da paludismoa dela, baldin eta sukar hori paludismoak jotako zona endemiko batean egondako pertsona bati sortzen bazaio. Kasu hori larrialditzat tratatu beharko da.

2.2. Osasun sistema eta prestazioak

Lurralde jakineko osasun sistemaren egoera eta bilakaera baloratzeko gehienetan onartzen diren baliabide-adierazleak langileria (sendagileak, erizaintzako langileak,...), ospitale kopurua eta ohe kopurua dira.

Eurostatek osasun baliabideei eta langileei buruz argitaraturiko azken datuek agerian jarritakoaren arabera, EAEn:

- 100.000ko sendagile eta psikiatra kopuruak gorazko joera dauka; hain zuzen ere, 2000ko 261,9 medikutik 2003ko 368,7ra igaro dira, eta horrela, herri garatuago batzuek baino balio handiagoak ditugu (esate baterako, Danimarka, Finlandia edo Alemania). Hala eta guztiz ere, 2002tik 2003ra murriztapena egon da, eta hori ez da berriro gertatu, Eustaten datuek diotenez. Izan ere, Eustaten datuek agerian jarri dutenez, 100.000 biztanleko mediku kopuruak hazkunde iraunkorra izan du, bai ospitaletik kanpoko laguntza-jardueraren estatistikan, bai ospitaleko estatistikan. Eustatek erabilitako metodologian, ospitaleko eta ospitaletik kanpoko laguntzako osasun jarduerak bereizten dira, eta bi horiek ezin dira erantsi, horrela mediku kopurua bikoiztu egingo litzatekeelako. Azken batean, esan daiteke fakultatibo kopuruak goranzko joera due-

EAEko SENDAGILEAK 100.000 BIZTANLEKO

	2001	2002	2003	2004
Ospitaletik kanpoko laguntza jarduerako sendagileak (KLJ)	2.633	2.683	2.703	2.741
Ospitaleko laguntza jarduerako sendagileak (OLJ)	4.051	4.077	4.180	4.247
Biztanleria	2.101.478	2.108.281	2.112.204	2.115.279
KLJko sendagileak 100.000 biztanleko	125,3	127,3	128,0	129,6
OLJko sendagileak 100.000 biztanleko	192,8	193,4	197,9	200,8

Iturria: EIN eta Eustat.

OHEAK 100.000 BIZTANLEKO

	1988	1998	2002	2003	2004
EAE	—	400	383,2	376,6	376,6
EB-25	844	677	639	—	—
EB-15	815	649	611	—	—
Estatua	400	381	358	—	—

Iturria: Eustat eta Eurostat.

la, baina ezin daiteke zehatz jakin kopuru horren benetako hazkundea zein izan den.

- 100.000 biztanleko dentista kopuruak gora egin du 2001etik 2003ra, eta 57tik 60,4ra igaro da. Zatidura Estatuko baina handiagoa da (2003an 48,1), baina EB-15eko herririk gehienetakoa baino txikiagoa (Irlanda, Austria, Portugal eta Erresuma Batua izan ezik), baita handituriko Europakoa baino txikiagoa ere (Letonia, Polonia eta Eslovakia izan ezik).
- 100.000 biztanleko erizain kopuruak ere gora egin du 2001etik 2003ra, eta 433,4tik 694,3ra igaro da. Estatuko baina handiagoa da (2003an 405), baina EB-

15eko herririk gehietakoa baino txikiagoa (Austria eta Portugal izan ezik).

Bestalde, ospitaleko ohe kopuruak, bai EB-15ean eta bai EB-25ean, beheranzko joera izan du, eta beherakada horren zati handi bat, izan ere, egonaldiko egun kopuruak izandako murriztapenaren eraginezkoa izan daiteke.

Hain zuzen ere, 100.000 biztanleko ohe kopuruak, 1998tik 2002ra 815etik 611ra igaro da EB-15ean (100.000 biztanleko 204 oheko murriztapena), eta 844tik 639ra EB-25ean (100.000 biztanleko 205 oheko murriztapena). Estatuan, aldi horretan murriztapena 100.000 biztanleko 42 ohekoa izan da.

OSASUNEKO LANGILEAK 100.000 BIZTANLEKO

	Psikiatrak eta sendagileak				Dentistak			Erizainak		
	2000	2001	2002	2003	2001	2002	2003	2001	2002	2003
Belgika	410,5	418,7	448,8	444,1*		80,7	87,6			
Txekiar Errepublika	370,2	378,3	387,5	389,0	65,2	65,6	67,0	885,2	906,4	908,0
Danimarka	342,5	342,7	365,1	284,9	:	90,0	85,4	988,0	992,9	776,4
Alemania	326,1	331,0	333,8	336,7	74,2	74,6	75,0	751,1	763,8	770,6
Estonia	326,3	318,5	311,2	315,4	81,1	79,2	83,1	625,3	640,3	650,1
Grezia	447,7	438,6	—	—	113,4	:	:	:	:	:
Espainia	349,3	346,2	331,1	329,2	46,1	47,7	48,1	372,2	414,2	405,0
Galizia	280,9	378,5	289,4	262,9	44,8	46,2	48,7	333,7	382,4	348,1
Asturias	341,7	399,0	342,7	387,0	50,5	53,1	53,6	357,4	329,6	358,6
Kantabria	284,3	453,6	301,8	222,6	44,8	45,3	45,3	412,8	411,3	649,4
EAE	261,9	314,4	425,2	368,7	57,0	60,0	60,4	433,4	576,3	694,3
Nafarroa	391,9	278,2	405,8	548,7	43,6	43,3	47,4	544,0	755,5	601,8
Errioxa	417,3	413,3	186,6	390,2	46,2	47,4	46,5	295,2	361,4	461,1
Aragoi	410,6	368,1	531,3	485,2	43,4	44,0	42,7	517,4	498,5	608,5
Madril	475,4	304,5	324,1	322,5	74,8	78,7	75,5	293,9	377,8	351,2
Gaztela eta Leon	335,8	433,6	357,4	362,2	36,3	37,1	37,7	463,7	399,3	419,1
Gaztela-Mantxa	263,5	349,3	231,8	201,1	28,4	30,2	29,7	362,0	414,7	318,4
Extremadura	336,0	353,1	296,4	397,1	24,2	25,5	27,5	471,7	510,3	453,9
Katalunia	342,0	346,8	306,1	317,0	40,8	40,6	40,7	412,0	433,5	395,4
Valentzia	419,2	405,4	395,9	319,8	43,6	45,7	46,7	306,9	348,3	443,5
Balearrak	244,0	337,1	476,0	274,0	49,7	49,1	46,1	376,8	285,0	308,2
Andaluzia	305,2	306,9	273,4	329,0	42,4	43,9	45,4	365,6	433,4	361,3
Kanariak	276,7	279,8	324,3	282,0	36,8	38,4	42,1	246,9	294,8	385,5
Frantzia	335,7	337,8	343,2	348,0	72,9	69,8	70,1	685,3	709,0	731,0
Irlanda	223,4	239,6	243,2	264,5	52,4	54,1	55,9	1.491,3	1.547,5	1.519,1
Italia	599,4	603,1	611,2	628,0	58,8	61,3	65,0	483,8	495,9	:
Zipre	260,7	263,6	264,2	262,7	90,9	92,1	93,8	424,8	424,4	:
Letonia	286,3	265,7	274,7	276,2	52,4	53,8	54,3	426,9	425,1	433,2
Lituania	379,4	402,4	398,7	395,1	71,4	66,4	68,5	796,9	774,5	757,5
Luxenburg	235,7	239,9	238,9	247,7	64,0	67,8	70,7	750,8	764,1	920,4
Hungaria	305,6	324,4	366,5	377,0	:	:	:	490,4	499,3	506,2
Malta	269,3	311,9	—	—	40,4	:	:	:	552,9	557,5
Holanda	302,6	308,8	315,8	—	51,3	52,0	:	1.287,3	:	:
Austria	312,6	323,7	328,2	339,8	45,4	48,6	50,0	588,2	588,8	605,2
Polonia	—	—	228,0	243,3	:	27,9	29,0	:	481,2	548,8
Portugal	265,1	264,0	273,6	269,3	3,7	3,8	3,8	347,7	351,5	347,0
Eslovenia	215,3	217,3	227,7	:	59,2	60,1	:	161,7	165,8	:
Eslovakia	335,0	335,0	332,5	328,0	44,0	43,6	44,0	733,0	713,0	680,0
Finlandia	307,6	310,9	313,2	:	91,3	89,2	:	2.174,0	2.168,1	2.147,7
Erresuma Batua	192,7	198,2	206,6	217,1	43,5	44,3	45,6	726,9	760,4	797,0
Bulgaria	336,1	333,6	350,9	356,5	79,5	77,9	82,1	408,5	404,8	422,0
Errumania	188,7	188,8	190,3	194,8	22,5	22,3	22,5	496,0	520,4	502,3
Norvegia	—	—	322,8	328,7	:	81,1	81,4	:	1.309,8	1.328,2

* 2004ko datua

Iturria: Eurostat. Datu-basea.

Eustatek eskainitako datuek joera horixe adierazten dute. Izan ere, 1998tik 2004ra, 100.000 biztanleko ohe kopurua 400etik 376,6ra igaro da.

2.2.1. Laguntzako osasun egitura, baliabideak eta jarduera

Laguntzako osasun jarduera ospitalekoa edo ospitaletik kanpokoa izan daiteke (horren barruan oinarritzko laguntza eta espezializatua sartzen da, ospitaletik kanpo ematen dena), eta biak publikoak edo pribatuak izan daitezke. Laguntzako osasun jarduera publikoa Osakidetzak eta hitzarturiko zentroek ematen dute, eta pribatuak, berriz, zentro pribatuak.

Epigrafe honetan egiten den azterketarako, Eustaten datuak erabili dira, hau da, Eustatek ospitaleko eta ospitaletik kanpoko sektorerako emandako datuak. Hala eta guztiz ere, lehenengo kasuan, informazioa erabilgarria da sektore publikorako eta sektore pribaturako, baina bigarrenean (ospitaletik kanpokoa), ostera, sektore publikorako bakarrik dauka erabilgarritasuna.

2.2.1.1. Ospitaletik kanpoko jarduera publikoa

Eustatek 2004ko jarduerari buruz argitaraturiko azken datuetan adierazitakoaren arabera, aldagairik gehienetan hazkundea egon da, eta horrela, aurreko urteetako goranzko joerarekin jarraitu da.

2003an baino 3 zentro gehiago daude, eta beraz, guztira 443 zentro dira. Enplegaturiko langile kopuruak %1eko hazkundea izan du eta 7.036 pertsona dira. Funtzionamenduaren aldetik, enplegatuen %79,7 osasuneko langileak dira (2.741 sendagile —aurreko urtean baino

38 gehiago— eta erizaintzako nahiz beste mota bateko 2.868 langile), eta %20,3 ez dira osasuneko langileak. Eustatek dioenez, sendagileen artean, %51,8 sendagile orokorrak dira, %10,6 pediatriak eta %37,6 espezialistak.

Baliabideen hazkundea, izan ere, laguntzako jarduerak gorakada gero eta handiagoa izatearen ondoriozkoa da. Kontsulta kopuruak %2,2ko hazkundea izan du eta guztira 12.889 kontsulta izan dira. Hazkunde hori enpleguak izandakoa (%1) baino txikiagoa da.

Ospitaletik kanpoko bi laguntza maila nagusiei dagokienez, oinarritzko laguntzako kontsultak (medikuntza orokorra eta pediatria) ospitaletik kanpoko jarduera osoaren %81,1ekoak dira, eta %2,3ko hazkundea izan dute aurreko urteari dagokionez; laguntza espezializatukoek (gainerako espezialitateak), berriz, %1,8ko hazkundea izan dute.

Oinarritzko osasun laguntzako 10,4 milioi kontsulten artean, ugariak medikuntza orokorreko 8,9 milioiak dira (2003an baino %2,7 gehiago); pediatriak (1,5 milioi), berriz, aurreko urtekoaren antzeko jarduera maila mantendu du. Gainerako espezialitateei dagokienez, Eustaten datuen arabera, lehenengo postuan traumatologia dago (511.749 kontsulta), eta gero tokoginekologia (333.885), psikiatria (275.006) eta oftalmologia (231.635).

Sendagile kopuruak izandako hazkundearen ondorioz, 2004an, berriro ere, sendagile bakoitzeko biztanle kopuruak behera egin du medikuntza orokorrean (1.511tik 1.483ra igaro da). Hala eta guztiz ere, pediatrian ez da halakorik gertatu, bertan tasak 823tik 829rako hazkundea izan baitu.

Biztanle bakoitzeko batez besteko kontsulta kopurua 6,1ekoa izan da, eta horrek hazkundetxo adierazten du

OSPITALETIK KANPOKO LAGUNTZA PUBLIKOA EAEn

	2001	2002	2003	2004	03-04 (%)	2003-04 ald.
BALIABIDEAK						
Zentro kopurua	431	439	440	443	0,7	3,0
Langile kopurua	6.712	6.874	6.966	7.036	1,0	70,0
Sendagileak	2.633	2.683	2.703	2.741	1,4	38,0
Osas. b. batzuk	2.739	2.808	2.842	2.868	0,9	26,0
Osas. ez direnak	1.340	1.383	1.421	1.427	0,4	6,0
LAGUNTZA JARDUERA (milatan)						
Kontsultak guztira	11.871	12.401	12.608	12.889	2,2	281,0
Oinarritzko lagunt.: Medik. Orokorra	8.242	8.630	8.727	8.964	2,7	237,0
Oinarritzko lagunt. Pediatria	1.341	1.429	1.482	1.485	0,2	3,0
Erradiografiak	438	461	499	514	3,0	15,0

Iturria: Eustat, Ospitaletik kanpoko laguntza publikoaren estatistika.

OSPITALETIK KANPOKO ADIERAZLE NAGUSIAK EAEn

	2001	2002	2003	2004
EGITURAREN ADIERAZLEAK (biztanle kopurua (sendagileko))				
Sendagileak guztira	802	789	784	769
Medikuntza Orokorra	1.560	1.524	1.511	1.483
Pediatría (0-<14 urte)	829	829	823	829
JARDUERAREN ADIERAZLEAK (kontsultak 100 biztanleko)				
Medikuntzako kontsultak	562	586	595	612
Medikuntza orokorreko kont.	390	408	412	425
Pediatríako kontsultak	580	614	627	618

Iturria: Eustat. Ospitaletik kanpoko laguntza publikoaren estatistika.

aurreko urteari dagokionez, 2003an kopurua 5,6koa izan baitzen. 14 urtetik beherako haurrei dagokienez, batez beste 4,3 aldiz joan ziren osasun-etxera pediatrarenera.

2.2.1.2. Ospitaleko jarduera publikoa eta pribatua¹

Eustaten Ospitale Estatistikako datuen arabera, ospitale publikoen eta pribatuen kopurua ez da aldatu, eta guztira 44 dira (18 publiko eta 26 pribatu).

Ohe kopururik handiena ospitale publikoetan dago (5.565), eta aldaketa tasa positiboa dute (ohe kopuruak %2,2ko hazkunde). Aldiz, ospitale pribatuak ohe kopuruak %3,5eko murriztapena izan du, 2002an hasitako joerari jarraituz.

Aztertutako aldian, langile kopuru osoak berriro ere gora egin du (%0,8). Sare publikoa eta pribatua bereizita, sektore publikoan %0,4ko hazkundea egon da eta pribatua %2ko hazkundea (2002tik 2003ra izandako %1,1eko beherakadaren ostean). Kategorien arabera (sendagileak, erizainak, etab.), aurreko urtean ez bezala, sektore pribatua hazkundeak egon dira laguntzako langileria loturiko kategoria guztietan: sendagileak (%0,3), erizainak (%5,9), OLT nahiz EUD (%8) eta laguntzakoak ez diren langileak (%1,3). Bestalde, sektore publikoan hazkundeak egon dira medikuntzako eta erizaintzako langile kopuruan (hurrenez hurren, %2,3 eta %0,1), baina ez OLT eta EUD kopuruan, ezta laguntzako langileen kopuruan ere, horiek, hurrenez hurren, %0,1eko eta %1,4ko murriztapena izan baitute.

Laguntzako jarduerari dagokionez, jarduera guztiek hazkundea izan dute, erditze anitzek izan ezik, horiek %1,3ko murriztapena izan baitute. Hala eta guztiz ere, jorkabidea desberdina da sare publikoan eta pribatuan. Ho-

rela, kirurgiako ebakuntzek hazkundea izan dute, sare publikoan izandako hazkundearen eraginez (%+4,1), sektore pribatuan %0,4ko murriztapena egon baita. Anestesia epiduralarekin egindako erditze kopuruak gora egin du, ospitale publikoetan egon den +%13,1eko hazkundearen ondorioz, ospitale pribatueta %30,1eko murriztapena egon baita.

Bestalde, erditze anitzetan izandako murriztapena sare publikoan eta pribatueta gertatu da, bietan.

Laguntzako jardueren artean kanpo-kontsultek izan zuten hazkunderik handiena. Hain zuzen ere, ospitaleetan 2.194.224 kontsulta egin ziren guztira, eta horrela, %3,4ko hazkundea egon zen aurreko urteari zegokionez. Hazkunde hori, aurreko urtean ez bezala, handiagoa izan zen sektore pribatuan (%43,9) publikoan baino (%3,2). Larrialdiei dagokienez, kasurik gehienetan ospitale publikoetan izan ziren, baina hazkunderik handiena ospitale pribatueta egon zen; hain zuzen ere, ospitale pribatueta %2,2ko hazkundea egon zen eta ospitale publikoetan %0,6koa.

Azkenik, 1996an hasitako goranzko joerarekin jarraituz, ospitaleetan 2004an izandako erditze kopuruak %3,1eko hazkundea izan zuen, aurreko urteari dagokionez, eta azken bederatzi urteetan %22,4ko hazkundea egon da. Guztira, 19.789 erditze izan dira; %87,8 ospitale publikoetan izan dira eta %12,2 ospitale pribatueta. Laguntza motari dagokionez, %15,3 zesararekin izan ziren (2003an %15,6), eta zifra hori OMEk gomendaturiko %15etik hurbilekoa da (zesarea kopuru onargarria). Ospitale pribatueta zesararea kopurua %24,3koa izan da.

Egituraren ospitale-adierazleek, bestalde, sendagile eta erizain kopuruaren hazkundea adierazten dute, ohe bakoitzeko.

¹ Eustaten arabera, ospitaleak publikoak (Osakidetza) eta pribatuak dira: Ongintzako partikularra, pribatuak, Gurutze Gorria, beste b.

OSPITALEKO LAGUNTZA JARDUERAREN BILAKAERA EAEn (2001-2004)

	2001			2002			2003			2004			2003-04ko ald.		
	Guztira	Publikoa	Pribat.	Guztira	Publikoa	Pribat.	Guztira	Publikoa	Pribat.	Guztira	Publikoa	Pribat.	Guzt.	Publikoa	Pribat.
BALIABIDEAK															
Ospitale kopurua	46	18	28	45	18	27	44	18	26	44	18	26	0,0	0,0	0,0
Oheak	8.111	5.371	2.740	8.110	5.403	2.707	7.985	5.445	2.540	8.016	5.565	2.451	0,4	2,2	-3,5
Langileak guztira	19.452	15.158	4.294	19.716	15.337	4.379	19.887	15.557	4.330	20.037	15.620	4.417	0,8	0,4	2,0
Sendagileak	4.051	2.559	1.492	4.077	2.581	1.496	4.180	2.685	1.495	4.247	2.747	1.500	1,6	2,3	0,3
Erizainak	5.448	4.657	791	5.585	4.773	812	5.633	4.817	816	5.686	4.822	864	0,9	0,1	5,9
OLT eta EUD	5.028	4.367	661	5.144	4.466	678	5.165	4.499	666	5.213	4.494	719	0,9	-0,1	8,0
Laguntz. ez diren langileak	3.882	2.964	918	3.917	2.984	933	3.886	2.982	904	3.857	2.941	916	-0,7	-1,4	1,3
LAGUNTZA JARDUERA															
Ospitaleratzeak	279.659	208.788	70.871	272.818	198.713	74.105	278.195	204.064	74.131	283.576	207.552	76.024	1,9	1,7	2,6
Egonaldiak	2.394.332	1.669.476	724.856	2.423.647	1.689.171	734.476	2.399.586	1.701.166	698.520	2.435.944	1.737.061	698.883	1,5	2,1	0,1
Altak	279.466	208.556	70.910	271.944	197.837	74.107	277.387	203.432	73.955	282.255	206.378	75.877	1,8	1,4	2,6
Kanpo-kontsultak	1.982.324	1.541.294	441.030	2.038.678	1.580.188	458.490	2.122.406	1.652.273	470.133	2.194.214	1.705.549	488.665	3,4	3,2	3,9
Larrialdiak	959.496	841.247	118.249	1.000.622	872.910	127.712	1.043.230	901.315	141.915	1.052.006	907.024	144.982	0,8	0,6	2,2
Kirurgiako ebakuntzak	204.290	127.478	76.812	209.177	128.787	80.390	214.028	132.714	81.314	219.165	138.177	80.988	2,4	4,1	-0,4
Erditzeak	17.650	15.505	2.145	18.137	16.040	2.097	19.191	17.001	2.190	19.789	17.375	2.414	3,1	2,2	10,2
Erditze anitzak	299	283	16	340	320	20	384	363	21	379	362	17	-1,3	-0,3	-19,0
Anestesia epiduraleko erditz	13.277	12.474	803	13.517	12.666	851	13.301	12.743	558	14.806	14.416	390	11,3	13,1	-30,1

Iturria: Eustat. Ospitaleen Estatistika. Datu-basea.

OSPITALEKO ADIERAZLE NAGUSIEK IZANDAKO BILAKAERA EAEn (2001-2004)

	2001			2002			2003			2004		
	Guztira	Publik.	Pribat.	Guztira	Publik.	Pribat.	Guztira	Publik.	Pribat.	Guztira	Publik.	Pribat.
EGITURAREN ADIERAZLEAK (langileak, erabilitako 1.000 oheko)												
Sendagileak	35,0	43,6	18,0	35,3	43,7	18,5	36,9	45,1	19,2	37,8	45,2	21,0
Erizaintza	65,2	85,2	25,8	66,8	86,8	26,7	67,5	85,6	28,7	67,9	83,7	31,8
JARDUERAREN ADIERAZLEAK (1.000 biztanleko adierazlea)												
Oheak	3,9	2,6	1,3	3,9	2,6	1,3	3,9	2,6	1,2	3,8	2,6	1,2
Egonaldiak	1.149,7	801,6	348,1	1.176,3	819,8	356,5	1.167,0	827,3	339,7	1.156,1	824,4	331,7
Larrialdiak	460,7	403,9	56,8	485,7	423,7	62,0	507,4	438,3	69,0	499,3	430,5	68,8
Kirurgiako ebakuntzak	98,1	61,2	36,9	101,5	62,5	39,0	104,1	64,5	39,5	104,0	65,6	38,4
Kanpo-kontsultak	951,9	740,1	211,8	989,5	767,0	222,5	1.032,2	803,6	228,6	1.041,4	809,5	231,9
FUNTZIONAMENDUAREN ADIERAZLEAK												
Okupazio indizea (%)	80,9	85,2	72,5	81,9	85,6	74,3	82,3	85,6	75,3	83,3	85,5	78,1
Batez besteko egonaldia	8,6	8,0	10,2	8,9	8,5	9,9	8,7	8,4	9,4	8,6	8,4	9,2
Errotazio indizea	34,5	38,8	25,9	33,5	36,6	27,4	34,7	37,4	29,1	35,2	37,1	31,0
Larrialdietako presioa	48,4	57,6	21,5	49,9	61,2	19,7	49,1	59,8	19,7	49,0	60,2	18,4
Ospitaleraturiko larrialdiak	13,8	14,0	11,9	13,6	13,9	11,0	13,0	13,5	9,9	13,2	13,8	9,3
Hilkortasun gordina (%)	3,2	3,6	2,1	3,4	3,8	2,2	3,5	3,9	2,3	3,3	3,8	2,0
Nekropsiak, 1.000 hildako	59,6	70,6	2,7	48,8	58,9	2,4	40,0	48,2	1,8	37,8	44,5	2,7
B. besteko egonaldia kirurgian eta espezialitateetan	4,1	4,5	3,3	4,5	5,3	3,2	4,3	5,1	2,9	4,3	5,2	2,8
B. besteko egonaldia ginekologian	3,2	3,1	4,0	3,0	2,9	4,1	3,1	3,0	4,0	3,1	3,0	3,9

Iturria: Eustat. Ospitaleen Estatistika. Datu-basea.

Beste alde batetik, jarduerari eta funtzionamenduari buruzko oinarriko ospitale-adierazleek ospitaleko oheen erabilera handiagoa adierazten dute 2004an, aurreko urteari dagokionez: 1.000 biztanleko ospitaleratze kopuruak gora

egin du (131,2tik 134,6ra), ospitaleko batez besteko egonaldia laburtu egin da (8,7 egunetik 8,6ra), ospitaleko okupazio indizea hazi egin da (%82,3tik %83,3ra) eta ohe bakoitzeko gaixo kopuruak ere hazkundera izan du (34,7tik 35,2ra).

2.2.1.3. Ospitaleko eta ospitaletik kanpoko jarduera Osakidetzan

Baliabideen erabilera

Osakidetza Osasun Laguntzako Zuzendaritzak eskaintako datuen arabera, Osakidetza sareak 2005ean izandako batez besteko okupazio orokorrak gora egin du 2004an izandakoari dagokionez, eta %84,6koa da. Aurreko urtean %83,9koa izan zen.

Zifra hori baino askoz ere gorago daude honako espezialitate hauek: digestio aparatua (%105, eta 1,6 puntuko hazkundea aurreko urteari dagokionez), barne medikuntza (%98,6, eta 2,8ko hazkundea 2003ari dagokionez), toraxeko kirurgia (%96,6 eta hazkundetxo), pneumologia (%94,8), kirurgia kardiobaskularra (%92,6 eta 23,5 puntuko hazkundea) eta kardiologia (%92,6). Apur bat gorago daude kirurgia orokorra (%89,3), psikiatria (%88,4), neurologia, hematologia eta kirurgia baskularra.

Batez bestekotik gorako okupazioa dute errehabilitazioak (%65,6), kirurgia plastikoak (%72,1), urologiak (%81,4) eta traumatologiak (%84,3).

Eguneko batez besteko egonaldia aurreko urteetakoaren antzekoa da, hau da, 6 egun ingurukoa. Batez bestekotik (6,2 egun) gora daude pneumologia (6,3 egun), neurokirurgia (7,3), digestio aparatua (8,2), barne medikuntza (8,7), hematologia (11,1), psikiatria (16) eta errehabilitazioa (42,5).

Itxaronzerrendak

Kanpo-konsulten itxaronzerrendetako gaixo kopuruak berriro ere gora egin du 2004an eta 2005ean, eta 90.051 gaixokoa da (%4,9ko hazkundea, aurreko urtean izandako %18,6koa baino txikiagoa).

2004an bezala, 2005ean ere kanpo-konsulten itxaronzerrendetako gaixo kopururik handiena oftalmologian dago (22.120), gero traumatologian (15.671 gaixo), dermatologian (10.564 gaixo) eta ginekologian (6.583 gaixo, eta %16,3ko murriztapena aurreko urteari dagokionez).

2004tik 2005era, hazkunderik handiena izan duten espezialitateak, itxaronzerrendetako gaixo kopuruari dagokionez, honako hauek izan dira: anestesiologia (%24), oftalmologia (%16,5), otorrinolaringologia-ORL (%13,3) eta kardiologia (%12,6). Beherakadak egon dira ginekologian (-%16,3), endokrinologian (-%9,8), kirurgia orokorrean (-%9,6), urologian (-7,4), errehabilitazioan (-%5,4), neurologian (-%5) eta alergologian (-%4).

Berandutze aldiari dagokionez, hilabete baino gutxiago eta 3 hilabete baino gehiago itxaroten duten biztanleen ehunekoak gora egin du, baina 1-3 hilabete bitarteko itxarroteak behera egin du. Horrela, 2004an, biztanleriaren %57,9k hilabete baino gehiago itxaroten zuen, eta orain ehuneko hori %61,4koa da, eta 1-3 hilabeteko itxarrotea duen biztanleriaren tasa %32,6tik %27,3ra igaro da.

2002tik 2005era, kanpo-konsulten itxaronzerrendetako gaixo kopuruak %32,7ko hazkundea izan du. Gaixo

BALIABIDE PUBLIKOEN ERABILERA, ESPEZIALITATEAREN ARABERA (BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO INDIZEA)

Zerbitzuak	B. best. egonaldia (egunak)				Okupazio indizea (%)			
	2002	2003	2004	2005	2002	2003	2004	2005
Medikuntza zerbitzuak								
Barne Medikuntza	8,5	8,2	8,1	8,7	94,8	96,2	95,8	98,6
Kardiologia	5,6	5,6	5,4	5,5	95,3	97,2	92,6	92,6
Digestio-aparatua	8,6	8,5	8,3	8,2	105,8	104,6	103,4	105,0
Hematologia	10,7	10,5	11,1	11,1	85,6	79,7	87,1	87,0
Pneumologia	6,4	6,2	6,2	6,3	96,1	95,4	94,8	94,8
Psikiatria	15,3	15,3	16,0	16,0	89,4	86,6	88,3	88,4
Errehabilitazioa	50,5	47,9	42,3	42,5	72,7	77,5	65,6	65,6
Kirurgia zerbitzuak								
Kirurgia orokorra	5,6	5,3	5,5	5,5	90,6	86,8	87,4	89,3
Kirurgia plastikoa	5,8	5,9	5,6	5,6	67,5	72,0	72,1	72,1
Kirurgia kardiobaskularra	5,3	5,1	5,0	5,5	68,1	62,7	69,1	92,6
Kirurgia baskularra	6,0	5,9	6,4	4,9	94,7	86,5	86,6	86,7
Toraxeko kirurgia	5,5	5,5	5,6	5,7	88,6	85,5	96,3	96,6
Neurokirurgia	7,1	7,0	7,3	7,3	82,9	84,2	87,6	87,6
Traumatologia	6,1	5,9	5,9	5,9	86,0	84,1	83,4	84,3
Urologia	5,2	5,0	5,1	5,1	83,8	76,7	80,3	81,4
OROKORRA	6,1	5,9	6,0	6,2	84,2	84,2	83,9	84,6

Iturria: Osakidetza.

KANPO-KONTSULTEN ITXARONZERRENDAK (GAIXO KOPURURIK HANDIENKO ESPEZIALITATEAK)

	Gaixo kopurua				Aldaketak			
	2002	2003	2004	2005	02-03ko ald. %	03-04ko ald. %	04-05eko ald. %	02-05eko ald. %
Alergologia	2.093	1.801	2.064	1.982	-14,0	14,6	-4,0	-5,3
Anestesiologia	2.390	2.919	4.035	5.002	22,1	38,2	24,0	109,3
Kardiologia	2.241	2.371	2.922	3.290	5,8	23,2	12,6	46,8
Dermatologia	6.293	9.199	9.711	10.564	46,2	5,6	8,8	67,9
Digestio aparatua	2.320	2.898	3.349	3.440	24,9	15,6	2,7	48,3
Endokrinologia	1.656	1.410	2.077	1.873	-14,9	47,3	-9,8	13,1
Neurologia	2.961	3.230	4.229	4.018	9,1	30,9	-5,0	35,7
Errehabilitazioa	2.912	3.052	3.344	3.164	4,8	9,6	-5,4	8,7
Kirurgia orokorra	3.318	4.249	4.712	4.258	28,1	10,9	-9,6	28,3
Oftalmologia	17.559	18.106	18.987	22.120	3,1	4,9	16,5	26,0
ORL	4.036	3.535	4.085	4.630	-12,4	15,6	13,3	14,7
Traumatologia	11.101	11.425	14.695	15.671	2,9	28,6	6,6	41,2
Urologia	2.840	3.142	3.731	3.456	10,6	18,7	-7,4	21,7
Ginekologia	6.131	4.967	7.869	6.583	-19,0	58,4	-16,3	7,4
GUZTIRA	67.851	72.304	85.810	90.051	6,6	18,7	4,9	32,7

Iturria: Osakidetza.

KANPO-KONTSULTETAKO ITXARONZERRENDEN BERANDUTZEAK (%)

	2002	2003	2004	2005
< hilabete	62,0	64,2	57,9	61,4
1 - 3 hilabet.	31,2	30,8	32,6	27,3
> 3 hilabete	6,2	5,0	9,4	11,3

Iturria: Osakidetza.

kopurua aintzat hartuta itxaronzerrendetan hazkunderik handiena izan duten espezialitateak honako hauek izan dira: anestesiologia (%109,3), dermatologia (%67,9), digestio aparatua (%48,3), kardiologia (%46,8), traumatologia (%41,2) eta neurologia (%35,7).

Bestalde, kirurgiako itxaronzerrendetako gaixo kopurua %1,3an murriztu da 2004tik 2005era, eta 15.906 pertsonatik 15.706 pertsonara igaro da; gainera, batez besteko berandutze-egunen kopuruak ere beherakadaxoa izan du (56,8tik 55,17ra). Ebakuntza egiteko 3 hilabetetik gora itxaron behar duen gaixo kopurua egonkor mantendu da (%18 inguru).

2002 eta 2005 bitartean, kirurgiako itxaronzerrendetako gaixo kopuruak %15,7ko hazkundera izan du, eta 13.576 pertsonatik 15.706 pertsonara igaro da; batez besteko berandutze-egunen kopurua egonkor mantendu da (55 egun inguru). Ebakuntzarako 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duen gaixo kopuruak 1,7 puntuko hazkundera izan du.

Kirurgia-prozeduraren arabera bereizketa eginez, 2002-2005 bitartean, itxaronzerrendetako gaixo kopurua hazkunderik handienak honako espezialitate hauetan

egon dira: begi-lausoak (%58,1), artrodesia/artioplastia (%36,5), karmo-tunela (%30,4) eta belaueneko protesia (%30,3). Berandutze hazkunderik handienak (egun kopuruan): artrodesis/artoplastia (64,6tik 71,9 egunera, %7,3ko hazkundera), adeno-amigdalektomiak (46,9tik 53,7 egunera, %6,8ko hazkundera), aldakako protesia (65,3tik 72 egunera, %6,7ko hazkundera) eta belaueneko protesia (66,5etik 71,5 egunera, %5eko hazkundera).

CISek (Ikerketa Soziologikoen Zentroa) egindako Osasun Barometroko datuen arabera, elkarriketaturiko EAEko hiritarren %10,9k uste du azken 12 hilabeteetan itxaronzerrenden arazoak txarrera egin duela, %49,9k lehengo moduan jarraitzen duela eta %18,9k egoera hobetu egin dela. Estatu mailako ehunekoak %11,3, %50 eta %23,6 dira.

Bestalde, iturri horren arabera, elkarriketaturiko EAEko hiritarren %41,1en ustez, osasun agintariak itxaronzerrendak hobetzeko jarduketak egiten ari dira; %30ek uste du ez dutela ezer egiten egoera hobetzeko, eta %30ek ez daki edo ez du erantzuten. Estatu mailako ehunekoak %46,1, %31,1 eta %22,5 dira.

Osasun Sistemarekiko poztasun maila

CISek 2005ean argitaraturiko Osasun Barometroak agerian jartzen duenez, EAEko hiritarrek balorazio positiboa egiten dute hemengo Osasun Sistemari buruz. Elkarriketaturiko hiritarren %80,9k uste du sistema, orokorrean, ona dela (agian aldaketak behar dituen arren), eta %18,3k uste du txarra dela edo funtsezko aldaketak behar dituela. Hain zuzen ere, %35,7k uste du sistemaren funtzionamendua nahiko ona dela, %45,2k uste du fun-

KIRURGIAKO ITXARONZERRENDEN BILAKAERA

	2002	2003	2004	2005
Gaixo kopurua	13.576	13.759	15.906	15.706
B. b. atzerap. (egunak)	55,2	53,8	56,8	55,17
Gaixo k. > 3 hilabete	2.257	2.121	2.914	2.878
Gaixoen % > 3 hilabete	16,6	15,4	18,32	18,25

Iturria: Osakidetza.

ITXONZERRENDEN BERANDUTZEAK, KIRURGIA PROZEDURAREN ARABERA

	Gaixo kopurua						Batez besteko berandutzea (egunak)					
	2002	2003	2004	2005	04-05 . ald. %	02-05 ald. %	2002	2003	2004	2005	04-05eko aldea	02-05eko aldea
Begi-lausoak	1.936	2.445	2.840	3.059	7,7	58,1	44,2	48,4	50,1	47,3	-2,8	3,1
Herniak	1.187	1.188	1.294	1.218	-5,8	2,6	58,2	51,8	57,9	55,1	-2,8	-3,1
Artroskopiak	888	773	864	934	8,1	5,2	59,9	57,4	56,8	58,1	1,3	-1,8
Barizeak	691	778	908	671	-26,1	-2,9	59,5	57,5	62,0	54,9	-7,1	-4,6
Aldakako protesiak	521	427	518	549	6,0	5,4	65,3	62,5	68,1	72,0	3,9	6,7
Hallux valgus	363	363	435	402	-7,6	10,7	58,5	59,5	57,6	61,0	3,4	2,5
Belauneko protesiak	534	535	613	696	13,5	30,3	66,5	63,2	66,0	71,5	5,5	5,0
Fist.-fisura/kiste pilonidala	347	317	359	315	-12,2	-9,2	60,5	51,1	52,7	59,4	6,7	-1,1
Adeno-amigdalektomiak	341	352	388	340	-12,4	-0,3	46,9	49,7	52,5	53,7	1,2	6,8
Kolezistek lanparoskopikoa	339	267	259	408	57,5	20,3	58,9	49,3	46,1	53,4	7,3	-5,5
Karpo-tunela	286	298	374	373	-0,3	30,4	63,2	61,5	61,5	52,2	-9,3	-11,0
Artrodesis/artropl.	290	324	398	396	-0,5	36,5	64,6	68,6	65,3	71,9	6,6	7,3
MEO	172	184	208	213	2,4	23,8	61,4	61,8	59,7	62,3	2,6	0,9
Histerotomiak	305	294	342	295	-13,7	-3,3	54,9	57,6	59,9	58,0	-1,9	3,1
Septorinoplastiak	234	238	228	256	12,3	9,4	57,3	53,2	52,1	61,4	9,4	4,2
GUZTIRA	8.434	8.783	10.028	10.125	0,9	20,0	56,2	54,6	56,7	59,5		

Iturria: Osakidetza.

tzionamendu ona duela (aldaketak behar dituen arren), %15,2k dio funtsezko aldaketak behar dituela, %3,1ek txarto dagoela eta %0,8k ez daki edo ez du erantzun. Estatuko ehunekoak honako hauek dira: %21,3, %47,8, %25, %4,7 eta %1,2. Asturiaseko eta Nafarroako egoera EAEkoa baino hobea da.

Hiritarrek Estatuak osasunera bideratzen dituen finantza baliabideei buruz (bildutako zergetatik ateratako baliabideak) egindako balorazioari dagokionez, EAEn el-karriketaturiko pertsona guztien %34,9k uste du bideraturiko zenbatekoa egokia dela, %44,7k zenbatekoa txikia dela eta %3,6k handiegia dela. Estatuko ehunekoak, bestalde, honako hauek dira: %34,1, %45,3 eta %2,8. Asturiasen eta Nafarroaren kasuan (EAErekin batera Osasun Sistemaren balorazioaren rankingean posizioak onenak dituzten autonomia erkidegoak), proportzioak honako hauek dira, hurrenez hurren: %65,2 egokia, %15,9 txikia eta %3,3 handiegia Asturiasen kasuan, eta %32,4 egokia, %37,7 txikia eta %0 handiegia, Nafarroaren kasuan. Azken kasu horretan, ez dakiten edo erantzun ez duten pertsonen proportzioa %30ekoa da, autonomia erkidego guztien arteko proportzioak handiena.

2.2.1.4. Osasun laguntza pribatua: medikuntza-farmazia laguntzako aseguru askeko erakundeak

Eustatek argitaraturiko azken zifren arabera, Aseguru Askeko Erakunde kopurua (AAE) egonkor mantendu da azken urteetan (15 erakunde).

Poliza kopuruak behera egin du etra 2003an kopuru hori 156.418 polizakoa da. AAEek aseguraturiko biztanle kopurua 305.356 pertsonakoa da, hau da, aurreko urtekoa baino %1,8 txikiagoa. Hortaz, EAEko biztanleriaren %15ek osasun aseguru pribatua dauka kontratatutik.

Lurralde historikoen arabera, urte honetan ere Bizkaian dago aseguratu kopururik handiena (biztanleria osoaren %19,6), gero Araban (%13,2) eta hirugarrenaz Gipuzkoan (%7,7).


Primen balioari dagokionez, aipagarria da 2003an bildutako primen guztizkoa 148 milioi eurotik gorakoa izan zela, eta hori EAEko urte horretako BPGren %0,3 da. Primen bolumenak %7,9ko hazkundea izan zuen aurreko urteari zegokionez, eta hazkunde hori Estatuan izandakoa (%10,2) baino txikiagoa izan zen.

**ESTATUAK ZERGEN BIDEZ OSASUNERA
BIDERATURIKO DIRUAREN BALORAZIOA, 2005**

	Gehiegi	Behar dena	Gutxi	ED/EE
GUZTIRA	2,8	34,1	45,3	17,8
Andaluzia	2,8	32,1	42,5	22,6
Aragoi	2,1	29,7	53,7	14,5
Asturias	3,3	65,2	15,9	15,6
Balearrak	3,9	27,6	55,7	12,7
Kanariak	4,5	28,5	50,5	16,5
Kantabria	1,7	20,9	49,2	28,3
Gaztela-Mantxa	3,3	34,3	33,7	28,6
Gaztela eta Leon	2,1	35,5	42,6	19,9
Katalunia	2,2	29,4	55,2	13,3
Valentziako Erk.	3,2	37,3	46,3	13,2
Extremadura	5,7	37,0	44,9	12,5
Galizia	2,4	35,4	44,3	17,9
Madril	3,5	33,5	49,8	13,1
Murtzia	1,5	28,5	43,8	26,2
Nafarroa	0	32,4	37,7	30,0
EAE	3,6	34,9	44,7	16,8
Errioxa	0,5	42,7	43,2	13,6

Iturria: Osasun Barometroa. CIS, 2005


Aseguru Askeko Erakunde kopuruak 6.445 medikuko medikuntza-laguntza eskaini zuen (2002an baino %1,5 gutxiago), eta horiek 1.145.101 kontsultatan eskaini zuten laguntza (aurreko urtean baino %1,7 gutxiago); horrenbestez, aseguratutako bakoitzeko bisita kopurua 3,8koa izan zen. Bestalde, kontsultarik gehien izan zuten espezialitateak traumatologia, pediatria, tokoginekologia eta oftalmologia izan ziren, hurrenkera horretan.

OSASUN SISTEMAREN BALORAZIOA, 2005


● Nahiko ondo ● Ondo, baina gauzak aldatu behar dira
● Txarto edo funtsezko aldaketak behar dira ● ED/EE

Iturria: Osasun Barometroa. CIS, 2005.

Ospitaleko laguntzak, aldiz, %7,5eko hazkundera izan zuten. Medikuntza-aseguruetatik iritsitako gaixoei 43.188 ospitaleratze eragin zituzten. Talde horren %70 kirurgia-

ASEGURATU KOPURUAREN ETA ASEGURATU BAKOITZEKO PRIMA KOPURUEN BILAKAERA, POLIZA MOTAREN ARABERA


Iturria: Eustat, Medikuntza-Farmazia Laguntz. Aseg. Ask. Erak. Est.

MEDIKUNTZA-FARMAZIA LAGUNTZAKO AEGURU ASKEKO ERAKUNDEEN BILAKAERA EAEn

	2001	2002	2003	2002-2003 aldaketa
Erakundeak	15	15	15	0,0
Igualatorioak	4	4	4	0,0
Aseguru konpainiak	8	8	8	0,0
BGAE eta mutuak	3	3	3	0,0
Zorroa				
Poliza kopurua	151.849	158.158	156.418	-1,1
Aseguratu kopurua	299.050	310.796	305.356	-1,8
Aseguraturiko biztanleriaren %	14,4	15,1	14,9	
Primen bolumena (euroak milat.)	129.520	137.086	147.946	7,9
Asegur. Bakoitz. prim. (euroak)	433	441	484	9,8
Biztanleko primak (euroak)	62	66	72	9,1
Primak / BPG (%)	0,3	0,3	0,3	
Langileria				
Guztira	7.842	8.019	7.902	-1,5
Osasuneko langileak	7.722	7.858	7.737	-1,5
Medikuak	6.423	6.542	6.445	-1,5
OLT/ EUD	462	471	451	-4,2
Laguntza jarduera				
Anbulat. kontsulta kopurua	1.128.243	1.164.635	1.145.101	-1,7
Ospitaleraturikoen kopurua	37.281	40.186	43.188	7,5
Kirurgiako ebakuntza	27.893	29.066	30.244	4,1
Jarduera ekonomikoa				
Gastuak guztira (euroak milatan)	134.515	138.311	147.950	7,0
Diru-sarrerak guztira (euroak)	136.601	144.806	156.578	8,1

Iturria: Eustat.

ko ebakuntza izan zuten, eta guztira 30.244 ebakuntza egin ziren (aurreko urtean baino %4,1 gehiago).

Biztanle bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, 2003an gastu hori 72 eurokoa izan zen, eta 2002koa baino %9,1 handiagoa izan zen.

Banakako edo familiako polizaren modalitatea, aseguratuturik gehien biltzen dituen (%51,9, 158.535 aseguratuturik), aseguratuturik gehienak galdu zituen izan zen (-%7,1), eta gero, gehien galdu zituen mutualitate publikoen modalitatekoa izan zen (-%6,5). Aldiz, taldeko aseguruak (enpresei eta beste talde jakin batzuei zuzendutakoak), aseguratuturik %29,7 biltzen dituztenek, %13,1eko hazkundea izan zuten, eta 1999an hasitako goranzko bilakaerari jarraitu zioten.

EAE osoan aseguratuturik bakoitzeko urteroko batez besteko prima 484 eurokoa izan zen, eta %9,8ko hazkundea egon da 2002ari dagokionez. Zifra hori Estatukoa (469 euro) baino handiagoa da. Poliza motaren arabera, baliorik handiena enpresei edo beste talde jakin batzuei zuzendutako aseguruarena da (489 euro); gero, mutualitate publikoena (488 euro), eta hirugarrenez, banakako edo familiako polizena (480 euro).

Aseguratuturik gehienek (%98,2) osasun laguntza orokorreko estaldura duten poliza aukeratu dute, eta %1,8k

baino ez du beste laguntza bereziagoren bat kontratatatu (esate baterako, dentistarako aseguruak).


2.2.2. Osasun sistemaren gastua eta finantziakzioa

EAEko aurrekontuaren likidazioari buruzko datuek agerian jarri dutenez, osasun Sailaren gastuaren partida 2.421 milioi eurokoa izan da 2005ean, aurreko urtean baino %8,8 gehiago (2.226 milioi euro, 2004ko likidazioaren arabera). Horrela, Osasun Saila oraindik ere lehenengo postuan dago baliabideen ehunekoan (%33,1), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren guttizkoari dagokionez (2004ko proportzio bera), eta bertan, programa nagusia Osakidetzarako transferentziei lotutakoa da.

2.2.2.1. Ospitaleko jarduera publikoaren eta pribatuaren gastua

EAEko ospitaleko osasun gastua (zentro publikoak eta pribatuak), Eustatek emandako datuen arabera, 1.402 milioi eurokoa izan zen 2004an, eta hori EAEko BPGren %2,6 da. 2003koari dagokionez, %6,4ko hazkundea egon da.

OSASUNEO GASTU PUBLIKOA, GASTU OSOAREN EHUNEKOTZAT (2003)



Iturria: OCDE

Gastuaren guztizkotik, 1.350 milioi gastu korrontek izan ziren eta 52 milioi inbertsioko gastuak, eta biztanle bakoitzeko gastua 666€-koa izan zen, aurreko urtean baino %3,9 gehiago.

BPGri dagokionez, gastuak murriztapentxoia izan du eta %2,7tik %2,6ra igaro da.

Titulartasuna aintzat hartuta, hau da, sare publikoa eta pribatua bereizita, ikusten da gastuaren %84,6 gastu publikoa dela; proportzio hori, OCDEren datuek diotenez, Suediakoaren (%85,2), Norvegiakoaren (%83,7) eta Islandiakoaren (%83,5) antzekoa da.

Gastu publikoak eta pribatuak gora egin dute 2003tik 2004ra. Lehenengoaren kasuan %6ko hazkundera egon da eta bigarrenaren kasuan %9ko hazkundera. Horrenbestez, EAEko 18 ospitale publikoetako gastua, 2004an, 1.186.188 mila eurokoa izan da.

2.2.2.2. Ospitaletik kanpoko jardura publikoaren gastua

2004an, EAEko osasun publikoak 354.638 mila euro bideratu zituen ospitaletik kanpoko osasun laguntzara, eta horrela, %5,8ko hazkundera egon zen aurreko urteari zegokionez.

GASTUAREN BILAKAERA EAEKO OSPITALE SEKTOREAN (EUROAK MILATAN)

	2001			2002			2003			2004		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
Gastu osoa (korrontea+inbertsioa)	1.166.123	982.050	184.073	1.227.250	1.042.179	185.071	1.318.117	1.119.170	198.947	1.402.897	1.186.188	216.710
Erosketa eta gastu korronte guzt.	1.103.069	936.138	166.931	1.178.018	1.000.969	177.048	1.257.624	1.073.054	184.570	1.350.474	1.151.173	199.302
Langileriako gastuak	719.546	638.352	81.194	763.431	677.493	85.939	807.164	720.432	86.732	850.760	757.265	93.495
Inbertsioak guztira	63.054	45.912	17.142	49.232	41.210	8.023	60.493	46.116	14.377	52.423	35.015	17.408
Salm. eta diru-sarrera kor. guzt.	1.076.482	909.734	166.748	1.130.550	953.385	177.165	1.200.097	1.014.446	185.651	1.300.697	1.098.905	201.792

Iturria: Eustat. Ospitaleen Estatistika.

GASTUAK EAEko OSPITALE SEKTOREAN IZANDAKO BILAKAERA

	2001	2002	2003	2004
JARDUERA EKONOMIKOA (euroak miletan)				
Gastu osoa (korrontea+inberts.)	1.166.123	1.227.250	1.318.117	1.402.897
Gastu korrontek	1.103.069	1.178.018	1.257.624	1.350.474
Langileriako gastuak	719.546	763.431	807.164	850.760
Beste gastu korronte batzuk	383.523	414.586	450.460	499.714
Inbertsioa	63.054	49.232	60.493	52.423
Diru-sarrera guztia	1.100.695	1.161.050	1.229.149	1.331.643
Diru-sarrera korrontek	1.076.482	1.130.550	1.200.097	1.300.697
Salmentak	1.067.809	1.122.503	1.191.669	1.290.505
Dirulaguntzak	8.673	8.045	8.428	10.192
Kapital diru-sarrerak	24.213	30.500	29.052	30.946
ADIERAZLE EKONOMIKOAK				
Gastua/biztanleko (euroak)	560	596	641	666
Gastua/BPG	2,7	2,7	2,8	2,6

Iturria: EUSTAT eta Osasun saila. Eusko Jaurlaritz. Ospitaleen Estatistika.

OSPITALETIK KANPOKO SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUA EAEan (€-AK MILETAN)

	2001	2002	2003	2004	03-04 ald. %
JARDUERA EKONOMIKOA					
Gast. guztira (€-ak milat.)	293.711	323.169	335.144	354.638	5,8
Gastu korrontek	286.924	307.114	327.817	344.817	5,2
Langileriako gastuak	245.379	262.432	279.323	291.752	4,4
B. gastu korronte batzuk	41.546	44.682	48.494	53.065	9,4
Kapital gastuak	6.786	16.055	7.327	9.821	34,0
ADIERAZLE EKONOMIKOAK					
Lang. gastuak / Gast. osoa	0,8	0,8	0,8	0,8	2,8
Gastua/biztanleko (euroak)	139	153	158	168	6,3
Gastua /BPG	0,7	0,7	0,7	0,7	—

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Ospitaletik kanpoko laguntza publikoaren inkesta.

Gastuen guztizkotik, 345 milioi euro gastu korrontek izan ziren eta 9,8 milioi euro inbertsioko gastuak; zenbateko horrek berriro ere gora egin du (%34ko gorakada), egindako esfortzu handiaren ondorioz; hain zuzen ere, hazkunde horren protagonista nagusiak osasun-etxeak eta istripuen mutuak izan dira.

Gastu korronteen %84,6 (292 milioi euro) langileriarako gastuak dira; horien artean, berriro ere aipagarria da ordeko langileriarako gastuak izandako %8,2ko hazkundea, 2003ari dagokionez.

Ospitaletik kanpoko laguntza jarduerak EAEko BPGren %0,7koa izan zen, eta biztanle bakoitzeko gastua 168€-koa izan zen, aurreko urtean baino %6,3 handiagoa.

Ospitaletik kanpoko gastu publikoaren finantziazio iturri nagusia Osasun Saila izan zen, eta horrek sektoreko gastu osoaren %90,2 finantzatu zuen; horren ostean la-

neko istripuen mutuak, %9arekin, eta beste batzuk %0,8arekin.

2.2.2.3. Osakidetzaren gastua ospitaleko eta ospitaletik kanpoko jardueran

Osakidetzaren aurrekontuaren likidazioak, EAEko Kontu Orokorretan oinarrituz landutakoak, agerian jartzen du Osakidetzak 2004an likidaturiko aurrekontu osotik %4,2 Inbertsioetarako izan dela eta %95,8 Ustiapen Gastuetarako; bertan, langileriarako gastuak nabarmentzen dira, erakunde horren gastu osoaren %66,3arekin. Aipagarria da aurrekontuan jasotako zenbatekoak benetan betearazitakoari dagokionez izan duen desbideratzea (117.011 mila euro), eta hori ustiapen gastuetarako (desbideratzea aurrekontuko zenbatekoa baino %3,6 handiagoa) eta inbertsioetarako (aurrekontuko baino %9 handiagoa) izan da.

2005erako aurrekontuaren datuek %3ko hazkundera adierazi dute, 2004ko gastuari dagokionez, eta hazkundera hori, berriz, ustiapen gastuek izandako %3,4ko hazkundera-

ren eraginezkoa da, inbertsioetarako aurrekontuak %6,6ko murriztapena izan baitu 2004ko likidazioari dagokionez. Aurrekontu planifikazio hori aurreko aldian ere ikusi da.

AURREKONTUAK ETA GASTUEN LIKIDAZIOA OSAKIDETZAN (EUROAK MILATAN)

	2002			2003			2004			2005eko aurrekon.
	Aurrekontua	Likidazioa	Aldea	Aurrekontua	Likidazioa	Aldea	Aurrekontua	Likidazioa	Aldea	
INBERTSIOA	58.940	61.597	-2.657	62.425	67.239	-4.814	63.109	69.143	-6.034	64.574
USTIAPEN GASTUA	1.321.776	1.323.806	-2.030	1.406.181	1.412.303	-6.119	1.507.048	1.561.549	-54.501	1.614.133
Langileria	968.138	968.502	-364	1.022.096	1.019.821	2.275	1.059.783	1.081.374	-21.591	1.123.237
Hornidurak	285.212	286.713	-1.500	310.360	316.609	-6.246	315.871	349.244	-33.373	335.705
Beste batzuk	68.426	68.591	-164	73.725	75.873	-2.148	131.394	130.931	463	155.191
GUZTIRA	1.380.716	1.385.403	-4.687	1.468.606	1.479.539	-10.933	1.513.681	1.630.692	-117.011	1.678.707

Iturria: Geuk landuta, EAEko 2005eko Aurrekontu Orokorren datuetan (aurrekontu finkatuak) eta Eusko Jaurlaritzako EAEko Kontu Orokorrean (2002, 2003 eta 2004) oinarrituz.

3

Hirigintza eta etxebizitza

336

EAEko higiezin merkatuak 2005ean izandako bilakaeraren ezaugarri nagusia etxebizitzaren eskaintzak %3,7ko hazkunde orokorra izatea da (2003-2004 aldian +%3,1), eta jokabide desberdinak egon dira etxebizitza berrian (+%3,1), erabilian (+%5,3), alokairuko etxebizitza askean (–%0,2), salmentako babeseko etxebizitzan (–%2,7) edo alokairuko babeseko etxebizitzan (ekitaldiko daturik deigarriena, %43,4ko hazkundea egon baita). Horri dagokionez, etxebizitza eskariak edo beharrianak¹ hazkunde handiagoa izan du (+%19,7), aurreko urtean murriztapen handiagoa izan arren (–%22,8).

Etxebizitza lortzeko eratu den hipoteka kopuruak %11ko hazkundea izan du, eta horien batez besteko zenbatekoak, berriz, %10eko hazkundea izan du. 2005ean 41.000 hipoteka eratu dira, guztira 5.835 milioi euro. Batez besteko zenbatekoek hazkunde handia izan dute hiru lurraldeetan, eta Erkidegoan batez bestekoa 141.229 eurokoa da, Estatuko batez bestekoa baino %13 handiagoa. Interes-tasek, bestalde, badirudi gelditu egin dutela beheranzko joera, behintzat MIBOR eta EURIBOR deritzenei dagokienez.

3.1. Lurzorua eta eraikuntza kostuak


3.1.1. Lurzorua EAEn

Etxebizitzak egoitza merkatura iristeko prozesua lurzorua lortzea da; gero, hirigintza, sustapena eta erai-

kuntza datoz, eta azkenik, etxebizitzaren salmenta edo lortzea. Oro har, prozesu horren azken aldiari buruzko informazioa daukagu, eskaintako etxebizitza kopurua ezagutzen ditugu, horien ezaugarri batzuk eta salmentako prezioak, baina lehenagoko faseei buruzko informazioa oso urria da eta, iturrien arabera, kontraesankorra ere bai zenbait kasutan.

Etxebizitza Ministerioaren Prezioen Estatistikako datuak aintzat hartuta, EAEn 2005eko azken hiruhilekoan egindako hiri lurzoruen transakzioek 362,3 €/m²-ko batez besteko prezioa izan zuten, eta aurreko urteko batez bestekoa baino %5,4 handiagoa izan zen. Estatuko transakzioen batez bestekoa 267,3 €/m² izan zen, eta %8,1eko hazkundea egon zen, 2004ko azken hiruhilekoan erregistraturiko transakzioek lorturiko batez besteko prezioari zegokionez.

Termino absolutuetan, Madrilera Erkidegoak izan zuen preziorik altuena (585 €/m²), eta gero, Valentziako Erkidegoak (374,1 €/m²); EAE hirugarren postuan gelditu zen (362,3 €/m²). Ministerioaren Prezioen Estatistika, 2005eko azken hiruhilekoan, lurzorua bilakaera oso desberdina izan zuen autonomia erkidegoetan. Horrela, Kantabriar edo Valentziar 2005ean hazkunde handiak egon ziren, eta %30aren inguruko urteroko tasak egon ziren; beste eskualde batzuetan, adibidez, Asturiasen, Galizian eta Errioxan, beherakadak egon ziren hiri lurzorua batez besteko prezioan, eta aipagarria izan zen Andaluzian izandako –%12,3ko murriztapena.


 ETXEBIZITZAREN MERKATUAREN BILAKAERA EAEn¹


(*) hipoteka kopuruak 2002 eta 2003 bitartean izandako hazkundera kontuz erabili behar da, eragiketa estatistikoan aldaketa metodologikoa baitago.

Iturria: Geuk landuta, Eusko Jaurlaritzaren eta EInen datuetan oinarrituz.

EAEko bilakaerari dagokionez, Lurralde Historikoen arabera, hazkunderik handiena Gipuzkoan egon zen (+%6,7); Araban lurzoruaren batez besteko prezioak

%4,9ko hazkundera izan zuen, eta Bizkaian murritzapen-txoa egon zen (-%2,1), 2005eko laugarren hiruilekoan izandako transakzioen batez bestekoan, aurreko urteko

¹ Grafikoan adierazitako eskarian, aldatzeko eta lortzeko behar den etxebizitza kopurua dago jasota (handik urtebetera); eskaintza higiezin eragileek eta sustatzaileek adierazten dute; prezioak euroak salmentan dagoen etxebizitzako (berria eta erabilia) m²-ko dira.

**HIRI LURZORUKO m² BAKOITZEKO PREZIOA
AUTONOMIA ERKIDEGOETAN**

	2004ko 4. hiruhilekoa	2005eko 4. hiruhilekoa	Urteko aldaketaren **
Madril	517,5	585,0	13,0
Valentzia	289,2	374,1	29,4
EAE	343,6	362,3	5,4
Kanariak	285,8	315,9	10,5
Katalunia	257,8	290,3	12,6
Murtzia	273,5	284,3	3,9
Balearrak	255,0	278,7	9,3
Errioxa	280,1	271,1	-3,2
Asturias	265,7	233,0	-12,3
Andaluzia	193,4	229,0	18,4
Galizia	237,2	228,4	-3,7
Aragoi	208,5	223,0	6,9
Nafarroa	152,3	169,6	11,4
Kantabria	124,5	163,8	31,5
Extremadura	137,6	146,7	6,6
Gaztela-Mantxa	118,7	146,6	23,5
Gaztela eta Leon	121,7	132,9	9,2
ESTATUA GUZTIRA	247,3	267,3	8,1

* Metro koadroko batez besteko prezioak

** (2004ko 4. hiruhilekoa/2005eko 4. hiruhilekoa)

Iturria: "Lurzoruaren Prezioen Estatistikak" Etxebizitza Ministerioa. 2005.


batez besteko prezioari zegokionez. Hala eta guztiz ere, termino absolutuetan, Araban egon zen batez bestekorik handiena (441 €/m²).

Bestalde, hirigintza jarduera hori beharrezkoa da, eskaria aintzat hartuta, eta ingurumen gaineko eragin han-

dia lortzen du, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren iraunkortasun ikerketek agerian jarri dutenez. Ingurumen Adierazleen sistemaren barruan, "Lurzoruaren Artifizializazioaren Intentsitatea" izeneko adierazlean jasotakoaren arabera, 1994 eta 2005 bitartean, EAEn artifizializaturiko azalera osoa guztizkoaren %5,26 izatetik %6,5 izatera igaro da, hain zuzen ere, biztanleko 223 m². Aldi horretan, azalera horrek %25eko hazkundera izan du (9.440 ha.). Azken urtean, EAEn azalera artifizializatuak hazkunde handiak izan ditu. Kalifikaturiko egoitza azalerak 205 ha.ko hazkundera izan du (+%1,1), eta jarduera ekonomikoekin okupaturiko azalerak 247 ha.ko hazkundera izan du (+%3). Bestalde, garraioko azpiegiturarako azalerak, 2003an (datudun azken urtea), 253 ha.ko hazkundera izan zuen, 2002koari zegokionez (+%1,3). Egoitza azaleran izandako hazkundera moderatu eta egonkortu egin da, aurreko urterik urterako aldi berari dagokionez, eta jarduera ekonomikoetarako azalerak, berriz, hazkunde handia izan du.

Egoitzako azalerari dagokionez, eraikuntza dentsitatearen datuek (hiriko hektarea bakoitzeko etxebizitza kopurua) aukera ematen dute Arabaren nahiz Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko bereizketa argia egiteko; lehenengo kasuan, dentsitatea 30 etxebizitza/ha. zen, eta bigarrenaren kasuan, ostera, 70 etxebizitza/ha. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren "Ingurumen Adierazleak 2005" txos-

LURZORU ARTIFIZIALIZATUAREN AZALERA EAEN (HEKTAREAK)



(*) Ez dago 2004ko eta 2005eko garraio azpiegiturei buruzko daturik (marradun eremuak).

Guztizkoak kalkulatzeko, 2003ko datuak erabili dira.

Iturria: Eusko Jaurlaritza "Ingurumen Adierazleak (2005)".

tenak adierazi duenez, Bizkaiko eta Gipuzkoako dentsitate altuak, izan ere, eraikuntza erabilerarako lurzoru azalera urriaren eraginezkoak dira (orografikoki lurzoru egoki gutxi), eta, horren ondorioz, garapen berriak dentsitate ertainekin edo altuekin planteatu dira (kostaldeko udalerrietan nolabaiteko eragina duten dentsitate baxukoan kasuan izan ezik).

3.1.2. Eraikuntza kostuen estatistika

"Eraikuntza Kostuen Indizea"² abaguneko adierazlea da; kostuen bilakaera neurtzen du, Eraikuntza sektoreko lehengaien edo bitarteko kontsumoen kostuaren indize baten bidez (Lehengaien eta Materialen Kostuaren, Energiaren Kostuaren eta Zenbait Gasturen Kostuaren arteko batuketa, ibilbide hori sektoreko lehengai nagusien prezioen bidez kalkulaturik), eta Langileriarako Kostuak ere aintzat hartzen ditu (Soldata nahiz Ordainketa Gordinen eta Gizarte Kotizazioen arteko batuketa, sektoreko Hi-

tzarmen Kolektiboen bidez kalkulaturik). Jakina, adierazle horren bidez ezin daitezke neurtu produkzioaren azken prezioan eragina duten kostu guztiak, kapitalari eta enpresa hobariari loturiko faktoreak falta baitira.

2004-2005 aldian, eraikuntza kostuek %3,5eko hazkundea izan dute, eskulanaren kostuak %4,6ko hazkundea eta lehengaien kostuek %3,1eko hazkundea. 2004an ez bezala, Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek bilakaera nahiko antzekoa izan dute bertako lehengaien kostuan. Eraikuntzakoek %3ko hazkundea eta Obra Zibilekoek %3,3koa. Aurreko urtean, aldiz, bi azpisektore horien arteko aldea 1,1 puntukoa izan zen.

2005ean inflazio tasarik altuenak izan dituzten lehengaien prezioen artean, aipagarriak dira asfaltozko produktuak (%35,4), petrolioaren eratorriak (%31), landutako harria (%6,2) eta eskuzko erremintak (6,2). Bestalde, honako lehengai hauek murriztapenak izan dituzte urteroko prezioetan (2005eko abendua, 2004ko abenduari dagokionez): metalezko hodieria (-%5,9), metalezko egiturak nahiz galdaragintza (-%0,8), bulegoko materiala (-%0,7) eta karea, igeltsua eta eskaiola (-%0,2).

Bestalde, Eustaten "Industria eta Eraikuntza Estatistika" deritzoneko azken datu erabilgarriek agerian jarri dutenez (2004ari buruzko datuak), urte horretan eraikun-

ERAIKUNTZA SEKTOREAREN MAGNITUDE NAGUSIAK EAEN

	2003	2004	Δ %
Langileria landuna	86.353	90.774	5,1
Faktoreen kostuaren Balio Erantsi Gordina	3.761.313	4.147.094	10,3
Ustiapenaren Soberakin Gordina	1.288.112	1.454.840	12,9
Egindako inbertsioak	319.864	382.707	19,6
Amortizazioak	199.841	213.796	7,0
Negozioen zifra	12.346.369	13.135.946	6,4
Beste diru-sarrera batzuk	502.186	1.571.267	212,9
Ustiapenaren kontsumoak	7.483.489	8.661.763	15,7
Kanpoko zerbitzuak	1.315.450	1.436.695	9,2
Langileriaaren kostuak	2.473.201	2.692.245	8,9
Beste gastu batzuk	307.667	365.738	18,9
Zergen aurreko emaitzak	930.985	1.094.497	17,6
Cash-Flow	1.130.826	1.308.293	15,7

EGOITZA LURZORUAREN DENTSITATEA (ETXEBIZITZAK / HEKTAREAKO)

	2004	2005
Araba	29,08	29,34
Bizkaia	69,99	68,32
Gipuzkoa	68,05	68,52

Iturria: Eusko Jaurlaritza "Ingurumen Adierazleak 2005".


EAEko ERAIKUNTZA SEKTOREKO KOSTUEN INDIZEA. URTERIK URTERAKO HAZKUNDEA (%)

	Kostuak guztira		Lehengaiak		Eskulana*
	Guzt.*	Eraikuntza	Guzt.*	Eraikuntza	
2000	3,5	3,3	3,8	3,5	3,0
2001	3,4	3,7	2,2	2,5	5,5
2002	2,2	2,2	1,0	1,0	4,0
2003	1,4	2,3	0,1	-0,1	5,8
2004	7,2	7,3	8,7	8,9	3,8
2005	3,5	3,5	3,1	3,0	4,6

(*) Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren urterik urterako aldaketaren %.
Iturria: Eustat "Eraikuntzako Kostuen Indizea".

² Indizea honetan eraikuntzako obren bi mota bereizten dira; alde batetik Eraikuntza (eraikuntza iraunkor guztiak, bananduak eta independentak, familiako edo taldeko etxebizitzatza erabiltzen dena, baita nekazaritza, industria, zerbitzu edo, orokorretan, edozein jarduerara —adibidez, eskolak, etab.— garatzeko erabiltzen dena), eta bestetik, Obra Zibila (eraikuntzak diren azpiegitura guztiak, taldeko erabilera edo publikoa dutenak).

ERAIKUNTZA KOSTUEN URTERIK URTERAKO ALDAKETAREN TASA EAEn (%)



Iturria: Eustat. ICCE.

tza sektoreak %10,3ko hazkunde izenduna izan du, eta balio erantsiaren hazkunde tasa handiak izan ditu. 2002an %10,3ko hazkunde izan du, 2003an %16,7ko hazkunde eta 2004an %10,3ko hazkunde. Sektoreko langile kopuruak %5,1eko hazkunde izan du (2003an %6,5), eta Ustiapenaren Soberakin Gordinak %12,9ko hazkunde izan du. Halaber, zergen aurreko emaitzetan %17,6ko hazkunde izan du, eta 1.095 milioi euro izan dira; horrela, cash-flow deritzonak %15,7ko hazkunde izan du 2003ari dagokionez.

3.2. EAEko etxebizitza parkea

3.2.1. Konparazioa Europarekin

2005ean, EAEko gazteriak etxebizitza lortzeari buruzko ikerketa baten zatitza³, Eusko Jaurlaritzak Erkidegoko eta EBko sei herriko (Alemania, Frantzia, Holanda, Erresuma Batua, Suedia eta Espainia) etxebizitza parkearen ezaugarriak konparatu ditu. Aintzat harturiko zazpi lurraldeen artean, 1.000 biztanleko etxebizitza stockik altuena Espainiak dauka (520), eta gero Frantziak (490) eta Suediak (484). EAE (427), erresuma Batua (417) eta Holanda (415) beste posizio batean daude. Bi muturren artean, Alemania bitarteko posizioan dago (1.000 biztanleko 451 etxebizitza).

Etxebizitza erabilgarriak familiekin lotuta ikusten denez, Espainian, EAEn eta Erresuma Batuan aldeak positiboak dira (etxebizitza kopuru handiagoa, familia kopurua baino, eta horrela, teorian etxebizitzaren stocka nahikoa da familia guztiak hartzeko, bakoitzak etxebizitza bakarra behar duela kontuan hartuta). Hain zuzen ere, EAEn, 2001eko Zentsuko datuen arabera, %20ko superabita dago. Beste muturrean, Suediak, Holandak eta Alemaniak ratio negatiboa dute, baina ez dute ezein kasutan ere -%5 gainditzen.

Etxebizitza parkearen antzinasunari dagokionez, antzinakoenak Erresuma Batuan daude (%41 1946 baino lehenago eraiki ziren), baita Frantzian eta Suedian ere (%33 data hori baino lehenagokoak); gero, Alemaniakoak datoz (29). Etxebizitza parkerik modernoena Espainian (%16,5 soilik eraiki ziren 1946 baino lehen), Holandan (%20,7) eta EAEn (%21,5) daude. EAEn kasuan, parkeko zatirik garrantzitsuen 1946 eta 1980 bitartean eraikitako etxebizitzek osatzen dute (%60,1), eta gainerako zatia, berriz, 1980ren ostean eraikitakoa da (%18,4).


Lehen esan dugunez, etxebizitza superabita dago, EAEko familia kopuruari dagokionez (%20), eta, batez ere, Espainian (%47,6), Europako testuinguruan, Espainiako estatuaren kasuan esan daiteke bigarren etxebi-

³ EUSKO JAURLARITZA. "Etxebizitza lorpena gazteen artean. Euskadi Europar Batasunaren testuinguruan". Gasteiz, 2005.

**1.000 BIZTANLEKO ETXEBIZITZA ERABILGARRIEN STOCKA ETA ETXEBIZITZA ERABILGARRIEN
ETA FAMILIEN ARTEKO KENDURA. 2002**

	Etxebizitzak (milak)	Etxebizitzak / 1.000 biztanleko	Familiak (milak)	Etxebiz. erabilgar./ famiien %
Alemania	37.041	451	38.456	-2,8
Frantzia	29.000	490	23.055	25,8
Holanda	6.649	415	6.903	-3,7
Erresuma B.	25.382	417	24.442	3,9
Suedia	4.307	484	4.363	-1,3
Espainia	20.947	520	14.187	47,6
EAE 2001	890	427	741	20,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Housing Statistics in EU 2002 deritzonean eta EINen oinarrituz.

**BIGARREN MAILAKOAK DIREN ETA HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEN EHUNEKOAK, GUZTIZKOARI DAGOKIONEZ.
ERABILERA URRIAREN INDIZEA. 2002.**


Iturria: Eusko Jaurlaritza, Housing Statistics in EU 2002 deritzonean eta EINen oinarrituz.


tzen eta etxebizitza hutsen proportzioak altuenak daude, eta EAEn, berriz, etxebizitzaren desokupazioa dago, grafikoan ikusten denez. Bigarren etxebizitzari dagokionez, Espainiaren atzetik (%16,1) Suedia (%13,9), Alemania (%12,2) eta Frantzia (%10,1) daude, ehunekorik altuenak baitituzte, eta baxuenak, berriz, EAEk (%5,4), Erresuma Batuk (%1,1) eta Holandak (%0,2) dituzte, bertan halako etxebizitzak garrantzi nahiko txikiagoa baitauka. Hutsik dauden etxebizitzaren kasuan, Espainiak %14,8ko tasa dauka eta EAEk %10,6koa. Bi lurralde horien okupaziorik ezari buruzko indizeek, berriz, ez dute konparaziorik iker-
turiko gainerako eremuetaekin⁴.

Bigarren etxebizitzaren eta etxebizitza hutsen ehunekoa batuta, etxebizitza stockaren erabilera urriaren indizea kalkulatu daiteke. Lehenengo postuan Espainia dago (%30,9, ia hiru etxebizitzatik bat). Bitarteko erabilera urriko tasa Alemaniak (%19,7), Frantziak (%17), Suediak (%16,5) eta EAEk (%16) dute; beste alde batetik, Erresuma Batuko eta Holandako etxebizitza parkeak beste muturrean daude, baliotxikiagoekin (hurrenez hurren %4,7 eta %2,4).

Azalera erabilgarriaren batez bestekoari dagokionez, Holandako (98 m²) eta Espainiako (93,3 m²) etxebizitzak dira handienak; Erresuma Batuko eta EAEkoek batez bes-

⁴ 3.2.2. atalean zehatzago aztertzen da fenomeno hau, Hutsik dauden Etxebizitzaren Inkestaren emaitzetan oinarrituz (Eusko Jaurlaritza, 2005).

ETXEBIZITZA NAGUSIEN EDUKITZE-ARAUDEA (%). 2002.



teko azalera erabilgarri txikiagoa dute (85 m²). Bi muturren artean Alemania (86,5 m²), Frantzia (88 m²) eta Suedia (89,9 m²).

Azkenik, edukitze-araubidearen ikerketak agerian jarri duenez, konparazio mailan, EAEk eta Espainiak ezagun oso adierazgarria dute (lehendik ezaguna) aztertutako gainerako lurraldeei dagokienez: jabetza araubidearen gehiegizko hegemonia (hurrenez hurren %89 eta %82,1), eta alokairuaren hondarreko presentzia (%7,3 eta %11,4); hain zuzen ere, egoitza stockeko okupazioan "jabetza" maila handiena duena EAE da. Aldiz, beste bost lurraldeetan, jabeek okupaturiko etxebizitzaren ehunekoa askoz ere txikiagoa da, eta alokairuak etxebizitza nagusi %30 gainditzen du. Alokairuko etxebizitza gehien duen herria Alemania da (%62), gero Holanda (%47) eta Frantzia nahiz Suedia datoz (biak %38). Erresuma Batuk %33,1eko tasa dauka. Azken batean, bost estatu horietan edukitze-araubidearen egitura oso anitza da, eta nolabaiteko oreka dago jabetzaren eta alokairuaren artean; EAEn eta Espainian, berriz, uniformitatea eta espezializazio ia erabatekoa dago jabetza araubidearen alde, eta alokairua baztertuta gelditzen da.

3.2.2. Etxebizitza Hutsen Estatistika (2005)

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Etxebizitza Hutsaren Bi Urtez Behingo Estatistika egiten du 1997tik, zentsuko 325 hiri ataleko laginean oinarrituz; horren emaitzak Biztanleriaren Zentsuarenak baino askoz ere neurritsuagoak dira. Hain zuzen ere, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2001eko Zentsuak emandako datuen arabera, urte horretan Erkidegoan familiako 41.219 bigarren etxebizitza eta okupatu gabeko 83.604 etxebizitza zeuden. Datu horiek %4,7ko eta %9,5eko tasak adierazten dituzte, familiako etxebizitza parkeari dagokionez. Guztira %14,2 dira, Etxebizitza Hutsen 2005eko Inkestatik ondorioztatzen den tasaren bikoitza.

2005eko eragiketak dioenez, EAEn 54.445 etxebizitza daude hutsik (%7), eta beraz, esan daiteke horiek bigarren etxebizitzatzat erabiltzen ari direla (edo aldi baterako etxebizitzatzat). Hain zuzen ere, horren herena baino apur bat gehiago (20.198 etxebizitza) bigarren egoitzatzat edo sasoiakoko egoitzatzat sailkatuta dago, eta gainerakoa (34.247 etxebizitza), berriz, okupatu gabeko etxebizitzatzat. Informazio hori EAEko etxebizitza parke osoarekin konparatuta ondorioztatzen denez, %2,5 sasoiakoko etxebizitzak edo bigarren egoitzak dira, eta %4,3 okupatu gabeko etxebizitzak.

Lurraldeen arabera, etxebizitza hutsaren bolumen handiagoa Gipuzkoan dago, bai datu absolutuaren (24.829 etxebizitza) eta bai datu erlatiboaren (%10) ikuspegitik begiratuta. Araban tasa %7koa da eta Bizkaian %5koa. Gutxi gorabehera, Gipuzkoan hutsik dauden etxebizitza horien 8.200 bigarren egoitzak dira, eta horrek hutsik dauden etxebizitzaren stockaren herena egiten du (etxebizitza guztien %3 baino apur bat gehiago).

Bigarren egoitzako etxebizitzek hutsik dauden guztien multzoari dagokionez duten garrantzi erlatiboa %33koa da Bizkaian (7.100 etxebizitza inguru, eta guztizkoaren %1,5). Bigarren etxebizitzaren fenomenoak Araban nabarmentzen da gehien; izan ere, hutsik dauden etxebizitzaren %61 (4.850 etxebizitza) tipologia horren barruan sartzen dira. Hain zuzen ere, Arabako etxebizitza guztien %4 dira.

Eremu funtzionalen arabera, hutsik dauden etxebizitzaren %58 (31.600 etxebizitza) hiru Lurralde Historikoetako administrazio hiriburuak dituzten eremuetan biltzen dira: Bilbo Handia (%25), Donostialdea (%23) eta Vitoria-Gasteiz (%10 baino apur bat gutxiago). Aintzat hartu behar da hiru eremu funtzional horietan EAEko etxebizitza guztien %77 biltzen dela (hurrenez hurren, %44, %20 eta %13).


EAEko ETXEBIZITZA PARKEAREN SAILKAPENA, OKUPAZIOA AINTZAT HARTUTA. 2005.

	Álava	Gipuzkoa	Bizkaia	CAPV
Guztira	121.440	252.438	424.072	797.950
Okupatuta	113.434	227.611	402.460	743.505
Hutsik	8.006	24.827	21.612	54.445
Sasoika	4.852	8.241	7.105	20.198
Hutsik	3.154	16.586	14.507	34.247


Iturria: Eusko Jaurlaritza "EAEn Hutsik dagoen Etxebizitzaren Estatistika. 2005".

Hutsik dauden etxebizitzaren stockak Erkidegoan izan dako bilakaerari dagokionez, hutsik dagoen etxebizitzaren garrantzi erlatiboak behera egin du apurka-apurka: 2001etik 2003ra beherakada gogorragoa, eta 2003tik 2005era motelagoa. Termino absolutuetan, 2001eko 72.733 etxebizitzetatik 2003ko 58.344etara (−%25,3) eta 2005eko 54.445etara (−%6,7) igaro da. Lurraldeen arabera, Arabak Gipuzkoari utzi dio hegemonia, hutsik dagoen etxebizitzaren garrantziari dagokionez; eremu funtzionalen arabera, joera egonkor mantendu da aztertutako hiru urteetan. Hain zuzen ere, hutsik dagoen etxebizitzaren garrantzi erlatiboan nagusiak honako hauek dira: Bilbo-Mungia, Biasteri, Zarautz-Azpeitia, Bilbo-Arratia eta Gernika-Markina.

EAEko etxebizitza hutsaren ezaugarriei dagokienez, inkeretak adierazitakoaren arabera, %97 norbanakoen ja-

HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 2001-2005


Iturria: Eusko Jaurlaritza "Hutsik dauden Etxebizitzaren Estatistika. 2005".

HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEN EHUNEKO BANAKETA, EREMU FUNTZIONALAREN ARABERA. 2005


● %28-%29 (2) ● %18 (1) ● %12-%14 (4) ● %7-%10 (4) ● %4-%6 (4)

betzakoak dira. Halaber, etxebizitzaren jabetzaren helburuari buruzko inkestaren datuek diotenez, hutsik dauden artean bigarren egoitzak garrantzi handia dauka (%43), eta fenomeno hori Araban nabaritzen da gehien (%59,6). Besteak beste, Gipuzkoan aipagarria da "seme-alabentzako erreserba", %24ko tasarekin. Beste emaitza aipagarri bat, izan ere, hutsik dauden etxebizitza ia guztiak (%94) noiz-bait erabiliak izatea da (%62 oraintsu erabili dira).

Ondorioztat, aipagarria da merkatuan (alokairuan edo salmentan) eskaintako etxebizitza bolumena %8ra ez iristea (4.200 etxebizitza). Salmentako eskaintzak %5eko tasa dauka, 2003koaren antzekoa, eta etxebizitza hutsaren parkearen ia %2 baino ez da eskaintzen alokairuan. Erabili gabeko etxebizitzak merkatuan jartzearen aldeko jarrera urriaren eragileak honako hauek dira: hutsik dagoen etxebizitzan ikusitako denborazkotasuna (bigarren egoitzatzat erabiltzea), norberaren edo familiaren erabilerarako erreserba eta alokatzeko orduan dauden beldurrak.

3.3. Etxebizitza eskaintza EAE

3.3.1. Salmentan dauden etxebizitzaren eskaintza

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren "Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta"⁵ deritzonaren datuek agerian jarri dutenez, azken urtean etxebizitzaren eskaintza osoak (salmenta gehi alokairua) %3,7ko hazkundera izan du 2005ean, eta

⁵ Etxebizitza sustatzaileei eta etxebizitza eskaintza duten higiezinaren jabetzako eragileei (bost etxebizitza baino gehiagoko sustapenak eta 125 eragile inguru) egindako inkesta; beraz, ez da eskaintza guztia jasotzen.

15.500 unitate baino gehiago dira. 2001etik 2003ra bitartean behera egin ondoren, eskaintzak gora egin du 2003-2005 bitarteko aldian, eta hazkunde osoa 1.500 etxebizitza ingurukoa izan da.


Eskaintza motaren arabera, jabetzan eskaintako etxebizitzek (14.281 unitate, eskaintza osoaren %92) 340 unitateko hazkundea izan dute (+%2,4), eta alokairuko eskaintzak (3.3.3. epigrafean zehatzago aztertuta), hementxo higiezinaren merkatuan oraindik duen bazterreko eginkizunaren barruan bada ere, %21,3ko hazkunde handia izan du, hau da, 216 unitateko hazkundea, eta guztira 1.228 etxebizitza dira.

Jabetzan eskaintako etxebizitzaren barruan, aipagarria da segmentu askearen eta babesuaren arteko bilakaera desberdina. Lehenengo eta behin, jabetzako babeseko etxebizitzaren eskaintzak 2004-2005ean izandako bilakaera negatiboa izan da eta %2,7ko murriztapena izan du (3.825 etxebizitza). Horrenbestez, segmentuak, ehunekotan, garrantzia galdu du jabetzako eskaintzaren barruan, eta 2004ko %28,2tik azken urteko %23ra igaro da. Aldiz, jabetzako etxebizitza askearen eskaintzak gora egin du 2005ean (10.456 etxebizitza, aurreko urtean baino %4,5 gehiago). Jabetzan eskaintako 10.456 etxebizitza horietatik %61,5 erabilitako etxebizitzak dira, 6.436 unitate (+336), eta gainerako %38,5 etxebizitza berriak dira (4.020 unitate). Bi etxebizitza mota horien eskaintzek gora egin dute azken urtean, baina intentsitate desberdinarekin: erabilitako etxebizitzaren kasuan hazkundea %5,3koa izan da eta etxebizitzaren hazkundearen tasa txikiagoa izan da (%3,1).

Gainera, salmentako etxebizitzaren eskaintzaren bilakaera desberdina izan da lurralde historikoen arabera. Lehenengo eta behin, Arabako eskaintza 3.762 etxebizitzakoa da (2004an baino %7,4 gehiago), eta segmentu

berriaren eta erabilitakoaren arteko bilakaera desberdina egon da: etxebizitza berriaren eskaintzak %0,2ko murriztapena izan du (2.099 etxebizitza, guztizkoaren %55,8) eta erabilitakoaren eskaintzak %18,9ko hazkundea izan du. Bizkaian, aldiz, eskaintza murriztu egin da erabilitako etxebizitzan eta etxebizitza berrian: guztira 7.797 etxebizitza dira, 2004an baino %0,2 gutxiago, eta, segmentu

HUTSIK DAGOEN ETXEBIZITZAREN JABETZAREN HELBURUAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 2005



Iturria: Eusko Jaurlaritza "Hutsik dauden Etxebizitzaren Estatistika. 2005".

ETXEBIZITZA ESKAINTZAK EAEn IZANDAKO BILAKAERAREN

	Etxebizitza askea			Babeseko etxebizitza				
	Salmenta		Alokairua	Salmenta			Alokairua	Guzt.
	Erab.	Berr.		BOE	Soziala	Guzt.		
2000	5.836	3.136	662	1.456	1.021	2.477	353	2.830
2001	8.532	2.819	409	2.166	793	2.959	421	3.380
2002	7.880	2.672	428	2.192	655	2.847	552	3.399
2003	6.301	3.188	533	2.914	626	3.540	469	4.009
2004	6.110	3.900	512	3.584	347	3.931	500	4.431
2005	6.436	4.020	511	3.700	125	3.825	717	4.542
2005 I hir.	6.302	3.855	507	3.432	231	3.663	496	4.159
II hir.	6.447	3.964	498	3.689	122	3.811	568	4.379
III hir.	6.469	4.103	516	3.830	77	3.907	787	4.694
IV hir.	6.524	4.159	521	3.849	70	3.919	1.015	4.934


Oharra: Urteko datuek hiruhileko bakoitzeko eskaintzen batez bestekoa adierazten dute.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokar eskaintzari buruzko inkesta (2005eko 4. hiruhilekoa).


SALMENTAKO ETXEBIZITZEN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Erabiliak	Berriak	Erabiliak	Berriak	Erabiliak	Berriak
2000	1.903	1.094	2.852	3.042	1.081	1.478
2001	2.575	832	4.574	3.187	1.382	1.761
2002	1.983	988	4.587	3.252	1.310	1.279
2003	1.282	1.350	4.523	3.741	969	1.638
2004	1.399	2.103	3.932	3.884	779	1.845
2005	1.663	2.099	3.929	3.868	833	1.879

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila "Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta".


SALMENTAKO EDO ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA ASKEAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA EAEN


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta.

BABESEKO ETXEBIZITZEN AZALERAREN HIRUHILEKO BILAKAERA


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta. 2005eko 4. hiruhilekoa.

SALMENTARAKO ETA ALOKAIURAKO ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKAINTZAK IZANDAKO BILAKAERA EAEn



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta.

etxebizitza berriaren segmentuak %0,4ko murriztapena izan du eta erabilitako etxebizitzaren segmentuak %0,1eko murriztapena. Gipuzkoan, azkenik, erabilitako etxebizitzaren eta etxebizitza berriaren eskaintzak gora egin du. Guztira, eskaintza 2.712 etxebizitzakoa da (+%3,4). Erabilitako etxebizitzaren segmentuak (833 unitate) %6,9ko hazkundea izan du, eta etxebizitza berriare-nak (1.978) %1,8ko hazkundea.

Salmentako babeseko etxebizitzaren eskaintzak izan-dako bilakaeraren aldetik, 2005eko datuek adierazitako-a-ren arabera, joera aldaketa egon daiteke iragan hurbilari dagokionez: eskaintza osoak (3.825 etxebizitza) %2,7ko murriztapena izan du aurreko urteari dagokionez, eta 2003-2004 aldian hazkunde tasa handiak egon ziren, hu-rrenez hurren, %24,3 eta %11. Beste alde batetik, babe-seko etxebizitzaren barruan, aipagarria da etxebizitza so-

zialaren eskaintza ia guztiz desagertu dela: 2005ean ha-lako 125 etxebizitza baino ez ziren eskaini (-%64, 2004ari dagokionez), eta horrek babeseko segmentuaren %3,3 adierazten du. Garrantzia galtzen ari da etengabe (2000n izan ezik), 1998tik hona, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politikaren eraginez; izan ere, produktu hori alokairura bi-deratzen ari da. Garai hartan, salmentarako etxebizitza-ren eskaintza %48,6koa zen. Bestalde, BOEn eskaintzak (3.700 etxebizitza 2005ean) %3,2ko hazkundea izan du.


3.3.2. Eraikuntza jarduera

EAEn hasitako etxebizitza kopuruak (askeak eta ba-besekoak), 2004an murriztapen nabaria izan ondoren (-%19,9), 2005ean %2,4ko hazkundea izan du. Guztira, 16.612 etxebizitza hasi ziren; horietatik 11.987 askeak zi-


EAEn HASITAKO ETA AMAITURIKO ETXEBIZITZAK

		2000	2001	2002	2003	2004	2005
Etxebizitza askeak	Hasitakoak	12.115	11.194	9.692	13.626	11.794	11.987
	Amaitutakoak	13.266	14.091	14.974	7.962	10.588	11.522
Babeseko etxebizitzak	Hasitakoak	2.835	4.284	5.054	6.625	4.427	4.625
	Babes ofizialekoak	2.253	3.695	3.954	5.816	3.981	3.830
	Sozialak	582	589	1.100	809	446	795
	Amaitutakoak	1.796	2.647	3.225	3.752	3.647	4.025
	Babes ofizialekoak	1.572	2.045	2.667	3.193	3.140	3.345
	Sozialak	224	602	558	559	507	680

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.

AMAITURIKO ETXEBIZITZA KOPURUAREN BILAKAERA EAĒN


Iturria. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritz.

BABESEKO ETXEBIZITZAK HASITAKO ETA AMAITURIKO ETXEBIZITZEN GUZTIZKOAN DUEN EHUNEKOA


Iturria. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritz.

ren (%72,2), 3.830 babes ofizialekoak (%23) eta 795 sozialak (%4,8).

Etxebizitza motaren arabera, 2004ko eraikuntza jarduerarekiko aldatetarik intentsitate desberdinekoak dira: hasitako etxebizitza askeak %1,6ko hazkundearen izan du (2004an %13,4ko murriztapena) eta hasitako babeseko

etxebizitza %4,5eko hazkundearen izan du, baina modu desberdinean, etxebizitza soziala eta BOE bereiziz gero. Hasitako 3.830 BOEek -%3,8ko murriztapena adierazten dute 2004ari dagokionez, eta azken urtean hasitako 795 etxebizitza sozialek +%78,3ko hazkundearen adierazten dute, aurreko urteari dagokionez.

ESTATUAN HASITAKO ETXEBIZITZAK. BABESEKO ETXEBIZITZAREN KUOTA. 2004.

	Etxebizitzak	%	Etxeb. mota %		Bab. etx./ 1.000 bizt.	Etx. ask./ 1.000 bizt.
			Babesekoa	Askea		
Espainia	768.282	100,0	9	91	1,68	17,1
Andaluzia	157.740	20,5	7	93	1,57	19,9
Aragoi	17.210	2,2	8	92	1,19	13,1
Asturias	14.405	1,9	6	94	0,83	12,7
Balearrak	12.301	1,6	3	97	0,51	14,1
Kanariak	31.992	4,2	4	96	0,73	18,2
Kantabria	10.884	1,4	3	97	0,64	19,7
Gaztela eta Leon	49.431	6,4	8	92	1,51	18,6
Gaztela-Mantxa	45.779	6	11	89	2,85	23,2
Katalunia	103.928	13,5	6	94	1,01	15,4
Valentziako Erkidegoa	104.299	13,6	7	93	1,73	23,3
Extremadura	10.734	1,4	8	92	0,86	9,3
Galizia	39.006	5,1	10	90	1,45	13
Madril	87.378	11,4	19	81	3,11	13
Murtzia	49.824	6,5	4	96	1,71	39,9
Nafarroa	9.340	1,2	17	83	2,92	13,9
EAE	16.398	2,1	27	73	2,13	5,7
Errioxa	6.744	0,9	8	92	2,04	22,3

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Sustapen Ministerioan oinarrituz. Arkitekto Elkargoaren Txostena, 2004ko 4. hir.

Bestalde, EAEn amaituriko etxebizitzaren multzoa, 2005ean, 15.547 etxebizitzakoa da, aurreko urtean baino %9,2 gehiago, amaituriko etxebizitza askeek (%8,8) eta amaituriko babesekoek (%10,4) izandako hazkunderaren eraginez. Azken horien barruan, aipagarria da amaituriko etxebizitza sozialek izandako hazkundera handia (680, 2004an baino %34,1 gehiago).

2005eko datuek joera desberdinak adierazten dituzte, babeseko etxebizitzak EAEko eraikuntza jardueran duen partaidetzari buruz; izan ere, amaituriko etxebizitzaren kasuan mantendu egiten da babeseko etxebizitzaren garrantzia (2004ko %25,6tik 2005eko %25,9ra igaro da), eta azken urte horretan hasitako BOEk, berriz, %24,5etik %23,1era murriztu dute euren tasa. Gehienekoa 2003an lortu zen, urte horretan hasitako hiru etxebizitzatik ia bat babes ofizialekoa izan baitzen. Hasitako etxebizitza sozialaren tasa, beste alde batetik, %2,7tik %4,8ra igaro da.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak oraintsu egindako txosten batean adierazitakoaren arabera (iturria Sustapen Ministerioa), EAEn babeseko etxebizitza eraikuntzaren kuotarik altuena dago, Estatuan hasitako etxebizitza kopuru osoari dagokionez. Horrela, 2004an Erkidegoan hasitako etxebizitza eraikuntzen %27 babeseko etxebizitzak dira, eta tasa horrek erraz gainditzen du hurrengo postuan dagoen autonomia erkidegokoa: Madril (%19).


3.3.3. Alokairu araubidea

2001eko Zentsuko datuek aditzera ematen dutenez, Estatuko familien %11,5 alokairuko etxebizitzetan bizi dira, eta EAEn tasa hori %7,3koa da, Estatuko tasarik txikienetarikoa; Gipuzkoak gainditu egiten du tasa hori (%8,1), eta Araban eta Bizkaian, berriz, tasa %6,9koa da.


ALOKAIRUAN ESKAINITAKO ETXEBIZITZA ASKEAK ETA HILEKO B. BESTEKO ERRENTA

	Etxebizitzak				Hileko errenta (€)			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2000	662	103	448	112	598,4	700,2	560,4	656,6
2001	409	32	307	70	636,3	750,2	612,0	691,2
2002	429	86	262	81	689,7	761,0	655,0	715,0
2003	533	101	347	86	693,1	815,7	666,6	691,9
2004	512	108	308	96	724,4	828,2	687,4	747,0
2005	511	123	273	116	778,9	850,3	749,3	788,7
I. hir.	507	105	307	96	745,5	831,2	714,6	773,8
II. hir.	498	118	277	103	769,2	840,8	741,4	779,7
III. hir.	516	131	265	120	793,4	859,2	762,3	803,3
IV. hir.	521	136	242	143	807,4	869,8	779,0	798,0

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila "EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta".

ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN GARRANTZIAREN BILAKAERA, ASKEAREN ETA BABESEKOAREN SEGMENTUETAN (%)


Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, „EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta”.

ETORKIZUNeko ETXEBIZITZARAKO ALOKAIRU-AUKERAREN BILAKAERA, BEHARRIZANA DUTEN PERTSONEN ARTEAN*


(*) Lehenengo aukera edo bata zein bestea.
Iturria: Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritzak.

Bestalde, alokairuko etxebizitza eskaintzari buruzko datuek agerian jarritakoaren arabera (2005), 1.228 etxebizitzako batez besteko eskaintza osoa dago, 2004an baino 216 etxebizitza gehiago, eta horrek %21,3ko hazkunde na-

baria adierazten du, aurreko urteari dagokionez, alokairuan eskainitako etxebizitza bolumenean bi urteko egonkortzea egon ondoren. Gainera, bilakaera positibo hori alokairuko babeseko etxebizitza eskaintzak izandako gora-

kadaren eraginezkoa da (guztira 717 unitate, 2004an baino %43,4 gehiago. Horrela, babeseko etxebizitzak alokairuko eskaintzan duen partaidetzak gehieneko historikoa lortu du, urte honetan guztizkoaren %58,4ra iritsi baita.


Alokairuko etxebizitza askea, berriz, %0,2an murriztu da, Eusko Jaurlaritzaren Inkestako datuen arabera (guztira 511 etxebizitza). Lurraldeen arabera, bilakaera desberdina egon da: alde batetik Bizkaia eta bestetik Gipuzkoa eta Araba. Azken horiek bilakaera positiboak izan dituzte, eta euren eskaintzek %13,9ko eta %20,8ko hazkundea izan dute, hurrenez hurren; Bizkaian, berriz, bigarren urtez jarraian murriztu egin da alokairuko etxebizitza askearen eskaintza (273 etxebizitza, -%11,4). Bilakaera horren eraginez, hirugarren urtez jarraian, Bizkaian (EAE osoari dagokionez) murriztu egin da alokairuko etxebizitza eskaintzaren garrantzia.

Gainera, lurralde mailan desberdina den bilakaera hori prezioen hazkundeetan islatzen da: alokairuko etxebizitzaren hileroko batez besteko errenta (778,90 €/hilean, EAEko batez bestekoa, 2004an baino %7,5 gehiago) askoz ere gehiago hazi da Bizkaian: %9an hazi da eta hileroko 749,30€-koa da. Aldiz, Gipuzkoan eta Araban, alokairuaren batez besteko prezioak altuagoak izan arren (788,70 eta 850,30€/hilean), hazkundeak txikiagoak izan dira (%5,6 eta %2,7). Halaber, salmentako etxebizitza es-

kaintza aintzat hartuta, alokairuak bilakaera oso desberdina izan du (segmentu askean eta babesekoan) azken urtean: alokairu askea eskaintzaren %5aren inguruan egonkorturik dago, eta 2005ean murriztu egin da bigarren urtez jarraian (%4,9tik %4,7rako murriztapen txikia). Aldiz, alokairuko babeseko etxebizitza eskaintzak izandako hazkundeari esker, horrek garrantzia irabazi du babeseko etxebizitzaren segmentuan: %15,8koa da, eta horrela, bi urtez bilakaera negatiboa izan ondoren, ia berreskuratu egin du 2002ko kuota.

Gainera, etxebizitza behar duten pertsonen alokairuari buruz duten balorazioak hobera egin du 2005ean, bai etxebizitza aldatu behar dutenei eta bai lehenengo etxebizitza lortu nahi dutenei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Beharrianen Oinarritzko Inkestan adierazitakoaren arabera⁶. Gorabehera nahiko ziklikoekin, alokairuaren aldeko apustua gero eta handiagoa da, eta 2002an gehieneko balioan kokatu da, etxebizitza aldatzeko orduan alokairuaren aukerari buruzko balorazio positiboa egiten duen pertsona kopuruari dagokionez (%23,9), eta 2005ean lehenengo etxebizitza eskuratzeko aukera nagusiari dagokionez ere bai (%24,1). Ehuneko horrek agerian jartzen du joera hori gero eta handiagoa dela; izan ere, 2004an iritzi hori izan zuen pertsona bolumena %17,7koa izan zen.

ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA ETA HILEKO BATEZ BESTEKO ERRENTA



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta.

⁶ Kapitulu honetako 3.5 atalean zehatz aztertzen da etxebizitzaren eskari orokorra eta alokairuko etxebizitzaren eskaria.

**ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA SOZIAL BERRIEN
EHUNEKOAK, ORAINTSU ERAIKITAKO ETXEBIZITZA
GUZTIEI DAGOKIENEZ. ZENBAIT URTE.**

	Alokairu sozialeko etx. berriak / eraikitako etxebizitzak (%)
Alemania - AEF (1995)	12
Alemania - AED (1995)	29
Frantzia (2001)	15
Holanda (2001)	13
Erresuma Batua (2000)	14
Suedia (2001)	14
Espainia (2003)	1
EAE (2003)	6

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren, Housing Statistics in the EU 2002 deritzon eta 2002-05 Etxebizitza Plan Gidariaren Beteazte Txostenean oinarrituz (2003).

Bestalde, 2005ean elkarriketaturiko pertsonen %17,1aren ustez (etxebizitza aldatu beharra zuten pertsonak), aukera nagusia alokairua zen, edo behintzat, parean kokatzen zituzten alokairua eta erosketa. Aurreko urtean tasa %14,5ekoa izan zen, eta beraz, %17,9ko hazkundera egon da alokairuaren balorazio positiboan.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren ikerketak (gazteriak etxebizitza lortzeko duen aukerari buruzkoa) konparazio bat egiten du alokairuko etxebizitza eskaintzak azken hoge urteotan EAEn eta Europako herri batzuetan izan duen bilakaeraren artean. Datuek, orokorrean, jabetza araubidearen hazkunde iraunkorra adierazten dute, Alemaniaren kasuan izan ezik; izan ere, bertan, alokairuaren indizeak hazkundera dauka antzinako AEFren eremuan (1980ko %55etik 2000ko %57ra). Halaber, EAEn eta Espainian, azken bi hamarkadotan, alokairuko etxebizitza okupatuen ehunekoa erdira murriztu da (EAEn %15etik %7ra eta Estatuan %21etik %11ra igaro da).

Halaber, alokairu sozialeko etxebizitzaren parte handirik ez edukitzea, izan ere, EAEko eta Espainiako egoitza sistema konparazioko erreferentziatzat erabilitako Europako bost estatuetatik bereizten dituen egiturazko ezagarririk bat da. Izan ere, Espainian eta EAEn jabetza-araubideko modalitate hori %2ra baino ez da iristen, eta Europako estatu horietan tasa askoz ere handiagoa da: Holandan %35, Alemanian %26, Suedian %22 eta Erresuma Batuan %21. Eta, garrantzi kuantitatibo txikiagoarekin, baina Espainiako estatuan eta EAEn baino askoz ere tasa handiagoarekin, Frantziako alokairu sozialeko etxebizitza parkea dago (%16).

Horri dagokionez, etxebizitza modalitate horrek murriztapena izan du oraintsu, aintzat harturiko herri batzuetan (batik bat, Erresuma Batuan); hala eta guztiz ere,

**ALOKAIRU ARAUBIDEAREN BILAKAERA
1980-2001 (%)**

	1980/81	1990/91	2000/01
Alemania - AEF	55	58	57
Alemania - AED	69	74	69
Frantzia	41	39	38
Holanda	58	55	47
Erresuma Batua	42	35	31
Suedia	42	44	38
Espainia	21	15	11
EAE	15	10	7

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren, Housing Statistics in the EU 2002 deritzon eta EInen oinarrituz.


oraindik ere garrantzi kuantitatibo handia dauka Europar Batasunean ongizaterik handiena duten herrietan. Hurrengo taulan, alokairu sozialeko etxebizitza berrien tasak daude jasota, erreferentziako lurralde bakoitzean oraintsu eraikitako etxebizitza guztiei dagokienez. EAEko datuek (hasitako alokairuko babeseko 1.221 etxebizitza 2003an, guztizkoaren %6) agerian jarri dutenez, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika oraindik ezin daiteke parekatu beste herri batzuetakoarekin, alokairu soziala sustatzeari dagokionez; izan ere, bikoitza sustatu behar da Alemaniakoaren (antzinako AEF) antzeko tasa lortzeko (%12).

3.4. Etxebizitzaren prezioen bilakaera

Oro har, etxebizitza askearen prezioa %10,3an garestitu da, batez beste, 2003-2004 aldirian baino puntu bat gutxiago. Horrela, etxebizitza askearen kasuan, metro koadro erabilgarri bakoitzaren batez besteko prezioa 3.245,40€-koa da, eta "ohiko etxebizitzaren" kasuan prezioa 3.219,20€-koa da (+%5,2, 2004ari dagokionez). Bestalde, babeseko etxebizitzaren batez besteko prezioak ere gora egin du 2005ean, baina tasa txikiagoetan. BOEren (berria eta erabilia) batez besteko prezioa 1.210,80€/m² da (%7,2) eta etxebizitzaren sozialaren prezioa 723,90€/m² (+%8).

Metro koadro erabilgarriko prezioaren adierazleak eta etxebizitzaren batez besteko prezioaren (ikusitako aurreko grafikoa) adierazleak agerian jarri dutenez, erabilitako etxebizitzaren eta etxebizitzaren prezioak (merkatuko segmentu askean) berdindu egin dira azken urte horietan, eta euren arteko aldeak oso txikiak dira. Erabilitako etxebizitza, batez beste, garestiagoa izan da 1998tik, 2001ean izandako beste prezio "hurbilketa" baten kasuan izan ezik, eta 2005ean bi etxebizitza mota horien prezioen arteko aldea %1,2koa baino ez da.

ETXEBIZITZAREN BATEZ BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA (€-AK MILATAN)



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta.

EAEn SALMENTAN DAUDEN ETXEBIZITZEN PREZIOAREN BILAKAERA (€/m² ERABILGARRI)

	Etxebizitza askea				Babeseko etxebizitza	
	Askea guzt. (*)	Erabilia	Berria	Ohiko etxeb. (**)	BOE	Soziala
2000	2.169,7	2.337,9	1.839,1	1.562,6	901,8	550,0
2001	2.360,5	2.408,4	2.219,7	2.155,6	922,8	520,5
2002	2.530,6	2.594,5	2.345,6	2.242,8	1.007,8	521,3
2003	2.643,9	2.702,9	2.510,0	2.419,7	1.047,4	597,1
2004	2.942,8	2.966,6	2.905,2	2.785,7	1.129,0	670,3
2005	3.245,4	3.259,1	3.219,2	2.930,7	1.210,8	723,9
2005 I. hir.	3.071,3	3.071,5	3.065,0	2.898,7	1.162,0	694,6
II. hir.	3.192,6	3.203,9	3.171,1	2.909,9	1.202,6	715,4
III. hir.	3.307,9	3.329,3	3.271,7	2.954,0	1.232,8	729,2
IV. hir.	3.409,7	3.431,7	3.369,0	2.960,2	1.245,8	756,5

(*) Etxebizitza aske berrien eta erabilien batez besteko prezioa.

(**) etxebizitza berria eta sustapen askekoa, taldeko eraikinean, sustatzaileak berak sustatuta, "ohiko" akabera mailarekin eta 60-90 m²-ko azalerarekin.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal eskaintzari buruzko Inkesta (2005eko 4. hiruhilekoa).

Lurralde Historikoen arabera desberdintasunak ikusten dira. Batez beste, erabilitako etxebizitzaren prezioak %9,9ko hazkundea izan du, baina Gipuzkoak eta Arabak hazkunde tasa txikiagoak dituzte (%4,6 eta %5,6 hurrenez hurren), eta Bizkaian tasa %11,9raino hazi da, metro koadro erabilgarriko batez besteko prezioari dagokionez. Guztiarekin ere, azken lurralde horretan hazkunde handiagoa izan arren, prezioa Arabako eta Gipuzkoako batez bestekoa baino merkeagoa da. Hain zuzen ere, metro koadro erabilgarriko preziorik altuena Arabakoa da (3.573,10€/m²), gero Gipuzkoakoa (3.302,40€/m²) eta, azkenik, Bizkaikoa (3.121,90€/m²). Etxebizitzaren batez

besteko prezioaren adierazleak lurraldeen arabera dituen desberdintasunei dagokienez, Arabak eta Gipuzkoak lehenengo eta bigarren postuak trukatzan dituzte, eta Bizkaia berriz ere batez besteko prezio txikiagoak ditu. Urterik urterako hazkundeak, oraingoan ere, nahiko altuagoak dira azken horretan (+%11,9), Araban (+%1,2) eta Gipuzkoan (+%5) baino.

Bestalde, erabilitako etxebizitza parkeak prezio-tartea duen banaketari erreparatuta ikusten denez, 2005eko azken hiruhileko datuek agerian jartzen dute EAEko etxebizitzaren %39,4, eskaini ere, 180.000 euro eta 300.000 eu-

SALMENTAKO ETXEBIZITZA ERABILIAK ETA BATEZ BESTEKO PREZIOAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA*.

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Etxebiz.	m2 erabil. prez.(1)	Etxeb. prezioa (2)	Etxebiz.	m2 erabil. prez.(1)	Etxeb. prezioa (2)	Etxebiz.	m2 erabil. prez.(1)	Etxeb. prezioa (2)
2000	1.903	2.639,9	212,8	2.852	1.968,3	168,8	1.081	2.821,8	261,1
2001	2.575	2.711,8	216,0	4.574	2.122,6	180,9	1.382	2.831,7	257,0
2002	1.983	2.824,0	236,0	4.587	2.364,0	197,0	1.310	3.068,0	272,0
2003	1.282	3.106,5	272,5	4.523	2.526,3	227,8	969	3.036,8	286,3
2004	1.399	3.383,9	295,0	3.932	2.790,2	248,4	779	3.158,3	292,3
2005	1.663	3.573,1	298,6	3.929	3.121,9	274,2	833	3.302,4	307,0

(*) Hiruhileko neurriak.

(1) Euroak (2) Euroak milatan.


Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkesta.

ro bitarteko prezioan eta apur bat merkeago eskaintzen direla, eta %34,3, berriz, 300.000 euro eta 450.000 euro bitartekoan eskaintzen direla. Lurraldeen arabera, Arabako etxebizitza erabiliaren eskaintzaren erdia 180.000-300.000 euro bitarteko multzoan dago, eta gorako prezioen bitartean, berriz, eskaintza EAEko batez bestekoaren barrukoa da. Gipuzkoan, aldiz, preziorik garestieneko etxebizitzek garrantzi handia dute: %35,9k 450.000 eurotik gorako prezioa dute. Bizkaiko prezio banaketak, ostera, EAE osokoaren antzeko egitura dauka.

Babesturiko merkatuari dagokionez, metro koadro erabilgarriko batez besteko prezioa, lehen ikusi dugunez, 2005ean 1.210,80€/m²-koa izan zen, BOEn kasuan, eta 723,90€/m²-koa etxebizitza sozialaren kasuan. Lurralde historikoen arabera, eta babes ofizialeko modalitateari

dagokionez, preziorik altuena Araban dago (1.267 €/m²), eta baxuena Gipuzkoan (1.189 €/m²); Bizkaia bitarteko posizioan dago (1.243 €/m²). Etxebizitza sozialaren kasuan, Gipuzkoako batez bestekoa 745 €/m²-koa da eta Bizkaikoa 758 €/m²-koa. Etxebizitzaren prezioei dagokionez, etxebizitza sozialaren prezioa Bizkaiko 54.000 €-etatik Gipuzkoako 59.000 €-etara bitartekoa da. Bestalde, BOEren modalitatean Arabako 103.000 €-etatik Gipuzkoako 88.000 €-etara doa, Bizkaiko 92.000 €-etatik igarota.

Bestalde, eremu geografiko txikiagoetako emaitzei dagokionez, 2005eko laugarren hiruhilekoko datu finkatu gabeek agerian jartzen dutenez, hiriburuetan eskaintako eraikuntza berriko etxebizitza askeen batez besteko prezioa 4.116 €/m²-koa da; hiriburuen eremu funtzionalen kokaturiko udalerrietan, berriz, batez besteko prezioa

ETXEBIZITZA BABESTUAREN ETA ASKEAREN ALOKAIRUAREN BATEZ BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA (€/HILEAN)


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta.

3.419 €/m²-koa da, eta EAEko gainerako udalerrietan, azkenik, prezioa oraindik ere baxuagoa da (2.821 €/m²). Batez besteko preziorik altuena, beti bezala, Donostian dago (4.966 €/m²), baina Bilboko batez besteko prezioak izandako hazkunde handiak (4.240 €/m²) murriztu egin du orain dela urtebete bi hiriburu horien artean zegoen aldea. Gasteizko batez besteko prezioa 3.576 €/m²-koa da.

Halaber, babesturiko etxebizitzaren segmentuari dagokionez, hiriburuetako BOEn batez besteko prezioa 1.280 €/m²-koa da; hiriburuen eremu funtzionaltako udalerrietan 1.220 €/m²-koa da, eta EAEko gainerako udalerrietan, azkenik, 1.185 €/m²-koa. Salmentako etxebizitza sozialaren kasuan, erregistraturiko eskaintza urria Donostiako eta Bilboko eremu funtzionaltako udalerrietan kokatzen da, eta batez besteko prezioa 757 €/m²-koa da. Etxebizitzaren prezioari dagokionez, hiriburuetako babes ofizialeko etxebizitzaren batez bestekoa 101.000 €/m²-koa da, hiriburuen eremu funtzionaltan kokaturiko udalerrietako etxebizitzaren batez besteko prezioa 91.000 €/m²-koa, eta EAEko gainerako udalerrietako etxebizitzaren prezioa, azkenik, 89.000 €/m²-koa. Etxebizitza sozialaren kasuan, Donostiako eremu funtzionalean prezioa 54.000 €/m²-koa da etxebizitza bakoitzeko, eta Bilboko eremu funtzionalean prezioa 59.000 €/m²-koa da.

Bestalde, alokairuko etxebizitzaren merkatura itzulita, hurrengo grafikoan etxebizitza askearen eta babeseko-


ERABILITAKO ETXEBIZITZEN BILAKAERA, PREZIO BITARTEAREN ARABERA (2005-IV)



Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokal Eskaintzari buruzko Inkesta. 2005eko 4. hiruhilekoa.

ren alokairuaren batez besteko prezioak izandako bilakera adierazten da (euroak hilean). Babeseko etxebizitzaren prezioa hilerio 4 eurotan baino ez da garestitu (+%1,5, eta tasa hori KPIk 2005ean izandako hazkundera baino nahiko txikiagoa da), eta batez besteko, hilean 261,10€ dira. Etxebizitza askearen prezioak, aldiz, gero eta garestiagoak dira; hain zuzen ere, %7,5eko hazkundera egon

ETXEBIZITZAREN BATEZ BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA (€/m²) AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUETAN.



Iturria: Etxebizitza Ministerioa.

da, eta hilean 778,90€ dira. Bi segmentu horien arteko aldeak, horrenbestez, hazi egin dira urte honetan ere.

Azkenik, Estatuko Etxebizitza Ministerioak argitaratzen duen "Etxebizitzaren Estatistika" deritzonak EAEko prezioen bilakaera beste autonomia erkidego batzuetan izandakoarekin konparatzeko aukera ematen du. Azken datu erabilgarriek agerian jarri dutenez (2005eko lehenengo hiruhilekoari buruzko datuak), azken hamarkadan etxebizitzaren batez besteko prezioak %163,85eko hazkundea izan du EAEn, eta tasa hori Kataluniakoaren ia berbera da (%162,46). Estatuko batez bestekoak, aldi horretan, %151,25eko hazkundea izan du. Grafikoa ikusten

denez, EAEko prezioek, Madrilko Erkidegokoekin batera, nabarmendu egiten dira goialdean, eta Estatu osoan ere goranzko joera dute, erkidego batetik besterako desberdintasunekin.

3.5. Etxebizitza eskaria EAEn eta epe laburrerako beharrizana

3.5.1. Beharizanen kuantifikazioa

Eusko Jaurlaritzaren "EAEko Etxebizitza Beharizanen eta Eskariaren Inkesta"⁷ deritzonaren emaitzek agerian jarri dutenez, 2005ean lehenengo etxebizitza lortu behar


ETXEBIZITZA BEHARRIZANA ETA SEGMENTU BABESGARRIA. 2005

	Lorpena		Aldaketa		Guztira	
	Etxebizitzak	%	Etxebizitzak	%	Etxebizitzak	%
Beharizanak guztira	87.115	100,0	47.540	100,0	134.655	100,0
Laguntzakoak	87.115	100,0	18.636	39,2	105.751	78,5
Segmentu babesg. gehieneko prezioaren arabera *						
< 42.000 euro	2.613	3,0	0	0,0	2.613	1,9
< 72.000 euro	8.102	9,3	876	1,8	8.978	6,7
< 96.000 euro	16.726	19,2	3.075	6,5	19.801	14,7
< 120.000 euro	29.358	33,7	6.802	14,3	36.160	26,9
< 150.000 euro	48.088	55,2	7.864	16,5	55.952	41,6

* Pilaturiko zifrak. Mota bakoitzeko beharizanen %

Iturria: EAEko Etxebizitza Beharizanei eta Eskariari buruzko Oinarritzko Inkesta.

BEHARRIZAN INDIZEEN BILAKAERA ETA BEHAR DIREN ETXEBIZITZAK



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

⁷ 1994tik urtero egindako inkesta, EAEko 3.200 familian oinarrituz.

BEHARRIZAN SUBJEKTIBOA ETA ETXEBIZITZA ESKARIA EPE LABURRERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA

	Aldaketa			Lorpena			Birgaitzea		
	2003	2004	2005	2003	2004	2005	2003	2004	2005
INDIZEA⁽¹⁾									
EAE	4,1	5,1	6,4	12,4	11,3	12,2	9,4	13,7	14,4
Araba	3,9	4,3	5,6	14,1	11,9	12,6	7,9	13,9	13,9
Bizkaia	4,1	5,3	6,3	12,4	11,0	12,3	9,8	13,8	14,5
Gipuzkoa	4,4	5,2	6,9	11,6	11,5	11,8	9,4	13,5	14,3
ETXEBIZITZA KOP.									
EAE	30.774	38.226	47.540	90.714	80.176	87.115	39.157	102.010	106.928
Araba	3.924	4.361	5.649	14.105	11.515	12.320	8.077	14.158	14.123
Bizkaia	16.108	21.169	24.954	48.541	41.789	46.894	39.157	54.728	57.727
Gipuzkoa	10.742	12.696	16.937	28.068	26.872	27.901	23.033	33.124	35.078

(1) Familia guztien %. Lortzeko Beharrianaren kasuan, unibertsoa 18-44 urte bitarteko pertsonetara murrizten da, beharrian hori eta diru-sarrerak dituzten pertsonetara. Horrela, beharrianaren zifrak kaudimendunera egokitzen dira. Birgaitze Beharrianaren kasuan, 3.000€-tik gorako aurrekontua duten pertsonak baino ez dira sartzen. Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila "Etxebizitza Beharriana eta Eskaria EAEn".

duten gazteak dituen etxebizitza kopurua %12,2koa da, eta zifra hori azken lau urteotako zifraren oso antzekoa da, baina gorakadaxoa izan du 2004ari dagokionez (%11,3). Horrek berretsi egiten du halako beharrianak egonkortzeko joera, 90eko hamarkadan izandako hazkunde handiaren ostean (faktore demografikoen eraginezko hazkundera). Horrela, zifra absolutuetan, lehenengo etxebizitza lortu behar duten gazteen kopurua 87.100 pertsonakoa da. Eskariari dagokionez, hemendik lau urtera 58.700 etxebizitza beharko dira, eta hemendik urtebetera 20.000 etxebizitza; hor ere egonkortzeko joera ikusten da, baina epe laburrerako eskariaren presioa aurreko urteetako baino handiagoa da.

Familien beharrianari dagokionez, orokorrean, EAEko familien %6,4k diotenez, etxebizitza aldatu beharra dute, eta ehuneko hori azken bi urteotakoa baino apur bat handiagoa da. Zifra absolutuetan, 47.540 familia etxebizitza aldatzeko asmotan dabilta, eta horietatik ia 10.000k epe laburrean egin nahi dute hori. Etxebizitza birgaitzeari dagokionez, halako birgaitzea behar duten etxebizitzen kopurua, familiek diotenez, %14,4koa da, hau da, ia 107.000 etxebizitza (2004an baino %4,8 gehiago).

Etxebizitza beharrianak betetzeko arazorik gehien duten segmentuei dagokionez, 2005eko inkestaren emaitzek agerian jarri dutenez, etxebizitza behar duten pertsonen %19k 96.000€-tik beherako etxebizitzak soilik eskuratu ahal zituzte (16.726 etxebizitza). Aldatu behar dutenen kasuan, proportzioa %6,5koa da (3.000 familia). Gainera, 2.613 pertsonak 42.000€-tik beherako etxebizitzak bakarrik lortu ahal zituzte, eta beste 8.102 pertsonak gehienez 72.000€-ko etxebizitzak eskuratu ahal zituzte (gainera, aldatu beharra duten beste 876 kasu daude). Bilakaeraren aldetik, azken urteetan etxebizitza finantzatzeko gaitasunak apurka-apurka hobera egin du, beharriana dutenen artean, eta etxebizitza-prezio garestiagoei aurre egin ezin dieten pertsonen eta familien proportzioa gero eta txikiagoa da.

Lurraldeen arabera, etxebizitza eskariak antzeko joerak izan ditu 2004-2005 aldian, desberdintasun txikiekien. Aldaketa beharrianean, indizeak gora egin du EAE osoan, baina batik bat Gipuzkoan, %5,2tik %6,9ra igarota (+%32,7). Lurralde horretan, gainera, aldaketa beharrianaren indizerik handiena dago, EAE osoan; hain zuzen ere, ia 17.000 familia sartzen dira bertan. Gero Araba da-

ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRIZANAREN ZIOEN BILAKAERA⁽¹⁾

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Tamaina ezegokia	33,5	39,2	40,6	28	38,9	42,1	40,6	35,8
Egoera txarra	12	7,7	9,8	7,3	7,9	13,4	2,6	3,7
Kokaleku txarra	3,8	3,5	7,1	9,4	5,5	4,9	7,0	7,0
Jabetza nahi du	18,4	25,6	11,7	24,6	17	13	18,8	13,6
Igogailua ⁽²⁾	16,5	—	—	10,7	13,1	15,4	17,4	20,6
Beste zioen bat	15,8	23,4	30,8	20	17,6	11,2	13,6	19,2

(1)% bertikala (mota bakoitzeko beharrianaren guztizkoari dagokionez).

(2)Urte batzuetan banatuta, eta beste batzuetan "Beste zioen bat" atalaren barruan.

Iturria: "EAEko Etxebizitza Beharrianari eta Eskariari buruzko Inkesta" Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

tor, eta lurralde horretan, indize txikiagoa izan arren (%5,6), azken urtean %30,2ko hazkundea izan du. Bizkaia, azkenik, EAEko batez bestekotik hurbilago dago, %6,3arekin.

Lehenengo etxebizitza lortzeko beharrianari dagokionez, egoera apur bat desberdina da: ehunekorik handiena (%12,6) Araban dago, eta gero Bizkaian (%12,3). Azken lurralde horretan hazi da gehien azken urtean (%11,8), eta EAE osoko batez bestekoa %8koa baino ez da izan. Gipuzkoak, aldiz, indizerik txikiena dauka (%11,8), eta gainera, hazkunderik txikiena ere bertan egon da (+%2,6). Birgaitzeari dagokionez, azkenik, lurraldeen arteko desberdintasunak askoz ere txikiagoak dira, eta hiru lurraldeak (bai indizearen eta bai aldagataren aldetik, aurreko urteari dagokionez) EAEko batez bestekotik oso hurbil daude.

3.5.2. Beharrian duten pertsonen eta etxeen ezaugarriak eta zioak


Aldatzeko beharrian duten familien eta lehenengo etxebizitza lortu behar duten gazteen gizarte eta egoitza ezaugarriak nahiko antzekoak dira, aurreko urtekoei dagokionez. Etxebizitza behar duten pertsonen batez besteko adina 28 urtekoa da, eta familia apur bat handietakoa da (batez beste, 3,7 kide); familia horiek gainerakoek

oso antzekoa den azaleradun etxebizitzak okupatzen dituzte (79 m²). Emakumeen eta gizonen antzeko presentzia dago; %54k lan kontratu finkoa dute eta beste %38k aldi baterako kontratua. Aldaketa beharrian duten EAEko familien batez besteko tamaina (3,2) apur bat handiagoa da, EAEko familien tamaina baino (3), eta familia horien buruak pertsona gazteagoak dira (46), gainerakoek kasuan baino (50,8); gainera, oro har, gainerakoek baino lan ezegonkortasun handiagoa dute. Euren oraingo etxebizitzari dagokionez, etxebizitza horiek txikiagoak dira (69 m²), zaharragoak (36,2 urte, eta batez besteko orokorra 32 urtekoa da), eta alokairuaren ezarkuntza handiagoa dago (%26,6) okupazioko formulatzat.

Tamaina ezegokia (%35,8) eta jabetzako etxebizitza edukitzeko gogoia (%13,6) dira familien zergati nagusiak, etxebizitza aldatu nahi izateko; hala eta guztiz ere, bilakaeraren ikuspegitik begiratuta, bi zergati horiek ere beharrezko joera dute 2004ari dagokionez. Lortzeko beharrian duten pertsonen artean, berriz, independentzia lortzeko gogoia nagusitzen da (%70).

Bestalde, oraingo etxebizitzaren kokalekua aldaketarako balizko ziotzat agertzen da, eta beraz, pentsa daiteke aldatzeko beharrian duten familiek oraingo ingururakiko eta auzoarekiko poztasun maila txikiagoa dutela, EAEko familiarik gehienek baino. Horri dagokionez, oku-

ETXEBIZITZA LORTZEKO BEHARRIZANAREN ZIOEN BILAKAERA. BEHARRIZANA DUTEN GUZTIEN EHUNEOA



(*) 1997ko erantzun-aukerak ez du bereizten ezkontzearen eta bikotean bizitzearen artean.

Iturria. EAEko Etxebizitza Beharrianari eta Eskariari buruzko Inkesta. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

	Aldaketa ⁽¹⁾			Lorpena ⁽¹⁾		
	2003	2004	2005	2003	2004	2005
EGOERA						
Berria	16,6	18,4	24,4	16,3	22,8	19,1
Erabilia	7,3	7,8	1,6	5,4	8,0	3,4
Bata zein best.	72,4	69,3	71,6	76,8	68,3	74,9
Ed/Ee	3,6	0,8	2,4	1,6	0,8	2,5
AZALERA ERABILGARRIA						
40 m ² -tik beh.	5,9	1,9	1,5	4,2	4,4	3,7
41 - 60 m ²	11,0	9,3	18,1	22,1	17,5	32,6
61 - 75 m ²	27,4	26,2	29,1	35,8	37,7	41,1
76 - 90 m ²	37,0	34,1	31,9	33,5	32,2	17,7
91 - 120 m ²	16,2	21,7	15,7	3,1	3,6	1,3
120 m ² -tik	2,4	4,6	2,5	0,6	0,2	—
Ed/Ee	0,0	2,2	1,3	0,8	4,4	3,5
TIPOLOGIA						
Taldeko etxeb.	89,8	88,7	91,4	87,5	89,7	—
Fam. bak. etx.	7,9	6,4	6,1	8,8	5,4	—
Ed/Ee	2,3	4,9	2,6	3,6	4,9	—
EDUKITZE-ARAUBIDEA						
Jabetza	86,3	85,5	82,9	79,9	82,3	75,9
Alokairua	7,3	7,1	9,1	3,3	4,3	4,8
Bata zein best.	6,4	7,4	8,0	16,8	13,4	19,3

⁽¹⁾ % bertikala (mota bakoitzeko beharriaren guztizkoari dagokionez).
Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

paturiko etxebizitzarekiko poztasuna eta auzoarekiko nahiz inguru hurbilarekiko poztasuna txikiagoa da beharriaren duten familien artean. Etxebizitzarekiko eta inguruarekiko batez besteko poztasun indizeak 100 puntutik 86 puntu inguruak dira familiarik gehienetan, eta aldatzeko beharriaren duten familien artean etxebizitzarekiko poztasuna 27 puntu txikiagoa da (59,7 puntu). Inguruarekiko poztasunari dagokionez, apur bat positiboagoak dira eta poztasunaren batez beteko indizea 73,5 puntukoa da. Familia horiek gehien aipatzen dituzten faktoreak honako hauek dira: aparkatzeko arazoak, zaratak, irisgarritasunik eza, zona berde gutxi, kiratsak, zerbitzuen urritasuna edo segurtasunik eza. Beharriaren indizeak altuenak kutsadurari eta kiratsei loturiko arazoak aipatu dituztenen artean daude (%10).

3.5.3. Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak


Aldatzeko beharriaren duten familiek lortu nahi duten etxebizitzaren ezaugarriak honako hauek dira: 76,4 m²-ko batez besteko azalera, gehienbat taldeko etxebizitzan kokatuta (%91), jabetza araubidekoa (%83) eta berria edo erabilitakoa (%72). Gazteen kasuan etxebizitza horrek 64 m²-ko azalera dauka eta gehienbat jabetza araubidekoa da (%76), baina gazteek neurri handiagoan onartzen dute alokairuaren formula (%19).

Etxebizitza berriaren kokalekua bilatzeko orduan, hori udalerrian bertan egotea nahi izaten da, familien %86k eta gazteek %68k esan dutenaren arabera.

Hala eta guztiz ere, etorkizuneko edo beharriarenzako etxebizitzaren inguruko ezaugarri horiek aldatzeko izaten dituzte, beharriaren duen familiararen edo gaztearen egoitza eremuaren arabera. Aldaketak honako hauek dira:

- Hiriburuan, bai familien eta bai gazteen kasuan, alokairuaren eta etxebizitza udalerrian bertan egotearen eskaria handiagoa da. Hala ere, azalerari dagokionez, familiek handiagoa nahi dute, beste zona batzuetan baino, baina gazteek, ordea, txikiagoa nahi dute.
- Hiriburuen eremuko beste udalerri batzuetako biztanleen kasuan, alokairua orokorrean gutxiago aukeratzeko da, baina beste udalerri batera joateko joera handiagoa dago.
- Azkenik, EAEko beste zona batzuetako familiei dagokionez, aipagarria da beste udalerri batzuetara joateko joera txikiagoa dutela, beste zona batzuetako biztanleei dagokionez.

Gainera, aipagarria da lortu nahi diren etxebizitzaren batez besteko azalera gero eta txikiagoa dela kasu guztietan; hori, izan ere, higiezinaren merkatuaren baldintzetara egokitu behar izatearen eta etxebizitzaren prezioa

BEHAR DIREN ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO AZALERAREN BILAKAERA (m²)

Iturria. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila "EAEko Etxebizitza Beharrianari eta Eskariari buruzko Inkesta".

BEHAR DIREN ETXEBIZITZEN EZAUGARRI NAGUSIAK, EGOITZA ZONAREN ARABERA. 2005

Behar diren etxebizitzaren ezaugarriak	Hiriburuak		EAEko gainerakoa	EAE
	Hiriburuak	Gainerakoa		
Aurreikusitako batez besteko azalera (m²)				
Aldaketa	77,3	76,1	75,8	76,4
Lorpena	62,4	63,6	67,5	64,1
Edukitze-araub.: alokairuaren eta bestelakoaren %				
Aldaketa	24,1	8,8	22,4	17,1
Lorpena	29,9	19,0	24,4	24,1
Lekualdatze tokia (udalerri bera, %)				
Aldaketa	97,5	80,3	81,7	86,5
Lorpena	86,3	58,1	60,3	68,4
Beste udal. batera joateko prestutasuna (baiez. %)				
Aldaketa	48,9	64,8	38,8	53,2
Lorpena	64,7	88,3	80,6	76,4

Iturria: EAEko Etxebizitza Beharrianari eta Eskariari buruzko Inkesta (III-2005).

mugatu behar izatearen ondoriozkoa da. Etxebizitza behar duten gazteen kasuan, azalera %17,5ean murriztu da azken 10 urteotan, eta horrek, Eusko Jaurlaritzaren txostenean esaten denez, aditzera ematen du nolabait ere *barneratu* egin dutela etxebizitzaren tamaina txikiagoa izan behar dela, familiako etxebizitzatik independizatzeko fasean. Aldaketa kasuetan, azalera %11n murriztu da, beharrianaren eragile nagusia tamaina bera izan arren.


3.5.4. Finantza gaitasuna eta esfortzua

2005eko Oinarrizko Inkestaren emaitzek agerian jarri dutenez, biztanleriaren zati handi batek ezintasun ekonomikoa eta finantzakoa dauka merkatu askean etxebizitza lortzeko. Aldi berean, BOEn prezioak eskuragarriak dira talde horretako kiderik gehienentzat.

Lehenengo etxebizitza lortu duten gazteen diru-sarrerari garbiak, batez beste, hileko 1.345 eurokoak dira⁸


⁸ Beharriana duten taldeen diru-sarrerak etxebizitzaren ordaintzetan lagunduko duten pertsonen multzoari buruzkoak dira. Gainera, aintzat hartu behar da diru-sarrerak edukitzea ezinbesteko baldintzatariko bat dela, etxebizitza lortu beharra dagoela jotzeko.

MODU PARTEKATUAN (SOLDATA BAT BAINO GEHIAGO) FINANTZATZEN DIREN ETXEBIZITZEN GARRANTZI ERLATIBOA



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila "EAEko Etxebizitza Beharrazana eta Eskaria".

SOLDATA OSOA ETXEBIZITZA EROSTERA BIDERATU BEHARREKO URTE KOPURUA



Iturria. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila "EAEko Etxebizitza Beharrazane eta Eskariari buruzko Inkesta".

(2004an baino %10,2 gehiago), aintzat hartuta kasu guztien %36,9an bigarren pertsona baten diru-sarrerak ere barruan sartzen direla (etxebizitza finantzatzeko laguntza ematen duen pertsona). Aldatu beharra duten familiek, bestalde, batez besteko hileko 1.514 euroko diru-sarrerak dituzte (2004an baino %8,5 gehiago), eta, kasu honetan,

familia horien %48,5k bigarren soldata bat ere badute, etxebizitzarako ordainketei aurre egin ahal izateko.

1996-2005 aldian, lehenengo etxebizitza behar zuten pertsonen eta etxebizitza aldatu beharra zuten familien diru-sarrek %6 inguruko hazkundera izan dute urtean.

Horrenbestez, babes ofizialeko etxebizitza lortzeko aukera duten pertsonen proportzioa (beharrizana duten pertsonak) asko murriztu da, batik bat etxebizitza sozialei dagokienez. 2005ean, etxebizitza behar duten gazteen %13,8 soilik dago Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino 2,5 aldiz gutxiagoko soldatan, etxebizitza soziala lortzeko aukera ematen duen soldatan (1996an %55), eta %72,8k babeseko etxebizitza lortzeko muga den Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino 5,5 aldiz diru-sarrera txikiagoak dituzte (1996an %98).

Etxebizitza beharrizana duten taldeek aipatu duten gehieneko prezio onargarriak, azken urte hauetan, gora egin du, baina gorakadaren intentsitateak agerian jartzen du etxebizitza askearen merkaturako errealitatera egokitze gogoia dagoela, baina ez soldatek gora egin dutela. Hain zuzen ere, 2005ean, gazteek 143.200 eurotan finkatu dute (2004an baino %10 gehiago) gehieneko prezio onargarria, eta etxebizitza aldatu behar duten familien kasuan muga 195.900 eurokoa da (2004an baino %14,6 gehiago). (aintzat hartu behar da etxebizitza askearen —berria eta erabilia— batez besteko prezioa, 2005eko hirugarren hiruhilekoan —inkesta egiteko unea— 285.100€-koa zela). Balio oso altuak dira eta %100etik gorako hazkundeak adierazten dituzte, 1996ko balioei dagokienez (%120,6 eta %176,2, hurrenez hurren). Etxebizitza lortzeko beharrizananaren kasuan, gehieneko prezio onargarrian ikusi den hazkundeak bikoiztu egiten du aldi horretarako diru-sarreraren hazkundeak (%58,7). Desberdintasun hori, izan ere, finantza baldintzen hobekuntzaren eraginezkoa izan daiteke (interesa-tasa 1996ko %9,45etik 2005eko %3,2ra murriztea eta amortizazio epea luza-tzea), baita finantza ahalegin handiagoa egiteko prestutasuna egotearen eraginezkoa ere; hala eta guztiz ere, kasu batzuetan etxebizitza askearen merkaturako egoerara egokitu nahi izatea ere ikusten da.

Etxebizitza aldatu behar duten familien kasuan, gehieneko prezio onargarriaren hazkundeak itxuraz koherenteagoa da; izan ere, kontuan hartu behar da, horien diru-sarreretan izandako hazkundeak ez ezik (1996tik %61,5), familia horietako gehienek etxebizitza bat dutela jabetzan eta horren balioak hazkunde handia izan duela aldi honetan; horrela, berori saldu ahal izango dute, etxebizitza berriaren lorpena finantzatzeko.

Beste alde batetik, gazteek hilean 445 euro bideratu nahi dituzte etxebizitza lortzeko ordainketetara (2004an baino %6,2 gehiago), eta zenbateko hori, berriz, etxebizitza aldatu behar duten familiek batez beste bideratu nahi dituzten hileko 416 euroak baino apur bat handiagoa da.

Gainera, pertsona ia guztiek hipoteka mailegua eskatzeko asmoa dute, etxebizitzaren lorpena finantzatzeko (%94,4). Eta, oraindik ere garrantzitsuagoa dena, gazteen %72,7k etxebizitzaren prezioaren %75-100ekoa den kreditua eskatzeko asmoa dute. Horrela, esan daiteke hala-ko kasuetan zorpetzearen muga finantza erakundearen kreditu politikek eurek finkatzen dutela. Etxebizitza aldatu behar duten familiek ere hipoteka maileguaren bidezko finantziakzioa erabiltzeko asmoa dute, baina kasu horretan kredituarekiko mendekotasuna txikiagoa da. Hain zuzen ere, familia horien %68,5ek soilik eskatuko du mailegua, eta etxebizitzaren prezioaren %77-100 bitarteko zorpetzea %22,5ek baino ez dute izango. Horri dagokionez, oraingo etxebizitzaren salmenta, izan ere, finantza lasaitasunerako soluzio garrantzitsua da, familia horien kopuru handi baterako (%57,4).

Finantza esfortzua aztertzean ikusten denez, gazteek euren diru-sarreraren %33,1 bideratu nahi dituzte etxebizitza ordaintzeko, eta aldatzeko beharrizana duten familien kasuan tasa %27,5ekoa da. Adierazle hori antzeko mailetan mantendu da azken urteotan, eta beraz, esan daiteke etxe-

GEHIENOKO EROSKETA PREZIO ONARGARRIA, ETXEBIZITZA BEHAR DUEN PERTSONAK ADIERAZITAKOA (EUROAK), ETA HILEROKO BATEZ BESTEKO SOLDATA KOSTUA, SOLDATEN BILAKAERAREN KALKULUTZAT

	Lorpena	Aldaketa	B. besteko sold. kostua (€/hil.)
1996	64.910	70.920	1.417,44
1997	72.120	78.130	1.464,37
1998	78.130	78.130	1.493,08
1999	84.740	92.560	1.521,92
2000	100.370	107.580	1.549,04
2001	102.785	111.685	1.592,53
2002	111.105	133.110	1.660,15
2003	120.670	134.745	1.707,96
2004	130.210	171.010	1.757,03
2005	143.215	195.900	1.820,48

Iturria: EAEko Etxebizitza Beharrizanei eta Eskariari buruzko Inkesta (2005-III) eta Lan Kostuari buruzko Hiruhileko Inkesta (EIN).

FINANTZA DATU NAGUSIEN BILAKERA

	Sarrera						Kanbioa					
	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Batez besteko diru-sarrerak	1.105	1.143	1.146	1.232	1.220	1.345	1.139	1.202	1.314	1.303	1.396	1.514
Diru-sarrera bat baino gehiagokoen %	44,7	37,2	42,4	38,1	34,6	36,9	38,5	42,2	48,8	46,6	41,1	48,5
LGSren 2,5etik beherako diru-sarreraren %	37,8	25,8	30,4	22,8	22,3	13,8	38,7	31,4	30,6	33,9	23,1	21,8
LGSren 2,5 eta 5,5 bitarteko diru-sarreraren %	52	63,4	54,9	57,1	59,1	59	42,9	57,2	49,1	47,5	53,6	44,2
LGSren 5,5etik beherako diru-sarreraren %	89,8	89,2	85,3	79,9	81,4	72,8	81,6	88,6	79,7	81,4	76,7	66
Etxebizitzarako erabil daitekeen hilekoa	395	425	394	414	419	445	335	361	404	360	490	416
Gehieneko prezio onargarria	100.069	102.773	111.105	120.670	130.207	143.215	107.581	111.788	133.110	134.745	171.010	195.900
72.000 eurotik beherako gehieneko prezioaren %	19,6	18	18,3	16,6	14,1	3,8	23,7	25	15,5	26,4	9,8	6,7
150.000 eurotik beherako gehieneko prezioaren %	91,5	92,4	83,5	74,9	69,4	55,2	81,5	80	64	57,9	45,3	31,9
Kreditua eskatzea aurreikusita dutenen %	97,2	96,8	94,5	96,3	94,6	94,4	84,7	84,5	77,1	80,3	73,7	68,5

Iturria: EAEko Etxebizitza Beharrianen eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta.

bitzitza lortzeko finantza esfortzua mantendu egin dela azken urteotan. Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar da, hipoteka maileguen amortizaziorako dagoen epe luzeagoaren ondorioz, etxebizitza erosten duten gazteek aldi askoz ere luzeagoan mantendu beharko dutela finantza esfortzu hori. Hain zuzen ere, Inkestaren emaitzen arabera, eskaturiko maileguen batez besteko epea 1995eko nahiz aurreko urteetako 16,6 urteetatik 2004ko zein 2005eko 23,6 urteetara luzatu da (etxebizitza aldatu dutenak eta lehenengo etxebizitza lortu dutenak kontuan hartuta).

3.5.5. Generoko ikuspegia taldearen ezaugarrietan

Lehen esan dugunez, EAEko familien %8,8an 18-44 urte bitarteko pertsonaren bat dago eta horrek lehenengo etxebizitza lortzeko beharrian adierazi du. Horien erdiak (%50,6) emakumeak dira eta beste erdiak (%49,4) gizonak, eta horrela, 2004an baino banaketa orekatuagoa dago, urte horretan gizonak kasu guztien %56,5era iristen baitziren.

BEHAR DIREN ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

Ezaugarriak	Lorpena*	
	Emakumea	Gizona
EGOERA		
Berria	19,8	18,4
Erabilia	1,4	5,4
Bata zein bestea	77,2	72,7
Ed/Ee	1,6	3,5
AZALERA ERABILGARRIA		
40 m ² -tik behera	3,3	4,2
41-60 m ²	39,0	26,1
61-75 m ²	39,8	42,3
76-90 m ²	12,3	23,2
91-120 m ²	0,5	2,2
120 m ² -tik gora		
Ed/Ee	5,0	2,1
B. besteko azalera (m ²)	61,8	66,4
EDUKITZE-ARAUBIDEA		
Jabetza	75,7	76,1
Alokairua	5,7	3,9
Bata zein bestea	18,6	20,0

* % bertikala (beharrianen dutenen guztizkoa).

Iturria: EAEko Etxebizitza Beharrianari eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2005-III).

ETXEBIZITZA BEHAR DUTEN PERTSONEN EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK

Características	Lorpena*	
	Emakumea	Gizona
Beharizana duen pertsonaren adina		
18-24 urte	37,6	37,0
25-34 urte	53,8	53,4
35 urte eta gehiago	8,6	9,6
B. besteko adina	27,4	27,6
IKASKETA MAILA		
Ikasketarik ez/Oinarrizkoak	12,3	15,6
Lanbide ikasketak	34,1	37,3
Bigarren mailakoak	14,3	18,6
Unibertsitatekoak	39,4	28,6
LAN EGOERA		
Landuna/bera kontura	2,6	6,4
Landuna/kontratu finkoa	52,2	56,0
Landuna/a. baterako kontrat.	42,0	33,6
Langabetua	1,1	3,3
Ikaslea	0,0	0,0
Beste bat	2,1	0,7

* % bertikala (beharizana dutenen guztizkoa).

Iturria: EAEko Etxebizitza Beharizanari eta Eskariari buruzko Oinarrizko Inkesta (2005-III).

Bi sexuetakoa batez besteko adinak berdinak dira, baina heziketaren aldetik desberdintasunak daude; izan ere, aurreko urteetan bezala, emakumeek ikasketa maila altuagoa dute: %39,4k unibertsitateko ikasketak dituzte, eta gizonen kasuan tasa %28,6koa da. Gizonen artean, heziketa nagusia lanbide ikasketek osatzen dute (%37).

Enpleguaren ikuspegitik begiratuta, esan behar da enplegu maila oso antzekoa dela gizonen eta emakumeen artean (%96 ingurukoa), baina euren kontura lan egiten duten gizon kopuru handiagoa dago (%6,4, eta emakumeen kasuan %2,6); gainera, gizonek emakumeek baino lan egonkortasun handiagoa dute (hurrenez hurren %56 eta %52,2 kontratu finkoarekin), eta langabeziak, azkenik, eragin handiagoa dauka gizonen artean (%3,3) emakumeen artean baino (%1,1).

Etxebizitzaren ordainketa egiteko finantza gaitasunak ere sexuen arteko desberdintasunak ditu: bi taldetan hileroko diru-sarrerak garbiak nahiko antzekoak izan arren, desberdintasunik handienak gehieneko prezio onargarrian eta hileroko ordainketarako gaitasunean agertzen dira, eta bi adierazle horietan gizonen egoera emakumeena baino hobea da. Hain zuzen ere, gizonen (1.385,87 euroko hileroko diru-sarrerak) 152.000 euroko gehieneko prezioa finkatzen dute etxebizitzarako, eta hileroko 486 euroko gehieneko ordainketa; hain zuzen ere, hileroko diru-sarreraren %35,1eko esfortzua. Emakumeen kasuan, hileroko batez besteko diru-sarrerak 1.300 eurokoak dira eta horietatik 400 euro erabiliko lituzkete etxebizitza or-

daintzeko (%31), eta gehieneko prezio onargarria, berriz, 133.700 eurokoa da.

Etxebizitza finantzatzeko orduan ere desberdintasunak daude; horrela, gizonen emakumeek baino joera handiagoa dute finantziario horren ardura eurek bakarrik hartzeko; hain zuzen ere, emakumeen %41ek eta gizonen %33k onartu dute partekaturiko finantziarioa. Bi talde horiek berdindu egiten dira hipoteka mailegua eskatzeari dagokionez, etxebizitza finantzatzeko, eta hori bi sexuetakoa %82k onartzen dute. Hala ere, emakumeen kasuan mailegua etxebizitzaren prezioaren %74ra iristen da eta gizonen kasuan finantziario beharizana ia %83ra iristen da.

3.5.6. Babesteko moduko segmentua, finantza gaitasunaren arabera

Etxebizitza politika publikoen arreta duen taldearen barruan, euren muga ekonomikoak eta finantzakoak aintzat hartuta etxebizitzaren arloko babespeko jarduketak jasotzaileak diren pertsonak bereizi behar dira. Horri dagokionez, pertsonen egoera ekonomikoa bereizteko aldagai nagusia, izan ere, adierazitako gehieneko prezio onargarria da; egin-eginean ere, galdera horri erantzutean, elkarriketaturiko pertsonen aintzat hartzen dute euren eskuratzeko ahala zehazten duten inguruabarren multzoa (diru-sarrerak, ondareak, familia kargak, etab.). Nolanahi ere, azterketa hori diru-sarreraren aldagaiaren arabera egindakoarekin osatzen da (etxebizitzaren indarreko araudiak erabilitako aldagaia).

Babesteko moduko beharrianak bereizteko balio kritikoak dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailak erreferentziako bi puntu planteatzen ditu: 96.000 €-ko muga, BOEn salmenta prezioei aurre egiteko zailtasunak dituzten pertsonak identifikatzeko, eta 150.000€-ko muga, etxebizitza askea lortzeko zailtasunak dituzten pertsonak identifikatzeko. Lehenengo mugari dagokionez, Oinarrizko 2005eko Inkestaren emaitzek diotenez, etxebizitza behar duten pertsonen %19,2k uste dute ezin dutela prezio horretako etxebizitzarik erosi. Gainera, etxebizitza aldatu behar duten etxeen %6,5 ere egoera berean daude, eta horrela, orokorrean, beharrian horien %14,3k laguntza sozialagoak behar dituzte etxebizitzaren arloan.

Babesteko moduko segmentuak hazkunde handia dauka bigarren mugari dagokionez (150.000€), eta horrela, etxebizitza behar duten pertsonen %55,2k eta etxebizitza aldatu behar duten familien %16,5ek ez dute prezio horretako etxebizitza erosteko gaitasunik. Horrenbestez, Oinarrizko 2005 Inkestak detektaturiko beharrian guztien %40,5ean zailtasunak daude etxebizitza askea lortzeko. Nolanahi ere, ondorio horiek apur bat desberdinak dira, familiek haztaturiko diru-sarrera gordinen maila aintzat hartuta ateratzen diren ondorioetatik (etxebizitzarako laguntza publikoak ematean erabiltzen den irizpide ofiziala). Horrela, etxebizitza behar duten gazteen %13,8k eta etxebizitza aldatu behar duten familien %9,1ek 15.000€-tik beherako diru-sarrerak dituzte, eta horrela, laguntza sozialen arloan kokatzen dira. Halaber, lehenengo etxebizitza lortu nahi duten gazteen %72,7k eta etxebizitza aldatu nahi duten familien %26,3k 33.000€-tik beherako haztaturiko diru-sarrera gordinak dituzte, eta beraz, laguntza ofizialak lortu eta BOE baten esleipendunak izan daitezke.

Bi aldagaien arabera (prezio onargarriak eta diru-sarrerak) lorturiko emaitzak aintzat hartuta, pertsona gazteen %72,7k 33.000€-tik beherako diru-sarrerak dituzte, eta gehienek 150.000€-ko etxebizitza erosteko gaitasuna dutela uste dutenen proportzioa nahiko txikiagoa da (%55,2). Datu horiek, hortaz, agerian jartzen dute diru-sarrera mailaren arabera "babesgarria" den biztanleria segmentu bat dagoela eta horrek, hala ere, BOEak baino garestiagoa den etxebizitza lortzeko gaitasun ekonomikoa eta finantzakoa duela.

Azkenik, beharrian duten pertsonen "babesgarri" identifikazioa kontuan hartuta, lehenengo etxebizitza lortu behar duten pertsona gazteen %69,4 eta etxebizitza aldatu behar duten familien %24 babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzailetzat inskribaturik daude.

BEHARRIZANEN LABURPENA ETA SEGMENTU BABESGARRIA LORTZEKO BEHARRIZANA DUTEN PERTSONAK

Lortzeko beharrian duten pertsonak	Aldatu beharra duten familiak
• Laguntza talde jasotzailea %100	• Laguntza talde jasotzailea %39,2
Segmentu babesgarria, gehieneko prezio onargarrien arabera: • 42.000 € baino gutxiago: %3 • 72.000 € baino gutxiago: %9,3 • 96.000 € baino gutxiago: %19,2 • 120.000 € baino gutxiago: %33,7 • 150.000 € baino gutxiago: %55,2	Segmentu babesgarria, gehieneko prezio onargarrien arabera: • 42.000 € baino gutxiago: %0 • 72.000 € baino gutxiago: %1,8 • 96.000 € baino gutxiago: %6,5 • 120.000 € baino gutxiago: %14,3 • 150.000 € baino gutxiago: %16,5
Segmentu babesgarria, haztaturiko diru-sarrera gordinen arabera: • 9.000 € baino gutxiago: %4 • 15.000 € baino gutxiago: %13,6 • 21.000 € baino gutxiago: %41,9 • 27.000 € baino gutxiago: %65,6 • 33.000 € baino gutxiago: %72,7	Segmentu babesgarria, haztaturiko diru-sarrera gordinen arabera: • 9.000 € baino gutxiago: %2,2 • 15.000 € baino gutxiago: %9,1 • 21.000 € baino gutxiago: %14,2 • 27.000 € baino gutxiago: %20,1 • 33.000 € baino gutxiago: %26,3

3.6. Etxebizitza politika eta finantziarioa

3.6.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren aurrekontu gastua, joan den hamarkadan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoaren 52,8koa izan da (1997-2005 aldiko batez bestekoa). 1997-2001 aldian, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoan izandako partaidetza %2,2koa izan zen. 2002ko ekitalditik aurrera, aurrekontu mailari loturiko egoera hori zuzendu egin da apur bat, eta horrela, sailaren aurrekontuak %3 inguruko partaidetza dauka Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoan.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Etxebizitza Programaren barruko gastuak hazkunde handia izan du azken urteotan, eta 2005ean 157,4 milioi euroko zenbatekoa izan du, 153,70 milioiokoa hasierako aurrekontuan oinarrituz. Gastu hori EAEko BPGren %0,27ra iristen da, behin-behineko datuek diotenez, eta tasa ia aldatu barik mantendu da azken urteotan.

Era beran, handitu egin da programaren arloan egin dako inbertsioen bolumena, eta hori 2005ean 127,5 milioi

EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA PROGRAMAREN AURREKONTUAREN BILAKAERA ETA BPGN DUEN GARRANTZIA

	Etxebizitza programaren aurrekontuak		EAEko BPG prezio korronteetan		Progr. % BPGn
	Euroak mili.	Hazkund. %	Euroak mili.	Hazkund. %	
1997	79,59		32.987		0,24
1998	82,42	3,6	35.968	9,0	0,23
1999	78,01	-5,4	38.859	8,0	0,20
2000	83,11	6,5	41.958	8,0	0,20
2001	97,00	16,7	44.249	5,5	0,22
2002	126,20	30,1	46.559	5,2	0,27
2003	131,90	4,5	49.573	6,5	0,27
2004	139,90	6,1	53.336	7,6	0,26
2005	153,70	9,9	57.515	7,8	0,27

(*) Hasierako aurrekontuak dira.

Iturria: Geuk landuta, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Eustaten datuetan oinarrituz.

ETXEBIDE PLANAREN GAUZAPENAK (JARDUKETA KOPURUA)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Babeseke etxebizitzaren eraikuntza hasita	2.835	4.284	5.054	6.625	4.427	4.625
– Babes ofizialeko etxebizitzak	2.253	3.695	3.954	5.816	3.981	3.830
– Etxebizitza sozialak	582	589	1.100	809	446	795
Lurzoruaren lorpena (etxebizitza kopurua)	4.653*	3.297*	2.277	2.065	3.430	3.890
Etxebizitzak eta erakinek birgaitzeko ekintzak	6.876	9.106	12.040	11.159	23.914	15.471
Etxebizitza aske erabilitakoa lortzeko laguntzak	1.207	2.099	n.d.	1.509	2.142	645
Etxebizitza hutsa alokatzeko eta alokairurako erosteko laguntzak	—	—	n.d.	528	718	889

(*) 2000ko 767 etxebizitzaren eta 2001eko 1.207 etxebizitzaren hirigintza ere barne.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako saila.

eurokoa izan da. Gainera, aipagarria da programa horrek urteetan izandako inbertsio-izaera nagusia, 1987-2005ean egindako inbertsioak gastuen bolumen osoaren %91koak baitira.

Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politikak, 2005ean, 2002/2005eko Etxebizitza Plan Zuzendariak (Etxebide-III) finkaturiko ildo estrategikoei jarraitu die. Hala eta guztiz ere, funtsean, aurreko Planaren jarraibideen ildotik joan arren, Etxebide-III planak 400 milioi euroko aurrekontua dauka, plan horren helburu nagusia babeseke etxebizitzaren eskaintza %25ean handitzea da, merkatuan 25.400 etxebizitza berri jarrita: salmentarako BOEak, alokairurako etxebizitza soziala, alokairurako etxebizitza hutsaren mugimendua eta erabilitako etxebizitza askea erosteko laguntza.


Planaren 2005eko garapenari dagokionez, dirudienegeldiarazi egin da babeseke etxebizitzaren eraikuntzaren beherakada (2004koa); hain zuzen ere, 4.625 etxebizitza hasi dira egiten, 2004an baino %4,5 gehiago (azken urte horretan, halako jarduketaren murriztapen handia, 2003ari zegokionez, bai BOEn — %31,6— eta bai etxebizitza

sozialetan — %44,9—). 2005ean 3.830 BOEren eraikuntza eta 795 etxebizitza sozialaren eraikuntza hasi da. Gainera, sailak eraikuntzarako lurzoria lortzeko egindako jarduketak ugaritu egin dira: 3.890 etxebizitza berri eraikitzeke lurzoria lortu da (2004an baino %13,4 gehiago). Bestalde, etxebizitza eta eraikin parkea birgaitzeko jarduketak nabarmen murriztu dira, 2004ko 23.914etatik azken urteko 15.471 tara igarota (—%35,3).

Eskaintza eta eskaria sustatzeko emandako laguntzei dagokionez (maileguak eta dirulaguntzak), 2005ean horien bolumenak beherakada orokorra izan du. Guztira, 2005eko 233,5 milioi euroek %28,5eko murriztapena adierazten dute, 2004ari dagokionez, eta aurreko bi urteetan, berriaz, laguntzetarako bolumen osoak gora egin zuen, batez ere 2003an 2002ari zegokionez (%39,9) eta nahiko gutxiago 2004an (%3,1).


Lehenengo eta behin, azken urtean emandako mailegu kopuruak %14,3ko hazkundea izan arren (1.297tik 1.483ra igarota), horien zenbateko osoak (216,2 milioi euro) %29,2ko murriztapena izan du. Aipagarriak dira sustatzaileei emandako maileguen murriztapena, bai espe-

ETXEBIZITZA PROGRAMAKO GASTUEN ETA DIRU-SARREREN BILAKAERA



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

ETXEBIZITZA PLAN ZUZENDARIA: MAILEGUAK ETA DIRULAGUNTZAK LURRALDEKA. €-AK MILATAN



Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Etxebideren Estatistikak.

diente kopuruari (–%30,2) eta bai zenbatekoari (–%33,9) dagokionez; halaber, nabariak dira erabilitako etxebizitza (zenbateko osoak %54,3ko murriztapena) eta alokairuko etxebizitza (–%61,4, baina espediente kopuruak hazkunde handia) lortzeko eman diren maileguak. Aldiz, babese-ko etxebizitza erosteko eta birgaitzeko maileguek %12,1eko hazkunde eta %260,2ko hazkunde itzela izan dute, hurrenez hurren, eta ia 25 milioi euro bideratu dira

horretara. Bestalde, dirulaguntzek %38,2ko murriztapena izan dute 2005ean, espediente kopuruari dagokionez, eta %17,8koa, zenbateko osoari dagokionez. Dirulaguntzeta-rako 17,2 milioietatik 16,5 etxebizitza birgaitzeko jarduketetara bideratzen dira. Gainera, halako espedienteen kopuruak murriztapen handia izan du, eta horrela, birgaitze jarduketa bakoitzeko batez besteko dirulaguntzak gora egin du, aurreko urteari dagokionez. Hain zuzen ere, 628€-ko batez besteko dirulaguntzatik 1.069 eurora igaro da (+%70).

Lurraldeen arabera, Bizkaian (2004an dirulaguntza guztien erdia jaso ondoren) kontzeptu horretako fondoen bolumenak %41,9ko murriztapena izan du, eta horrela, 2005ean jasotako 6,8 milioi euroak guztizkoaren %39,6 dira. Aldiz, lurralde horretan emandako maileguek hazkunde handia izan dute azken urte horretan eta 84 milioi eurotik gorakoak dira; horrela, guztizkoaren partaidetzak 2004ko %17,9tik 2005eko %38,8rako hazkunde izan du. Araban murriztu egin dira bai maileguetarako fondoak (–%63,1) eta bai dirulaguntzak (–%13,2), eta Gipuzkoan, azkenik, bi kontzeptu horiek gora egin dute (%8,2 eta %21,4, hurrenez hurren).


3.6.2. Foru Aldundien etxebizitza politika

Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika ez ezik, interesgarria da Foru Aldundiek etxebizitzaren arloko esku-

ETXEBIDE PLANEKO MAILEGUAK ETA DIRULAGUNTZAK, HELBURUAREN ARABERA

Helburua	2002		2003		2004		2005	
	Esped. kopurua	Zenbatekoa (€ milatan)	Esped. kopurua	Zenbatekoa (€ milatan)	Esped. kopurua	Zenbatekoa (€ milatan)	Esped. kopurua	Zenbatekoa (€ milatan)
MAILEGUAK	2.155	215.110	1.521	297.596	1.297	305.467	1.483	216.277
Sustatzailea	516	198.895	184	277.306	63	264.936	44	175.098
Eskuratzaila, babesekoa	—	—	—	—	118	7.551	135	8.468
Eskuratzaila, erabilia	15	768	5	205	13	796	6	364
Birgaitzea	1.623	9.809	1.312	8.119	1.108	6.889	1.287	24.814
Alokatzeko eskuratuta	—	—	17	1.548	4	19.510	11	7.533
Lurzorua eta hirigintza	—	—	3	10.418	—	—	—	—
Orokorra	—	—	—	—	2	5.882	—	—
DIRULAGUNTZAK	12.746	11.138	12.673	19.061	26.058	21.005	16.116	17.274
Lorpena	706	6.272	1.509	13.094	2.142	5.988	645	732
Birgaitzea	12.040	4.866	11.159	5.944	23.914	15.017	15.471	16.542
Alokatzeko eskuratuta	10	33	2	17	2	—	—	—
Babespeko errentamendua	10	33	3	6	—	—	—	—

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

ETXEBIZITZAREN ERAGINEZKO MURRIZTAPENEN ZENBATEKOEK PFEZN IZANDAKO BILAKAERA ETA MURRIZTAPEN GUZTIEN GARRANTZIA

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Zerga Koordinazioko Organoa.


hartze publikotzat dituzten gastu fiskalen zifra handiak ezagutzea. Horri buruzko azken datu erabilgarriak 2003ari buruzkoak dira, eta iturritzat, berriz, Eusko Jaurlaritzako Zerga Koordinazioko Organoaren "EAEko Ogasunaren urteroko txosten integratua" hartzen da.

Hiru Foru Aldundien PFEZren eraginezko likidazioetan oinarrituz ondorioztaturikoaren arabera, ohiko etxebizitzaren (alokairua, inbertsioa eta errentamendua) eraginezko murriztapenak (lehenengo murriztapen kuantitatiboak, %38,8rekin), 2003an, 356,9 milioi eurokoak izan

ziren guztira, aurreko urtean baino %9,1 gehiago. Zenbateko hori, izan ere, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak urte horretan aurrekontuan jasotako gastuaren %270,6koa da, aurreko atalean ikusi dugunez.

Murriztapenak handiagoak dira errenta ertainetan: likidazio-oinarriko 6.000-18.000€-ko tartean (aitorpenen %44 eta likidazio-oinarriaren %31) etxebizitzaren eraginezko murriztapenen %40,3 sartzen dira, guztira 143.839€. Horren ostean, garrantzitsua 18.000-30.000€-ko likidazio-oinarria duen tartea dago; horren barruan, ai-

PFEZ 2003: MURRIZTAPENEN EHUNEN BANAKETA, MOTEN ARABERA



Iturria: EAEko Ogasunaren urteroko txosten integratua. Eusko Jaurlaritza.

torpen guztien %24 eta murrizturiko zenbateko osoaren %34,9 sartzen dira. Hala eta guztiz ere, errentarik txikieneko aitortpenen %21ari (likidazio-oinarriko 6000€-raino) etxebizitzaren eraginezko murriztapenen %3,2 soilik dagokio. Lurreldeka, murriztapen guztien %46,6 Araban izan dira, %37,2 Bizkaian eta %38 Gipuzkoan.

Grafikoan ikusten denez, ohiko etxebizitzaren eraginezko murriztapenen zenbatekoak etengabeko hazkundea

izan du azken urteotan, eta horrela, 2003ko zenbatekoa 1997koaren %235 da. 1999tik 2000ra bitartean +%40,3ko hazkunde handia egon zen, epigrafe honetan etxebizitza errentatzearen eraginezko murriztapenak sartzen hasi zirelako, horiek ordura arte familien eraginezko murriztapenen eta murriztapen pertsonalen artean sartzen baitziren).

3.6.3. Eraturiko hipotekak eta interes-tasen bilakaera

EINen "Hipoteken Estatistika" esaten denez, 2005ean (behin-behineko datuak) EAEen eraturiko hipoteka kopuruak %11ko hazkundea izan du aurreko urteari dagokionez, eta 41.000tik gorako kopurua dago. Hazkunde horrek intentsitate bera izan du estatu osoan, Erkidegoak Estatuaren guztizkoan duen partaidetza %3,4 inguruan mantendu baita. Lurreldeen arabera, aipagarria da hipotekak Araban izandako %26,4ko hazkundea, eta bigarren postuan Bizkaia dago (+%12,5). Aldiz, Gipuzkoan batez bestekotik beherako hazkundea egon da (%2,6), eta gainera, 2004an hipoteka kopuruak %3,2ko murriztapena izan zuen.

Hipoteken batez besteko zenbatekoek izandako bilakaerari dagokionez, EAEen %10eko hazkundea izan dute, eta hazkunderik handiena Gipuzkoan egon da (%12,9). Horren ostean Bizkaia dator, %10,8rekin, eta azkenik,

ETXEBIZITZAREN ERAGINEZKO MURRIZTAPENEN ZENBATEKOA, PFEZREN AITORTPENETAN. 2003. EUROAK MILATAN

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Ohiko etxebizitza. alokairua	4.929,55	8.380,86	7.833,72	21.144,13
Etx. aurrezpena	6.454,08	18.617,68	8.379,13	33.450,89
Ohiko etxebizitza. inbertsioa	37.399,48	119.048,12	64.841,40	221.289,00
Ohiko etxebizitza. finantziarioa	12.562,68	38.447,12	23.167,36	74.207,16
Etxebizitzaren errentamendua	1.067,97	1.891,01	3.870,64	6.829,62
Etxeb. Murriz. Guzt.	62.413,66	186.414,79	108.092,25	356.920,71
Murriztapen Guzt. %	46,6	37,2	38,0	38,8


Iturria: Eusko Jaurlaritza. EAEko Ogasunaren urteroko txostena.

ETXEBIZITZEN HIPOTEKAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA


	Hipoteka kopurua				Zenbateko osoa (€-ak milioietan)				B. besteko zenbatekoa (€)			
	2003	2004	2005*	Ald. %	2003	2004	2005*	Ald. %	2003	2004	2005*	Ald. %
Araba	4.604	4.704	5.944	26,4	531	587	753	28,3	115.300	124.874	126.682	1,4
Gipuzkoa	12.344	11.953	12.259	2,6	1.440	1.567	1.815	15,8	116.676	131.113	148.054	12,9
Bizkaia	19.745	20.551	23.113	12,5	2.258	2.622	3.267	24,6	114.335	127.560	141.349	10,8
EAE	36.693	37.208	41.316	11,0	4.229	4.776	5.835	22,2	115.243	128.362	141.229	10,0
Estat. %	3,7	3,4	3,4	—	4,4	3,9	3,8	—	118,6	102,8	113,4	—

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: EIN "Hipotekari buruzko Estatistika".

HIPOTEKA MAILEGUEN ERREFERENTZIAKO INTERES-TASA. URTEKO BATEZ BESTEKOAK.


Iturria: Banco de España.

HIPOTEKA MAILEGUEN ERREFERENTZIAKO INTERES-TASEN HILEROKO BILAKAERA


Iturria: Banco de España.

Araba, %1,4ko hazkundearekin. Horrela, EAEn etxebizitzaren hipoteken batez besteko zenbatekoa 141.229€-koa da. Estatuan, etxebizitzaren hipotekaren batez besteko zenbatekoa, 2005ean, 124.538€-koa izan da (2004an baino +%12,9 gehiago eta EAEko batez bestekoa baino %13 gutxiago).

Bestalde, hipoteken interes-tasek bilakaera desberdinak izan dituzte, bai urtean zehar eta bai aurreko urteetako urteko batez bestekoei dagokienez. Lehenengo eta behin, MIBOR eta EURIBOR deritzenen hileko bilakaerak goranzko joera adierazten du, eta biek ere abenduan izan dute gehienekoa, %2,780ko eta %2,783ko balioekin, hu-

ETXEBIZITZEN HIPOTEKAK, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2004ko BEHIN BETIKO DATUAK.

	Kopurua	Zenbatekoa (€-ak milatan)	B. best. zenb. (€-ak milatan)
Estatua	1.107.664	122.147.451	110.275
Andaluzia	197.480	19.136.054	96.901
Aragoi	27.290	2.937.132	107.627
Asturias	21.236	1.882.366	88.640
Balearrak	29.884	3.649.781	122.132
Kanariak	51.205	4.916.009	96.006
Kantabria	12.399	1.227.931	99.035
Gaztela-Mantxa	38.689	3.794.636	98.080
Gaztela-Leon	47.414	4.611.029	97.250
Katalunia	211.116	26.586.113	125.931
Valentziako Erk.	156.790	14.501.544	92.490
Extremadura	15.215	1.050.055	69.014
Galizia	44.453	3.942.351	88.686
Madril	153.666	23.035.961	149.909
Murtzia	42.323	3.844.149	90.829
Nafarroa	11.648	1.278.983	109.803
EAE	37.208	4.776.080	128.362
Errioxa	7.320	772.280	105.503
Ceuta eta Melilla	2.328	204.997	88.057

Iturria: EIN "Hipoteken Estatistika".

rrenez hurren. Aldiz, kutxen eta bankuen tasak murriztapenekin hasi ziren 2005ean, eta urte horretako bigarren erdian suspertu egin dira; horrela, urte amaierako balioak hasierakoen ia berberak dira. Azkenik, CECAren interes-tasak gorabeherak izan ditu urte osoan, eta urtea hasierako balio berarekin amaitu du (%4,5).

2003ko eta 2005eko batez besteko tasak konparatuz, honako hau ikusten da:

- CEDA adierazlea %4,708tik %4,479ra igaro da, eta beraz, %4,9ko murriztapena izan du.
- Urtebeterako MIBOR eta EURIBOR adierazleek (batez besteko balioetan milaren bateko aldea baino ez) %2,6ko hazkundera izan dute, aurreko urtean %2,7ko murriztapena izan ondoren. Horrela, ia berreskuratu egin dituzte 2003ko balioak.
- Bankuen eta aurrezki kutxen tasek bilakaera paraleloak izan dituzte, bien arteko alde oso txikiarekin, eta %2,6ko eta %1,8ko murriztapena izan dute, hurrenez hurren, urteko batez bestekoak aintzat hartuta.

4

Aisialdia, kultura eta kontsumoa

4.1. Finantziazioa eta gastu publikoa kulturean

“Gastu Publikoa Kulturean, Kirolean eta Aisialdian EA-En” deritzonari buruzko atala EAEko Memoria Ekonomikoaren lehenagoko edizioetan jasota egon arren, 2004ko edizioan ez zen jaso, atala lantzeko erabiltzen ziren informazio iturrietariko batzuek utzi egin baitzioten gainerakoak asimilatze moduko datuak emateari. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundian berrantolaketa egon zen eta Diputatu Nagusiaren sailak kultura jardueretariko batzuek bereganatu zituen (Arteleku, Liburutegiak, Ondarea, Artxiboak, ...), eta horrela, ezinezkoa izan zen Lurralde Historiko osorako ikerketa fidagarria egitea, horretarako beharrezkoa baitzen ezagutzen ez zen kudeaketaren zatia banakatzea, baita komunikazioaren nahiz prospekzioaren atalak banakatzea eta abar egitea ere.

Egoerak bere horretan dirauen arren, geure Memoriaren aurtengo edizioan eskaintzen diren datuek aukera ematen dute Kulturearen sektoreak EAEko ekonomian eta gizartearen duen garrantzia kalkulatzeko, zeharreko iturriak erabiliz. Hain zuzen ere, 2005ean Kultura Ministerioak “Kultura Estatistiken Urtekaria” argitaratu zuen lehenengoz, eta horrek informazio horren zati bat berreskuratze-ko aukera ematen du, eta gainera, Erkidegoak Estatuaren testuinguruan duen posizioa jakitea ahalbidetzen du¹.

Hain zuzen ere, Urtekari horren barruan, Estatuko Administrazio Nagusiak, Administrazio Autonomikoak eta Toki Administrazioak kulturearen arloan egindako gastu publikoari eta finantziarioari buruzko informazioa dago; arlo horren barruan, EAEren kasuan, Foru Aldundiak sartzen dira. Estatuko Administrazio Nagusiari buruzko datuak ez daude autonomia erkidegoen arabera banatuta, baina beste bi administrazioei buruzko datuak bai. Datu horiek aurkeztu baino lehen, gauza bi esan behar dira: alde batetik, aintzat hartu behar da, Urtekari ohar metodologikoek emandako informazioaren arabera, autonomia erkidegoek eskaturiko informazio guztia eman ez dutenean bidezko kalkuluak egin direla; bestetik, argitalpenak berak esaten du ezinezkoa dela iturri guztietako datuak finkatzea, autonomia erkidegoen arabera informazioa emateko.

Kultura Ministerioak Urtekariaren ustez, Kulturako gastu Publikoa hauexek dira: “*herri administrazioek kultura bideraturiko gastu likidatua, onarturiko betebeharren fasean, eta beraz, gastuaren izaera publikoa edo pribatua finantzaketa-egilearen izaerak eragiten du, eta ez finantza-hartzailearen izaerak*”. Ez dira ondorioztatzen kultura erakunde publiko batzuek (esate baterako, museoak) eduki ditzaketan diru-sarrera pribatuak. Halaber, ez dira

¹ Ikerketa honen eremuan sartutako kultura sektoreak honako hauek dira: kultura ondasunak eta zerbitzuak (monumentuak, museoak, meotoiak, artxiboak eta liburutegiak), arte plastikoak eta eszenikoak (erakusketak, argazkigintza, musika, dantza, antzerkia), liburuak eta ikus-entzunezkoak (zinea, bideoa eta grabaturiko musika), eta diziplina anitzekoak (kultura sustapena eta zabalkundea, administrazioa eta zerbitzu orokorrak eta hizkuntza politika).

kulturako gastutzat hartzen enpresek edo norbanakoek kultura erakunde publikoei egindako sustapenen, dohaintzen eta abarren bidez izan ditzaketen desgrabazioak.

Kultura Ministerioak emandako datuen arabera, Eus-
kal Autonomia Erkidegoko Administrazioak 2003an kultu-
ran likidaturiko gastua 75,1 milioi eurokoa da, 2000n bai-

no 9,5 milioi gehiago, eta horrek %14,5eko hazkundera adierazten du. Gastu hori, izan ere, Estatuko administra-
zio autonomikoek 2003an kulturen likidaturiko gastu oso-
aren %6,2koa da, eta Eusko Jaurlaritzak urte horretan
egindako gastu osoaren %1,2koa. Gainera, Erkidegoko
BPGren %0,16koa da (autonomia erkidego guztien batez

ADMINISTRAZIO AUTONOMIKOEN KULTURAN LIKIDATURIKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2000 ETA 2003

	Balio Absolutuak (€-ak milioitan)		Estatuan kulturen likidaturiko gastuaren %		AAEEtan likidaturiko gastuaren %		BPGren %		Biztanleko b.besteko gastua (€)	
	2000	2003	2000	2003	2000	2003	2000	2003	2000	2003
Estatua guztira	951,7	1.217,9	100,0	100,0	1,18	1,09	0,16	0,16	23,5	28,5
Andaluzia	129,1	172,4	13,6	14,2	0,78	0,82	0,16	0,17	17,6	22,7
Aragoi	23,9	27,3	2,5	2,2	1,21	0,78	0,13	0,12	20,1	22,2
Asturias	20,8	36,7	2,2	3,0	1,26	1,29	0,15	0,23	19,3	34,1
Balearrak	9,9	15,7	1,0	1,3	1,06	0,73	0,07	0,08	11,8	16,5
Kanariak	26,9	30,8	2,8	2,5	0,69	0,67	0,11	0,10	15,7	16,3
Kantabria	17,0	29,6	1,8	2,4	2,13	1,92	0,22	0,31	31,9	55,8
Gaztela eta Leon	69,7	84,5	7,3	6,9	1,64	1,17	0,20	0,20	28,1	34,0
Gaztela-Mantxa	48,7	46,5	5,1	3,8	1,55	0,82	0,23	0,18	28,1	25,6
Katalunia	154,1	210,4	16,2	17,3	0,99	1,21	0,14	0,15	24,6	31,4
Valentziako Erk.	133,0	118,6	14,0	9,7	1,76	1,25	0,23	0,16	32,3	26,5
Extremadura	36,6	44,6	3,8	3,7	1,82	1,25	0,35	0,34	34,2	41,5
Galizia	85,3	101,7	9,0	8,4	1,33	1,27	0,26	0,26	31,2	37,0
Madril	68,1	141,0	7,2	11,6	1,12	1,21	0,06	0,11	13,1	24,6
Murtzia	11,8	24,3	1,2	2,0	0,80	0,89	0,08	0,13	10,3	19,1
Nafarroa	37,6	38,5	3,9	3,2	1,65	1,43	0,36	0,31	69,1	66,6
EAE	65,6	75,1	6,9	6,2	1,24	1,17	0,17	0,16	31,2	35,6
Errioxa	7,0	8,4	0,7	0,7	1,54	1,00	0,15	0,15	26,4	29,3
Ceuta	2,1	7,7	0,2	0,6	1,74	4,06	—	0,34	27,3	102,3
Melilla	4,7	4,2	0,5	0,3	3,79	2,84	—	0,35	71,3	61,0

Iturria: Kultura Ministerioa "Kultura Finantziazioaren eta Gastu Publikoaren Estatistikak. Kultura Estatistiken Urtekaria (2005)".

TOKI ADMINISTRAZIOEK KULTURAN LIKIDATURIKO GASTUA, ERAKUNDEAREN ETA HELBURUAREN ARABERA. EUROAK MILATAN. 2003

	Gastua erakunde motaren arabera			Gastua helburuaren arabera		
	Guztira	Udalak	Aldundiak, kontseiluak eta kabildoak	Guztira	Sustapena eta zabaldekundea	Arkeologia eta ondarearen babesa
Estatua guztira	2.645,9	2.178,7	527,0	2.645,9	2.413,1	232,8
Andaluzia	353,2	302,7	58,1	353,2	326,4	26,8
Aragoi	87,7	72,5	21,0	87,7	78,0	9,7
Asturias	47,3	47,3	—	47,3	46,2	1,1
Balearrak	67,0	44,9	23,6	67,0	57,1	9,9
Kanariak	199,8	95,2	113,1	199,8	168,4	13,4
Kantabria	21,3	21,3	—	21,3	20,1	1,2
Gaztela eta Leon	137,2	116,7	24,7	137,2	130,4	6,8
Gaztela-Mantxa	131,6	117,1	17,2	131,6	126,4	5,2
Katalunia	467,6	399,8	81,2	467,6	426,3	41,3
Valentziako Erk.	270,0	231,3	42,2	270,0	235,6	34,4
Extremadura	56,6	46,4	11,1	56,6	48,8	7,9
Galizia	162,0	126,6	40,3	162,0	154,3	7,8
Madril	258,3	258,3	—	258,3	237,9	20,4
Murtzia	54,7	54,7	—	54,7	46,8	7,9
Nafarroa	31,4	31,4	—	31,4	32,3	0,0
EAE	272,7	184,8	94,7	272,7	237,4	35,3
Errioxa	27,6	27,6	—	27,6	23,8	3,9

Iturria: Kultura Ministerioa "Kultura Finantziazioaren eta Gastu Publikoaren Estatistikak. Kultura Estatistiken Urtekaria (2005)".

bestekoa). Adierazle horretan, lehenengo postuetan dauden erkidegoak Extremadura eta Nafarroa dira, Ceuta eta Melilla euren ezaugarri berezien eraginez albo batera utziz gero. Biztanle bakoitzeko gastuari dagokionez, EAEn gastu hori 35.60€-koa izan da 2003an, 2000n baino 4,40 euro gehiago, eta zenbateko hori Estatuko batez bestekoa baino %25 handiagoa da.

Gastuaren helburuari erreparatuta ikusten denez, EAEn 75,1 milioi euroetako %28,9 kultura ondasunetara eta zerbitzuetara bideratu zen 2003an, eta ez dakigu gainerako %71,5 zertan banatu zen. Bestalde, gastuaren izaera ekonomikoari dagokionez, %79,1 gastu korronteak dira (Estatuko batez bestekoa %56,9), %15,2 kapital gastuak (Estatuko batez bestekoa %41,3) eta gainerako %5,7 finantza aktiboak nahiz pasiboak dira.

Bestalde, Urtekarian adierazitakoaren arabera, EAEko "Toki Administrazioetat" katalogatuta, 2003an 272,7 milioi euroko gastua egin da kulturari, hau da, Estatuko gastu osoaren %10,3. EAEko Toki Administrazioaren barruan, 184,8 milioi euro udalei dagozkie, eta 94.675 Foru Aldundiei². Gastuaren helburuari dagokionez, %87 kultura sustatzeko eta zabaltzeko erabiltzen da, eta gainerako %13 Arkeologiarako eta Ondarearen Babesarako.

4.2. EAEko biztanleriaren ohiturak aisialdiaren erabileran

4.2.1. Komunikabideen sartzeara

KIEk (Komunikabideak Ikertzeko Elkarteak) emandako datuen azterketatik ondorioztatzen denez ("Komunikabideen Marko Orokorra Espainian" urteroko txostena), komunikabideek EAEn 2005ean izandako sartzeara³ Estatuko batez bestekoaren gainetik dago, aldizkariaren kasuan izan ezik. Bestalde, datuak Special Eurobarometer 56.0 deritzon datuekin konparatuz ikusten denaren arabera, egunkariak eta irratia EB-15ean baino sartzeara maila handiagoa dute EAEn; hala eta guztiz ere, aldizkariaren eta telebistaren kasuan aurkakoa gertatzen da.

Hain zuzen ere, KIEk dioenez, sartzeara mailaren arabera garrantzia aintzat hartuta, aipagarriak dira telebista, irratia, egunkariak eta gehigarriak. Horrela, telebista %89,8ra iristen da (Estatuko batez bestetik gora, %88,9, aurreko urtean aurkakoa gertatu ondoren, Estatuko batez bestekoa EAEko baino apur bat handiagoa baitzen). Irratiaren tasa %65,2koa da, Estatuko batez bestekoa (%55,5) baino altuagoa, eta gainera, 2004tik 2005era 2,9 puntuko hazkundera egon da. Egunkariak eta gehigarriak

² Ikusten denez, Administrazioaren bi mailen batuketan ez da "Toki Erakunde" gastu guztia berdina, finkaturiko datuak baitira.


³ Komunikabide jakina eskuratu duen biztanleriaren ehunekoa da. Komunikabidearen arabera, irakurle kopuruaren guztizkoa, telebista ikusleen guztizkoa, entzuleen guztizkoa edo internauten guztizkoa izango da.

KOMUNIKABIDEEN SARTZEA. EAE, ESTATUA ETA EB (% HORIZONTALAK)

	Biztanleria		Egunkariak		Gehigarriak		Aldizkariak		Irratia(*)		Telebista(*)		Zinea(**)		Internet(***)	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005	2004	2005
EB-15 (2002)	—	—	46	—	—	—	60	—	60	—	97,6	—	—	—	—	—
EAE	1.859	1.867	55,0	59,6	55,5	52,7	51,4	51,2	68,1	65,2	89,3	89,8	9,7	9,4	21,7	24,5
Estatua guztira	36.045	37.084	41,1	41,1	30,4	27,7	55,1	53,8	56,8	55,5	89,6	88,9	8,9	7,1	16,8	19,7
Andaluzia	6.340	6.433	30,1	31,3	21,3	18,0	48,2	47,9	55,9	52,1	91,5	91,7	8,4	5,6	14,3	16,0
Aragoi	1.082	1.094	45,5	44,3	37,3	34,5	56,0	58,0	55,7	54,4	90,6	88,1	5,9	5,0	17,3	20,1
Asturias	958	956	55,6	57,4	46,0	41,9	59,4	59,8	59,2	56,9	90,8	90,1	7,6	4,2	16,0	19,8
Balearrak	776	808	48,4	44,3	29,0	28,2	62,5	62,3	56,5	52,4	89,2	86,8	10,7	6,3	20,1	21,3
Kanariak	1.508	1.548	40,1	38,7	16,3	17,3	61,9	58,0	53,4	53,8	86,0	85,6	9,5	6,0	15,8	19,9
Kantabria	482	486	52,8	52,0	51,6	47,6	55,3	52,2	63,1	61,0	86,5	86,9	8,3	9,2	20,0	21,5
Kaztela eta Leon	2.191	2.193	44,8	42,0	36,8	32,8	56,7	53,7	59,2	56,6	91,9	88,8	7,1	5,8	12,9	14,8
Gaztela-Mantxa	1.555	1.585	25,7	27,7	17,0	15,5	49,0	49,5	49,0	53,1	93,8	92,8	5,2	4,5	10,2	13,0
Katalunia	5.774	5.921	45,8	44,8	30,8	26,6	57,5	57,9	56,0	55,6	88,0	88,8	10,4	8,8	20,3	23,7
Valentziako Erk.	3.799	3.915	33,5	30,8	23,3	20,3	54,2	51,8	55,5	53,5	90,3	85,5	9,6	6,8	15,8	18,8
Extremadura	902	904	28,6	26,5	23,9	16,8	50,9	39,9	50,9	51,2	93,4	93,0	5,6	5,2	11,4	9,1
Galizia	2.415	2.422	47,9	47,2	34,2	32,8	51,5	48,0	53,9	52,2	86,9	87,6	7,7	4,3	12,0	12,6
Madril	4.951	5.096	47,2	49,6	33,1	34,6	64,8	61,0	60,1	60,6	88,4	88,5	11,1	10,6	22,5	27,5
Murtzia	1.060	1.093	31,8	30,9	28,8	21,6	48,8	51,3	55,8	54,7	88,8	86,7	5,0	7,2	13,5	18,2
Nafarroa	498	507	57,7	59,0	55,2	49,6	52,3	53,4	56,5	57,1	88,2	87,9	10,3	6,4	18,1	19,5
Errioxa	252	257	48,0	44,6	44,2	43,1	52,2	59,2	55,6	60,5	91,9	91,6	9,5	9,0	16,5	20,4

Biztanleria (pertsonak milatan). (*) Eguneroko entzule kopurua, (**) Gutxienez astean behin, (***) Azken 30 egunetako erabilera. Iturria: KIE, Komunikabideen Marko Orokorra eta Special Eurobarometer 56.0.

KOMUNIKABIDEEN AUDIENTZIA EAEn. 2005




Iturria: CIES eta Eustat.

ere sartzeko ratio handiagoak dituzte biztanleen artean, Estatuan baino, eta azken urtean aurkako joerak egon dira: egunkarien kasuan 4,6 puntuko hazkundea egon da, baina gehigarrien sartzekak 2,8 puntuko murriztapena izan du 2004tik 2005era.

Aldizkarien kasuan, sartzaren ratioa Estatukoa baino txikiagoa da (%51,2 eta %53,8, hurrenez hurren), eta 0,2ko murriztapena egon da aurreko urteari dagokionez. Bestalde, zineak eta internetek askoz ere hedapen txikiagoa dute, eta %9,4ko (2004an –%9,7) eta %24,5eko

EAEko eta Estatuko batez besteko telebista kontsumoaren bilakaera. MINUTUAK/EGUERO



Iturria: KIE. Komunikabideen Marko Orokorra Espainian. 2006.11.21.

(2004an $-21,7$) tasak dituzte. Horien hedapena Estatuan baino handiagoa da ($7,1$ eta $19,7$).

Eustatek CIESen oinarritua EAerako eman dituen datuek lehentasun hurrenkera bera adierazten dute, baina ratioak apur bat desberdinak dira, KIEk emandakoetatik. Komunikabide bakoitza aztertuta ikusten denez, 2005ean sarterik handiena izan duen egunkaria El Correo Español izan da ($24,6$), eta gero Diario Vasco ($15,3$); urrunago Gara ($5,2$) eta Deia ($4,7$) daude. Aurreko urtearekiko aldaketei erreparatuta ikusten denez, aipagarria da azken egunkari horren sartzeari $7,8$ an murriztu dela. El Correo Español egunkaria nagusia da Araban ($37,7$) eta Bizkaian ($35,4$), eta Diario Vasco ($47,2$) Gipuzkoan.

Audientzia indizerik handienak dituzten telebista kateei eta ratioei dagokionez, aldi horretan ez da lurralde historikoen arabera alde handirik ikusten, eta gehien entzuten direnak EITBren emisoreak (formula konbentzionala) dira ($3,3$ euskaraz eta $13,4$ gaztelaniaz); gero, SER ($13,4$) eta Cadena 40 ($6,7$) datoz. Telebistan, Tele 5 ($40,9$) eta ETB-2 ($34,1$) dira gehien ikusten direnak. Gero, Antena 3 ($24,9$) eta TVE-1 ($21,7$). 2004ari dagokionez, aipagarria da toki telebisten audientziak izandako hazkundea ($7,4$ tik $10,8$ ra igaro da).

Horri dagokionez, eta telebistaren batez besteko kontsumoaren aldetik, Komunikabideen Marko Orokorren datuek diotenez, EAEen telebistaren kontsumoa eguneko 208

minutukoa da batez beste ($-1,9$ 2004koari dagokionez), eta Estatuko batez bestekoa 222 minutukoa da ($+1,8$). Grafikoan ikusten denez, Erkidegoan kontsumoa txikiagoa da, aintzat hartutako aldiko urte guztietan, eta gainera, aipagarria da 2004-2005ean izandako murriztapen handia.

4.3. Kirolaren Euskadiko Planaren jarraipena (2003-2007)

EAEko Memoria Sozioekonomikoaren 2003ko edizioan adierazitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskadiko Kirol Plana jarri zuen abian, eta horrek, lau urteko indarraldiarekin, oinarritzko jarduketa eremua sortu nahi zuen, kiroleko funtsezko eragileen inplikazioa eta koordinazioa lortzeko, baita banakako nahiz taldeko jarduketak hemengo kirol eredia lortzera bideratzeko ere.

Planak oinarritzat harturiko diagnostikoaren arabera, EAEk kirol errealitate aurreratua dauka inguruko erkidegoei dagokionez, baina hobetzeko aukerak daude, hiru Lurralde Historikoetarako Kirol Eredu Komuna sustatuz (erakunde arteko eredia). Halaber, kirol eskariaren etengabeko bilakaerak lan iraunkorra behar du, kirol eskaintza kirol jardura ulertzeko modu desberdinetara egokitzeko, hiritarrei kalitatezko zerbitzua emateko balioak errespetatuz. Era berean, ondorioztaturikoaren arabera, kirola funtsezko tresna da gizartetzat dugun irudia garatzeko eta geure kultura sustatzeko⁴.

KIROLAREN EUSKADIKO PLANAREN HELBURU ETA ILDO ESTRATEGIKOAK (2003-2007)

Helburu estrategikoak	Ildo estrategikoak
1. EAEko Kirol Eredua garatzea.	1.a. Eskola kirolaren eredia zehaztea. 1.b. Hiritarren jardura tasa handitzea eta mantentzea. 1.c. Errendimenduaren arloak kirol lehiaketen aniztasun handia dagoela bermatzea. 1.d. Eragile kopuru jakina edukitzea, Estatuan eta nazioartean onarpena lortu ahal izateko.
2. Kirolaren Euskadiko Sistema egituratzea, zehazturiko Kirol Eredua garatzeko eta inplikaturiko eragile guztien esfortzuak optimizatzeko.	2.a. Erakunde Publikoek Euskadiko Kirol Sistemari dituzten erantzukizunak zehaztea. 2.b. Beste eragile publiko eta pribatu batzuek EKSn dituzten erantzukizunak zehaztea. 2.c. EKSn inplikaturiko eragileen koordinazio mekanismoak zehaztea.
3. EAEko kirol zerbitzuen eskaintzaren kalitatea hobetzea.	3.a. Kirol azpiegituren eta ekipamenduen planifikazioa egitea. 3.b. Eragileen gaitasuna hobetzea. 3.c. Kalitatearen balioak sustatzea. 3.d. Kirol ikusketen planifikatzea.
4. Kirola sustatzea, herri garatuaren irudia eta Euskadiko kultura identitatea sustatzeko.	4.a. EAEren kanpo-proiektzioarako estrategia diseinatzea, kirolean oinarrituz. 4.b. Herri-kirolen modalitateak sustatzea. 4.c. Beste eremu geografikoekiko sinergiak bilatzea, Euskadiko kultura identitatea sustatzeko. 4.d. EKSn euskararen erabilera sustatzea.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila.

Euskadiko Kirol Sistemako eragile publikoek nahiz pribatuak eta erakundeak garatu beharreko jarduketak, bestalde, lau helburu estrategiko nagusiren eta hamabost ildo estrategikoren inguruan finkatu ziren. Helburu horien artean honako hauek daude: EAEko Kirol Eredua garatzea, Euskadiko Kirol Sistema egituratzea (zehazturiko Kirol Eredua garatu eta inplikaturiko eragile guztien esfortzuak optimizatu ahal izateko), EAEko kirol zerbitzuen eskaintzaren kalitatea hobetzea eta kirola sustatzea, herri garatuaren irudia eta Euskadiko kultura identitatea bultzatzeko.

Une honetan, Plana abiatu denetik hiru urte igaro direnean, horren bilakaerari buruzko azken datu erabilgarriak 2004ko egoerari buruzkoak dira. 2004ko "Jarraipenaren eta Ebaluazioaren Txostena" deritzon txostena esaten denez (Kirol Zuzendaritzak egindako txostena), txostena egiteko unean Planaren aurrerapen maila nahiko baxua zen. Oro har, hasi barik dauden ekintzen artean (%45 inguru) honako hauek aipa daitezke:

- Partaidetza kirolaren sustapen irudiaren ezar-kuntza.
- Errendimendu handiko kirolaren politika nazionalerako orientazioen zehaztapena eta erreferentziako lehiaketen ezar-kuntza.

- Hobekuntza Teknikorako Zentroaren funtzioen arauketa eta horren Plan Zuzendariaren garapena.
- Programa kontratuen garapena, kirol federazioekin, dirulaguntzak arautzen dituzten aginduak bir-landu ondoren.

Bestalde, amaitu gabeko beste ekintza batzuk daude, baina horien inguruko ekintza zehatzak garatu dira (guztizkoaren %46); esate baterako:

- Kiroleko Indarkeriaren aurkako Batzordearen sorrera.
- Dopingaren aurkako prebentzio eta kontrol sistemen garapena, Euskadiko Kirol Sistemari.
- Pilotaren eta Herri Kirolen plan estrategikoen lan-keta.
- Kirola Euskaraz programaren garapena.

Azkenik, txostena egiteko unean amaitutakotzat har-tzen ziren ekintzen artean (guztizkoaren %9), honako hauek aipa daitezke:

- Eskolako Kirolaren Dekretuaren garapena eta Eskolako Kirol Batzordearen eraketa, Euskadiko Kirol Kontseiluaren barruan.
- Heziketaren barruan, Euskadiko Kirol Eskolaren di-seinua, arauketa eta abioa.

⁴ Euskadiko 2003-2007 Kultura Planaren diagnostikoari buruzko informazio gehiago lortzeko, EAEko 2003ko Memoria Sozioekonomikoa dago.

- Kanpoko proiektioari dagokionez, Euskadiko federazioen integrazioarako sustapena, nazioarteko federazioetan.
- EAEko Arraunketa Plan Estrategikoaren lanketa eta ezarkuntza, kirol autoktonoaren sustapenaren barruan.

Euskadiko Kirol Sistemaren barruko eragileek Euskadiko Kirol Plana dinamizatzeko, Kultura Sailak, Kirol Zuzendaritzaren bitartez, aditzera eman du ekintzen lehentasun-ordena ezartzeko asmoa duela; gainera, horiek garatzeko konpromisoak ezarri, komunikazio plana garatu eta Planaren ebaluazioaren koordinazioarako, jarraipenerako nahiz ebaluazioarako metodologia diseinatu du.

4.4. Kultura eta aisialdi jardueren eskaintza EAEn

4.4.1. Kultura ekipamenduetako bisitariak.

EAE, nazioarteko testuinguruaren barruan, nahitaezko bisitaldia duen kokalekuetariko bat da, bertan sustatzen ari diren kultura ekipamenduen kantitatea eta aniztasuna aintzat hartuta. Ekipamendu horien artean, ondare artistiko, arkeologiko, bibliografiko eta dokumentalaren adierazpen eskaintza anitza dago, eta museoen, liburutegien eta artxiboen aniztasuna eta aberastasuna ere handia da.

Museoen jarduera eta, hain zuzen ere, museo nagusien bisitari kopurua adierazletzat hartuta (Guggenheim Museoa eta Arte Ederren Museoa —Bizkaiko Lurralde Historikoan—, Artium Museoa eta Arte Ederren Museoa —Arabako— eta Kutxa Zientziaren Eremua, Chillida Leku Museoa, San Temo Museoa eta Donostiako Aquariuma —Gipuzkoan—), hauxe ikusten da:

- Guggenheim Museoa eta Donostiako Aquariuma erakarpeneke gune nagusiak dira oraindik ere, hurrenez hurren, 965.082 eta 301.828 bisitariarekin (2005ean). Hala eta guztiz ere, Aquariumaren kasuan, bigarren urtez jarraian, bisitari kopuruak behera egin du (kasu honetan %8,6). Aldiz, Guggenheimerako bisitari kopurua gero eta handiagoa da, eta 2004tik 2005era %6,2ko hazkundea izan du.
- Bigarren, aurreko bietatik nahiko urrun, Bilboko Arte Ederren Museoa eta Kutxa Zientziaren Eremua daude; ekipamendu horiek, 2005ean, 142.067 bisitari eta 135.158 bisitari erakarri dituzte, hurrenez hurren; bietan ere bisitari kopurua murriztu egin da, 2004ari dagokionez (%8,7 eta %8, hurrenez hurren).
- Aurreko urteetan bezala, hilerik hilerako bilakaerak agerian jarri du udak garrantzi handia duela bisitarien aldetik, bisitari kopururik handiena udako hilabeteetan egoten baita.
- Arabako Arte Ederren Museoak dauka bisitari kopururik txikiena (34.473); hala ere, halako ekipamendurik gehien kasuan ez bezala, bilakaera positiboa izan du,

KULTURA EKIPIAMENDUETAKO BISITARIAK. 1999-2005

	Guggenheim Bilbao	Bilboko Arte Ederrak	Artium*	Arabako Arte Ederrak	Kutxa Zientz. Eremua	Chillida Leku	San Telmo	Donostiako Aquariuma
1999	1.065.459	160.207	—	19.156*	n.d.	n.d.	63.824	574.499
2000	974.976	190.003	—	12.247*	n.d.	23.079	106.209	380.500
2001	930.000	119.229	—	43.667	205.160	95.792	49.180	330.061
2002	851.628	150.065	101.838	54.621	123.136	84.791	62.506	309.661
2003	874.807	135.027	75.800	36.260	126.640	89.669	47.549	336.453
2004	909.145	155.643	89.791	30.177	146.965	91.567	56.439	330.165
2005	965.082	142.067	92.267	34.473	135.158	83.603	49.413	301.828
Urtarrila	46.045	7.736	4.143	2.094	6.018	2.187	2.213	11.512
Otsaila	49.532	10.485	7.395	1.485	7.735	3.110	2.000	11.564
Martxoa	80.044	13.198	11.372	2.376	14.826	8.574	4.668	30.154
Apirila	65.333	9.702	7.264	2.076	11.826	4.610	5.587	20.121
Maiatza	75.178	9.940	10.882	2.673	13.888	7.830	3.799	27.407
Ekaina	79.488	9.840	7.673	2.644	12.859	8.818	3.809	26.673
Uztaila	110.934	11.015	5.887	3.640	9.654	10.577	6.038	42.613
Abuztua	163.265	14.962	7.458	5.355	13.765	16.672	7.383	55.395
Iraila	91.917	12.476	8.944	2.736	3.902	6.938	3.829	22.455
Urria	50.844	14.669	6.302	3.415	13.221	6.269	4.322	24.504
Azaroa	65.326	15.263	8.520	3.264	15.034	3.808	2.919	13.524
Abendua	87.176	12.781	6.427	2.715	12.430	4.210	2.846	15.906
03/04ko h. %	3,9	15,3	18,5	-16,8	16,0	2,1	18,7	-1,9
04/05eko	6,2	-8,7	2,8	14,2	-8,0	-8,7	-12,4	-8,6

(* Artium museoa, 2002ko apirilaren 26an inauguratuta).
Iturria: Eusko Jaurlaritza.

bisitari kopuruak %14,2ko hazkundera izan baitu 2005ean (2004an %16,8ko murriztapena izan ondoren).

4.4.2. Kongresu eta azoka jarduerak

(a) Kongresu jarduerak

EAEko kongresu jarduerak, Eusko Jaurlaritzako Turismo Zuzendaritzak emandako datuen arabera, bilakaera positiboa izan du 2004tik 2005era, baina lurralde historikoen arabera intentsitate desberdinekin. Egindako bilera kopuruak %9,8ko hazkundera izan du Bizkaian, eta Araba eta Gipuzkoako hazkundera handiagoa izan da (hurrenez hurren, +%37,3 eta +%22,5).

Horrela, Araban 81 bilera egin dira, Gipuzkoan 98 eta Bizkaian 807. Bizkaian egindakoen artean, gehienak (%81,2) jardunaldiak, mintegiak eta simposiumak izan dira (655). Bertaraturiko ordezkari kopurua 178.254koa izan da eta horrek %30,9ko hazkundera adierazten du 2004ari dagokionez, eta bilera bakoitzeko ordezkarien ratioa 221ekoa izan da, hau da, aurreko urtean baino 36 ordezkari gehiago. Bileretako jarduerari dagokionez, bilera teknologikoak (guztizkoaren %22, eta hazkunde handia 2004ari dagokionez) eta medikuntza-osasunekoak (%19) nagusitzen dira.

Gipuzkoan, ordezkari kopurua 23.679koa da, 2004an baino %10,6 gehiago. Bilerarik gehienak jardunaldiak, mintegiak eta simposiumak izan dira; izan ere, guztizkoaren %45,9 izan dira eta ordezkarien %25,3 bildu dituzte. Kongresuek, horien kopurua txikiagoa izan arren (2004an baino 26,3 gehiago), bilera bakoitzeko ordezkari ratio handiagoa dute, 435, eta jardunaldiek, mintegiek eta simposiumek 133. Jarduerari dagokionez, jarduerak ekonomikoak eta merkataritzakoak nagusitzen dira (guztizkoaren %33), baita medikuntza-osasunekoak ere.

Azkenik, Araban guztira 81 bilera egin dira, eta aurreko urtean 59; horietatik 35 jardunaldiak, mintegiak edo simposiumak izan dira, eta 38 kongresuak. Bertaraturiko ordezkari kopuru osoa 17.450ekoa izan da, eta kopuru horrek %26ko hazkundera izan du 2004koari dagokionez; ordezkari kopuruaren batez bestekoa 215ekoa izan da, eta hortaz, aurreko urtean baino 20 ordezkari gutxiago egon da bilera bakoitzean.

(b) Azoka jarduerak

Azokak eta merkataritza erakusketak azken urteotan hazkunderik handiena izan duten ikuskizunetarikoen dira, sustapen elementuei dagokienez. Ekonomia orokorraren ikuspegitik, jarduerak ekonomikoaren sortzailatzat hartu

KONGRESU JARDUERAREN BILAKAERA (2004-2005)

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa*		
	2004	2005	Aldaketa	2004	2005	Aldaketa	2004	2005	Aldaketa
Egindako bilerak guztira	59	81	37,3	735	807	9,8	80	98	22,5
Jardunaldiak, mintegiak, simpos.	32	35	9,4	587	655	11,6	26	45	73,1
Kongresuak	20	38	90,0	66	78	18,2	33	36	9,1
Konbentzioak	1	8	700,0	82	74	-9,8	21	17	-19,0
Beste batzuk	6	0	—	0	0	—	0	0	—
Bertaraturiko ordezkariak	13.850	17.450	26,0	136.144	178.254	30,9	21.416	23.679	10,6
Jardunaldiak, mintegiak, simpos.	3.900	n.d.	—	90.067	128.536	42,7	3.995	5.995	50,1
Kongresuak	5.200	n.d.	—	28.727	32.408	12,8	11.626	15.664	34,7
Konbentzioak	250	n.d.	—	17.350	17.310	-0,2	5.795	2.020	-65,1
Beste batzuk	4.500	n.d.	—	0	0	—	0	0	—
Ikuskizuneko ord. ratioa	235	215	-8,5	185	221	19,5	268	242	10,7
Jardunaldiak, mintegiak, simpos.	122	n.d.	—	153	196	28,1	153,7	133	-13,5
Kongresuak	260	n.d.	—	435	415	-4,6	352,3	435	23,5
Konbentzioak	250	n.d.	—	212	234	10,4	276	119	-56,9
Beste batzuk	750	n.d.	—	0	0	—	0	0	—
Bileretako jarduerak (%)									
Medikuntza-Osasuna	—	—	—	17%	19%	11,8	13%	18%	38,5
Zientzia sektorea	—	—	—	2%	—	—	7%	2%	-71,4
Kultura sektorea	—	—	—	4%	9%	125,0	4%	7%	75,0
Ekonomia-merkataritza sektorea	—	—	—	13%	11%	-15,4	32%	33%	3,1
Sektore publikoa	—	—	—	14%	11%	-21,4	19%	16%	-15,8
Sektore teknologikoa	—	—	—	16%	22%	37,5	10%	7%	-30,3
Unibertsitatea	—	—	—	9%	11%	22,2	3%	7%	133,3
Beste batzuk	—	—	—	25%	17%	-32,0	12%	10%	-16,7

* Gipuzkoako datuak (ikuskizunaren tipologiaren arabera) Spain Convention Bureau deritzonak ezarritako irizpideen arabera bildu dira. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Turismo Zuzendaritza, Bilboko, Donostiako nahiz Gasteizko Convention Bureau-n eta Spain Convention Bureau-n oinarrituz.

dira; izan ere, produktuen zabalkundea nahiz salmenta erraztu, aurrerakuntza tekniko sustatu zein nabarmendu eta, gainera, lankidetzaren ikurrak dira (nazioko eta nazioarteko irudia hobetzen duten ikurrak). Enpresaren ikuspegitik, bereziko aukera eskaintzen dute, azoka batean erakusleek eta bisitariak, zuzenean eta bitartekari barik, edozein merkataritza sektorearen eskaintza eta eskaria ordezkatzan dutelako.

Azokek enpresei eskainitako zerbitzuek, erakusketa-rako eta kontratazioa sustatzeko gaitasunaren eraginez, eskari handia sortzen dute, eta horrela, azoken barruan inbertsio handiak egin eta lehiaketak garatzen dira, jarduera ekonomikoa sustatzeko eta bultzatzeko politikaren barruan dauden lehiaketak. Horrenbestez, hiriburu garrantzitsu guztietan azoka barrutiren bat egiten da, nazioarteko erreferentzia gune bihurtzeko, aintzat hartuta erakusleak erakartzeko gaitasuna eta hirigintza nahiz teknologia bikaintasuna; halaber, tradizioz handienekoak (esate baterako, Hannover, Birmingham, Milan, Madril, Bartzelona eta Bilbo) instalazioak handitzeko, berri-zeo edo hobetzeko prozesuetan murgilduta daude.


AFEk emandako datuen arabera, Bilbao Exhibition Centre (BEC) deritzonak, 2004an (AFEn azken datuak, elkarte-

en multzorako) posizio garrantzitsua zuen, Azoka Barrutien rankingean, garaturiko azoka kopuruaren arabera (18 azoka), honako azoka hauek atzetik: Madrilekoa (80), Bartzelona (44) eta Valentziakoa (37), eta Alacantekoaren (22), Sevillakoaren (18) eta Zaragozakoaren (16) maila berean.

Bilbao Exhibition Centre, BEC, 2004an Bilboko Nazioarteko Azokaren txanda hartu zuen proiektua da; izan ere, bertako instalazioak ez ziren nahiko Makina-Erremintaren Bienalaren edo Ferroforma Bienalaren mailako erakusketak egiteko. BECek eskainitako azoka jardueraren bilakalerari buruzko datuek bi urtean behingo gorabeherak adierazten dituzte, zuzeneko erakusleei, azalera garbiari eta bisitari profesionalen kopuruari dagokionez; izan ere, Makina-Erremintaren Bienala eta Ferroforma Bienala urte bikoitietan egiten dira.

Construlan eta Franquicia lehiaketek erabili zituzten lehenengoz, 2004an, instalazio berriak; horrek 440 milioi euroko inbertsio handia eragin du. Horien ostean, beste 12 erakusketa egin dira, eta horien artean, honako hauek dira aipagarrienak: Makina-Erremintaren Bienalaren 23. edizioa (59.893 m²-ko azalera garbia eta 41.321 bisitari),

MERKATARITZA ETA ERAKUSKETA AZOKEK SALMENTA PROZESUAN DUTEN ERAGINKORTASUNA. DATUAK EHUNEKOTAN



Iturria: AFE. www.afe.es

ESTATUKO AZOKA BARRUTI NAGUSIEK ANTOLATURIKO AZOKA KOPURUA. 2003-2004

	Egindako azoka kopurua		
	2003	2004	% 03/04
Almeriako Erak. eta Kongresu Jauregia	4	4	—
Albaceteko Azoka Erakundea	7	9	28,6
Armillako Erakustazoka (Granada)	9	8	-11,1
Barbastro Azoka Institutua (Huesca)	10	5	-50,0
Bartzelonako Fira	51	44	-13,7
Reed Exhibition Iberia (Bartzelona)	9	8	-11,1
BILBAO EXHIBITION CENTRE	20	18	-10,0
Cornellá-ko Fira (Bartzelona)	7	7	—
Alacanteko Azoka Erakundea (Elx)	21	22	4,8
Proferia eta erakusk. partzuergoa (Ferrol)	5	2	-60,0
Asturiaseko Nazioarteko Erakustazoka	4	4	—
Gironako Fira	10	9	-10,0
Jaeneko Azokak	6	9	50,0
Kanarietako Azoka Erakundea	6	6	—
Lleidako Fira	8	10	25,0
Madrileko Azoka	71	80	12,7
Casa de Campo Azoka Barrutia	23	11	-52,2
Mollerusa-ko Fira (Lleida)	7	5	-28,6
Ourenseko Azoka eta Erakust. Fundazioa	12	11	-8,3
Balearretako Firak eta Kongresuak	12	9	-25,0
Reuseko Fira (Tarragona)	6	6	—
Tenerifeko Azoka Erakundea	13	8	-38,5
Sevillako Kongresu eta Erakusk. Jauregia	21	18	-14,3
Galiziako Nazioarteko Azoka (Pontevedra)	4	6	50,0
Valentziako Azoka	42	37	-11,9
Gaztela eta Leongo Azoka Erakundea.			
Valladolideko Azoka	10	11	10,0
Vigoko Azoka Erakundea	15	9	-40,0
Zaragozako Azoka	8	16	100,0

Iturria: AFE eta guk landuta.

BILBAO EXHIBITION CENTRE. ADIERAZLEAK

	2001	2002	2003	2004	2005
Lehiaketa kopurua	23	14	22	16	n.d.
Zuzeneko Erakusleak	2.710	3.006	2.001	n.d.	n.d.
Azalera Garbia	88.564	136.706	81.392	196.811	n.d.
Bisitari Profesionalak	50.092	79.485	49.165	105.086	37.143
Ikusleak orokorrean	636.940	722.743	685.471	899.487	891.313

Iturria: BEC eta Eusko Jaurlaritza.

Ferroforma Bienala (39.341 m²-ko azalera garbia eta 24.133 bisitari), eta Expovacaciones-Expoconsumo (15.781 m²-ko azalera garbiko erakusketa). Horrela, 2002tik 2004ra (Bienalak egiteko urte bikoitiak) hazkunde handia egon da erakusketaren azalera garbian (136.706 m²-tatik 196.811 m²-tara igaro da), baita bisitari profesionalen kopuruan (79.485etik 105.086ra) eta bestelako ikusleen kopuruan ere (755.743tik 899.487ra).

Argitalpen hau ixteko orduan 2005ari buruz zegoen azken informazioaren arabera, urte horretan BECen egindako lehiaketetan 37.143 bisitari profesional egon ziren (aurreko urte bakoitia izandako 2003an baino %24,5 gutxiago), eta bestelako ikusle kopurua 891.313 pertsonakoa izan zen (2003an baino %30 gehiago eta 2004an baino %0,9 gutxiago).

4.5. Argitalpen produkzioa

EINen "Argitalpen Produkzioaren Estatistikan" jasotako datuen arabera, 2005ean EAE aurreko urteko posizioan, seigarren posizioan zegoen, argitalpen produkzioaren rankingean; hain zuzen ere, bertan 2.460 liburu argitaratu dira, Estatuan argitaraturiko guztien %3,9. EA-

Eren aurrean honako hauek daude: Madrileko Erkidegoa (21.763 liburu, eta guztizkoaren %34,2), Katalunia (17.899 liburu, eta guztizkoaren %28,2), Andaluzia (5.091), Valentziako Erkidegoa (3.536) eta Gaztela eta Le-
on (2.717). Argitaraturiko 2.460 liburu horiek (liburuak eta liburuxkak) %1eko murriztapena adierazten dute, 2004ko ehuneko kopuruari dagokionez, eta horrela, jarraipena eman zaio 2000n hasitako beheranzko joerari.

Bestalde, 2005ean editaturiko ale kopurua 5,6 milioi-koa izan da, aurreko urtean baino %4,6 gehiago, eta horrela, batez besteko tiradan (liburu bakoitzaren ale kopurua) %5,7ko hazkundea egon da, eta guztira 2.282 ale izan dira. Horietatik 2.039 liburuak dira (%82,9) eta 421 liburuxkak (%17,1). Liburuen kasuan, izenburu kopuruak %0,7ko hazkundea izan du, eta ale kopuruaren hazkundea %5,4koa izan da. Horrenbestez, batez besteko tiradak %4,6ko hazkundea izan du eta guztira 2.155 ale dira. Bestalde, liburuxkei dagokienez, izenburu kopuruak -%8,7ko murriztapena izan du, eta ale kopuruak, berriz, %1,8ko hazkundea; horrela, horien batez besteko tiradak %11,4ko hazkundea izan du.

EAE 2005ean editaturiko liburu kopurua, ISBN¹ deritzonak emandako datuen arabera, 3.298koa izan zen (EI-

EAEko ARGITALPEN PRODUKZIOAREN BILAKAERA

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	ald. 03-04	ald. 04-05
Guztira										
Izenburuak	2.489	2.505	2.484	2.338	2.329	2.553	2.485	2.460	-2,7	-1,0
Aleak (milatan)	5.205	5.579	5.085	5.214	5.098	5.620	5.366	5.613	-4,5	4,6
B. besteko tirada	2.091,2	2.227,1	2.047,1	2.230,1	2.188,9	2.201,3	2.159,4	2.281,7	-1,9	5,7
Liburuak										
Izenburuak	2.243	2.251	2.253	2.008	2.004	2.157	2.024	2.039	-6,2	0,7
Aleak (milatan)	4.698	4.900	4.411	4.188	4.228	4.510	4.167	4.393	-7,6	5,4
B. besteko tirada	2.094,5	2.176,8	1.957,8	2.085,7	2.109,8	2.090,9	2.058,8	2.154,5	-1,5	4,6
Liburuxkak										
Izenburuak	246	254	231	330	325	378	461	421	22,0	-8,7
Aleak (milatan)	507	678	674	1.026	870	1.110	1.199	1.220	8,0	1,8
B. besteko tirada	2.061,0	2.669,3	2.917,7	3.109,1	2.676,9	2.936,5	2.600,9	2.897,9	-11,4	11,4

Iturria: EIN "Argitalpen produkzioaren estatistika".

⁵ ISBN (International Standard Book Number) argitaletxe jakineko tituluak identifikatzeko eta zenbakitzeko nazioarteko sistema da eta softwareari ere aplikatzen zaio. Identifikazioa eratxiki ondoren, zenbakia liburu horri baino ezin izango zaio aplikatu eta ezin izango da berriro erabili.

EDIZIOAREN BANAKETA GEOGRAFIKOA, INSKRIBATURIKO ISBNen ARABERA

	2001	2002	2003	2004	2005 %		Ald. 04-05
					kop.	%	
Andaluzia	3.949	4.575	4.966	5.282	5.076	6,7	-3,9
Aragoi	840	1.061	1.487	1.538	1.221	1,6	-20,6
Asturias	398	428	599	684	515	0,7	-24,7
Balearrak	807	679	647	523	744	1,0	42,3
Kanariak	487	599	744	754	886	1,2	17,5
Kantabria	293	256	283	255	353	0,5	38,4
Gaztela eta Leon	2.509	2.312	2.291	2.224	2.605	3,4	17,1
Gaztela-Mantxa	413	526	519	532	515	0,7	-3,2
Katalunia	23.668	23.952	25.635	25.546	25.896	34,0	1,4
Valentziako Erkidegoa	3.809	3.644	4.573	3.886	3.904	5,1	0,5
Extremadura	277	364	319	360	284	0,4	-21,1
Galizia	1.922	1.934	2.643	2.618	2.770	3,6	5,8
Madril	23.281	25.131	28.470	28.072	26.772	35,1	-4,6
Murtzia	405	644	528	536	613	0,8	14,4
Nafarroa	779	1.007	720	903	653	0,9	-27,7
EAE	3.075	2.620	3.377	3.491	3.298	4,3	-5,5
Araba	213	313	339	294	328	0,4	11,6
Gipuzkoa	1.496	1.127	1.652	1.574	1.599	2,1	1,6
Bizkaia	1.366	1.180	1.386	1.623	1.371	1,8	-15,5
Errioxa	80	132	126	138	126	0,2	-8,7
Ceuta	12	18	11	17	14	0,0	-17,6
Melilla	8	11	12	8	20	0,0	150,0
Guztira	67.012	69.893	77.950	77.367	76.265	100,0	-1,4

Iturria: Hezkuntza eta Kultura Ministerioa. ISBN.

ESTATUAN HIZKUNTZA GUZTIAN ETA EUSKARAZ ARGITARATURIKO IZENBURU GUZTIAK (LIBURUAK ETA LIBURUXKAK), GAIKA

	2004			2005			Aldaketa euskaraz 2004-05
	Guztira	Euskara		Guztira	Euskara		
		kop.	% euskaraz		kop.	% euskaraz	
Guztira	60.492	1.041	100,0	63.551	909	100,0	-12,7
1 Orokorrak	1.454	38	3,7	1.796	18	2,0	-52,6
2 Filosofia eta psikologia	2.464	16	1,5	2.535	18	2,0	12,5
3 Erlijioa, teologia	2.381	35	3,4	2.614	35	3,9	0,0
4 Soziologia, estatistika	1.376	27	2,6	1.234	10	1,1	-63,0
5 Zientzia politikoak, zientzia ekonomikoak	2.762	27	2,6	3.012	28	3,1	2,7
6 Zuzenbidea, herri administrazioa, gizarte aurreikuspena eta laguntza, aseguruak	4.144	10	1,0	3.803	11	1,2	10,0
7 Arte eta zientzia militarra	128		0,0	127	—	—	—
8 Hezkuntza, irakaskuntza, heziketa, jolasak	2.253	88	8,5	2.158	61	6,7	-30,7
9 Merkataritza, komunikazioak, garraioa, turismoa	—	—	0,0	—	—	—	—
10 Etnografia, antropologia kulturala (ohiturak, folklorea,...)	1.416	28	2,7	1.049	26	2,9	-7,1
11 Matematikak	822	37	3,6	717	28	3,1	-24,3
12 Natur zientziak	1.909	67	6,4	2.300	78	8,6	16,4
13 Medikuntza zientziak, osasuna	3.431	15	1,4	3.658	10	1,1	-33,3
14 Injineritza, teknologia, industria, lanbideak	4.476	19	1,8	3.604	23	2,5	21,1
15 Nekazaritza, basozaintza, abeltzaintza, ehiza eta arrantza	594	—	0,0	735	1	0,1	—
16 Etxeko zientzia	951	—	0,0	1.180	8	0,9	—
17 Kudeaketa, administrazioa eta antolaketa	1.323	4	0,4	1.357	12	1,3	200,0
18 Lurraldearen egokitzapena, hirigintza, arkitektura	859	3	0,3	824	5	0,6	66,7
19 Arte plastikoak eta grafikoak, argazkigintza	3.712	35	3,4	3.881	21	2,3	-40,0
20 Musika, ikuskizun arteak, antzerkia, filmak eta zinea	1.277	17	1,6	1.423	27	3,0	58,8
21 Jolasak eta kirolak	908	16	1,5	969	7	0,8	-56,3
22 Filologia, hizkuntzak, hizkuntzalaritza	1.938	82	7,9	1.965	88	9,7	7,3
23 Literatura, historia eta literatur kritika	16.168	405	38,9	17.898	327	36,0	-19,3
24 Geografia	1.180	26	2,5	1.278	20	2,2	-23,1
25 Historia, biografia	2.566	46	4,4	3.434	47	5,2	2,2

Iturria: EIN. Argitalpen produkzioaren estatistika.

BESTE HIZKUNTZA BATZUETARA ITZULITAKO EUSKARAZKO LIBURUAK

	2003	2004	2005
Guztira	40	55	66
1 Orokorrak	2	4	2
2 Filosofia eta psikologia	—	—	—
3 Erlijioa, teologia	—	2	—
4 Soziologia, estatistika	—	2	1
5 Zientzia politikoak, zientzia ekonomikoak	11	2	1
6 Zuzenbidea, herri admin., gizarte aurreikuspena eta laguntza, aseg. ur.	4	5	1
7 Arte eta zientzia militarra	—	—	—
8 Hezkuntza, irakaskuntza, heziketa, jolasak	—	1	4
9 Merkataritza, komunikazioak, garraioa, turismoa	—	—	—
10 Etnografia, antropologia kulturala (ohiturak, folklorea,...)	—	2	4
11 Matematikak	—	—	—
12 Natur zientziak	—	2	3
13 Medikuntza zientziak, osasuna	—	—	—
14 Injinerutza, teknologia, industria, lanbideak	—	—	1
15 Nekazaritza, basozaintza, abeltzaintza, ehiza eta arrantza	—	1	2
16 Etxeko zientzia	—	1	—
17 Kudeaketa, administrazioa eta antolaketa	—	—	5
18 Lurraldearen egokitzapena, hirigintza, arkitektura	—	1	1
19 Arte plastikoak eta grafikoak, argazkigintza	7	4	13
20 Musika, ikuskizun arteak, antzerkia, filmak eta zinea	—	1	1
21 Jolasak eta kirolak	2	—	4
22 Filologia, hizkuntzak, hizkuntzalaritza	—	1	1
23 Literatura, historia eta literatur kritika	13	22	14
24 Geografia	—	1	5
25 Historia, biografia	1	3	3

Iturria: EIN "Argitalpen produkzioaren estatistika".

IZENBURU KOPURUA (LIBURUAK ETA LIBURUXKAK), ALDIAREN ETA KATEGORIEN ARABERA

	2002			2003			2004			2005			Ald. % eusk.	
	Guzt.	Euskara		Guzt.	Euskara		Guzt.	Euskara		Guzt.	Euskara		2003-04	2004-05
		kop.	%		kop.	%		kop.	%		kop.	%		
Testuliburuak	4.306	188	35,9	3.796	228	44,0	3.088	203	38,6	3.050	216	47,9	-11,0	6,4
Haurren liburuak	4.924	255	48,7	5.332	226	43,6	3.741	245	46,6	3.686	144	31,9	8,4	-41,2
Argit. ofizialak	7.731	74	14,2	8.785	64	12,4	8.177	78	14,8	8.757	91	20,2	21,9	16,7
Unibertsitat. tesiak	333	6	1,2	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	17.294	523	100	17.913	518	100	15.006	526	100	15.493	451	100,0	1,5	-14,3

Iturria: EIN. Argitalpen produkzioaren estatistika.

Nek emandakoa baino handiagoa, segurutzat azken kasu horretan berrinpresioak aintzat hartu ez direlako), eta horrela, %5,5eko murriztapena egon da aurreko urteari dagokionez. Murriztapen hori, berriz, Bizkaiko argitalpen produkzioan izandako -%15,5eko beherakadaren eraginezkoa da, Araban eta Gipuzkoan hazkundeak egon baitira (hurrenez hurren, %11,6 eta %1,6). Argitalpen produktorik handiena Bizkaian eta Gipuzkoan dago, guztizkoaren %41,6arekin eta %48,5arekin, hurrenez hurren. Araban guztizko produkzioaren %9,9 baino ez dago.

Autonomia erkidegoen rankingean, argitalpen produkzioaren arloan, EAE (aurreko urtean bezala) bosgarren posizioan dago, Madrilen, Kataluniaren, Andaluziaren eta Valentziaren atzetik. Hala eta guztiz ere, guztizkoaren gai-

neko partaidetza %4,3koa da, eta murriztu egin da aurreko urteari dagokionez, urte horretako partaidetza %4,5koa izan baitzen. Gainera, alde handia dago lehenengo bi erkidegoen eta gainerakoaren artean. Horrela, Madrilen, aurreko urtearekiko %4,6ko murriztapena egon arren, 26.722 izenburu argitaratu ziren (guztizkoaren %35,1), eta Katalunian 25.896 izenburu (guztizkoaren %34). Bestalde, Andaluzian Estatuko izenburu guztien %6,7 eta Valentziako Erkidegoan %5,1 argitaratu ziren.

Argitalpenaren hizkuntza aintzat hartuta, 2005ean izenburu guztien %1,4 (liburuak eta liburuxkak) euskaraz argitaratu dira, eta beraz, %12,7ko murriztapena egon da aurreko urteari dagokionez. Horietatik, %36 Literaturaren, Historiaren eta Literatur Kritikaren arlokoak dira (horren

INSKRIBATURIKO ISBN KOPURUA, ARGITALPEN HIZKUNTZAREN ARABERA

	2001	2002	2003	2004	2005		2003-04ko aldaketa	2004-05eko aldaketa
					Kop.	%		
Gaztelania	52.256	54.160	59.748	59.142	57.779	75,8	-1,0	-2,3
Katalana	6.947	7.300	8.260	7.781	8.577	11,2	-5,8	10,2
Euskara	1.528	1.221	1.532	1.834	1.731	2,3	19,7	-5,6
Galiziera	1.358	1.498	1.828	1.849	1.826	2,4	1,1	-1,2
Valentziera	726	763	962	1.072	881	1,2	11,4	-17,8
Esp. beste hizkun. batzuk	68	76	172	110	50	0,1	-36,0	-54,5
Beste hizkuntza batzuk	4.129	4.875	5.448	5.579	5.421	7,1	2,4	-2,8
Guztira	67.012	69.893	77.950	77.367	76.265	100,0	-0,7	-1,4

Iturria: Hezkuntza eta Kultura Ministerioa. ISBN.

EDIZIOA ITZULPEN HIZKUNTZEN ARABERA *

	2001	2002	2003	2004	2005	% 03-04	% 04-05
Gaztelania	2.109	2.621	3.009	3.161	2.738	5,1	-13,4
Katalana	505	478	531	513	578	-3,4	12,7
Euskara	84	61	71	91	125	28,2	37,4
Galiziera	133	99	126	185	131	46,8	-29,2

(*) inskribaturiko ISBNen arabera.

Iturria: Hezkuntza eta Kultura Ministerioa. ISBN.

garrantzia 2,9 puntutan murriztu da, 2004ari dagokionez). Horien atzetik, baina nahiko urrun, Filologia, hizkuntzak eta hizkuntzalaritza (%9,7), Natur Zientziak (%8,6) eta Hezkuntza, irakaskuntza, heziketa eta jolasak (%8,5) datoz. Garrantzitsuak dira, guztizkoan beherakada egon arren, honako hauetan izandako hazkundeak: Kudeaketa, administrazioa eta antolamendua (+%200), Lurraldearen egokitzapena, hirigintza eta arkitektura (+%66,7) eta Musika, ikuskizun arteak, antzerkia, filmak eta zinea (+%58,8).

Gaien kategorien arabera azterketak hazkundea adierazten du, euskaraz editaturiko testuliburuaren kopuruan (+%6,4), aurreko urtean murriztapena izan ondoren (-%11). Aldiz, haurren liburuaren euskarazko edizioak murriztapen handia izan du (-%41,2), eta argitalpen ofizialek, ostera, %16,7ko hazkundea izan dute.

ISBNren arabera, Espainiako estatuan argitaraturiko izenburuen %75,8 gaztelaniaz argitaratu dira (aurreko urtean %76,4), %11,2 katalanez, %2,4 galizieraz eta %2,3 euskaraz. Euskarazko argitalpenak, 2005ean, %5,6ko murriztapena izan du, baita gaztelaniazko argitalpenak ere (-%2,3); katalanez egindakoak, ostera, %10,2ko hazkundea izan du. Galizierazko argitalpenek %1,2ko murriztapena izan dute.

Bestalde, beste hizkuntza batzuetara itzuli diren euskarazko izenburuen kopuru osoak (liburuak eta liburuxkak) goranzko joera dauka. 2005ean 66 izenburu itzuli dira, eta horrek %20ko hazkundea adierazten du 2004ari dagokionez.


Gaiak aztertuta, literaturakoen garrantzi handia ikusten da (Literatura, Historia eta Kritika, 14 izenbururekin, 2004an baino 8 gutxiago). Halaber, aipagarria da Zientzia politikoei eta ekonomikoei loturiko izenburu kopuruak 2003tik 2005era izandako murriztapena (11tik 1era); era berean, aipatzekoa Arte plastikoak eta grafikoak 4tik 13ra igaro direla, 2004tik 2005era.

Azkenik, euskarara itzuli diren izenburuen kopuru osoak, ISBNren Espainiako Agentziak emandako datuen arabera, 2002an izandako murriztapenaren ostean, bilakaera positiboa izan du. 2005ean, euskarara 125 izenburu itzuli dira, eta horrela, %37,4ko hazkundea egon da aurreko urteari dagokionez. Horrenbestez, euskararako itzulpenek berdindu egin dituzte galizierakoak (131 itzulpen, 2004an baino %29,2 gutxiago), baina oraindik ere bide luzea egin beharko da katalanak eta galizierak izandako balioetara heltzeko.

4.6. Kontsumoa eta kontsumitzailearen defentsa

4.6.1. Kontsumoko erreklamazioak

Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo eta Segurtasun Zuzendaritzak emandako datuen arabera, 2005ean 6.220 erreklamazio orri aurkeztu dira, aurreko urtean baino %26 gehiago; gainera, goranzko joera mantendu eta bikoiztu egin da orain dela bost urte jaso-

KONTSUMOKO ERREKLAMAZIOEN BILAKAERA EAEn

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasun Zuzendaritza.

takoen kopurua. Jasotako erreklamazio guztietatik, 2005eko abenduaren 31n 1.323 (%21,3) ez ziren tramitean onartu, kontsumoren arlokoak ez ziren gaiei buruzkoak zirelako, eta 610 (%9,8) autonomia erkidegoetara bidali ziren (erreklamazioa justifikatzen zuen zioa zein autonomia erkidegotan gertatu zen aintzat hartuta). Gainerakotatik, 3.134 (%50,4) ebatzita daude, eta oraindik ere tramitean gelditzen dira beste 1.153 (%18,5).

Erreklamazio horietariko gehienen helburua gauza aldatzea, akatsen bat zuzentzea, gauza itzultzea, zenbatekoa berreskuratzea edo kalte-ordain ekonomikoa eskatzea izaten da.

Erreklamazio horietariko batzuk Arbitraje Batzordera bidali ziren, sistemara atxikitako enpresekiko desadostasunak baitziren. Beste kasu batzuetan, salatzailerek ez zuten eskabidea aurrera eraman nahi izan, eta ia 1.000 kasutan adostasuna lortu zen, Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritzarekin. Gainerakoen kasuan, alderdien arteko akordioa ezinezkoa izatean, eta gainera, administrazio urratzerik ez zegoela ikusi zenez, artxibatu egin zen espediente.

Administrazioak eskabidea egin zuten 63 enpresari, salaketa eragin duten egintzak zuzentzeko, eta 120 zehapen espediente hasi ziren. Halako espedienterik gehien eragin zuten urratzeak, izan ere, kontsumitzaileari emandako informazioaren eta etiketen inguruko ez-betetzeak

lotutakoak izan ziren, baita zerbitzua ematearen inguruko akatsei eta bermeen aplikazioetan egindako akatsei lotutakoak ere.

Sektoreka, aurreko urteetan bezala, erreklamaziorik gehieneko rankingaren lehenengo postuan telekomunikazioak daude, guztizkoaren %16,6arekin (2004an %14,3). Bigarren postuan garraio eta bidaia sektorea dago (erreklamazio guztien %10); gero, automobilen sektorea (%9,6) eta, ondoren, etxetresna elektrikoaren nahiz horien konponketen sektorea (%8,4).

4.6.2. Erreklamazioen ebazpena. Kontsumoko arbitrajea

Kontsumoko Arbitraje Sistema judizior kanpoko sistema da, eta kontsumo harremanetan sor daitezkeen desadostasunak ebazteko aukera ematen du; harreman horietan enpresaburuek nahiz profesionalak (alde batetik) eta kontsumitzaileek zein erabiltzaileek (bestetik) hartzen dute parte.

Sistema horrek finkapen prozesuan jarraitzen du; izan ere, gero eta handiagoa da bide horri atxiki eta bertan konfiantza duen EAEko enpresa eta establezimendu kopurua, zerbitzuen erabiltzaileekin eta kontsumitzaileekin sortzen diren gatazkak ebazteari dagokionez. 2005ean, sisteman 1.026 enpresa berri sartu ziren,

ERREKLAMAZIO KOPURURIK HANDIENEN SEKTOREAK LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	Guztira (%)
Telekomunikazioak	230	513	288	1.031	16,58
Garraioak	165	213	253	631	10,14
Automobilak	112	325	162	599	9,63
Etxetresna					
elektrokoak, ZAZ	103	243	174	520	8,36
Gremioak, etxebizitza	102	168	110	380	6,11
Azalera handiak	52	213	92	357	5,74
Altzariak	47	231	59	337	5,42
Energia	26	77	208	311	5,00
Ehungintza, zapatagintza	48	177	76	301	4,84
Tindategiak	29	180	52	261	4,20
Txikizkako beste					
establezimendu batzuk	45	101	100	246	3,95
Bankuko zerbitzuak	78	101	60	239	3,84
Informatika	10	86	10	106	1,70
Jolas jarduerak	13	41	43	97	1,56
Higiezinaren sustapena	6	38	30	74	1,19
Irakaskuntza	24	20	15	59	0,95
Aseguruak	9	27	21	57	0,92
Bitxigintza, erlojugintza	6	26	15	47	0,76
Bidaia-agentziak	40	1	4	45	0,72
Merkataritza elektronikoa	8	12	12	32	0,51
Etterik etxeko salmenta	6	16	8	30	0,48
Elikadura	3	12	9	24	0,39
Bazarrek	2	16	4	22	0,35
Ostalaritza	7	5	4	16	0,26
Publizitatea	1	4	1	6	0,10
Beste batzuk	59	184	149	392	6,30
GUZTIRA	1.231	3.030	1.959	6.220	100

KONTSUMOKO ARBITRAJEARI ATXIKITAKO ENPRESAK

Jarduerak	Atxikitako enpresak	Euskadiko enpresen %
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.131	30,34
Telekomunikazioak	78	30,20
Ehungintza eta zapatagintza	2.223	28,87
Altzariak	925	28,76
Bitxigintza, erlojugintza	353	27,40
Etxetresna elektrokoak, ZAZ	493	21,08
Zerbitzu jarduerak	700	15,70
Bidaia-agentziak	87	13,72
Irakaskuntza	255	6,04
Etxebizitza, etxearren konponketa	3.076	5,87
Energia	16	1,20
Aseguruak	26	1,08
Garraioak	49	0,37
Etterik etxeko salmenta	1	—
Banka	0	—
Beste batzuk	3.060	—
Guztira	12.473	—


eta horrela, urte amaieran atxikipen kopuru osoa 12.473koa izan zen. Atxikipen berriak zuzenean lotuta daude Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasun Sailak aldiaren behin egiten dituen kanpainekin, eta azken urte horretan kanpaina 1.400 pertsonari zuzenduta egon zen, bisita pertsonalizatuaren bitartez; bisitaturiko enpresa guztien artean atxikipena eskatu zutenak %73,3 izan ziren.

Jardueren arabera, atxikipenen ehunekoa aldagarria da sektoreen artean. Horrela, ibilgailuen salmenta eta konponketa sektoreak dauka atxikipenik onena (jarduera EAEn garatzen duten enpresen %30,3); gero, telekomunikazioen sektorea (%30,2), ehungintza nahiz zapatagintza (%28,9) eta altzariaren sektorea datoz (%28,8). Beste aldean, atxikipenik txikiena duten sektoreak daude: energia (%1,2), aseguruak (%1,1), garraioak (%0,4) eta banka, eta azken horrek ez dauka ezein enpresaren bidezko ordezkapenik.

Arbitraje eskabideei dagokienez, 1994an zerbitzua sortu zenetik 2005era, guztira 6.240 eskabide jaso dira. Ekitaldi horretan ez da kontsumoaren arloko istiluen hazkunderik egon, eta horrela, Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordean aurkezturiko eskabide kopuruak gora egin du; horrenbestez, horrek izendaturiko Arbitraje El-kargoek emandako laudo kopuruak hazkundera izan du.

Horrela, 849 arbitraje eskabide tramitatu dira (2004an baino 98 gehiago); horietatik 468 (aurreko urtean 406) arbitraje laudoaren bidez ebatzi ziren, 221 artxibatu egin ziren (erreklatuak auzia arbitraje laudoaren bidez ebaztea onartu ez zuelako), 124 alderdien arteko akordioaren bidez ebatzi ziren (Kontsumoko Arbitraje Batzordeak egindako bitartekaritzarekin), 8 artxibatu egin ziren (erre-

KONTSUMOKO ARBITRAJEARI ATXIKITAKO ENPRESAK, ARBITRAJE ESKABIDEAK ETA ALDEKO LAUDOAK



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Memoria eta geuk landuta.

klamazioak atzera eginez), 16 ez ziren tramitean onartu (kontsumoko arbitrajetik kanpoko arloei buruzkoak izateagatik), 2 tramitean zeuden ekitaldiaren amaieran (2005aren amaieran aurkeztu baitziren) eta 18 arbitraje laudoa emateko zain zeuden. Arbitraje eskabiderik gehienak biltzen dituzten sektoreak honako hauek dira berriro ere: telefonia (320, eta 2004an 175), tindategiak (73), etxebizitzaren gremioak (68) eta automobilak (62).

Emaitzei dagokienez, aurreko urteen antzean, %20,4 kontsumitzaileen aldekoak izan ziren guztiz, eta %37,3 neurri batean izan ziren aldekoak; gainerakoei dagokienez (%42,3), Arbitraje Elkargoak establezimenduari edo enpresari eman zion arrazoia. Arbitraje Elkargoaren erabakiak edo laudoak aho batez hartu ziren, kasu guztien %85ean.

4.6.3. Merkatuaren kontrola

Merkatuaren kontrolak ikuskapen sistematikoak eragiten ditu etiketetan edo sektore oso arautuetan, baita segurtasuneko eta jarraipeneko egiaztapenak ere, produktu eta zerbitzu jakinen kasuan, horiei arreta berezia jarri behar baitzaie, gatazka asko sortzen dituztelako. Horren barruan, alde batetik, ikuskapen eta kontrol kanpainak sartzen dira, hau da, araudia bete egiten dela zaintzeko jarduketak programatuak. Aipagarria da sektore oso arautuen eta produktu batzuen etiketen ikuskapen siste-

matikoa. Beste alde batetik, osasunerako edo segurtasunerako arriskutsuak izan daitezkeen produktuen ibilgitea edo ezabaketa dago.

2005ean, Kontsumo eta Industria Segurtasun Zuzendaritzak ikuskapen eta kontrolerako 11 kanpaina egin ditu (2004an baino 5 gutxiago):

- Etxerik etxeko zerbitzu-emateen kontrola
- Luminarioen lagun-hartzea (erakargarriak haurrentzat, horman sartzekoak eta flexoak)
- Behi-okelaren etiketak
- Brontzeatu zentroen kontrola
- Industria produktuen segurtasuna (pizgailuak, produktu kimikoak eta opari elektrikoak), prezio merkeko dendetan
- Zeliakoei bideraturiko produktuen lagin-hartzea
- Genetikoki aldaturiko organismoak dituzten produktuen trazabilitatea
- Ehunen etiketak eta ehunen osaketaren etiketa-jartzearen trazabilitatea
- Girlanda argitsuen segurtasuna
- Jostailuen segurtasuna
- Abeletxeko hegaztien okelaren lagin-hartzeak

Guztira 4.228 jarduketa egin dira (aurreko urtean baino 74 gutxiago), bai kanpainen eraginez programaturiko jarduketak, bai programatu gabeak, eta horiek gehiengotan salaketan, produktu irregularrak agertzearen edo au-

tonomia erkidegoen arteko komunikazioen eraginezkoak izan dira.

Guztira 7.323 produktu kendu dira; horien artean, 3.177 jostailu, 3.717 material elektriko, haur-heziketako 23 material, 360 etxetresna elektriko, 5 produktu kimiko eta 9 motozikleta eta bizikleta.

4.228 jarduketa horietatik 3.095 negatiboak izan ziren, 1.003 positiboak izan ziren eta 130ean laginak hartu ziren. Hala eta guztiz ere, 1.003 positiboetatik 174k baka-

rrik eragin dute zehapen espedienteak irekitzea (%17,3, eta aurreko urtean %11,1); horien artean aipagarriak dira brontzeatu zentroen kontrolaren kanpainaren eraginezko espedienteak. Zehapen espedienterik gehien jaso dituzten sektoreak honako hauek dira: telefonia eta telekomunikazioak, elikadura eta etxebizitzaren konponketari loturiko gremioak. Halaber, espedienteen ziorik gehienak, izan ere, etiketatako eta kontsumitzaileari emandako informazioko akatsen eta zerbitzu-emateen akatsen eraginezkoak izan dira.

IKUSKAPEN JARDUKETAK, PRODUKTUAREN/ZERBITZUAREN ARABERA

Produktua/zerbitzua	Urratzearekin	Urratze barik	Lagin-hartzea	Guztira
Industriako produktuak	219	986	34	1.239
Jostailuak	135	377	52	564
Tindategia, garbiketa. zerb. orokorrak	136	380	—	516
Etxebizitza	223	188	—	411
Ehungintza	48	190	9	247
Okela produktuak	156	82	2	240
Ibilgailuen konponketa	23	212	—	238
Zenbait zerbitzu	8	182	—	190
Etxetresna elektrikoaren konponketa	2	99	—	101
Elikadura produktuak	3	75	21	99
Automobilak eta ordekoak	3	94	—	97
Etxebizitzaren konponketa	9	58	—	67
Olioak eta koipeak	3	45	5	53
Larruzko produktuak	1	51	—	52
Produktu kimikoak	25	11	6	42
Hornidura zerbitzu publikoa	1	16	—	17
Etxean erabiltzeko produktu kimikoak	0	16	—	16
Garraioak	0	9	—	9
Osasun eta laguntza zerbitzua	0	8	—	8
Erregaiak	4	2	1	7
Ogia eta ogi bereziak	0	3	—	3
Turismoa (hotela, bidaiaria-agentzia)	0	3	—	3
Publizitatea	0	3	—	3
Kontserbak	1	1	—	2
Ardoak eta likoreak	0	2	—	2
Produktu izoztuak	0	1	—	1
Frutak eta barazkiak	0	1	—	1
Guztira	1.003	3.095	130	4.228

IKUSKAPEN JARDUKETAK, ZIOAREN ARABERA

Zioa	2004				2005			
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
Kanpainak	344	574	525	1.443	302	540	694	1.536
Salaketak	158	732	1.196	2.086	166	690	1.228	2.084
Alertak	77	121	217	415	101	176	247	524
Beste B.	28	175	155	358	11	46	27	84
Guztira	607	1.602	2.093	4.302	580	1.452	2.196	4.228

Iturria: Kontsumo Zuzendaritzaren Memoria. Eusko Jaurlaritzak.

1

Pobrezia eta gizarte bazterkeria EAEen

5.1. Pobreziaren eta Gizarte Desoreken Inkestaren emaitzak (2004)

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailak, lau urtez behin, "Pobreziaren eta Gizarte Desoreken Inkesta" (PGDI) egiten du, pobreziak gure gizartearen duen presentzia, bertan eragina duten arrisku-faktoreak eta banaketa geografiko desorekatua ezagutzeko. Pobreziak EAEen duen eragina aldagarria da, berori neurtzeko aukeratzen den adierazlearen arabera. Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desoreken Inkestak bi dimentsio desberdin erabiltzen ditu, pilaketako pobrezia eta mantenamenduko pobrezia, eta, azken horren barruan, pobrezia arriskuko egoerak eta ongizate ezaren arriskuko egoerak. Pilaketako pobrezia, izan ere, familiek kontsumo iraunkorreko oinarritzko ondasunak (adibidez, etxebizitza) lortzeko ezintasuna da, ondasun horiek beharrezkoak baitira bizi-maila egokia epe luzean mantentzeko eta oinarritzko ondare baliabideak pilatzeko. Mantena-

menduaren dimentsioari dagokionez, pobrezia arriskuko egoerak funtsezko beharrianetarako diru-sarrera gutxi egiteari lotuta daude (batez ere, elikadurari, etxebizitzari eta arropari nahiz oinetakoei loturiko beharrianak); ongizate ezaren arriskua, berriz, diru-sarrera gutxi edukitzeari lotuta dago, baina ez oinarritzko beharrianak betetzeko bakarrik, baita gizarte jakineko gutxieneko ongizate eta erosotasun mailak mantentzeko ere. Azken adierazle hori EBko pobrezia erlatiboaren edo diru-sarrera baxuen tasekin parekatzeko modukoa da; tasa horiek, berriz, familien diru-sarrera ertainen %60ko mugatik aurrera finkatuta daude.

Termino absolutuetan, 2004ko inkestaren emaitzen arabera, mantenamenduko edota pilaketako pobreziaren eraginpean 45.000 familia daude, eta horietan 100.000 pertsona baino gehiago biltzen dira. Pobrezia egoera

POBREZIAREN ADIERAZLE OROKORRAK

	1986	1996		2000		2004	
	familien %	familien %	pertsonen %	familien %	pertsonen %	familien %	pertsonen %
Mantenamenduko pobrezia							
Pobrezia arrisku larria	4,9	4,6	4,0	5,5	3,6	4,9	3,5
Ongizate ezar	31,6	31,6	28,3	28,8	20,9	23,6	19,8
Pilaketako pobrezia	2,1	1,6	1,8	2,1	2,6	1,8	2,2
Bi pobrezia motak		5,7		6,8	5,4	6,2	5,2
Ongizate egoera	68,4	68,4	71,7	73,2	79,1	76,4	80,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Pobreziaren eta gizarte desoreken inkesta.



errealek, berriz, 25.000 familia inguruan dute eragina EAEn, eta muturreko pobrezia egoerek, oster, 4.000 familia inguruan. Ongizate ezaren arrisku egoerek, bestalde, 175.000 familian dute eragina (400.000 pertsona baino apur bat gehiago).

2004ko Memoria Sozioekonomikoa inkesta horren emaitza nagusiak aurkeztu zituen, eta gero, pobrezia arriskuko taldeen deskribapena, oraintsuko aldaketen ikerketa eta pobrezia Erkidegoan duen banaketa geografikoaren bilakaeraren azterketa egin zituen; oraingon, eragiketa estatistiko horren Txosten Orokorrean oinarrituz, gai zehatz oso interesgarria aurkezten du: pobrezia arriskuko edo ongizate ezaren arriskuko errealtate objektibo bati lotutako egoerak, eguneroko bizitzaren ikuspegitik begiratuta. Orain gai horretan sakontzen saiatuko gara, mantenamenduko pobrezia loturiko adierazleak aztertuta.

5.1.1. Elikadura arazoak

Mantenamenduko pobrezia loturiko arazo nagusienetarikoa bat elikadura arazoak egoteari lotuta dago. PGDI, 2000tik, *Short Form of the 12-month Food Security Scale* deritzona aplikatzen da, hau da, erkidego jakineko elikadura arazoak neurtzeko metodo estatistikoa. Metodoaren helburua biztanleriaren hiru kategoria nagusi mugatzea da, elikadura beharizanen estalduraren segurtasun mailari dagokionez (azken hamabi hilabeteetan). *Food Security Scale* (FSS) kategoriak honako hauek dira:

a) Beharizanen estalduran segurtasuna duten familiak.

b) Segurtasunik ez duten familiak, baina elikadura beharizanen lorpenean urritasun larriko egoera adierazten duten adierazlerik gabe (elikadura arazo larriak).

c) Segurtasunik gabeko familiak, elikadura beharizan larrien lorpenean urritasun larriko egoera erakusten duten adierazleak dituztenak; hau da, gose egoerei edo hortik oso hurbileko egoerei (elikadura arazo oso larriak) loturiko pertzepzio subjektibotik hurbil dauden posizioak.

2004an, gainera, pobrezia buruzko Europako eragiketan aurreikusitako elikadura adierazlea ere sartu da (EU-SILC); bertan, okela, oilaskoa edo arraina (edo horien baliokidea barazkijaleentzat) duen janaria gutxienez bi egunez behin eskuratzeko ezintasuna duen biztanleria proportzioa jasotzen da. Adierazle horri buruzko informazioa, bestalde, inkesta garatu aurreko urteari ere aplikatzen zaio.

PGDIren datuek agerian jartzen dutenez, EAEko biztanleriaren %5,2k FSS eskalan zehazturiko elikadurako segurtasun ezari loturiko arazoak dituzte. Arazorik larrienek, aldi horretan, %2,7an izan zuten eragina, eta proportzio hori koherentea da EU-SILCn (biztanleriaren %3,4).

ELIKADURA ARAZOEN ADIERAZLE OROKORRAK, POBREZIA ARRISKUAREN EDO ONGIZATE EZAREN ARABERA. FAMILIA BAKARREKO ETXEBIZITZETAKO BIZTANLERIA. EHUNEKOAK. 2004.

	Pobrezia	Pobreak ez-ongizaterik ez	Ongizate egoeran	Guztira
FSS adierazleak				
Arazo larriak	13,6	6,2	1,3	2,5
Arazo oso larriak	16,8	5,9	1,4	2,7
FSSak guztira	30,3	12,1	2,7	5,2
EU-SILC adierazlea	19,0	8,0	1,8	3,4

Oharra: Azken hamabi hilabeteetan ikusitako arazoak.
Iturria: Eusko Jaurlaritza "PGDI 2004".

Hala eta guztiz ere, elikadura arazo larrien eraginari buruzko ikerketak agerian jarri dutenez, arazo horiek askoz ere eragin handiagoa izan dute, azken urtean, egoera sozioekonomikorik txarreneko taldeetan. Elikadura arazo- en adierazle orokorra (FSS) erreferentziatzat hartuta ikus- ten denaren arabera, horiek orain pobrezia arriskuan dau- den taldeen %30,3an izan dute eragina, baita ongizate ezari loturiko arrisku egoeran dauden taldeen %12,1ean eta ongizate egoeran dauden %2,7an ere. Arazorik la- rrienei dagokienez, egoera antzekoa da. Horrela, FSSren arazo oso larrien adierazleak pobrezia arriskuko pertso- nen %16,8, ongizaterik ezaren arriskuko taldeen %5,9 eta ongizate egoerako pertsonen %1,4 adierazten ditu. EU-SILCen kasuan, zifrak apur bat altuagoak dira, baina nahiko antzekoak: %19, %8 eta %1,8.

5.1.2. Biziraupenari loturiko beste arazo batzuk

Biziraupenari loturiko arazoak ez dira elikadurara mu- gatzen; izan ere, horien barruan oinarritzko beste alderdi batzuk ere sartzen dira, esate baterako, arroparen edo oi- netakoen lorpen normalizatua edo bero maila egokien go- zamen (neguan). Datu erabilgarriek agerian jartzen du- tenez, arazo horiek handiagoak dira egoera ekonomikorik txarreneko pertsonen artean. Hain zuzen ere, pobrezia arriskuan dauden pertsonen %38,1ek bigarren eskuko arropen hornidurara jo behar izan dute, arazo ekonomiko- en eraginez. Proportzio hori %12,9koa da ongizaterik eza- ri loturiko arriskuan dauden pertsonen kasuan, eta %3koa, berriz, orain ongizate egoeran dauden etxeetan bizi diren pertsonen kasuan.


Bestalde, pobrezia arriskuko familietako pertsonen %27,7k hotza izan dute azken neguan, euren bizilekuan berokuntza sistema ezegokiak egotearen edo halako sis- temarik ez egotearen ondorioz. Ehuneko hori %7,4ra jais- ten da, ongizaterik ezari loturiko arrisku egoeran dauden pertsonen artean, eta %4,1era, berriz, orain ongizate

egoeran dauden pertsonen artean. Hala eta guztiz ere, ikusitako gabezia egoerek ez dute ezein kasutan ere era- ginik izan eraginpekorik gehienengan, ezta talderik baz- terrenekoetan ere.

5.1.3. Aisialdiaren erabilerari loturiko arazoak

Aisialdiaren erabilerari loturiko adierazle orokorre- k agerian jarri dutenez, familia pobreetako pertsonarik gehienek gaur egun ez dute aisialdia erabiltzeko aukera- rik. Horrela, %48k ez dituzte euren aisialdi beharrianak betetzen, eta beste %36,3k euren gastu-maila ahalik eta gehien egokituz betetzen dituzte halako beharrianak. Proportzio horiek oso altuak dira ongizaterik ezari loturiko egoeran dauden pertsonen artean, baina kasu honetan beharrianak betetzen ez dituzten pertsonen proportzioa %21,4koa da, eta erreferentziako pertsonen %42,9k

BIZIRAUPENARI BURUZKO ARAZOEN BESTE ADIERAZLE BATZUK, POBREZIA ARRISKUAREN EDO ONGIZATE GABEZIAREN ARABERA. FAMILIAKO ETXEBIZITZETAKO BIZTANLERIA. EHUNEKOAK. 2004.



● Erabilitako arropen hornidura azken urtean
● Azken neguan batzuetan hotz

Iturria: Eusko Jaurlaritza "PGDI 2004".

behintzat moldatu egiten dira (pertsona pobreen artean ia %15,7). Ongizate egoeran dauden pertsonarik gehienak azken egoera horretan daude (%76,6).

Estualdi ekonomikoen eraginez, familia pobreetako pertsonen %62k ez du astebeteko oporralldirik ere izan, azken urtean, eta %46,6k ez du irteerarik egin azken 15 egunetan (eguerdiz, arratsalde edo gauez). Adierazle horien mailak beherakada handia dauka ongizate ezaren arriskuan dauden pertsonen artean, baina oraindik ere horien %40,3k astebeteko oporralldia izan dute (%22,9k ez du aisialdiko irteerarik egin azken hamabostaldian, zergati ekonomikoen eraginez). Orain ongizate egoeran dauden pertsonen artean, %13,7k ez du oporrik izan, zergati ekonomikoen ondorioz, eta azken hamabost egunetan %5,7k mugak izan dituzte aisialdiko irteerak egiteko. Ikusten denez, kolokatasun ekonomikoari loturiko egoerek guztiz baldintzatzen dute aisialdiaren gozamina, batez ere pobrezia arriskuko egoeran dauden taldeen artean.

5.1.4. Etxebizitzari loturiko arazoak

Mantenamenduko pobreziaaren inplikazioen azterketan, aintzat hartu behar dira etxebizitza lortzeko esfortzua

neurtzen duten adierazleak. Horri dagokionez, lehenengo eta behin, familiek etxebizitzaren kostuari aurre egiteko behar duten esfortzu garbiaren tasa kalkulatzeko da, alokairuaren gastuak, amortizazioa nahiz interesak, komunitate gastuak, udal tasak eta energia gastuak ere barne⁵.

Lehenengo eta behin, lotura estua dago esfortzu tasaren eta etxebizitza edukitzeko araubidearen artean. Horrela, etxebizitza jabetzan edo lagapenean edukitzeari loturiko gastuaren esfortzuak murriztaper handia izan du. Izan ere, halako kasuetan, esfortzu tasa %5-8 bitartekoa da, diru-sarrera guztiei dagokienez; alokairuan edo ordaindu gabeko jabetzako etxebizitzan dauden familiei dagokienez, ostera, tasa %22-23koa da. Halaber, etxebizitza gastuen kargak gora egiten du, kasu guztietan, ongizate mailak behera egin ahala. Horrela, batez beste, esfortzu tasa %10,3koa da ongizate egoeran dauden familientzat, baina ongizate ezaren arriskuan dauden familientzat %20,6koa da, eta pobrezia arriskuan daudenentzat %32,3koa.

Arazoaren larritasunik handiena, bestalde, alokairuko edo guztiz ordaindu gabeko etxebizitza-jabetzako araubidea duten arrisku egoerako familien artean ikusten da. Ongizaterik ezaren arriskuan dauden familien kasuan, ba-

AISIALDI BEHARRIZANEN ESTALDURA ARAZOEN ADIERAZLE OROKORRAK, POBREZIA ARRISKUAREN EDO ONGIZATE EZAREN ARABERA. FAMILIAKO ETXEBIZITZETAKO BIZTANLERIA. EHUNEOAK. 2004.

	Pobrezia	Pobreziarik ez-ongizaterik ez	Ongizate egoeran	Guztira
Aisialdi beharizanen estaldura				
Estali barik	48,0	21,4	6,6	10,5
Gehiena egokituta	36,3	35,8	16,8	20,6
Moldatzen dira	12,2	32,6	44,8	41,6
Arazorik gabe	3,5	10,3	31,9	27,4
Azken urtean oporrik ez	62,0	40,3	13,7	19,7
Azken hamabostaldian irteerarik ez	46,6	22,9	5,7	9,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza "PGDI 2004".

ETXEBIZITZAREN KOSTUARI AURRE EGITEKO ESORTZU GARBIAREN TASA, POBREZIA ARRISKUAREN EDO ONGIZATE EZAREN ARABERA. EDUKITZE-ARAUBIDEA. FAMILIAK. EHUNEOAK. 2004.

	Pobrezia	Pobreziarik ez-ongizaterik ez	Ongizate egoeran	Guztira
Edukitze-araubidea				
Jabetza, ordainduta	17,6	11,2	5,0	5,6
Jabetza, ordaindu barik	53,5	35,4	21,4	22,8
Alokairua eta antzekoak	50,8	33,5	18,6	22,5
Doakoa	17,7	8,5	6,1	7,6
Guztira	32,3	20,6	10,3	11,5

Oharra: Azken hamabi hilabeteotan ikusitako arazoak.

Iturria: Eusko Jaurlaritza "PGDI 2004".

¹ Adierazle garbia lortzeko, aintzat hartu dira erreferentziako unitatearen (kasu honetan, familia) diru-sarrera mota guztiak.

tez besteko esfortzu tasak %30eko mailak gaintzen ditu (%33,5 alokairuko egoeran, eta %35,4 ordaindu gabeko jabetzan). Baina maila horrek %50etik gorako tasak ditu pobrezia arriskuko egoeran dauden familien kasuan (hurrenez hurren %50,8 eta %53,5). Ikusten denez, karga apur bat handiagoa da hipotekaturiko jabetza dagoenean (guztiz amortizatu gabe), alokairuaren kasuan baino.

Etxebizitzaren arloko gastuek ongizatean duten eragina hobeto ikusten da diru-sarrera guztien %30 baino gehiago etxebizitzari loturiko gastuetarako bideratzen duten familien kasuan; horrek aditzera ematen du halako gastuek gehiegizko prezioa sortzen dutela baliabide erabilgarriari dagokionez. Horren eraginpeko familia kopurua txikia da doako edo guztiz ordaindutako jabetzako etxebizitzaren kasuan, baina taldeek alokairuko edo ordaindu gabeko jabetzako egoeran eraginpeko taldeen kopurua askoz ere handiagoa da. Hala eta guztiz ere, ongizate egoeran dauden pertsonen artean, erreferentziako proportzioa eraginpekoen %20-25ekoa da, baina familiarik gehienek arazo hori izaten dute ongizaterik ezaren arriskuko taldearen barruan, eta horrela, pobrezia arriskuko familien kasuan egoera horren eraginekoen maila %80tik gorakoa da. Berrito ere, horrenbestez, etxebizitzaren jabetza-araubidea funtsezkoa da pobrezia eta kolokatasun kasuetan, handitu egiten baitu (ongizate egoera berbera izanik) arrisku maila, amortizatu gabeko jabetzaren eta alokairuaren kasuan; ostera ere egiaztatu egiten da etxebizitzaren gastuak kolokatasun arriskuan dauden familiarik gehiengan sortzen duen prezio handia, alokairuko edo guztiz amortizatu gabeko jabetzako egoeretan. Halako

kasuetan, etxebizitzaren gastuak, zalantzarik gabe, baldintzatu egiten du gainerako oinarritzko beharriaz erotsotasun handiagoz aurre egiteko aukera.

5.1.5. Betebeharren estaldura eta zorpetzeko arriskua

Gainontzekoekiko betebeharren estaldurari aurre egiteko edo gastuaren ohiko beharriaz aurre egiteko loturiko zailtasunaren arloko gabezia ekonomikoaren inplikazioa, izan ere, gizarte arazo handia da. Arriskuko talde desberdinen arteko aldea, mantenamenduari dagokionez, funtsezkoa da arlo honetan. Horrela, pobrezia arriskuko egoeran dauden familietako pertsonen %69,4 arazo horietarikoren baten eraginpean egon dira azken urtean, eta ongizate ezaren arriskuko egoeran dauden taldeen artean tasa hori %28,2koa izan da eta ongizate egoeran dauden familiako pertsonen artean %8koa.

Pobrezia arriskuko pertsonen artean, ikusitako arazo nagusia gabezia ekonomikoek gastu mailaren murriztapenean dituzten inplikazioei loturikoa da, eta horren eraginpean pertsonen %63,5 dago. Gastua murrizteko arazo nagusia da, bai aisialdirako nahiz astialdirako gastuei (%57,3) eta bai arroparako, elikadurarako edo etxebizitzarako gastuei (%63,2) dagokionez. Gainontzekoei emandako laguntzen baliabideak ere garrantzia dauka, eta horren eraginpean pobrezia arriskuko egoeran dauden pertsonen %50,2 daude. %36,2k laguntza eskatu die erakunde publikoei edo pribatuei, eta %37,9k lagunei, auzokoei edo familiakoei.

BETEBEHARREN ESTALDURAREN ETA ZORPETZEKO ARRISKUAREN ADIERAZLEAK, POBREZIA ARRISKUAREN EDO ONGIZATE EZAREN ARABERA. FAMILIAKO ETXEBIZITZETAKO BIZTANLERIA. EHUNEKOAK. 2004.

	Pobrezia	Pobreziarik ez-ongizaterik ez	Ongizate egoeran	Guztira
Betebeharra azken urtean				
Ordaindu gabe	16,9	5,5	1,5	2,7
Hornidura mozketak	10,1	2,8	0,4	1,1
Bahiturak	3,6	1,0	0,1	0,3
Ordainketa ezak, mozketak, bahiturak	24,0	7,2	1,6	3,3
Aisialdirako gastuen murrizt.	63,2	25,0	6,3	11,3
Oinarritzko beharriaz murriztapena	57,3	21,2	4,6	9,1
Gastuen murrizt.	63,5	25,4	6,4	11,5
Jabetzen salmenta, ikastetxe aldaketa	2,2	2,8	0,0	0,5
Lag., auzokoei edo familiakoei dirua eskatu	37,9	9,2	2,3	4,7
Erakundeek dirua eskatu	36,2	10,6	2,0	4,6
DIRUA ESKATU	50,2	15,9	4,1	7,7
Aurrezpena erabili	22,2	13,2	3,0	5,4
Kreditua eskatu	6,3	5,4	1,8	2,5
Kredituak edo aurrezpenak erabili	25,2	16,7	4,0	6,8
Aurrekoetariko bat	69,4	28,2	8,0	13,5
Zorpetzeko arriskua	12,5	4,0	0,3	1,3

Iturria: Eusko Jaurlaritza "PGDI 2004".

Pobrezia arriskuko pertsonen %25,2k kreditua eska-tu edo aurrezpenak erabili dituzte (aurrezpenaren kasuan %22,2 eta maileguen eskariaren kasuan %6,3). Azkenik, pobrezia arriskuko egoeran dauden pertsonen %24 ho-nako honen eraginpean egon dira: ordainketarik ez egi-tea edo atzeratzea alokairuen nahiz kredituen ordainke-ta, ura kentzea, argia nahiz telefonoa kentzea edo ondasunak bahitzea. Arazo horien eragina, hurrenez hu-rren, %16,9koa, %10,1ekoa eta %3,6koa izan da.

Inkesta egiteko unean ongizate egoeran zeuden per-sonen artean, bestalde, %10ek baino gutxiagok jasan behar izan dute goiko paragrafoan aipaturiko arazoren bat; ongizate ezaren arriskuan dauden pertsonen artean, gaur egun, adierazleek gorakada nabaria dute, baina gu-txiengo mailetara mugatzen dira. Arazorik deigarriena, izan ere, gastuen murriztapenari buruzkoa da, eta horren eraginpean pertsonen %25,4 dago; gainontzekoei lagun-tza eskatu edo kredituak nahiz aurrezpenak erabili dituz-tenen kasuan, mailak %15ekoak baino apur bat altuago-ak dira.

Zorpetzeko arriskuari dagokionez (ikerketa honetan, aurrezpenik ez duten eta diru-sarrera erabilgarrietatik go-rako ohiko gastuak dituzten egoerak), esan behar da hori nahiko txikia dela, baita arriskurik handieneko pertsonen artean ere. Horrela, pobrezia arriskuko egoeran dauden pertsona guztien %12,5 bakarrik ari dira, gaur egun, eu-ren diru-sarrera erabilgarrietatik gorako gastua egiten,

diru-sarreraren eta gastuen arteko desfase horri aurre egi-teko aurrezpen barik. Ongizate ezaren arrisku egoeran dauden pertsonen artean proportzioa %4koa da, eta ongizate egoeran dauden pertsonen artean %0,3koa.


5.2. Bazterkeria eta gizarteratze prozesuak

Bazterkeria deritzon gizarte fenomenoaren ezaugarri nagusia pertsona kopuru gero eta handiagok gizarteratze-ko arazoak edukitzea da. Esan daiteke gizarte loturaren haustea dela². Horren barruan, berriz, pertsonak egunero-ko bizitzan harremanetan jartzen dituzten eta gizartearen batasuna nahiz kohesioa segurtatzen duten gizarte, kultu-ra eta ekonomia mailako loturak sartzen dira.


Bazterturiko pertsonak atomizatuta eta isolatuta dau-de, eta ez daude gizarteko oinarritzko ezein talderen bar-ruan (adibidez, familia, auzotarrak, etab.). Distantzia ezarrita, eta inolako loturarik ez dutenez, apurka-apurka galdu egiten dituzte gizarte erreferentziak, eta, batzue-tan, gainera, gizarte zerbitzuak, harrera zentroak eta kari-tatezko elkarteak ere ez dituzte erabiltzen. Gizarte lotura-ren galerarekin batera, halaber, euren buruarekiko balorazio positiboa galtzen da, baita autoestimua ere.

EAEko Memoria Sozioekonomikoa, 2003ko ediziotik, SARTUren³ "Bazterkeria eta Gizarteratze Prozesuen Be-hatokia" deritzonaren jarraipena egin du; hori Eusko

DIRU-SARREREN ITURRIAK



BILAKAERA ENPLEGUAN



² Renes eta Angulo (2005): "Análisis de la evolución de la pobreza en España y en la CAPV, en el contexto europeo". Ekonomi Gerizan, 13. zenb. FCAVN.

³ Sartuk, informazio, orientazio, motibazio pertsonal eta heziketa zerbitzuen bitartez, aldagata prozesuak eragin nahi ditu arazoak dituzten per-sonengan, bazterkeriari eta gizarte bazterkeriari aurre egiteko.

BAZTERKERIA/GIZARTERATZE ADIERAZLEAK

		Larria	Moderatua	Arina
Lehenengo maila	Enplegua	Lan merk. kanpo	Kolokako sarbidea	Enp. egonkorretik salbuetsita
	Eg. ekon.	Gabezia oinarrizko gastuetan	Zailtasunak oinarrizko gastuekin	Zailtasunak beste gastu batzuekin
	Etxebizitza	Eskolaterik ez	Kolokatasuna eta gehiegizko gastua etxebizitzan	Oinarrizko ekipamenduen gabezia
	Hezkuntza	Eskolaterik ez	Sarbide mugatua	Trebakuntza txarra
Bigarren maila	Osasuna	Osasun merk. kanpo	Osasunaren eraginezko kolokatasuna	Gizarte sarrerik ezaren eraginezko kronikotasuna
	Gizarteratzea eta fam. integr.	Oinarrizko harremanen gabezia edo gatazk.	Laguntza sarearen gabezia edo gatazkak	Gabezia edo gatazka
	Gizarte harremanak	Delituko edo gizartearen aurkako jokabideak eta familia barruko gatazkak	Gizartearen aurkako jokabideak edo familia barruko gatazkak	Delituko edo gizartearen aurkako jokab. eta familia barruko gatazkak iraganean

Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, BBKrekin eta Europako Gizarte Fondoarekin lankidetzan ari da, EA-Eko gizarteratze programetako partaide lagin baten bilakaera aztertzen (2002tik). Ekimen horretan, gizarte bazterkeriako egoeran edo horren arriskuan dauden 400 pertsona hartu dira aintzat (gizarteratze programetan parte hartzen duten edo parte hartu duten pertsonak⁴); horrela, programaren bost urteko iraupenaren bidez, gizarteratze prozesuen jarraipena egingo da. 2005eko txostenean, laginaren bilakaeraren laburpena dago jasota (ikerketa hasi zenetik honako bilakaera), honako arlo hauei dagokienez: enplegua, egoera ekonomikoa, etxebizitza, hezkuntza, osasuna, gizarteratzea nahiz familia integrazioa eta gizarte harremanak.

Lehenengo eta behin, enpleguaren aldetik, 2002ari dagokionez, egoera hobetu duten pertsonen proportzioa handiagoa da, (%42), egoera mantendu dutenena (%33) eta txarrera egin dutenena (%24) baino. Hala eta guztiz ere, aldiaren amaieran, laginaren %47 soilik egon da enpleguaren araberako bazterkeriarik ezari loturiko egoeran. Izan ere, gehienek bazterkeria motaren bat jasaten dute, bazterkeria txikia (%30), moderatua (%6) edo larria (%18).

Oro har, langabezia egoerak murriztu egin dira 2002tik, eta %20tik %15era igaro dira; gainera, lan egiten duten pertsonen kontratu-egoerak ere hobekuntza handia izan du, eta, hain zuzen ere, lanaldi osoko enplegua 2002ko %5etik 2005eko %22ra igaro da. Aditzera eman behar da, gainera, denborazkotasuna %16tik

%14ra murriztu dela, eta kontraturik gabeko lanean ari diren pertsonen kopuruak ere behera egin du.

Bestalde, talde horren egoera ekonomikoa, orokorrean, ez da askorik aldatu ikerketaren barruko lau urteetan, joera nagusia mantenamendukoa baita; %78 mantendu egin dira 2002ari dagokionez, eta egoera hobea duten pertsonen eta egoera txarragoa duten pertsonen kopurua berbera da (%11). Diru-sarrerei dagokienez, %15ek diotenez, etxean hiler 300-600€ bitarteko diru-sarrerak dituzte, %25ek 601-900€ bitartekoak, eta %12k 1.200€-tik gorakoak. Gastatzeko gaitasunari dagokionez, %65ek esan dute egunean bizi direla, eta beraz, nabarmendu egiten dira ezustekoren baten aurreko zaurgarritasun egoerak.

Etxebizitzari dagokionez, aldaketa handiak egon dira; izan ere, 2005ean laginaren %25ek soilik zioten arlo horretan egoera mantendu egin zela. Kasu guztien %40an hobera egin arren, egoera txarragoa duten pertsonen tasa %34koa da. Gainera, arlo horretan, bazterkeria larriko %17tik %23ra igaro da. Halaber, etxebizitza ordaintzera bideraturiko gastua gehiegizkoa da, pertsona horien %59k baino gehiagok familiako diru-sarrera guztien %30 baino gehiago bideratzen baitu etxebizitzaren inguruko gastuetara.

Etxebizitzaren egoerak hobera egin du orokorrean, eta aipagarria da etxebizitzetako oztupo arkitektonikoen presentziak izandako beherakada, etxebizitza horietan ezinduren bat bizi denean, baita eraikuntzetako akatsen mu-

⁴ Lagin honek, bera osatzen duten ezaugarrien eraginez, galerak izan ditu ikerketa egin den bitartean, eta 2005ean 255 pertsonara murriztu da. Laginaren higadura, hala eta guztiz ere, ikertzaileek aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da.

BAZTERKERIA ESKALAREN BILAKAERA 2002TIK 2005ERA (%)

	Larria	Moderatua	Arina	Bazterkeriarik ez
Enplegua	25-18	14-6	26-30	34-47
Egoera ekonomikoa	6-6	8-7	1-2	85-85
Etxebizitza	16-2	29-17	31-29	24-30
Hezkuntza	4-0	8-6	22-2	67-92
Osasuna	2-0	12-4	20-19	66-76
Gizarteratzea eta familia integr.	9-12	25-19	36-28	29-39
Gizarte harremanak	8-7	1-2	6-21	85-71
Gizarte posizioa	8-8	31-17	44-41	17-34

riztapena ere. Aldiz, aurri egoeran dauden eraikinetan bizi diren pertsonen kopuruak gora egin du. Bestalde, berokuntza eta etxeko teknologiarik loturiko ekipamenduak dituzten pertsonen kopuruak gora egin du.

Bestalde, lau urte horietan hezkuntzaren arloan emandako pausoen artean, 2002ari dagokionez, %60 lehengo egoera berean mantendu dira, %32k hobetu egin dute egoera eta %8ren kasuan egoerak okerrera egin du. Esan behar da hezkuntzako bazterkeria larriak (eskolatzerik eza, analfabetismoa edo derrigorrezko hezkuntzako sei ikasturte baino gutxiago eginda) ez duela eraginik laginean gelditu diren ezein pertsonarengan. Bazterkeria moderatuko egoeran dauden pertsonen tasa lau puntutan murriztu da, eta bazterkeria txikia ia guztiz desagertu da (%20tik %2ra igaro da).


Lagineko pertsonen %33k ez dute heziketa jarduketarik egin lau urteetan, eta %37k diote bat egin dutela. Egindako heziketa orduen kopuruak ia %90ean gainditzten ditu 300 orduak. Ikastaroen artean, aipagarriak dira informatikakoak (%34), eraikuntza jarduerak, osasuna eta fabrikazio mekanikoa. Heziketa prozesu horiei dagokionez, poztasun maila handia da kasu guztien %84an.

Halaber, ikerturiko taldearen osasunaren bilakaerari dagokionez, joera positiboa da. Izan ere, %55 berdin mantendu dira aldi osoan; %29k hobera egin dute, eta %16ren osasunak txarrera egin du. Arlo horretan ez da bazterkeria egoera larriarik ikusten; bazterkeria moderatuko egoeren kopuruak (egoera ekonomikoaren narriadura, osasun arazoak edukitzearen edo eguneroko lanetarako arazo handiak izatearen ondorioz) beherakada handia izan du (%12tik %4ra).

Gizarteratzearen eta familia integrazioaren bilakaera, bestalde, homogeneoa da; izan ere, ehunekorik handienaren egoerak (%38) hobera egin arren, %33ren egoerak txarra egin du eta %29ren egoera mantendu egin da. Hobekuntzarik handiena 2003an egon da, urte horretan

%46ren egoerak egin baitzuen hobera. Gizarteratzean eta familia integrazioan, bazterkeria larria (harreman pertsonalik zuzenenen —familia harremanak— gabeziarekin edo harremanotako gatazkekin) hazi egin da urterik urtera, eta 2002ko %8tik 2005eko %15era igaro da. Bestalde, harremanak, oro har, onak izan dira, amarekin hobe eta aitarekin txarragoa. Gainera, gizarte harremanen bilakaerari dagokionez, joera mantentzen da: %88ren kasuan ez dute ez hobera ez txarrera egin eta %13ren kasuan hobera egin dute. Guztiarekin ere, gizarte harremanetan bazterkeriarik jasaten ez duten pertsonen ehunekoak behera egin du ikerturiko aldian, eta %83tik %71ra igaro da, baina bazterkeria mailarik txikieneen kasuan ehunekoa %6tik %21era igaro da.

Azken batean, ikerketaren barruko pertsonen "gizarte posizioak" hobera egin du kasurik gehienetan (%45); bestalde, %33ren kasuan posizioa antzeko baldintzetan mantendu da eta gainerako %22ren kasuan txarrera egin du. Horrenbestez, hobekuntza eta mantentzen nagusitzen dira, txarrera egin duten egoeren aurrean, eta hori garrantzitsua da lagina aintzat hartuta; izan ere, SARTU-


GIZARTERATZEAREN ETA FAM. INTEGRAZIOAREN ESKALA

2002-2005 ALDIAN ZEHARREKO BILAKAERA (%)

	Hobera	Mantendu	Txarrera
Enplegua	42	33	24
Egoera ekonomikoa	11	78	11
Etxebizitza	40	25	34
Hezkuntza	32	60	8
Osasuna	29	55	16
Gizarteratzea eta fam. integr.	38	29	33
Gizarte harremanak	9	76	15
Gizarte posizioa	45	33	22

ren zerbitzuen erabiltzaileak dira eta, beraz, gehienek era askotako jarduerak garatu dituzte bazterkeria egoera edo, behintzat, hori jasateko arrisku egoera aldatzeko.

Horrek agerian jartzen du, hortaz, garaturiko jarduketak kasurik gehienetan lagungarriak izan direla pertsona horiek gizarteratzeko aukerak hobetzeko.







Gizarte Babeseko Estatistika Integratuen Europako Sistemak (GBEIES) emandako definizioaren arabera, Gizarte Babesa, izan ere, gizabanakoek arrisku eta beharri-
zan jakinak egotearen ondorioz dituzten kargen estalduraren eraginezko gastuen multzoa da. Gastu horrek gainontzeko baten esku-hartzea eragiten du, eta gainontzeko hori eragile publiko nahiz pribatua edo irabazi as-
morik gabeko erakunde pribatua izan daiteke (baldin eta taldeko gastuak badira, eta beraz, produktuen kontsumo pertsonalari loturiko gastu pribatuak ez dira aintzat har-
tuko), eta horrek ez du onuradunaren aldi bereko ordain baliokiderik sortuko.

EAEko Gizarte Babesean erantzukizuna duten erakun-
deen multzoaren gastu osoari buruzko azken datu ofizia-
lek adierazitakoaren arabera (2003ko datuak), gizarte ba-
beseko gastu finkatu osoa 9.505 milioi eurokoa izan zen
urte horretan, eta horrek Erkidegoko BPGren %19,2 adie-
razten du, Eustatek landutako datuen arabera. Esfortzu
maila hori apurka-apurka murriztu egin da, 1995eko
%22,3tik 1997ko %21,4ra eta 1999ko %20,1era, eta hor-
tik azken datu honetara, BPGk izandako hazkunde han-
diagoaren ondorioz.

Gizarte babeseko gastu osotik, gizarte prestazioen
balioa (familiak gizarte babeseko erakundeetatik jasotzen
dituzten transferentziak, babesturiko kontingentziak ger-
tatzten direnean), guztizkoaren %98, 9.296 milioi eurokoa
izan zen 2003an, eta gero eta handiagoa izan da 1995etik

(EAEko gizarte babeseko kontuaren lehenengo datuak).
2002ko ekitaldiari dagokionez, hazkundea %8,3koa izan
da, eta 1995etik 2003ra bitarteko aldiaren %6,5eko urtero-
ko hazkunde pilatzailea egon da.

Emaitza horiek Estatukoekin konparatuta, desberdin-
tasun handiko panorama ikusten da. Biztanle bakoitzeko
gizarte prestazioetako gastua handiagoa da EAEn, aldi
osoan, eta gainera, aldea gero eta handiagoa izan da
denborarekin; horrela, 1995ean, biztanle bakoitzeko gas-
tua %10 handiagoa zen EAEn, eta 2003an %24 handia-
goa zen. Bestalde, gizarte babeseko gastuaren eta BP-
Gren arteko erlazioa beti izan da txikiagoa EAEn Estatuan
baino, baina aldea murrizten joan da, batez ere 2000tik
aurrera.


Konparazioa EB-15ekin eginez ikusten denaren ara-
bera, apurka-apurkako hurbiltzea egon da Europako mai-
letara, biztanle bakoitzeko gastuari dagokionez; izan ere,
1995ean adierazle horrek Batasuneko batez besteko ba-
lioaren %65 inguruan kokatzen zuen EAE, biztanle bakoit-
zeko 2.856 euroarekin, eta 2003an %75eko tasa gaindi-
tzen zuen, biztanleko 4.536 euroko gastuarekin. Hala eta
guztiz ere, EBrekiko distantzia gero eta handiagoa da,
baldin eta gizarte babesean egindako gastuak BPGri da-
gokionez duen ehunekoa aintzat hartzen badugu: EAE,
2003an, EB-15ean egindako gastuaren %68ra iristen zen,
eta 1995ean, berriz, EB-15eko batez bestekoaren %79ra
iristen zen.

EUROPAN GIZARTE BABESEAN EGINDAKO GASTUAREN ADIERAZLEAK. 2003

	Guztira	Biztanleko			BPGren ehunekoa		
	(euroak milioit.)	(euroak)	EB-25=100	EAP (1)	EB-25=100	%	EB-25=100
Alemania	652.958	7.911	132	7.087	118	30,2	108
Austria	66.858	8.233	137	7.700	128	29,5	105
Belgika	80.096	7.719	128	7.476	124	29,7	106
Zipre	:	:	—	:	—	:	—
Danimarka	58.121	10.782	179	8.115	135	30,9	110
Eslovakia	5.176	962	16	2.063	34	18,4	66
Eslovenia	6.063	3.038	51	4.076	68	24,6	88
Espainia	153.555	3.656	61	4.186	70	19,7	70
Estonia	1.084	801	13	1.411	23	13,4	48
Finlandia	38.717	7.427	124	6.560	109	26,9	96
Frantzia	490.194	7.932	132	7.434	124	30,9	110
Grezia	40.468	3.671	61	4.567	76	26,3	94
Holanda	133.675	8.239	137	7.605	126	28,1	100
Hungaria	16.110	1.590	26	2.783	46	21,4	76
Irlanda	22.952	5.744	96	4.814	80	16,5	59
Italia	343.098	5.956	99	6.024	100	26,4	94
Letonia	1.363	586	10	1.174	20	13,4	48
Lituania	2.228	645	11	1.342	22	13,6	49
Luxenburgo	5.693	12.653	210	10.905	181	23,8	85
Malta	783	1.964	33	2.879	48	18,5	66
Polonia	42.096	1.102	18	2.121	35	21,6	77
Portugal	33.330	3.192	53	4.076	68	24,3	87
Erresuma Batua	448.645	7.532	125	6.812	113	26,7	95
Txekiar Errep.	16.267	1.594	27	2.964	49	20,1	72
Suedia	88.986	9.933	165	8.258	137	33,5	120
EB-12	2.061.592	6.655	111	6.564	109	28,1	100
EB-15	2.657.344	6.926	115	6.926	115	28,3	101
EB-25	2.748.513	6.012	100	6.012	100	28,0	100
Islandia	2.286	7.897	131	6.039	100	23,8	85
Norvegia	59.341	13.000	216	8.728	145	27,7	99
Suitza	88.988	12.125	202	8.363	139	29,8	106
EAE	9.505	4.536	75	5.194	86	19,2	68


(-) Ez dago daturik. (1) Erosteke Ahalmenaren Parekotasuna.
Iturria: Eustat. Gizarte Babesaren Kontua eta Eurostat.

GIZARTE PRESTAZIOETAKO GASTUAREN ADIERAZLE BATZUEN BILAKAERA (PER CAPITA). EUROAK



Iturria: Eustat "Gizarte Babesaren Kontua".

GIZARTE PRESTAZIOETAKO GASTUAREN BILAKAERA EAEN, FUNTZIOEN ARABERA. EUROAK MILATAN



Iturria: Eustat "Gizarte Babesaren Kontua".

Bestalde, gizarte prestazioetan egindako gastua zortzi funtziotan banatzen da, horien artean aipagarriak dira zahartzaroko eta gaixotasuna/osasun laguntza. Za-

hartzarokoan egindako gastuaren barruan, pentsioan ez ezik beste prestazio batzuk ere sartzen dira, adibidez, etxerik etxeko laguntza edo adineko pertsonen ostatu; 2003an 4.265 milioi eurokoa izan zen, hain zuzen ere, 65 urtetik gorako pertsona bakoitzeko 11.145 eurokoa. Prestazioen efektua kenduta, adin talde horretako pertsona bakoitzeko zahartzaro prestazioen eskuratze-ahala %1,1eko urteroko erritmoan hazi da 1995etik. Gaixotasuna/osasun laguntza funtzioan antzeko azterketa egin da ikusten denez, urteko batez besteko hazkundea %4,3koa izan da.

Langabeziako gastuak izandako bilakaerari dagokionez, langabetuei bideraturiko baliabideek murriztapena izan dute termino absolutuetan, baina langabeziaren beherakada oraindik ere handiagoa izan da; beraz, langabeziaren eraginezko prestazioen balio erreala urteko %4,1ean hazi da.


Azkenik, 1995-2003 aldian pilaturiko urteko hazkundetik handienak honako funtzio hauek lortu dituzte: gizarte bazterkeria (%12,6), familia/seme-alabak (%11,9) eta etxebizitza (%10).

Langabeziaren aurkako babesa: EIN eta EEZP

406

Langabeziaren prestazioek babestu egiten dituzte lan egin ahal edo nahi dutenak, enplegua aldi baterako edo behin betiko galtzen dutenean edo lanaldia nabarmen murrizten zaienean, horrela soldatek ere horren arabera galera edo murriztapena izaten baitute. Prestazioak kotizaziopekoak (langabezia partziala edo erabatekoa) eta laguntzakoak (langabeziaren sorospena) izan daitezke. Kotizaziopekoen kasuan, langileak kontingentzia horretarako aurretiazko kotizazioa egin behar du gizarte segurantzari, eta prestazioak langileen nahiz enpresaburuen kuotekin eta Estatuaren ekarpenarekin finantzatzen dira.

LANGABEZIAKO PRESTAZIOEN ONURADUNAK ETA ONURADUN EZ DIREN LANGABETUAK EAEn



Iturria: Geuk landuta, EIN-EEZPn eta Eustaten oinarrituz.

Langabeziaren eraginezko sorospenaren barruan, prestazioa ekonomikoa eta gizarte Segurantzarako ordainketa (kasuan kasuko kotizazioa) sartzen dira. Langabeziarako sorospena jasotzeko eskubidea dute honako egoera hauetariko edozeinetan dauden langileak:

- Kotizaziopeko prestazioa agortu eta familia erantzukizunak dituzten langileak.
- Langabeziaren eraginezko 12 hilabeteko prestazioa agortu duten 45 urtetik gorako langileak, familia erantzukizunik eduki ez arren.
- Itzulitako langile emigranteak.
- Langabeziaren legezko egoera gertatzean kotizaziopeko prestazioa lortzeko gutxienean kotizazio aldia bete ez duten langileak.
- Espetxetik irtendakoak
- Gaitasun osokoak edo ezindu partzialak diren langileak, ezintasun handiko edo ezintasun iraunkor absolutuko (edo erabatekoa) egoera hobetzearen eraginezko ikuskapen espedienteen ondorioz, ohiko lanbidean jarraitzeko gauza baitira.

1.1. Prestazioen eta langabeziaren aurkako estalduraren jasotzaileak.

2005ean, langabeziako prestazioen jasotzaileen kopuru osoa 44.500 pertsonakoa izan zen EAEn, aurreko urtean

LANGABEZIA PRESTAZIOAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 2005EKO DATUAK

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	Estatua	EAE /Estatua (%)
Hobariak guztira	6.211	13.814	24.318	44.343	1.335.128	3,32
Kotizaziopeko pentsioa	4.700	9.272	16.324	30.296	709.604	4,30
Sorospena	1.480	4.217	7.615	13.312	376.729	3,53
Gizarteratzeko Errenta Aktiboa	31	325	379	735	248.795	0,30
Estaldura tasa	70,04	71,59	65,22	67,75	70,31	:
Hileroko prestazioa (€-ak milatan)	7.273	14.434	25.850	47.557	1.119.419	4,25
Urtean pilatuta (€-ak milatan)	84.846	173.382	316.248	574.476	13.010.626	4,42
Onuradun bakoitzeko b.b. gast. (€/hilean)*	1.171,0	1.044,9	1.063,0	1.072,5	911,3	117,70

(*) Estatuko datuaren barruan, Nekazaritzako Behin-behinekoen Sorospena ere sartzen da.
Iturria: Geuk landuta, EIN-EEZPn oinarrituz.

baino %1,9 gehiago. Bosgarren urtez jarraian, jasotzaile kopuruak gora egin du, 90eko hamarkadan murriztapen handia izan ondoren. Estatuan, aldiz, 2005ean jasotzaile kopurua murriztu egin da lehenengoz 2000tik (%1,5eko tasan). 44.500 pertsona horietatik %55,3 Bizkaian bizi dira, %31 Gipuzkoan eta gainerako %13,7 Araban.

2005eko abenduari buruzko datuen arabera, %68,3k kotizaziopeko prestazioak jasotzen zituzten, %30ek sorospenak, eta gainerako %1,7k Gizarteratzeko Errenta Aktiboa jasotzen zuten. Abenduan 44.343 jasotzaile egon ziren guztira, eta horrela, estaldura tasa (EINen erregistraturiko langabetuak aintzat hartuta) EAEko langabetu guztien %67,75ekoa zen (Estatuko batez besteko estaldura %70,31). Lurralde historikoen arabera, estaldurarik handiena Gipuzkoan dago (%71,59).

Prestazioen jasotzaileak sexuaren arabera aztertuta ikusten denez, kapitulu hau ixteko uneko azken datuen arabera (2004ari buruzko datuak), kotizaziopeko prestazioa jasotzen duen emakume kopurua %4,5eko hazkundea izan du, eta guztira 13.120 jasotzaile dira. Gizonen artean, aldiz, jasotzaile kopuruak behera egin du: 2003ko 15.129tik azken urteko 12.401era igaro da, eta horrek %18ko murriztapena adierazten du. Laguntzako prestazioak aintzat hartuta ere gauza bera gertatzen da: emakume jasotzaileen kopurua hazi (+%6,1) eta gizon jasotzaileen kopurua murriztu egin da (-%6,1).

Horrela, urte horretan ere, prestazioen emakume jasotzaileen kopuruak gora egin du, eta guztira 19.716 izan dira; gizon jasotzaileen kopurua ia 3.000n murriztu da. Horrela, gizonen taldeak garrantzia galdu du guztizkoaren


LANGABEZIA PRESTAZIOEN BATEZ BESTEKO JASOTZAILE KOPURUA EAEn

	Kotizaziopeko prestazioak		Laguntzako prestazioak		Prestazioak guztira*		Erregistrat. langabezia		Langabezia (BJA)	
	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.
2000	12.059	9.122	9.829	5.617	21.888	14.739	29.218	48.526	47.800	66.200
2001	12.234	10.347	8.595	5.830	20.829	16.177	27.254	46.080	38.500	53.600
2002	13.248	11.264	7.918	7.530	21.166	18.794	28.833	44.617	32.500	48.000
2003	15.129	12.560	7.300	6.219	22.442	18.779	30.437	43.001	37.200	47.200
2004	12.401	13.120	6.856	6.596	19.527	19.716	30.315	41.087	36.700	39.580

(*) Gizarteratzeko Errenta Aktiboa barne.


Iturriak: EIN, Eustat eta lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa.

LANGABEZIA PRESTAZIOAREN ONURADUNAK EAEn. URTEKO B. BESTEKOAK



Iturria: EIN-EEZP.

LANGABEZIAREN ESTALDURA TASA EAEn



Iturria: Geuk landuta, EIN-EEZPn eta Eustaten oinarrituz.

barruan: 2000n %60koa zen eta emakumeena %40koa, baina 2004an emakumeen taldea gehiengoa da, langabeziaren eraginezko prestazioen jasotzaileen %50,6ra iristen baita¹.

Prestazioen jasotzaileen bolumenean izandako aldaketa horiek, erregistraturiko langabezia zifren bilakaera ere kontuan hartuta, aldaketak eragin dituzte langabezia tasen estalduran EAEn. Lehenengo eta behin, grafikoan ikusten denez, EINen eta Eustaten estaldura adierazleetan konbergentzia handia dago emakumeen eta gizonen artean.

Eustaten Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) inkestan langabeziari buruz dauden datuak aintzat hartuta,

gizonen estaldura tasa murriztu egin da 2004an, bigarren urtez jarraian. 2002an %65etik gorakoa zen eta 2004an %53,2koa da, langabetu kopuruak prestazioen jasotzaile kopuruak baino murriztapen txikiagoa izatearen ondorioz. Emakumeen estaldura tasak, berriz, 10 puntuko hazkunde handia izan du 2004an. Izan ere, 1998an Eustatek aintzat harturiko emakume langabetuen %16,6k soilik zuten estaldura, eta 2004an tasa %49,8koa da.

Bestalde, EINek langabeziari buruz emandako datuak aintzat hartuta, erabilitako estaldura tasak handiagoak dira bi sexueterako eta urte guztietan, emakumeei buruzko 2004ko datuen kasuan izan ezik: BJAREN %49,8k gainditu egiten du EINen estaldura tasa (urte horretan %48).

¹ Hala eta guztiz ere, langabezia prestazioen batez besteko zenbatekoak txikiagoak dira emakumeentzat gizonentzat baino. 2004rako behin-behineko datuen arabera (Estaturako batez besteko datuak), langabeziako kotizaziopeko prestazioen onuradunei onarturiko eguneroko batez besteko zenbateko gordina 20,12€-koa da emakumeentzat eta 24,87€-koa gizonentzat.

Gizonei dagokienez, estaldura tasa %64,4koa da, eta aurreko urtean %73,7koa.

1.2. Langabeziaren aurkako babeseko gastua eta diru-sarrera

Langabeziako prestazioetarako gastua, EAEn, behin-behineko datu guztien arabera, 574.476 mila eurokoa izan da 2005ean, aurreko urtean baino %5,4 handiagoa. Gastu hori EAEko BPGren %1ekoa da, behin-behineko datuen arabera, eta ehuneko hori 2004koaren berdina da. 2005eko abenduan, onuradun bakoitzeko batez besteko gastua 1.072,50€-koa izan da. 2005eko gastu osoa Estatu gastu osoaren %54,4 izan da. Tasa etengabe murriz-

tu da 1995etik (urte horretan %5,8). Gastu horretatik, 84.846 mila euro Arabako lurraldeari dagozkio, eta zenbateko hori batez bestekotik oso gora hazi da (%15,5eko hazkundea). Gero, Bizkaiari 316.248 mila euro dagozkio (+%4,1eko hazkundea, 2004ari dagokionez) eta Gipuzkari 173.382 mila euro (+%3,4).

EAEn, onuradun bakoitzeko batez besteko prestazioak %7,7ko murriztapena izan du 2004koari dagokionez, eta urteko 13.981 euroetatik 2005eko 12.910 euroetara igaro da. EInerako gizarte kotizazioetarako diru-sarrerak (soldapekoek eta enpresek ordaindutakoak, EAEn Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak biltzen dituenak) 970 milioi eurokoak izan dira 2004an (azken datu erabilgarriak), hau da, aurreko urtean baino %4,8 handia-


LANGABEZIAKO GASTU OSOA ETA EINEN DIRU-SARRERAK, GIZARTE KOTIZAZIOEN ERAGINEZKOAK, EAEn (EUROAK MILIOITAN)

	G. Seg. kuotak* eta PFEZ	Prest. ekonom. garbiak	Gastu osoa ⁽¹⁾	Ald. %	EInerako bildutako kuotak guztira ⁽²⁾	Ald. %	Aldea (1) - (2)
1999	113,32	275,03	388,35	-4,2	698,67	7,4	310,32
2000	116,23	276,40	392,63	1,1	751,30	7,5	358,67
2001	122,89	286,68	409,57	4,3	831,99	10,7	422,42
2002	139,28	316,01	455,68	11,2	873,67	5,0	418,38
2003	156,86	339,93	496,35	9,1	925,23	5,9	428,88
2004	178,67	364,25	542,50	9,3	969,91	4,8	425,02
2005	188,86	383,44	572,30	5,5	n.d.	—	n.d.

(*) EInen eta kotizaziopeko prestazioa duten langabetuen konturako guztia.

Iturria: Geuk landuta, EIN-EEZPn datuetan oinarrituz. Prestazioen Zuzendariordetza Nagusia.

LANGABEZIA PRESTAZIOETAKO GASTUA ETA DIRU-SARRERA EAEn



Iturria: Geuk landuta, EInen datuetan oinarrituz.

LANGABEZIAKO GASTUA GUZTIRA ETA JASOTZAILE BAKOITZEKO URTEKO BATEZ BESTEKO GASTUA, EAEn

	Gastua guztira (€-ak milioitan)					Onuradun bakoitzeko b.b. zenbatekoa (€)				
	2003	2004	2005	% 04	% 05	2003	2004	2005	% 04	% 05
Kontribuziopeko prestazio gordinak	299,42	326,88	324,59	9,2	-0,7	10.813	12.808	10.591	18,5	-17,3
(-) Langabetuaren konturako Gizarte S.	13,49	17,90	18,67	32,7	4,3	487	701	609	44,0	-13,1
(-) PFEZen atxikipenak.	2,05	2,39	2,91	16,6	21,8	74,0	91	95	26,6	1,4
Kontribuziopeko prestazio garbiak	283,92	306,59	321,00	8,0	4,7	10.254	12.013	10.474	17,2	-12,8
Langabeziako prestazioak	55,86	57,66	62,44	3,2	8,3	4.132	2.259	2.037	-45,3	-9,8
EINek G. Segurantzari egindako kotiz.	141,07	157,96	167,28	12,0	5,9	3.423	6.189	5.458	80,8	-11,8
• ElNen konturako kontribuziopekoak	127,99	144,48	152,41	12,9	5,5	4.622	5.661	4.973	22,5	-12,2
• ElNen konturako laguntzakoak	13,08	13,48	14,87	3,1	10,3	967	528	485	-45,4	-8,1
LANGABEZIAKO GASTUA GUZTIRA	496,35	542,50	572,30	9,3	5,5	12.045	21.257	18.673	76,5	-12,2
BPGren %	1,00	1,01	0,99	1,0	-2,0	—	—	—	—	—

(*) Behin-behineko datua

Iturria: Geuk landuta, EIN-EEZPn datuetan oinarrituz. Prestazioen Zuzendariordetza Nagusia.

goak izan dira; horrela, EAEn langabeziaren kontingentzia estaltzeko diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea murriz-

tu egin da apur bat, eta urte horretan 425 milioi euroko saldo positiboa izan du (2003an baino 4 milioi gutxiago).

2

Gizarte Segurantzaren prestazioak EAEn

412

2005ean, 461.611 pertsona izan ziren Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen onuradunak, eta zifra horrek %1,7ko hazkundera adierazten du 2004koari dagokionez, aurreko urteetan tasa txikiagoetan hazi ondoren (hurrenez hurren, %0,6 eta %0,9). Azken urteotan gertatu denaren arabera, hazkunde hori kotizaziopeko pentsioen onuradun kopuruak izandako bilakaeraren ondoriozkoa izan da (+%1,9), gainerako modalitateetan (intentsitate

desberdinekin) jasotzaile kopurua murrizteko joera egon baita. Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoekin estalitako EAeko biztanle kopurua 2004ko %21,4tik 2005eko %21,7ra igaro da.

Kotizaziopeko pentsioen batez besteko zenbatekoak (899,3€) %5,1eko hazkundera izan du 2005ean, eta aurreko urteko hazkundera %6,1ekoa izan zen. Zenbateko osoa

GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSOIAK EAEn, MOTEN ARABERA. LABURPEN-KOADROA

	2003	2004	2005	% 03/04	% 04/05
Onuradun kopurua (urteko b.b.)					
Kotizaziopeko pentsioak	436.200	440.900	449.200	1,1	1,9
Kotizaziorik gabeko pentsioak	10.317	10.103	10.027	-2,1	-0,8
Laguntzako pentsioak	1.706	1.634	1.412	-4,2	-13,6
EGIL sorospenak**	1.322	1.152	972	-12,9	-15,6
GUZTIRA	449.545	453.789	461.611	0,9	1,7
Biztanleriaren %	21,2	21,4	21,7	0,9	1,4
Hileko b. besteko zenbatekoa* (€)					
Kotizaziopeko pentsioak	806,4	855,4	899,3	6,1	5,1
Kotizaziorik gabeko pentsioak	360,1	311,5	346,2	-13,5	11,1
Laguntzako pentsioak	188,7	176,9	183,0	-6,3	3,4
EGIL sorospenak**	160,0	160,1	171,5	0,1	7,1
GUZTIRA	791,9	839,1	894,1	6,0	6,6
Zenbatekoa guztira (€-ak milatan)					
Kotizaziopeko pentsioak	4.245.874	4.580.986	4.908.668	7,9	7,2
Kotizaziorik gabeko pentsioak	44.578	37.760	39.200	-15,3	3,8
Laguntzako pentsioak	3.863	3.469	3.100 ^P	-10,2	-10,6
EGIL sorospenak**	2.538	2.214	2.000 ^P	-12,8	-9,7
GUZTIRA	4.296.853	4.624.429	4.952.968	7,6	7,1
BPGren %	8,68	8,67	8,61	-0,1	-0,7

(*) 12 ordainketatan kalkulatuta (aparteko ordainketak hainbanatuta).

(**) Osasun eta farmazia laguntza kenduta, horrek ez baitu zenbatekorik sortzen.

Iturria: Geuk landuta, Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundietan eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioan oinarrituz.



4.909 milioi eurokoa izan da, 2004koa baino %7,2 handiagoa. Kotizazio gabeko pentsioen zenbateko osoa 39,2 milioi eurokoa izan da, eta beraz, %3,8ko hazkundea egon da; era berean, hileroko batez besteko zenbatekoak %11,1eko hazkundea izan du 2004koari dagokionez. Azkenik, laguntzako pentsioek %3,4ko hazkundea izan dute batez besteko zenbatekoetan, eta zenbateko osoak %10,6ko murriztapena izan du 2005ean. Jasotzaile kopuruak behera egin du berriro, baina 2004an baino gutxiago (–%13,6 eta –%4,2). EGIL sorospenei dagokienez, horien onuradun kopuruak %15,6ko murriztapena izan du eta euren zenbateko osoa %9,7an murriztu da.

Pentsioetako gastu osoa, gutxi gorabeherako lehenengo kalkulu batean, 4.953 milioi eurokoa izan da 2005ean, eta %7,1eko hazkundea izan du 2004ari dagokionez; horrela, murriztu egin da BPGrekiko ehunekoak; hain zuzen ere, 2004ko %8,67tik %8,61era igaro da (BPGren behin-behineko datuak).

2.1. *Gizarte segurantzako kudeaketa erakundeek transferitu gabeko prestazioak*

Gizarte Segurantzako kudeaketa erakundeek egindako prestazio ekonomikoak (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, orokorrean, eta Itsasoko Gizarte Institutua,

Itsasoko Langileen Araubide Bereziaren aplikazioaren kasuan) bi motakoak dira:

- Kotizaziopekoak, hau da, kotizaturiko denboraren eta zenbatekoaren arabera; iraupen mugagabea dute eta Gizarte Segurantzako gastu osoaren %50 ingurukoak dira. Oinarrian, baldintza batzuk beteta prestazio horretarako eskubidea sortu duten pertsonen jarraitasuna bermatzen diete errenten lorpenean, lan-bizitza amaitzeari loturiko kontingentzien eraginez prestazio horiek amaitzen direnen.
- Kotizazio gabekoak, hau da, aldi baterako ezintasunaren prestazioak, amatasunaren prestazioak eta seme-alabaren ardura edukitzearen eraginezko familia prestazioak.

2004an (azken datu erabilgarriak), Gizarte Segurantzaren sistemak 5.047 milioi euro bildu zituen EAEn, 2003an baino %5,5 gehiago. Zenbateko horretatik, %92,3 Gizarte Segurantzaren kuotetatik dator, eta gainerako %7,7, berriz, laneko istripuen mutuetatik. Kuota guttien ia %74ren jatorria araubide orokorra da, eta horien guztizkoa 3.726 milioi eurokoa da.


Halaber, Gizarte Segurantzak Langabeziari, FOGASARI eta Lanbide Heziketari dagozkion kuotak ere biltzen ditu, eta horien zenbateko osoa, EAEn, 1.115 milioi eurokoa izan da 2004an, aurreko urtean baino 52 gehiago.

GIZARTE SEGURANTZAKO DIRUZAINZA NAGUSIAREN KUOTEN BILKETA EAĒN

	Euroak milioitan				%	Aldak. %			
	2001	2002	2003	2004		00-01	01-02	02-03	03-04
Orokorra	3.200	3.376	3.556	3.726	73,8	7,9	5,5	5,3	4,8
Autonomoak	456	471	495	524	10,4	3,8	3,3	5,1	5,9
Nekazaritza	13	13	13	14	0,3	-1,6	0,0	0,0	7,7
Itsasoko langileak	27	29	28	29	0,6	6,1	7,4	-3,4	3,6
Etxeko langileak	13	14	16	15	0,3	4,6	7,7	14,3	-6,3
Ikatzaren meatzaritza	0	0	0	0	0,0	5,5	0,0	0,0	0,0
Laneko istripuak (Diruzaintza)	7	7	7	7	0,1	-10,9	0,0	0,0	0,0
EINen langabetuak eta hobariak	235	266	304	342	6,8	-2,4	13,2	14,3	12,5
Gizarte Seg. Kuotak GUZTIRA	3.950	4.176	4.417	4.658	92,3	6,6	5,7	5,8	5,5
Laneko Istripuen Kuotak	405	345	367	389	7,7	12,0	-14,8	6,4	6,0
G.S. Sistemen Bilketa GUZTIRA	4.356	4.521	4.784	5.047	100,0	7,1	3,8	5,8	5,5
Pro-Memoria (1):									
EINerako bildutako kuotak	832	874	925	970	19,2	10,7	5,0	5,8	4,9
FOGASA	41	43	45	48	1,0	11,6	4,9	4,7	6,7
Lanbide heziketa	84	88	93	97	1,9	10,3	4,8	5,7	4,3

(1) GSDOk EINI, FOGASAr eta Lanbide Heziketari dagozkionak ere biltzen ditu (beste helburu batzuetarakoak).
Iturria: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren datuekin landuta. GSDOren urteroko memoria.

GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOEN* ERAGINEZKO BILKETAREN BILAKAERA EAĒN



(*) Langabezia, LH eta FOGASA izan ezik.
Iturria: Geuk landuta, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrean oinarrituz.

Bestalde, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra 2005ean pentsioetarako transferentzia arrunten kontzeptuan¹ onarturiko betebeharrak 5.274,8 milioi eurora iristen dira, 2004an baino %7,2 gehiago; zenbateko hori

Gizarte Segurantzak Erkidegoan egindako transferentzia korrante guztien %97koa da.

Zenbateko hori EAĒko BPGren %9,2koa izan da 2005ean, eta azken bosturtekoan %50eko hazkundea

¹ Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak aldatu egin du Gizarte Segurantzako gastuari (prestazio ekonomikoetan) buruzko datuak argitaratzeko modua, eta, horren eraginez, ezinezkoa da Memoriaren lehenagoko edizioetan jaso diren denbora-serieak gaurkotzea. Informazio hori web-en argitaratzeko aukera ematen du 2005eko datuak ikusi ahal izateko (orain arte urtebeto atzerapenarekin egindako lana), baina xehetasun maila txikiagoarekin.

GIZARTE SEGURANTZAK ONARTURIKO BETEBEHARREN BILAKAERA EAĒN. EUROAK MILATAN


	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	% 99/05	%04/05
TRANSFERENTZIA KORRONTEAK	3.672.101	3.989.078	4.204.528	4.443.365	4.714.897	5.082.888	5.436.174	48,0	7,0
Kotizaziopeko pentsioak	3.291.972	3.590.615	3.773.466	4.001.550	4.245.874	4.580.986	4.908.668	49,1	7,2
Kotizaziorik gabeko p.:									
- Aldi baterako ezintas.	154.063	157.009	172.611	193.410	212.455	234.008	248.887	61,5	6,4
- Amatasuna eta haurdunaldiko arriskua	42.966	44.156	51.644	56.571	67.154	71.225	78.024	81,6	9,5
- Familia prestazioak	25.536	29.431	31.282	32.207	34.710	36.100	39.193	53,5	8,6
PRESTAZIOAK GUZTIRA	3.514.537	3.821.211	4.029.003	4.283.738	4.560.193	4.922.319	5.274.772	50,1	7,2
Prestazioak/ Tr. Korronteak (%)	95,7	95,8	95,8	96,4	96,7	96,8	97,0	1,4	0,2

Iturria: Gizarte Segurantzaren oinarrituz landuta. Gizarte Segurantzaren aurrekontu jarraipena.

GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOPEKO PENTSIEN JASOTZAILE KOPURUA ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA EAĒN

	2003	2004	2005	%	02-03	03-04	04-05
Jasotzaile kopurua							
Guztira	436.200	440.900	449.200	100,0	0,8	1,1	1,9
Ezintasun iraunkorra	40.600	41.200	41.800	9,3	0,5	1,5	1,5
Erretiroa	257.700	260.900	267.200	59,5	0,5	1,2	2,4
Alarguntasuna	120.500	122.100	123.700	27,5	1,5	1,3	1,3
Zurztasuna/fam. lag.	17.300	16.800	16.400	3,7	-1,1	-2,9	-2,4
B. best. zenb. (euroak/hilean)							
Guztira	691,2	733,2	771,8	100,0	6,0	6,1	5,3
Ezintasun iraunkorra	828,9	867,9	910,5	118,0	5,8	4,7	4,9
Erretiroa	802,1	840,6	882,7	114,4	5,4	4,8	5,0
Alarguntasuna	464,5	515,8	543,2	70,4	8,7	11,0	5,3
Zurztasuna/fam. lag.	293,5	314,5	335,9	43,5	6,6	7,2	6,8

Iturria: Geuk landuta, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioan oinarrituz, "Lan Estatistiken Aldizkaria".


EAEko KOTIZAZIOPEKO PENTSIOPURUA ETA ESTATUKO GUZTIZKOAREN GAINEKO EHUNEKOAREN BILAKAERA

Iturria: Geuk landuta, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioan oinarrituz.

izan du. Pentsioetarako zenbatekoa (%93,1) 4.900 milioi eurokoa da eta kotizaziopeko pentsioak dira (+%7,2, 2004ari dagokionez); gainerako %6,9 kotizaziorik gabeko pentsioak dira. Horien barruan, gehienak (%68) Aldi Ba-

terako Ezintasunerako dira, %21,3 Amatasunerako eta Haurdunaldiko Arriskurako eta %10,7 Familiako Prestazioetarako. Ehuneko horiek ia ez dira aldatu azken urteetan.

BATEZ BESTEKO PENTSIOA ARAUBIDEEN ARABERA (2005-12-1). EAE-ESTATUA KONPARAZIOA (€)



Iturria: Lan eta Gizarte Arazoetako Ministerioa.

Gizarte Segurantzako kotizaziopeko pentsioen onuradun kopuruari dagokionez, EAEn kopuru osoa 449.200 pertsonakoa izan da 2005ean, aurreko urtean baino %1,9 gehiago. 1992tik pentsio kopuruak 1,6 milioiko hazkundeak izan du Estatuan eta 105.300ekoa EAEn, eta azken horretan, 1992-2005 aldian 1,3 bider handiagoa da. Pentsio motaren arabera, ezintasun iraunkorraren eraginezko jasotzaile kopuruak %1,5eko hazkundeak izan du azken urtean; erretiroko pentsioen jasotzaile kopuruak %2,4ko hazkundeak izan du eta alarguntasuna jasotzen dutenen

kopuruak %1,3ko hazkundeak. Aldiz, urte honetan ere, zurtasunaren eraginezko kotizaziopeko pentsioen jasotzaile kopurua 16.400 pertsonataraino murriztu da (-%2,4).

Batez besteko zenbatekoak 39 euro/hileko hazkundeak izan du 2005ean, eta hileroko 770,8 eurokoa da; horrek %5,3ko hazkundeak adierazten du 2004ari dagokionez. Batez batezko zenbateko guztiek gora egin dute 2005ean, baina intentsitate desberdinekin: ezintasunaren eta erretiroaren eraginezko pentsioek %5 inguruko hazkundeak izan dute (batez bestekoaren azpitik), eta zurtasunaren eraginezko pentsioak %6,8ko hazkundeak izan du eta hileroko 335,9€-koa da (oraindik ere gainerakoak baino askoz ere baxuagoa). Bestalde, alarguntasun pentsioak batez bestekoaren arabera hazkundeak izan du eta horren zenbatekoa 543,2€-koa da hilean. Urte horretan ere ezintasun iraunkorraren eta erretiroaren eraginezko pentsioak baino txikiagoak da, azken horiek batez bestekoaren gainetik daude, hurrenez hurren, %18an eta %14an.

Horri dagokionez, batez besteko pentsioa, 1983an (EAEn 157,38€ eta Estatuan 138,29€) Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino apur bat txikiagoa izan ondoren (193,29€), azken horrek baino tasa askoz ere handiagoetan egin du gora, eta KPlren gainetik ere hazi da. 1983tik 2005eko abendura bitartean, EAEn batez besteko pentsioa 4,9 aldiz handiagoa da, eta Estatuan, berriz, 4,4 aldiz handiagoa da. 2005eko abenduan, EAEn batez besteko pentsioak %4,2ko hazkundeak izan du, 2004koari dagokionez, eta hilabete horretara arteko KPlren urterik urterako aldaketa %3,7koa izan da.

Bestalde, ardurapeko seme-alaba bakoitzeko familia prestazioak (horien helburua beharrian ekonomikoari loturiko egoera babestea eta seme-alabek zenbait kasutan

KPI, LGS ETA KOTIZAZIOPEKO BATEZ BESTEKO PENTSIOA. EAEKO ETA ESTATUKO BILAKAERA. ABENDUKO DATUAK

	Pilatutako KPI		LGS		EAEko b. besteko pentsioa		Estatuko b.b. pentsioa	
	EAE	Estatua	€ / Hilean	%	€ / Hilean	%	€ / Hilean	%
1998	2,3	1,4	408,93	2,1	546,72	3,8	435,05	3,5
1999	3,0	2,9	416,32	1,8	566,27	3,6	449,08	3,2
2000	3,8	4,0	424,80	2,0	594,52	5,0	471,30	4,9
2001	3,4	2,7	433,45	2,0	629,30	5,8	497,90	5,6
2002	3,9	4,0	442,20	2,0	655,51	4,2	518,89	4,2
2003	2,6	2,6	451,20	2,0	696,77	6,3	549,84	6,0
2004	3,2	3,2	475,65	5,4	739,59	6,1	581,06	5,7
2005*	3,7	3,7	513,00	7,9	770,82	4,2	611,68	5,3


(*) Abenduko datua.

Iturria: Geuk landuta, EInen eta LAN ETA GIZARTE GAETAKO MINISTERIOAREN datuetan oinarrituz.

SEME-ALABA BAKOITZEKO PRESTAZIOAK EAĒN: JASOTZAILEAK ETA ZENBATEKOAK (EUROAK MILATAN)

	Kotizaziopekoa		Kotizazio gabea		Guztira	
	Onuradunak	Zenbateko osoa	Onuradunak	Zenbateko osoa	Onuradunak	Zenbateko osoa
2000	15.147	24.850	5.737	3.830	20.884	28.680
2001	15.187	26.350	5.504	3.890	20.691	30.240
2002	14.714	27.280	5.778	4.170	20.492	31.450
2003	14.595	29.040	6.155	4.530	20.751	33.570
2004	14.078	29.800	6.879	5.380	20.957	35.190
2005	—	—	—	—	20.728	37.196

Iturria: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, "Lan eta Gizarte Gaietako Estatistiken Urtekaria".

SEME-ALABAKO FAMILIA PRESTAZIOAK: JASOTZAILEEN BILAKAERA EAĒN, PRESTAZIO MOTAREN ARABERA

Iturria: Geuk landuta, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioan oinarrituz.

eragindako gastuak arintzea da) 37,2 milioi eurokoak izan dira 2005ean, 2004an baino %5,7 gehiago, eta horien onuradun kopurua 20.728 pertsonakoa da.

2.2. **Gizarte segurantzako kudeaketa erakundeek transferituriko prestazioak: Kotizazio gabeko prestazioak**

Kotizazio gabeko prestazioak inoiz ere kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko aldi nahikoan kotizatu ez duten pertsonen egindakoak dira, pertsona horiek ez baitute biziraupenerako baliabide nahikorik izaten.

Errenta ekonomikoa onartzen zaie, eta gainera, osasun nahiz farmazia laguntzarako eta gizarte zerbitzueta-

rako eskubidea ere onartzen zaie; horrenbestez, beharri-
zan egoerarekiko estaldura integrala eskaintzen da. Pen-
sio horiek abenduaren 20ko 26/1990 Estatuko Legeare-
kin sortu ziren; lege horretan, Gizarte Segurantzaren
Egitura eta Babes Ekintza Arrazionalizatzeko Premiazko
Neurriei buruzko 26/1985 Legearekin hasitako erreformak
osatu ziren; horrela, babeseko kotizazio gabeko maila
bat antolatu zen, beharri-
zan egoeran dauden eta siste-
ma profesionalean edo kotizaziopekoan sartu ez diren
pertsonen prestazioak emateko. Horrela, adineko pertso-
nen edo ezinduen aldeko eskubide subjektiboa sortu zen.

Gizarte babeseko sistema hori unibertetsala denez, be-
rori jasotzeko eskubidea erabiltzeko ez da beharrezkoa
aurretiaz kotizatzea, eta, kotizazio gabeko izaera hori ain-
tzat hartuta, sistemaren zenbatekoa Estatuko Aurrekontu
Orokorreko Urteroko Legeetan finkatzen da. Finantziazio

osoa Estatuak egiten du, eta bertatik, Gizarte Segurantzak transferentziak jasotzen ditu, 26/1990 Legeko Zortzigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera, eta Toledoko Itunarekin bat etorritik.

Estatuan IMSERSOk kudeatzen ditu, eta EAEn, organismo horren funtzioen eta zerbitzuen transferentzia egin ondoren, onarpena, kudeaketa eta finantziazioa EAEko Foru Aldundiek eta Administrazio Nagusiak egiten dute. Kotizazio gabeko prestazio horiek hiru motakoak dira: Gizarte Segurantzaren kontribuzio gabeko pentsioak, laguntzako pentsioak eta EGIL prestazioak. Jaso beharreko zenbatekoa errenta eta egoera pertsonalen arabera ezartzen da.

2.2.1. **Gizarte Segurantzako kotizazio gabeko pentsioak**


EAEko Foru Aldundiek emandako kotizazio gabeko pentsioak, bolumena eta garrantzia aintzat hartuta, garrantzitsuenak dira kotizazio gabeko prestazio guztien artean. Diru-sarrerak ez duten pertsonen ematen zaizkie (diru-sarrerak ez dira nahiko horien urteko zenbaketaren batuketara pentsioaren urteko batez bestekoa baino txikiagoa denean), eta zenbatekoa handiagoa da urterik urtera.

EAEn bizi diren kotizaziopeko pentsioaren onuradunak gehienak emakumeak dira, guztizkoaren %65 inguru, eta

proportzio hori Estatuko batez bestekoa baino 7 puntu txikiagoa da. Feminizazio tasa hori Estatuko osokorik txikiena da, Ceutako hiri autonomokoaren atzetik. Gainera, IMSERSOk, bere datu-fitxategian oinarrituz, agerian jarri du pertsona horietariko gehienek egoera zibila "ezkongabea" dela, ia %50 egoera horretan baitago. Datu horrek salbuespena adierazten du, Estatuko kotizazio gabeko pentsiodunak gehienek egoera zibilar dagokionez, Asturiasekin eta Galiziarekin batera. Gainerako erkidegoetan, jasotzaile gehienak ezkonduak dira. Hala eta guztiz ere, EAEko emakume pentsiodunak gehienak ezkonduak daude. Gainera, prestazio horien jasotzaileen %43 inguru bakarrik bizi dira, eta berriro ere, Nafarroaren salbuespenarekin, EAEn datu hori Estatukorik altuena da. Hortaz, erretiroko pentsioaren jasotzaile gehienak 70-74 urte bitartekoak dira, eta ezintasuneko pentsioaren kasuan gehienak 30-49 urte bitartekoak dira.


2005ean, onarturiko kotizazio gabeko pentsioen kopurua 10.027koa izan da, ia 2004ko kopuru bera, eta horien jasotzaileak EAEko biztanleen %0,5 izan dira. Erretiroko pentsioak 4.696 izan ziren abenduan, eta ezintasunekoak 5.331. Oro har, aurreko urtean baino pentsio gutxiago onartu dira, baina beherakada hori ez da handia izan. Estatuari dagokionez, 10.027 pentsio horiek %2 dira. Lurralde historikoen arabera, Bizkaian %64 jasotzen dira, Gipuzkoan %26 eta Araban gainerako %10.

KOTIZAZIOARIK GABEKO PENTSIOK EAEN. ONURADUNEN ETA HILEROKO BATEZ BESTEKO ZENBATEKOEN BILAKAERA



Iturria: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa.

KOTIZAZIO GABEKO PENTISIO KOPURUAREN BILAKAERA, LURRALDEEN ETA MOTAREN ARABERA



Iturria: Eusko Jaurlaritz, LGGMa eta Foru Aldundietan oinarrituz.

GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO GABEKO PENTISIOEN BILAKAERA EAEn

	2003	2004	2005	% 02-03	% 03-04	% 04-05
Onuradun kopurua*						
Erretiroa	4.758	4.750	4.696	-4,3	-0,2	-1,1
Ezintasuna	5.452	5.286	5.331	-0,2	-3,0	0,9
Guztira	10.210	10.036	10.027	-2,2	-1,7	-0,1
Zenbateko osoa (euroak milatan)						
Erretiroa	16.975	16.729	17.358	-0,1	-1,4	3,8
Ezintasuna	21.234	21.015	21.840	4,8	-1,0	3,9
Guztira	38.209	37.744	39.198	2,5	-1,2	3,9
Hileko b.b. zenbatekoa (14 ordaink.; €)						
Erretiroa	254,8	251,6	260,7	4,3	-1,3	3,6
Ezintasuna	278,1	284,0	296,7	5,0	2,1	4,5
Guztira	267,3	268,6	279,2	4,8	0,5	3,9

(*) 2005eko onuradunen datuak abenduak dira. Gainerakoak urteko batez bestekoak.

Iturria: Geuk landuta, EUSKO JAURLARITZAN eta LGGMa oinarrituz.


Kotizazio gabeko pentsioen gehieneko zenbatekoak urtero ezartzen dira Estatu osorako. 2005erako 288,79€-koak izan ziren erretirorako eta ezintasunerako (%65eko edo hortik gorako ezintasuna). Halaber, %50eko osagarria onartzen da %75eko edo hortik gorako ezintasuneko pentsioetarako, pertsona horiek beste norbaiten laguntza behar dutenean. Gainera, onuradunak errentak edo diru-sarrerak izanez gero, zenbatekoa horren arabera murrizten da. Murriztapen hori egin arren, onartu beharreko gutxieneko pentsioa ezarritako pentsioaren %25ekoa izango da.

EAEn, 2005eko abenduan pentsiodun bakoitzari ordaindutako batez besteko zenbatekoa 296,7€-koa izan

zen ezintasunaren kasuan, eta 260,7€-koa erretiroaren kasuan; azken hori baxuagoa izan zen, ezintasunaren barruko batzuek aipaturiko osagarria jasotzen dutelako. Bi pentsioen zenbatekoen batuketan, gutxi gorabehera, kotizaziopekoaren arloan kontzeptu horiek jaso zituzten zenbatekoaren %30ekoa izan zen.

Bestalde, 2005ean 39,2 milioi euro gastatu dira kotizazio gabeko pentsioetan, EAEn, eta horiek honako banaketa hau izan dute: 17,4 milioi erretirorako pentsioetan eta 21,8 milioi ezintasuneko pentsioetan. Pentsio horien zenbatekoa Estatuan egindako gastuaren %2koa da (pentsio kopuruaren ehuneko bera). EAEn pentsio horien jasotzai-

KOTIZAZIO GABEKO ERRETIRO ETA EZINTASUN PENTSIOTAKO GASTUAREN ETA KOPURUAREN BILAKAERA. EAE ETA ESTATUA



le kopururik handiena 1999an egon zen, eta guztira 10.972 pertsona izan ziren. Harrezkero, kopuruak behera egin du, baina ez tasa oso handietan; horrela, 2005ean 2004an baino 9 pentsio gutxiago onartu dira. Hala eta guztiz ere, gastu osoak %3,8ko hazkundea izan du azken urtean (Estatuan %4,8koa), pentsio kopuruaren murriztapen txikiak ez baitu euren balio-irabaztea konpentsatzen.


2.2.2. **Gizarte Ongizateko Fondoaren laguntzako pentsioak**

Gizarte Segurantzako laguntzako pentsioak, Foru Aldundiei transferiturikoak, banakako laguntza ekonomikoak dira, aldian behingoak eta mugagabeak, eta adineko pertsonen (65 urtetik gorakoak) eta ezintasun absolutua duten ezinduei edo gaixoei ematen zaizkie, horiek biziraupenerako baliabiderik ez dutenean (horien diru-sarreraren urteko zenbatekoa batez besteko pentsioaren zenbatekoa baino txikiagoa denean). Kotizazio gabeko pentsioen kasuan, berriz, Estatuan legez bizitzeko irizpidea eskatzen da (gutxienez 10 urte Estatuan bizitzen —ezintasunaren kasuan bost—, eta gutxienez eskabidea egin aurreko 2 urteetan Estatuan bizi behar da); laguntza horietan ezarritakoaren arabera, onuradunek EAEko udalerriren batean erroldaturik egon behar dute, eta, onuradunen artean, atzeritarrak, errefuxiatuak eta aberri gabekak egon daitezke, betiere Erkidegoan bizitzeko baimenik badute.


Prestazio horiek apurka-apurka murrizten ari dira, 5/1992 Lege Errege Dekretua indarrean sartu ondoren indargabeturik gelditu baitziren, eta beraz, data horretatik aurrera ez da alta berriro egon; horrela, orduan onarturiko pentsioak baino ez dira mantentzen, onuradunek kotizazio gabeko pentsioak jasotzea aukeratu ez dutenean, azken horien zenbatekoa gehienetan handiagoa baita.

Horrenbestez, onuradun kopurua gero eta txikiagoa da. Hain zuzen ere, 2001ean -%6,8ko murriztapena egon zen, 2002an -%14,5koa eta 2003an -%15,3koa; 2004an murriztapen hori moteldu egin zen (%5,9). 2005eko abenduan, Erkidegoan oraindik ere 939 pentsio daude adineko pertsonentzat eta 473 gaixoentzat; guztira 1.412 pentsio dira eta horrek aditzera ematen du %11,6ko murriztapena egon dela 2004ari dagokionez. Laguntzaren zenbatekoa, 2005ean (1992tik aurrera bezala), 149,86€-koa da hilean, eta pertsona horiek, gainera, aparteko bi ordainketa dituzte urtean.

EAEko laguntzako pentsioen hileroko batez besteko zenbatekoa 156.82€-koa izan da 2005ean, 12 hiletan eta aparteko bi ordainketekin (ekainean eta abenduan); zifra horrek %2,7ko hazkundea adierazten du aurreko urtekoari dagokionez. EAEko Foru Aldundien Gizarte Ongizateko Fondoko laguntzako pentsioen zenbateko osoa 3,1 milioi eurokoa izan da 2005ean, eta hori aurreko urtekoa baino %10 txikiagoa da.

GIZARTE ONGIZATEKO FONDOKO PENTSIOK: ONURADUNEN ETA GASTU OSOAREN (EUROAK MILATAN)


Iturria: Geuk landuta, Foru Aldundietan oinarrituz.

KOTIZAZIO GABEKO PENTSIEN, AZLREN ETA EGILEN BILAKAERA

2.2.3. EGIL prestazioak

Ezinduen Gizarte Integrazioari buruzko 13/82 Legean (EGIL) onarturiko prestazioen jasotzaileak, euren izenak berak dioenez, gutxienez %65eko ezintasuna duten 18 urtetik gorako pertsonak dira, horien urteroko baliabideak pertsona bakoitzeko lanbide arteko gutxieneko soldataren

%70era iristen ez direnean (ardurapean norbait izanez gero, ezindu mendeko pertsona bakoitzeko %10ean handitzen da zenbatekoa). Prestazio horiek hileko kuota finkoa dute 1995etik, gutxieneko diru-sarreraren bermerako sorospenerako, eta zenbateko hori 149,86 eurokoa da (sorospeneraren jasotzaileak antzeko prestazio ekonomikoren bat ja-


soz gero, sorospeneraren zenbatekoak prestazio horren zenbatekoaren arabera murriztapena izango du), eta gainera beste 58,45 euroko laguntza dago gainontzeko pertsona baten sorospenerako. Mugikortasunaren eta garraioko gastuen konpentsazioaren sorospena urterik urtera gaurkotzen da, eta 2005ean hileko 47,80 eurokoa izan zen (2004an baino 4,84 gehiago). Sorospen guztietan hileroko ordainketa bat egiten da, eta aparteko beste bi ordainketa ere bai, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko eta beste pertsona baten laguntzako sorospeneraren kasuan.

Sorospen horiek indargabetuta gelditu ziren, kotizazio gabeko prestazioak Gizarte Segurantzaren ezartzeari buruzko Estatuko 26/1990 Legea indarrean sartu zenean. Hala eta guztiz ere, data hori baino lehen sorospena jasotzen zutenek onuraduntzat jarraituko dute, edo bestela, kotizaziopeko pentsioa eska dezakete, baina indargabeturiko babes ekintzetan ez da onarpen berririk egongo. Hori dela eta, Gizarte Ongizateko Fondoko laguntza prestazioen kasuan bezala, EGIL laguntzen jasotzaile kopurua txikiagoa da urterik urtera.

Laguntza horiek honako lau modalitate hauetan jasotzeko modukoak dira²:


- Gutxieneko Diru-sarrerak Bermatzeko Sorospena (GDBS). Prestazio honen jasotzaileak dira %65etik gorako ezintasuna duten 18 urtetik gorako pertsonak, baldin eta euren baliabide pertsonalak Ondore Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoaren (OAEAP) %70etik beherakoak badira, edo %100etik beherakoak, euren ardurapeko pertsonarik badute. 2005erako, OAEAPren zenbatekoa 469,80€-koa izan zen hilean. 2005eko abenduan, laguntza hori 850 pertsonak jasotzen zuten (2004an baino %11,2 gutxiago).
- Gainontzekoaren laguntzarako sorospena (GLS). Aldian behingo prestazio honen jasotzaileak, aurreko ataleko baldintzak beteta, %75etik gorako ezintasuna duten pertsonak dira. 2005eko abenduan laguntza hau 104 pertsonak zuten onartuta (2004an baino %18,1 gutxiago).
- Garraioko gastuen konpentsazioko eta mugikortasuneko sorospena (GGMS). %33tik gorako ezintasuna duten pertsonen ohiko etxebizitzatik kanpo egondako lekualdatzeen eraginezko gastuei aurre egiteko, pertsona horiek baliabide ekonomikorik ez dutenean, 3 urtetik gorakoak dire-

EGIL* PRESTAZIOEN ONURADUN KOPURUAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



(*) GDBS (Gutxieneko Diru-sarrerak Bermatzeko Sorospena) eta SATP (Gainontzekoari Laguntzeko Sorospena) bakarrik.
Iturria: Geuk landuta, Eusko Jaurlaritzaren oinarritutza.

² Foru Aldundiek dagoeneko ez dute daturik ematen garraioko gastuen konpentsazio eta mugikortasun sorospeneraren jasotzaile kopuruari eta gastuari buruz, ezta osasun nahiz farmazia laguntzaren jasotzaileei buruz ere; beraz, ezin dira Memoriaren lehenagoko edizioetako denbora-serieak mantendu. Hori dela eta, EGIL prestazioen grafikoa eta koadroan sorospenerako beste bi modalitateetako informazioa baino ez da eskaintzen.

EGIL PRESTAZIOAK: GDBSREN NAHIZ GLSREN ONURADUN KOPURUAREN ETA GASTU OSOAREN BILAKAERA


GDBS: Gutxieneko Diru-sarrerak Bermatzeko Sorospena.

GLS: Gainontzekoaren Laguntzarako Sorospena.

Iturria: Geuk landuta, Eusko Jaurlaritzan oinarrituz.

nean eta taldeko garraioak erabiltzeko zailtasun larriak dituztenean.

- Osasun eta farmazia laguntza. Foru Aldundiek onartzen duten prestazioa da, baina Osakidetza osasun zerbitzuek eskaintzen dute; beraz, ez dauka kostu ekonomikorik; jasotzaileak %33tik gorako ezintasuna duten pertsonak dira, lehen aipaturiko osasun laguntzarako eskubiderik ez dutenean.

2005ean, EGILen 972 jasotzaileak ondoren adierazitakoaren arabera banatuta egon dira: 846 GDBSren prestazioan, 103 GLSren prestazioetan eta 41 GGMSren prestazioetan. Sorospen horiek murriztapen handia izan dute, orain dela hamarkada bat 5.000 pentsio baitzeuden onartuta. 2005ean prestazio horien eraginezko nominen zenbateko osoa ia 2 milioi eurokoa izan da (2004an baino %12 gutxiago).

3

Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako neurriak

424

Pobrezia desoreka ekonomikoen ikerketari lotuta egon da beti, hain zuzen ere, diru-sarrerarik gutxien dituzten biztanleei lotuta. Hala eta guztiz ere, geure gizartean izandako aldaketen eraginez (aldaketa ekonomikoak, sozialak eta familien barrukoak), bazterkeria mekanismo berriak sortu dira, eta horietan, faktore ekonomikoek ez ezik beste faktore batzuek ere gizarte bazterkeriari loturiko prozesuak eragiten dituzte.

Pobreziari buruz hitz egitea, gaur egun, errealitate multzo konplexuari eta anitzari hurbiltzea da; errealitate multzo horren barruan, desoreka ekonomikoak ez ezik, "bazterkeria" kontzeptua ere sartzen da: *"gizarte eskubideak erabiltzeko ezintasuna edo ezgaitasuna, batik bat lanerako eskubidea, baina baita beste eskubide batzuk ere, adibidez, hezkuntza, heziketa, kultura, osasuna, etxebizitza duina, gizarte babesa"*¹.

3.1. Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko planak

EAEn pobreziari, bazterkeriari eta gizarte bazterkeriari aurre egiteko dauden tresna nagusien artean (Bazterkeriaren aurkako Legean, Gizarte Zerbitzuen Legean eta Gizarte Eskubideen Gutunean jasotako tresnak), oi-

narrizko Errentak eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) daude, Pobreziaren aurkako Borroka Plan Integralan jasotako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak.

Horiek ez ezik, gizarteratzeko, laneratzeko eta heziketarako programak ere badaude, esku hartzen duten alderdien (txertaketako enpresen sorrera dago jasota), udalen eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen hitzarmenen bidezkoak. Tresna horiek AUZOLAN Programaren bidez garatzen dira, eta horren jasotzaileak Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubidearen titularrak, Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubidearen titularraren bizikidetzaren unitate ekonomikoaren barruko kideak edo bazterkeria arriskuko egoeran dagoen beste edozein pertsona dira, horrekin gizarteratzeko eta laneratzeko hitzarmena sinatuta dagoenean.

3.1.1. Oinarrizko Errenta

Oinarrizko Errentak (OE) Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera ordeztu zuen, Gizarte Eskubideen Gutunean abenduaren 27ko 10/2000 Legea sortu zenetik; errenta hori EAEn gutxienez urtebetetik hona erroldaturik dauden pertsonen ematen zaie, pertsona horiek oinarrizko beharrazane eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko prozesuaren


¹ Gizarte Bazterkeriari buruzko maiatzaren 22ko 12/1998 Legea.

eraginezko beharriaz aurre egiteko baliabide nahikorik ez dutenean.

2005ean Oinarrizko Errenta jaso duen familia kopurua 31.654koa izan da, eta horrek %9,6ko hazkundera adierazten du aurreko urteari dagokionez, urte horretan 28.889 bizikidetzat unitate jaso baitzuten errenta hori.


Lurraldeen arabera, jasotzaile gehienak Bizkaian daude; guztira 22.239 dira (EAEko guztizkoaren %70,3). Gainera, 2004ko jasotzaile kopuruari dagokionez izandako hazkunderik handiena ere lurralde honetan egon da, %11,7ko hazkundera aurreko urteari dagokionez (Arabaren %3,6ko hazkundera eta Gipuzkoan %5,9koa).

OINARRIZKO ERRENTA JASOTZEN DUEN UNITATE KOPURUAREN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarteratze Zuzendaritza.

OINARRIZKO ERRENTAN ETA GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZETAN IZANDAKO GASTUAREN BILAKAERA. 1998=100



Iturria: Geuk landuta, Gizarteratze Zuzendaritzan oinarrituz.

2005ean Oinarrizko Errentaren kontzeptuan ordaindutako zenbateko osoa 139,35 milioi eurokoa izan da (2004an baino %22,1 gehiago), eta bizikidetzat unitate jasotzaile bakoitzeko emandako zenbatekoa 366,86€-koa izan da hilean, hau da, 2005erako finkaturiko Lanbide artele Gutxieneko Soldataren %84,5 (2004an %78,5).

Oinarrizko Errentaren bidez ordaindutako zenbatekoen lurralde banaketa, jakina, bat dator unitate jasotzaileen banaketarekin, eta horrela, gasturik handiena Bizkaian egin da (%73,9), gero Gipuzkoan (%15,4) eta azkenik Araban (%10,6).

3.1.2. Gizarte Larrialdiko Laguntzak

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) ez dira aldian behingo prestazioak eta euren helburua oinarrizko beharriaz aurre egitea da, batez ere etxebizitzari lotutakoak, horiek ezustean sortzen direnean eta jasotzaileek gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez dutenean; horrela, gizarte bazterkeriako egoerak ekidin edo arindu nahi dira. Izaera finalista dute eta kasuan kasuko helbura bideratu behar dira nahitaez.

2005ean guztira 25.288 pertsonak jaso zituzten hala-ko laguntzak, aurreko urtean baino %16,9 gehiago; horietatik 13.774 Bizkaian gelditu ziren (guztizkoaren %56,7), 5.630 Gipuzkoan (%23,2) eta 4.884 Araban (%20,3).

2005ean Gizarte Larrialdiko Laguntzetara bideraturiko zenbatekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren aurrekontuen kontura, 30 milioi eurokoa izan zen, 2003an eta 2004an baino %25 gehiago. Onuradun bakoitzeko ordaindutako urteko batez besteko zenbatekoa 1.235 eurokoa izan zen (2004an baino %6,9 gehiago).

Horrela, bi laguntza modalitate horietara guztira 169,95 milioi euro bideratu ziren, 2004an baino %23,15 gehiago; horietatik %82,3 Oinarrizko Errentari dagozkio eta %17,7 Gizarte Larrialdiko Laguntzei. Lurraldeen arabera, laguntza guztien %71,7 Bizkaian gelditu da (2004an %70,2), %16,7 Araban (2004an %12,3) eta gainerako %11,6 Gipuzkoan.

3.1.3. AUZOLAN programa

Programa hau prestazio ekonomikoen (Oinarrizko Errenta eta GLL) jasotzaileen eta bazterkeria egoerako beste pertsona batzuen laneratzea bultzatzeko jarri zen martxan. Programa uztailaren 30eko 199/2002 Dekretuaren bidez arautzen da, baita abuztuaren 31ko 166/2004 Dekretuak bazterkeria egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonak laneratzeko sarturiko aldatetaren bidez ere.

2005ean 4 Kontsulta Erakunde berri homologatu dira (2004an baino 1 gutxiago), eta gainera, bazterkeria aris-

ERABILTZAILA KOPURUAREN BILAKAERA ETA GASTUA, OINARRIZKO ERRENTARI ETA GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZEI DAGOKIENEZ

	Oinarrizko Errenta			GLL		
	2003	2004	2005	2003	2004	2005
Titular jasotzaile kopurua*						
Araba	3.561	3.821	3.958	4.051	4.078	4.884
Gipuzkoa	4.882	5.154	5.457	4.850	4.981	5.630
Bizkaia	17.202	19.914	22.239	11.015	11.719	13.774
EAE	25.645	28.889	31.654	19.916	20.778	24.288
Gastua (euroak milioitan)						
Araba	12,07	13,51	14,81	3,15	3,44	4,42
Gipuzkoa	17,91	18,54	21,50	5,90	5,74	6,84
Bizkaia	69,67	82,06	103,04	14,95	14,82	18,73
EAE	99,64	114,12	139,35	24,00	24,00	30,00
2000ko euro iraunkorrak**	90,00	103,08	126,41	21,68	21,68	27,10

(*) Bizikidetzaren unitateen kopurua edo urtean laguntzak jasotzen dituzten familien kopurua.

(**) KPIrekin deflaktaturik.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Saila. Gizarteratze Zuzendaritza.


AUZOLAN PROGRAMA: EMAITZEN URTEROKO BILAKAERA

	2001	2002	2003	2004	2005
Proiektuak	64	69	70	79	88
Erakundeak	33	33	40	39	39
Onuradunak	568	615	686	758	801
Dirul. / Onuraduna (€)	5.000,00	6.504,07	6.501,46	9.472,30	10.160,41
Dirul. / Proiektua (€)	44.375,00	57.971,01	63.714,29	90.886,08	92.482,85
G. GUZT. (€-ak milioitan)	2,84	4,00	4,46	7,18	8,14

Iturria: Geuk landuta, Gizarteratze Zuzendaritzaren datuetan oinarrituz. Eusko Jaurlaritza.

kuko 801 pertsonaren (2004an baino 43 gehiago) lan kontratazioarako laguntzak eman dira. Guztira 88 proiektu izan dira (aurreko urtean baino 9 gehiago), eta horiek, EAEko 39 erakunderen bidez (udalak edo mankomunitateak eta

udal zerbitzuen taldeak), deialdiko laguntzen hobariak jasotzen dituzte. Erakundeei emandako zenbateko osoa 8,14 eta 7,18 milioi eurokoa izan da (2004an baino %13,4 gehiago).

OINARRIZKO ERRENTAREN ETA GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZEN JASOTZAILE KOPURUAREN URTEROKO BILAKAERA

Iturria: Gizarteratze Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

4

Gizarte aurreikuspeneko sistema osagarriak EAEn

428

EAEko BGAEei aplikatzeko moduko araudiaren arabera, erakunde horien helburu nagusia (derrigorrezko Gizarte Segurantzza osatzen duten aurreikuspen sistemen eremutik kanpo), irabazi asmorik gabeko helburua, boron-

datezko aurreikuspen modalitate soziala garatzea da, ki-deak eta horien ondasunak ezustekoak edo aurreikusteko modukoak diren inguruabarretatik edo gertaeretatik babesteko.

BGAEak EAEn: MAGNITUDE NAGUSIAK

		2003	2004	2005*	% 2005	Ald. % 03-04	Ald. % 04-05*
Guztira	Kopurua	206	204	207	100	-1,0	1,5
	Atxikipenak	994.759	1.059.766	1.153.211	100	6,5	8,8
	Kuotak (€/mili.)	1.089,2	1.132,4	1.214,6	100	4,0	7,3
	Ondarea (€/mili.)	11.549,9	12.871,1	14.263,7	100	11,4	10,8
	Kuota/Bazk. (€)	1.095	1.069	1.053	100	-2,4	-1,4
	Ond./Bazk. (€)	11.611	12.145	12.369	100	4,6	1,8
Enplegua eta elkartuak	Kopurua	51	51	51	24,6	0,0	0,0
	Atxikipenak	242.714	257.573	344.552	29,9	6,1	33,8
	Kuotak (€/mili.)	367,1	396,3	390,5	32,2	8,0	-1,5
	Ondarea (€/mili.)	6.296,6	6.785,3	7.333,9	51,4	7,8	8,1
	Kuota/Bazk. (€)	1.512	1.539	1.133	107,6	1,8	-26,3
	Ond./Bazk. (€)	25.943	26.343	21.285	172,1	1,5	-19,2
Banakakoak	Kopurua	51	47	47	22,7	-7,8	0,0
	Atxikipenak	633.436	680.679	687.145	59,6	7,5	0,9
	Kuotak (€/mili.)	716,5	729,9	817,9	67,3	1,9	12,1
	Ondarea (€/mili.)	5.240,6	6.071,7	6.915,5	48,5	15,9	13,9
	Kuota/Bazk. (€)	1.131	1.072	1.190	113,0	-5,2	11,0
	Ond./Bazk. (€)	8.273	8.920	10.064	81,4	7,8	12,8
Gainerako BGAEak	Kopurua	104	106	109	52,7	1,9	2,8
	Atxikipenak	118.609	121.514	121.514	10,5	2,4	0,0
	Kuotak (€/mili.)	5,7	6,2	6,2	0,5	9,7	0,0
	Ondarea (€/mili.)	12,7	14,2	14,2	0,1	11,7	0,0
	Kuota/Bazk. (€)	48	51	51	4,8	6,3	0,0
	Ond./Bazk. (€)	107	117	117	0,9	9,2	0,0

(*) 2005eko datuak behin-behinekoak dira (2006ko uztaila).


Iturria: Eusko Jaurlaritza. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila.

Kapitulu hau idazteko egunean, 2005erako behin-behineko datuak baino ez dira egon, EAEko borondatezko gizarte aurreikuspeneko sistemari buruzko oinarritzko adierazle batzuetan; atal honetan informazio horiek azalduko ditugu, eta horrela, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailak emandako datuek ahalbidetzen duten neurrian, osatu egingo dugu 2004ko informazioa, gainerako aldagaiei dagokienez.

4.1. Magnitude nagusien bilakaera erakunde motaren arabera

Behin-behineko datuen arabera, 2005ean EAEn 207 BGAE zeuden EAEko BGAEen Erregistroan inskribatuta (2004an baino %1,5 gehiago). Horiek bi kategoriatan banatzen dira, estaltzen dituzten kontingentziak aintzat hartuta: pertsonalak (erretiroa, ezintasuna, langabezia, he-

BGAEN BILAKAERA EAEN. ERREFERENTZIAKO URTEA: 1991



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila.

riotza, gaixotasun larria) eta elkartuaren ondasunetan eragina duten kontingentziak (etxebizitza, laneko tresnak, abereak, uztak eta mutualisten beste ondasun batzuk, euren lanbide edo lan jarduerari lotutakoak).

Lehenengo taldearen barruan, hau da, kontingentzia pertsonalen modalitatearen barruan (kapitulu honetan horixe aztertuko dugu), azken batean, pentsioen arloan, bigarren sailkapen bat ere egin daiteke:

- Enplegu sistema: sustatzailea edozein erakunde, korporazio, sozietate edo enpresa izan daiteke, eta bazkideak bertako enplegatuak dira.
- Sistema elkartua: sustatzailea edozein elkarte, sindikatu, gremio edo talde izan daiteke, eta bazkideak, ki-deak edo afiliatuak Erakundea osatzen dutenak dira. 2005ean, Enplegu eta Elkartu modalitate horien barruan 51 erakunde sartzen ziren, hau da, guztizkoaren laurdena, eta zifra hori egonkorra izan da azken hiru urteetan.
- Banakako sistema: sustatzaileak finantza izaerako erakunde bat edo batzuk izan daitezke, eta bazkideak


pertsona fisikoak dira, bertara lan harremanaren eraginez lotuta daudenak izan ezik. 2005ean erakunde guztien %22,7 ziren, eta zifra hori egonkor mantendu da aurreko urteari dagokionez.

4.1.1. Atxikipenak sistemara

EAEk 1983an aurreikuspenaren arloko eskumena bereganatu zuenetik, sektorearen hazkundea oso positiboa izan da. Atxikipen kopurua, 2005ean, behin-behineko datuen arabera, 1.153.211koa da. Banakako modalitatean 687.145 atxikipen egon dira, guztizkoaren %59,6¹ (%0,9ko hazkundea aurreko urteari dagokionez); Enplegu modalitatean (orokorrean, Enplegu modalitatea esaten dugunean Enplegu eta Elkartu modalitateen batuketa da) %29,9 biltzen da, eta gainerakoa beste modalitate batzuetan bilduta dago².

Atxikipen datuetatik ondorioztatzen denez, lan merkatuan Enplegu eta Elkartu BGAEn indizea oso desberdina da lurralde historikoen arabera. Izan ere, 2004ko


BGAETAKO ELKARTUEK ORDAINDUTAKO KUOTEN BILAKAERA. 1998=100



Iturria: Geuk landuta, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailaren oinarrituz.

¹ Atxikipen kopurua ez da parekatu behar banakako sistemara atxikitako pertsona kopuruarekin; izan ere, bikoiztasun handiak daude, pertsona berbera erakunde batera baino gehiagora atxikita egon ahal izatearen eraginez.

² Jakina denez, BGAEn babes eremua Pentsio Planena baino zabalagoa da, eta erakunde horiek erretirokoak, heriotzakoak, ezintasunekoak eta langabeziakoak ez diren kontingentzien eraginezko prestazioak ematen dituzte; izaera integrala eta bereizgarria ematen diote EAEko aurreikuspen ereduari. Garrantzia aintzat hartuta, aipagarriak dira ehorzketarako prestazioak ematen dituzten erakundeak, eta horietara elkarturiko pertsona kopurua 10.617 pertsonakoa zen 2003an; halaber, aipatzekoak dira suteen aurkako babes eskaintzen dutenak eta horiek urte horretan 3.404 pertsona zituzten elkartuta.

BGAETAN ELKARTURIKO PERTSONAK EAEn

Iturria: Geuk landuta, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailaren oinarrituz.

ENPLEGUKO BGAETARA ATXIKITAKO EDO ELKARTURIKO TALDEAREN EHUNEKOAK, BIZTALERIA LANDUNARI DAGOKIONEZ. 2004

	Atxikitako taldea	Biztanleria landuna	%
Araba	33.625	139.700	24,0
Gipuzkoa	206.099	309.300	67,0
Bizkaia	17.849	489.600	4,0
EAE	257.573	938.600	27,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Saila.

datuak aintzat hartuta, indizeak Gipuzkoako %67ko gehienekotik Bizkaiko %4ko gutxienekora bitartekoak dira, eta Araba bitarteko posizioan dago, %24ko estaldurarekin³. Oro har, BGAek EAEn duten ezarkuntza maila biztanleria osoaren %54,2koa izan da 2005ean (2004an baino 5 puntu gehiago).

2005eko atxikipen bilakaerari dagokionez, horiek %8,8ko hazkundera izan dute, eta elkartu kopuruak gora egin du Enplegu (+%33,8) eta Banakako (+%0,9) modalitateetan.

Sistemara atxikitako pertsonen ordaindutako kuotei dagokionez, horiek 1.215 milioi eurokoak izan dira 2005ean, 2004an baino %7,3 gehiago, eta EAEko BPGren %2,1era iritsi dira. Bestalde, 1.215 milioi horietako %67,3 Banakako BGAEn atxikitako taldeak eman ditu (partaidetzak %12,1eko hazkundera, 2004koari dagokionez), %32,2 Enpleguko taldeak (%1,5eko murriztapena) eta gainerako %0,5 gainerako erakundeek. Datu horietatik ondorioztatzen denez, BGAEn atxikitako pertsona bakoitzeko urteroko ekarpena 1.053 eurokoa izan da 2005ean (-%1,4, 2004koari dagokionez); Enplegu modalitatearen kasuan 1.133koa izan da (-%26,3ko murriztapen handia, eta ez dakigu horren zergatia) eta Banakako modalitatearen kasuan 1.190 euro (+%11)⁴.


4.1.2. Ondarea

EAEko gizarte aurreikuspeneko sistemaren erantsita-ko ondare orokorra 14.264 milioi eurokoa izan da 2005ean, eta horren balioak %10,8ko hazkundera izan du 2004ari dagokionez. Zifra horrek EAEko BPGren %24,8 adierazten du, eta tasa hori askoz ere handiagoa da Es-

³ Hala eta guztiz ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Estatuko enpresa handiak daude, eta horietan, langileek pentsio planak dituzte (Petronor, Iberdrola, Telefónica, Firestone,...).

⁴ Enplegu Sailak dioenez, oraingo bikoiztasunen ondorioz (pertsona kopurua baino atxikipen kopuru handiagoa) azken datu hori gutxiegi baloratuta egon daiteke, baina pentsa daiteke atxikipen bikoitzak beti ez daramala ekarpen bikoitzik.

BGAEn ONDAREKO INBERTSIOAREN BILAKAERA, MOTAREN ARABERA. EUROAK MILIOITAN



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila.

tatuko Pentsio Planek eta Pentsio Fondoek pilaturiko ondarearen partaidetza baino, azken hori ez baita Estatuko BPGren %8ra iristen. Hala eta guztiz ere, ehuneko hori txikia da, aintzat hartuta Europako batez bestekoa (%30).

Modalitateen arabera, Enplegu modalitateko BGAEei dagokien ondarea guztizkoaren %51,4koa izan da 2005ean, eta Banakako modalitateak ia gainerako guztia hartu du, beste modalitate batzuei loturiko ondarea oso txikia baita (%0,1, kapitulu honen hasierako laburpen-koadroan). 2005eko bilakaerari dagokionez, Banakako modalitateko BGAEek pilaturiko ondareak %13,9ko hazkundea izan du, eta Enplegu modalitateak %8,1eko hazkundea.

Horrenbestez, elkartu bakoitzeko batez besteko ondarea 12.369 eurokoa izan da 2005ean, aurreko urtean baino %1,8 gehiago. Enplegu modalitatean, ondarea batez bestekoa baino nahiko handiagoa da (21.285€), eta Banakako BGAEen kasuan 10.064 eurokoa baino ez da izan, nahiz eta azken urtean %12,8ko hazkundea izan.

Bestalde, EAEko BGAEen ondarearen inbertsioa balio higigarrietan oinarritzen da. Higiezin inbertsioak hazkunde iraunkorra izan zuen 1996ra arte, baina erakunde kopuru txikian oinarritzen zen; horiek, 2000tik aurrera, formula hori baztertu eta higiezinetan egindako inbertsioak bideratu egin dituzte, higiezin inbertsioan espezializaturiko sozietateetako partizipazioak eskuratzuz.

Errenta finkoaren eta aldagarriaren arteko inbertsioari dagokionez, BGAEek, hasiera-hasieratik, inbertsiorik konterbadoreenak aukeratu dituzte; hala ere, finantza merkatuen bilakaerak errenta aldagarriko inbertsioetarako hurbilketa eragin du, eta oraindik ere urrun daude munduko pentsio plan handiek dituzten ehunekoetatik.

EAEko BGAEen inbertsioen balioa 10.023 milioi eurokoa izan zen 2004an, 2003an baino %11 gehiago, eta horietatik 7.124 milioi (guztizkoaren %71, eta 2003an baino %11,7 gehiago) errenta finkokoak dira, 2.405 errenta aldagarrikoak (%24), 457 beste inbertsio batzuetakoak eta, azkenik, 37 milioi euro ondasun higiezinetan egindako inbertsioetakoak.

Inbertsioek erakunde motaren arabera duten balioa aztertuta ikusten denez, %54 Enplegu erakundeetakoak dira eta %45 Banakako modalitateko BGAEetakoak; beste erakunde mota batzuen inbertsioen balioa hondarrezkoa da.

4.1.3. Gastua pentsioetan

Gizarte Segurantzako sisteman gertatzen denez, BGAEek emandako pentsioen onuradunak aztertzean ikusten denez, horien %60 baino gehiago erretiroko pentsioak jasotzen dituztenak dira; talde horren atzetik, kopuruari dagokionez, heriotzako eta biziraupeneko presta-

zioak jasotzen dituzten pertsonak datoz. Oro har, ordaindutako pentsio kopuruak gora egin du 2004an (informazioaren azken urtea), eta %14ko hazkundera egon da 2003ari dagokionez.

2004an, pentsioen jasotzaile kopuru osoa 37.311 pertsonakoa izan zen, aurreko urtean baino %14,5 gehiago; horietatik 23.288k erretiroko pentsioa jaso zuten (+%15,9), 8.684k alarguntasuneko pentsioa (+%17), 4.653k ezintasuneko (+%7) eta 686k zurtasuneko (-%37). Pentsio horiek guztiak Gizarte Segurantzako Sistemak kontzeptu horietarako ordaintzen dituen pentsioen %9 dira.

BGAEn prestazioak ondoren adierazitakoaren arabera gauzatu ahal dira:

- Kapital erako aurkezpena, hau da, ordainketa bakarrek jasotzea.
- Errenta erako prestazioa, aldi baterakoa edo bi-ziartekoa.

- Prestazio mistoak, edozein motatako errentak kapital erako kobrantza bakararekin konbinatzen dutenak.


Oro har, prestazioa errenta eran kobratzen duten onuradunen kopuruari dagokionez, Enplegu eta elkartuko modalitateko BGAE bati atxikitakoen artean kopuru handiagoa dago Banakako modalitatekoen artean baino. Bestalde, orain arte oso gutxi ordaindu dira modu mistoan.

Guztira, EAEko BGAEek 269 milioi euro ordaindu zituzten (+%12,6, 2003ari dagokionez), batez ere erretiroko pentsioetarako (gastuaren %68), gero alarguntasuneko pentsioetarako (%19), ondoren ezintasunekoetarako (%12) eta, azkenik, zurtasuneko pentsioetarako (%1). Horrenbestez, 2004an ordaindutako batez besteko prestazioa 7.221,6 eurokoa izan da (2003an baino %1,2 gutxiago), eta zenbateko hori 9.140,9 eurokoa da urtean, Enplegu eta elkartuko BGAEen erretiroko prestazioen kasuan (+%3, 2003ari dagokionez).

PRESTAZIO JASOTZAILEAK, BGAE MOTAREN ARABERA. 2004

KONTINGENTZIA	BGAE enplegua eta elkartuak		BGAE banakakoa	
	Prestazio kop.	%	Prestazio kop.	%
Erretiroa	13.686	61	9.596	67
Ezintasuna	2.784	12	1.869	13
Heriotza	6.005	27	2.834	20
Alarguntasuna	5.546	92	2.607	92
Zurtasuna	459	8	227	8
Kontingentziak guztira	22.475	100	14.299	100

PENTSIO OSAGARRIETAKO GASTUAREN BILAKAERA, PRESTAZIO MOTAREN ARABERA



PENTSIOETAKO GASTUA, ERAKUNDE MOTAREN ARABERA. 2004 (EUROAK MILATAN)

Erakundea	Enplegua eta elkartuak	Gutzizkoaren %	Banakakoak	Gutzizkoaren %
Erretiroa	125.103,5	68	58.392,0	68
Ezintasuna	21.817,7	12	9.179,2	11
Alarguntasuna	34.863,8	19	16.790,1	20
Zurztasuna	2.250,2	1	928,2	1
Guztira	184.035,2	100	85.289,6	100

4.1.4. Araubide fiskala


BGAeek EAEn izandako garapen itzela, neurri handian, aurrezpen formula horren erakarpina areagotu egin duen pizgarri fiskalaren eraginezkoa da, batez ere PFEZren bidezkoa (bazkideentzat), baina baita Sozietateen gaineko Zergaren bidezkoa ere (bai erakundeentzat eurentzat, bai enpresen edo bazkide babesleen partizipazioa sustatzeko, enplegu planetan). EAEn, zerga-arloko eskumenak lurralde historiko bakoitzeko Foru Aldundiek eta Batzar Nagusiek dituzte.

Orokorrean, bazkideak emandako zenbatekoak murrizgarriak dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarritik⁵. Bestalde, diferituriko errentatzat hartzen direnez, BGAeetatik jasotako prestazioak (eta

kontingentzia gertatu baino lehen ordaindutako erreska-teak eta zenbatekoak ere bai) lan pertsonalaren errendimendutzat hartzen dira, baita atxikipenaren ondoreetarako ere⁶.

2003ko PFEZri buruzko datuen arabera (azken datu erabilgarriak), BGAeek eta gainerako aurreikuspen formula guztiei egindako ekarpenen eraginezko murriztapena 908,9 milioi eurokoa izan zen, 2002an baino %10,8 gehiago, eta beraz, EAEko urte horretako BPGren %1,83koa izan da (2002an %1,76); 422.221 aitorle izan dira guztira, aurreko urtean baino %5 gehiago. Horrenbestez, batez besteko murriztapena 2.153€-koa izan da, 2002ko batez bestekoa baino handiagoa, baina ezarritako 8.000€-ko mugakoa baino txikiagoa. Zenbateko hori Zerga Oinarria-

PFEZ: OINARRIA ETA KUOTA LIKIDOA ETA MURRIZTAPENA BGAERA EGINDAKO EKARPENAGATIK, ERRENTA TARTEEN ARABERA. 2003




⁵ Ondarearen gaineko Zerga Bereziari dagokionez, elkartuaren eskubide finkatuak Zerga horren aitortpena aurkeztu beharra ote dagoen jakiteko soilik hartzen dira aintzat; hala eta guztiz ere, salbuetsitako eskubidetzat hartzen dira, eta beraz, ez dira horren zerga-oinarrian sartzen.

⁶ Prestazioa kapital erako jasotzea bada, %40ko murriztapena dauka; errenta izanez gero, berriz, oso-osorik sartzen da zerga-oinarrian.

ren %8 da, eta gainera, bigarren murriztapenik garrantzitsuen da, baterako zerga-ordainketaren murriztapenaren ostean.

BGA Eei ekarpenak egitearen eraginezko murriztapenak garrantzi handiagoa dute errenta ertainetan: 18.000 eta 30.000€-ko likidazio-oinarrian sartzen da (aitorpen guztien %24) BGA Eei ekarpenak egitearen eraginezko murriztapenen %31 (guztira 282 milioi euro). Horren atzetik

beheko errentak datoz, 6.000 eta 18.000€ bitarteko likidazio-oinarria dutenak. Aitorpen kopururik handiena tarte horretan sartzen da (guztizkoaren %44); hala ere, murriztapen guztien zenbatekoaren %26,4 baino ez da biltzen. Gainera, Foru Aldundiek PFEZren aitorpenei buruzko datu finkatuek agerian jarri dutenez, errentarik txikieneko aitorpenen %21i (6.000€-tik beherako likidazio-oinarria) BGA Eei egindako ekarpenen eraginezko murriztapenen %4,7 soilik dagozkio, hau da, 42,7 milioi euro.







Pobreziaren eta garapen urriaren inguruko kezka Bigarren Mundu Gerraren ostean sortu zen modu formalean, deskolonizatze prozesuaren eraginezko herri berriak agertu zirenean. Kolonia horien Garapenerako Lankidetzak, hasieran, finantza eta merkataritza harremanen mantentzearen oinarritu zen; izatez ere, mendebaldeko herrien interes estrategikoen, politikoen eta merkataritzakoen arabera harremanak ziren, baina, aldi berean, Nazio Batuen eremuan laguntza modu berriak sortzen hasi ziren.

Hala eta guztiz ere, laguntza mota hori gehiegi bideratzen zen garapenaren alderdi ekonomikoetara eta monetarioetara. 90eko hamarkadan aldatu egin zen nazioarteko lankidetzaren ikuspegia; izan ere, ideia hauxe nagusitu zen: herri guztien garapenean oinarrituriko hazkunde iraunkorra lor zitekeen, globalizazio prozesu baten barruko politika ekonomikoari loturiko jarraibide komun bitartez. Laster agerian gelditu zen planteamendu hori ez zela nahikoa, berori ere alderdi ekonomikoan oinarritzen baitzen, pobrezia ezabatzeko orduan; gainera, ordura arteko desorekak mantendu egin ziren. Horren ondorioz, 2000tik aurrera, Milurtekoko Adierazpenarekin¹,


garapenaren estrategietan alderdi sozialak aintzat hartzen ziren, garapenaren funtsezko faktoretzat.

Izan ere, azken mendean garapen ekonomikoaren arloan inoizko aurrerakuntzarik handiena egon den arren, goseak, pobrezia, gaixotasunak eta analfabetismoak oraindik ere eragina dute mundu osoko milioika pertsonarengan. Mundu osoan muturreko desoreka egoera horren iraupenaren ondorioz, beharrezkoa da garapenerako lankidetzari lehentasunezko lekua ematea agenda politiko guztietan.

2015ean Milurtekoko Garapen Helburuak bete ahal izateko, ezinbestekoa da herri garatuek laguntza ofizial gehiago ematea garapenari; izan ere, lauren kasuan izan ezik, gainerakoetan laguntza BPGren %0,7tik behera mantentzen da; gainera, herri hartzaileek ere politika eraginkorrak egituratu beharko dituzte pobrezia aurre egiteko.

Arlo honetan, Europar Batasunak eginkizun oso garrantzitsua dauka, munduko dohaintzagile nagusia baita, bertako BPGren %0,36 emanez.

¹ Adierazpen honen Milurtekoko Garapenaren helburuak Memoria Sozioekonomiko honetako 2003ko edizioan aztertzen dira.



ZER ERLAZIO DUTE GIZA GARAPENAREN HELBURUEK ETA MILURTEKOKO GARAPENAREN HELBURUEK?

Giza garapenerako funtsezko gaitasunak	Milurtekoko garapenaren helburuak
Bizitza luzea eta osasuntsua	4., 5. eta 6. helburuak: haurren hilkortasuna murriztea, amen osasuna hobetzea eta gaixotasun nagusiei aurre egitea
Hezkuntza	2. eta 3. helburuak: oinarrizko irakaskuntza unibertsala eta emakumearen autonomia, hezkuntzan generoen arteko berdintasuna sustatuz
Bizi-maila egokia	1. helburua: pobrezia eta gosea murriztea
Askatasun zibila eta politikoa, kasuan kasuko komunitateko bizitzan parte hartu ahal izateko	Ez da helburuetariko bat, baina Milurtekoko Adierazpenean jasotako mundu-helburuetariko bat
Giza garapenerako funtsezko baldintzak	Milurtekoko garapenaren helburuak
Ingurumen iraunkortasuna	7. helburua: ingurumen iraunkortasuna zaintzea
Berdintasuna, batez ere generoari dagokionez	3. helburua: generoko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea
Inguru ekonomiko globala baimendu	8. helburua: herri aberatsen eta pobreen arteko elkarreak indartzea

Iturria: NBGP.

1

Giza garapena, zorra eta garapenerako laguntza munduaren testuinguruan

1.1. Giza garapenaren indizea. 2005eko emaitzak

Giza garapenaren helburua pertsonen bizitza ona eta sortzailea garatzeko (askatasunean eta duintasunean oinarrituz) dituzten aukerak handitzea da. Hazkunde ekonomikoa, merkataritzaren nahiz inbertsioen hazkundea eta aurrerapen teknologikoak oso garrantzitsuak dira, baina bitartekoak dira, eta ez helburuak. Aukera horiek handitzeko, giza gaitasunak garatu beharra dago, hau da, pertsonak izan daitezkeen gauza guztien aniztasuna handitu behar da. Giza garapenaren gaitasunik funtsezkoenak bizitza luzea eta osasuntsua edukitzea, hezkuntza jasotzea, bizi-maila duina edukitzea eta askatasun zibila zein politikoa izatea dira, biztanleek kasuan kasuko komunitateko bizitzan askatasunez parte hartu ahal izateko.

Testuinguru horretan, Giza Garapenaren Indizearen (GGI) progresioa (Nazio Batuen Garapenerako Programak —NBGP— urtero lantzen duena) ez da oso ona. GGik na-

zioen aurrerakuntza neurtzen du, bizi-itxaropenari, hezkuntza mailari eta biztanle bakoitzeko diru-sarrerei buruzko adierazle sozioekonomikoetan oinarrituz; indize horren 2005eko edizioan adierazitakoaren arabera, mundu osoan aurrerapauso handiak eman dira, baina herri asko inoiz baino atzeratuago daude. Txostenean aditzera ematen da munduak ezagupenak, baliabideak eta teknologia dituela, muturreko pobrezia-amaiera emateko, baina "denbora amaitzen" ari dela.

Hain zuzen ere, 2005eko txostenean adierazitakoaren arabera, munduko 18 herririk pobreenetako egoerak (gutxira 460 milioi biztanle) txarrera egin du, giza garapenaren funtsezko adierazlerik gehienetan, 1990eko egoerari dagokionez; horrela, orain arteko joerekin jarraituz gero, aukera oso gutxi izango dute Milurtekoko Garapenaren Helburuak lortzeko.

90EKO GIZA GARAPENAREN HISTORIA

Aurrerakuntza	Atzerakuntza
130 pertsona irten dira muturreko pobreziatik	2.500 milioi pertsona oraindik ere 2 dolar baino gutxiagoarekin bizi dira; pobrezia-aren hezkuntza-aren erritmoa moteldu egin da 90eko hamarkadan
Urtean bi milioi haur gutxiago hil dira	Urtero 10 milioi haur hiltzen dira (ekiditeko moduko heriotzak)
30 milioi haur gehiago eskolara	115 milioi haur oraindik ez doaz eskolara
1.200 milioi pertsonak ur garbia dute	Mila milioi pertsona baino gehiagok oraindik ez dute ur segururik; 2.600 milioi ez dute saneamendurik

Iturria: PNUD (2005) "Giza Garapenaren 2005eko Txostena".

Herri horietariko hamabi Saharatik hegoaldeko Afrikan daude, eta horrek esan nahi du eskualde horretako hiru pertsonatik bat 1990ekoa baino giza garapenaren indize txarragoa duen herri batean bizi dela. Esate baterako, Hego Afrika 35 postu atzerago dago GGIn, 1990etik, eta Bostwana 21 postu atzerago, eta beherakada handi horiek HIES izurriaren eraginez nabarmendu ziren gehienbat.

Beherakada horiek izan dituzten gainerako sei herriak lehengo Sobietar Batasunekoak izandakoak dira. Hain zuzen ere, 1990etik Tajikistan 21 postu atzerago dago, Ukraina 17 postu atzerago eta Errusiar Federazioa 15 postu atzerago. Txostenean esaten denez, egoera hori azaltzen duten faktore nagusiak bizi-itzaropenaren murriztapena eta arazo ekonomikoak dira, SESB desagitearen ondoriozkoak. Bestalde, Indizeak hobekuntzak ere erre-

GARAPENERAKO LAGUNTZA GARBI OFIZIALAREN* ETA ZORRAREN JARIOEN LABURPENA

	Jasotako garapenerako laguntza ofiziala				Atzerriko zuzeneko inbertsioa*		Zorraren zerbitzua	
	Milioiak (\$)	\$ per capita	% BPG		% BPG		% BPG	
	2003	2003	1990	2003	1990	2003	1990	2003
Mundua guztira	69.783	10,9	..	..	1,0	1,6	..	..
Garapen bideko herriak	65.401	9,7	1,6	3,0	0,9	2,3	4,3	4,7
Garapen urriagoko herriak	23.457	33,4	11,9	18,7	2,2	3,6	3,1	2,1
Estatu arabiarak	8.320	27,5	3,4	1,6	0,8	1,7	..	2,5
Ekialdeko Asia eta Barea	7.232	3,4	0,7	0,5	1,7	3,1	4,3	3,2
Amerika Latinoa eta Karibea	6.090	9,9	0,4	0,8	0,7	2,1	4,0	8,6
Hegoaldeko Asia	6.624	4,3	1,1	0,7	..	0,6	2,3	2,9
Sahara Hegoaldeko Afrika	22.692	32,9	..	18,6	..	2,2	..	2,9
Erdial. nahiz Ekialdeko Europa eta EIE	4.886	24,0	..	..	0,1	2,9	..	7,7
GGI ertaineko herriak	27.343	6,5	1,3	0,9	0,5	2,2	3,7	5,3
GGI baxuko herriak	18.565	27,9	8,3	18,7	0,4	2,8	6,0	3,3
BPG ertaineko herriak	18.970	8,4	1,0	0,4	0,7	2,4	3,8	6,4
BPG baxuko herriak	32.128	13,7	3,5	6,1	0,4	1,5	4,7	3,1

(+) DAC, Development Assistance Committee

(*) Jasotako jario garbiak.

Iturria: PNUD "Giza Garapenaren 2005eko Txostena". www.undp.org/hdro

gistratu ditu Estatu Independenteen Elkarteko (EIE) herri batzuetan, 1995ari dagokionez, gatazkaren aldirik txarre-na eta Sobietar Batasunaren kolapsoari loturiko honda-men ekonomikoa gainditu ondoren.

Munduan, indizeko lehenengo postuan Norvegia da-go eta azken postuan Nigeria. GGIk emandako datuek, orokorrean, joera positiboak adierazten dituzte mundu mailan, eta garapen bideko eskualderik gehienetan au-rrerapen orokor handiak egon dira Txostena lehenengoz 1990ean argitaratu zenetik. Esate baterako, Banglades-hek, Txinak eta Ugandak %20 inguruan hobetu dituzte euren sailkapenak harrezkero.

1.2. Garapenerako laguntza ofiziala

NBERen txosteneko datuen arabera, herririk garatue-nek, Garapenerako Laguntza Batzordeko (GLB) kide dire-nek, 2003an 69.029 milioi dolar eman zituzten garapene-rako laguntzarako, aurreko urtean baino %18,5 gehiago. Laguntza hori, izan ere, herri multzo horren BPGren %0,25 da eta 70 dolarreko gastua (per capita), 2002an baino 5 gehiago. Garapenerako laguntzarik gehien eman duten

herrien artean, bai BPGri eta bai biztanleko gastuari da-gokionez, aipagarriak dira Norvegia, Danimarka eta Lu-xenburgo. Hirurek hobetu dituzte euren adierazleak, 1990ari dagokionez, baina Batzorde horretako herririk gehienek kasuan ezin daiteke gauza bera esan; izan ere, bi data horien arteko hamabi urteetan murriztu egin di-tuzte garapenerako laguntzak (BPGn %0,33tik %0,25era eta per capita gastuan 72 dolarretik 70era).

Txostenean, horrenbestez, "emankortasun bitarte handia" adierazten da; izatez ere, 1990etik herri abera-tsen diru-sarrerak (per capita) 6.070 dolarretan hazi dira prezio iraunkorretan, eta herri pobreei emandako lagun-tza, oster, murriztu egin da.

Dolar absolutuetan, Txostenak agerian jartzen due-nez, garapenerako laguntzarik handiena ematen dutenak Amerikako Estatu Batuak dira. Oraintsu, 2002 eta 2004 bitartean, herri dohaintzagileek handitu egin zuten lagun-tza, 12.000 milioi dolarretan, eta horietatik 8.000 AEBk eman dituzte; horrenbestez, AEBko laguntza programetan 60ko hamarkadatik izandako hazkunderik handiena da. Hala eta guztiz ere, Txostenean esaten denez, laguntza

OCDEKO KIDEEK GARAPENARI EMANDAKO LAGUNTZA GARBI OFIZIALA *

GGIren arabera sailkapena	Milioiak (\$)	% BPG		\$ Per capita		Zorren murriztapena	
	2003	1990	2003	1990	2003	ZHHP** Fondo Fiduziarioari egindako alde biko promesak (mill. \$ AEB) 2004	Bi aldeko zor garbiaren kitapena (mill. \$ AEB) 1990-2003
1. Norvegia	2.042	1.17	0.92	314	388	127	237
3. Australia	1.219	0.34	0.25	49	50	14	83
4. Luxenburgo	194	0.21	0.81	73	354	4	..
5. Kanada	2.031	0.44	0.24	80	55	165	1.567
6. Suedia	2.400	0.91	0.79	184	218	109	286
7. Suitza	1.299	0.32	0.39	119	154	93	340
8. Irlanda	504	0.16	0.39	19	103	25	..
9. Belgika	1.853	0.46	0.60	88	145	64	1.468
10. AEB	16.254	0.21	0.15	58	55	750	10.882
11. Japonia	8.880	0.31	0.20	83	66	256	4.331
12. Herbehereak	3.981	0.92	0.80	179	199	242	2.170
13. Finlandia	558	0.65	0.35	131	89	51	156
14. Danimarka	1.748	0.94	0.84	227	265	80	377
15. Erresuma Batua	6.282	0.27	0.34	55	95	436	2.574
16. Frantzia	7.253	0.60	0.41	119	100	258	15.878
17. Austria	505	0.11	0.20	21	51	50	709
18. Italia	2.433	0.31	0.17	54	34	217	2.334
19. Zeelanda Berria	165	0.23	0.23	27	32	2	..
20. Alemania	6.784	0.42	0.28	96	68	350	7.371
21. Espainia	1.961	0.20	0.23	23	37	165	1.208
24. Grezia	362	..	0.21	..	26	17	..
27. Portugal	230	0.24	0.22	18	25	24	476
GLB GUZTIRA	69.029	0.33	0.25	72	70	..	..

(*) GLB, Garapenerako Laguntza Batzordea. Iturria: PNUD "Giza Garapenaren 2005eko Txostena" www.undp.org/hdro

(**) ZHHP: Zorrik handieneko herri pobreen (ZHHP) zorra murrizteko ekimena zorra arintzeko mekanismoa da, eta NMFk eta Munduko Bankuak ikuskatzen dute. Europar Batasunaren bidez egindako promesak biltzen ditu.

2000ko %0,10etik (BPGri dagokionez) 2004ko %0,16ra baino ez da hazi (gainerako dohaintzagileen zifrak baino nahiko baxuagoak). Gainera, hazkunde horren %40 baino gehiago Irakera bideratu da.

Halaber, premiazko beharrian batzuk aipatzen dira. Izan ere, Alemaniak eta Italiak berriro aztertu beharko dituzte euren gastuaren planak, garapenerako laguntzari dagokionez, baldin eta Europar Batasunaren helburua bete nahi badute: 2010 baino lehen BPGren %0,51 nazioarteko laguntzara bideratzea. Japoniak eta Amerikako Estatu Batuek esan dute laguntza gehiago eman nahi dutela, baina hazkundeak handiagoak izan ezik euren BPGren %0,18 baino ez dute emango laguntzarako (2010ean), eta zifra hori beste edozein dohaintzagileren zifra baino txikiagoa da.

Egoera hori ikusita, Giza Garapenaren 2005eko Txostenak proposamen batzuk egiten ditu laguntzako programak hobetzeko, nazio mailako giza garapenaren lehentasunei lotuta, herri jasotzaile bakoitzari dagokionez:

- 2015 baino lehen BPGren %0,7ko laguntza lortzeko kronograma finkatzea: dohaintzagileek gutxienez %0,5eko aurrekontu-konpromisoak finkatu beharko dituzte 2010erako, 2015eko helburua lortzeko.
- Aurreikusteko moduko eta urte anitzeko finantziario ematea, gobernu-programen bitartez: asko handiagoko helburuak finkatu beharko dituzte laguntza jario egonkorra emateko, eta horiek, berriz, sistema nazionalen bidez bideratuko dira. 2010 baino lehen, laguntzaren %90 (gutxienez) hitzarturiko kronogramen bidez eman beharko da.
- Baldintzak hobetzea: funtsezkoagoak diren alderdietara bideratu behar dira, eta gainera, eskaturiko neurriak berrikuntza programetan txertatuta egongo dira, alderdi biek erabakitako programetan, baina programa horiek herri bakoitzak zuzenduko ditu.
- Baldintzaturiko laguntza ezabatzea: dohaintzagileek ezarritako kostubidezko baldintzen eraginez, sarritan, dirua ez da eraginkortasunez gastatzen, eta batzuetan jatorriko onuradunengana ere ez da heltzen.
- Iraunkortasunik gabeko zorpetzea konpontzea: zorren zerbitzuaren betebeharrak herri zordunen ordainketa gaitasunarekin amortizatu behar da, Milurtekoko Garapenaren Helburuak lortzeko aurrerapausoak oztopatu barik.

1.3. Zorraren zama

Kanpo-zorraren zama oztopo nagusienetarikoa da, Hegoaldeko herriek Milurtekoko Garapenaren helburuak bete ahal izateko; izan ere, horren zerbitzuak xurgatu egiten ditu herriok garapeneko funtsezko programak garatzeko dituzten baliabide urriak. Zorraren zerbitzuak gutzitzeko esportazioak eta garapenerako laguntza gainditzeko dituzten herriak, eta horrela, eraginpeko herriak kapital-esportatzaileak dira: harrigarria¹.

Munduko Bankuko datuek agerian jarri dutenez, 2001ean garapen bideko herriek AEBko 2.332 bilioi (milioika milioi) dolarreko zorra zuten pilatuta. Zifra hori, 2000tik, murrizten ari da, baina 90eko hamarkadan izandako hazkunde gogorra oraindik ez da inondik inora ere konpentsatu.

ZORRAREN ZERBITZUA, ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOEN EHUNEKOTZAT

	1992	1997	2002	Ald. erlatib./ ohiko desb. 92-02	Ald. erlatib./ aldak. koef. 95-02	Aldak. % 1992-2002
Mundua	15,93	14,20	14,88	0,03	0,11	-6,59
Herri garatuak	8,96	12,22	15,82	-0,32	-0,61	76,56
Garapen bideko herriak	16,57	15,23	14,68	0,13	0,27	-11,40
Afrika iparraldekoa	25,13	17,50	15,90	-0,48	-0,18	-36,72
Sah. Hegoald. Afrika	16,89	14,59	11,27	-0,13	0,30	-33,27
Am. Lat. eta karibea	19,61	19,39	20,49	0,39	0,33	4,48
Asia ekialdea	13,75	9,25	7,45	-0,79	-0,61	-45,81
Asia erdialdea	12,94	15,69	9,01	-0,41	-0,15	-30,37
Asia hego-ekialdea	13,86	10,54	13,73	-0,05	-0,04	-0,93
Asia mendebaldea	12,62	13,25	20,96	0,97	0,19	66,08
Ozeania	8,92	6,24	2,90	-1,00	-1,00	-67,48

Iturria: Gimeno, Juan A., Nazio Batuen datuetan oinarrituz. Geuk landuta.

¹ Gimeno, Juan A: "Los Objetivos del Milenio: Estado y perspectivas". Ekonomi gerizan 13. zenb. FCAVN, 2005.

Zorraren zerbitzua, ondasunen eta zerbitzuen esportazioen ehunekotzat, apur bat murriztu egin da azken hamar urteotan, baina joera orokorrak eskualdeen arabera desorekak ezkutatzeko ditu. Amerika Latinoak eta Karibek eta Asia Mendebaldeak esportazioen %20tik gorako zama dute, eta gainera, horrek goranzko joera dauka; Afrika Iparraldean eta Asia Mendebaldean, berriz, aurkakoa gertatzen ari da. Halaber, zorraren zerbitzua, 2003an, garapen bideko BPGren %4,7koa zen, eta hazi egin zen 1990ari dagokionez, urte horretan %4,3koa baitzen. Hori murriztu egin da garapenik urrienerako herrietan (%3,1etik %2,1era igaro da), baina Amerika Latinoko eta Karibeko herrietan hazkunde itzela izan du: 1990eko %4tik 2003ko %8,6ra igaro da. Asia Mendebaldean ere gora egin du eta %2,3tik %2,9ra igaro da.

Zorrik Handieneko Herri Pobreen Ekimenak (ZHHP), orain arte, aurrerapausotxo eman du egoera horretan. Nazioarteko Moneta Fondoak 2004ko abuztuan emandako txostenean esaten denez, 38 herrietatik 27k ekimen hori aukeratu zuten, eta horietatik 14k murriztu egin zuten euren zorraren zerbitzua, 3.700 dolarretatik 2.400 dolarretara, 1998-2002 aldian. Gainerako 13ak segurutik hurrengo urteetan hasiko dira zama murrizten, baldin eta Munduko Bankuak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

1.4. Bidalketen munduko jarioa, pobreziaren aurkako armatzat

Gaur egun, munduan 200 milioi emigrante inguru daude, hau da, munduko biztanleria osoaren %3 emigranteak dira. Munduko Bankuak "Perspektiba ekonomiko orokorrak 2006" txostenean dioenez, pertsona horiek jatorrizko herrietara mundu osoan bidaltzen dituzten 197.000 milioi euroekin atzerriko kapitalaren iturri nagusia eratzen da herri pobre askotan, eta hori garapenerako programak finantzatzeko itxaropenik handiena da.


Txosten horretan esaten denez, migrazioak ongizate hazkunde handia sor dezake emigranteentzat, horien familientzat eta jatorrizko nahiz helmugako herrientzat; gainera, lan-indarra emigrazioarekin %3 handituta (14,2 milioi pertsona inguru), munduko aberastasuna %0,6 handiagoa izan daiteke 2025erako (302.747 milioi euro), eta horren %14,3 herri aberatsetara joango da eta gainerako %85,7 garapen bideko herrietara.

Mundu osoko diru-bidalketak 200.000 milioi eurokoak izan dira 2005ean, eta 1980an 15.307koak izan ziren. Hortik, herri pobreek 142.019 milioi jaso dituzte, eta zenbateko horrek %100ean baino gehiagotan gaintitzen du garapenerako laguntza maila. Gainera, diru-bidalketa horien %30,45 garapen bideko herrien artean egiten dira, eta ehuneko hori %50ekoa izan daiteke, aintzat hartuta bide informaletatik egindako bidalketak; horrela, finantza-jario horiek herri pobre askoren atzerriko kapitalaren iturririk handienak izan daitezke².

Munduko Bankuak dioenez, kapital jarioen kasuan ez bezala, diru-bidalketak egonkorrak izaten dira, baita moteltze ekonomikoari edo krisiari loturiko aldietan ere. Orokorrean, bidalketak herri pobreen inportazioen %6,7koak dira eta euren barne-inbertsioaren 7,5ekoak.

Emigranteen fondoen jasotzaile nagusia India da (2005ean 18.454 milioi euro), eta gero Txina, Mexiko eta Filipinak. BPG aintzat hartuta, rankingaren lehenengo postuan Tonga dago (%31,1), eta gero Moldavia (%27,1), Lesotho (%25,8) eta Haiti (%24,8) daude. Lotura estua dago fondoen bidalketa horien eta herri batzuen pobrezia

BIDALKETAK JASOTZEN DITUZTEN 20 HERRI NAGUSIAK, BERTAKO BPGREN %-TAN (2005)



Iturria: Munduko Bankua eta NMF.

² Pozzi, S: "Un arma eficaz contra la pobreza". El País, 05.11.20.

murritzaren artean: Uganda (%11), Bangladesh (%6) eta Ghana (%5). Hala eta guztiz ere, Munduko Bankuak dioenez, bidalketa horiek garapen programen osagarritzat hartu behar dira; gainera, bidalketa-kostak murrizteko go-

mendioa ematen du, bide formalen erabilera sustatzeko (txostenak dioenez, bidalketa-zerbitzuen agentziek aplikatzen dituzten komisioak transferentzien balioaren %15era artekoak izaten dira).

2

EAEko garapenerako laguntza

2.1. Garapenerako lankidetza eta laguntza fondoa (GLLF). 2005eko datuak

Garapenerako lankidetza instituzionala, EAEn, Garapenerako Lankidetza eta Laguntza Fondoaren (GLLF) bidez bideratzen da, eta horren zuzkiduran Eusko Jaurlaritzak hartzen du parte; halaber, udaletako eta Foru Aldundietako lankidetza programak daude, eta horietan zenbateko gehigarriak bideratzen dira, beste fondora bideraturikoei dagokienez.

2005ean GLLFk 107 proiektu finantzatu zituen eta horien zenbatekoa 22,5 milioi eurokoa izan zen. Zenbateko horrek %6,4ko hazkundea izan du 2004ari dagokionez, eta fondo hori dekretu baten bidez⁴ zuzkituriko 25,9 milioi euroen %70,5ekoa da; zenbateko hori 2004koa baino 3,4 milioi euro handiagoa da.

2005eko deialdira aurkezturiko 267 proiektuetatik (52,4 milioi euroko eskabidea) 107 proiektuen dirulaguntza ebatzi zen (22,5 milioi euro); horrela, proiektuen onepen maila murriztu egin da 2005ean; izan ere, aurreko urteko %46,2tik %40,1era igaro da, proiektu kopuruari dagokionez, eta %47,9tik %43ra, fondoaren bolumenari dagokionez. Proiektu bakoitzeko emandako laguntzaren batez besteko zenbatekoa 210.200 eurokoa da, 2004an baino %9,4 gehiago.

Garapenerako proiektuetarako 22,5 milioi euroak ez ezik (Dekretuko I., II. eta III. kapituluak), 2005ean 3,4 mi-

lioio euro eman dira larrialdiko laguntzetarako, eta zenbateko hori urte osoan gauzatzen da, giza laguntzaren beharrian zehatzen arabera. Zenbateko hori 2004an horretara bideraturikoa baino %142 aldiz handiagoa da. Herrien arabera, aipagarriak dira Indiarra (582.630€), Sri Lankara (443.520€) eta Kongoko E. Demokratikora (360.740€) bideraturiko dirulaguntzak.

LARRIALDIKO LAGUNTZAK. EUROAK MILATAN

	2004	2005
Iran	150,00	
Angola	150,80	214,13
Txad	100,00	200,00
Maroko	64,88	
Dominikar Errep.	100,00	
Bolikosta	80,27	
Zambia	436,37	
Sudán	120,00	158,80
Haiti	149,43	60,00
Sierra Leona		250,00
Irak		225,00
Palestina		155,12
Libano		150,00
Mexiko		127,87
India		582,63
Kongoko E. Dem.		360,74
Kuba		218,95
Sri Lanka		443,52
Guatemala		90,00
El Salvador		90,01
GUZTIRA	1.351,76	3.386,78

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza.

⁴ Apirilaren 5eko 70/2005 Dekretuak GLLFren 2005erako deialdia arautu du.

GARAPEN LANKIDETZARAKO LAGUNTZEN JASOTZAILEAK. EUROAK

	2004				2005			
	I., II. eta III. kapituluak*		Larrialdiko laguntzak	GLLF guztira*	I., II. eta III. kapituluak*		Larrialdiko laguntzak	GLLF guztira*
	eskatuta	emanda			eskatuta	emanda		
Afrika	6.642.265,4	3.858.140,4	952.326,4	4.810.466,9	8.050.443,5	3.581.911,0	1.183.677,7	4.765.588,7
Amerika	32.114.099,4	14.115.244,9	249.434,0	14.364.678,9	35.102.915,6	15.077.088,6	646.830,3	15.723.918,9
Asia	1.878.940,8	1.018.349,2	150.002,4	1.168.351,6	3.892.685,7	704.816,6	1.556.270,5	2.261.087,1
Europa	3.482.546,9	2.150.039,4		2.150.039,4	5.329.615,5	3.132.262,9		3.132.262,9
GUZTIRA	44.117.8582,4	8.441.774,0	1.351.762,7	22.493.536,7	52.375.660,2	22.496.079,0	3.386.778,5	25.882.857,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza.

(*) I. kapituluak: GGKEek eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuek aurkezturiko garapen lankidetzarako proiektuak.

II. kapituluak: Beste erakunde batzuek garaturiko produkzio garapeneko, heziketako eta laguntza teknikorako proiektuetarako laguntzak.

III. kapituluak: GGKEek eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuek aurkezturiko garapen hezkuntzarako proiektuetarako laguntzak.

GARAPENERAKO LAGUNTZA PROIEKTUAK ETA ZENBATEKOAK (GLLF)

		2001	2002	2003	2004	2005	% 03-04	% 04-05
Proiektuak	Aurkeztuta	266	340	325	238	267	-26,8	12,2
	Onetsita	135	133	130	110	107	-15,4	-2,7
	Aurkeztuta / onetsita (%)	50,8	39,1	40	46,2	40,1	15,5	-13,2
Zenbatekoak (euroak milatan)								
		52.485	71.584	62.040	44.118	52.376	-28,9	18,7
		23.743	23.745	23.735	21.142	22.496	-10,9	6,4
		45,2	33,2	38,3	47,9	43,0	25,1	-10,2
B. besteko zenb. Emandako proiektuak		175,9	178,5	182,6	192,2	210,2	5,3	9,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza.

Eremu geografikoei dagokienez, laguntzarik gehienak Amerikara (GLLFko guztizkoaren %60,8 eta garapenerako proiektuetarako %67), Afrikara (fondoaren %18,4 eta %15,9, hurrenez hurren) eta Asiara (proiek-

tuetarakoen %13,9 eta laguntza guztien %12,1) doaz. Europak, bestalde, proiektuetarako laguntzen %13,9 jasotzen ditu, baina ez du larrialdietarako laguntza-fondorik jasotzen.





EAEko legegintza jardura, 2005ean, aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da: Eusko Legebiltzarrak bost lege onetsi ditu, 2004an onetsitakoaren erdia.


- **1/2005 LEGEA, otsailaren 4koa, lurzoruaen kutsadura aurreikusteari eta zuzentzeari buruzkoa.**

Lurzorua, gizateriak gogokoen duen baliabide naturale-tariko bat, funtsezko elementua da eta giza jarduerarik

gehienen euskarria osatzen du. Baliabide horren funtzionaltasun anitzaren eta erabilgarritasun mugatuaren ondorio garrantzitsu bat (eta berorren narriaduraren eragile nagusienetariko bat) lurzoruaen erabilera desberdin gero eta gehiago egotea da.

Etorkizunerako erronka, lurzorua hainbat urtetan modu desegokian erabili ondoren (alarmarako lehenengo

LEGEBILTZARRAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LEGEGINTZA JARDURA



Iturria: Geuk landuta, EHAA oinarrituz.



zantzuak sorrarazi dituzten erabilerak), erabilera horiek modu iraunkorrean garatu ahal izatea da, baliabide natural, urri eta berriztaezin hori arriskuan jarri barik; izan ere, lurzorua ez da erraz berriztatzeko modukoa eta jarduketa antropikoaren gero eta eragin handiagoa dauka; horrek bere ezaugarri fisikoak, kimikoak nahiz biologikoak nahasi eta, batzuetan, aldaketa larriak eragiten ditu.

Beharrezkoa da, horrenbestez, kalteak aurreikusteko eta zuzentzeko aukera ematen duten soluzioak eskaintzea, arazoa etorkizuneko belaunaldietara ez iristeko.

- **2/2005 LEGEA, otsailaren 17koa, Euskadiko 2005-2008 Estatistika Planari buruzkoa.**

Euskal Autonomia Erkidegoko estatutuan ezarritakoaren arabera, EAEk estatistikaren arloko eskumen eskusiboa dauka, bere helburuetarako eta eskumenetarako. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika jarduera arautzen du, eta gainera, jarduera hori garatzeko antolaketa sortu eta lurralde historikoetako nahiz beste erakunde publiko batzuetako estatistikak arautzen ditu.

Hala eta guztiz ere, estatistika jardueraren arauketa ez da arau horretan agortzen; izan ere, jarduera hori arautzeko tresna Euskadiko Estatistika Plana izango da; horrek bere indarraldian egingo diren estatistikak eta antzeko jarduerak jasoko ditu, eta lege baten bidez onetsi

beharko da. Urteroko estatistika programen bidez garturiko lehenagoko planek (1989-1992, 1993-1996, 1997-2000 eta 2001-2004) aldi bakoitzean egin beharreko estatistikak adierazi dituzte, baita horiek egiteko pertsona eta horretarako baldintza teknikoak ere. Plan horietariko azkenaren indarraldia laster amaituko da, eta beraz, Eusko Jaurlaritzak plan berri bat onetsi beharko du.

- **3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Laguntzari eta Babesari buruzkoa.**

Lege horrek, EAEn lehenengoz, erreferentziako marko orokorra ezartzen du arlo honetan. Orain arte, Erkidegoko erakunde komunak legegintza jarduera, haurren eta nerabeen laguntzaren arloan, euren eskumeneko arloetako alderdi zehatzen arauketara mugatu da (adibidez, osasunaren eta hezkuntzaren arloan). Beste arlo batzuek, talde oso zaurgarri horren eskubideak sustatzeko eta babesteko garrantzi handikoak izan arren, ez dute arauzko garapenik izan. Horixe gertatu da arriskuko edo babesik ezari loturiko egoeran dauden haurren eta nerabeen babesaren kasuan, baita adin txikiko urratzaileen gizarte nahiz heziketa arretaren kasuan ere.

Lege honek hutsune juridiko hori bete nahi du, jarduketa printzipioak eta eskumen nahiz erakunde arloa zehaztuta. Halaber, testu bakarrean bildu nahi du arauzko beste tresna batzuek (autonomikoak, Estatukoak eta nazioartekoak) haurren eta nerabeen alde onartzen dituzten oinarriko eskubideak; hain zuzen ere, adminis-

trazio jarduketa arautu behar duten printzipioen inguruko legeria sortu nahi du, eskubide horien benetako erabilera sustatzeko eta defendatzeko.

• **4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoa.**

Emakumeek eta gizonen gizartean izan duten eginkizuna aldaketa handia jasaten ari da. Emakumeek lan merkatuan duten partaidetza handiagoa, hezkuntza maila guztietan egotea, heziketa nahiz kultura eskuratzeta eta, neurri batean, erabaki-hartzeen eremuetan sartzeta: horren guztiaren eraginez, gizartean aldaketa onak sortu dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bidean aurrerapausoak emateko.

Hala eta guztiz ere, lan merkatuari, partaidetza sozio-politikoari, etxeko lanak egiteari, emakumeen aurkako indarkeriari, pobrezari eta abarri buruzko datuek oraindik ere hierarkizatzeko nabaria adierazten dute gizonen eta emakumeen harremanetan eta gizarte posizioan; hori, izan ere, sexuaren arabera estereotipoen eta jarraibide soziokulturalen eraginezkoa da, horiek etxeko gauzen ardura eta gizonen arlo publikoaren barruko erantzukizuna ematen baitiete, balorazio eta onarpen ekonomiko nahiz sozial desberdinean oinarrituz. Horri dagokionez, Lege horrek mekanismo eta neurri zehatzak planteatzen ditu, EAEko herri administrazioek politika eta jarduketa zorrotzagoak garatzeko eta, horrela, egi-

turazkoa nahiz unibertsala den fenomeno hori ezabatatzeko. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna.

• **5/2005 LEGEA, abenduaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2006ko Aurrekontu Orokorrak onesteari buruzkoa.**

Onetsitako bost legeetatik bi Euskadiko CESen aurretiazko irizpena izan zuten:


1/2005 LEGEA, otsailaren 4koa, lurzorua kutsadura aurreikusteari eta zuzentzeari buruzkoa (irailaren 30eko 5/2003 irizpena).

3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Laguntzari eta Babesari buruzkoa (abenduaren 14ko 5/2000 irizpena).

Urte honetan ere, 2005ean ez da lege gintza dekreturik eta lege dekreturik onetsi. Gainera, Eusko Jaurlaritzak onetsitako dekretu kopurua 482,270ekoa izan da, 2004an baino 270 gehiago.

Bestalde, EAEko Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien lege gintza jardura, onetsitako foru arauetan oinarrituz neurtutakoa, desorekatua izan da. Hain zuzen ere, Araban 56 foru arau onetsi dira (2004an 29), Gipuzkoan 22 (aurreko urtean 9) eta Bizkaian, azken urteotan Batzar Nagusiek onetsitako foru arauen kopururik txikiena izan ondoren, 14 (2004an baino 12 gehiago).

LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIEK ONETSITAKO FORU ARAUAK



Iturria: Geuk landuta, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Lurralde Historikoetako Aldizkari Ofizialetan oinarrituz.